

# 2025

## **UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK**

Ogasun Saila



Ayuntamiento  
De Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## 2025EKO ORDENANTZA FISKAL ETA PREZIO PUBLIKOAK

0	ZERGEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTELAKO DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRA.....	5
1	ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA .....	65
2	TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA .....	83
3	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA .....	91
4.	HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	97
5	EKONOMI JARDUEREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....	107
6.1	HIRIGINTZA LIZENTZIA ETA ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	139
6.2	JARDUERAK LEGEZTATZEKO GAITZE-AGIRIAK TRAMITATZEKO ZERBITZUARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	143
6.3	HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA SUNTSITZEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	149
6.4	PREBENTZIO ETA SU ITZALTZE ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	159
6.5	IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENDU ETA HORRETARAKO EGOKITUTAKO BILTEGIETAN GORDETZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	165
6.6	UDALAREN HIRIGINTZA KUDEAKETAREN KOSTU OROKOR ETA ADMINISTRAZIO KOSTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	169
6.8	ETXEKOAK EZ DIREN HONDAKIN-URAK ESTOLDA-SARERA ISURTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK .....	173
6.9	HONDAKINAK UDALAREN TRATAMENDU LANTEGIETAN HUSTU ETA TRATATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	189
6.11	UDAL LANGILE ETA MATERIALEKIN EMANDAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	193
6.12	HILETA-ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	195
6.13	AZOKEN, INGURUMENAREN ETA OSASUNGARRITASUNAREN ALORREKO IKUSKAPENAREKIN, LABORATEGIAREKIN ETA ANALISI KIMIKO ETA ANTZEKOEKIN ZERIKUSIA DUTEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	201
6.14	TXOSTENAK, ATESTATU, ARGAZKI ERREPRODUKZIOAK, FOTOKOPIAK, KARTOGRAFIA PLANOAK, TOPOGRAFIA DATUAK ETA ANTZEKOAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	215
6.15	IBILGAILUAK DESINFECTATZEKO UDAL PARKEKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	221
6.16	GASTEIZKO AUTOBUS GELTOKIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA.....	223
6.17	LURZORUAREN KUTSADURAREN PREBENTZIOAREN ETA ZUZENKETAREN ALORREKO TXOSTENAK EGIN ETA KONTSULTEI ERANTZUTEARI DAGOZKION TASAK.....	233
7.1	ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN JARRITAKO SALTOKI, BARRAKA, SALMENTA-ETXETXO, IKUSKIZUN EDO JOLAS-INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....	235

<b>7.2 BIDE PUBLIKOAN KIOSKOAK JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....</b>	<b>241</b>
<b>7.3 BIDE PUBLIKOAN MAHAIK, AULKIAK ETA ABAR JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>243</b>
<b>7.4 IBILGAILUAK ERAIKIN PARTIKULARRETAN SARTZEAGATIK ETA ALDI BATERAKO APARKALEKU-ERRESERBENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....</b>	<b>247</b>
<b>7.5 BIDE PUBLIKOAN EDO AUZO-LURRETAN ERRETEN EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK ETA, ORO HAR, BIDE PUBLIKOKO ZOLADURA EDO ESPALOIAK URRATZEAGATIK NAHIZ BERTAN HESIAK, HABEAK, ASTOAK NAHIZ ALDAMIOAK JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....</b>	<b>255</b>
<b>7.6 HIRIKO TRAFIKOA ETA IBILGAILUEN APARKALEKUAK ARAUTU ETA KONTROLATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>259</b>
<b>7.7 BIDE PUBLIKOKO LURZORU, LURPE ETA GAINAK OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>267</b>
<b>7.8 INTERES OROKORREKO HORNIKUNTZA-ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK EGITEN DUTEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>271</b>
<b>7.9 BIDE PUBLIKOAREN GAINEKO EDO FATXADA-LERROTIK KANPOKO TRIBUNA, OLANA, BALKOI, ERROTULU, BEHATOKI ETA ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>277</b>
<b>7.10 HILERRIAN ERAIKUNTZAK LAGATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....</b>	<b>281</b>
<b>7.11 KULTUR ETA BILTZAR EKIPAMENDUAK, EKIPAMENDU POLIFUNTZIONALAK ETA GIZARTE ETXEAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.....</b>	<b>285</b>
<b>7.13 AZTERKETA-ESKUBIDEENGATIK ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.....</b>	<b>305</b>
<b>7.14 TAXI GIDARI IZATEKO UDAL BAIMENA ESKURATZEKO AZTERKETA EGITEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.....</b>	<b>309</b>
<b>7.15 HERRITARREN UDAL TXARTELA JAULKITZEA.....</b>	<b>311</b>
<b>7.16 BIZAN SAREKO ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK. ....</b>	<b>313</b>
<b>7.17 ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA, URA ETA HIDROKARBURUAK GARRAIATZEKO INSTALAZIOENTZAKO JABARI PUBLIKO LOKALAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. ....</b>	<b>315</b>
<b>8.1 UDALAREN HAUR ESKOLETARA JOATEAGATIK ETA HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.....</b>	<b>325</b>
<b>8.2 "LUIS ARANBURU" UDAL MUSIKA ESKOLAREN ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA .....</b>	<b>329</b>
<b>8.3 GIZARTE POLITIKEN SAILAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK.....</b>	<b>333</b>
<b>8.4 UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.....</b>	<b>351</b>
<b>8.5 UDALAREN FOLKLORE AKADEMIAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.....</b>	<b>365</b>
<b>8.6 "JOSÉ URUÑUELA" UDAL DANTZA KONTSERBATORIOAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA .....</b>	<b>369</b>
<b>8.7 GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE-ETXEEN SAILARI ATXIKITAKO HERRITARREN PARTAIDETZAREN ZERBITZUAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.....</b>	<b>372</b>

<b>8.8 EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILAREN LANAREN BIDEZKO LANBIDE-PRESTAKUNTZARAKO NAHIZ ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>377</b>
<b>8.10. UDALAREN Wi-Fi BIDEZKO KOMUNIKAZIO SAREAK BALIATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>383</b>
<b>8.11 ARGITALPENENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>385</b>
<b>8.12 UDALAREN ENPRESA ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>387</b>
<b>8.13 UDAL ZENTROETAKO JARDUERA ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>389</b>
<b>8.14 EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>399</b>
<b>8.15 INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU ETA JARDUEREN PREZIO PUBLIKOA.</b>	<b>401</b>
<b>8.16 GASTEIZKO AUTOBUS-GELTOKIKO LURRAZPIKO PARKINGA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.</b>	<b>403</b>
<b>8.17 BIZIKLETA-APARKALEKU SEGURUA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.</b>	<b>405</b>
<b>8.18 BISITA TURISTIKO GIDATUEN PREZIO PUBLIKOAK.</b>	<b>407</b>
<b>8.19 AUTOKARABANENTZAKO EREMUA ETA BERTAKO ZERBITZUAK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.</b>	<b>409</b>
<b>9. KONTRIBUZIO BEREZIEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA.</b>	<b>411</b>



**0 ZERGEN ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTELAKO DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRA**

- **SARRERA**
- **I. ATALA:** XEDAPEN OROKORRAK
  - 1. art.- Xedea ..... 9
  - 2. art.- Aplikazio eremua ..... 9
- **II. ATALA:** ZERGADUNAREN ESKUBIDE OROKORRAK
  - I. KAPITULUA: Printzipio orokorrak
    - 3. art.- Printzipio orokorrak ..... 10
  - II. KAPITULUA: Zergadunaren eskubide orokorrak
    - 4. art.- Ebatzi beharra ..... 11
    - 5. art.- Prozeduren izapidetze-egoera ..... 11
    - 6. art.- Prozedurak izapidetzeko arduradunak identifikatzea .....12
    - 7. art.- Aitorpenak eta dokumentuak aurkeztu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak eta kopiak ematea ..... 12
    - 8. art.- Prozeduretako hizkuntza ..... 12
    - 9. art.- Agiriak aurkeztea ..... 12
    - 10. art.- Zerga-administrazioak eskuratutako informazioaren isilpeko-izaera eta administrazioaren artxibo eta erregistroetan begiratu ahal izatea ..... 12
    - 11. art.- Begirunezko tratua ..... 13
    - 12. art.- Eskubideak gauzatzea erraztu beharra dauka Administrazioak ..... 13
    - 13. art.- Alegazioak ..... 13
    - 14. art.- Interesdunari entzunaldia ematea ..... 13
  - III. KAPITULUA: Ikuskapen-prozedurako eskubide eta bermeak
    - 15. art.- Ikuskapen-planak ..... 13
    - 16. art.- Egiaztatzeko eta ikertzeko jardunbideak hastean argibideak ematea ..... 13
    - 17. art.- Egiaztatzeko eta ikertzeko jardunbideen norainokoa ..... 14
    - 18. art.- Epea ..... 14
  - IV. KAPITULUA: Zigortze-prozedurako eskubide eta bermeak
    - 19. art.- Fede onaren presuntzioa ..... 14
- **III. ATALA:** PROZEDURA
  - 20. art.- Alderdi orokorrak ..... 14
  - 21. art.- Ebazteko epeak eta berariazko ebazpena ez ematearen ondoreak ..... 15
  - 22. art.- Dosierrak izapidetzea ..... 16
  - 23. art.- Ebazteko epeak ..... 16
- **IV. ATALA:** KUDEAKETA-ARAUAK
  - **I. AZPIATALA:** ZERGEN KREDITUEZ
    - I. KAPITULUA: Aldizkako epemuga
      - 24. art.- Erroldak onartzea ..... 18
      - 25. art.- Egutegi fiskala ..... 18
      - 26. art.- Jendaurrean jartzea ..... 19
      - 27. art.- Kobrantza iragarkiak ..... 19
      - 28. art.- Altengatik sortutako likidazioak ..... 19

▪	II. KAPITULUA: Aldizkakoa ez den epemuga	
•	29. art.- Likidazioak egitea .....	20
•	30. art.- Aitorpenak aurkeztea .....	20
•	31. art.- Likidazioak jakinaraztea .....	21
•	32. art.- Bertaratuta jakinaraztea, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz.....	22
▪	III. KAPITULUA: Onura fiskalak ematea eta erregimen bereziak	
•	33. art.- Eskaera .....	22
▪	IV. KAPITULUA: Berrikuspen-prozedura	
•	34. art.- Arau orokorrak.....	23
•	35. art.- Errekurtsoak jartzea .....	23
•	36. art.- Zuzenbidezko deuseztasuna eta egintza deuseztagarriak kaltegarritzat hartzea .....	24
•	37. art.- Egintzak errebokatzea eta akatsak zuzentzea	25
•	38. art.- Errekurtsoak jartzeagatik prozedura etetea.	25
•	39. art.- Prozedura eteteko beste arrazoi batzuk.....	26
•	40. art.- Prozedurak pilatzea .....	27
▪	V. KAPITULUA: Zor ez diren sarrerak itzultzea	
•	41. art.- Prozedura hastea.....	27
•	42. art.- Dosierra izapidetzea .....	27
•	43. art.- Preskribatzea .....	28
○	<b>II. AZPIATALA: ZERGAZ KANPOKO KREDITUEZ</b>	
▪	I. KAPITULUA: Prezio publikoak	
•	44. art.- Aldizka kobratzekoak .....	29
•	45. art.- Aldizkakoa ez den epemuga dutenak.....	29
•	46. art.- Ordaintzeko epea .....	29
•	47. art.- Epe exekutiboa hastea .....	29
▪	II. KAPITULUA: Bestelako kredituak	
•	48. art.- Zergaz kanpoko beste zenbait kreditu .....	29
•	49. art.- Hirigintzako jarduketetatik eratorritako diru-sarrerak.....	30
•	50. art.- Kontratzeko erantzukizunak.....	30
•	51. art.- Diru-itzultzeak .....	30
•	52. art.- Trafiko-zehapenak.....	30
•	53. art.- Diru-bilketa .....	31
•	<b>V. ATALA: DIRU-BILKETA</b>	
○	<b>I. AZPIATALA: ANTOLAKETA</b>	
▪	54. art.- Dirua biltzeko sistemak .....	32
▪	55. art.- Ordainagiriaren helbideratzea .....	32
▪	56. art.- Zergak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko bestelako sarrerak ordaintzea .....	33
▪	57. art.- Berandutze-interesak.....	34
○	<b>II. AZPIATALA: DIRU-BILKETA KUDEATZEA</b>	
▪	I. KAPITULUA: Arau komunak	
•	58. art.- Aplikazio eremua.....	35
•	59. art.- Ordaintzera behartutakoak .....	35
•	60. art.- Erantzule solidarioak.....	36
•	61. art.- Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura	37
•	62. art.- Erantzule subsidiarioak .....	37
•	63. art.- Zerga-zorren oinordekoak .....	38
•	64. art.- Zerga-egitatean hainbat titular egotea .....	38
•	65. art.- Egoitza	
•	66. art.- Ordainketa egiteko eta jasotzeko legitimazioa	39
•	67. art.- Administrazioari laguntzeko eginbeharra ....	39
•	68. art.- Ordainketa-bermeak .....	40

•	69. art.- Ondasunen atxikitzea.....	40
▪	II. KAPITULUA: Borondatezko diru-bilketaren berezitasunak	
•	70. art.- Diru-bilketaren aldiak.....	40
•	70 bis art.- Epeka ordaintzea.....	41
•	70 ter art.- Zerga-tarifa laua .....	42
▪	III. KAPITULUA: Nahitaezko diru-bilketaren berezitasunak	
•	71. art.- Epe exekutiboa hastea .....	43
•	72. art.- Premiamendu-prozedura .....	44
•	73. art.- Premiamendu-probidentzia .....	44
•	74. art.- Enbargo-eginbidea.....	45
•	74 bis art.- Banku-kontuak enbargatzea .....	46
•	74 ter art.- Soldatak, ordainsariak eta pentsioak enbargatzea .....	47
•	74 quater art.- Balioak eta bestelako kredituak, gauzak eta eskubideak enbargatzea .....	48
•	74 quinquies art.- Ondasun higiezinak enbargatzea ..	48
•	74 sexies art.- Bestelako ondasun eta eskubideak enbargatzea .....	48
•	75. art.- Bermeak betearaztea .....	49
•	75 bis art.- Enbargatutako ondasunak besterentzea .	49
•	76. art.- Berandutze-interesak.....	50
▪	IV. KAPITULUA: Geroratzeak eta zatikatzeak	
•	77. art.- Zatikatu eta geroratu daitezkeen zorrak .....	50
•	77 bis art.- Zatikatzeko edo geroratzeko aukeraren salbuespenak.....	50
•	77 ter art.- Zatikatzeko eta geroratzeko emateko baldintzak .....	51
•	77 quater art.- Diru-bilketako prozedura geldiaraztea .....	52
•	77 quinquies art.- Jarduketak zatikatzea edo geroratzea indarrean dagoenean .....	52
•	78. art.- Zatikatzeko eta geroratzeko eskaerak .....	53
•	79. art.- Geroratzeak eta zatikatzeak emateko irizpide orokorrak .....	54
•	80. art.- Bermeak .....	54
•	81. art.- Bermeen sailkapena.....	54
•	82. art.- Bermeen baldintzak .....	55
•	83. art.- Bermea jarri beharrik ez dagoen kasuak, aparteko beharra edo salbuespenekoa gertatzen denean .....	56
•	84. ar.- Zatikatzeko edo geroratzeko sortutako berandutze-interesak.....	56
•	85. art.- Zatikatzeko eta geroratzeko izapidetzea .....	57
•	85 bis art.- Zatikatzeko eta geroratzeko eskaerak ebaztea .....	57
•	86. art.- Zatikatu edo geroratu izan den ordainketa ez egitearen ondorioak.....	58
▪	V. KAPITULUA: Preskribatzea eta konpentsatzea	
•	87. art.- Preskribatzea .....	59
•	88. art.- Konpentsatzea .....	59
•	89. art.- Erakunde publikoen zorrak ofizioz konpentsatzea .....	60
•	90. art.- Erakunde publikoen zorrak kobratzea.....	60
▪	VI. KAPITULUA: Kreditu kobraezinak	
•	91. art.- Kaudimengabezia .....	60
•	<b>VI. ATALA: IKUSKAPENA</b>	
○	92. art.- Zergak ikuskatzea .....	61
○	93. art.- Ikuskatzaileak .....	62

○ 94. art.- Jarduketa-motak .....	62
• <b>LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA</b> .....	63
• <b>BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA</b> .....	63
• <b>HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA</b> .....	63
• <b>AZKEN XEDAPENA</b> .....	63

## **SARRERA**

Gasteizko Udalari komenigarri iruditu zaio ordenantza orokor bat lantzea, nahiz eta nahitaezkoa ez izan, honako arrazoi hauengatik:

1.- Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren, Diru-bilketa Araudi Orokorraren eta Zerga Ikuskaritzaren Foru Araudi Orokorraren garapenak biltzen dituzten udalaren testu arauemaile batzuk, bai eta instrukzioak, irizpideak eta barne-araudiak ere bateratzeko eta errazteko ordenantza orokor honetan.

2.- Zergen alorreko prozeduren gaineko irizpideak eta interpretazioak bateratzeko.

3.- Udalaren diru-sarrereren kudeaketarako prozedurei buruzko argibideak eta gardentasuna errazteko hiritarrei.

## **I. SEKZIOA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua.- Xedea**

1.- Honako Ordenantza Orokor hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106.2 artikuluaaren babesean ematen da.

2.- Bere arauak, bai Ordenantza fiskalen eta bai zergen eta zuzenbide publikoko diru-sarrereren kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko Barne-araudien osagai dira.

3.- Ordenantza hau honakoetarako ematen da:

a) Ordenantza fiskal zenbaiten alor komunak arautzeko, errepikatzea ekidinez.

b) Zehaztasun edo mugaketa handiagoa behar duten gaiak garatzeko.

### **2. artikulua.- Ezarpen eremua**

1.- Udala nahiz beraren erakunde autonomoak eta udal erakundeak titular diren zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrereren kudeaketan, likidazioan, bilketan eta ikuskaritzan aplikatuko da ordenantza hau, Toki Ogasunen Foru Arauan, Zergen Foru Arau Orokorrean eta horiek garatzeko xedapenetan aurreikusten denaren ildotik.

Era berean, ordenantza honen bitartez nahiz ordenantza fiskalen bitartez, Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoan jasotzen den barne-funtzionamendu propiora egokitu ahal izango du udal-administrazioek zergen alorreko foru-araudia, egokitzapen horrek delako araudiaren eduki materialaren kontra joaterik izango ez badu ere.

2.- Ordenantza honek, baita ordenantza fiskalek ere, behartu egingo dute Gasteizko udalerrian, eta erresidentzia efektiboaren eta lurraldetasunaren printzipioekin bat etorrira ezarriko dira.

3.- Ordenantza honen eta zergen ordainarazpenak arautzen dituzten Ordenantzen interpretazio eta azalpena Alkatearen Dekretuz gauzatuko da, eta Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitara emango da, nahitaez onartu beharko dutelarik Udal honetako Zergen Administrazioaren Organoek

4.- Berariazko arauetz araututako gaietarako osagarri izango da Ordenantza hau, ezartzerakoan arau mota honek lehentasuna izango duelarik.

## **II. SEKZIOA- ZERGADUNAREN ESKUBIDE OROKORRAK**

### **I. AZPI-SEKZIOA- ZERGADUNAREN ESKUBIDE OROKORRAK**

#### **I. KAPITULUA - PRINTZIPIO OROKORRAK**

##### **3. artikulua.- Printzipio orokorrak**

Ordenantza honek, bereziki, ondorengo eskubide hauek aitortzen ditu:

- a) Beren eskubideak baliatu nahiz zerga-betebeharrak betetzerakoan udal administrazioarengandik informazioa eta laguntza jasotzeko eskubidea.
- b) Ordenantza honetan aurreikusten diren baldintzetan, zerga bakoitzaren araudiaren ondorio diren diru-itzultzeak eta okerreko diru-sarreraren itzultzeak atzera ere jasotzeko eskubidea, dagozkien atzerapen-interesak gehituta, eskubidea aurkeztu beharrik izan gabe.
- c) Ordenantza honetan aurreikusten den moduan, egintza baten betearazpena eteteko edo zor baten ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko aurkeztutako abalen eta bestelako bermeen kostua itzultzeko eskubidea, egintza edo zor hori, epai edo administrazio-ebazpen irmoaren bidez, bidegabekotzat jo bada, baita aurkeztutako errekurtsu edo erreklamazioaren parte bat onetsi bada jarritako bermea dagokion proportzioan murriztekoa ere.
- d) Zergaduna alderdi den prozeduretan, izapidetze-egoera jakiteko eskubidea.
- e) Zerga-administrazioarentzat lanean ari diren eta zergaduna interesduna den zerga-kudeaketako prozedurak izapidetzeko ardura duten agintari eta pertsonen nortasuna jakiteko eskubidea.
- f) Berak aurkeztutako aitorten egiaztapena eta kopia eskatzeko eskubidea.
- g) Lehendik aurkeztuak dituen eta udal administrazioaren esku dauden agiriak berriro ez aurkezteko eskubidea, baldin eta noiz eta zein prozeduraren baitan aurkeztu zituen adierazten badu.
- h) Udalaren zerga-administrazioak jasotako datu, txosten edo aurrekariak isilpeko izateko eskubidea.
- i) Udal zerga administrazioako agintariek eta langileek begirunez eta errespetuz hartzeko eta tratatzeko eskubidea, baita tratu pertsonala eta banakakoa jasotzeko eskubidea ere.
- j) Administrazioaren jardunbideren batean esku hartu behar duenean, jardunbide horiek gaitzik txikiena egingo dioten eran eginak izateko eskubidea, baldin eta zerga-betebeharrak betetzea eragozten ez badu.
- k) Arrazoibideak eta agiriak aurkezteko eskubidea. Arrazoibide eta agiri horiek aintzakotzat hartu beharko dituzte organo aginpidedunek, erabaki-proposamen egokia idaztean.
- l) Erosi edo eskuz aldatuko diren ondasun higiezinaren balioez informazioa jasotzeko eskubidea.
- ll) Udalaren Zerga Ikuskaritzak aurrera eramaten dituen egiaztatze eta ikertze jardunbideak hastean, jardunbide horien izaera eta norainokoari buruzko argibideak

jasotzeko eskubidea, bai eta jardunbide horietan dauzkan eskubide eta betebeharrei buruzko argibideak jasotzeko eta ordenantza honetan ezarritako epeen barruan egin daitezelako eskubidea ere.

m) Entzunaldi tramitean entzuna izateko eskubidea.

n) Zerga administrazioarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea, ordenamendu juridikoan ezarri denarekin bat etorriz.

ñ) Aplikatu dakizkiekeen zerga onura edo erregimenak onesteko eskubidea.

o) Zerga administrazioaren funtzionamenduaren inguruan kexuak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.

p) Egiten dituzten adierazpenek zerga-ordainketan eragina badute, adierazpenok zerga-prozeduretan egindako eginbideetan biltzeko eskubidea.

q) Zerga administrazioari egokitzat jotzen dituzten eta bideratzen ari den zerga-prozedura ebatzeko orduan nolabaiteko munta izan lezaketen agiriak aurkezteko eskubidea.

r) Dagokion Administrazio-dosierraren baitako agirien kopia eskuratzeko eskubidea, bai dagokion zerbitzura bertaratuz, bai posta arruntaren bidez, beti ere dagokion tasa ordainduz gero.

s) Fede onez jokatu dutelako presuntziorako eskubidea.

t) Biltzen diren zergak zertan erabiliko diren jakiteko eskubidea, zerga-arautegian ezarritakoaren arabera.

u) Udal zerga administrazioak objektibotasunez jarduteko eskubidea.

v) Prozeduraren izapide guztietan aukeratutako hizkuntzan erantzuna eta informazioa jasotzeko eskubidea.

## **II. KAPITULUA - ZERGADUNAREN ESKUBIDE OROKORRAK**

### **4. artikulua.- Ebatzi beharra**

1.- Udalaren zerga-administrazioak, nahitaez, berariaz ebatzi beharra dauka ofizioz edo alderdi baten eskariz hasitako zerga-kudeaketako prozeduretan sortzen diren gai guztiak, ondorengo kasu hauetan izan ezik: jakinarazi beharrekoak besterik ez diren eskubideak gauzatzeari buruzko prozeduretan, eta iraungitzea, hasi eta gero prozeduraren gaia galtzea, edo interesdunen uko egitea nahiz atzera egitea gertatzen denean.

2.- Likidatze egintzak, balioa egiaztatzeakoak, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzen dituztenak, betebeharrak ezartzen dutenak, zerga onura bat edo zerga-kudeaketako egintzen betearazpena etetea ukatzen dutenak, eta indarrean den araudian ezartzen diren gainerakoak, arrazoituak izan beharko dira, egintzak eta zuzenbidezko oinarriak aipatuta.

### **5. artikulua.- Prozeduren izapidetze-egoera**

Zerga-kudeaketako udal prozedura bateko alderdi den zergadunak, prozedura horren edozein unetan, prozeduraren izapidetzearen egoera jakin ahal izango du. Orobat, berak

ordainduta, espedientean diren eta ebazteko garaian organo aginpidedunak kontuan hartu beharko dituen agirien kopia eskuratu ahal izango du, hirugarrenen interesei edo beste pertsona batzuen intimitateari eragiten dietenean edo legeak bestela ezartzen duenean izan ezik.

## **6. artikulua.- Prozedurak izapidetzeko arduradunen identifikazioa**

Zergadunek, prozedura aurrera daraman organoari eskaria egin ondoren, eskubidea izango dute interesdun diren zerga-kudeaketako prozedurak izapidetzeko ardura duten Udalaren zerga-administrazioako agintari eta langileen nortasuna jakiteko.

## **7. artikulua.- Aitorpenak eta agiriak aurkeztu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak eta kopiak ematea**

Zergadunek eskubidea dute aurkezten dituzten zerga-aitorpenen edo aitorpen horietan jasotako datu zehatzen egiaztatzea eman diezaieten. Orobat, agiriak zerga-administrazioari aurkeztearen eta aurkezte-dataren ondorioetarako, zergadunek eskubidea dute agiri horien kopia zigilatua eskuratzeko, baldin eta, alderatzeko, originalekin batera ekartzen badute. Eta, agiri horiek espedientean izan beharrekoak ez baldin badira, original horiek eurei itzultzea eskatu ahal izango dute.

## **8. artikulua.- Prozeduretako hizkuntza**

Zergadunek, Udalaren zerga-administrazioako organoekin dituzten harremanetan, nahi duten hizkuntza ofizialean idatzita aurkez ditzakete eskatzen zaizkien agiriak, eta Udalaren zerga-administrazioako organoek emandako agiriak hizkuntza horretara itzultzeko eskatu ahal izango dute.

## **9. artikulua.- Agiriak aurkeztea**

Dena delako zerga-kudeaketarako prozedurari aplikagarri zaion araudian eskatzen ez diren agiriak aurkezteari uko egin ahal diote zergadunek.

Halaber, lehendik aurkeztuak dituzten eta udal administrazioaren esku dauden agiriak berriro ez aurkezteko eskubidea dute, baldin eta noiz eta zein prozeduraren baitan aurkeztu zituzten adierazten badute.

Udalak, nolana ere, agiri horietan zergadunari edo besteri buruz ageri diren datuak, hau da, zergadunak lehendik emanak dituenak, berresteko eskatu ahal izango du.

## **10. artikulua.- Zerga-administrazioak eskuratutako informazioaren isilpeko-izaera eta administrazioaren artxibo eta erregistroetan begiratu ahal izatea**

1.- Udalaren zerga-administrazioak eskuratutako datuek, txostenek edo aurrekariak isilpeko-izaera daukate, eta ezin izango dizkie hirugarrenei utzi edo jakinarazi, legeetan ezarritako kasuetan izan ezik.

Datu, txosten edo aurrekari horiek jakitera iristen diren agintari eta funtzionario guztiek isiltasunik zorrotz eta osoena gorde beharra daukate horiei buruz, legeetan ezarritako kasuetan izan ezik.

2.- Aurreko atalean ezarritakoaren barruan, zergadunek aukera izango dute espediente baten barruan diren eta administrazio-artxiboetan dauden erregistro eta agirietan begiratzeko, baldin eta espediente horiek eskatzailea parte izan den eta eskaera egin duen datan bukatuak dauden prozedurei badagozkie.

### **11. artikulua.- Begirunezko tratua**

Zergadunek eskubidea dute, Gasteizko Udaleko zerga-administrazioarekin dituzten harremanetan, agintariek eta langileek begirunez eta errespetuz hartzeko eta tratatzeko.

### **12. artikulua.- Eskubideak gauzatzea erraztu beharra dauka Administrazioak**

Gasteizko Udalak, uneoro, zergadunari bere eskubideak gauzatzea eta bere betebeharrak betetzea erraztu beharko dio. Administrazioak zergadunen parte hartzea eskatzen duen jardunbiderik egiten duenean, jardunbide horiek zergadunei gaitzik txikiena egingo dien eran egin beharko dira, zergadunek beren zerga-betebeharrak betetzearekin era bateragarriak eginda, betiere.

### **13. artikulua.- Arrazoibideak.**

Zergadunek aukera izango dute, zerga-kudeaketako prozeduraren edozein unetan, entzunaldiko izapidearen aurretik, edo, edozein kasutan ere, ebazpen-proposamena idatzi aurretik, arrazoibideak aurkeztu eta agiriak zein bestelako datuak ekartzeko. Aginpidedun organoek, ebazpen-proposamen egokia egitean, aintzat hartu beharko dituzte arrazoibide, agiri nahiz datu horiek.

### **14. artikulua.- Interesdunari entzunaldia eskaintzea.**

1.- Zerga-kudeaketako prozedura osoan, interesdunari entzunaldia eskainiko zaio, ebazpen-proposamena idatzi baino lehen, bere eskubideari dagokion eran arrazoibideak aurkeztu ahal izan ditzan.

2.- Entzunaldiko izapidea alde batera utzi ahal izango da baldin eta prozeduran ageri diren eta ebazpenean kontuan hartzen diren egintza, arrazoibide eta froga guztiak interesdunak aurkeztutakoak badira.

## **III. KAPITULUA - IKUSKARITZA-PROZEDURAKO ESKUBIDE ETA BERMEAK**

### **15. artikulua.- Ikuskaritza-planak.**

Alkate lehendakariaren dekretu bidez, Hazienda, Ondare eta Aurrekontu Arloko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Ikuskaritzako Udal Plana onetsiko da. Jendeari plan horren irizpideak jakinaraziko zaizkio.

### **16. artikulua.- Egiaztatzeko eta ikertzeko jardunbideak hastean argibideak ematea.**

Zergadunek eskubidea dute, Zergen Ikuskaritzak egiaztatzeko eta ikertzeko aurrera eramaten dituen jardunbideak hastean, jardunbide horien izaera eta norainokoari buruzko argibideak jasotzeko, bai eta jardunbide horiei dagokienez dauzkaten eskubide eta betebeharrei buruzko argibideak ere.

Legez ezarritako iraungitze-epe orokorra amaitu eta gero jardunbideak hasi edo zabaltzen direnean, alde aurretik, zergadunari adierazi beharko zaio sei urteko iraungitze-epea aplikatzea eragiten duten gorabeherak gertatu direla.

## **17. artikulua.- Egiaztatzeko eta ikertzeko jardunbideen norainokoa**

Zergen Udal Ikuskaritzak aurrera daraman egiaztatzeko eta ikertzeko jardunbide baten xede den edozein zergadunek egiaztatze horrek zergari eta, bidezkoa bada, jardunbideak ukitzen dituen aldiei dagokienez izaera orokorra eduki dezala eskatu ahal izango dio zerga-administrazioari. Nolanahi ere, eskaera horrek ez ditu etengo hasitako jardunbideak. Eskaera egin eta sei hilabeteko epean hasi beharko du zerga-administrazioak izaera orokorreko egiaztatzea.

## **18. artikulua.- Epea.**

1.- Zergen Ikuskaritzak aurrera eramaten dituen egiaztatzeko eta ikertzeko zein likidatzeko jardunbideak amaitzeko gehienezko epea hamabi hilabetekoa da. Hala ere, epe hori luzatzerik izango da, hamabi hilabetetik igaro ezingo den beste aldi batez eta arauz finkatzen diren irispide eta baldintzekin, zirkunstantzia hauetakoren bat egokitzen delarik jardunbideetan:

a) Bereziki konplexuak diren jardunbideak izatea.

b) Jardunbideak aurrera eramatean ezkutuko jarduerak aurkitu izana.

2.- Baldin aurreko atalean jarritako epea betetzen ez bada, jardunbide horiengatik iraugitzea ez dela eten joko da.

## **IV. KAPITULUA - ZIGORTZE-PROZEDURAKO ESKUBIDE ETA BERMEAK**

### **19. artikulua.- Fede onaren presuntzioa.**

Zergadunek fede onez jardun dutela uste izango da. Udalaren Zerga Administrazioari dagokio zergen arloko arau-haustea egitean arau-hauslearen erruduntza dakarten gorabeherak gertatu direla frogatzea.

## **III. SEKZIOA - PROZEDURA**

### **20. artikulua.- Alderdi orokorrak**

1.- Espedienteak izapidetzea legezkotasun, ekonomia, azkartasun eta eraginkortasun irizpideen arabera izango da, hiritarrak burutu behar dituen izapideak erraztu egin beharko direlarik eta, era berean, hiritarrari erraztu egin beharko zaiolarik administrazioaren informazioarako sarbidea.

2.- Alkateak eskumenak eta administrazioaren ebazpenak sinatzea eskuordetu ahal izango ditu, zigortze-prozedurari buruzkoak direnetan izan ezik.

3.- Administrazio horretako organoen arteko eskuordetzez hartzen diren administrazio ebazpenek, gorabehera hori adieraziko dute bereziki eta eskuordetzea egin duen organoak emantzat joko dira.

4.- Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, gehienezko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, eskaria administrazio-isiltasunez baietsi dela joko da, salbu eta interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak direla eta emandako lege-mailako arau batek edo Europako erkidegoko zuzenbideko arau batek aurkakoa ezartzen duenean.

## **21. artikulua.- Ebazteko epeak eta berriazko ebazpena ez ematearen ondoreak.**

**1.** Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatuko da. Prozedurari buruzko arauetan gehieneko epea ezarri ezean, sei hilabete baino lehen ebatzi behar da.

Honela zenbatuko da epea:

- a) Ofizioz hasten diren prozeduretan, hasteko erabakia jakinarazten den egunetik.
- b) Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, agiria izapidetzeko eskumena duen administrazioaren erregistroan agiria sartzen den egunetik.

Atal honetan xedatutakoa ez da aplikatuko aitortenaren edo autolikidazioaren bidez hasten diren kudeaketa-prozeduretan, ez premiamendu-prozeduretan; hain zuzen ere, premiamendu-prozeduretako jarduketek preskribitzeko epea mugaeguneratu arte iraun dezakete.

**2.** Ebazpena jakinarazi beharra prozeduren gehieneko epearen barruan betetzat jotzeko, nahikoa izango da ebazpenaren testua osorik jakinarazteko ahalegin bat egin dela frogatzea.

Prozedura arrazoi jakin bategatik etenda dagoen aldiak (arau bidez zehaztu behar dira) eta Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion kausa bategatik gertatzen diren atzerapenak ez dira konputatuko ebazteko epean.

**3.** Ebazteko epea edo Zerga Administrazioaren jarduketek iraun dezaketen epea etetea bidezkoa izango da honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Datuak edo txostenak eskatzen zaizkienean autonomi erkidegoko beste administrazio batzuei, Estatuari, beste autonomi erkidego batzuei, toki-entitateei edo Europar Batasuneko estatuetakoa administrazioei. Datu edo txostenak eskatzean hasiko da epearen etenaldia eta horiek jasotzean amaituko da, eta gehienez ere sei hilabete iraungo du, eskatzen diren datu edo txostenak eskatzen direla. Eskaera Europar Batasunetik kanpoko estatuei egiten zaienean, epea hamabi hilabetekoa izango da.

b) Ezinbestez Administrazioak bere jarduketak bertan behera utzi behar dituztenean, ezinbesteko arrazoiak dirauen artean.

**4.** Halaber, honako hauek zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenak dira: Zerga Administrazioak bere eskumenen eremuan egiten dituen informazio-eskaerei, errekerimenduei edo agertzeko deiei zergapekoak berandu erantzutea; zergapekoak berak eskaturik jarduketak geroratu edo atzeratzea, bidezkotzat jotzen den kasuetan. Osorik betetzen ez diren eskabideak ez dira jasotzat joko zenbaketa horren ondoretarako, harik eta behar bezala bete arte, eta horren berri emango zaio interesdunari. Zenbaketa horren ondoretarako, zergapekoari egotzi ahal zaizkion atzerapenen denbora egutegiko egunetan neurtuko da.

**5.** Alderdi batek eskatuta hasten diren prozeduretan, gehieneko epea berriazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak arautegian ezarritako ondoreak izango ditu. Alde honetatik, zergak aplikatzeko prozedura guztietan berriaz arautu behar da hari dagokion presuntziozko egintzen erregimena.

Erregimena araututa egon ezean, interesdunek baietsitzat jo dezakete euren eskaera Administrazioaren isiltasuna dela-eta, Konstituzioan ezarritako eskatzeko eskubidea baliarazteko prozeduretan eta egintzak eta xedapenak inpugnatzeko prozeduretan izan ezik, honelakoetan isiltasunak eskaera ezetsiko baitu.

Prozedura zergadunari egotzi ahal zaion kausa bategatik etenez gero, Administrazioak ohartaraziko dio hiru hilabeteren buruan iraungitzat jo ahal izango duela.

**6.** Ofizioz hasten diren prozeduretan, ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe mugaeguneratzeak prozedurari buruzko arautegian ezarritako ondoreak izango ditu.

Berariazko arautegirik egon ezean, ondore hauek izango ditu:

a) Prozeduraren emaitza eskubide bat edo bestelako banakako egoera juridiko bat aintzatestea edo eratzea izan ahal bada eta Administrazioaren isiltasuna gertatzen bada, zergapekoak ezetsitzat jo ditzake prozedurak eduki ditzakeen aldeko ondoreak.

b) Prozeduraren emaitza kontrako ondorea edo karga izan ahal bada, prozedura iraungiko da.

**7.** Prozedura iraungitakoan, ofizioz edo interesdunak eskatuta adieraziko da eta jarduketak artxibatzeke aginduko da.

Prozedura iraungitzeak ez du, berez, zerga-administrazioaren eskubideak preskribatzea ekarriko, baina iraungitako prozeduretan egindako jarduketek ez dute etengo preskripzio-epea eta ez dira Administrazioaren errekerimendutzat joko Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 27. artikuluko 1. atalean ezarritako ondoretarako.

Iraungitako prozedura batean egindako jarduketak eta eskuratutako agiriak eta bestelako frogabideak haren inguruan edo beste zergapeko bati dagokionez hasitako edo geroago hasten diren beste prozedura batzuetan ere erabili ahal izango dira frogatzeko.

## **22. artikulua.- Espedienteak izapidetzea**

1.- Eskaerek ez badute indarrean dagoen legeak ezartzen dituen balditzetakoren bat betetzen, doakionari okerrak hamar eguneko epean zuzen ditzan eskatuko zaio, eta hala egingo ez balu, espedientea bestelako izapiderik gabe artxibatuz, eskaera bertan behera geratuko dela ere azalduko zaio.

2.- Euren artean identitate substantziala edo lotura estua duten prozeduren pilaketa aginduko da. Pilaketa horren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Izaera homogeneoko espedienteen ebazpenetan, espedienteak ireki zireneko ordenari jarraituko zaio.

4.- Prozeduraren bukaera konbentzionala Udalaren Osoko Bilkurak onartu beharko du.

5.- Doakionak hala eskatuta hasi diren prozeduretan, prozedurarekin aurrera egin ahal izateko agiriak eskatu bazaizkio eta hiru hilabete baino gehiago iragan bada eskaera hori bete gabe, prozedura iraungi egingo da eta jarduerak artxibatu egingo dira, hala jakinaraziko zaiolarik doakionari.

## **23. artikulua.- Ebazteko epeak.**

1.- Zerga nahiz finantza kudeaketako prozedurak eta ekonomi eskubideak aitortzeko prozedurak ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, aplikagarri den araudiak bestelako eperik finkatu ezean. Udal administrazioari berari egotz ez dakiokkeen arrazoren bategatik atzeratzen bada prozedura, luzapen hori ez da ebazteko epea kontatzeko orduan aintzat hartuko.

Atal honetan xedatutakoa ez da aplikatuko aitorpenaren edo autolikidazioaren bidez hasten diren kudeaketa-prozeduretan, ez premiamendu-prozeduretan; hain zuzen ere, premiamendu-prozeduretako jarduketek preskribitzeko epea mugaeguneratu arte iraun dezakete.

2.- Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ildotik, interesdunek Udalari zuzentzen dizkieten eskaerak ondoko epeetan eta adierazten diren ondorioekin ebatziko dira:

### ZERGEN KUDEAKETAREN PROZEDURAK

PROZEDURA	GEHIENEZKO EPEA	ISILTASUNAREN ONDORIOA
Administrazioarekiko diru-errekamazioaren aurreko berraztertze errekurtsoa, zerga lokalen alorrean toki-erakundeek emandako ekintzen aurrean.	3 hilabete	Ez onartzea
Zerga-zorrak ordaintzeko atzerapena lortzeko eta ordainketa zatika egiten uzteko prozedura, pertsona fisiko eta juridikoen eskariz	6 hilabete	Ez onartzea
Herri Ogasunaren zor eta kredituen konpentsaziorako prozedura.	6 hilabete	Ez onartzea
Zerga-zigorrek barkatzeko eskaera espedienteak izapidetzeko prozedura	6 hilabete	Ez onartzea
Ondasun higiezin aldaketa fisiko, ekonomiko eta legerarrikoen aitorpenetatik eratorritako prozedura.	6 hilabete	Ez onartzea
Ondasun Higiezin gainerako Zergan onura fiskalak emateko prozedura.	6 hilabete	Ez onartzea
Ekonomia Jardueren gainerako Zergan onura fiskalak emateko prozedura.	6 hilabete	Ez onartzea
Zerga berezietan ordaintzeko atzerapena lortzeko eta ordainketa zatika egiteko baimenerako prozedura.	6 hilabete	Ez onartzea
Ez onartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainerako Zergan onura fiskalak emateko prozedura.	3 hilabete	Ez onartzea
Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gainerako Zergan onura fiskalak emateko prozedura.	3 hilabete	Ez onartzea
Udal zerbitzu publikoengatik tasetan onura fiskalak emateko prozedura.	3 hilabete	Ez onartzea

Baldin eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/15 Legean eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren kontrakoak badira, Legean eta Arauan ezarritakoa aplikatuko da.

### FINANTZA-KUDEAKETA ETA ESKUBIDE EKONOMIKOAK ONARTZEA

PROZEDURA	EPEA	ONDORIOA
Berandutze interesak erreklamatzeko izapideak egitea	3 hilabete	Ez onartzea
Zor ez diren diru-sarrerak itzultzea	6 hilabete	Ez onartzea
Fidantzak itzultzea	3 hilabete (Eudel erako)	Ez onartzea (Eudel erako)

PROZEDURA	EPEA	ONDORIOA
	Ordenantzatan izan ezik, udalaren bideen erabileraren arabera: hilabete 1)	ordenantzatan izan ezik udalaren bideen erabileraren arabera: onartzea)
Zergazkoak ez diren zorren atzerapena eta zatikapena ematea, pertsona fisiko eta juridikoen eskariz	6 hilabete	Ez onartzea
Zergazkoak ez diren zorren konpentsazioa baimentzea	6 hilabete	Ez onartzea

#### IV. SEKZIOA- KUDEAKETARI BURUZKO ARAUAK

##### I. AZPI-SEKZIOA- ZERGEN KREDITUEZ

##### I. KAPITULUA- ALDIAN BEHINGO EPEMUGAZ

##### 24. artikulua.- Erroldak onartzea

- 1.- Ogasun eta Ekonomia Sailak egingo ditu erroldak.
- 2.- Erroldak onartzea Alkatearen esku dago.
- 3.- Eskubideak aurreko atalean aipatutako akordioa hasi ondoren aitortuko dira.

##### 25. artikulua.- Egutegi fiskala

- 1.- Orokorrean, hauek izango dira aldiaren behingo diru-sarrerak ordaintzeko epeak:

##### 2025EKO ZERGA-EGUTEGIA

Zergak	Datak
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	Martxoaren 20tik maiatzaren 20ra
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	Apirilaren 22tik ekainaren 30era
Zabor-tasa	Apirilaren 22tik ekainaren 30era
Ekonomi Jardueren gaineko Zerga (EJZ)	Irailaren 5etik azaroaren 5era
TAO (Egoiliar TAO Txartela eta Merkatari TAO Txartela)	Urtarrilaren 1.etik 31ra
Kutxazain automatikoak	Irailaren 10etik azaroaren 10era
Kirol-instalazioak	Urtarrilaren 1.etik 31ra
Haur eskolak	Hilero
Etxez etxeko laguntza, egoitzetako jangela eta egonaldiak	Hilero
Luis Aranburu Musika Eskola	Hilero
Ibilgailu-pasabideak	1. seihilekoa: martxoaren 20tik maiatzaren 20ra 2. seihilekoa: irailaren 19tik azaroaren 19ra

<b>Zergak</b>	<b>Datak</b>
Kontsezioak (sei hilean behin ordaintzekoak)	1. seihilekoa: martxoaren 20tik maiatzaren 20ra 2. seihilekoa: irailaren 19tik azaroaren 19ra
Hilerriak zaintzea	Martxoaren 14tik maiatzaren 14ra
Ustiapen bereziak (lurra nahiz lurpea okupatu eta lur sailak baliatzea)	Maiatzaren 9tik uztailaren 9ra
Industria-isurketak	Maiatzaren 30etik uztailaren 30era
Kontsezioak (urtean behin ordaintzekoak)	Maiatzaren 9tik uztailaren 9ra
Mahaitxoak	Maiatzaren 9tik uztailaren 9ra

2.- Aurreko puntuan adierazi diren ordainketa aldietako aldaketak Alkatetzak onartuko ditu Dekretuz.

## **26. artikulua.- Jendaurrean erakustea**

1.-Egutegi fiskala ezagutu ondoren, Alkateak argitaratzea aginduko du, bai Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, bai Udaleko Ediktu-taulan.

2.- Errolda fiskalak, ordaintzeko kuotak eta horiek zehazten dituzten zerga elementuak erroldan bertan dauzkatarik, jendaurrean izango dira udal bulegoetan kobratzeko aldiak hasi baino hamabost egun lehenago eta hamabost egunetan zehar.

3.- Kuotak eta bestelako zerga elementuak, dena delako erregistroetan alta emate ekintzak ez diren aldetik -aitzitik, subjektu pasiboari lehendik jakinarazitako zerga-egitate bati dagozkie-, jende guztiari batera jakinaraziko zaizkie, ediktuen bitartez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan aurreikusten denaren ildotik.

4.- Jendaurrean jarritako erroldetan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, argitaratzen diren egunetik kontatuta. Aldian-aldian mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, ordaintzeko borondatezko aldiak aurkeztu ahal izango da errekurtsua, edo hilabeteko epean, hura amaitzen den egunaren biharamunetik.

## **27. artikulua.- Kobrantza iragarpena**

Aurreko artikuluan araututako egutegi fiskalaren iragarpenak, kobrantza iragarpena argitaratzeko funtzioa bete ahal izango du.

Helburu hori bete dadin, ordenantza honen 56.1 artikuluan adierazten diren ordaintzeko moduak eta bitartekoak adierazi beharko dira.

Ohartarazpena, ordaintzeko borondatezko aldia bukatutakoan aldi betearazlea hasiko dela, eta hortik aurrera premiamendu gainordaina eta berandutze-interesak sortuko direla, Zergen Foru Arau Orokorraren 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

## **28. artikulua.- Altengatik sortutako likidazioak**

1.- Aldian behin kobratzekoak diren zergei dagokienez, likidazioa egingo da honako kasu hauetan:

a) Zerga ordaindu beharra sor dezaketen egintzak lehenengo aldiz gertatu direnean.

b) Udalak zerga-egitatea lehenengoz ezagutzen duenean, nahiz eta zerga aurretik sortua izan eta gerta litezkeen zigorren kalterik gabe.

c) Foru Arauek eta Ordenantza Fiskalek orokorrean zergaren oinarritzko elementutzat onartutakoetatik bestelakoak diren aldaketak gertatu direnean.

2.- Artikulu honetako likidazioen onarpenari eta jakinarazpenari dagokionez, hurrengo artikuluan arautzen den erregimen orokorra ezarri beharko da.

3.- Alta dagokion erroldan jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak kolektiboki jakinaraziko dira, horren berri ematen duten ediktuen bidez.

## **II. KAPITULUA- ALDIAN BEHINGOA EZ DEN EPEMUGA**

### **29. artikulua.- Likidazioak egitea**

1.- Ordenantza Fiskaletan araututako baldintzetan eta dagozkien zerga-tipoen bidez likidazioak ezarriko dira, baldin eta autolikidaziorik ezarri ez bada eta Udalak honako zerga hauen zerga-egitatea badagoela dakienean.

a) Hiriko Lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga.

b) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.

c) Zerga bereziak.

d) Zerbitzua lehenengo aldiz edo behin baino eskatzen ez deneko tasa.

2.- Aurreko puntuak aipatzen dituen likidazioak dagokion zerbitzuak burutuko ditu.

3.- Likidazioak onartzea Alkatearen esku dago, eta horretarako zerga elementuen zerrenda laburtua egingo da.

4.- Eskubideen aitorpenaren kontabilizazioa aurreko puntuak azaltzen duen onarpen-akordioa eskuratu eta gero izango da.

5.- Ofizio bidezko behin-behineko likidazioak eman ahal izango dira udal bulegoetan dauden frogak erakusten dutenean, bai zerga-egitatea burutu dela, bai aitortu gabeko elementuak daudela, bai zerga-zorraren zenbatekoa zehazteko aitortu dituzten elementuak ez beste batzuk daudela.

6.- Aldizkako ez baizik noizbehinkako diren jarduerengatik ordaindu beharreko kopuruak Alkateak edo ordeko izendatzen duen zinegotziak onetsiko ditu, dena delako Sailak egindako proposamenaren ildotik, eta Udalbatzarrari horren berri emango zaio.

### **30. artikulua.- Aitorpenak aurkeztea**

1.- Subjektu pasiboak behartuta daude lege ezarritako aitorpenak aurkeztera; betebehari ez betetzea zergen arau-haustea da.

2.- Aurreko atalean aurreikusitakoaren kalterik gabe, Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak, eta hala balegokio, Ikuskaritza Zerbitzuak aurreko atalean azaltzen diren zergen sortzapena dakarten zerga-egitateak bai ote dauden jakiteko bitartekoak ezarriko dituzte.

Helburu hori bete ahal izateko, informazioa bilduko da Notarietan, Ondare Transmisioen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Bulego Likidatzaileetan, eta baita udaleko beste bulegoetan ere.

### **31. artikulua.- Likidazioen jakinarazpena**

1.- Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen araubidea administrazio arau orokorretan 1.- Zergapekoei egin beharreko jakinarazpenen araubidea administrazio arau orokorretan ezarri da. Nolanahi ere, kontuan eduki behar dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorreko 98. eta 179.4. artikuluetan ezarritako espezialitateak.

Interesdunak baliabide telematikoak erabiltzearekin ados dagoela adierazi badu eta modu hori lehenetsi badu, jakinarazpenak telematikoki bidali ahal izango zaizkio, hurrengo 3. atalean xedatutakoa gorabehera.

Jakinarazpen sisteman jakinarazpena interesdunaren esku noiz jarri den zehaztuko da (eguna eta ordua), eta noiz irakurri den ere bai (ordutik aurrera jakinarazpena egintzat joko da ondorio guztietarako).

Interesdunak ez badu irakurtzen jakinarazpena egutegiko hogeiei egunetan, beraren esku jarri del jakinik, ezetsi egin duela pentsatuko da eta horrek foru arau honetako 107. artikuluko 2. atalean ezarritako ondorioak sortuko ditu (salbuespena: ofizioz edo jasotzaileak eskatuta jakinarazpena irakurtzerik ez dela egon egiaztatzen bada, ez dira sortuko ondorio horiek).

Zerga Administrazioak arau bidez ezarri ahal izango du ondoko interesdunek berarekin harremanak nahitaez baliabide elektronikoen bitartez eduki beharra: gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik erabil ditzaketen pertsona juridikoek eta pertsona fisikoen taldeek.

2.- Interesdunak eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egingo da, edo bataren edo bestearen zerga-egoitzan.

Ofizioz hasten diren prozeduretan, jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak adierazitako zerga-egoitzan egingo da, edo lanlekuan, ekonomia jarduera garatzen den lekuan nahiz beste edozein lekutan, baldin eta interesdunak edo haren ordezkariak jakinarazitako egintza hartu duela jasota geratzen bada.

3.- Jakinarazpena zergapekoak edo beraren ordezkariak berariaz adierazitako tokian egiten bada, edo bataren edo bestearen zerga egoitzan, eta jakinarazpena heltzean interesduna ez badago, bertan dagoen nornahik jaso ahal izango du, nor den azaldu ondoren, bai eta jakinarazpen tokia edo zergapekoaren edo ordezkariaren zerga egoitza dagoen eraikineko auzoen edo jabeen erkidegoaren enplegatu batek ere.

Jakinarazpena baliabide telematikoen bidez egiten bada, zergapekoak edo beraren ordezkariak jaso dezake, edo bestela haiek aitortpenak, autolikidazioak, eskaerak eta zergetan ondorioak sortzen dituzten gainerako agiri guztiak ordezkari gisa aurkezteko baimena ematen dioten pertsona fisiko zein juridikoek.

Interesdunak edo beraren ordezkariak jakinarazpena jaso nahi ez badu ere, egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.

4.- Dena dela ere, jaso izanaren adierazpena itzultzen dela ikustean, jakinarazlearen nortasuna ezagutzeko modua egon beharko da.

5.- Jakinarazpena ematea postaz burutu ahal izango da, udal jakinarazle bidez, edo bestela, Udalak akuratu duen jakinarazpenen banaketa Zerbitzurako enpresako langileen bidez.

6.- Zerga-oinarria deklarazioaren emaitzakoa baino handiagoa bada, ez zaio zergadunari jakinarazi beharko baldin eta aldaketa foru arauak baimendutako birbalorazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira.

### **32. artikulua.- Bertaratuta jakinaraztea, ALHAOn (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala) iragarkiak argitaratuz**

1.- Zuzenean jakinarazteko ahaleginak alferreko gertatzen badira, zergapekoari edo beraren ordezkariari zitazioa egingo zaio bertaratuta jakinarazteko, Estatuko Aldizkari Ofizialean — interesdun bakoitzeko behin bakarrik— argitaratuko diren iragarkien bitartez. Iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da eta ondokoak adieraziko dira: zergapekoa edo beraren ordezkaria; jakinarazpenak eragin dituen prozedura; izapidetzeko eskumena duen organoa; jasotzaileak nora eta noiz joan behar duen jakinarazpenak jasotzera. Nolanahi ere, hamabost egun naturaleko epean bertaratu beharko du interesdunak, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta. Aldi horretan bertaratzen ez bada, epearen mugaegunaren biharamunean gauzatutzat joko da jakinarazpena lege-ondore guztietarako.

2.- Iragarki berean hainbat zergapeko aipatu ahal izango dira, eta aurreko paragrafoan azaldutako betekizunak denei batera adierazi.

3.- Zergapekoa edo beraren ordezkaria jakinarazpena jasotzera bertaratu ez eta ondorioz prozedura baten hasiera edo beraren izapideetako bat jakinarazitzat jotzen bada, prozeduraren hurrengo jarduketak eta eginbideak ere jakinarazitzat joko dira eta bere hartan mantenduko da prozeduran zehar noiznahi bertaratzeko eskubidea.

## **III KAPITULUA- ONURA FISKALAK EMATEA ETA ERREGIMEN BEREZIAK.**

### **33. artikulua.- Eskaera**

1.- Salbuespenak, murrizketak, hobariak, kenketak eta bestelako onura fiskalak ematea, ukatzea edo luzatzea zerga bakoitzaren berariazko araudiaren arabera izango da eta araututakoa izango da, inola ere ezin izango delarik onartu parekotasuna, salbuespenen, hobarien eta bestelako onura fiskalen eremua adierazitako baldintza zehatzetatik harantzago hedatzeko.

2.- Aurkako lege-aurreikuspenik adierazi ezean, onura fiskalak emateko eskaria egin beharko da, eta eskaera Alkateari zuzenduriko instantzia bidez, eskatzaileak beharrezko iritzitako arrazoiekin batera burutu beharko da.

3.- Orokorrean, onura fiskalak emateak ez du atzera eraginik izango, eta, beraz, interesatuak eskaria egin ondoren, zergaren sortzapena gertatzen den lehen momentutik aurrera hasiko da ondorioak izaten.

Arau-haustea izango da zergen arloko onurak eskatzea horretarako garrantzitsuak diren datuak omitituz edo datu faltsuak sartuz.

4.- Pertsona fisiko edo erakunde bati modu indibidualean eta interesdunak eskatuta eman dakizkiokeen zerga arloko salbuespen, murrizketa eta hobariak edo, oro har, onura fiskalak, edo diru-laguntzak, jasotzeko eskaera guztiak ezetsi egingo dira, baldin eta subjektu pasiboak, eskaera egiteko unean, ordura arteko zerga-betebeharrak beteta ez badauzka. Ezezko ebazpenak, berariaz, arrazoi horretan izango du funtsa, eta era egokiaz jakinaraziko zaio interesdunari.

Arau honetatik Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailak Pobreziaren kontrako Planaren baitan onetsitako laguntzak salbuetsi ahal izango dira, Sailak alde zuzenetik txostena egiten duelarik.

5.- Aldi zehatz baterako emandako onura fiskalak ezin izango dira aplikatu onura horiek eskuratu dituen subjektu pasiboa bere zerga-betebeharrak erabat edo zati batean betetzean hiru hilabete baino gehiago atzeratu den ekitaldian.

Ez betetze hori urtebete baino gehiagoz luzatzen baldin bada, Administrazioak, ofizioz, onura horiek baliogabetuko ditu, zergadunak bere betebeharren bat betetzeari utzi zion unetik hasita. Geroago betebeharrak bete izanak ez du baliogabetze hori indarrik gabe uzten.

6.- Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak espedientea izapidetuko du, onura fiskala ematea edo ukatzea erabaki behar duen organoari ebazpen-proposamena aurkeztuz.

7.- Telekomunikazio operatzaileen toki zergei buruzko azaroaren 23ko 31/1998 Foru Arauaren 4. artikulua xedatutakoari jarraituz, telekomunikazio sare publikoak jartzeko lizentzia indibiduala duten telekomunikazio operatzaileek, zerbitzu publikoaren betebeharrak exijitu ahal zaizkienek, toki zergak eta prezio publikoak ordaindu beharko dituzte. Hala ere, ordaindu behar dituzten zergengatik zorrak urteko konpentsazio batez ordezkaturiko dira. Konpentsazioa operatzaile horiek udalerritik bakoitzean egiten duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen ehuneko 1,9 izango da. Erregimen berezi horrek ez du eraginik izango Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, eta zerga hori ordaintzeko, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, eta garatzeko xedapenak jasotzen dutenari jarraitu behar zaio.

8.- Bai zergetan, bai prezio publikoetan pertsona fisikoaren errentaren arabera hobariak sartzeko proposamena egin ahal izango du Tokiko Gobernu Batzarrak, Ogasun Batzordetik igaro ondoren udalbatzak onespena eman diezaion, tokiko zerga-ordainketan ekitatearen eta ekonomi gaitasunaren printzipioak aintzat hartze aldera.

#### **IV. KAPITULUA- BERRAZTERTZE PROZEDURAK**

##### **34. artikulua.- Arau orokorrak**

1.- Diru bilketaren eta zergen kudeaketaren alorrean emandako egintzen berraztertzea eta baliogabetasun aitortza, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera izango da.

2.- Inola ere ezin izango da berraztertu epailearen epai sendoz berretsitako administrazio egintzarik.

3.- Oker material, egitatezko eta aritmetikoen zuzenketa Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 227. artikuluan adierazitakoaren ildotik egingo da.

##### **35. artikulua. Errekurtsoak jartzea**

1.- Zerga Lokalen kudeaketan, erroldak onartzearen, likidazioak onartzearen edo onura fiskalak ematearen edo ukatzearen aurka, berraztertze errekurtsoa jar dezakete doakienek horiek guztiak eman zituen organoaren aurrean, beti ere errolda horien berariazko jakinarazpena egin edo erroldak jendaurrean erakutsi ziren egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Aldian-aldian mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, ordaintzeko borondatezko aldian aurkeztu ahal izango da errekurtsua, edo hilabeteko epean, hura amaitzen den egunaren biharamunetik.

2.- Berraztertzearen bidez, espedientean ageri diren egitatezko zein zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio organo eskudunari, ebatz ditzan, hala errekurtsuan aurkeztu diren arazoak nola bestelakoak. Hala ere, ezin izango da, inola ere, errekurtsogilearen hasierako egoera txartu.

3.- Berraztertzearen errekurtsuaren berariazko nahiz ustezko ezestearen kontra, berriz, administrazioarekiko diru-errekamazioa aurkeztu ahalko da, Gasteizko Organo Ekonomiko Administrazioan, hilabeteko epean, ezesteari buruzko jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo berraztertzearen errekurtsua ustez ezetsizat jo behar den egunaren biharamunetik kontatuta.

Gasteizko Organo Ekonomiko Administrazioak hartzen dituen ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua soilik aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean azaldutako moduan; eta hori legeak Arabako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan errekamazioa egin daitekeela aurreikusitako kasuen kalterik gabe.

4.- 1. puntuan araututako errekurtsua jartzeak ez dakar eskatzen den dirua aldeztatik ordaintzea; dena dela ere, errekurtsua jartzeak ez du kobrantzarako egintza administrazioa geldiaraziko, doakionak prozedura bertan behera geratzea eskatzen ez bada behintzat, eta horrelakoetan ezinbestekoa izango da zor osoari eta sortzen dituen interesei erantzuneko dien bermea ematea.

5.- Salneurri publikoak kudeatzeko egintzen aurka ere 1 puntuan aurreikusitako errekurtsua ere jarri ahal izango da.

6.- Diru-sarrera lokalak kudeatzeko egintzen aurka, artikuluko honetako 1 eta 5 puntuetan aurreikusitakoak ez direnetan, doakienek administrazioarekiko auzi- errekurtsua jarri ahal izango dute.

7.- Premiamendu-probidentziari, bahitura-eginbideari, enkanterako baimenari eta zerga biltzaileengandik datozen bestelako egintzei aurka egin ahal izango zaie udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularraren aurrean ezarritako dagokion errekurtsuaren bidez.

### **36. artikulua.- Erabateko deuseztasuna eta egintza deuseztagarrien kaltegarritasuna deklaratzeko**

1.- Udalaren Osoko Bilkurak, aldeztatik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aldeko irizpena emanez gero, 39/2015 Legearen 47. artikuluko eskubide osoz baliogabeak diren egintzen baliogabetasuna aitortu ahal izango du.

Egintza eman zuen organoaren akordioz hasi ahal izango da baliogabetasun prozedura, edo, bestela, interesatuak hala eskatuta. Prozedura horretan, baliogabetu nahi den egintzak eskubideak aitortu zizkien nahiz beren interesei eragin zien guztiei entzuno zaie.

2.- Ordenamendu juridikoa hausten duten interesdunen aldeko egintzak edo ebazpenak ere interes publikorako kaltegarritzat jo ahalko dira, gero administrazioarekiko auzien jurisdikzioan egintza horien aurka egiteko.

Administrazio-egintza eman zenetik lau urte igaro eta gero, ezin izango da egintza kaltegarritzat jo.

### **37. artikulua.- Egintzak baliogabetzea eta okerrak zuzentzea**

1.- Udalak bere egintzak errebokatu ahal izango ditu interesdunen mesedetan, baldin eta antolamendu juridikoa modu nabarian urratzen dutela uste badu, edo norbanakoen egoera juridikoari eragiten dioten inguruabarrek egintzaren desegokitasuna agerian uzten badute, edo prozedura izapidetzean interesdunek babesik eza jasaten badute, baldin eta errebokatzeko hori legeek galarazitako salbuestea ez bada, ezta berdintasun printzipioaren, interes orokorraren eta lege antolamenduaren kontrakoa ere.

Edozein unetan zuzenduko dira, ofizio bidez edo doakionaren eskariz, oker materialak, egitatezko okerrak eta oker aritmetikoak, beti ere preskripzio epea bete ez bada zuzendu behar den egintza eman zenetik.

2.- Ordenantza honen bidez araututako zerga mailakoak ez diren gaiei buruzko prozeduretan interesa duen orok berrikuspena eskatu ahal izango du, baldin eta bere eskubideak gauzatzeko beharrezko baderitzo administrazio egintzak berrikusteari, horretarako frogak guztiak eramanez.

### **38. artikulua.- Errekurtsoak jartzeak ekarritako prozedura-etena**

1.- Ordenantza honetako 35. artikuluan adierazitako administrazio errekurtsoak jartzeko epearen barruan interesatuak prozedura bertan behera uzteko eskatzen badu, besterik gabe onartuko da hori, baldin eta hiru kontzeptu hauek estaltzeko adinako bermea gehitzen badu: zor osoa, zorretik sor daitezkeen interesak, eta —baldin eta bermea bete beharko balitz— horri legezkiokoen gainordainak.

Horretarako, kopuru nagusia, berandutze-interesak eta partida bien baturari dagokion % 25 estali beharko ditu bermeak.

Horretarako, prozedura bakoitzak ebazteko xedatzen duen gehieneko aldia kontuan izango du berandutze-interesen aurreikuspenak. Berandutze-interes hori kalkulatzeko, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan aurreikusitako tasa aplikatuko da, legezko interesarekin bat etorriko baita bere osotasunean bermatuta dauden zorrak eteten direlarik.

Garaiz eta egoki aurkezten delarik berraztertze errekurtsoa, etenda geratuko da egintzaren betearazpena, bermeak jartzeko beharrik gabe, baldin eta zerga-zorra ordaintzeko borondatezko aldian badago edo premiamendu-probidentziaren aurrean errekurtsorik aurkeztu bada, eta ordaintzeko borondatezko aldi hori bukatzean ordaintzeke dagoen zorraren kopurua gehienez ere 100 eurokoa bada.

2.- Bermea, honako bitarteko hauen bidez eratu ahal izango da:

a) Dirua edo balore publikoak gordailutzea.

b) Kreditu-erakunde batek nahiz elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal edo berme solidarioa, edo kausio-asegurua ziurtagiria.

c) Araba lurralde historikoko kaudimen ezaguneko beste zergadunen batek emandako berme pertsonal eta solidarioa, 601,01 eurotik beherako zorra bada.

3.- Nolanahi ere, kontra egindako egintzaren betearazpena etenda uztea erabaki ahal izango du udalak:

a) Guztiz edo partez bermeak jartzetik libre utziz, egintza gauzatzeko konponbiderik gabeko edo konponbide zaileko kalteak ekar baditzake.

b) Bermea jartzeko beharrik gabe, oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat izan bide dela ikusten bada.

c) Helburutzat zerga-zor edo zenbateko likido jakin bat duen egintza ez bada eta interesatuak hala eskatzen badu, eta hura gauzatzeak kalte konponezinak edo nekez konpontzeak ekar ditzakeela egiaztatzen.

Etendurak dirauen bitartean sortzen diren berandutze-interesak ordaintzeko obligazioa ekarriko du berekin erabaki horrek.

4.- Borondatezko epearen barruan aurkeztutako berraztertze errekurtsoari ezezkoa ematen bazaio, interesduna jakinaren gainean jarriko da, eta epe bat emango zaio borondatezko epean ordain dezan, hots, berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunaren ondorengo hilabeteko apean.

5.- Ebazpen baten erabakitik likidazioa aldatzeko beharra sortzen denean, sortutako zorra aurreko puntuan ezarritako epeetan ordaindu ahal izango da.

6.- Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtso baten gaitzespenaren berri edukiz gero, sortu den zorra jakinarazi beharko du eta ordainketa egin ahal izateko epea eman beharko du, 4. puntuan aurreikusitako epeen arabera.

7.- Egintza baten burutzapena etenda egon denean, administrazio bidea bukatu ondoren zerga bilketarako organoek ez dute hasiko, edo bestela ez diete ekingo premiamenduzko prozedimenduko ekintzei, harik eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bukatu arte, beti ere emandako kauzioa indarrean eta eraginkortasunez mantentzen bada ordura arte. Epe horretan zehar doakionak organo horri jakinaraziko balio errekurtsoa jarri duela bertan behera uzteko eskaera eginez eta zorra ordaindu ahal izateko berme legez kauzioa eskainiz, prozedura gelditu mantenduko da administrazio bidean emandako bermearen eraginkortasunak eta indarrak irauten duten bitartean. Prozedura berriz ere hasiko da edo bertan behera geldituko, organo judizialak hartzen duen erabakiaren arabera.

### **39. artikulua.- Prozeduraren bestelako etendurak**

1.- Prozedurak eteteko eskaerak, Ordenantza honetako 38.1 artikuluan ezarritako epeetan ez bada, zuzenbide onaren itxurako printzipioaren arabera aztertuko dira, eta Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak prozeduraren jarraipenetik eskatzailearentzat edo eragindako beste batzuentzat kalte handiak sor daitezkeela uste badu baino ez zaio arreta egingo.

2.- Berme beharrik gabe ere, prozeduraren jarduerak eten egingo dira doakionak hala eskatzen duenean, eta honako gorabehera larri bat dagoela erakusten badu:

a) Zorra ebazterakoan oker materiala, aritmetikoa edo egitatezko izan dela.

b) Zorra ordaindu, barkatu, konpentsatu, eten edo atzeratu egin dela.

3.- Betearazteko bidean egindako atzerapen eskaeretan, prozedura eten egin ahal izango du dagokion Zerbitzuak harik eta erabakitzeko eskumena duen organoak akordioa eman dezan arte, beti ere etenaren aldia hilabetekoa baino luzeagoa ez denean.

4.- Auziko ondasun edo eskubideen gaineko premiamenduzko prozedura eten ahal izango da baldin eta jabari gainontzekotza jartzen bada. Eten hau diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak erabakiko du, Diru bilketari buruz indarrean dagoen araudian ezartzen dituen aseguratze neurriak hartu ondoren, eta gainontzekoak bere eskubidea oinarritzen dueneko agiri orijinalak ikusi ondoren.

5.- Aurka egin den egintzaren egiteratzea etentzat hartuko da, legez eraturako etendura eskaerak Udalean sarbidea izan zuenetik hogeita hamar egunean berariazko ebazpenik izan ez bada.

#### **40. artikulua- Prozedurak pilotzea**

1.- Premiamenduzko administrazio prozedurak eta prozedura betearazleak edo konkurtsal unibertsalak, judizialak eta ez judizialak, aldi berean gertatzen direnean, udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak Udal Ogasunaren eskubideetan eragina izan dezaketen prozedura horiei buruzko informazioa eskatuko die organo judizialei, eta ondasunak prebentzioz bahitu ahal izango ditu prozedura eten baino lehenago.

2.- Aurreko lerroaldian adierazitako informazioa lortu eta gero, Lege Aholkularitzari erakutsiko zaio behar den beste agirirekin batera eta batez ere, zorren egiaztagiriek batera, Aholkularitzak Udal Ogasunaren eskubideen defentsa har dezan.

3.- Aurreko prozeduraren izapidetzetik ateratako akordio edo hitzarmenak sinatzea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio.

### **V. KAPITULUA- ZOR EZ DIREN DIRU-SARREREN ITZULPENAK**

#### **41. artikulua- Hasiera**

1.- Egoera hauetan abiaraziko da okerreko diru-sarrerak itzultzeko eskubidea onartzeko prozedura, ofizioz nahiz interesatuaren eskaria dela medio:

a) Gauza bera bi bider ordaindu bada.

b) Administrazio egintza baten edo autolikidazio baten ondorioz ordaindu beharrekoa baino gehiago ordaindu bada.

c) Preskribitzeko epeak igaroz geroztik diru-sarrerarik egin bada.

d) Zergen alorreko araudian hala agintzen bada.

2.- Interesatuaren eskariz abiarazitako prozeduran, oinarritu egin beharko du hark bere eskubidea, baita zorra ordaindu izanaren egiaztagiria erantsi ere.

Idatziz egin beharko da eskaria, edo pertsonalki, udal bulegoetan.

3.- Zergengatik ordainketa bikoitzak direnean, dirua Diru Bilketarako Bulegoetan itzuli ahal izango da, aldeztu aurretik ordainketa egin izanaren egiaztagiriak aurkeztu eta gero.

#### **42. artikulua.- Dosierra tramitatzea**

1.- Okerreko diru-sarreraren ondorioz itzuli beharreko kopurua, funtsean, oker egindako diru-sarrerari dagokiona izango da, zergadunari hura berreskuratzeke eskubidea aitortzen zaiolarik. Horrez gain, kopuru hauek ere hartuko ditu bere baitan:

a) Prozeduran zehar ordaindutako gainordainak, kostuak eta interesak, okerreko diru-sarrera premiamendu bidean egin bazen.

b) Atzerapen-interesa, zeini sortzen den aldian indarrean dagoen tasa aplikatuko baitzaio.

2.- Dirua itzultzeko eskubidea errekurtsu baten ebazpenetik edo zerga kudeaketan bidean emandako egintzen baliogabetze edo berrazterketatik sortzen denean, eskubide hura aitortzea bera sortu duen egintza administratiboa onartu duen organo berari dagokio.

3.- Likidazioaren baliogabetzea gertatzen ez denetan, premiamendu-gainordainaren eta interesen itzulpena udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren bidez kudeatuko da.

4.- Zor ez diren diru-sarrerak itzultzeko administrazio espedientea Zergen Kudeaketarako Zerbitzuak izapidetuko du, ordainketa bikoitza izan denetan izan ezik, horrelakoetan udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak burutuko duelarik.

5.- Ordainketa bikoitza ez diren bestelako diru-itzulpenetan, itzulpenerako eskubidea aitortzeak onartutako obligazio baten sorrera ekarriko du, eta hala izanik kontabilizatu egin beharko da. Ordainketa eta ordainketa materiala agintzeko prozedurari lotuta geratuko da, hortaz, eta ordainketa banku transferentzia bidez gauzatuko da doakionak adierazitako kontuan.

6.- Doakionak, eskaeran, honako hauek aurkeztu beharko ditu

a) Identifikazio fiskalaren zenbakia edo NAN.

b) Zor ez zen dirua sartu izanaren egiaztatzea.

c) Kontu zenbakia eta dirua itzuli nahi deneko banku-entitatearen datu garrantzizkoak.

7.- Ordaindu den likidazio bat baliogabetua eta bere ordezkari beste bat jarri denean, azken hau gutxitu egin ahal izango da alde aurretik sartutako kopurutik kenduz.

8.- Garatutako instrukzio egintzei jarraiki, itzulpena bidezkoa denean, Alkateak eman beharko du hartutako erabakiaren ebazpena. Espedienteari bukaera emango dion ebazpenaren aurka errekurtsua jarri ahal izango da berraztertzeke, eta honen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Ordenantza Fiskal honetako 35. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9.- Okerreko diru-sarrera bat itzultzeko eskatzen delarik, baldin eta udalak ez badu bere erabakiaren berri sei hilabeteko epean ematen, eskariaren berriazko ebazpenaren zain geratu ahal izango du zergadunak, edo hura ezetsizat jo, ustezko ukatze hori dela-eta dagokion errekurtsua aurkeztu ahal izateko.

10.- Zor ez den diru-sarrera bat itzultzeko eskubidea aitortzen duen ebazpena ematen duenean Alkateak, hala jakinaraziko zaio doakionari, eta pertsona edo entitate zordunaren alde ordainketa aginduko da, ebazpena irmoa izan arte itxaron beharrik izan gabe.

11.- Zor ez diren diru-sarrerak itzultzeko espedienteak kolektiboki izapidetu ahal izango dira.

### **43. artikulua- Preskripzioa**

1.- Zor ez diren diru-sarrerak itzultzeko eskubidea bost urte iragan ostean preskribituko da.

2.- Preskripzio epea zor ez zen dirua sartu zen egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen, edo autolikidazioa aurkezteko epea bukatu zen egunaren biharamunetik, okerreko diru-sarrera epe horren barruan egin bazen, eta zerga-obligaziodunaren edo haren oinordekoen edo kausadunen egintza frogagarriren batengatik etengo da, egintza hori zor ez zen diru-

sarrera itzultzeko burutzen denean, edo bestela, administrazioak okerreko diru-sarrera hori onartzen duen edozein egintzagatik.

3.- Diru-kopurua itzultzea bidezko dela onartzen delarik, berriz, bost urteren buruan preskribituko du hori eskatzeko eskubideak, legeko hartzekodunek erreklamatzeko ez badute. Delako obligazioa onartu izana jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuko da epe hori.

## **II. AZPI-SEKZIOA- ZERGAZKOAK EZ DIREN KREDITUEZ**

### **I. KAPITULUA- SALNEURRI PUBLIKOAK**

#### **44. artikulua- Aldian behin kobratzekoak**

1.- Aldian behingo epemuga duten prezio publikoak egiaztatze eta ikertze egintzetatik frogatutako datuen ondorioz kudeatuko dira, eta baita zergadunen matrikulan ageri direnen ondorioz ere.

2.- Dagokion Ordenantzan dauden salneurrien aldaketen eraginez sortu diren kuota-aldaketak ez dira banan-banan jakinarazi beharko.

#### **45. artikulua- Aldian behingo epemuga ez dutenak**

1.- Banan banako likidazioa burutu beharko da bai egiaztatze eta ikertze egintzen ondorioz, bai guztionak diren bertako ondasunak eta zerbitzu-prestazioak norberak bakarrik, modu berezian, erabiltzeko eskaera egin denean.

2.- Aurreko puntuan aipatzen den likidazioa buruz buru egin beharko da, ahal denean eta udal bulegoetan bertan, eta hori guztiori subjektu pasiboari adieraziko zaio eskaera aurkezten duen unean bertan.

Jakinarazpena Zuzenbideak onartzen duen edozein bitartekoren bidez ere burutu ahal izango da.

#### **46. artikulua.- Ordaintzeko aldia**

Borondatez ordaintzeko aldia figura bakoitza arautzen duten Ordenantzetan ageri dena izango da, edota Egutegi Fiskalean edo Ordenantza honetako 25. artikulua aipatzen duen Alkatetzaren Ebazpenean, eta izaera osagarri Diru Bilketarako Araudi Orokorrean agindutakoa ezarriko da.

#### **47. artikulua.- Aldi betearazlearen hasiera**

Aldez aurretik - bai kolektiboki bai banaka - jakinarazi diren likidazioen mugaegunerako dirurik ordaindu ez bada, borondatezko aldian ordaintzeko mugaegunaren ondorengo egunean hasiko da aldi betearazlea.

## **II. KAPITULUA - BESTE KREDITU BATZUK**

#### **48. artikulua.- Zergazkoak ez diren beste zenbait kreditu**

Zuzenbide publikoko beste zenbait kreditu kobratzeko, Udalak legez ezarrita dauden eskubideak ditu eta Diru Bilketarako Araudi Orokorrean zehaztuta dagoen diru-bilketarako prozedura ezarri ahal izango du; hori guztiori, Foru Arauaren testu bategina onesteko

irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 2.2 artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

#### **49. artikulua.- Hirigintzako jarduerengatik egindako diru-sarrerak.**

1.- Lankidetzeta-sistema baten bidez burutu den hirigintzako jarduera batek eragindako lurren jabeak behartuta daude gastuak ordaintzera, eta horretarako Udalak hirigintza-kuotak likidatuko ditu. Kuota horiek borondatezko aldian ordaindu ezean, Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren 65. artikuluan aurreikusita dagoen moduan, premiamendu bidez eskatuko da ordainketa.

2.- Jardunbide-unitatearen burutzapena konpentsazio sistemaren bidez egiten bada, konpentsazio batzordeak hirigintzako lanak egitean ardura zuzena izango du Udalaren aurrean.

Kompentsazio batzordeari bere zenbait kidek zor dizkion kantitateak, Udalak premiamendu bidez eskatu ahal izango ditu, Batzordeak hala eskatzen badio.

3.- Hirigintza-kontserbaziorako erakundeak sortuko balira, jabetza publikoko lurren jabea den aldetik, Kontserbaziorako Erakundeari zor zaizkion kuotak eskatuko ditu premiamendu bidez Udalak, Erakundeak hala eskatzen badio.

Bildutako dirua kontserbazioaz arduratzen den Erakundeari emango zaio, Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren 70. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

#### **50. artikulua.- Kontratuko ardurak.**

1.- Udaleko lanen esleipena izan duenak lanak egiterakoan kalte-galerak sortuko balitu, Udalari kalte-ordainak ematera behartuta egongo da.

2.- Kalte-ordain horren zenbatekoa kontratistak eratuta edukiko duen behin betiko fidantzatik kenduko da eta kendutakoa ez bada nahikoa arduraren kantitateari erantzuteko, erantzun gabe geratutakoa premiamendu bidez eskatuko da.

#### **51. artikulua.- Diru itzultzeak**

1.- Zertarako izango den behar bezala justifikatu ez den helburuzko diru-laguntzaren bat emango balu Udalak, diru-laguntzaren xedea ziurtatzeko eskatuko du.

2.- Ezarpena osorik edo zati batean okerra izan dela ziurtatu ondoren, eman zen xederako erabili ez den dirua itzultzeko eskatuko da. Dirua esandako epean itzuli ezean, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

3.- Behar ez den ordainketaren bat eginez gero, ordainketa oker horren berri izan bezain azkar, jaso duenari dirua itzul dezala eskatuko zaio adierazita dagoen bezalaxe. Betebehar hori bete ezean, dirua premiamendu bidez itzul dezala eskatuko zaio.

#### **52. artikulua.- Trafiko isunak**

1.- Zehapen-prozedura laburtua: salaketa jakinarazita, dela unean bertan dela beranduago, salatuak 20 egun naturaleko epea izango du borondatezko ordainketa egiteko, eta isunak % 50eko murrizketa izango du.

2.- Zehapen-prozedura arrunta: salaketa jakinarazi eta hurrengo 20 egun naturaletan ordaintzen ez bada, edo legearen arabera ez badagokio zehapen-prozedura laburtua,

isunaren % 100 ordaindu ahal izango da borondatezko epean. Hala egiten ez bada, premiamendu-bidearen bidez ordaintzeko eskatuko da.

2.1.- Borondatezko epea: 15 egun natural, zehapen-ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, 20 egun naturaleko epean ordaindu edo alegaziorik egin ez bada, ordaintzeko edo alegazioak egiteko epea amaitzen denetik aurrera.

2.2.- Premiamendu-prozedura: borondatez ordaintzeko epea igarotakoan, premiamendu-prozedura baliatuko da kobratzeko, legez ezarritako errekarquak gehituta, kudeaketa eta zerga-bilketari buruzko ordenantza orokor honetan xedatutakoari jarraituz.

3.- Ordaintzeko lekuak eta moduak ordenantza honen 56. artikuluan adierazten dira.

4.- Isuna ordaintzearen erantzukizun subsidiarioa.

Ibilgailuaren gidariari ezartzen zaion isuna ordaintzen ez bada, arau-haustea egitean erabilitako ibilgailuaren titularra izango da ordaintzearen erantzule subsidiarioa, legez ezarritako salbuespenak salbu.

5.- Trafiko-zehapenen preskripzio-epea.

Lau urte diruzko isunarentzat eta urtebete gainerako zigorrentzat; epe horiek zigorra irmotzat jotzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuko dira. Diruzko isuna dakarten zigorren preskripzio-epea zenbatu eta eteteko Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

Interesdunak eskatuta edo ofizioz aplikatuko da preskripzioa, zehapen-prozeduraren izapidetzearen edozein fasetan.

### **53. artikulua.- Diru-bilketa**

1.- Kapitulu honetan aipatzen diren zuzenbide publikoko diru-sarrerak Udal Ogasunak bilduko ditu, Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunari dagokionez legez ezarritako ahalmen eta eskumenekin eta Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako administrazio-prozedurak jarraituz, ordenantza fiskaletan eta horiek garatzeko ematen diren gainerako xedapenetan ezarritako espezialitateak gorabehera.

2.- Alkateak banku-entitateen laguntza baimendu ahal izango du, eta hala gertatuko balitz, ordaintzera behartuta dagoenari hori jakinaraziko zaio.

3.- Ordaindu beharra dutenek beren ondasun eta eskubide guztiez –oraingoak zein geroakoak– erantzungo dute, Legeak ezarritakoari jarraituz.

4.- Zerga-betebeharrei edo bestelakoei dagozkien zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordaintzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa legezko edo borondatezko edozein titulurengatik zor horiek ordaintzera behartuta daudenengana zabalduko dira, eta Zergen Foru Arau Orokorrean zerga-erantzukizuna bideratzeko finkatuta dauden administrazio-prozeduren arabera galdutako.

Erantzukizun subsidiarioaren kasuan, bai zordun nagusia, bai —halakorik bada— erantzule solidarioak kobraezintzat jotzen direlarik, erantzukizun-deklarazioa Ogasun Saileko organo ordezkariaren ebazpenaren bitartez emango da.

Zigor-izaerako zuzenbide publikoko diru-sarrerak direnean, Zergen Foru Arau Orokorrean zerga-zigorrek direla eta finkatutako salbuespen berak aplikatuko dira, gorago adierazi diren

erantzukizuna bideratzeko administrazio-prozeduren bitartez galdatzeari dagokionez, baldin eta horretarako gaitzen duen agiririk badago, lege edo foru-arau bat dela medio.

## **V. SEKZIOA - DIRU-BILKETA**

### **I. AZPI-SEKZIOA- ANTOLAKUNTZA**

#### **54. artikulua.- Diru-bilketarako sistemak**

1.- Udal zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrereren bilketa, borondatezko aldi nahiz betearazteko aldi, udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren eta berariazko eskumenak dituzten gainerako udal-organoen bitartez egingo da, baita entitate laguntzaileen bitartez ere.

Nolanahi ere, udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoarentzat erreserbatuta geratzen dira diru-bilketa kudeatu, kontrolatu eta planifikatzeko zereginak, eta haren eta ez besteren eskumena izango da premiamendu-probidentzia ematea, ondasunak bahitzeko agintzea, bahitu beharreko ondasun edo eskubideak zehaztea, erregistro eta erakunde publikoei komunikazioak bidaltzea eta ondasunen enkanteak baimentzea, baita autoritatea agertzea edo erabakiak hartzea berekin dakarten antzeko beste jarduera batzuk ere.

2.- Aldi behingo zerga eta prezio publikoen kasuan, ordainagiri-oharra, ordaintzeko agiri gisa erabili ahal izango dena, hartu izanaren adierazpenik gabe posta arruntez bidaliko da.

Agiri horiek jaso ezean, zergaduna udal bulegoetara joan daiteke eta dagokion kopia emango diote han.

3.- Aldi behingo epemuga duten zerga eta prezio publikoen kasuan, dagokion erregistroan alta jakinarazi eta handik aurrerako kuotak kobratzeko egutegian jarrita dauden epeetan ordaindu beharko dira, premiamendu bidea hasteari ezin izango zaiolarik aurka jarri borondatezko aldi ordainketa-agiria ez jaso izana.

4.- Betearazteko aldiko zorrak ordenantza honen 56. artikuluan adierazten diren lekuetan ordaindu ahaliko dira, bertan zehazten diren ordaintzeko moduak baliatuz.

#### **55. artikulua.- Ordainagirien banku-helbideratzea.**

1.- Udal-zerge eta prezio publikoen subjektu pasiboek egoki deritzen Erakunde Finantzariotan helbideratu ahal izango dituzte ordainketak, honako artikulua honetan ezarritakoaren arabera. Ekintza horrek ezin izango du inolaz ere prozedura mailako bermeen galerarik ekarri, ez eta egoki deritzen helbideratutako likidazio edota ordainagirien aurka errekurtsoak aurkezteko aukerarik eman ere.

2.- Zergadunari bere zerga-betebeharrak betetzeko erraztasunak emate aldera, eta, aldi berean, banku-helbideratzea ordaintzeko modu egoki gisa sustatzeko, ordaintzeko borondatezko epea bukatu baino gutxienez 20 egun natural lehenago aurkeztu beharko dituzte banku-helbideratzeak zergadunek, baita lehenik aurkeztutako helbideratze-aginduak aldatzeko eskabideak ere. Hala egin ezean, borondatezko ordainketarako hurrengo alditik aurrera izango dute eragina eskabideek.

Ordainagiri bakoitzeko izango da helbideratzea, baina ordainagiri berean zerga-ekintza bat baino gehiago azaldu ahal izango da.

3.- Bide hauetako edozein baliatu ahal izango dute interesdunek, ordainagiriak helbideratzeko:

- Internet bidez, [www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna) web-orrian.
- Bere kutxa edo banketxera jo, zuzenean —Gasteizko udalerrian egon beharko du—, eta banku-erakundeak ematen dion agiria baliatu.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetara jo, edo 010 telefonora deitu.

Agiri hauek aurkeztu edo bidali beharko ditu:

- Zerga-egitatearen titularraren NANaren edo IFKren fotokopia eta, eskatzailea titularra ez bada, baimena edo ordezkaritza-ahalmena.
- Helbideratu nahi den ordainagiri edo zerga-egitate zehatzaren adierazpena.
- Eta indarrean dagoen araudiaren arabera eskatu beharreko edozein agiri.

4.- Epemugarik gabeko balioa izango dute helbideratzeek, hots, interesdunak, banku-entitateak edo udal-administrazioak —arrazoi justifikatuak tarteko— berariaz baliogabetzen dituzten artekoa.

Dena dela, hiru aldiz baino gehiagotan eta Udal-administrazioari ez dagozkion arrazoiak direla medio atzera botatako banku-helbideratzeak baliogabetu ahal izango dira.

**56. artikulua.-** Zergen, prezio publikoen eta zuzenbide publikoko bestelako sarreraren ordainketa.

1.- Ordaintzeko moduak eta bitartekoak:

a) Ordainketa elektronikoa:

Zuzenbide publikoko udal diru-sarrerak dirutan ordaintzeari dagokionez xedatutakoa gorabehera, diruzko zehapen baten, isun baten edo Udal Ogasunari ordaindu beharreko beste edozein eskubide edo diru-sarreraren ondorio den ordaintzeko obligazioa sortzen delarik, ondoko bitarteko elektronikoko hauetakoren bat baliatuz egin beharko da ordainketa, salbu eta ezintasuna justifikatzen delarik:

- Kreditu- eta zordunketa-txartelak.
- Banku-helbideratzea, 55. artikuluko betebeharrak betetzen direlarik.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren on line ordaintzeko zerbitzuan, kreditu- edo zordunketa-txartelen, BIZUMen, MiPago Wallet-en edo Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bitartez.
- Udal Ogasunak baimentzen duen beste edozein.

b) Dirutan ordaintzea:

- Libratutako entitateak jaulkitako txekea, txeke adostua edo banku-txekea. Merkataritza-legeriako betekizun orokorrez gain, hauek ere bete beharko ditu txekeak:
  - Gasteizko Udalaren aldeko izenduna izatea.
  - Eman zen egunaren aurreko sei hilabeteen barruko data edukitzea.
  - Sinaduraren azpian argi eta garbi adieraztea libratzailearen izena eta izen soziala.

Txekea ematen duelarik, ordaindutako zenbatekoan libratuko du horrek zorduna, benetan kobratzen delarik.

- Udal Ogasunak baimentzen duen beste edozein.

c) Ondoren adierazten direnak izango dira ordaintzeko bideak, zehazten diren bitartekoak tarteko:

- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa on line ordaintzeko zerbitzuan, kreditu- edo zordunketa-txartelaren bitartez, edo Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bitartez.
- Finantza-erakunde laguntzaileek, Gasteizko Udalarekin diru-bilketan, legezko dirua, txekea edo kreditu- nahiz zordunketa-txartelak baliatuz.
- Gizarte-etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan eta San Antonio kaleko bulegoan, kreditu- edo zordunketa-txartelen bitartez.
- San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, kreditu- edo zordunketa-txartelen bitartez.
- Udal Ogasunak baimentzen duen beste edozein.

2.- Zergaren edo prezio publikoren baten edozein diru-sarrera eta gainerako zuzenbide publikoko diru-sarrerak burutu ahal izateko, eskatutako agiriak aurkeztuz egin beharko da onartua izan dadin. Ordainketaren ziurtagiriek honako hauek adierazi beharko dituzte behinik behin:

- Zordunaren izena eta deiturak, izen soziala edo izendapena.
- Helbidea.
- Zerga edo prezio publikoa eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak eta dagokien aldia.
- Zenbatekoa
- Kobrantza-eguna.
- Zein organok luzatzen duen.

3. Aldian behingo epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zerga, prezio publiko eta zuzenbide publikoko diru-sarreren ordainketa —banku-helbideratzearen bidez egiten ez bada— eta aldian behingoak ez diren zerga edo prezio publikoena, ordenantza honen 56.1 artikuluan adierazten diren modu eta bitartekoak baliatuz egin beharko da.

4.- Zor bat baino gehiago duen zordunak ordainketa egiterakoan nahi dituen zergei egotzi ahal izango die diru hori, nahitaezko betearazpeneko kasuetan izan ezik, hauetan ordainketa zorrik zaharrenari ezarriko baitzaio. Dena dela zorren bat ordaindu duen jende guztiari egindako ordainketaren ziurtagiri bat emango zaio, ziurtagiri horrek mekanikoki legeztatua egon beharko duelarik bildutako diruen kontrola errazteko asmoz.

## **57. artikulua-** - Berandutze-interesak eta epe exekutiboko errekaruak

1.- Udal ogasunaren aldeko berandutze-interesak sortuko dituzte, borondatezko aldian ordaindu ez diren zor guztiek, zerga-zorrek izanda edo ez izanda ere.

2.- Berandutze interes mota legeak zehazten duena izango da.

3.- Udal Ogasunarekiko zorren kontrako betearazteko aldia hasten delarik, gainordain hauek sortuko dira:

**a) Betearazte aldiko gainordaina:** ehuneko 5ekoa, baldin eta borondatezko aldian ordaindu ez zen zor guztia ordaintzen bada premiamendu-probidentziaren berri eman aurretik. Horrelakoetan, ez dira eskatuko betearazteko aldia hasi zenetik sortutako berandutze interesak.

**b) Premiamendu gainordain murriztua:** ehuneko 10ekoa, baldin eta borondatezko aldian ordaindu ez zen zor guztia eta gainordaina bera ordenantza honen 73. artikuluko 2. atalean adierazten den epea bukatu aurretik ordaintzen badira. Horrelakoetan, ez dira eskatuko betearazteko aldia hasi zenetik sortutako berandutze interesak.

**c) Premiamendu gainordain arrunta:** ehuneko 20koa. Aurreko bi ataletan adierazitako zirkunstantziak egokitzen ez direnean aplikatuko da, eta, horrez gain, betearazteko aldia hasi zenetik sortutako berandutze-interesak eskatuko dira.

## **II. AZPI-SEKZIOA- DIRU-BILKETAREN KUDEAKETA**

### **I. KAPITULUA- ARAU KOMUNAK**

#### **58. artikulua.- Aplikazio-eremua**

1.- Udalaren zerga-administrazioak, zergak eta zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituen diru-kopuruak kobratzeko orduan, Arabako Lurralde Historikoko Ogasunari dagokionez legez ezarrita dauden ahalmen eta eskumen berak izango ditu, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluaen ildotik, eta, halakoetan, Zergen Foru Arau Orokorrean, hori garatzeko xedapenetan eta ordenantza honetan finkatzen diren administrazio-prozeduren arabera jokatuko du

2.- Hori horrela izanik, Udalak bere esku dituen ahalmenak eta jarduerak zergen kudeaketaraino eta Zuzenbide Publikoko beste baliabide batzuetaraino zabaldu eta iristen dira, eta horregatik, horietan guztietan ezarri ahal izango dira zerga mailakoentzat diren erregelamendu-aipamen guztiak.

Horrenbestez, ordenantzaren V. sekzioan xedatzen den guztia bere horretan aplikatuko zaio —indarrean dagoen legedia betetzen delarik zergak ordaintzera behartuak eta erantzuleak zehazteko aukera dagoen neurrian— bai korporazioaren aurrekontuetan diru-sarrera gisa ageri diren zerga, kontribuzio berezi, tasa eta prezio publikoen kobrantzari, bai zuzenbide publikoko diru-sarrera eta -itzultze gisa Udalak jaso behar dituen gainerako diru-kopuruen ordainarazpenari ere.

Zehazki, Gasteizko Udalak ezarritako prezio publikoen, izaera publikoko ondare-prestazioen, isunen eta edonolako diruzko zehapenen bilketaren kudeaketari aplikatu ahal izango zaio ordenantza hau, horiei dagozkien berariazko udal araudietan xedatutakoaren osagarri. Horien bilketa, betearazteko aldian, ordaintzeko borondatezko aldia bukatzen den egunaren biharamunean hasiko da, Zergen Foru Arau Orokorrean eta ordenantza honetan ezartzen den premiamendu-prozeduraren ildotik.

#### **59. artikulua.- Ordaintzera behartuak.**

1.- Lehenik eta behin, zordun nagusi modura ordaintzera behartuta daude: a) zergen subjektu pasiboak, zergadunak izan ala ordezkariak izan; b) atxikitzaileak eta c) arau-hausleak, diru-zehapenak direla eta.

2.- Aurreko puntu nagusian izendatutako zordun nagusiek ez badute beren betebeharra betetzen, ordaintzera behartuta egongo dira:

a) Erantzule solidarioak.

b) Ordezko erantzuleak, aldez aurretik zordun nagusien ordain ezintasuna aitortuta.

Foru-arauek, udal ordenantza fiskalek —lege edo foru-arau batean xedatutakoaren ildotik— eta gaia dela eta aplikatzekoak diren lege edo foru-arauen mailako bestelako araudiek beste pertsona edo entitate batzuk deklaratu ahal izango dituzte zerga-zorraren edo bestelakoaren erantzule solidario edo subsidiario, zordun nagusiekin batera. Ondorio horietarako, 1. atalean adierazi denez ordaintzera behartuta daudenak joko dira zordun nagusitzat.

3.- Zor beraren erantzule solidarioak eta ordezkoak bi edo gehiago direnean, haietako edozeini eskatu ahal izango zaio zorra osorik.

4.- Aurreko puntuetan aipatutako zorrak ordaintzera behartutakoen "mortis causa"ko oinordekoek, haiek oinordeko diren obligaziodunaren lekuan subrogatuko dira eta beren kausatzaileek oraindik betetzeke dauzkaten betebeharrei erantzun beharko diete, beti ere, oinordetza eskuratzeko legeria zibiletik eratorritako mugekin. Dena den, arau-hauslea hiltzerakoan, berari ezarri zitzaizkion diru-zehapenak ez dira eskualdatzen.

## **60. artikulua.- Erantzule solidarioak**

1.- Legeetan aurreikusitako erantzukizun solidarioko kasuetan, borondatezko aldia igarotzen delarik zordun nagusiak ez badu zorra ordaindu, erantzule solidarioei galdatu ahal izango zaie ordain dezatela, haren erantzukizuna gorabehera.

2.- Zorraren osagai guztiak barne hartuko ditu erantzukizun solidarioak, zerga-zorrak nahiz bestelako zorrak izan, eta, halakorik denean, baita Gasteizko Udalak ezarritako diruzko administrazio-zehapenak ere, Zergen Foru Arau Orokorrean nahiz lege edo foru-arauen mailako bestelako araudietan finkatzen diren kasuetan.

Ez zaizkie transmitituko zehapenak pertsona fisiko arau-hausleen oinordeko edo legatu-hartzaileei.

Bereziki, erantzule solidarioak izango dira edozein kontzeptu dela medio ustiapen edo ekonomia-jardueren titulartasunaren edo jardunaren oinordeko egokitzen diren pertsona edo entitateak, aurreko titularrak bere jardunaren ondorioz bere gain hartutako zerga-betebehar eta zehapenei dagozkienetan. Nolanahi ere, ustiapen eta ekonomia-jardueren titulartasuna erosi nahi dutenek atal honetan ezartzen den erantzukizuna mugatu ahal izango dute Zergen Foru Arau Orokorrean 180. artikuluko 2. atalean araututako prozeduraren bitartez.

Atal honetan ezartzen den erantzukizuna ezingo da aplikatuko kasu hauetan:

a) Elementu isolatuak eskuratzen direnean, non eta eskurapen horiek, pertsona edo entitate batek edo gehiagok eginak izanik, ez duten ahalbidetzenustiapenarekin edo jarduerarekin jarraitzea edo bere adarretako batekin aurrera segitzea.

b) Ondorengotza heriotzagatik gertatzen denean. Horrelakoetan, ordenantza honen 12. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

c) Zordun konkurtsatu baten ustiapen edo jarduera ekonomikoak eskuratzen direnean, eskurapena prozedura konkurtsal batean egiten bada.

3.- Orobat, ondoren azalduko diren pertsonak edo erakundeak ere zerga-zorraren eta, halakorik dagoenean, zerga-zehapenen ordainketaren erantzule solidarioak izango dira, Zerga Administrazioak enbargatu edo besterendu dituen ondasunen eta eskubideen balioaren zenbatekoaren mugarekin:

a) Zerga-administrazioaren jarduketa eragozteko asmoz ordaintzera behartuaren ondasunak edo eskubideak ezkutatzen edo eskualdatzen dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.

b) Erruz edo arduragabekeriak enbargo-aginduak betetzen ez dituztenak.

c) Enbargoaren, kautelazko neurriaren edo bermearen eraketaren berri izan arren, enbargatutako ondasunak edo eskubideak, edo kautelazko neurria edo bermea ezarrita duten ondasunak edo eskubideak kentzen laguntzen dutenak, edo hori egitea eragotzi ez dutenak.

d) Zordunaren ondasunak gordailatuta dituzten pertsonak edo erakundeak, enbargoaren jakinarazpena jaso ondoren haiek kentzen laguntzen edo eragozten ez badute.

## **61. artikulua.- Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura**

1.- Borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren, Ogasun Saileko organo delegatuak erantzukizun solidarioa besteri leporatzeko egintza emango du, udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak proposaturik.

2.- Udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organotik erantzukizuna eratorri baino lehen, hamabost egun iraungo duen entzunaldiaren hasieraren berri emango zaio erantzuleari eta aldi horretan doakienek arrazoibideak azaltzeko eta egoki deritzen agiriak aurkezteko modua izango dute.

Erantzukizuna eratortzeko administrazio-egintzen jakinarazpenean agertu egin beharko dira likidazioaren funtsezko elementuak, aurka egiteko bideak eta zor den kantitatea, ordaindu beharreko lekua, epea eta modua.

Dirua sartzeko emandako borondatezko aldia igaro eta gero, ez badu ordainketarik egiten, Ordenantza honetako 71. artikuluan aipatzen den gainordainera zabalduko da erantzukizuna automatikoki eta zorra premiamendu bidez eskatuko zaio orduan.

3.- Zordun nagusi baten edo erantzule solidario baten aurka zuzendutako ekintzek ez dituzte galaraziko, ordaintzera behartuta dauden gainerakoen aurka burutu daitezkeen beste ekintzak, harik eta zorra erabat ordaintzen ez den arte.

4.- Ustiategi eta ekonomia-jardueren titulartasuna erosi nahi duenak, ordenantza honen 60. artikuluan jasotzen den erantzukizun solidarioa mugatze aldera, eskubidea izango du —aldez aurretik egungo titularraren adostasuna badu— administrazioari horien jardunaren ondorio diren zor, zehapen eta zerga-erantzukizunen ziurtagiri xehatua eskatzeko.

Eskabidea egiten delarik, hiru hilabeteko epean eman beharko du ziurtagiri hori zerga-administrazioak. Kasu horretan, bertan jasotzen diren zorretara, zerga-zehapenetara eta erantzukizunetara mugatuta geratuko da eroslearen erantzukizuna. Zor, zehapen edo erantzukizunik aipatzen ez bada ziurtagirian, edo adierazitako epean ematen ez bada, eskatzailea artikulua horretan jasotzen den erantzukizunetik libre geratuko da.

Ziurtagiriak ez du ondoriorik izango, edozein delarik ere edukia, baldin eta eskabidea ustiapena edo ekonomia-jarduera erosi ondoren egin dela egokitzen bada.

## **62. artikulua.- Erantzule subsidiarioak**

1.- Legeetan aurreikusitako kasuetan, erantzule subsidiarioak ordaintzera behartuta egongo dira, zordun nagusien eta erantzule solidarioen ordaintzeko ezintasuna aitortu denean eta erantzukizuna eratortzeko administrazio-egintza eman denean.

Bereziki, zerga-zorraren erantzule subsidiarioak izango dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren —uztailaren 3ko 14/2009 Foru Arauak aldatua— 43.1 artikuluan izendatzen diren pertsona eta entitateak.

2.- Ordezko erantzukizuna, arau bereziren batek aurkakorik ez dioten bitartean, hasieran likidatutako eta borondatezko aldian zordun nagusiari jakinarazitako zerga-zorreraino zabaltzen da.

3.- Erantzukizuna eratorri baino lehen, doakionari entzunaldia eskainiko zaio aurreko artikuluko 2. puntuan araututa dagoen bezala.

4.- Erantzukizun subsidiarioa deklaratu eta galdatzeko prozedura Arabako Zergen Foru Arau Orokorreko 181. artikuluan aurreikusten dena izango da. Erantzukizuna deklaratzeko administrazio-egintza Ogasun Saileko organo delegatuak emango du.

### **63. artikulua.- Zerga-zorren oinordekoak.**

1.- Elkarte bat desegin eta likidatzen delarik, ordaintzeke dauden zorrak ordaintzeko galdatuko zaie hartako bazkideei edo kapitalaren partaideei, esleitutako likidazio-kuotaren mugaraino.

Iraungi eta desegin diren baina likidatu gabe dauden sozietate eta entitateek ordaintzeke dituzten zerga-betebeharrak oso-osorik transmitituko zaizkie horien oinordekoei, Zergen Foru Arau Orokorraren 40. artikuluan aurreikusitako moduan. Nortasun juridikoa duen elkarte edo entitate baten aktiboaren edo pasiboaren erabateko lagapena egiten delarik ere gertatuko da transmisio hori.

2.- Zor bat ordaintzera behartutako edonor hiltzen delarik, haren jaraunsle edo legatu-hartzaileekin jarraituko da diru-bilketaren kudeaketa, jaraunspena onartzearen inguruko legeria zibilaren ondorio diren mugekin.

Ordaintzera behartuaren heriotzaren berri izan ondoren, jaraunspena huts eta soilik onartu duten oinordeko edo legatu-hartzaileei jakinaraziko zaie kausatzaileak ordaintzeke zituen zor osoa eta kostuak —zehapenak salbu— ordaintzeko errekerimendua, hartan subrogatuko baitira, oinordeko diren haren egoera juridiko berean, eta beren egungo eta etorkizuneko ondasun guztiekin erantzun beharko baitiote horri.

3.- Ordaintzera behartuta dagoena hiltzen denean ez badago oinordeko ezagunik, edo oinordeko ezagunak egon bai, baina oinordetzari ezezkoa eman edo onartzen ez badute, udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak Aholkularitza Juridikoari jakinaraziko dio, dagozkion ondorioetarako.

4.- Erantzukizuna eratortzeko egintza ematea badagokio, alde zuzenetik entzunaldia eskainiko zaie interesdunei, hamabost egunez.

### **64. artikulua.- Zerga-egitatean aldi berean zenbait titular egotea**

Zerga-egitatean aldi berean bi edo bi baino titular gehiago izanez gero, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aurreikusita dagoen bezalaxe, zor osoari batera erantzungo diote eta nahikoa izango da ordaintzeko errekerimendua hori exijitu ahal izateko, eta hala ez da beharrezko izango erantzukizunaren eratorpenerako aurreikusita dagoen prozedurari jarraitzea.

## **65. artikulua.- Helbidea**

1.- Errekurtsoren bat kudeatzeko arauen batek berariaz ez badu helbide soziala nola zehaztu esaten, diru-bilketarako helbidea honako hau izango da:

a) Pertsona naturalentzat, beren ohiko bizilekua.

b) Pertsona juridikoentzat, beren helbide soziala.

2.- Zergadunak beste helbide bat izendatzeko aukera izango du, nahiz berea nahiz bere ordezkariarena, administrazioaren jakinarazpenak bertan jaso ditzan.

3.- Dena dela, udal-zergen subjektu pasiboak helbide aldaketen berri ematera behartuta daude, eta Udaletik bidalitako komunikazioetan akatsak ikusiz gero, horien berri ematera. Berariaz eman ahal izango da helbide fiskalaren aldaketaren berri [www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna) web-orriaren bitartez, udal bulegoetan eta Herritarrei Laguntzeko 010 telefonoan.

4.- Subjektu pasiboak emaniko helbidea edo jasotako informazioaren arabera Udalak zuzendutakoa, zergadun bakoitzari kudeaketarako elementu gisa erantsiko zaio eta berau izango da zergaren kudeaketatik eratorritako jakinarazpen guztiak bidaltzeko helbidea.

5.- Egutegiko urte bakoitzean sei hilabetetik gora atzerrian bizi diren subjektu pasiboek, Gasteizen bizi den ordezkariaren bat izendatzera behartuta daude.

## **66. artikulua.- Ordainketa egiteko eta jasotzeko legitimazioa**

1.- Ordainketa edozein obligaziodunek eta baita hirugarrenek ere ordain dezakete zorra erabat iraungita geratuz.

2.- Zorra ordaindu duen hirugarren horrek ezin izango dio Administrazioari eman dion dirua itzul diezaiola eskatu, ezta obligaziodunaren beste eskubide batzuk erabili ere, bide zibiletik egokitu lekizkiokeen beste ekintza batzuei kalterik egin gabe.

3.- Zorra ordainduko da Ordenantza honen 56. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## **67. artikulua.- Administrazioari lagundu beharra**

1.- Edozein pertsona natural edo juridiko, publiko nahiz pribatu izan, zerga-administrazioari Zuzenbide Publikoko diru-sarrera modura berak jaso beharko lituzkeen kantitateak kobratu ahal izateko datu eta aurrekari guztiak ematera behartuta dago, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 90.1 artikuluan adierazten den bezala.

2.- Aldi betearazlean udal-administrazioarekiko zordun direnen gordailuzain diren pertsona edo entitateak bereziki, dela gordailua eskudirutan eginik dela zordunaren kontu, balore eta bestelako ondasunetan jarriz, behartuta daude diru-bilketarako organoei informatzera eta legezko funtzioen jardunean egindako errekerimenduak betetzera.

3.- Zerga bat ordaintzera behartuta dagoen orok, errekerimendua egiten zaionean, zorraren zenbatekoari aurre egiteko besteko kantitatea erakutsi beharko du, bere ondarearen ondasun eta eskubideak azalduz.

4.- Artikulu honetako laguntza emateko obligazioa ez betetzeak, zigorrak jartzea ekar dezake.

## **68. artikulua.- Ordainketa-bermeak**

1.- Udal ogasunak lehentasuna du epea bukatuta daukaten eta ordaindu gabe dauden zuzenbide publikoko kredituak kobratzeko, baldin eta aldi berean ondorengo hartzekodun hauekin batera agertzen ez bada: jabari, bahitura edo hipoteken hartzekodunekin batera, edota dagokion erregistroan Udal ogasunaren eskubidea azaldu baino lehenago, erregistro horretan bertan behar bezala inskribatutako beste eskubide errealean bat duen hartzekodunarekin batera.

2.- Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunak edo eskubideak aldiro kargatzen dituzten zuzenbide publikoko errekursoetan, nahiz eta euren eskubideak inskribatuta eduki, Herri-ogasunak beste edozein hartzekodunekiko edo eskuratzailleekiko lehentasuna izango du, kobratzeko administrazio-ekintza burutzen den egutegiko urteari eta aurrekoari dagozkien zorrak ordaintzeko garaian.

Horretarako, borondatezko aldian diru-bilketa prozedurari ekiten zaionean jotzen da burututzat kobratzera zuzendutako administrazio-ekintza.

3.- Aurreko atalean adierazitako zorrak baino zaharragoak edo kantitate handiagokoak direnean, artikuluko horretakoen lehentasun berbera eduki ahal izateko, Udal ogasunaren aldeko hipoteka berezi bat eratu ahal izango da, zeinak inskribatu bezain azkar ondorioak izango baititu.

## **69. artikulua.- Ondasunak erasatea**

1.- Jabegoa eskualdatzen denean, edota gozamen nahiz gainazal eskubide erreal baten edo administrazioaren baimen baten titulartasuna eskualdatzen bada, eskubide horien xede diren ondasun higiezinak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz zorrak oso-osorik ordaintzera behartuta geratuko dira.

Erantzukizuna eratortzeko egintza ematea balegokio, aldez aurretik entzunaldia eskainiko zaie doakienei hamabost egunetan zehar.

2.- Zerga-ekintza atxikitako ondasunen kontra bideratzeak administrazio-egintza eskatuko du, Ogasuneko organo ordezkariak onartu beharko baitu.

3.- Aurreko puntuan aipatutako egintzaren berri emango zaio eskuratzailleari, ordainketa egiteko epeak zeintzuk diren azalduz, eta likidazioaren aurka edo erantzukizunaren eratorpenaren jatorriaren aurka erreklamatzeko aukera baduela adieraziz.

## **II. KAPITULUA - BORONDATEZKO DIRU-BILKETAREN BEREZITASUNAK**

### **70. artikulua.- Diru-bilketaren aldiak.**

1.- Zerga arautzen duen araudiak zehazten dituen epeetan burutu beharko da ordainketa, edo hori izan ezean, diru-bilketarako indarrean dagoen araudiak zehaztutakoetan.

Borondatezko aldiko diru-bilketa ordenantza honen 25. artikuluan —edo, halakorik ezean, Arabako Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorren 61.2 artikuluan— adierazten diren ordaintzeko epeak iraingitzen direlarik bukatuko da.

2.- Deklarazioa epez kanpo egiteagatik ordaindu beharreko gainordainak prestazio osagarriak dira, autolikidazio edo deklarazio-likidazioak, aldez aurreko errekerimendurik gabe, epez kanpo aurkezteagatik nahiz aurkeztutako deklarazioen ondorio diren likidazioak, aldez aurreko errekerimendurik gabe, epez kanpo aurkezteagatik ordaindu beharrekoak.

Hauxe izango da gainordaina, deklarazioa garaiz kanpo aurkezteagatik:

a) ehuneko 5ekoa, berandutze-interesak eta bestela eska zitezkeen zigorrak bazter utzita, baldin eta norberaren borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea amaitu ondorengo sei hilabeteetan aurkezten bada autolikidazioa edo deklarazioa.

b) ehuneko 5ekoa, bestela eska zitezkeen zigorrak bazter utzita, baina ez berandutze-interesak, baldin eta norberaren borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea amaitu ondorengo zazpigarren eta hamabigarren hilabeteen artean aurkezten bada autolikidazioa edo deklarazioa.

Autolikidazioa edo deklarazioa aurkezteko aldia bukatu ondorengo sei hilabeteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hura aurkeztu bitartean igarotako denborari dagozkion berandutze-interesak eskatuko dira halakoetan.

c) ehuneko 10ekoa, bestela eska zitezkeen zigorrak bazter utzita, baina ez berandutze-interesak, baldin eta norberaren borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea amaitu ondorengo hamabigarren hilabetea igaro ondoren aurkezten bada autolikidazioa edo deklarazioa.

Autolikidazioa edo deklarazioa aurkezteko aldia bukatu ondorengo hamabi hilabeteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hura aurkeztu bitartean igarotako denborari dagozkion berandutze-interesak eskatuko dira halakoetan.

Autolikidazioaren ondorioz ordaindu beharreko kopuruaren edo epez kanpoko deklarazioaren haritik egiten den likidaziotik ateratzen denaren gainean kalkulatu da gainordain hori.

Aldez aurretik errekerimendurik egin gabe epez kanpo aurkeztutako deklarazioen likidazioetan ez da eskatuko berandutze-interesik deklarazioa aurkeztu zenetik dena delako likidazioa norberaren borondatez ordaintzeko aldia bukatu bitartean igarotako denboragatik, deklarazioa epez kanpo aurkezteagatik eska litezkeen gainordain eta interesak gorabehera.

3.- Deklarazio-likidazioa edo autolikidazioa epez kanpo aurkezten dutelarik, zergapekoek ez badute, aldi berean, ez zorra ordaintzen, ez hori atzeratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaririk egiten, administrazioak -aurreko atalean xedatutakoaren ildotik- epez kanpo aurkezteagatik egin beharreko gainordain eta berandutze-interesen likidazioa egiteak ez du galaraziko deklarazio-likidazioaren edo autolikidazioaren kopuruari dagozkion betearazte aldiko gainordain eta berandutze-interesak ere eskatzea.

4.- Aipatu diren aldietan ordaindu ez diren zorrak aldi betearazlean eskatuko dira, eta hala balegokio, epez kanpo ordaindutako kantitateak konturako ordainketa gisa zenbatuko dira.

5.- Borondatezko aldiko zorra iraungita gera dadin oso-osorik ordaindu beharko da.

6.- Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpen arrazoitua dela medio, subjektu pasiboek hala eskatu eta ordainketak finantza-erakunderen batean helbideratzen dituztelarik aldiari aldiko zerga eta prezio publikoak, inolako gainordainik gabe, hilabetez hilabete zatikatzeko sistema finkatuko da borondatezko zerga-bilketaren baitan, aplikazio informatikoa prest dagoenean.

Hil bakoitzeko 30ean gauzatu da ordainketa, egun baliorduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliordunean.

## **70 bis artikulua.- Epeka ordaintzea**

Aldian behingo zerga-zor jakin batzuk zatikatzeari deitzen zaio "epeka ordaintzea". Ordaintzeko borondatezko aldian eska daiteke, ordenantzan ezartzen diren betekizun eta baldintzak betetzen direlarik, bederatzi hilabete edo hortik beherako eperako, eta zorra sortzen den urte naturalean egin behar da ordaintzea. Ez du berandutze-interesik sortzen.

Hauek dira epeka ordaintzea baliatu ahal izateko betekizunak:

- a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari eta Zaborrak bildu eta suntsitzegatik ordaindu beharreko tasari dagozkien likidazioak —likidazio bakoitza **4.000** eurotik beherakoa delarik—, bederatzi hilabete edo gutxiagoko epearen barruan zatikatu ahalko dira, likidazioa egiten den urte naturalaren barruan, berandutze-interesik sortu gabe.
- b) Ordenantza fiskal honen 25. artikuluan adierazitako ordaintzeko borondatezko epea amaitu baino hamabost egun lehenagora arte egin ahal izango da zatikatzeko eskabidea, aurreko ataleko diru-sarreretako baterako nahiz guztietarako, eta diru-sarreretako bakoitzaren ordainagirian adierazten den epearen barruan aplikatuko da.
- c) Epeka ordaintzea banku-helbideratzearen bitartez egingo da. Edozein unetan eman edo aldatu ahal izango du ordaintzeko helbideratzeko kontu-zenbakia zergadunak —aurrez aurre edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez—, eta epeka ordaintzearen hurrengo kuotatik aurrera izango ditu ondorioak horrek.
- d) Epeka ordaintzea onartzen delarik, esan gabe joko da hurrengo urteetara luzatuzat —eroldako zein erreferentziatarako eskatu zen, horietarako—, salbu eta hura emateko galdatu ziren betekizunak hurrengo urteetan betetzen ez badira. Interesdunak eskatzen edo Udalak erabakitzen duelarik utziko dio indarrean egoteari, eta eskabide aurkezten edo erabakia komunikatzen den urtearen hurrengoan izango ditu ondorioak horrek, salbu eta bertan behera uztearen arrazoia zatikako ordaintzea onartu zeneko betekizunak ez betetzea denean, halakoetan erabakia hartzen den ekitaldian bertan izango baitu eragina.

Epeka ordaintzearen bi kuota —jarraian nahiz bakanka— ordaintzeari uzten zaiolarik betearazteko aldiari ekingo zaio, premiamendu-probidentzia jakinaraziz, eta, momentu horretatik bertatik epe-mugara iritsiz joko dira ordaintzeke dauden zatiak oro. Halakoetan, ekitaldian ordaintzeke dagoen zor guztia geratuko da betearazpen-bidean sartuta, eta automatikoki sortuko da betearazte-aldiko gainordaina 71. artikuluko 2. atalean xedatzen denaren ildotik, berandutze-interesez gain.

Baldin eta administrazioak ez badu zatikatzeko eskabidea lege ezarritako denboran ebatzen, isiltasun positibotzat joko da.

Eskatutako zatikatzeta benetan aplika dadin, likidazioak egiteko behar den informazio guztia eduki beharko du udalak eskura, dela dagokien administrazioek emana —(Ondasun higiezinaren gaineko zergari eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokienez —, dela interesdunek berek emana, eskabidearekin batera.

Hil bakoitzeko 30ean gauzatu da ordaintzea, egun baliaduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliadunean.

## **70 ter art.- Zerga-tarifa laua**

1. Zerga-tarifa laua borondatezko epean ordaintzeko modu bat da. Horren bidez, herritarrak urte osoan zehar ordaindu behar dituen zergen zenbatekoa batzen da, eta 10 kuota berdinetan banatu, martxotik abendura ordaindu beharrekoak.

Zerga-tarifa lauan zerga eta tasa hauek sartzen dira:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ)
- Zabor-tasa
- Ekonomia-jardueren gaineko zerga
- Urteko eta seihileko emakidak
- Ibilgailu-pasabideak
- Mahai-aulkiak
- Bide publikoko lurzorua eta lurpea okupatzea
- Hilerriak

Zerga-tarifa laua eta epekako ordainketa bateraezina dira.

2. Eskaera kasuan kasuko urteko martxoaren 1a baino lehen egin beharko da. Martxoaren 1ean eta egun horretatik aurrera aurkezten diren eskabideek hurrengo urtean izango dituzte ondorioak. Eskaerak ez du denbora-mugarik.

3. Banku-helbideratzea ezinbestekoa da zerga-tarifa laua erabili ahal izateko.

4. Bederatzigarren eta hamargarren kuotek aurrekoen zenbateko bera edo ezberdina izan dezakete, zerga-tarifa lauan aurreikusitako kuotaren eta benetakoaren arteko doikuntzaren arabera. Azaroan jakinarazpen bat bidaliko zaie herritarrei beren benetako kuotak eta aurreikusitakoak ezberdinak badira, eta azaroko eta abenduko zenbatekoen berri emango zaie.

5. Kuota bat ordaintzen ez bada, ordainketa-modu hori bertan behera geratuko da eta ordaintzeke dauden ordainagiriak ordaindu beharko dira epemuga baino lehen. Epemugaz kanpo badaude, ordaindu gabeko zenbatekoak 15 eguneko epean ordaindu beharko dira. Ezarritako epe horretan ordaindu ezean, indarrrik gabe geratuko da zerga-tarifa laua, eta Ordenantza Orokorren egutegi fiskalean aurreikusitako ordainketa-epeak ezarriko dira berriro.

6. Zerga-tarifa lauan baja borondatez eskatuz gero, eskatzen den unean bertan izango du eragina. Beraz:

- Ordaintzeke dauden ordainagiriak ordaindu beharko dira epemuga baino lehen. Epemugaz kanpo badaude, ordaindu gabeko zenbatekoak bajaren egunetik 15 eguneko epean ordaindu beharko dira.
- Ordaindu gabe dauden kuota helbideratuak itzuli beharko dituzte.
- Indarrrik gabe geratuko da zerga-tarifa laua.

7. Ordaintzeko borondatezko epea bukatutakoan epe exekutiboa hasiko da, eta hortik aurrera premiamendu-errekargua eta berandutze-interesak sortuko dira, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

### **III. KAPITULUA.- DIRU-BILKETA BETEARAZLEAREN XEHETASUNAK**

#### **71. artikulua.- Garai betearazlearen hasiera.**

1.- Borondatezko aldian ordaintzeko epea bukatzen den egunaren biharamunean hasiko da betearazteko aldia aldeztu aurretik jakinarazi arren artean ordaintzeke dauden likidazioen kasuan, salbu eta ordainketa atzeratu edo zatikatzeko eskatu bada, edo zorra konpentsatzeko.

2.- Udal Ogasunarekiko zorren kontrako betearazteko aldia hasten delarik, gainordain hauek sortuko dira:

**a) Betearazte aldiko gainordaina:** ehuneko 5ekoa, baldin eta borondatezko aldian ordaindu ez zen zor guztia ordaintzen bada premiamendu-probidentziaren berri eman aurretik. Horrelakoetan, ez dira eskatuko betearazteko aldia hasi zenetik sortutako berandutze interesak.

**b) Premiamendu gainordain murriztua:** ehuneko 10ekoa, baldin eta borondatezko aldian ordaindu ez zen zor guztia eta gainordaina bera ordenantza honen 73. artikuluko 2. atalean adierazten den epea bukatu aurretik ordaintzen badira. Horrelakoetan, ez dira eskatuko betearazteko aldia hasi zenetik sortutako berandutze interesak.

**c) Premiamendu gainordain arrunta:** ehuneko 20koa, zein a) eta b) ataletan adierazitako zirkunstantziak egokitzen ez direnean aplikatuko baita. Horrez gain, betearazte aldia hasi zenetik sortutako berandutze-interesak eskatuko dira.

3.- Zergadunek ez badute autolikidazioa aurkeztearekin batera hura ordaintzen, betearazte aldiko gainordainak sortuko dira, ordainketa egiteko arauz finkatutako epea bukatzen denetik aurrera. Epez kanpo -ordainketarik egin gabe- aurkezten diren autolikidazioen kasuan, horiek aurkeztearekin batera sortuko dira betearazte aldiko gainordainak. Betearazte aldiko gainordainak bateragarri izango dira 70. artikuluko 2. puntuan araututakoekin.

4.- Borondatezko epean ordaindu gabeko zorren zerrenda ziurtatua egingo du diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak, premiamendu-prozedura hasteko titulu betearazle gisa balioko duen nahitaezko premiamendu-probidentzia eman dadin. Zordunen erantzule solidarioen identifikazioa jasoko da bertan.

#### **72. artikulua.- Premiamendu-prozedura.**

1.- Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak jaulkiko duen premiamendu-probidentziaren bitartez ekingo zaio premiamendu-prozedurari —ordaintzera behartuari jakinaraziko zaio, eta ordaintzeke dagoen zorra identifikatuko da bertan, gainordainak likidatuko eta ordain dezala eskatuko—.

2.-Premiamenduzko prozedurak izaera administratiboa baino ez du izango eta Diru bilketaz indarrean dagoen araudian araututa dagoen bezala bideratuko da, Udalaren auto-antolaketa gaitasunak eragin ditzakeen hainbat punturen azalpena ematen dutelarik datozen hurrengo artikuluek.

#### **73. artikulua.- Premiamendu-probidentzia.**

1.- Premiamendu-probidentziak titulu betearazlea osatzen du. Titulu horrek, epailearen epaiak ordaintzeko obligaziodunen ondasunen eta eskubideen aurka jarduteko duen indar betearazle berbera du.

2.- Premiamendu-aldiko zorra ordaintzeko epeak. Behin betearazteko aldia hasten delarik, eta premiamendu-probidentzia jakinarazten, gehienez hilabeteko epean ordaindu beharko da zerga-zorra premiamendu-probidentziaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik —hala ohartaraziko da jakinarazpena horretan bertan—.

Zorrek epe horietan ordaintzen badira, berandutze-interesa ez da likidatuko.

Baldin eta zergadunak ez badu ordainketa artikuluko honen 1. atalean adierazitako epean egiten, haren ondasunak bahitzeari ekingo zaio, hala jakinarazten zaiolarik premiamendu-probidentziaren bitartez. Zordun berak zor bat baino gehiago baldin badu, pilatu egingo dira guztiak, eta, zer edo zer ordaintzen duelarik ere guztiari aurre egiteko nahikoa ez bada, zor zaharrenak likidatzeko baliatuko da. Zor bakoitzaren borondatezko aldia noiz bukatu zen hartuko da aintzat horretarako.

3.- Premiamendu-probidentziaren jakinarazpenean honako hauek jasoko dira:

- a) Zorra eta gainordaina ordaintzeko lekua.
- b) Prozeduraren kostuak leporatzea.
- c) Ordainketa atzeratu edo zatikatu dadila eskatzeko aukera.
- d) Berariazko oharpena, prozedura indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan eta baldintzekin etengo dela.
- e) Premiamendu-probidentziaren kontra aurkez litezkeen errekurtsoak, zein organoren aurrean aurkez daitezkeen eta horretarako epea.

4.- Premiamendu-probidentziaren kontra egiteko arrazoi hauek bakarrik onartu ahal izango dira:

- a) Zorra guztiz iraungi edo ordainketa eskatzeko eskubideak preskribitu izana.
- b) Borondatezko aldian zorra atzeratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskatu izana nahiz diru-bilketaren prozedura eteteko bestelako arrazoiak.
- c) Likidazioaren jakinarazpena ez gauzatu izana.
- d) Likidazioa deuseztatu izana.
- e) Zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea galarazten duen oker edo omisioren bat izatea premiamendu-probidentzian.

5.- Likidazioa baliogabetzat jotzeko arrazoiren batean oinarrituta egiten delarik aurka, eta hala dela, hau da, horretarako arrazoirik egon badagoela egiaztatzen delarik, likidazioa baliogabetzeko administrazio-erabakia har dadila galdatuko da, eta premiamendu-probidentziaren aurkako errekurtsoa onetsiko.

6.- Premiamendu-prozedurako zenbait jardueraren baliogabetasuna deklaritzen delarik, baliogabetasun-kausak eragiten ez dienak kontserbatzea xedatuko da.

7.-Zerga-zorren gainordainak edo bestelako osagaiak —kuotaz bestelakoak— baliogabetzeak ez dio eragingo premiamendu-prozeduran egindako jardueren baliotasunari, obligazio nagusiaren ondorio diren zerga-zorren baliogabetu gabeko osagai galdagarriei dagokienez.

#### **74 artikulua.- Bahitura-eginbidea.**

1.- Zordunaren ondasunen gainean egingo da bahitura, zorraren zenbatekoa, interesak, betearazteko aldiko gainordainak eta prozeduraren kostuak estaltzeko adinako kopuruan, beti ere proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arauaren 173. artikulutik 176.era artekoetan eta hori garatzeko arauetan aurreikusitako prozeduraren arabera.

2.- Administrazioak eta zerga ordaintzera behartuak ez badute beste ordena diferente bat adostu, besterentzeko erraztasuna eta behartuari kalterik gutxien zerk egiten dion kontuan harturik egingo da enbargoa.

Irizpide horiek baliatuz, eta orobat zorraren zenbatekoarekiko proportzionaltasunaren eta administrazioaren eraginkortasunaren irizpideak, Arabako Lurralde Historikoko Diru-bilketa Araudi Orokorren 48/1994 Foru Dekretuaren 142. artikuluan adierazten den hurrenkera aldatu ahal izango du Udaleko zerga-administrazioak, modu arrazoituan.

3.- Ez dira bahituko legeek izaera orokorrarekin bahiezintzat deklaratuak dituzten ondasun eta eskubideak, ezta bahitzearen kostua estaltzeko nahikoa izango ez liratekeela uste izatekoa den ondasun eta eskubideak ere.

4.- Jarduera bakoitzerako bahitura-eginbide bana emango da, eta hura gauzatzeko norekin konpondu behar den hari jakinaraziko.

Ondasun edo eskubideak enbargatu ondoren, zergapekoari jakinaraziko zaio eginbidea, eta, halakorik izanez gero, ondasunen titular, edukitzaile edo gordailuzain den hirugarrenari, baita zergapekoaren ezkontideari ere, enbargatutako ondasunak irabazpidezko erregimenean badaude, edo legez eraturako izatezko bikoteko kideari, eta, halaber, ondasun horien jabekideei.

Egindako bahitura ez bada aski zor osoa estaltzeko, jakinarazpenean komunikatuko zaio zein den ordaintzeke geratzen den zorra, zeinen kontra premiamendu prozedura jarraituko baita.

5.- Bahitura-eginbidearen kontra egiteko arrazoi hauek bakarrik onartuko dira:

- a) premiamendu-probidentzia jakinarazi ez izana,
- b) zorra iraungi izana edo ordainketa galdatzeko eskubidea preskribitu izana,
- c) diru-bilketaren prozedura eten izana,
- d) bahiturei buruzko arauak ez bete izana,
- e) ordainketa zatikatzeko edo ordainketa atzeratzeko baimena izatea.

6.- Arrazoi horietakoren bat egokitzen dela frogatzen bada bakarrik altxatuko da bahitura, edo zordunak Toki Ogasunaren interesak hobeto babestuko dituen ordaintzeko beste modu bat proposatzen badu. Premiamendu Ataleko buruak sinatuko ditu bahiturak altxatzeko aginduak.

#### **74 bis artikulua.- Banku-kontuen bahitura**

1.- Banku-kontuak bahitzeko, Banku Kontseilu Gorenaren 63. Koadernoan bildutako bahituren prozedura zentralizatua jarraituko da, nagusiki.

Hala ere, banakako bahitze-aginduak ere eman ahal izango dira, baldin eta hartara Udalaren interesak hobeto babesten direla uste bada.

2.- Bahitura altxatzea. Bahitura altxatzeko agindu eman ahal izango du Diru-bilketa Zerbitzuak legez aurreikusitako epean. Bahitura altxatzeko agindua betetzen ez bada, okerreko diru-sarrerak itzultzeko prozeduraren bitartez itzuliko da bahitutako diru-kopurua.

3.- Soldatak edo pentsioak bakarrik sartzen diren kontu korronteen kasuan, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 607. artikuluan aurreikusten den eskala aintzat hartuko da bahitura egiteko. Baliozko edozein frogabideren bitartez frogatu beharko du interesdunak zirkunstantzia hori. Legez bahitu daitekeen kopurua gainditzen badu bahiturak, altxatu egingo da, osorik edo partez.

4.- Bahitzen den kontu korronteak titulartasun bereizigabea nahiz amankomuna izan, zordunari dagokion saldoaren proportzioa errespetatubeharko du bahiturak. Ondorio horietarako, saldoa titularren artean zati berdinetan zatituta dagoela joko da, salbu eta bestelako proportziorik egiaztatzen bada —titularrari dagokio hori frogatzea—. Finantza-erakundeak ez badu proportzionaltasuna aplikatzen bahitura ezartzean, dagokion zatia altxatuko da. Bankuaren ziurtagiria edo legezko beste edozein frogabide aurkeztu beharko du interesdunak, kontu korrontea partekatua dela frogatzeko.

Titularrak ezkonduak edo Eusko Legebiltzarraren 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikotea diren kontu bateratuen kasuan —irabazpidezko ondasunen erregimenean—, dagoen saldo osoa bahituko da.

Aitzitik, ondasun-banaketaren erregimenean baldin badaude, saldoa zati berdinetan banatutzat joko da, eta zordunari dagokion saldoarekiko proportzioan egingo da bahitura. Nolanahi ere, interesdunei dagokie erregimen hori agiriaren bidez egiaztatzea.

5.- Aldez aurretik adierazten zaion diru-bilketarako kontuan sartu beharko du finantza-erakundeak bahitutako diru-kopurua, bahituen prozedura zentralizatuaren protokoloan finkatutako epeetan. Diru-sarrera gauzatzen den egunean aplikatuko ditu Diru-bilketak bahitutako diru-kopuruak, diru-bilketaren ondorio guztietarako (interes-likidazioa, itzulketak eta abar).

Bahitura-agindu banakatuak badira, traba jartzen den egunaren biharamunetik hogeit hamar egun natural igarotzen delarik egin beharko da diru-sarrera.

#### **74 ter artikulua.- Soldatak, ordainsariak eta pentsioak bahitzea**

1.- Prozedura Zibilaren 1/2000 Legearen 607. artikuluan finkatutako atxikipenen eskala errespetatuz bahituko dira soldatak, ordainsariak eta pentsioak, eta ezingo dira bahitu lanbide arteko gutxieneko soldatatik beherako diru-kopuruak. Hala ere, zorduna soldata, ordainsari edo pentsio bat baino gehiagoren onuradun bada, bahitu daitekeen zatia zehazteko metatu egingo dira horiek guztiak. Era berean, ezkontideen ordainsari, soldata eta pentsioak, ordaintzak edo baliokideak metagarriak izango dira, salbu eta arautzen dituen erregimen ekonomikoa ondasunen eta errenta ororen banaketarena bada —egiaztatu egin beharko da zirkunstantzia hori—.

2.- Dagokion zuzemenean dokumentatuko da bahitura, eta bai zordunari, bai ordaintzaile den pertsona edo entitateari jakinaraziko zaie.

3.- Bahitutako zenbatekoak atxikitzen behartuta egongo da ordaintzaile den pertsona edo entitatea, eta zuzemenean jakinarazten zaion diru-bilketarako kontuan sartzera. Diru-sarrera gauzatzen den egunean aplikatuko ditu diru-kopuruak udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak, diru-bilketaren ondorio guztietarako (interes-likidazioa, itzulketak eta

abar). Atxikitzeko obligazioa edo atxikitako diru-kopuruak kontuan sartzekoa bete ezean, erantzukizun solidarioa galdatu ahal izango da.

4.- Zor osoa kitatu ondoren, atxikipenak bertan behera utzi behar dituela jakinaraziko dio udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak ordaintzaile den pertsona edo entitateari.

#### **74 quater artikulua.- Balioak eta bestelako kredituak, gauzak eta eskubideak bahitzea**

1.- Udal-administrazioak ordaintzera behartuaren titulartasuneko balorerik badela jakinez gero, bahitura-zuzemenaren bitartez burutuko da bahitura, bertan identifikatuko baitira administrazioak ezagutzen dituen baloreak, eta udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren iritziz zorraren zenbateko osoa, betearazte-aldiko gainordainak, berandutze-interesak eta prozedura-kostuak estaltzeko adina balore jasoko.

2.- Bermerik ez duten kreditu, efektu eta eskubideak badira, zordunari eta premiatuaren zordun den pertsona edo entitateari jakinaraziko zaie bahitura-zuzemena, bidenabar ohartarazten zaielarik ezen, une horretatik aurrera, udal ogasunaren aurrean zordun denari egiten zaion ordainketak ez duela izango izaera libratzailerik.

Kreditu edo eskubidea ondoz ondoko ordainketak egitean badatza, ordaintzaileari aginduko zaio udal-bilketan sar dezala horien zenbatekoa, zor den kopurura iritsi arte.

3.- Kreditu bermatuak badira, bermea eman duenari ere jakinaraziko zaio bahitura-zuzemena, edo, kasua bada, berme gisa eskainitako ondasun edo eskubidea duenari, gordailu gisa utzi ahal izango baita hura, kreditua iraungi arte. Kreditua iraungitzen delarik, gauzatu egingo da bermea.

#### **74 quinquies artikulua.- Ondasun higiezinaren bahitura**

1.- Bahitura-zuzemenaren bitartez egingo da bahitura —zordunari, ezkontideari, hirugarren edukitzaileei eta hipoteka-hartzekodunei jakinaraziko zaie—. Jabetzaren Erregistroan Gasteizko Udalaren aldeko bahitura-oharpen prebentiboa egingo dela ohartaraziko da bertan.

2.- Ondasun higiezinaren bahituraren oharpen prebentiboa egingo da dagokion Jabetza Erregistroan. Horretarako, manamendua igorriko zaio erregistratzaileari, hipoteka-legedian xedatutakoaren ildotik, eta orobat eskatuko Erregistroan funts bakoitzaren gainean ageri diren kargen ziurtagiria egin dezala, zehatz-mehatz adierazten dituelarik kargak eta horien titularrak, eta ziurtagirian jasotzen, bidenabar, funtsaren une horretako jabea eta haren bizilekua.

Ziurtagiri hori ikusirik, titularren bati bahitura jakinarazi ez zaion egiaztatuko da, eta, hala bada, behar diren jakinarazpenak egingo dira.

#### **74 sexies artikulua.- Bestelako ondasun eta eskubideen bahitura**

1.- Pentsio-funtsetako edo gizarte-aurreikuspeneko entitate edo erakundeetako partaide edo bazkideek jasotzen dituzten zenbatekoen bahitura. Pentsio-plan, mutualitate edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitate bateko partaideek edo gizarte-aurreikuspeneko beste tresna alternatiboren bateko partaideek jasotzen dituzten edo jaso litzaketen hartzekoetarako eskubidea bahitu ahal izango da, kasuan kasuko araudian baimendutakoaren ildotik, bahitura gauzatu dela bazkide arruntek dagokien kontingentziatik eratorritako prestazioa ordain dakiela eskatzen dutenean, dela bazkide aktiboek edo etenaldian daudenek dagokien erreskate aurreratua baliatuz eratorritako prestazioa ordain dakiela eskatzen dutenean.

2.- Ondasun higigarrien bahitura. Bahitura-zuzemenaren bitartez egingo da bahitura. Bahiturak Ondasun Higigarrien Erregistroan inskriba daitezkeen ondasunei eragiten badie, bahitura-agindua emango da, oharpen prebentiboa egin dadin bertan.

Ibilgailuak badira, ordaintzera behartuari jakinaraziko zaio bahitura, eta galdutako bost eguneko epean udal-bilketako eginkizunak betetzen dituen organo eskudunaren esku utz ditzala, dokumentazioarekin eta giltzekin batera, bidenabar ohartarazten zaiolarik ezen, hala egin ezean, agindua emango zaiela zirkulazioa zaintzeaz arduratzen diren agintariei eta bidezko den gainerakoei horiek atzeman, gordailutu eta zigilatu ditzaten, eta eskuz aldatzea edo udal ogasunaren eskubideen kalte izan litekeen beste edozein jarduketa galaraz dezaten.

### **75 artikulua.- Bermeak betearaztea**

Arabako Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorraren 172. artikuluaaren arabera, zerga-zorra bermatuta badago, lehendabizi bermea administrazioaren premiamendu-prozeduraren bitartez betearaziko da.

Hala ere, zerga-administrazioak bermea betearazi baino lehen beste ondasun edo eskubide batzuk bahitu eta besterentzea erabaki ahal izango du berme hori bermatutako zorraren neurrikoa ez bada edo ordaintzera behartuak hala eskatu badu, eta horretarako nahikoa ondasun adierazi. Halakoetan, jarritako bermea ondorioz gabe geratuko da bahituek aseguratzeko duten zatian.

### **75 bis artikulua.- Bahitutako ondasunak besterentzea.**

1.- Hauek osatuko dute ondasunen enkanterako mahaia: Zerga Bilketarako Zerbitzuko buruak —lehendakaria izango da—, udal teknikari batek —idazkari lanetan ariko da— eta Diru-bilketako Zerbitzuko Premiamendu Ataleko buruak.

2.- Ondasunen enkanteen iragarkiak Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkitaulan argitaratuko dira, eta aukeran, ondasunaren izaerak eta balorazioak hala egitea gomendatzen duenean, zabalkunde handiko komunikabideetan eta argitalpen espezializatuetan ere agertuko dira.

### **3. Enkanteak egitea.**

3.0.- Enkanteak diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak baimenduko ditu.

3.1.- Ondasunen enkanteetan, mahaiaren aurrean gordailuak eratzeko denbora ordu erdikoa izango da lehen lizitazioan. Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak izendatzen duen kontura banku-transferentzia eginez eratu beharko dira gordailu horiek.

3.2.- Eskaintza-zatien zenbatekoa enkanterako mahaiak berak erabakiko du osatzerako garaian.

3.3.- Enkantea iragartzen denetik enkantea hasi baino ordubete lehenagora arte bidali edo aurkeztu ahal izango dituzte beren eskaintzak lizitatzailleek, gutun itxi batean. Eskaintza horiek eredu izango dira eta diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoan horretarako prestatutako liburu batean erregistratuko dira. Organo horrek izendatutako kontuan egindako banku-transferentziaren —gordailututako zenbatekoa— egiaztagiria erantsi beharko zaie eskaintzei.

3.4.- Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak izendatutako kontura egin beharko da transferentzia —enkantea bukatzean, itzuli egingo zaizkie gordailututako zenbatekoak adjudikaziodun suertatzen ez diren lizitatzailleei—. Adjudikaziodun suertatzen ez

diren lizitzailek adierazitako kontuetara banku-transferentzia eginez gauzatuko da itzulketa hori.

3.5.- Enkantea egiten hasi baino lehen, eskaintza gutun itxian aurkeztuta zeukan eskaintzailearen batek enkantean parte hartzeko ez duela asmorik adieraziko balu idatziz, gordailua aurreko puntuan ezarritako baldintzen arabera itzuliko litzaioke.

3.6.- Gutun itxiaren bidez eskaintza bat baino gehiago aurkeztuko balitz, guztietatik bigarren altuenetik aurrera hasiko litzateke eskaintzaren onarpena.

3.7.- Mahaiak gutun itxi bidezko eskaintzaileak ordezkatu behar dituzte, haien ordeztu egingo dituzten eskaintza handiagoak, kasu bakoitzerako zehaztutako eskaintza-zatien arabera, bere eskaintzan zehaztutako gehienezko muga gainditu gabe.

3.8.- Zuzeneko esleipen bidez eginiko salmentaren kasuan, enkantea egin den egunetik kontatzen hasita hurrengo sei hilabeteetan burutu beharko da besterentzea.

#### **76. artikulua.- Berandutze interesak.**

1.- Zor diren kantitateek berandutze-interesak sortuko dituzte, borondatezko aldiaren zorraren epemugaren hurrengo egunetik hasi eta diru-sarrerara egiten den bitartean.

2.- Interes tipoa ezarriko zaien oinarrian ez da premiamendu-gainordaina sartuko.

3.- Arabako Lurralde Historikoan aldi bakoitzean indarrean dagoen interes mota aplikatuko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26.6. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

4.- Berandutze interesak tronkoarekin batera ordainduko dira.

5.- Premiamendu-probidentzian adierazten den gehieneko epea —hilabete bat, kobratzeko borondatezko aldia bukatzen den egunaren biharamunetik— igaro ondoren ordaintzen bada zorra, berandutze-interesak galdutako dira.

6.- Eskudirua edo kontuetako dirua bahitzen bada, bahikuntza egiteko garaian interesak kalkulatu eta atxiki ahal izango dira baldin eta dagoen dirua dagoen zorra baino handiagoa izango balitz. Lortutako likidoa baxuagoa izango balitz, konturako emandakotzat hartuko da.

### **IV. KAPITULUA - ATZERAPENAK ETA ZATIKAPENAK.**

#### **77. artikulua. Zatikatu edo geroratu daitezkeen zorrak**

Toki Ogasunaren titulartasuneko zerga zor guztien eta izaera publikoko bestelakoan ordainketa atzeratu edo zatikatu ahal da, eta Tokiko Gobernu Batzarrak edo berak ordezkotzen duenak erabakiko du hori.

Zergapekoak eskatzen badu, zuzenbide publikoko zerga zorren ordainketa atzeratu edo zatikatu ahal da, bai borondatezko aldiaren, bai betearazte aldiaren, betiere eskatzen diren baldintzak betez gero, lege eta udal ordenantzek aurreikusitako salbuespen egoeretan izan ezik.

#### **77 bis art.- Zatikatzeko edo geroratzeko aukeraren salbuespenak**

Zatikatzeko edo atzeratzeko aukera horren salbuespen dira:

a) Konpentsazio Batzarren hirigintza kuotak

b) Zorrak atzeratu edo zatikatu nahi badira, eta momentu horretan, jada, betearazte aldian dauden zorrak badaude, zorra bere osotasunean atzeratu edo zatikatzeko eskatu beharko da; horren salbuespena dira dagoeneko bermatuak, zatikatuak, atzeratuak edo bertan behera geldituak daudenak eskaeraren momentuan, ebatzi gabeko errekursoak tartean direlako. Guztiak batera izapidetu beharko dira.

c) Ezingo dira atzeratu 350 eurotik beherako edo 10.000 eurotik gorako zorrak.

d) Lehendik atzeratu edo zatikatu diren zorrak, salbu eta horren beharra eta betetzearen bideragarritasuna behar bezala egiaztatuak badaude. Kasu horietan baldintza jakin bat bete beharko da beste zatikatze bat onartu ahal izateko: egunean izatea indarrean dagoen zatikapenaren ordainketa.

e) Prozedura konkurtsala badago, masa pasiboaren zati diren zorrak ezingo dira atzeratu edo zatikatu. Dagokion arauaren menpe geratuko da horien tratamendua. Horren haritik, konkurtsoaren prozedura judiziala abiarazi ondoren zordunak aurkezten duen zorra atzeratu edo zatikatzeko eskabidea ez da aintzat hartuko. Abiarazte horren aurretik aurkeztutakoak, berriz, bertan behera utzitakotzat joko dira prozedura judiziala abiarazten den egunean.

f) Titularrak azken urtean —ordaindu gabeko azken kuotaren datatik— edozein zatikatze edo atzeratze ez ordaindu izanak beste edozein zor atzeratu edo zatikatzeko egiten dituen eskabideak ez onartzea ekarriko du berekin, 86. artikuluan jasotzen diren salbuespenak salbu.

g) Trafikoaren eta bide-segurtasunaren alorreko araudiaren ildotik ezarritako diruzko zehapen irmoak, ordaintzeko borondatezko aldian daudenak, betearazteko aldian horiek zatikatu edo atzeratzeko eskabidea egiteko aukera gorabehera.

h) Ezingo dira atzeratu edo zatikatu errekurso edo erreklamazio ekonomiko administratiboak nahiz administrazioarekiko auzi-errekursoak osorik edo partez ezesten dituzten ebazpen irmoak betearaztearen ondorio diren zerga-zorrak, baldin eta alde zaurretik —errekurso edo erreklamazio horiek izapidetu bitartean— eten egin baziren.

i) Zatikatu beharreko zorra soldata eta ordainsariak enbargatzeko eginbide baten barruan badago, baliteke zatikatzea onartzeko enbargatutako zorraren % 50 alde zaurretik ordaindu behar izatea.

Puntu honetan jasotako kasuetan, zatikatzea betetzen ez bada, ezin izango da beste zatikatzerik eman hamabi hilabeteko epean, ordainsariak enbargatzeko beste eginbide bat emanez gero.

j) Zatikatu beharreko zorra ibilgailua enbargatzeko eginbide baten barruan badago, eta ibilgailu hori atzeman eta udal-bulegoetara eraman bada, zatikatzea onartzeko baliteke enbargatutako zorraren % 50 alde zaurretik ordaindu behar izatea.

k) Zatikatu beharreko zorra kredituak enbargatzeko eginbide baten barruan badago, baliteke zatikatzea onartzeko enbargatutako zorraren % 50 alde zaurretik ordaindu behar izatea.

Aurreko ataletan adierazitako inguruabarrak biltzen dituzten eskabideak, adierazitako salbuespenak aplikatu behar bazaizkie, bidegabetzat joko dira eta ez da onartuko haien izapidetzea.

## **77 ter artikulua.- Zatikatzeak eta atzeratzeak onartzeko baldintzak**

1. Ordainketaren zatikatzea edo atzeratzea onartzeko banku helbideratzea exijitu ahalko da.
2. Interesdunek kontu korrontean sartu ahalko dute zerga zorraren zati bat, eta gainerakoa atzeratu edo zatikatzeko eskatu.
3. Atzeratu edo zatikatzen diren zorrak bermatuta gelditu behar dira legeak xedatutakoarekin bat, honako ordenantzak jasotzen dituen salbuespenak izan ezik.
4. Aparteko beharra gertatzen den kasuetan zorrak edo isunak —edozein dela haien izaera— atzeratu edo zatikatzea baimendu ahalko da ordenantza honetan ezarritako arauekin bat etorri behar izan gabe, baina, betiere, eskatzaileak ordaintzeko borondatea frogatu badu.

Horretarako nahitaezkoa izango da Diru-bilketa Zerbitzuaren txostena da, non zehatz-mehatz aztertuko baitira zorraren izaera, eskatzailearen egoera ekonomikoan zailtasun iragankor eta ez egiturazkoak eragin dituzten arrazoiak eta gertakariak, bai eta egoera horri aurreikus dakioken bilakaera ere.

Kasu horietan, emateko edo atzeratzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarena izango da, eta horren berri emango dio Ogasun Batzordeari.

Ez dira inolaz ere emango atzeratu nahi diren zorren preskripzio-epea gainditzen duten atzeratzeak.

## **77. Quater artikulua.- Diru-bilketako prozedura geldiaraztea**

1. Zorra ordaintzeko borondatezko aldian egonez gero, zatikatzeko eskabidea aurkezteak diru-bilketarako prozedura etetea ekarriko du, eta ondorioz, premiamendu bidea ez da abiaraziko hura ebatzi arte. Zorra ordaintzea premiamendu bidean badago, ez dira bahitutako ondasunak besterentzeko jarduketak burutuko.

Aurrekoa gorabehera, zatikatzeko eskaerak ez du eragotziko betearazpen-aldia hastea, aurretik beste eskaera bat ukatu bada, zerga-zor berari dagokionez.

2. Aurretik ukatu egin den atzeratzeko edo zatikatzeko eskabidea berriro aurkeztuz gero, aurretik aurkeztutakoaren aldean funtsezko aldaketak izan beharko ditu onartua izateko; bereziki ukatuko dira diru-biltzearen kudeaketa denboran luzatu, zaildu, eragotzi edo ekiditea helburu duten eta behin eta berriro aurkeztzen diren eskabideak.

Ez onartzeak harekin dakar atzeratzeko edo zatikatzeko eskabidea ez aurkeztutzat jotzea, ondorio guztietarako.

## **77. quinquies artikulua.- Jarduketak zatikapenaren edo geroratzearen indarraldian**

1. Atzeratzea edo zatikatzea onartu zaion interesdunak nahi duenean aurreratu ahalko du ordainketa; kasu horretan, berriro kalkulatu da interesei dagokien zenbatekoa.
2. Interesdunari onartutako zatikatze edo atzeratzearen indarraldian, zor osoa nahiz zati bat konpentsatzerik izango da, epe berean haren alde aitortzen diren ordainketa, itzulketa, kreditu edo eskubideak horretarako baliaturik. Ondorio horietarako, zatikatzea edo atzeratzea ematea erabakitzen den unetik interesdunak dagokion konpentsazio eskabidea egiten duela joko da, interesdunaren alde krediturik dagoen unetik beretik ondorioak izan ditzan; konpentsazio aplikatu delarik ordaindu gabeko zorrik geratuz gero, beharrezko berandutze-interesak kalkulatu dira berriro.

## **78. artikulua Zatikatze- eta geroratze-eskaerak**

### 1. Aurkezteko epeak

Atzeratzeko edo zatikatze eskabideak diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoan aurkeztuko dira, berak baitu izapidetzeko eskumena, honako epeen arabera :

Dirua biltzeko borondatezko aldian dauden zorrak: edozein momentutan, ordaintzeko ezarri den epearen barruan, edo zergapekoak autolikidazioa aurkezten duen momentuan bertan.

Betearazte aldian dauden zorrak: edozein momentutan, zergapekoari bahitutako ondasunak besterenduko direla jakinarazi aurretik.

### 2. Eskabidearen edukia

Atzeratzeko edo zatikatze eskabideak honakoak izan beharko ditu nahitaez:

- Izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa; identifikazio fiskalerako zenbakia eta ordaindu behar duenaren helbide fiskala, kasua denean, hura ordeztzen duenarena, ordezkaritza hori egiaztatzen duten agiriekin batera.
- Atzeratzeko edo zatikatze eskatzen den zorraren identifikazioa, gutxienez, zenbatekoa, kontzeptua eta borondatez ordaintzeko aldia amaitu zen eguna adierazita. Betearazte aldian dauden zorren kasuan, eskabideak zorra osoa jaso beharko du, baina zatikatzea edo atzeratzea eskatzen den zerga kontzeptu bakoitza zein den adierazi beharko da.
- Atzeratzeko edo zatikatze eskabidearen arrazoia.
- Eskatzen den atzeratze edo zatikatzearen epeak eta bestelako baldintzak.
- Eskaintzen den bermea, ordenantza honen 80. artikuluan aurreikusitako kasuetan.
- Eskatzailea konkurtso-prozesuan badago, ohartarazi beharko du zatikatzea edo atzeratzea eskatzen den zorra ez dela masaren kontrako zortzat jotzen.
- Banku helbideratzerako agindua, kasua denean, bezeroaren kontuaren kode zenbakia adierazita eta kontuan kargatu beharko duen kreditu entitatearen identifikazio datuak.
- Autolikidazioa, kasua denean, zergapekoak berak autolikidatu behar dituen zorretarako.
- Tokia, data eta eskatzailearen sinadura.

Organo eskudunak egokitzen jotzen duen beste edozein agiri edo egiaztapen eskatu ahalko dio eskatzaileari, bereziki honako hauek:

1. Ekonomia eta finantza zailtasunak tartean direla egiaztatzen duen justifikantea, eskatzaileari ordainketa dagokion epean, eta aldi baterako, egitea eragozten diotenak, hain zuzen.

2. Zinpeko aitortpena eta abala edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria lortzeko ezintasunaren agiri bidezko justifikazioa.

3. Nomina edo diru-sarreraren ziurtagiria.

4. Berme gisa eskaini diren ondasunen tasazioa, kasua denean, espezializatutako enpresa edo profesional independenteek eginga izan behar da. Ondasun mota zehatz bat balioesten

duen enpresa edo profesional espezializatuen erregistroa egonez gero, lehentasuna emango zaio erregistro horretan izena emanda duen enpresa edo profesionalak egiteari.

5. Pertsona juridikoak badira: Itxita dagoen azken ekitaldiko emaitzen balantzea eta kontua, eta auditoretza-txostena, baldin badago, legeak aginduta kontularitza eraman behar duten enpresaburu edo profesionalen kasuan.

6. Bestelako edozein informazio, eskatutako atzeratzea edo zatitzea diru-zaintzaren aurreikuspenen bidez –atzeratzea edo zatikatzea eskatzen den denborari dagokionez– betetzeko aukera justifikatzen badu.

## **79. artikulua. Atzeratzea eta zatikatzea emateko irizpide orokorrak.**

### **1. Zatikatzek**

Gehienez, 60 hilekotan zatikatu ahalko da zorra, borondatezko aldiaren nahiz betearazte aldiaren.

Hileko kuota konstanteen bidez egingo da ordainketaren zatikatzea; tronkoak, errekarquak eta berandutze-interesek osatuko dute kuota bakoitza, eta ezingo da izan 30 eurotik beherakoa.

Helbideratutako zatikapenetan, hil bakoitzeko 30ean gauzatu da ordainketa, egun baliorduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliordunean.

### **2.- Atzeratzeak**

Gehienez, 12 hilabetez atzeratu ahalko dira 350 eurotik 10.000 eurora bitarteko zorrak, ondoren agertuko diren irizpideekin bat, borondatezko aldiaren nahiz betearazte aldiaren dauden ordainketetan.

- 350 eurotik 3.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 6 hilabetez atzeratu ahalko da.
- 3.000,01 eurotik 6.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 9 hilabetez atzeratu ahalko da.
- 6000,01 eurotik 10.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 12 hilabetez atzeratu ahalko da.

## **80. artikulua.- Bermeak**

Zatikatzeko eta atzeratzeko eskabideetan eskatzen diren bermeak honako irizpideen arabera arautuko dira:

- Zatikatzeko: zorra 18.000 eurotik gorakoa bada, eta zatikatze epea 18 hilekoa baino handiagoa, bermea jarriko da, borondatezko aldiaren nahiz betearazteko aldiaren.
- Atzeratzeak: zorra 6.000,01 eurotik 10.000ra bitartekoa bada, bermea jarriko da, borondatezko aldiaren nahiz betearazteko aldiaren.

## **81. artikulua.- Bermeen sailkapena**

1. Lehenengo aukera gisa, finantza erakunde edo elkarrekiko berme elkarte baten abal solidarioa, edo kauzio-asegurua aurkeztu beharko du eskatzaileak.

2. Aurreko puntuan adierazitako bermea aurkeztea posible ez denean, eskabidea egitean eta ondoren ezarriko den hurrenkeraren arabera, honako bermeetako bat eskaini beharko du zergapekoak:

- Ondasun higiezinaren hipoteka.
- Aski balioa duten ondasunen bahituraren aurreneurritzko idatzoharra egina izatea erregistro publikoan.
- Ondasun higigarrien hipoteka
- Bahia, lekualdatzearekin nahiz gabe
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga udal administrazio honetan ordaintzen duen pertsonak -udalarekiko betebeharrei dagokienez egunean egon beharko du-emandako berme pertsonal eta solidarioa.
- Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak nahiko jotzen duen beste edozein.

Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak esan beharko du bermeak, ekonomiko zein juridikoki, nahiko diren, eta horretarako egoki jotzen dituen txostenak eskatu ahalko ditu.

Dena den, eskaintzen den bermea edozein dela ondasunaren balioespena -kasua denean, kargak aparte utzita- atzeratzea edo zatikatzea, osotasunean edo zati batean, bermatzeko nahiko ez bada, ordenantza honek xedatutakoaren arabera, zergapekoari egin ahalko zaio errekerimendua hamar eguneko epean, komunikazioaren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik kontatua, berme osagarria ezar dezan.

Errekerimenduari erantzuten bazaio eta nahiko berme osagarria ezarri, dosierraren izapidetzearekin jarraituko da. Errekerimenduari erantzuten ez bazaio edo erantzuna emanda ere bermea osatu ez dela ulertzen bada, eskabidea ukatu egingo da berme nahikorik ez aurkezteagatik.

## **82. artikulua.- Bermeek betebeharrekoak**

1.- Hauek estali beharko ditu bermeak: borondatezko aldiko zorraren zenbatekoa, atzeratzeak sortzen dituen berandutze-interesena eta bi partida horien baturaren ehuneko 25.

Zorra betearazteko aldian baldin badago, hauek estali beharko ditu bermeak: atzeratutako zenbatekoa —betearazteko aldiko errekerimendua barne—, atzeratzeak sortzen dituen berandutze-interesak eta bi partida horien baturaren ehuneko 5.

Zorra zatikatzea eskatzen den kasuetan, kopuru nagusia, berandutze-interesak eta partida bien baturari dagokion % 25 estali beharko ditu bermeak.

2.- Bi hilabeteko epean aurkeztu edo eratu beharko da bermea, atzeratzea edo zatikatzea onartzeko erabakia jakinarazten denetik —eta nahitaezko baldintza izango da hura formalizatzea—.

Aurreko atalean adierazitako bi hilabeteko epea igarotzen delarik bermea formalizatu ez bada, emateko erabakia indargabetuta geratuko da.

3. Bermatutako zorra osoa ordaindu ondoren libratuko dira bermeak, kasua denean gainkargak, berandutze-interesak eta kostak barne.

Dena den, bermea emateak, onartzeak, balioesteak, gauzatzeak eta ezeztatzeak eragindako gastuak zordunak ordaindu beharko ditu.

Ukatzea erabaki ahalko da Udalak lehenago ere eskatzaileak aurkeztutako bermea errefusatu badu, juridikoki edo ekonomikoki nahiko ez delako.

### **83. artikulua.- Bermea jarri beharrik ez dagoen kasua, aparteko beharra edo salbuespenekoa gertatzen denean**

Zerga administrazioak banku abala edo bestelako bermeak aurkezteko ezintasuna justifikatzeko errekerimendua egin ahalko dio zergapekoari, eta kasu horretan honako agiriak eskatu ahalko dira:

#### **- Pertsona fisikoen kasuan:**

1. Bere banku kontuen batez besteko saldoak, eskabidea egiten den egunaren aurreko hiruhilekoari dagokiona. Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak zergapekoari eskatu ahalko dio kontuen saldoa -ordainketa egiteko epea amaitzen den egunekoa edo beste egunekoa- aurkezteko
2. Nomina edo diru-sarreraren ziurtagiria
3. Titular den eta ekonomiarekin zerikusia duten ondasun eta eskubideen zerrenda.
4. Egokitzat jotako beste edozein agiri.

#### **- Pertsona juridikoen kasuan:**

1. Itxita dagoen azken ekitaldiko emaitzen balantzea eta kontua, eta auditoretza-txostena, baldin badago, legeak aginduta kontularitza eraman behar duten enpresaburu edo profesionalen kasuan.
2. Egokitzat jotako beste edozein agiri.
3. Eskatzailea administrazio publiko edo erakunde autonomoa bada, ez da bermerik exijituko. Era berean, erregistratuak dauden irabazte xederik gabeko elkarte eta erakundeek ez dute bermerik jarri beharko.

### **84. artikulua.- Zatikatzek edo atzeratzeak sortutako berandutze interesak**

1. Atzeratu edo zatikatutako zenbatekoek berandutze-interesak sortuko dituzte, borondatezko aldiaren amaiera egunetik atzeratze edo zatikatzeak irauten duenera arte; betearazte aldiari dagokion gainordaina bazter utziko da horiek kalkulatzeko orduan.
2. Atzeratzeak edo zatikatzeak sortu dituen interesen likidazioak ordainketa bakoitza egitean egingo da, zati bakoitzari edo atzeratu den guztiari ordura arte atzeratu diren kopuruengatik sortutako interesak gehituta.
3. Atzeratzea edo zatikatzea borondatezko aldian emateak betearazte aldia abiaraztea ekidingo du, baina berandutze-interesak berdin sortuko dira.
4. Atzeratzea edo zatikatzea ematerakoan egiten den hasierako interesen gaineko kalkulua behin-behinekoa da, likidazioa gauzatzean egokitu beharko baita

Atzeratu edo zatikatzea onartzen denean indarrean dagoen zergen arloko berandutze- interesa aplikatuko da, salbu eta zatikatu edo atzeratzea banku-abal baten edo nahikotzat jotzen den beste bermeren baten bitartez bermatuta badago; izan ere, atzeratu edo zatikatzea onartzen den unean indarrean dagoen diruaren legezko interesa aplikatuko da halakoetan.

5. Sortzen den aldian indarrean dagoen legezko berandutze-interesa exijituko da, eta atzeratu eta zatikatutako zorra bermatu denean. Bestela, Arabako Lurralde Historikoan aldi bakoitzean indarrean dagoen interes mota aplikatuko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26.6. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

6. Ez da berandutze-interesik eskatuko erregistratuak dauden eta irabazte xederik gabeko elkarte eta erakundeei emandako atzeratze edo zatikatzeak direla eta.

### **85. artikulua.- Zatikatzeko eta geroratze-eskaerak izapidetzea**

1. Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak izapidetuko ditu zatikatzeko eta geroratze-eskaerak eta zerbitzuburuak erabakiko du zatikatzea edo geroratzea ematea, 79. artikuluan horiek emateko ezarritako irizpide orokorrekin bat.

2. Izapidetuko duen organo eskudunak aztertu eta balioetsiko du bermea nahiko eta egokia den edo, bermea jartzetik salbuesteko eskabidearen kasuan, hori emateko baldintza zehatzak betetzen direla egiaztatuko.

3. Eskabideak arauan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu edo aurreko ataletan adierazitako agiriak ez baditu harekin, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari akatsa zuzen dezan edo falta diren agiriak erantsi ditzan; horretarako 10 eguneko epea emango zaio errekerimenduaren jakinarazpena egiten zaion egunaren biharamunetik kontatua. Errekerimenduari emandako epearen barruan erantzun ezean, eskabidea ez aurkeztutzat joko eta, bestelako izapidetzerik gabe, artxibatuko dela ohartaraziko zaio interesdunari.

4. Atzeratzeko edo zatikatzearen eskabidea borondatez ordaintzeko aldian aurkeztu denean eta bera zuzentzeko errekerimenduari erantzuteko epea borondatezko aldiarena baino beranduago amaitzen denean, errekerimenduari erantzun ezean, premiamendu bidea abiaraziko da dagokion premiamendu probidentziaren jakinarazpenaren bidez.

5. Atzeratzeko edo zatikatzearen eskabidean zein dagokion dokumentazioan akatsik edo faltarik ez dagoenean, edo horretarako epean zuzendu denean, berariazko ebazpena emango du organo eskudunak, eta ondorioz, eskabidea ebatzi arte ez da bidezko izango premiamendu probidentzia ematea, nahiz eta borondatez ordaintzeko epea pasatu izan.

6. Eskabidea betearazte aldia aurkeztu bada, udal administrazioak premiamendu prozedura abiarazi ahal du edo, kasua denean, jarraitu; hala ere, eskabidearen ondoren burututako jardunbideak ezeztatzea bidezko izan daiteke, zatikatzea edo atzeratzea ematen den kasuetan. Dena den, kasua denean, bahitutako ondasunen besterentzea bertan behera geldituko da atzeratzeko edo zatikatzearen eskabidea ezezten duen ebazpenaren jakinarazpena egin arte.

7. Eskabidea izapidetzen duen organo eskudunak behin-behineko ordainketen egutegia ezartzea aztertuko du, dosierraren konplexutasuna dela eta ebazpena atzeratu daitekeela ikusten badu. Egutegi hori ebazpena eman arte beteko litzateke eta interesdunak eskatutako epeekin bat ez etortzea gerta liteke, are gehiago, horiek ordeztuko litzuzke ondorio guztietarako.

8. Eskabidea izapidetzen den bitartean, zordunak bertan proposatutako epe, zati edo zatiak ordaindu beharko ditu.

## **85 bis art.- Zatikatze- eta geroratze-eskaerak ebaztea**

1. Atzeratzeko edo zatikatze eskabidea udal erregistroan sartu zen egunetik kontatua 6 hilabeteko epean eman beharko da ebazpena.

Epe hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahalko dute interesdunek.

2. Ebazpenak zatikatze edo atzeratzeko eskabidea ezezten badu, zorra ordaindu beharko du hori egitera behartua dagoenak, berandutze-interesak barne, hain zuzen, borondatezko aldi ordaintzeko epea amaitu zen egunaren biharamunetik ordainketa egin arte –ezezteko ebazpenaren jakinarazpenarekin batera irekitzen da ordaintzeko epea– sortutakoak. Eskabidea ezezten duen ebazpenaren jakinarazpenarekin irekitzen den borondatez ordaintzeko aldi ordaindu ezean, epe hori amaitu arteko interesak likidatuko dira.

Ebazpenak eskabidea ezetsi eta atzeratzea edo zatikatzea betearazte aldi eskatu bada, bertan behera gelditu zen premiamendu prozedurak aurrera jarraitzen duela ohartaraziko zaio eskatzaileari.

3. Ebazpenaren jakinarazpenean honakoak jasoko dira:

- Zatikatzeko den zorraren edo zorren zenbatekoa.
- Berandutze interesen likidazioaren zenbatekoa
- Guztira atzeratu edo zatikatu den zenbatekoa
- Emandako epeetako bakoitzaren zenbatekoa eta iraungitze eguna, kasua denean

4. Atzeratzea edo zatikatzea eman edo ukatzen duen ebazpenaren kontra ez da inolako errekurso edo erreklamaziorik onartuko (48/94FDaren 75. art.)

## **86. artikulua.- Zatikatua edo atzeratua izan den ordainketa ez egitearen ondorioak.**

1. Oro har, zerga zorren kasuan, emandako epea pasa bada dagokion diru-sarrerara egin gabe, iraungitzat joko dira ere, egun berean, eman diren ondorengoak.

2.- Ordaindu gabeko zatikapen edo atzerapenaren azken kuotaren ondorengo hamabi hilabeteetan zatikatu edo atzeratzeko eskabiderik eginez gero, ukatu egingo da, salbu eta — zatikapenen kasuan— ordaindu gabeko azken bi kuoten saldoa ordaintzen bada, halakoetan onartzerik izango baita.

3. Bermerik ez duten zerga zorrak

Zorraren ordainketa atzeratu ondoren ez bada borondatezko aldi ordaintzen, premiamendu bidetik galdatuko da ordaintzeke dagoen kopurua, dagozkion gainordainak eta interesak gehituta. Halakoetan, premiamendu probidentzia igorriko da, ordaindu ez den epea eta hurrengoak bere baitan hartzen dituenak.

Betearazteko aldi dagoen zorra, atzeratu ondoren, ez bada ordaintzen, premiamendu prozedurarekin jarraituko da, eta besterik gabe ekingo zaie bahitze jardueri, 5. eta 6. puntuetan xedatzen dena salbu.

4. Bermea duten zerga-zorrak badira, 15 eguneko epean gauzatuko da hura, betearazte errekerimendua egiten den egunaren biharamunetik kontatuta.

5. Dena den, onartu egingo da iraungipen-dataren ondoren ordaintzea —dagokion errekararekin batera— baldin eta ordainketa premiamendu-probidentzia jakinarazi aurretik egiten bada. Kasu horretan, onetsitako zatikatzeak indarrean jarraituko du.

6.- Ordaindu gabeko kuotak bi badira, eta zatikapena artean indargabetu ez bada, ordaintzeke dagoen saldoa ordaintzen utziko da, eta, halakoetan, zatikapenak indarrean jarraituko du, hasierako baldintza eta epeekin.

Horretarako, ordaintzeko galdea igorriko zaie zatikatu edo atzeratutako zorra ordaindu ez duten zordunei, hirugarren kuota jaulki aurretik ordain dezaten ordaintzeke duten saldoa.

Epe horretan ordaintzen ez badute, zorra, gainordaina eta dagozkion berandutze-interesak galdatuko dira, diru-bilketarako prozeduraren barruan.

## **V. KAPITULUA- PRESKRIPZIOA ETA KONPENTSAZIOA**

### **87. artikulua.- Preskripzioa.**

1.- Zerga-zorren ordainketa eskatzeko epea bost urteren buruan preskribitzen da, borondatezko ordainketa egiteko epea bukatzen den egunetik kontatuta.

2.- Zerga-zorrek zehazteko epea bost urteren buruan preskribitzen da, legez eskatutako aitortpena aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatuta.

3.- Zergazkoak ez diren zorren preskripzio-epea, zor horien kudeaketa arautzen duen araudi bereziaren arabera zehaztuko da.

4.- Preskripzio-epea etenda geratuko da:

a) Ordaintzeko obligaziodunak zorra iraungiarazteko egindako edozein jardueragatik, edota erreklamazio edo errekurtsioa jartzeagatik.

b) Doakiona jakinaren gainean egonda, zorra gauzatzeko edo zorraren aseguramendurako diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak burututako edozein jardueragatik. Erregelamenduak eskatu bezala dokumentatu beharko dira jarduera horiek, eta bereziki agertu beharko da, Ordenantza honetan arautu moduan gauzatutako jakinarazpenek preskripzioa etenda utz dezaketela.

5.- Behin etena sortu ondoren, berriz ere ekingo zaio preskripzio-epea zenbatzeari, ordaintzera behartuta dagoenak edota Administrazioak berak burututako azken jardueratik hasita.

6.- Zorren preskripzioa ofizio bidez ezarriko da, Alkateak onartu eta urtero eratuko den espediente kolektiboan. Espediente hori, Kontu-hartzaileak fiskalizatuko duena, Tokiko Gobernu Batzarra eramango da onar dezaten.

### **88. artikulua.- Konpentsazioa.**

1.- Diru bilketaren kudeaketa garaian, bai borondatezkoan bai betearazlean, dauden Udalaren aldeko zorrek konpentsatu ahal izango dira, udalak aitortutako betebeharrekin eta zordunaren alde.

2.- Konpentsazioak borondatezko aldiko zorrei eragiten dienean, beharrezko izango da zordunak hala eskatzea.

3.- Zorrak epe exekutiboan daudelarik, Ogasun Saileko organo delegatuak konpentsazioa egitea agindu dezake —ofizioz egingo da konpentsazioa, eta zorduna jakinaraziko —.

### **89. artikulua.- Erakunde publikoen zorren ofizio bidezko konpentsazioa.**

1.- Lurralde Erakunde bat, Erakunde Autonomo bat, Gizarte Segurantza edo Ordenamendu pribatuak agindutako jarduera burutzen ez duen zuzenbide publikoko Erakunderen bat denean zorduna, Udalaren aldeko zorrak ofizio bidez konpentsatu ahal izango dira, borondatezko aldiaren dirua sartzeko epea igaro eta gero.

2.- Konpentsazioa ezartzeko honako hau egin beharko da:

a) Diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak 1. puntuan aipatutako Erakundeek Udalarekiko zorra daukatela ziurtatu ondoren, Diruzainari jakinarazi beharko dio.

b) Alkateak konpentsazioa baimentzeko erabakia hartzen duelarik, zorra duen erakundeari jakinaraziko zaio.

### **90. artikulua.- Erakunde publikoen zorren kobrantza.**

1.- Aurreko artikuluan izendatutako Erakunde Publikoen zorrak desagerrarazteko ezin izango balitz konpentsazioa ezarri, Udalaren aurka ez daukatelako krediturik, Diruzainak Erakunde zordunaren Kontu-hartzailezari eskatu egingo dio, Udalari ordaintzeko obligazioaren aitorpena ziurtatzen duen egiaztagiria.

2.- Diruzainak Lege-Aholkularitzari emango dizkio bere ikerketen ondorioz sortutako agiriak. Zorra, zorduna eta espedientearen izapidetze prozesua nolakoak diren aztertu ondoren, Aholkularitzak jarduera-proposamena burutuko du, ondoren aipatutakoren bat izan daitekeelarik:

a) Estatuko edo Erkidego Autonomoko Administrazioari eskatu, Erakunde zordunaren alde agindu zitezkeen transferentzien kargura, zorraren zenbatekoa besteko atxikipena ezar dakiola eta Udalaren esku jarria izan dadila.

b) Estatuko Zerga Agentziaren laguntza eskatzea.

3.- Burutu behar izango diren jarduerak Alkateak onartu beharko ditu eta bere erabakiaren berri Erakunde zordunari eman beharko zaio formalki.

## **VI. ATALBURUA- KREDITU KOBRAEZINAK**

### **91. artikulua.- Kaudimen-gabeziako egoera.**

1.- Hutsegite osoaren edo partzialaren deklarazioak erantzukizun subsidiarioa dela eta erantzukizuna beste behartu posible batzuen kontra eramateko dosierra abiarazteko aukera emango du, nahiz eta ez duen galaraziko udal administrazioak, zorra kobratzeko administrazio-ekintza iraungi bitartean, huts egindako zordunaren kontra behar diren ekintzak bideratzea.

Baldin eta, hutsegite-aitorpena izapidetzean, diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoak —zerga-erantzulerik dagoen ikertzen duelarik— ondorioztatzen badu beste behartu edo erantzulerik ez dagoela, kreditua kobraezintzat deklaratzeko proposatuko du.

Zordun baten hutsegite-egoerak, kredituak kobraezintzat deklaratu badira ere, ez du galaraziko, inola ere, horien ordainketari aplika dakizkiela —hura lehengoratu ondoren— bahitu edo konpentsatu litezkeen diru-kopuruak, atzematen diren ondasunak besterentzearen ondorioz lortzen direnak edo beste edozein diru-sarrera.

Hutsegite-deklarazioa, Merkataritza Erregistroan inskribatuta dauden pertsona fisikoei edo elkarteei dagokielarik, erregistro horretan jasota utzi ahal izango da, diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak igorritako agindua dela medio. Merkataritza Erregistroari eskatu ahal izango zaio hutsegintzat deklaratu diren pertsona edo entitateak direla eta aurrerantzean inskribatu nahi den edozein egintza organo horri jakinarazteko.

2.- Ordaintzera behartuei kobratzea ezinezko suertatu delako diru-bilketa kudeatzeko prozeduran zertzeko modurik ez dagoen kredituak dira kobraezinak. Ordaintzera behartutako guztien kaudimengabezia dela eta kreditu kobraezintzat deklaratu diren zorrak irauungi egingo dira baldin eta preskripzio-epe bukatzen delarik horietako edozeinek kaudimena berreskuratzearen ondorioz lehengoratu ez badira.

Zirkunstantzia hori egokituz gero, eta preskribitu ez badira, kobratu ez diren kredituak lehengoratu egin beharko dira. Horrenbestez, berriro irekiko da prozedura betearazlea, baja eman zitzaizen kredituen likidazio berria egin dadin, behar diren agiri betearazleak jaulkitze aldera, kredituak hutsegintzat deklaratu ziren unean zeuden kobrantza-egoera berean.

Kreditu bat kobraezintzat deklaratzeko kontuetan baja ematea ahalbidetuko du.

3.- Zordun bat kobraezintzat deklaratzeko delarik —eta beste behartu edo erantzulerik ez badago—, baja emango zaie epemuga geroago duten haren kontrako kredituei, deklarazioa erreferentziatzen hartuta, premiamendu-probidentzia eman eta jakinarazteko aukera gorabehera.

4.- Kredituak kobraezintzat deklaratzeko, diru-bilketako eginkizunak betetzen dituen organoaren titularrak behar bezala dokumentatu beharko ditu dagozkien dosierak, eta Ogasuneko organo ordezkaria helarazi onets ditzan, udal kontu-hartzaitzaren fiskalizazioa gorabehera.

5.-Diru-bilketaren kudeaketaren ekonomia- eta eraginkortasun-irizpideen ildotik, kredituak kobraezintzat deklaratzeko erabakiak hartu ahal izango dira horien zenbatekoak eta antzintasuna aintzat harturik, baita zorrak baliogabetzen dituzten bestelako zirkunstantziak baloratu ere, hala nola zordunaren identifikaziorik eza.

## **VI. SEKZIOA- IKUSKAPENA**

### **92. artikulua.- Zergen ikuskapena.**

1.- Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuaren esku dago subjektu pasibo guztien eta gainontzeko zerga-obligaziodunen zerga-egoera nolakoa den aztertzea, Udal Ogasunarekiko dituzten zeregin eta betebeharrak guztiak ondo betetzen dituztela ziurtatzeko, hala balegokio dagokion erregularizazioari ekinez.

2.- Mandatu hori betetze aldera, zeregin hauek izango ditu, besteak beste:

a) Zerga-betebeharren egitateak ikertzea, administrazioak ezagutzen ez dituenen berri izateko.

**b)** Zergapekoek aurkeztutako deklarazioen eta autolikidazioen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.

**c)** Zergak aplikatzearekin zerikusia duten informazioa lortzeko jarduerak burutzea, foru arauaren 90. eta 91. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

**d)** Eskubideen, errenten, produktuen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainerako elementuen balioa egiaztatzea, zerga-obligazioak zehazteko beharrezkoa delarik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 128. eta 129. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

**e)** Bideratutako egiaztatze eta ikertze jardueren ondorio diren zerga-likidazioak egitea.

**f)** Zergen arloko onurak edo pizgarriak eta zerga-itzulketak lortzeko betekizunak betetzen diren egiaztatzea, baita zerga-erregimen bereziak aplikatu ahal izateko beharrezko diren baldintzak betetzen diren ere.

**g)** Ikuskatze jarduerak direla-eta zergapekoei beren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea, eta nola bete behar dituzten azaltzea.

**h)** Zergen alorreko esku-hartze iraunkorrak nahiz aldi batekoak bideratzea, horien berariazko araudian xedatutakoaren ildotik.

**i)** Administrazio publikoko beste organo batzuei aholkuak eta informazioa ematea.

**j)** Beste xedapen batzuetan finkatzen direnak nahiz eskumena duten agintariek agintzen dizkietenak.

### **93. artikulua.- Ikuskatzaileak.**

1.- Ikuskapen lanak Ikuskapen Zerbitzura atxikitako funtzionarioek burutuko dituzte Ogasun eta Ekonomia Sailaren Zuzendariaren ikuskapen zuzenaren pean, Zuzendari horrek zuzendu, bultzatu eta koordinatuko duelarik Zerbitzuaren funtzionamendua, Alkatearen edo Alkateak berak eskuordetutako Zinegotziaren zuzendaritza eta ekimen gorenaren pean.

2.- Dena dela, Zerga mailako ekintzetarako edo egoeretarako prestaketa lanak edo egiaztatze-jarduera soilak direnak, udal-sailetan dauden beste langile batzuei ere eginarazi ahal izango zaizkie, funtzionarioak izan ala ez izan.

### **94. artikulua.- Jarduera-motak.**

1.- Ikuskapen-jarduerak izan ahalko dira:

a) Egiaztapenak eta ikerketak burutzekoak.

b) Zerga mailako informazioa jasotzekoak.

c) Balorazioak egitekoak.

d) Txostenak egin eta aholkuak ematekoak.

2.- Jarduera horien irismena eta edukia, jarduera horietarako Zergei buruzko Arau Orokorrean, Zergen Ikuskapenerako Araudi Orokorrean eta ezar daitezkeen gainontzeko xedapenetan definituta dagoena da, hori guztiori, udal zergei eta udalekoak diren zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuei dagokionez soil-soilik.

"Udal autonomia"ri buruzko lege-printzipioaren eta indarrean dagoen lege-ordenamenduan aitortuta dauden udalaren erregelamendu-ahalmenaren eta auto-antolaketa-ahalmenaren babesean, eta espezializazio nahiz prozeduraren batasun eta ekonomia mailako arazoiak direla medio, Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuak jarduerak oso-osorik izapidetuko ditu, baita ikuskapen-jarduera horietatik sortutako likidazioen produkzioa ere.

3.- Zerga-ikuskaritzaren lanak, Alkateak edo berak eskuordetutako Zinegotziak onartzen dituen ikuskapen-planetara egokituko dira, eraginkortasun eta aukera irizpideak kontutan harturik, jarduleek izan dezaketen ekimenari kalterik egin gabe.

#### **LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA**

Ordenantza honetan, gaztelaniazko testuan, maskulino generikoa erabiltzen delarik, gizon nahiz emakumez ari dela ulertu beharra dago.

#### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

2023ko ekitalditik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean aurreikusitako genero-inpaktuari buruzko txostena jasoko dute ordenantza fiskal honek eta gainerakoek.

Era berean, ordenantza bakoitzaren aldian behingo ebaluazioak abian jarriko ditu Udalak, praktikan neurtzeko indarrean dauden neurrien genero-inpaktua zein den.

#### **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

2023ko ekitalditik, ordenantzak onetsi ondoren, irakurketa errazeko bertsio bat egingo da, erabateko inklusioa errazteko, eta informazioa irisgarria izan dadin denentzat.

#### **AZKEN XEDAPENA**

1.- Alkateari edo berak eskuordetutako Zinegotziari eskubidea ematen zaio, honako Ordenantza hau ezartzeko beharrezko diren izapide guztiak emateko.

2.- Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzen ez den bitartean.

**"Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk."**



# 1 ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.1.a) artikuluan eta Ondasun Higiezin gainerako Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorriz, ordenantza honen arabera eskatuko du Ondasun Higiezin gainerako Zerga Gasteizko Udalak.

### 2. artikulua

Izaera errealeko zuzeneko zerga da Ondasun Higiezin gainerako Zerga, zeinek Gasteizko udalerrian kokatutako landa nahiz hiri lurretako ondasun higiezin balioa zergapetzen baitu.

## II. ZERGA-EGITATEA

### 3. artikulua

1. Landa nahiz hiri ondasun higiezin gainerako nahiz ezaugarri bereziko higiezin gainerako ondoko eskubideen titulartasuna da zerga egitatea:

- a) Ondasun higiezin gainerako edo horiek eratzikirik dauden zerbitzu publikoen gainerako administrazio emakida batena.
- b) Azalerako eskubide erreal batena.
- c) Gozamen-eskubide erreal batena.
- d) Jabetza eskubidearena.

2. Aurreko atalean definitu direnetatik —ezarritako ordenari jarraiki— egokitzen den zerga egitatea gauzatzeak ondasun higiezina gainerako modalitateetara ez atxikitzea ekarriko du berekin.

3. Zerga honi dagozkionetarako, ordenantza honen 4. eta 5. artikuluetan hala definitzen direnak joko dira landa nahiz hiri lurreko ondasun higiezintzat, hiri ondasun higiezintzat eta ezaugarri bereziko higiezintzat.

### 4. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako bakarrik, ondasun higiezintzat jotzen da izaera bakarrek lur zatia edo lur saila, udalerrri batean dagoena, eta lerro poligonal batek jabe baten edo batzuen (*pro indiviso*) espazio eremua eta eremu horretako eraikuntzak mugatzen dituela, jabea edozein dela ere, eta ondasun higiezinak dituen bestelako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere joko dira ondasun higieztatzat:

- a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatiboak, jabetza horizontaleko erregimen berezira lotuak; eta elkarri lotutako elementu pribatiboek osatutako multzoak, baldin egintza bateratuan eskuratuak badira; eta arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, titular baten erabilera eta gozamen eksklusiboari eta iraunkorrari *pro indiviso* atxikiak badira. Elementu komunak ondasun higiezin egokiei egozte, katastro balioztatzerako ondorioetarako bakarrik, arauz ezartzen den moduan egingo da.
- b) Artikulu honetako 3. paragrafoan jasotakoak.
- c) Azalera eskubide baten eta ondasun higiezin gaineko edo horiek eratzirik dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio emakida baten espazio eremua, aurreko letretan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2.- Honako hauek ere joko dira izaera urbanoko ondasun higieztatzat:

Hiri lurak. Hauek jotzen dira hiri lurtzat:

- a') Hirigintza-plangintzan hiri lurtzat, lur urbanizatutzat edo baliokidetzat sailkatuta edo definituta dagoena.
- b') Urbanizagarritzat jotako lurak; lurralde eta hirigintza antolakuntzako tresnetan lur urbanizatua izango direla aurreikusita duten edo egoera horretara igarotzea baimenduta duten lurak, baldin eta sektore eta espazio eremu zedarrituen barruan sartuta badaude, eta mota horretako gainerako lurak, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza tresna onesten den unetik aurrera.
- c') Nekazaritza arloko legerian xedatutakoaren kontra zatitzen diren lursailak, baldin eta zatiketak nekazaritzarako erabilpenaren deuseztapena badakar, nahiz eta horrek ez dion zerga honi dagozkionetarako bestelako aldaketarik ekarriko lursail horien landa-lur izaerari.

3.- Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak biltzen dituen, zein, katastroari dagozkionetarako, ondasun higiezin bakartzat hartzen baita, bere izaera bateratuagatik eta funtzionamendu jakin bati behin betiko lotua dagoelako.

Aurreko paragrafoaren ildotik, ezaugarri bereziko ondasun higieztatzat joko dira ondorengo talde hauetan sartzen direnak:

- a) Energia elektrikoa eta gasa sortzeko nahiz petrolioaren fintzeko direnak, eta zentral nuklearrak.
- b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien ohande edo hondoa barne, ureztapenerako baino ez direnak salbu.
- c) Bidesaria duten autobideak, errepideak eta tunelak.
- d) Aireportuak eta merkataritza-portuak.

## 5. artikulua

Honako hauek joko dira landa-lur izaerako ondasun higieztatzat:

1. Aurreko artikuluko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera urbanotzat jotzen ez diren lursailak.
2. Landa-lur izaera duten eraikinak, landa-lur izaerako lursailetan kokatuta egonik nekazaritzarako, abelazkuntzarako edo basogintzarako ezinbestekoak diren nekazaritza izaerako eraikin eta instalazioak joko dira horrelakotzat.

Zerga honi dagozkionetarako ez dira sekula ere eraikintzat joko nekazaritzarako, abelazkuntzarako edo basogintzarako erabiltzen diren munta gutxiko aterpe edo estalpeak, baldin eta eraikuntzan erabilitako materialak arinak eta iraupen eskasekoak izanik lurraren aprobetxamendu hoberako, landaketen babeserako, beste babesik ez duten lekuan ganadua babesteko edo dena delako jardueran ohizko diren lanabes eta tresnak gordetzeko eta antzekoetarako baino balio ez badute; halaber, ez dira eraikintzat joko, zerga honi dagozkionetarako, landa-lur izaerako lursailei gehitutako obra edo hobekuntzak, zein haien balioaren banandu ezinezko parte izango baitira.

### III. SALBUESPENAK

#### 6. artikulua

Honako ondasun hauek egongo dira salbuetsita:

- a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren, udal erakundeen nahiz erakunde lokalen jabetzapekoak direnak eta zuzenean defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntzako zerbitzuei eta espetxe-zerbitzuei loturik daudenak. Ondasun higiezinaren zergari buruzko foru-araudiak ahalbidetzen duen bezain laster, defentsari lotutako ondasun higiezinak salbuetsita egoteari utziko diote.
- b) Unibertitate publikoen jabetzapekoak izanik zuzenean hezkuntza-zerbitzuei loturik daudenak.
- c) Errepideak, bideak eta lur gaineko gainerako ibilbideak, baldin eta aprobetxamendu publikokoak eta dohainekoak badira.
- d) Udalaren nahiz administrazio-batzarren jabetzapekoak direnak, zerbitzu edo erabilera publikorako baldin badira. Lehen agindutakoa ez da aplikatzekoa izango ondasunei edo horiek eratzikirik dauden zerbitzu publikoari kontzesio administratibo bat zein zeharkako beste kudeaketa-molde bat dagokienean, titularra irabazi-asmorik gabeko elkarte bat eta esaniko entitatearekin udaleko organo eskumendunak udal-interesekotzat jotako lankidetzajarduerak egiten dituen ez bada behintzat.

Orobat, salbuetsita egongo dira mendiak eta bestelako ondasun higiezinak ere, baldin eta komunitatearen probetxuko badira, eta ororen esku dauden auzo-mendiak.

- e) Hazkunde geldia duten espeziez hornitutako mendiak, titularitate publiko zein pribatukoak.

Hazkunde geldiko baso-espeziei —Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren espezieen izendegiaren arabera— eta halako zuhaitzak dauden mendi inguruneei dagokie salbuespena, horien ustiapen nagusia egurra egitea delarik, baldin eta zuhaitz-dentsitatea dena delako espeziearentzat egoki edo normala dena bada.

- f) Eliza Katolikoarenak, alderdi ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3ko Espainiako estatuaren eta Aulki Santuaren artean izenpetutako Akordioan aurreikusitako

terminoetan. Ondasun higiezinaren zergari buruzko foru-araudiak ahalbidetzen duen bezain laster, defentsari lotutako ondasun higiezinak salbuetsita egoteari utziko diote.

- g) Legez onetsita dauden katolikoak besteko elkarte konfesionalenak, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik izenpetutako lankidetzak akordioetan adierazten den eran. Ondasun higiezinaren zergari buruzko foru-araudiak ahalbidetzen duen bezain laster, defentsari lotutako ondasun higiezinak salbuetsita egoteari utziko diote.
- h) Gurutze Gorriarenak eta antzeko beste erakundeak, arauz hala zehazten delarik.
- i) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu beharrekotik diren higiezinak eta, elkarrekiko berdintasunean, atzerriko gobernuek beren ordezkariak diplomatiko edo kontsularrarentzat edo beren erakunde ofizialentzat dituztenak.
- j) Trenbideek okupatutako lur sailak eta horietan kokatutako eraikinak, baldin eta geltokitarako, biltegitarako edo trenbideen ustiapenerako ezinbesteko den beste edozein zerbitzutarako baldin badira.

Ez daude salbuetsita, beraz, ostalaritzarako, ikuskizunetarako, merkataritzarako edo aisialdirako establezimenduak, langileak bizitzeko diren etxeak, zuzendaritzaren bulegoak eta lantegi-instalazioak.

- k) Maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 9. artikuluko 2. ataleko a) letran aipatzen den monumentu-izaera duten ondasun higiezinak.

Salbuespen hori babes berezi eta ertaineko kultura ondasuntzat jotako ondasun higieziari aplikatuko zaie, baldin eta maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak jasotzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 9. artikuluko 2. ataleko b) letran monumentu-multzotzat jotzen diren baitako ondasun higiezinak. Salbuespen hori kultura ondasuntzat jotako ondasun higieziari aplikatuko zaie bakarrik, betiere maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ezarritako baldintzak beteta, babes bereziko erregimenaren barruan badaude.

Orobat salbuetsiko dira Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legean adierazten den Espainiako Ondare Historikoaren baitako ondasun higiezinak.

- l) Osoki nahiz zati batean hezkuntza-hitzarmenen erregimenera bilduak diren ikastetxeek irakaskuntzarako baliatzen dituzten higiezinak, hitzartutako irakaskuntzarako den azalerari dagokionean.
- m) Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 4. artikuluan definituriko irabazi-asmorik gabeko entitateak.

Letra honetan finkatutako salbuespena aplikatuko bazaie, abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean finkatutako aukeraz baliatu nahi dutela jakinarazi beharko diote udalari irabazi-asmorik gabeko erakundeek, eta arau bereko II. tituluan arautzen diren zerga-erregimen bereziari buruzko betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

- n) Beren kuota likidoa 1,5 eurotik gorakoa ez den ondasun higiezinak.

- ñ) Zerga bilketaren kudeaketan eraginkortasuna eta ekonomia bilatze aldera, 650 eurotik beherako zerga-oinarria duten hiri lurreko ondasunak salbuetsi egingo dira. Halaber, eta arrazoi berberarengatik, salbuetsi egingo dira landa lurreko ondasunak subjektu pasibo jakin baten landa-ondasunei guztira dagokien zerga-oinarria 1.220 eurotik beherakoa bada.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

##### **7. artikulua**

1. Zergadunak diren neurrian, subjektu pasibo dira Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak, baldin zerga honetako zerga-egitatea osatzen duen eskubidearen titular badira.

Ezaugarri bereziko higiezin beraren gainean hainbat emakidadun egokitzen direlarik, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkotza.

2. Aurreko atalean agindutakoa aplikatu beharko da, betiere zergadunak eskubide komuneko arauari jarraituz jasandako zerga karga besteri jasanarazteko duen ahalmena errespetatuz. Udalak zergaren kuota likido osoa jasanaraziko die haren subjektu pasibo izan gabe, haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazioz erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako emakidadunei jasanarazi ahalko die dagokien kuotaren zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonen arabera, dagokien proportzioan.

#### **V. ZERGA-OINARRIA**

##### **8. artikulua**

1. Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezin baliok osatuko du.

2. Zerga-oinarria zehazteko ondasun higiezin baliotzat beraien balio katastrala hartuko da haiek merkatuan duten balioa erreferentziazat hartuz finkatuko da hori, inolaz ere ezingo duelarik izan hori baino handiagoa.

##### **9. artikulua**

1. Izaera urbanoko ondasun higiezin baliok katastrala lurraren eta eraikinen balioek osatuko dute.

2. Lurraren balioa kalkulatzeko eragiten dioten zirkunstantzia urbanistikoak hartuko dira kontutan.

3. Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, zirkunstantzia urbanistikoez gain, izaera historiko artistikoa, erabilpena eta destinoa, kalitatea eta antzinatasuna eta bertan eragina izan dezakeen beste edozein faktore hartuko dira kontutan.

##### **10. artikulua**

1. Landa-lurreko ondasun higiezin baliok katastrala lurraren eta eraikinen balioek osatuko dute.

2. Landako lur sailen balioa beraien errenta errealak edo potentzialak arauz ezartzen den interesaren arabera kapitalizatuz aterako da, ezaugarri katalaren arabera lurra

ekoizpenerako, landaketa desberdinetarako edo aprobetxamendurako duen gaitasunaren arabera.

Errenta horiek kalkulatzeko nekazaritzari dagokionez ezaugarri homogeenak dituen zonalde edo eskualde bakoitzean dauden alokairu edo partzuergoei buruzko azterketatik sortzen diren datuez baliatu ahal izango da.

Halaber, atal honen ondorioetarako, landa-lur izaerako lursailetan egindako hobekuntzak ere kontutan hartuko dira, baldin eta haren baliotik banandu ezinezkoak badira, eta, hala dagokionean, baita ekoizpena gauzatu arte igarotako urteak ere; basogintzarako erabiltzen direnei dagokienez, landaketaren adina, arbolen masaren egoera eta aprobetxamendu zikloa hartuko dira kontutan.

Edonola ere, kontuan izango dira aprobetxamendu hobe lortzera bideratutako ekoizpen-bitarteko arruntak erabiltzen edo aplikatzen diren, baina ez ohiz kanpoko bitartekoen balizko aplikazioa.

Hala ere, ustiaketaren izaerak edo udalaren ezaugarriek zaildu egiten badute errenta errealek edo potentzialak zein diren jakitea, faktore tekniko-agrario eta ekonomikoen eta eragiten dieten bestelako zirkunstantzien arabera kalkulatu ahal izango da ondasunen balio katastrala, hobekuntza iraunkorrak eta landaketak barne direla.

3. Landa-lurreko eraikinen balioa aurreko ataleko 3. apartatuan biltzen diren arauak aplikatuz kalkulatu da, haien izaerak horretarako aukera eskaintze duten neurrian.

#### **11. artikulua**

Higiezinaren Katastroetan dauden datuak abiapuntutzat harturik finkatzen dira katastro-balio horiek, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 22ko 158/2016 Erabakian —zeinen bitartez behin betiko onartu baitzen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruen eta hiri eraikinen balioztapen txostena, Gasteizko udalerriri dagokiona— finkatutako arau tekniko eta irizpideei jarraiki —2016ko apirilaren 15eko ALHAO, 42. zk.—. Balio katastral horiek berraztertu, aldatu edo eguneratu egin ahal izango dira, kasuan kasu, 13., 14. eta 15. artikuluetan, hurrenez hurren, adierazten diren terminoetan.

#### **12. artikulua**

Higiezinaren katastroak —landa-lurrena nahiz hiri-lurrena— landa-lurreko ondasun higiezinari eta ondasun higiezin urbanoei buruzko datu eta deskripzio multzoek eratzen dituzte, beren lurrazala, kokagunea, mugakideak, landaketak edo aprobetxamenduak, kalitatea, balioak eta luraren jabetza zehazten duten eta haien alderdi eta aplikazio desberdinak definitzen dituzten gainerako zirkunstantzia fisiko, ekonomiko eta juridikoak adierazten direlarik bertan.

#### **13. artikulua**

1. 9. eta 10. artikuluetan araututako balioespen irizpideak aintzat harturik finkatuko dira katastro-balioak.

2. Horretarako, luraren izaeran aldaketarik gertatu baldin bada, izaera urbanoko luraren mugaketa egingo da aurrez, indarrean dauden hirigintzari buruzko xedapenei jarraiki.

3. Aurreko paragrafoan adierazten diren lurra mugatzeko lanak egin ondoren —behar izanez gero—, dagozkien balio-ezarpenak egingo dira, bertan biltzen direlarik katastro-balioak finkatzeko beharrezko diren irizpideak, balioespen taulak eta gainerako elementuak.

4. Izaera urbanoko luraren mugaketa onartu ondoren, jendurrean jarriko da 15 eguneko eperako, interesatuek bidezkoz jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten. Udaletxeko bulegoan egingo da jendurrean jartze hori, eta Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan gehien banatzen diren egunkarietan iragarriko da.

5. Izaera orokorreko nahiz partzialeko balorazio kolektiborako prozedurek bakarrik eskatuko dute balio-ezartze berri bat onestea.

Eraikuntza berrien, eraberritze lanen, eraisketen, erabilera aldakuntzen, zatikatzeen, bateratzeen, jabetza-erosketaren, administrazio-emakida baten eta erabilera edo azalera eskubide errealeen titularitatea eratu edo aldatzearen eta abarren ondorio diren deklarazio, komunikazio nahiz ikuskaritza dela-eta katastroan sartze nahiz aldatze jarduerarik bideratzen delarik, dena delako higiezinaren katastro balioa banakakoa zehaztu beharko da, bere ezaugarri berriekin. Katastro balio hori sartze edo aldatzea zertzen den lehen eraginkortasun-ekitaldian udalerrian indarrean den balio-ezarketa aplikatuz zehaztuko da.

6. Ezarketak argitara ematen diren unetik, horietatik sortzen diren balio katastralen berri banan-banan eman beharko zaie subjektu pasiboari —edo subjektu pasiboa nahiz baimendutako pertsona zehazten diren bulego publikoetara agertzen delarik—, balio horiek ondorioak izan behar dituztenekoaren aurreko urtea amaitu aurretik.

Balio ezartzea onetsi ondoren beren luraren izaera aldatzen den ondasun higieziari dagokienean, eta balio ezartzearen baitan katastro-balioa zehazteko beharrezko diren elementu eta irizpideak jasoak direlarik, horrela zehaztutako katastro-balio hori delako aldakuntza eragin duten zirkunstantziak gertatu direnaren hurrengo urteko urtarrilaren lehenetik aurrera jarriko da indarrean, egintzaren jakinarazpena noiz gertatzen den aintzat hartu gabe.

7. Horrela finkatutako balio katastralak zortzi urtetik behin berraztertu beharko dira.

#### **14. artikulua**

1. Balio katastralak Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz, Udalak hala eskatuta, hirigintzarako planeamenduak edo beste zirkunstantziaren batek agerian jartzen duelarik alde nabarmenak daudela horien eta udal mugartean edo bertako zona batean edo batzuetan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko balioen artean.

2. Aldaketa horrek, nahitaez, aurreko artikuluan adierazitako terminoetan balioen ezarketa berriak egitea eskatuko du, ez delarik horretako izaera urbanoko luraren mugaketa berria egin beharrik izango.

3. Ezarketak gauzatu ondoren, era berean, aurreko artikuluan araututako izapide eta prozedurei jarraikiko zaie.

#### **15. artikulua**

Aipatutako balio katastralak Lurralde Historikoaren Aurrekontuei buruzko Foru Arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.

### **VI. ZERGAREN KUOTA**

#### **16. artikulua**

1.- Zerga-oinarriari zerga-tasa aplikatuz ateratzen dena izango da zerga honen kuota. Kuota osoari legez aurreikusitako hobarien zenbatekoa kenduz aterako da kuota likidoa.

2.- Zerga-tasa hiri ondasunentzat ehuneko 0,336koa izango da oro har, eta ondoko taulako erabilerei ehuneko 0,431 zerga-tasa berezia ezarriko zaie.

Katastro-araudian zehaztutako erabileren arabera zenbait ondasun higiezin aplikatuko zaien zerga-tasa zehazteko, ondasun higiezin sailkapena ezartzen da ondoren, eta gutxieneko katastro-balioa zehazten, erabileretako bakoitzerako, hortik gora aplikatuko baita zerga-tasa handitua.

Hauei bakarrik aplikatuko zaie zerga-tasa hori: baliorik handieneko ondasun higiezin ehuneko 10ari 2. multzoa (industria), 3. multzoa (bulegoak), 5. multzoa (kirolak), 6. multzoa (ikuskizunak), 7. multzoa (turismoa), 8. multzoa (osasuna eta ongintza), 9. multzoa (kultura eta erlijioa) eta 10 (eraikin bereziak), erantsitako taularen arabera.

TAULA

ERABILERA	KODEA	GUTXIENEO KATASTRO BALIOA
Industria	2	128.271,36 euro
Bulegoak	3	169.544,00 euro
Merkataritza	4	179.793,17 euro
Kirola	5	152.569,92 euro
Ikuskizunak	6	1.859.687,03 euro
Turismoa	7	187.765,13 euro
Osasuna eta ongintza	8	2.256.320,85 euro
Kultura eta erlijioa	9	190.931,59 euro
Eraikin bereziak	10	76.304,44 euro

Higiezin bati erabilera bat baino gehiago esleitu bazaio, eraikin edo areto nagusiaren erabilerari dagokion tasa ezarriko zaio.

Hiri ondasun higiezin bakoitzaren erabilera Higiezin Katastroak urtero ematen duen katastro-eroldan ageri dena izango da, aurreko taulan jasota dauden deskribapen eta identifikazio-kodeen ildotik, bai eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 51/2014 Foru Dekretuak emandakoa ere, zeinak lurzorua eta eraikinak baloratzeko arau teknikoak eta haien balioen esparru taula onartzen baititu, hiriko ondasun higiezin katastro balioa zehazteko.

Erabilera desberdinak identifikatzeari dagokionez, katastro balioaren alorrean ezartzen diren arauak hartuko dira aintzat.

3.- Landa-lurretako ondasunentzako zerga-tasa ehuneko 0,515koa izango da.

4.- Ezaugarri bereziko ondasun higieziari aplikatzeko zerga-tasa ehuneko 0,686koa izango da.

## **16 bis. artikulua**

1. Alokairu edo erabilera-lagapenaren bidez subjektu pasiboaren edo hirugarren pertsonen ohiko bizileku bizitegi-erabilerako ondasun higiezinak Foru Arauak ahalbidetzen duen gehieneko gainordaina izango dute zerga honen kuota likidoan, % 50.

2. Errekargu hori ondasun higiezin gaineko zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da, zerga horren kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilerako higiezin bat okupatzailearen edo okupatzaileen bizilekutzat hartuko da, baldin eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga sortzen den egunean horrela ageri bada eraikina dagoen udalerriko erroldan.

Errekargu hau aplikatzeko, kontuan hartuko dira etxebizitzaren eranskinak, baldin eta harekin batera erregistro-finka bakarria osatzen badute, eta beste erabilera edo jarduera baterako erabiltzen ez badira.

3. Kasu hauetan ez da zergadunak aldeaz aurretik eskatutako errekarurik aplikatuko:

a. Administrazio publikoen eta haien erakunde instrumentalen jabetzakoak diren bizitegi-erabilerako ondasun higiezinak, alokairu eskuragarriko etxebizitzaren eskaintza publikoan sartuta daudenak edo hirugarrenek haiei lagatutakoak, etxebizitza libreen alokairu-merkatuko bitartekaritza-programa publikoak gauzatzeko, esaterako Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Programa.

b. Udal-lizentzia duten ostalaritza- eta ostatu-jarduerei atxikitako etxebizitzak, hala nola erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko logelak.

c. Udal-lizentzia izanik, jarduera profesional edo komertzial jarraituetara bideratutako etxebizitzak.

d. Azken urtean titularra hil direnen ondasunak.

e. Aurri-deklarazioa jaso duten etxebizitzak.

f. Zergaren sortzapen-dataren aurreko urteko azaroan eta abenduan eskualdatutako ondasunak.

g. Errentan hartutako eta etxebizitzarako diren higiezinak. Alokairua bizitegi-erabilerarako izan beharko da; errentamendu-kontratua eskatuko da eta horren berri emango zaio Foru Ogasunari. Errekargua aplikatzen den urtearen aurreko zerga-ekitaldiaren 9 hilabetekoa izan behar du, gutxienez, Alegatutako alokairua.

h. Fisikoki elkartutako ondasun higiezinak, baina erregistroan bi finka diren eta bi ordainagiri desberdin dituztenak. Ondasunen titularra pertsona bera izan behar da.

i. Jaraunspen baten parte diren etxebizitzak, titularra hiltzen denetik 2 urteko epean. Salbuespen hori aplikatzeko, jaraunspen-eskriturak edo beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da, legeak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko ezarritako epean.

j. Pertsona nagusientzako egoitzetan erroldatutako pertsonenak diren etxebizitzak. Salbuespen hori egoitzan ingesatu aurretik egoiliarraren ohiko etxebizitza zen etxebizitzari bakarrik aplikatuko zaio. Salbuespena urtebetekoa izango da, egoitzan erroldatzen den egunetik aurrera.

k. Zergaren sortzapen-datan erreformatzeko lanetan dauden higiezinak. Hori egiaztatzeko, Udalaren obra-lizentzia aurkeztu beharko da.

l. Mendekotasuna duen senide baten etxean erroldatuta dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, baldin eta senide hori zaintzeko bada; agiri bidez egiaztatu beharko da hori.

m. Kalteberatasun- edo arrisku-egoera berezian dauden beste pertsona batzuk zaintzeko edo artatzeko prozesuetan dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, baldin eta etxebizitzaren titularra ez dela bizi justifikatzen badute. Agiri bidez egiaztatu beharko da hori.

## VII. HOBARIAK

### 17. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute naturgune babestuetan baso landaketak dituzten landa lurrek.

2. % 50eko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute, obrak hasi aurretik hala eskatzen dutelarik interesdunek, higiezinaren urbanizazio-, eraikuntza- eta sustapen-enpresen jardueraren objektu diren higiezinak, non eta haien ibilgetuko ondasunak ez diren.

Kontuak fiskalizatzen dituen auditore edo zentsorearen deklarazioa erantsi beharko diote interesatuek beren eskariari, adierazitako hori dela ziurtatzeko, edo, bestela, Elkarteen Zergaren laburpena edo eraikitzen ari diren higiezinak ibilgetuaren partidan sartuta ez daudela erakusten duen beste edozein agiri.

Hobari hori aplikatzeko epea obrak hasten diren zergaldiaren hurrengoan hasiko da, eta haiek amaitzen diren zergaldiaren hurrengoan amaituko, betiere epe horretan urbanizatzeko eta eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epe hori inola ere ezingo da izan hiru zergaldi baino luzeagoa. Bere lurak urbanizatzeagatik hobariak baliatu den interesdunak lur horietan eraikitako higiezinak sustatzeari ekiten dionean, orduan aplikatzeko epea bost zergalditakoa izango da.

3. Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta etxebizitza sozialek behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehenagoko edozein unetan egin ahalko da, eta hala badagokio, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan izango ditu eraginak.

Aurreko paragrafoan adierazitako hobaria baliatzeko aldia bukatzen delarik, hobari hauek izango dituzte babes ofizialeko etxebizitzek zergaren kuotan, hurrengo hiru urteetan:

#### Babes ofizialeko etxebizitzak

1. urtea	ehuneko 50
2. urtea	ehuneko 50
3. urtea	ehuneko 50
4. urtea	ehuneko 30
5. urtea	ehuneko 20
6. urtea	ehuneko 10

Etxebizitza sozialek, berriz, honako hobari hauek izango dituzte, beste sei urtez, zergaren kuotan:

#### Etxebizitza sozialak

1. urtea	ehuneko 50
2. urtea	ehuneko 50
3. urtea	ehuneko 50
4. urtea	ehuneko 30
5. urtea	ehuneko 20
6. urtea	ehuneko 10
7. urtea	ehuneko 20

### **Etxebizitza sozialak**

8. urtea	ehuneko 10
9. urtea	ehuneko 10

Batzuek nahiz besteek aldi horretan jatorrizko kalifikazioari eusten badiote aplikatuko dira hobari horiek, eta jabe edo esleipendunen famili errentek —esan nahi baita familiaren zerga-oinarriari (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga-oinarria) familiaren kuota likidoa kenduz ateratzen denak— ez badituzte gainditzen ondoren zehazten diren famili errenten gehienezko mailak:

### **Babes ofizialeko etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen hobarirako errenta**

<b>ide kopurua</b>	<b>Gehienezko errenta</b>
1 eta 2	26.482,45 euro
3	28.783,64 euro
4	30.724,13 euro
5	32.291,43 euro
6	33.547,76 euro
7	34.804,09 euro
8	36.047,98 euro
9	39.652,78 euro
10	43.618,05 euro
11	47.979,85 euro
12	52.777,85 euro

Guraso edo tutoreek eta etxean bizi diren adin txikiko seme-alabek osatzen dute familiako kideen kopurua. Baldin eta familiako kideek PFEZaren banako aitortpena egitea erabakitzen badute, familiako kide horien banako oinarri eta kuotak batuz aterako dira zerga oinarria eta kuota likidoa.

Jabearen edo esleipendunaren ohiko bizileku -zerga-legediak emandako definizioaren arabera- diren etxebizitzetara aplikatuko zaie hobari hau.

Hobaria jaso duten ondasunen jabeak beste etxebizitzaren baten jabe direla edo familiaren gehienezko errentaren baldintza betetzen ez dutela egiaztatzen badu administrazioak, balio gabetu egingo du emandako hobaria.

Hobari fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren errentari buruzko datuak kontsultatu eta egiaztatzeko, beste administrazio batzuek dituzten datuetara joko du Udalak, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan artikulatutako Euskadiko elkarreragingarritasun-ereduaren bitartez. Horiek NISAE sisteman ez badaude, interesdunak eman beharko ditu.

### **4. Familia ugarietzako hobaria.**

Familia ugarien ohiko bizileku diren etxebizitzek hobaria izango dute zergaren kuotan, Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldatarekiko familia-errenta estandarizatu aintzat hartzen delarik.

<b>Familia-errenta estandarizatua</b>	<b>Hobaria</b>
LGS halako 2 edo hortik behera	ehuneko90
LGS halako 2tik gora eta LGS halako 2,5 edo hortik behera	ehuneko50
LGS halako 2,5etik gora eta LGS halako 2,75 edo hortik behera	ehuneko10

Babes ofizialeko etxebizitzentzat ezarritako hobariekin batera ere baliatu ahal izango da hobari honetaz, baldin eta bi hobari fiskalak gehituz kuotaren ehuneko 100a gainditzen ez bada.

Zergaren subjektu pasiboek hobari-eskabidea aurkeztu beharko dute.

Hobari fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren familia ugariaren izaeraren egiaztapena eta errentari buruzko datuak kontsultatu eta egiaztatzeko, beste administrazio batzuek dituzten datuetara joko du Udalak, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan artikulatutako Euskadiko elkarreragingarritasun-ereduaren bitartez. Horiek NISAE sisteman ez badaude, interesdunak eman beharko ditu.

Familia-errenta estandarizatua zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 3, 4, 5 eta 6. artikuluetan araututako hartuko da aintzat.

## **5. Izaera subjektiboko hobariak**

1.- Zerga honen subjektu pasiboek, beren ohiko bizilekua den etxebizitza osoaren nahiz zati baten gaineko eskubidearen titular direlarik, hurrengo zenbakietan adierazten den hobaria izango dute zergaren kuotan, bertan finkatzen denaren ildotik.

2.- Zergaren kuota osoaren gainean aplikatuko da hobaria, bertan bizi diren famili unitateen diru-sarrerak aintzat harturik, hau da, ondasun osoaren nahiz zati baten gaineko eskubidearen titularren famili unitateenak, atal honetako 4. puntuan ageri den taularen arabera.

3.- Udalerrian beste etxebizitzaren baten jabe ez diren famili unitateei baino ez zaizkie aplikatuko hobariak, etxebizitza hori ohiko bizileku dutelarik, zerga-legediak emandako definizioaren arabera.

4.- Hauxe izango da hobariaren zenbatekoa:

### **Hobari subjektiboa izateko famili errenta**

	T-0 (SMIx1)	T-1 (SMIx1,5)	T-2 (SMIx2)	T-3 (SMIx2,5)	T-4 (SMIx3)
<b>Kide kopurua</b>	<b>0-15.876€</b>	<b>15.877 – 23.814 €</b>	<b>23.815-31.752€</b>	<b>31.753-39.690€</b>	<b>39.691-42.000€</b>
1-2	% 40	% 30	% 0	% 0	% 0
3	% 65	% 50	% 30	% 0	% 0
4	% 80	% 75	% 50	% 40	% 30
5 edo +	% 95	% 95	% 95	% 90	% 75

Titular bakoitzaren, hau da, etxebizitza osoaren nahiz zati baten gaineko eskubidearen titular bakoitzaren famili unitateko kide guztien errentak batu ondoren aplikatuko dira errenta-tarte eta ehuneko horiek. Hain zuzen ere:

Zerga-oinarria joko da errentatzat, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 69. artikuluan aipatzen diren pentsio konpentsatzaileen eta urteko mantenuen kenketa egin ondoren. Atal honetan adierazten den hobaria aplikatzen den ekitaldiaren aurreko azkenaurreko urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan horretarako

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioa hartuko da aintzat aurreko paragrafoan aipatutako errenta zehazteko orduan. Hori aurkezteko obligaziorik ez dutenen kasuan, berriz, delako errenta egiaztatze aukera ematen duen edozein informazio.

Aipatutako azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan definitutakoa joko da famili unitatetzat.

5.- Hobaria emateko eskatu beharko du zergaren subjektu pasiboak. Eskuratzen zaion inprimakia aurkeztu beharko du horretarako, Famili unitatearen errenta-maila egiaztatze agiriekin batera. Nolanahi ere, udalak, Arabako Foru Aldundiaren elkarlanean, egiaztatze lan hori errazterik izango du, hobari honen tramitazioa al bait gehien sinplifikatze aldera.

6.- Hobari hau bateraezina izango da 17. artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin. 17.4 artikuluan definitutako familia ugariei, 17.4 eta 17.5 artikuluetan aurreikusitako hobarien artetik onuragarrien gertatzen zaiena aplikatuko zaie.

7.- Hobari honen aplikazioa, nolanahi ere, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 2/2021 Foru Dekretu Arauemailean egiten den lege-aurreikuspenaren mende egongo da.

## **6. Eraikinen energia-ziurtapenaren araberako hobariak.**

1. Zerga honen subjektu pasiboen ohiko etxebizitza diren ondasun higiezinak A mailako energia eraginkortasunaren etiketa badute, ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta B motako etiketa badute, ehuneko 25ekoa.

2. Eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onetsi zeneko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du energia-ziurtapena lortzeko modua.

3. Gozamen-aldia ezingo da izan bost urtetik gorakoa.

4. Hobari hau bateraezina izango da artikuluan honetan araututako gainerako hobariekin.

## **7. Hobaria Etxebizitza Hutsen Programari atxikitzeagatik**

Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak araututako Etxebizitza Hutsen Programaren eta foru- zein udal-etxebizitzaren plan eta programen esparruan lagatzen diren ondasun higiezinei ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie zergaren kuotan.

## **8. Hobaria, eguzki bidezko energia aprobetxatzeko sistemak instalatzeagatik**

Kuotaren hobari bat aplikatu ahalko zaie eguzki bidez sortutako energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu zaizkien bizitegi-izaerako higiezinei, erregulazio honen arabera:

1. Hobari hauek aplikatuko dira:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren % 50ekoa, gehienez ere 5 urtez, energia-komunitateentzako instalazioen kasuan.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren % 35ekoa, gehienez ere 3 urtez, autokontsumo kolektiborako instalazioen kasuan.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren % 15ekoa, gehienez ere 3 urtez, autokontsumo indibidualerako instalazioen kasuan.

2. Urteko hobariaren zenbatekoak ezin izango du gainditu, ekitaldi bakoitzean:

Energia-komunitateentzako instalazioen kasuan, bazkide edo kide bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren % 15.

Autokontsumo kolektiborako instalazioen kasuan, jabe bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren % 10.

Autokontsumo indibidualerako instalazioen kasuan, instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren % 5.

Puntu honen ondorioetarako, soil-soilik aprobetxamendu termiko edo elektrikora bideratutako instalazioei dagokien egikaritze materialaren kostuari dagokion zatia hartuko da kontuan.

3. Autokontsumo kolektiboaren eta energia-komunitateen kasuan, kuotaren hobaria aplikatuko zaie instalazioan parte hartzen duten higieziei.

4. Eskatu beharreko hobaria da. Iraunaldia amaitu aurreko edozein unetan eskatu ahal izango da, eta, onartuz gero, eskatu eta hurrengo zergalditik aurrera izango du eragina; horrenbestez, ez du atzeraeraginik izango.

5. Hobari hau jasotzeko eskubidea izateko, elektrizitatea edo beroa sortzeko eguzki-aprobetxamenduko sistemek administrazio eskudunaren homologazioa izan beharko dute nahitaez.

6. Hobari hau aplikatzeko baldintza izango da eguzki-instalazioa araudi bidez derrigorrezkoa ez izatea.

7. Eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko eta elektrikoko sistemak batera instalatzen diren kasuetan, gehieneko hobari aplikagarria % 50ekoa izango da, muga berberekin.

8. Nolanahi ere, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Indarreko araudiaren arabera instalazioa derrigorrezkoa ez dela eta eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

Instalazioaren kostua azaltzen duen faktura xehatua, baita instalazioko partaideen zerrenda eta bakoitzari jasanarazitako kostua adierazten duen dokumentazioa ere.

9. Instalazioa kontsumo-puntu bezalako eraikin batean badago, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren % 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, instalazioa hartzen duen ondasun higiezinaren jabeei.

10. Energia-komunitateen kasuan, etxebizitzaren % 50 instalazioa hartzen duen eraikinetik kanpo badago, gutxienez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotaren % 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, haren onurarik ez gozatu arren instalazioa hartzen duen ondasun higiezinaren jabeei.

11. Hobari hori bateraezina izango da artikulua honetan araututako gainerako hobariekin.

### **17bis. artikulua.**

Aurreko artikuluan ezarritako aukerako hobariak ez zaizkie aplikatuko 70.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten famili unitateei.

## **VIII. SORTZAPENA**

### **18. artikulua**

1. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1.ean sortzen da zerga, eta urte naturalarekin bat egiten du zerga-aldiak.

2. Zergapetutako ondasunetan sortzen diren izaera fisiko, ekonomiko edo juridikoko aldaketek gertatzen direnekoaren hurrengo zerga-aldian izango dituzte ondorioak; gainera, eraginkortasun hori ez da egin beharreko egintza administratiboak jakinaraztearen menpe egongo.

3. Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, honako hauek joko dira ondasun higiezinari dagozkien aldakuntzatzat:

a) Fisikoak: eraikuntza berriak egitea eta lehendik daudenak handitu, eraitsi nahiz botatzea, dela zati bat dela osorik. Ez dira aldakuntzatzat joko eraikinak onik zaindu beste xederik ez duten obra nahiz konponketak, aldian behingoak ez badira ere, ezta apaindurei eta dekorazioari baino eragiten ez direnak ere.

Orobat, aldakuntza fisikotzat joko dira landa-lurretako ondasun higiezinaren landaketa nahiz ustiapen aldakuntzak ere.

b) Ekonomikoak: higiezinaren erabilaren eta zertarakoaren aldakuntza, baldin eta ez badakarte berekin aldakuntza fisikorik.

c) Juridikoak: titulartasuna eskuz aldatzea edo ordenantza honen 3. artikuluan jasotako eskubideetako edozein eratzea, ondasun higiezinak zatitu edo banatzea nahiz elkartzeta.

Titulartasuna eskuz aldatzearen edo gozamen, azalera eta administrazio-emakida eskubide errealak eratzearen ondorio diren aldakuntza juridikoetan ez da beharrezko izango jakinaraztea, baldin eta aurkeztutako edozein deklaraziotan erantsitako agiriak baino ez badira aintzat hartzen horiek gauzatzeko.

### **19. artikulua**

1. Edozer dela ere, aldaketarik izango balitz zerga honetako zerga egitatea osatzen duten eskubideen titulartasunari dagokionez, eskubide horien xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzeari lotuko zaizkie, Arabako Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 41. artikulua araberako. Ondorio horietarako, notarioek informazioa eskatuko dute, eta bertaratuei, eskualdatzen den ondasun higiezinari lotutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldetik ordaintzeke dauden zorren berri emango diete.

2. Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren erakundeetako jabekide edo titularkideek modu solidarioan erantzuten diete Zergaren kuota, beren partaidetzen proportzioan; horretarako, higiezin katastroan hala azaldu behar dute. Katastro horretan azaltzen ez badira, erantzukizuna zati berdinetan eskatuko da.

## **IX. ZERGAREN KUDEAKETA**

### **20. artikulua**

Zerga berorren Erroldaren bitartez kudeatzen da. Urtero eratuko da errolda hori, eta ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta balio katastralak hartuko dituzten zentsuak bilduko dira bertan, alde batetik landa-lurretakoak eta bestetik hiri-lurretakoak. Errolda hori jendearen eskuragarri egongo da, Gasteizko udaletxean.

### **21. artikulua**

1. Zergak zergapetzen dituen ondasunei dagozkien alta eta aldakuntzak oro Gasteizko Udalarai aitortu beharra dute subjektu pasiboek.

Bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da aitortpena. Delako aitortpena aurkezteko beharra sortu duen gertakariaren ondorengo egunetik kontatuko da epe hori, salbu eta *mortis causa* eskualdaketetan izan ezik; azken horiei dagokienez, Oinordekotzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik aurrera kontatuko da epe hori.

2. Honako hauek dira aurkeztu beharreko aitortpenak:

- a) Eraikuntza berrien kasuan, dagozkien alta eta, hala behar izanez gero, eraiki deneko lursailaren baja aitortpenak egin beharko dira.
- b) Zerga honi lotutako ondasunen bizidunen arteko eskualdaketak egiten direnetan, erosleak alta aitortpena aurkeztu beharko du eskualdaketa ziotzen duen agiriarekin batera; era berean, baja aitortpena ere aurkeztu beharko du, bertan adierazten dituelarik eroslearen izena eta helbidea, ondasunaren kokagunea eta mugakideak, eskualdaketa eguna eta hori zein kontzeptutan egin den.
- c) Eskualdaketa *mortis causa* egindakoa bada, oinordekoak egin beharko ditu alta eta baja aitortpenak.
- d) Gasteizko Udalak duen ereduaz baliatuz aurkeztu beharko diren aitortpen horiei honako agiri hauek erantsi beharko zaizkie:
  - 1.- NAN/IFK, eskualdaketan emaile eta hartzaile direnenak.
  - 2.- Aldakuntza dakarren agiriaren kopia.
  - 3.- Eskuz aldatzen diren higiezin katastro-erreferentziaren ziurtagiria.

### **22. artikulua**

Berrikusketa katastralen ondorioz Higiezin Katastroan datuak sartzea, bertatik kentzea edo aldatzea, balio katastralak finkatu, berrikusi eta aldatzea, ikuskaritzaren ihardunak edo alta eta jakinerazpenak formalizatzea administrazio ekintzat joko dira, eta zergaren Errolda aldatzea ekarriko dute berarekin. Higiezin Katastroetan ageri diren datuei buruz Erroldan egiten den edozein aldaketak, nahitaez dakar berarekin aurretik katastro horietan aldaketa hori bera egitea.

### **23. artikulua**

1. Salbuespen, kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta diru-bilketa ahalmenak, bai borondatezko aldian, bai premiabidetik jotzen delarik, Gasteizko Udalari dagozkio, aurreragoko 3. puntuan ezarritakoaren kaltetan izango ez bada ere.

2. Zehazki, Gasteizko Udalari dagokio alta eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean agerraraztea, errekurtsio eta erreklamazioei erantzutea, zerga kobratzea, salbuespenak eta sariak aplikatzea eta zergadunari zerga honi dagozkion gaietan laguntza eta argibideak emateko burutu beharrekoak.

3. Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta berari bakarrik, lurraren mugaketak eta balioen ezarketak egin eta onartzea, baita mugaketa eta balio katastral horiek finkatu, berrikusi eta aldatzea eta zergaren Katastroek eta Erroldak berekin daramatzaten eraketa, berrikusketa, onean mantentze eta gainerako funtzioak ere.

Gasteizko Udalak lankidetzan jardungo du Arabako Foru Aldundiarekin Katastroa eratu eta onean mantentzeko, kobrantza-agiriak egiteko eta zergaren ikuskatze katastrala gauzatzeko.

### **24. artikulua.**

Lurraren mugaketa onartzeko ekintzen kontra, balio katastralen ezarketan kontra eta balio katastralen kontra aurkezten diren errekurtsio eta erreklamazioek Lurralde Historikoko Zergetarako Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat egin beharko dute; errekurtsio eta erreklamazio horiei buruz erabakitze eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, aurrez Gasteizko Udal Txit Gorenak dagokion txostena eman beharko badu ere. Errekurtsio eta erreklamazio horiek aurkezteak ez du etenda utziko ekintzen gauzatzeko-endarra.

### **25. artikulua.**

1. Errolda Arabako Foru Aldundiak egingo du, eta Gasteizko Udalari bidaliko dio.

2. Hori jaso ondoren, jendaurrera aterako du Gasteizko Udalak, 15 egunetarako, eraginpean dauden zergadunek aztertu eta, hala dagokionean, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

### **26. artikulua.**

1. Jendaurrean agerian edukitzeko epea amaitzen delarik eta erreklamazioei buruzko erabakiak hartzen direlarik, emaitzaren ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan.

2. Hori onartu ondoren, ordain-agiriak egingo dira, diru-bilketari ekiteko.

### **27. artikulua.**

Kapitulu honetan —Zergaren kudeaketa— xedatutakoa Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak Zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, ikuskaritza, diru-bilketa edo beste edozein alderdi dela eta egin ditzaketen hitzarmenen kaltetan izan gabe ulertu behar da.

### **28. artikulua**

Ondasun higiezin bat —edo haren gaineko eskubidea— bi titular edo gehiagorena bada, bakoitzak dagokion kuota-zatia ordaintzerik izatea eskatu ahalko da. Horretarako, nahitaezkoa izango da ordaintzera behartuta dauden guztien datu pertsonalak eta helbideak

ematea, artikulua honetan zehazten diren betebeharrak aintzat harturik; guztia ere, legez aitortzen zaien erantzukizun solidarioa gorabehera.

Prozedura hori aplikatzekotan zerga-egitatearen titular guztien arteko adostasuna beharko da.

Kuota-zati bakoitzaren ordainketa zein konturen bitartez egingo den adierazi beharko da. Behar diren kontu zenbaki guztiak eman ezean, zerga-kuota zatitzeko eskabidea ezetsi egingo zaie titular guztiei.

Kuota zatika ordaintzeko eskabidea onartuko bada, kuota-zati bakoitzak gutxienez 9 eurokoa izan beharko du, eta ondasun higiezinaren zerga-oinarriak, berriz, 60.000 eurotik gorakoa.

## **X. XEDAPEN GEHIGARRIA**

d) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 1979ko urtarrilaren 3ko data duen ekonomi gaiei buruzko Espainiako Estatuaren eta Aulki Santuaren arteko Akordioak indarrean dirauen bitartean, honako ondasun hauek egongo dira salbuetsita:

a) Elizkizunetarako diren tenplu eta kapelak, eta, halaber, horien dependentziak edo atxikitako eraikinak, ihardun pastoralerako direnetan.

b) Apezpikuen, kalonjeen eta arimen ardura duten apaizen egoitzak.

c) Bulegoetarako lokalak, kuria diozesiarra eta parroketako bulegoak.

d) Apaizteria diozesiarra eta erlijioso prestatzera zuzendutako seminarioak eta Elizaren unibertsitateak, diziplina eklesiastikoei dagozkien irakaskuntzak eskaintzen baldin badituzte.

e) Nagusiki Ordena, Kongregazio erlijioso eta kotsakratutako bizitzarako Institutuetarako diren eraikinak.

Hori guztia Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1985eko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoaren ildotik (urriaren 2ko BOE, 236. zk.).

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **2 TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Gasteizko Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 22.1.c) artikuluan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren foru arauaren testu bategina onesteko irailaren 29koa 6/2021 Araugintzako Foru Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Ordenantza honen arabera eskatuko du Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, zein zuzeneko zerga baita.

#### **2. artikulua**

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **3. artikulua**

1. Honako hau da zerga-egitatea: trakzio mekanikodun ibilgailuen titularitatea, bide publikoetan barrena zirkulatzeko gai direlarik haiek, edozein mota eta kategoriatakoak izanik ere, zirkulazio baimenean ageri den helbidea udalerrri honetakoa izanik.

2. Dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta dagoena joko da bide publikoetan barrena zirkulatzeko gai den ibilgailutzat, erregistro horietan baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimenak eta matrikula turistikoak dituzten ibilgailuak ere gai direla joko da.

3. Ez daude zerga honi loturik:

a) Beren modeloaren antzintasunagatik erregistroetan baja hartua duten ibilgailuak, nahiz eta salbuespen gisa, erakustaldiak, lehiaketa edo mota horretakoetara mugatutako karrerak direla-eta, zirkulatzeko baimena inoiz eman badakieke ere.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek atoian eramandako atoi eta antzekoak (erdi-atoiak), baldin eta haien zama 750 kilotik gorakoa ez bada.

### **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

#### **4. artikulua**

1. Honako hauek egongo dira salbuetsita:

a) Defentsari edo hiritarren segurtasunari atxikitako Estatuaren, Euskal Autonomi Elkartearen, Arabako Foru Aldundiaren eta Udal erakundeen ibilgailu ofizialak.

b) Ordezkaritza diplomatikoen, bulego kontsularren, agente diplomatikoen eta dena delako herrialdeetako kreditatutako karrerako funtzionario kontsularren ibilgailuak, kanpoko aldetik identifikatuta badaude eta hedapen eta maila berean hori elkarrekikoa izango bada.

Era berean, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten Nazioarteko erakundeen eta estatutu diplomatikoa duten bertako kide edo funtzionarioen ibilgailuak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko anbulantziak eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Ibilgailu hauek, desgaitasuna duten pertsonak erabiltzen dituzten aldetik:

- Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude.

- Desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baizik ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, eta aplikatu ere desgaitasuna duten pertsonak eurek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko zaie.

- Guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza tarteko, % 65 edo hortik gorako desgaitasun-maila duten pertsonak zaintzeko ardura dutela egiaztatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira batera aplikatu; hots, onuradun jakin bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, hauexek hartuko dira desgaitasuna duen pertsonatzat:

a') Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun-maila aitortuta duten eta mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran dauden pertsonak; mugikortasun murriztuko gabezia-egoeratzat joko da urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Zailtasunan Baremoaren (BLAM) azpibaremoaren bitartez mugikortasunaren azken muga ehuneko 25eko edo hortik gorakoa aitortu zaien pertsonena.

b') % 65eko desgaitasun-maila edo hortik gorakoa duten pertsonak.

Aurreko a') eta b') letretan adierazitako egoeretan dauden eta mugikortasun murriztua duten pertsonak ez zaie 14 zaldi fiskaleko muga aplikatuko, baldin eta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Zailtasunan Baremoaren (BLAM) azpibaremoaren bitartez ehuneko 75eko edo hortik gorako mugikortasun-muga aitortu bazaie, eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

Aurreko prozeduraren arabera (abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua) egindako desgaitasun-azterketen kasuetarako, foru-araudiak baliokidetasun hauek ezarri ditu:

- D, E, F, G edo H ataletan 7 puntu edo gehiago izateak ehuneko 25arekin pareka daitekeen mugikortasun murriztuko gabezia-egoera egiaztatzen du.

- A ataleko egoera aitortua izateak mugikortasunaren azken mugaren ehuneko 75 egiaztatzen du.

f) Autobusak, mikrobusak eta hiri garraio publikoari zuzendutako edo atxikitako gainontzeko ibilgailuak, betiere gidariarena barne bederatzi leku baino gehiago baldin badituzte.

g) Nekazaritza ikuskatzeko txartela duten traktore, atoi, erdi-atoi eta makinak.

2. 4. artikuluko honen 1. apartatuko a), b), c), d) —anbulantziak izan ezik—, e) eta g) letratan aipatutako salbuespenak baliatu ahal izateko, eman dakizkiela eskatu beharko dute interesdunek, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hobariaren arrazoa adierazita. Gasteizko udal administrazioak salbuespena aitortzen duela, hori egiaztatzen duen agiria emango du.

Aurreko 1. apartatuko e) letran xedatutako salbuespenari dagokionez, desgaitasuna eta —halakorik bada— mugitzeko gaitasuna murriztuta duela egiaztatzeko organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du interesdunak, eta ibilgailua zertarako baliatuko den justifikatu. Dokumentazio hau ere aurkeztu beharko du:

a) Ibilgailua desgaitasuna duen pertsonaren titulartasuneko eta berak bakarrik erabiltzeko bada, bere izenean eduki beharko ditu ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta gidabaimena (azken hau indarrean).

b) Ibilgailua desgaitasuna duen pertsonaren titulartasuneko eta bera garraiatzeko bada, gidariaren —desgaitasuna duen pertsonaren bizilekuan erroldatuta egon beharko du— izendeiturak eta nortasun-agiria adierazi beharko dira eskabidean. Errolda-betebehar hori ez da beharrezkoa izango baldin eta desgaitasuna duen pertsonak 75ko edo hortik gorako mugikortasun-muga badu (edo A ataleko egoera aitortua), eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

c) Guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza tarteko, % 65eko edo hortik gorako desgaitasun-maila duen pertsonaren bat salbuesten denean, beharrezkoa izango da, halaber, helbide berean erroldatuta egotea, salbu eta desgaitasuna duen pertsonak % 75eko edo hortik gorako mugikortasun-muga badu (edo A ataleko egoera aitortua), eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

d) 14 zaldi fiskaleko edo hortik gorako ibilgailuak ez dira zerga ordaintzetik salbuetsiko, non eta desgaitasuna duen pertsonaren mugikortasun-muga ehuneko 75koa edo hortik gorakoa (edo A ataleko egoera aitortua) ez den, eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta ez dagoen. Desgaitasuna duen pertsona ez bada ibilgailua gidatzen duena, pertsona biak helbide berean erroldatuta daudela egiaztatu beharko da, b) letran ezarrita dagoen bezala.

3. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren % 90eko hobaria emango da ibilgailu historikoak nahiz hogeita hamar urtetik gorakoak direnean, fabrikatu zirenetik kontatuta. Fabrikatze data ez bada ezagun, lehen matrikulazioaren data joko da halakotzat, edo, datu horren faltan, dena delako ibilgailu mota edo eredu fabrikatzeari utzi zitzaion eguna. Hobari hori eskatu egin beharko da, eta baldintza hauek bete beharko dira onuradun izateko:

1. Ibilgailuaren titular nagusia hobariaren onuraduna izatea.

2. Onuradunak egiaztatzea ibilgailu klasikoak, antzinakoak edo historikoak sustatu edo zaintzeko klub edo elkarte bateko kidea dela.

4. Hobaria aplikatuko zaie zergaren kuotan bost lagun edo gehiagorentzako autoei, indarrean dagoen legediaren arabera familia ugartzat jo beharreko familia bateko kideren bat baldin bada titularra. Familia bakoitzeko ibilgailu bakar bati aplikatuko zaio hobaria.

<b>Familia-errenta estandarizatua</b>	<b>Hobaria</b>
LGS halako 2 edo hortik behera	ehuneko 20
LGS halako 2tik gora eta LGS halako 2,5 edo hortik behera	ehuneko 15
LGS halako 2,5etik gora eta LGS halako 2,75 edo hortik behera	ehuneko 10

Familia-errenta estandarizatua zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan araututako hartuko da aintzat.

Zergaren subjektu pasiboek hobari-eskabidea aurkeztu beharko dute.

Hobari fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren familia ugariaren izaeraren egiaztapena eta errentari buruzko datuak kontsultatu eta egiaztatzeke, beste administrazio batzuek dituzten datuetara joko du Udalak, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan artikulatutako Euskadiko elkarreragingarritasun-ereduaren bitartez.

5.

a) Zergaren kuotaren ehuneko 90eko hobaria izango dute Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan gutxienez 40 km-ko autonomiako 'ibilgailu elektriko bateriadun', 'autonomia handituko ibilgailu elektriko' edo 'entxufatzeko ibilgailu elektriko hibrido' gisa sailkatutako ziklomotor, triziklo, lau gurpileko eta motozikletek, autoek, furgoneta arinek, zortzi lekutik gorako ibilgailuek eta merkantziak garraiatzeko ibilgailuek, baita erregai-pilak dituztenek ere.

b) Ehuneko 50eko hobaria izango dute autoek, furgoneta arinek, zortzi lekutik gorako ibilgailuek eta merkantziak garraiatzeko ibilgailuek Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan '40 km-tik beherako autonomiako entxufatzeko ibilgailu elektriko hibrido', 'entxufatu ezin den ibilgailu hibrido' edo 'gas natural konprimatu nahiz likidotuz edo petrolio-gas likidotuz propulsatutako ibilgailu' gisa sailkatuta daudelarik.

Ibilgailuen ahalmen kutsatzailearen arabera Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen hobariei ehuneko 10 gehituko zaie —zergaren tarifa autoei aplikatzen zaielarik—, baldin eta horien titularrak familia ugarietako kideak badira —indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera— eta autoek bost leku edo gehiago badituzte.

Ibilgailu bakoitzeko hobariaren gozamen-aldia sei urtekoa izango da.

Ibilgailuen ahalmen kutsatzailearen arabera Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ematen dituen hobariei ehuneko 10 gehituko zaie —zergaren tarifa autoei aplikatzen zaielarik—, baldin eta horien titularrak familia ugarietako kideak badira —indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera— eta autoek bost leku edo gehiago badituzte.

## IV. SUBJEKTU PASIBOAK

### 5. artikulua

Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta Erakundeak dira zerga honen subjektu pasiboak, beren izenean daudelarik zirkulazio baimena duten ibilgailuak.

## V. KUOTA

### 6. artikulua

Honako tarifa taula honen arabera eskatuko da zerga:

<b>Ibilgailuaren potentzia eta mota</b>	<b>Kuota/euro</b>
<b>A) Autoak:</b>	
A.1. 8 zaldi fiskal baino gutxiago.....	27,74 euro
A.2. 8 zaldi fiskaletik 11,99ra .....	74,31 euro
A.3. 12 zaldi fiskaletik 15,99ra .....	165,14 euro
A.4. 16 zaldi fiskaletik 19,99ra .....	220,34 euro
A.5. 20 zaldi fiskaletik aurrera .....	362,63 euro
<b>B) Autobusak:</b>	
B.1. 21 leku baino gutxiago .....	183,89 euro
B.2. 21 lekutik 50era.....	264,30 euro
B.3. 50 lekutik gora.....	330,45 euro
<b>C) Kamioiak:</b>	
C.1. 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria.....	93,51 euro
C.2. 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria .....	185,57 euro
C.3. 2.999 kg-tik 9.999ra bitarteko karga erabilgarria .....	264,30 euro
C.4. 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria .....	330,45 euro
<b>D) Traktoreak:</b>	
D.1. 16 zaldi fiskal baino gutxiago .....	38,55 euro
D.2. 16 zaldi fiskaletik 25era .....	61,11 euro
D.3. 25 zaldi fiskaletik aurrera.....	182,95 euro
<b>E) Atoiak:</b>	
E.1. 1.000 kg-tik beherako eta 750etik gorako karga erabilgarria .....	39,12 euro
E.2. 1.000 kg-tik 2.999ra bitarteko karga erabilgarria .....	62,01 euro
E.3. 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria .....	185,67 euro
<b>F) Bestelako ibilgailuak:</b>	
F.1. Ziklomotorrak .....	10,86 euro
F.2. 125 cc-ra arteko motozikletak .....	10,97 euro
F.3. 125 cc-tik 250era bitarteko motozikletak .....	19,12 euro

F.4. 250 cc-tik 500era bitarteko motozikletak .....	40,03 euro
F.5. 500 cc-tik 1.000era bitarteko motozikletak .....	84,61 euro
F.6. 1.000 cc-tik gorako motozikletak .....	174,10 euro

2. Ibilgailu mota zehazteko arauz zehazten denaren arabera jokatuko da, honako arau hauek ere kontutan hartuko direlarik, horrezaz gain:

a) Salgaiak garraiatzeko asmatu eta egina dagoen lau gurpil edo gehiagoko automobila joko da furgoi/furgonetatzat, baldin eta kabina gainerako karrozerian txertatua badauka, eta gehienez 9 lagunentzako lekua, gidaria barne dela. Furgoi/furgonetek kamioiei dagokien zerga ordainduko dute, karga erabilgarriaren arabera, salbu eta ibilgailua 9 pertsona baino gehiago garraiatzeko baimenduta badago, gidaria barne delarik, kasu horretan autobusa bailitzan ordainduko baita zerga.

b) Motogurdiak, zerga honi dagozkionetarako, motozikletatzat joko dira eta, beraz, beren zilindradaren arabera ordainduko da zerga.

c) Artikulatutako ibilgailuen kasuan, batera eta bakoitzak bere aldetik ordaindu beharko dira zerga arraste potentzia daramanagatik, eta arrastaka eramaten diren atoi eta erdi-atoiengatik.

d) Beren ahalmenagatik matrikulatu beharrik ez duten atoi eta erdi-atoien kasuan, Industriako Ordezkaritzak dagokien ziurtagiria ematen duen unetik joko dira zirkulatzeko gaitzat, edo, hala badagokie, benetan zirkulatzen hasten direnean.

e) Trakzio mekanikodun beste ibilgailuren batek garraiatu edo arrastaka eraman beharrik gabe bide publikoetan barrena ibil daitezkeen autopropultsatutako makinengatik traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko da zerga.

f) Obra eta zerbitzuetako traktoreak eta trotakamioiak artikulatu honetako 1. idazatik D tarifaren barruan sartzen direla ulertuko da (traktoreak).

g) Noranahiko ibilgailuak turismotzat joko dira, eta potentzia fiskalaren arabera ordaindu beharko da zerga.

h) Ibilgailu misto-egokigarriengatik halako ibilgailu motarako baimendutako lekuen kopuruaren arabera ordainduko da zerga:

1. Eserleku kopuruak —gidariarenaz gain— ez badu gainditzen ibilgailuaren kategoria edo egituraren arabera hark gehienez izan ditzakeenen erdia, kamioia bailitzan ordainduko da zerga, zama erabilgarria aintzat hartuta.

2. Eserleku kopuruak —gidariarenaz gain— ibilgailuaren kategoria edo egituraren arabera hark gehienez izan ditzakeenen erdia gainditzen badu, turismoa bailitzan ordainduko da zerga, potentzia fiskala aintzat hartuta.

i) Autokarabanak, edo bizitokitza erabiltzeko egokituta dauden ibilgailuak, turismotzat joko dira, eta potentzia fiskalaren arabera ordaindu beharko da zerga.

## **VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **7. artikulua**

1. Zergaldia urtea da, ibilgailua lehen aldiz erosten denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia erosketa gauzatzen den egunean hasi edo Trafiko Zuzendaritzan baja ematen zaionean bukatuko da.
2. Zergaldiko lehenengo egunean sortzen da zerga.
3. Ibilgailua lehen aldiz erosten den kasuan zergaren kuotaren zenbatekoa erosketa egunetik abenduaren 31ra bitartean dagoen tarteari proportzioz dagokiona izango da.
4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, zergaren kuotaren zenbatekoa urtarrilaren 1etik ibilgailuari Trafiko Zuzendaritzan baja ematen zaion egunera bitartean dagoen tarteari proportzioz dagokiona izango da.
5. Ibilgailuen alta eta bajak atzerriarekiko merkataritza-eragiketen ondoriozkoak direnean, aurreko 3. eta 4. ataletan xedatutakoa aplikatuko da; gutxienez 10,24 euroko kuota ezarriko da, beti.

## **VII. KUDEAKETA**

### **8. artikulua**

Kudeaketa, likidazioa, ikuskaritza eta diru-bilketa, baita zergen kudeaketa-bidean ebatzitako ekintzen berrikusketa ere, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea dagoeneko udalari dagokio.

### **9. artikulua**

Gasteizko udalak autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango du zerga hau.

### **10. artikulua**

Udalak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izana egiaztatzeko bidea.

### **11. artikulua**

Udalak onesten duen egutegi fiskalean ezartzen diren epeetan egingo da zergaren ordainketa, ondorengo artikuluan adierazten diren kasuetan izan ezik, bertan adierazten denaren arabera jokatu behar da baita horietan.

### **12. artikulua**

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa edo zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria eskatzen dutenek zerga ordaindu izana egiaztatu beharko dute aldez aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek, ibilgailuak eraberritu egin dituztela jakinarazten diotelarik Trafiko Buruzagitzari, eta horrek zerga honi dagozkionetarako haien sailkapena aldatzen badu, baita jabetza edo ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den bizilekua aldatzen denean ere, zerga kobratzeko aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu dutela egiaztatu beharko dute aldez aurretik bertan, salbu eta jabetza aldatzen den kasuan, halakoetan aski izango baita izapidea egiten den urtearen aurreko zergaldiko zerga ordaindu dela egiaztatzea, nahiz eta beti

galdata ahal izango zaien, kudeaketa eta ikuskaritzaren bitartez, kontzeptu hori dela eta sortu, likidatu, kobratzeko aurkeztu eta artean preskribatu ez diren zorrak ordaintzeko.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen jabetza aldatzeko dosierrak izapidetuko alde zurretik zerga ordaindu dela egiaztatzen ez bada.

### **13. artikulua**

Matrikulazio berria edo zergari dagozkionetarako ibilgailuaren sailkapena aldatuko duen aldaketaren bat egiten bada, ondoren adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte interesdunek Gasteizko udaletxean, 30 laneguneko epean, matrikulazioa edo aldaketa egiten denetik, datu horiek Zergaren Matrikulan sar datiezen:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

### **3 ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

#### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. artikulua**

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.2.a) artikuluan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 5/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorriz, ordenantza honen arabera ezarri eta eskatuko du Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Gasteizko Udalak.

Zerga hau zeharkakoa da.

##### **2. artikulua**

Gasteizko udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza.

#### **II. ZERGA-EGITATEA**

##### **3. artikulua**

Hirigintza-lizentzia eskuratzea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga honen zerga-egitatea —lizentzia eskuratu bada nahiz eskuratu ez bada—, baita erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea ere, lizentzia ematea edo kontrol jarduerak gauzatzea Gasteizko udalari dagokiolarik.

Honako hauek dira zergari atxikita egongo diren zerga-egitateak, zerranda erabatekoa ez bada ere:

- 1.- Oin berriko edozein motatako instalazioak eraikitze, egiteko eta ezartzeko obrak.
- 2.- Lehendik dauden edozein motatako etxe, eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Aldatzeko edo eraberritzeko obrak, baldin eta eraikinaren egitura edo konfigurazio arkitektonikoari edo zeinahi motatako etxe, eraikin eta instalazioen kanpoko itxurari eragiten badiote.
- 4.- Eraikinen barne-antolaketa aldatzen duten edo eraikinak zaharberritzeko diren obrak, edozein erabileratarako izanik ere, lehenik zegoen etxebizitza bi etxebizitza edo gehiagotan banatzea dakartenak barne.
- 5.- Behin-behinekoak izango diren obrak.
- 6.- Edozein motatako lurzorutan egin beharreko lur-mugimenduak eta lurra erauzteko eta berdintzeko lanak.
- 7.- Eraikuntzen eraispena; salbuespen izango dira erortzeko zorian dauden eraikintzat hartutakoak.
- 8.- Lurpean eraikitzen diren edo lurpeari eragiten dioten instalazioak.
- 9.- Propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzea, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo gainean ipini badira.

- 10.- Eraikuntza-lanen osagarri izango diren urbanizazio-obrak.
  - 11.- Lursailak ixtea, murrak egitea eta hesiak jartzea.
  - 12.- Bideak irekitzea, eta bide horietan aldaketak egitea edo zoladura jartzea.
  - 13.- Etxe aurrefabrikatuak eta antzeko ezaugarriak dituzten instalazioak jartzea, direla behin-behinekoak, direla iraunkorrak.
  - 14.- Berotegiak jartzea.
  - 15.- Linea elektrikoak, telefono-lineak edo antzekoak instalatzea; telekomunikazio-sareak edo energia garraiatzeko sareak instalatzea, eta edozein motatako antenak jartzea.
  - 16.- Ahalmen ekonomikoa adierazten duten baliabide ekonomikoak inbertitzea dakarren eta obretarako edo hirigintzarako lizentziari atxikita dagoen edozein obra, eraikuntza edo instalazio.
- Gauzatze aginduek eta besteren ordezeko gauzatze-lanek ere ekarriko dute berekin zerga ordaindu beharra.

#### **4. artikulua**

1. Ez dira zerga honi atxikita egongo jabetza-titulartasuna udal honi dagokioneko higiezinaren baitan gauzatzen diren eraikuntza, obra edo instalazioak, udalak berak badu obraren jabe izaera.

2. Zerga honetatik salbuetsita egongo da:

a) Estatua, autonomia erkidegoa edo toki erakundeak jabe diren eraikuntza, instalazio edo obrak egitea, zergari atxikiak izan arren, baldin eta errepide, trenbide, portu edo aireporturen bat egitera bideratuta badaude zuzenean, eta, orobat, obra hidraulikoak nahiz estolderia obrak egitera bideratutakoak —nahiz eta erakunde autonomoek kudeatu, inbertsio obrak nahiz kontserbazio obrak direlarik ere.

b) Arabako lurralde historikoko kontzejuak jabe diren eraikuntza, instalazio edo obrak egitea, horien xede zerbitzu edo erabilera publikoa bada.

c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 4. artikuluko 1. ataleko k) letran adierazitako salbuespena aplikagarri zaien ondasunetan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

#### **5. artikulua**

1. Eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten direneko higiezinaren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak nahiz Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren entitateak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa. Bestelakoetan, obraren jabe dena joko da zergapekotzat.

2. Obren jabe izaera horiek egiten direneko higiezinaren jabeaz beste pertsona edo erakunde bati dagokiola Gasteizko Udalaren aurrean sinesgarrirako egiaztatzen bada salbu, izaera hori higiezinaren jabeari dagokiola uste izango da.

## 6. artikulua

1. Beharrezko lizentziak eskatzen dituztenek, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiko komunikazioa aurkezten dutenek nahiz eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenek zergapekoaren ordezkotako subjektu pasiboaren izaera izango dute, zergapekoak berak ez badira.

2. Gasteizko udal administrazioak, beti ere, zergapeko izaera bere duen pertsona edo erakundearen identitatea eta helbidea eskatu ahal izango dizkio zergapekoaren ordezkotari.

## IV. ZERGA-OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

### 7. artikulua

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko eta benetako kostua izango da zerga-oinarria.

2. Gauzatze materialaren kostu osoa joko da eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko eta benetako kostutzat.

3. Ez dira eraikuntza, instalazio edo obraren egiazko eta benetako kostuaren baitan sartuko, inolaz ere, ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko gainerako zergak, ez eraikuntza, instalazio edo obra horiekin zerikusia duten izaera publiko lokaleko tasa, prezio publiko eta ondare-prestazioak; ezta profesionalen ordainsariak, kontratistaren enpresa-irabazia eta hertsia-hertsian gauzatze materialaren kostuaren baitan sartzekoa ez den beste edozein kontzeptu ere.

### 8. artikulua

1. Zerga-tasa ehuneko 5koa izango da.

2. Zerga-kuotaren gainean hobari hauek aplikatuko dira:

a) Ehuneko 50koa babes ofizialeko etxebizitzetan eraikuntzan.

b) Ehuneko 80koa eraikuntza egokitzeko egiten diren obretan, baldin eta irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsona taldeei bertara sartzeko edo bertan bizitzea errazten bazaie horrekin, dela igogailuak instalatuz, dela ate eta sarrerak edo antzekoak aldatuz.

c) Ehuneko 80koa etxebizitzetan egiten diren obra eta instalazioetan, jabe edo esleipendunen errentek kopuru hauek gainditzen ez badituzte:

Etxebizitzetan egiten diren obretan hobaria izateko famili errenta

<b>FAMILIAKO KIDE KOPURUA</b>	<b>GEHIENEZKO ERRENTA (€)</b>
1 eta 2	15.876
3	18.257
4	20.638
5	23.814
6	27.783
7	31.752
8	36.991
9	42.230
10 edo gehiago	47.628

Hobari hau zuzen aplikatzeko, guraso edo tutoreek eta etxean bizi diren emantzipatu gabeko adin txikiko seme-alabek osatzen dutena joko da familiako kideen kopurutzat. Baldin eta familiako kideek PFEZaren banako aitortpena egitea erabakitzen badute, familiako kide horien banako oinarri eta kuotak batuz aterako dira zerga oinarria eta kuota likidoa.

Hobari fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren errentari buruzko datuak kontsultatu eta egiaztatzeko, beste administrazio batzuek dituzten datuetara joko du Udalak, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan artikulatutako Euskadiko elkarreragingarritasun-ereduaren bitartez.

d) Etxebizitza baten jabe diren 65 urtetik gorako pertsonak, haren bizigarritasun-baldintzak hobetze aldera egokitze obrak egiten dituztelarik (komuna, bizigarritasuna oro har), ehuneko 85 eko hobaria izango dute baldin eta beren errenta urtean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5-tik (23.814 euro) gorakoa ez bada, eta ehuneko 90 ekoa, berriz, beren errenta urtean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata bider 0,75-tik (11.907 euro) gorakoa ez bada.

Hobari fiskal hori aplikatzeko beharrezkoak diren errentari buruzko datuak kontsultatu eta egiaztatzeko, beste administrazio batzuek dituzten datuetara joko du Udalak, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoaren (NISAE) inguruan artikulatutako Euskadiko elkarreragingarritasun-ereduaren bitartez.

e) Araudia horretarako nahikoa gaituz gero, ehuneko 95 eko hobaria emango da zergaren kuotan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak udalerriko ikastetxeetan egiten dituen eraikuntza, instalazio eta egokitzapen nahiz eraikuntza obretan.

f) Eragiketa-bolumena —Ekonomi Jardueren gaineko Zergan hori zehazteko ezartzen diren jarraibideen arabera— milioi bat eurotik beherakoa duten ekonomia jarduerak ehuneko 30 eko hobaria izango dute, enpresa txiki eta ertainak babesteko irizpideen ildotik.

g) Ehuneko 90koa etxebizitza izateko diren ondasun higiezinetan egiten diren obra eta instalazioetan, baldin eta horien helburua energia-eraginkortasunaren A motako ziurtagiria lortzeko birgaikuntza energetikoa bada. Energia-eraginkortasunaren B motako ziurtagiria lortzeko egiten diren obra eta instalazioetan hobaria ehuneko 50ekoa izango da. Eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onetsi zeneko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du energia-ziurtapena lortzeko modua.

Indarrean dagoen legediaren arabera nahitaez inbertitu beharrekoak ez diren diru-kopuruen gainean bakarrik aplikatuko da letra honetan adierazten den hobaria.

h) Ehuneko 90koa etxebizitza izateko diren ondasun higiezinetan egiten diren obra eta instalazioetan, horien helburua birgaikuntza energetikoa eta irisgarritasuna barne hartzen dituen birgaikuntza integrala bada. Energia-eraginkortasunaren A edo B motako etiketa lortzea izan behar du helburu birgaikuntza energetikoak. Eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onetsi zeneko apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du energia-ziurtapena lortzeko modua.

Indarrean dagoen legediaren arabera nahitaez inbertitu beharrekoak ez diren diru-kopuruen gainean bakarrik aplikatuko da letra honetan adierazten den hobaria.

i) Ehuneko 60ekoa, auzoak modu integralean eraberritzeko proiektuetako obretan, energia berriztagarrien sistemak sartzeko aukera ematen dutelarik.

Indarrean dagoen legediaren arabera nahitaez inbertitu beharrekoak ez diren diru-kopuruen gainean bakarrik aplikatuko da letra honetan adierazten den hobaria.

j) Ehuneko % 95ekoa, eguzki-energiaren autokontsumorako aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemen instalazioetan. Hobari hori aplikatzeko, instalazio mota bakoitzari aplikatu behar zaion eta indarrean dagoen araudi sektoriala bete beharko da. Ez da halako hobaririk emango, baldin eta alorreko berariazko araudiari jarraiki, nahitaezkoa bada energia ustiatzeko sistema horiek instalatzea. Hobari hori soil-soilik aplikatuko zaio xede horretara bideratutako eraikuntza, instalazio eta obrei dagokien kuotaren zatia.

Antolamenduz kanpo edo legeztatu gabe dauden higiezinetan instalatutako sistemei ez zaie hobari hau aplikatuko.

k) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 5/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 8.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, interes berezikotzat edo udal-onurakotzat deklaritzen dira jarraian adierazitako eraikuntza, instalazio eta obrak, eta kasu bakoitzerako berariaz adierazitako kuotaren gainean aplikatuko zaie hobaria.

- Area degradatu izendatutako auzoen hiri-berroneratze integralerako obrak; hauek ehuneko 50eko hobaria izango dute".

- % 95eko kuota-hobaria, Salburuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Gasteizko Udalaren eta Ensanche 21 Zabalgunea SA sozietatearen artean 2024ko otsailaren 23an sinatutako hitzarmenean jasota dauden babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke.

2. atal honetan finkatutako hobariak ezingo dira batera aplikatu.

## **9. artikulua**

Eraikuntza, instalazio eta obrei ekiten zaien unean sortuko da zerga, artean dagokien obra lizentzia lortu ez bada ere.

## **V. ZERGAREN KUDEAKETA**

### **10. artikulua**

Subjektu pasiboak behartuta egongo dira obra gauzatzeak ustez berekin ekarriko duen kostuaren aitorpena egitera Gasteizko Udalean; horrekin batera, obra kontratua aurkeztu beharko dute, edo aurrekontu erkatua nahiz jabearen eta obra gauzatuko duenaren arteko beste edonolako kontratu mota.

Aurkeztutako aitorpena aintzat harturik, zergaren behin-behineko likidazioa egingo da.

Orobat egingo da behin-behineko likidazioa lizentzia eskatu, eman edo ukatu ez bada ere, edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztu ez bada ere, baldin eta eraikuntza, instalazioa edo obra egiten hasita baldin badago.

Halaber, proiektuak handitu nahiz aldatzeak berekin ekarriko du hasierako aurrekontuaren aldean izandako kostu gehikuntzari buruzko aitorpena aurkeztu beharra.

### **11. artikulua**

Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria, baldin eta, halakorik ematea nahitaezkoa den kasuetan, dagokion elkargo ofizialak ontzat emana bada.

Bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiektua gauzatzeak beren ustez izan dezakeen kostuaren arabera.

## **12. artikulua**

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra bukatu ondorengo lau hilabeteetan, benetan egindako eraikuntza, instalazio nahiz obren azken kostuari buruzko aitorpena aurkeztu beharko du subjektu pasiboak, eta hori aintzat harturik burutuko da zergaren behin betiko likidazioa.

2.- Zergak kudeatu eta ikuskatzeko organoei dagokie eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostua egiaztatu nahiz ikuskatzeko jarduerak burutzea, behar izanez gero.

## **13. artikulua**

Erantzukizunpeko adierazpenaren, aurretiko komunikazioaren edo lizentziaren titularrak obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari idatziz uko egiten badio, edo berariaz uko egiten badio horiek egiteko eskubideari, Gasteizko Udalak itzuli egingo du, edo baliogabetu, aurretiaz egindako behin-behineko likidazioa.

## **14. artikulua**

Udalak autolikidazio prozedura ezarriko du zerga honi dagokionez, eta subjektu pasiboa behartuta egongo da, prozedura hori ezartzen delarik, ustez obrek izango duten kostuaren autolikidazioa aurkeztera obra edo hirigintza lizentzia eskuratzeko eskabidearekin batera.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

#### 4. **HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Gasteizko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Ogasun Lokalak arautzen dituen Foru Arauaren 22.2.b) artikuluan eta irailaren 29ko 4/2021 Foru Dekretu Arautzailean aurreikusitakoarekin bat etorritz, ordenantza honen arabera ezartzen eta eskatzen du Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga.

Zerga hori zuzeneko da.

#### **2. artikulua**

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **3. artikulua**

1. Hiri-lurrek —beren jabetza edozein modutan besterenganatzen delarik edo beren gainean jabetzaren mugatzaile den gozamenerako edozein eskubide erreal eratzten edo eskualdatzen delarik— zergaldiaren baitan izandako balio gehikuntza da zerga-egitate.

2. Ondorio horietarako, honako hauek joko dira hiri-lurtzat:

Lur urbanoa, programatutako urbanizagarria edo programatu gabeko urbanizagarria Hiri Jarduerarako Programa bat onartzen den unetik, bide zolatuak dituzten edo espaloiz inguratutako dauden lursailak, horrez gain estolderia, ur horniketa, argindar horniketa eta argiteria publikoak baldin badute, eta izaera urbanoko eraikinek okupatzen dituztenak.

Kontsiderazio berbera izango dute nekazaritza legedian xedatutakoaren kontra zatitzen diren lursailek, baldin eta zatiketak nekazaritzarako erabilpenaren deuseztapena badakar, nahiz eta horrek ez dion zerga honi dagozkionetarako bestelako aldaketarik ekarriko lursail horien landa-lur izaerari.

3. Landa-lur izaerako lursailen balio gehikuntzak, hau da, aurreko atalean adierazitakoaren arabera izaera urbanoa ez duten lursailen balio-gehikuntzak, ez daude zerga honen menpe.

4. Zergak ez die eragingo ezkontideek ezkontza-elkartera egiten dituzten ondasun eta eskubide ekarpenei, haren alde eta ekarpen horien ordainetan egiten diren esleipenei eta ezkontideei beren ondasun komunen ordainetan egiten zaizkien eskualdatzeei.

Xedapen hori bera aplikatuko da bikoteetako kideek aurreko paragrafoan adierazi bezalako egoeretan egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdatzeak direnean ere.

Halaber, zergak ez du eraginik izango ondasun higiezinak ezkontideen artean eskualdatzen direnean, edo bikoteetako kideen artean, edo seme-alaben alde, baldin eta ezkontza

baliogabetu, ezkontideak banandu edo dibortziatu edo izatezko bikotea bertan behera geratu ondorengo epaiak betetze aldera egiten bada, edozein delarik ere haien ezkontzaren ekonomi erregimena nahiz ekonomi eta ondare erregimena.

5. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatutako ondasun higiezinetara bildutako lurren balioa gehikuntza zerga honen menpe egongo da.

6. Ez dira zergapetuta egongo lursail-eskualdatzeak baldin eta egiaztatzen bada —lursailak eskualdatu zireneko eta eskuratu zireneko balioak alderatuta— ez dela balio-gehikuntzarik izan.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dela izan egiaztatu nahi duen pertsona edo entitateak eskualdaketa deklaratu beharko du, eta eskualdatzea eta eskuratzea egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu —ordenantza honen 6. artikuluan adierazten direnak joko dira pertsona edo entitate interesduntzat—.

Balio-gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, balio hauetako handiena hartuko da lursaila eskualdatzearen edo eskuratzearen balioztat, kasu bakoitzean —ezingo dira zenbatu eragiketa horien ondoriozko gastu edo zergak—: dela eragiketa dokumentatzen duen agirian ageri dena, dela, kasua bada, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza biltzen dituen higiezin baten eskualdaketa baldin bada, zerga sortzen den egunean lursailaren katastro-balioak katastro-balio osoaren gainean egiten duen ehunekoa aplikatuz ateratzen dena hartuko da lurzoruaren balioztat ondorio horietarako, eta eskualdatze-balioari nahiz, kasua bada, eskuratze-balioari aplikatuko zaie proportzio hori.

Eskuratzea edo eskualdatzea irabazpidearekin egin bada, aurreko paragrafoetan ezarritako arauak aplikatuko dira, gorago alderatu beharrekotzat jo diren bi balioetatik lehena harturik kasu horretan, hots, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren deklaraturia.

### **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

#### **4. artikulua**

1. Honako egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira zerga honetatik:

- a) Zor-eskubideak sortu eta eskualdatzea.
- b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren 4. artikuluko 1. ataleko k) letran jasotako salbuespena aplikatzeko den ondasunen eskualdaketa, jabeek edo eskubide errealeen titularrek 2005ko urtarrilaren 1.az geroztik ondasun higiezin horiek onik zaindu, hobetu edo birgaitzeko jarduerak, "obra handitzat" kalifikatuak, berek ordainduta egin dituztela egiaztatzen dutenean.

2. Halaber, zerga honetatik salbuetsita egongo dira balio-gehikuntzak baldin eta ordaintzea honako pertsona edo erakunde hauetakoren bati badagokio:

- a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Arabako Foru Aldundia, baita Estatuaren erakunde autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak ere.

- b) Gasteizko udalerrria eta bertan sartu edo berak osatzen dituen beste udal erakundeak, baita Estatuaren erakunde autonomoen antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak ere.
- c) Abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 4. artikuluan definitutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Letra honetan finkatutako salbuespena aplikatuko bazaie, abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean finkatutako aukeraz baliatu nahi dutela jakinarazi beharko diote udalari irabazi-asmorik gabeko erakundeek, eta arau bereko II. tituluan arautzen diren zerga-erregimen bereziari buruzko betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

- d) Indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera eratuta dauden Gizarte Segurantzaren nahiz mutualitate eta bahitura etxeen erakunde kudeatzaileak.
- e) Lehengoratu daitezkeen administrazio emakiden titularrak, horiei atxikitako lursailei dagokienez.
- f) Gurutze Gorria, eta, arauz hala erabakitzen delarik, antzeko bestelako erakundeak.
- g) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen arabera salbuetsita dauden pertsona nahiz erakundeak.

#### 4 bis artikulua

Bai lurra eskuz aldatzean, bai jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealak eskuz aldatu edo eratzean —heriotzagatik egiten bada eta eskualdaketak irabazizkoak badira—, hobaria aplikatuko zaio zergaren kuotari, adierazten den ehunekoaren arabera, baldin eta hildakoaren lehen mailako ondorengoak edo adoptatuak badira erosle, edo haren lehen mailako aurretikoak edo adoptatzaileak nahiz ezkontidea edo izatezko bikotekidea, erositako ondasuna ondorengoaren ohiko etxebizitza bada eta haren diru sarrera gordinak tarte hauetakoren batean badaude:

Hobariaren ehunekoa	Diru sarrerak
ehuneko 95	27.200,00 euro arte
ehuneko 75	37.200,00 euro arte
ehuneko 50	47.200,00 euro arte
ehuneko 10	Gainerako diru sarrerak

Hobari hori aplika dakion, zerga sortzen den ekitaldiko urtarrilaren lehena bitartean Foru Aldundiak likidatutako azken ekitaldiari dagokion errenta aitortzea aurkeztu beharko du subjektu pasiboak, diru sarrerak balioeste aldera, edo, aitortzen hori egin beharrik izan ez badu, delako ekitaldi horretan lortutako diru sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak.

Oinordetzan jasotzen duenaren ohiko etxebizitza dela ulertuko da, baldin eta zerga sortzen den unean bertan erroldatuta badago.

#### 5. artikulua

Ez da zerga hau sortuko, hiri-lurren eskualdaketak bategiteen, banaketan, jardueradarretako diru-ekarpenen nahiz balio-trukeen ondorio direlarik, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko araua aplikagarri zaien erakundeek eginak badira eta eragiketa horiei abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan finkatutako zerga-

erregimena aplikagarri bazaie. Lursail horien hurrengo eskualdaketan, balio-gehikuntza agerian jarri deneko urteen kopurua delako eragiketen ondoriozko eskualdaketek eten gabekotzat joko da.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOAK**

##### **6. artikulua**

1. Zerga honen subjektu pasiboa, zergadun gisa, honako hau da:

a) Lurren doako eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errearen doako osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoa, juridikoa eta urriaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, bere 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

b) Lurren kostu bidezko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errearen kostu bidezko osaketan eta eskualdaketan, pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, bere 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada.

2. Aurreko apartatuko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, honakoak hartuko dira zergadunaren subjektu pasibotzat: pertsona fisikoa, juridikoa eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, bere 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Zordun hipotekarioaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitzaren hipoteka, epai edo notarioaren betearazpenaren ondorioz ordainean eman beharreko eskualdaketetan kreditu entitate baten alde edo mailegu edo kreditu hipotekarioak modu profesionalean emateko jardura aurrera eramaten duen edozein entitate profesionalaren alde, zergaduna ordeztuko duen subjektu pasibotzat hartuko da higieztina eskuratuko duen entitatea, eta ordeztuko horrek ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga betebeharren zenbatekoa.

Apartatu honen ondorioetarako, egoera berdintzat joko da baldin eta hipoteka daukan zor dunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean eman badu hura eskuratzeko sortzen diren zorrak bermatzeko abal emaeleak.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioak gertatzeko, zordunak, bermatzaile eskualdatzailerak edo abal emaeleak edo familia unitateko edozein kidek ondasunak edo eskubideak izatea, hipoteka zor guztia ordaintzeko bestekoak, etxebizitza besterentzea saihestu ahal den unean. Eskakizun hau betetzen dela ulertuko da.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. apartatua jasotakoa.

Familia unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, izatezko bikoteak ezkontzaren izaera bera izango du

## **V. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTA**

### **7. artikulua**

1. Hiri-lurren balioaren gehikuntza erreala —zerga sortzen den unean agerian jartzen dena, gehienez ere hogei urteko aldiari dagokiona— izango da zerga honen zerga-oinarria, eta, hurrengo 2. atalean xedatzen dena gorabehera, honela zehaztuko da: sortzapenaren unean lursailak duen balioa —ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturik— bider 10. artikuluko koefizienteetatik dagokiona eginez.

2. Subjektu pasiboak, ordenantza honen 3.6 artikuluko prozedurarekin bat etorriz, hala eskatzen duelarik egiaztatzen bada balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko atalean adierazitako eragiketarik ateratzen den zerga-oinarria baino txikiagoa dela, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

### **8. artikulua**

1. Lurrak eskuz aldatzen direnean, haien balioa zerga sortzen den unean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako duten bera izango da. Babes ofizialeko erregimena ezarria duten etxebizitzak eskuz aldatzen direlarik, etxebizitzaren salmenta-prezioari 0,2 koefiziente zuzentzailea aplikatuz kalkulaturik da lurzorua balioa.

2. Jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzean eta eskualdatzean, aurreko 1. atalean definitutako balioaren partearen gainean aplikaturik dira 10. artikuluko koefizienteak, hots, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari dagokionez ezarritako arauak aplikatuz kalkulaturik diren horien balio bera oinarritzat hartuta.

### **9. artikulua**

Balio-gehikuntzaren sortze-aldia gehikuntza ber hori agerian jarri deneko urteen kopurua izango da.

Zergapetuta ez dauden kasuetan, salbu eta foru-arauan kontrakoa adierazten bada, lursailaren hurrengo eskualdatze batean agerian jartzen den balio-gehikuntzaren sortze-aldia kalkulatzeko, zergaren aurreko sortzapena gertatu zeneko data joko da eskuratze-datatzat, aurreko paragrafoan xedatutakoari dagokionez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honen 3. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoa aplikatu beharra dagoen higiezinaren geroko eskualdaketen, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri deneko urteen kopurua zenbatzeko ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte kopuruaren zenbaketan urte osoak hartuko dira kontuan, esan nahi baita ez direla kontuan hartuko urte-zatiak. Sortze-aldia urtebetetik beherakoa bada, hainbanatu egingo da urteko koefizientea, hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, esan nahi baita ez direla kontuan hartuko hilabete-zatiak.

### **10. artikulua**

1. Hauek izango dira sortzapenaren uneko lursailaren balioari aplikatu beharreko koefizienteak, balio-gehikuntzaren sortze-aldiaren arabera:

<b>Sortze-aldia</b>	<b>Koefizientea</b>
Urtebetetik behera	0,15
Urtebete	0,15
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,16
5 urte	0,18
6 urte	0,19
7 urte	0,18
8 urte	0,15
9 urte	0,12
10 urte	0,10
11 urte	0,09
12 urte	0,09
13 urte	0,09
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,13
18 urte	0,17
19 urte	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

2. Zerga-oinarriari ehuneko 30,00 zerga-tasa aplikatzen dena izango da zergaren kuota.

## **VI. ZERGAREN SORTZAPENA**

### **11. artikulua**

1. Gorago adierazitakoari dagozkionetarako, hauxe joko da eskualdatze-datatzat:
  - a) Bizirik direnen arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa eman zen eguna; edo, agiri pribatu bada, hori erregistro publiko batean jasotzen den edo, haren ofizioa dela eta, funtzionario publiko bati ematen zaion eguna.
  - b) Eskualdatzearen arrazoia heriotza denean, dena delakoaren heriotza eguna.
  
2. Lursailaren eskualdaketa edo berauen erabilpenerako eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa hitzarmen mugatzailearen edo ekintzaren baliogabatasuna edo burubidea erabaki tinkoz juridikoki edo administratiboki egina dela aitortzen denean, subjektu pasiboak

ordaindu duen zergaren diru kopurua berreskuratzeko eskubidea izango du, baldin eta aipatutako egintzak edo hitzarmenak etekinik eman ez badu, eta itzulketa eskaera erabakia tinko geratu zenetik lau urteko epe barruan egina bada; Kode Zibilaren 1.295. artikularen arabera interesatuek elkarren arteko itzulketak egin behar ditzaten egiaztatu egiten ez denean irabazpiderako ondorea dagoela ulerturik. Ezeztapena edo erabakia zergaren subjektu pasiboaren betebeharren egintzagatik emana izango balitz, nahiz eta egitateak edo ituneak etekinik ez ekarri, ez da ezer ere itzuliko.

3. Itungileen elkarren arteko erabakiaz ituna indarrrik gabe gelditzen bada, ordaindutako zergaren itzulketa ez da bidezkoa izango, eta egitate zergagarri berriztat joko da. Elkarren arteko erabakitzat adiskidego egiteko gogaidetasuna eta eskaeraren leguntzea joko da.

4. Baldintzaren bat betetzen duten egitate edo itunak Kode Zibilaren aginduak kontutan hartuz sailkatuko dira. Baldintza geldierazlea izango balitz, hau bete arte ez da zerga kitatuko. Baldintza erabatekoa izango balitz, zerga eskatuko da, gordetzean, eta aurreneko atalaren arauaren eran itzulketa egitea bidezkoa den baldintza betetzen denean.

Testamentua egiteko ahalaren bidez emandako jaraunspenetan, ahala guztiz erabilitakoan edo hura iraungitzeko bestelako arrazoietakoren bat egokitzen denean sortuko da zerga.

5. Testamentua egiteko ahalmenean pertsona jakin bati ematen bazaio zerga honen menpe dauden jaraunspen-ondasunen gozamen-eskubidea, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, ahalmena baliatzen ez den bitartean: bata behin-behinekoa, ondorengotza irekitzean sortuko dena, biziarteko gozamenaren arauen arabera, eta bestea behin betikoa, testamentua egiteko ahala baliatzean, aldi bateko gozamenaren arauen arabera, kausatzailea hil zenez geroztik igarotako denboragatik, eta konturako sarreratzat joko da behin-behinekoagatik ordaindua, eta itzuli egingo zaio aldea gozamendunari, haren aldekoa bada. Testamentua egiteko ahalaren ondorioz edo hura iraungitzeko bestelako arrazoietakoren batengatik jaraunse egokitzen direnei egiten zaien likidazioarekin batera egin beharko da aldi bateko gozamenari dagokion behin betiko likidazioa.

## **VII. KUDEAKETA**

### **12. artikulua**

Subjektu pasiboek, Gasteizko Udalan emango den eredu ofizialaren eran dagozkien adierazpenak aurkeztu beharko dituzte. Aipatutako adierazpenak zerga zerrendaren atalaz eta kitapena egiteko dagozkion gainontzeko ezinbeztekoaz eta beharrezko diren argibidez osatuta egongo dira.

### **13. artikulua**

1. Aitorpena jarraian dauden epealdietan aurkeztu beharko da, zergaren zorpidea gauzatzen den unetik:

- a) Bizidunen arteko egintzetan, epea 30 egun baliodunekoa izango da.
- b) Heriotzagatiko egintzetan, epea sei hilabetekoa izango da, baina urte betera luzatu ahal izango da subjektu pasiboak hala eskatuz gero.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren arabera kalifikatu eta zigortuko dira arau-hausteak.

#### **14. artikulua**

1. Gasteizko Udalak emandako eredia baliatuz aurkeztu beharko dira deklarazioak, eta agiri hauek erantsi beharko zaizkie:
  - 1.- NAN/IFK, eskualdaketa emaile eta hartzaile direnenak.
  - 2.- Eskualdaketa dakarren agiriaren kopia.
  - 3.- Eskuz aldatzen diren higiezin katastro-erreferentziaren ziurtagiria.
  - 4.- Eskuz aldatzen diren higiezin eskuratze-agirien kopia.
2. Eskatzen diren salbuespenak eta hobariak ere agiriz egiaztatu beharko dira.

#### **15. artikulua**

Gasteizko Udalak dagokienei eskatu ahal izango die 30 egunetako epealdiren barruan, beste 15 eguneko luzapenez interesatuak hala eskatuko balu, zergaren kitapenerako beharrezkotzat jotzen dituen beste agiriak ekar ditzaten. Egindako eskabideei epealdi horien barruan gogoan hartzen ez dituztenak dagozkien legehauste eta zigorretan eroriko lirateke, aipatutako agiriak aitorpena egiaztatze beharrezkoak izan litezkeen aldetik. Agiri horiek bakarrik onuradun onerako alde azalduak egiaztatze bidea baldin badira, eskabidearen hausteak kitapenaren egintza erabakiko du, egiaztaturik gabe azalduak kontutan hartu gabe.

#### **16. artikulua**

12. artikuluan xedatutakoa gorabehera, orobat daude behartuta Gasteizko udal administrazioari zerga-egitatearen berri ematera —eta subjektu pasiboek dituzten epe berberetan— honako hauek:

- a) Ordenantza fiskal honen 6. artikuluko a) letran adierazitako kasuetan, bizidunen arteko negozio juridikoa gertatu delarik, emailea edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duena.
- b) Ordenantza fiskal honen 6. artikuluko b) letran adierazitako kasuetan, hartzailea edo dena delako eskubide erreala beraren alde eratu edo eskualdatzen dena.

#### **17. artikulua**

1. Halaber, notarioek Gasteizko Udalera hiru hilabete natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldiaren barruan bidali beharko dituzte, aurreko hiru hilabete natural bakoitzean beraiek onetsitako agiri guztien zerrenda, hauetan zerga honen egitate zergagarriaren egintza agerian jartzen dutenen egite, egintza edota zuzenbidezko negozioak daudelarik, Gasteizko udal mugartean, azken gogoko egiteak salbuetsirik. Epealdi berebean bidali beharko dituzte, baita haien aurrean izenpe ezagupenerako edo legeztatze ekarriak izan diren egitate, egintza edota zuzen bidezko negozioen isileko agirien zerrenda ere. Artikulu honetan arautzen dena Arabako Lurralde Historikoko Foru Zerga Arauan ezarritako lankidetzaren eginkizun orokorra kaltetu gabe hartzen da.

2. Agiria aurkezten duena zerga ordaindu behar duten subjektu pasiboen mandatuduntzat joko da, eta aurkeztutako agiria dela-eta bidaltzen zaizkion jakinarazpenek, baita izenpetzen dituen diligenziak ere, subjektu pasiboek bidali edo haiek egin izan balituzte lituzketen balio eta eragin berberak edukiko dituzte.

## **18. artikulua**

1. Gasteizko udalak, 13. artikuluan aipatutako epeen barruan aitortu ez den zerga-egitaterik gauzatu denaren jakinaren gainean gertatzen den kasu guztietan, aitorten hori egin dezatela eskatuko die interesdunei, egindako zerga-hausteen eta horiek ekar litzaketan zigorren kaltetan izango ez bada ere.

2. Gasteizko udal administrazioak aipatutako errekerimenduak bideratu ondoren interesdunek dagokien aitortpena aurkezten ez badute, ofizioko dosierra izapidetuko da udalak bere esku dituen xehetasunekin, eta kasuari dagokion kitapena egingo da, hala dagokionean dirua sartzeko epeak adieraziko direlarik, baita bidezko diren errekurtsioen berri emango ere, egindako zerga-hausteen eta horiek ekar litzaketan zigorren kaltetan izango ez bada ere.

## **19. artikulua**

Hala egitea posible denean, autolikidazio prozeduraren bidez likidatuko da zerga hau.

## **VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA**

9.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Araudian xedatutakoaren ildotik —martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua eta abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretua—, arau hauek kontuan hartu beharko dira:

1. Gozamen eskubidearen balioa:
  - a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, ehuneko 2 urtebeteko epealdi bakoitzeko, eta gehienz ere ehuneko 70.
  - b) Bizitza osorako gozamenaren balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70 izango da, gozamendunak hogei urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa, hain zuzen ere, ehuneko 1 gutxiago urte bakoitzeko eta, gehienez, balio osoaren ehuneko 10era iritsiko da.
  - c) Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamena 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza erabakigarriaren menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da, zergei dagokienez.
2. Jabetza hutsen eskubideen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza hutsa aurreko 1. puntuko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuz kalkulatu da.
3. Erabiltzeko eta bertan bizitzeko ondasunekiko eskubideen balioa, eskubide horiek jasotako ondasunen balioaren ehuneko 75ari, kasuan kasu, aldi baterako edo bizitza osorako gozamenaren balorazioari buruzko arauak aplikatuz lortuko da.

**“Udalbatzaren 2025eko maiatzaren 7ko bilkuran onetsitako testua —2025eko ekainaren 30ko ALHAO, 73. zk.”**



## **I.- XEDAPEN OROKORRAK ETA ZERGAREN IZAERA**

### **1. artikulua**

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 22.1.b) artikuluan eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 3/2021 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ezarri eta eskatuko du Gasteizko Udalak.

Ekonomi Jardueren gaineko Zerga izaera errealeko zuzeneko zerga da, enpresa, profesional nahiz artisten jarduerak zergapetzen dituen, arau honetan ezarritakoaren arabera.

### **2. artikulua**

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

## **II.- ZERGA-EGITATEA**

### **3. artikulua**

**1.** Zerga honen zerga-egitatea hau da: Gasteizko udal mugartean enpresa, profesional nahiz artistek burutzen dituzten jarduerak, areto jakin batean egiten direlarik nahiz bestela, eta zergako tarifetan zehaztuta nahiz zehaztu gabe egon.

**2.** Zerga honi dagozkionetarako enpresa-jardueratzat joko dira abelazkuntzari dagozkionak, izaera independentea dutenean, meatzaritzakoak, industrialak, merkataritzakoak eta zerbitzukoak. Ez dira, beraz, halakotzat joko nekazaritza-jarduerak, inoren menpeko abelazkuntzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietako bat ere ez da zerga-egitatea izango, zerga honi dagokionez.

Ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen diren ganadu-buruen multzoa joko da abelazkuntza independentetzat:

1. Funtsean ganaduaren jabeak nekazaritzarako edo basogintzarako ustiatzen ez dituen lur sailetan alatu edo bazkatzen den ganadua.
2. Nekazaritza funtsetatik kanpoko abeltegietakoa.
3. Ibiltaria edo udal mugez gaindikoa.
4. Nagusiki hazleku duen funtsean sortzen ez diren pentsuekin elikatzen dena.

**3.** Jarduera bat enpresa, profesional edo artisten jardueratzat joko da norberaren kabuz ekoizpen-medioak eta giza-baliabideak antolatzea eskatzen duenean, edo horietako batzuk nahiz besteak, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketan parte hartzeko helburuz.

**4.** Zergapetutako jardueren edukia Arabako Foru Aldundiak onartutako Zergaren Tarifetan zehaztutakoa da.

#### **4. artikulua**

Zergapetutako jarduerak burutzen direla zuzenbidez onargarri den edozein medioren bidez frogatuko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodeko 3. artikuluan adierazitakoen bidez.

#### **5. artikulua**

Ondorengo jarduera hauek ez dira zerga-egitateak eta, beraz, ez daude zerga honi lotuta:

- 1.** Transmisio data baino gutxienez bi urte lehenago immobilizatu gisa behar bezala erroldatuta ageri diren enpresetako aktibo finkoan integratutako ondasunak inorenganatzea, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, baldin eta aldi ber horretan erabili izan baditu.
- 2.** Lan pertsonal edo zerbitzu profesionalen ordainetan jasotako produktuen salmenta.
- 3.** Establezimendua apaindu edo dotoretu beste asmorik gabe artikulua erakustea. Aitzitik, zergari lotuta egongo da bezeroei oparitzeko artikuluen erakusketa.
- 4.** Gutxikako salmenta denean, ekintza edo eragiketa bakan bat egitea.

#### **6. artikulua**

**1.** Honako hauek egongo dira salbuetsita:

- a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.
- b) Beren jarduera hasten duten subjektu pasiboak, jarduera hori bideratzen deneko lehenengo bi zerga-ekitaldietan. Ez da jarduera hasieratzat joko honako egoera hauetan:

1) Jarduera lehendik beste titulartasun batekin bideratu bada. Ildo horretatik, kasu hauetan ulertuko da, besteak beste, ekonomi jarduerak lehendik beste titulartasun batekin bideratu direla:

- a) Jarduera-adarrak batu, zatitu nahiz gehitzen direnean.
- b) Sozietateak eraldatzen direnean.
- c) Jardueraren titularraren nortasun juridiko-tributarioan aldaketa gertatzen denean, baldin eta aurrekoak kontrol-jarrera mantentzen badu entitate berriaren nahiz jarduerari atxikitako ondarearen gainean.
- d) Lehendik zuen jarduerari eutsiko dion Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. ataleko entitate bateko kideak, nagusiki, jarduera hori bideratzen zuen entitateko kide ziren berberak direnean, edo lehenengo eta oraingo kideen artean famili loturak daudenean, zuzenean nahiz zeharka, bigarren mailara arte, hori barne.

2) Zergaren menpeko jardueraren titularrak lehendik ere haren menpeko enpresa-jarduerak egiten ari baziren, besteak beste kasu hauetan:

- a) Alta zerga-araudian izandako aldakuntzen ondorio denean.

- b) Alta lehendik bideratzen zen jardueraren birsailkapenaren ondorio denean.
- c) Altak lehendik bideratzen zen jardueraren xede materiala handitu edo murriztea dakarrenean berekin.
- d) Zerga zein jardueragatik ordaintzen den, alta jarduera horretarako areto berri bat zabaltzearen ondorio denean.

3) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritzat eratuakozietate talde bateko kidea bada; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezein enpresak egin ez duena.

4) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

c) 1.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak. Finkatutako tarifa horiek ezingo dira aplikatu zerga arautzen duen foru-arauan hala ezartzen ez den bitartean.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkorraren bidez dihardutenentzat baino ez da izango salbuespena, betiere eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea letra honetan bolumenaren gainean zehazten den baldintza betetzen ez duten enpresen partaidetza (100eko 25 baino gehiago) zuzen edo zeharkakorik, salbu eta Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 77. artikuluan zehazten diren arrisku-kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, partaidetza horien sozietate-xedea betetzearen ondorio delarik..

Letra honetan zehaztutako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, arau hauek hartuko dira kontuan:

**1)** Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 5. artikuluko 1. atalean zehaztutakoari jarraituz zehaztuko da eragiketen bolumena.

**2)** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko edo Sozietateen gaineko zergen subjektu pasiboentzat edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunentzat, eragiketen bolumena izango da zerga horiengatik aitorpenak aurkezteko epea Zerga sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa. Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. atalen zehazten diren sozietate zibil eta erakundeentzat, eragiketen bolumena Zerga sortzen den urtearen azkenurrekoari dagokiona izango da. Zergaldi horrek urte naturala baino gutxiago irauten badu, eragiketa bolumena urtebeterra igaroko da.

**3)** Subjektu pasiboaren eragiketa bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko, hark gauzatutako jarduera ekonomikoen multzoa hartuko da kontuan.

Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraiki, erakundea sozietate taldearen zati bada, lehen adierazitako kopuruak talde horri dagozkion erakunde multzoarenak izango dira, urteko kontu bateratuak aurkezteko betebeharra kontuan hartu gabe.

**4)** Ez-egoiliarren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, Espainian diren establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

- d. Indarrean dagoen legediari jarraikiz eratuakoz GIZARTE SEGURANTZAKO erakunde kudeatzaileak, eta mutualitate eta bahitura etxeetakoak.

- e. Oso-osorik estatuak, Euskal Autonomi Elkartek, Arabako Foru Aldundiak edo udal erakundeek, edota ongiletzat edo baliagarritasun publikoduntzat deklaraturako fundazioek ordaintzen dituzten ikerketarako erakunde publikoak eta irakaskuntzarako establezimenduak, edozein mailatakoak izanik ere, eta, irabazte xederik izan gabe, hezkuntza-hitzarmen erregimenean dauden irakaskuntza establezimenduak, edozein mailatakoak izanik ere, baita ikasleei liburu eta idazmahairako materialak eskuratzen badizkiete ere edo ostatu-erdi edo barnetegi zerbitzuak eskaintzen dizkietelarik ere, nahiz eta salbuespen gisa establezimendu berean saldu irakaskuntza horretarako lantegietako produktuak, salmenta horretatik ateratako dirua, inongo partikular edo hirugarren pertsona batentzat izan gabe, osorik lehengaiak erosi edo establezimendua mantentzeko erabiltzen bada.
- f. Ezindu fisiko, psikiko edo zentzuetakoen elkarte eta fundazioak, minusbaliodunei zuzendutako irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta zaintzarako izaera pedagogiko, zientifiko, sorospeneko edo lanbidezkoa duten jarduerengatik, horretarako lantegietako produktuak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horretatik ateratako dirua, inongo partikular edo hirugarren pertsona batentzat izan gabe, osorik lehengaiak erosi edo establezimendua mantentzeko erabiltzen bada.
- g. Gurutze Gorria eta antzeko beste erakundeak, arauz hala zehazten delarik.
- h. Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikagarri zaien subjektu pasiboak.
- i. Abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 4. artikuluan definitutako irabazi-asmorik gabeko erakundeak, arau bereko 9. artikuluan adierazten diren ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala ere, zergaren matrikulako alta-deklarazioa aurkeztu beharko dute erakunde horiek, baita baja deklarazioa ere, jarduera bertan behera utziz gero.

**2.** Aurreko paragrafoko a), d), g) eta h) letretan zehaztutako subjektu pasiboek ez dute zergaren matrikulako alta deklarazioa aurkeztu beharrik izango.

**3.** Artikuluko honen 1. ataleko b), e) eta f) letretan araututako onurak udalak emango ditu, bidezkoa denean, subjektu pasiboaren eskariz; horretarako, eskabidea aurkeztu beharko du hark, eta eskariaren oinarri diren frogak azaldu. e) eta f) letretako onura-emakida bere horretan mantenduko da amaigabe, baldin eta hartarako izandako arrazoiak aldatzen ez badira.

**4.** i) letran finkatutako salbuespena aplikatuko bazaie, abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 16. artikuluko 1. atalean finkatutako aukeraz baliatu nahi dutela jakinarazi beharko diote udalari irabazi-asmorik gabeko erakundeek, eta arau bereko II. tituluaren arautzen diren zerga-erregimen bereziari buruzko betebehar eta baldintzak bete beharko dituzte.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

#### **7. artikulua**

Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 35. artikuluen 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak dira zerga honen subjektu pasiboak, baldin eta zerga-egitatea sortzen duten jardueretako edozein burutzen badute Gasteizko udalerrian.

### **IV. ZERGAREN KUOTA**

#### **8. artikulua**

Zergaren tarifetan finkatutako udal kuotak eragiketen bolumenaren araberako haztapen-koefizientea aplikatuz handituko dira, ondoko laukiari jarraiki:

<b>Eragiketen bolumena (euroak)</b>	<b>Koefizientea</b>
2.000.000,01etik 6.000.000,00ra arte	1,20
6.000.000,01etik 10.000.000,00ra arte	1,22
10.000.000,01etik 50.000.000,00ra arte	1,24
50.000.000,01etik 100.000.000,00ra arte	1,27
100.000.000,00tik gora	1,30
Eragiketa bolumenik gabe	1,25

Koefiziente hori aplikatzeari dagokionean, subjektu pasiboaren eragiketa bolumenak hark egindako ekonomi jarduera guzti-guztiak hartuko ditu bere baitan, eta, hain zuzen ere, ordenantza honen 6.1. c) artikuluan aurreikusitako moduan zehaztuko da bolumen hori.

### **9. artikulua**

Zergaren tarifen gutxieneko kuoten gainean —aurreko artikuluan araututako koefizientea aplikatuz aldatu ondoren— 2,10ko gehikuntza koefiziente orokorra aplikatuko du udalak.

### **10. artikulua**

**1.** Aurreko artikuluetan ezarritako koefizienteak aplikatuz gehitutako kuoten gainean ondorengo atalean ageri den indize-eskala aplikatuko da; eskala horrek, hain zuzen ere, hauxe hartzen du kontuan: establezimendua zein kaletan dagoen kokatuta Gasteizko udalerrriaren barruan, haren kategoria.

**2.** Hauek izango dira aplikatuko diren indizeak:

<b>KALE-KATEGORIAREN KODEA</b>	<b>INDIZEA</b>
1.a	1,47
2.a	1,39
3.a	1,35
4.a	1,32

**3.** Ordenantza honen eranskinean daude sailkatuta udalerriko kaleak, kategoria desberdinen arabera. Bideren bat ez bada sailkapen horretan ageri, aplikatuko zaion indizea harekin gurutzatzen diren kaleen artetik kategoria handiena duenari dagokiona izango da, eta, halakorik ezean, hurbileneke kaleek dutena.

### **10 bis artikulua**

Zergaren kuotaren gainean hobari hauek aplikatuko dira:

**1.** Gasteizko udalerrrian enplegua sortzeagatik, ondoko laukian ageri diren hobariak izango dituzte aurreko zergaldian -aurrekoaren aldean- beren langile plantilla -mugarik gabeko lanaldi osoko kontratua dutenena- batez beste handitu egin duten subjektu pasiboek:

<b>PLANTILLA HANDITZEA</b>	<b>HOBARIA</b>
ehuneko 5 - 10	ehuneko 10
ehuneko 10 - 15	ehuneko 15
ehuneko 15 - 25	ehuneko 25
ehuneko 25etik gora	ehuneko 40

## **2. Enpresak garraio plana ezartzeagatik hobia.**

Beren langileentzat garraio plan berriak ezartzen dituzten zergaren subjektu pasiboek - energiaren kontsumoa eta lanerako joan-etorriek sortutako emisioak murriztu eta garraibide eraginkorragoak, hala nola garraio kolektiboa sustatzea dutelarik xede- ehuneko 10eko hobia izango dute zergaren kuotan plan hori indarrean dagoen ekitaldian (gutxienez ere, urtean hamar hilabetez egon beharko du indarrean planak).

**3.** Kuotaren ehuneko 10eko hobia, beren ekoizpen prozesuetan dela energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioen bitartez dela kogenerazio sistemen bitartez sortutako energia baliatzen duten nahiz halako energiarik ekoizten duten subjektu pasiboentzat.

Hain zuzen ere, energia berriztagarriak sustatzearen alorreko planean adierazten eta definitzen direnak joko dira energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalaziotzat. Elektrizitatea eta energia termiko baliagarria aldi berean sortzeko balio duten ekipa eta instalazioak joko dira kogenerazio sistematzat.

Hobari hau aplikatzeko, sail eskudunak instalazio horri buruz ezarritako prozedura bete behar da.

**4.** Hobari hauek enplegua sortzeko eta garraio plan berriak ezartzeko jarduerari aplikatuko zaizkie, bai eta energia instalazioetan egindako inbertsioei ere, gehienez 5 zergaldiko epean, hobariak ematen direnetik kontatzen hasita.

Hobariaren zenbatekoak ezingo du gainditu jardueraren kostua edo egindako inbertsioa.

## **V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **11. artikulua**

**1.** Zergaldia urtea bera izango da, alta-deklarazioen kasuan izan ezik. Horrelakoetan jarduerari hasiera ematen zaion egunetik urte bukatu bitartekoa izango da, artikulua honetako 3. atalean adieraziko dena gora-behera.

**2.** Zergaldiko lehenengo egunean sortzen da zerga, eta kuotak ezingo dira inolaz ere murriztu, salbu eta alta-deklarazioen kasuetan jarduerari hasiera ematen zaion eguna urteko lehena ez bada; halakoetan kuota proportzioz kalkulatu da, jarduerari hasiera eman zitzaion egunetik abenduaren 31ra bitartean dauden egunak kontutan hartuta, eta alta ematen den egunean bertan sortuko da.

**3.** Baja-deklarazioen kasuan, urtarrilaren lehenetik baja-deklarazioa aurkezten den egunera arte luzatuko da zergaldia. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortzen da zerga, eta

kuota urtarrilaren lehenetik baja-deklarazioa aitortzen den egunera bitartean dauden hilabeteen kopuruarekiko proportzioan kalkulatu da. Hilabeteen kontaktari dagokionez, betetzat joko da baja-deklarazioa aurkezten den hila.

Zenbaki honetan xedatutakoak ez da aplikatuko baldin eta jarduerari hasiera eman zitzaien egunaren eta baja-aitorpena aurkezten egunaren artean 12 hilabete igaro ez badira. Kasu horretan baja eskaria egiten den urteko abenduaren 31 joko da baja-datatzat.

**4.** Ikuskizunak izanik, kuotak emankizun solteetarako badaude ezarrita, horietako bakoitza burutzearekin sortzen da zerga; horrelakoetan arauz ezartzen diren moduan aurkeztu beharko dira beharrezko diren deklarazioak.

## **VI.- ZERGAREN KUDEAKETA**

### **12. artikulua**

**1.** Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian, bai premiabidetik jotzen delarik, Gasteizko Udalari dagozkio, udalerrri osoan.

**2.** Halaber, udalari dagokio matrikula jendaurrean agerraraztea, errekurtsio eta erreklamazioak ebaztea, zergaren kobrantza, salbuespen eta hobariak aplikatzea eta, orobat, zergapekoari laguntza eta argibideak eskaintzeari dagozkion jarduerak, baita ordainagiriak egitea ere.

**3.** Era berean, eta udalerritari dagokionean, izatez Arabako Foru Aldundiarenak diren ondoko eskumenak bere gain hartuak ditu udalak: zergaren matrikula taxutu, onik zaindu eta onestea, ekonomi jardueren sailkapena egitea, zerga-kuotak finkatzea, errolda ikuskatu eta berrikustea, kobratzeko ordainagiriak egitea, zergari dagokionez transzendentzia duten errolda-akten berri subjektu pasiboari ematea —hala nola altak, bajak eta aldakuntzak—, gai horien inguruko kontuei buruzko kontsultak argitzea eta jarduerak sailkatu nahiz kuotak finkatzeko egintzen kontrako berraztertze errekurtsioak ebaztea.

### **13. artikulua**

**1.** Gasteizko udalerako urtero eratuko den matrikularen bidez kudeatuko da zerga; matrikula horrek subjektu pasiboaren erroldak, burutzen dituzten jarduera ekonomikoak eta dagozkien zerga-kuotak bilduko ditu, eta, dagokionean, foru-errekargua. Jendearen eskuragarri edukiko du Gasteizko Udalak matrikula hori.

**2.** Subjektu pasiboak behartuta daude udal honetan dagozkien alta deklarazioak aurkeztera, baita, Arabako Foru Aldundiak onetsitako eredu baliatuz eta jarduerari ekin aurreko hamar laneguneko epean, aurreko atalean adierazitakoaren ildotik matrikularen barruan sartzetik izan dadin beharrezko diren elementu guztiak azaltzera ere. Ondoren, dagokion likidazioa egingo da, eta subjektu pasiboari jakinaraziko, eta ordain dezan.

Halaber, subjektu pasiboak behartuta daude udal honetan deklarazioa aurkeztera zergapetutako jardueren zer-nolakoetan gertatzen diren edonolako aldakuntza fisiko, ekonomiko nahiz juridikoen berri emateko, baldin eta zerga-ordainketari dagokionez funtsezko aldakuntzak badira. Deklarazio horietan ezinbestean adierazi beharko da jarduera horiek burutzen direneko higiezinaren erreferentzia katastrala.

Orobat, matrikulan inskribatuta daudelarik subjektu pasiboak jarduera jakin bat dela eta, behartuta daude udalean baja-deklarazioa aurkeztera, Arabako Foru Aldundiak onetsitako ereduaren bidez eta jarduera bertan behera utzi ondorengo hilabeteko epearen barruan. Subjektu pasiboaren heriotza gertatuz gero, haren eskubideen jasotzaileek aurkeztu beharko dute baja-deklarazioa.

Zehazki, ordenantza honetako 6. artikuluko 1. ataleko c) letran zehaztutako salbuespena aplikatu ezin zaien zergadunek eragiketa bolumena adierazi beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin eta bai salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa, bai haztapen-koefizientea aplikatzearen ondorioetarako kontuan izan beharreko tartearen aldaketa badakarte berekin.

**3.** Zerga-ikuskaritzaren edo zerga kudeatzeko jardueren eta komunikazio eta alta formalizazioen ondorioz erroldetan datuak sartu, handik kendu edo aldatzen direlarik, administrazio egintzat joko da hori, eta errolda aldatzea ekarriko dute berekin. Erroldan ageri diren datuei dagokienez edozein aldaketa egitekotan matrikulan, nahitaez aldatu beharko dira lehenik datuak erroldan bertan.

#### **14. artikulua**

**1.** Zergaren matrikula jendaurrean jarriko da, hamabost laneguneko eperako, eragindako zergapekoek aztertu ahal dezaten eta, behar izanez gero, egokitzat dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

**2.** Eskumen propioen alorrean –zein 12. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan adierazi baitira– Udalak ematen dituen egintzen kontra, interesatuek aukeran izango dute berraztertze errekurtsoa aurkeztea Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari, edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa Gasteizko Erakunde Juridiko Administratiboari, hilabeteko epean.

**3.** Kudeatze-lana bere gain hartua duen eta 12.3. artikuluan adierazi diren eskumenen alorrean Udalak ematen dituen egintzen kontra, interesatuek aukeran izango dute berraztertze errekurtsoa aurkeztea Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari, edo erreklamazio ekonomiko-juridikoa Arabako Erakunde Juridiko Administratiboari, hilabeteko epean.

#### **15. artikulua**

**1.** Zerga honen menpeko jarduerengatiko alta eta baja deklarazioen kasuan, alde zuzenetik autolikidazio bidez zerga ordaintzea eskatu ahal izango du udalak.

**2.** Zergari atxikitako jarduerak burutzeko alta-deklarazioen kasuan, aretoak zabaltzeko arauzko udal baimena eskatu ahal izango du udalak aldi berean.

## Ordenantzaren eranskina

### “Ekonomi Jardueren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala”

Gasteizko kaleen zerrenda

#### KALEA

Abendaño Kalea	2
Aberasturi	2
Abetxuko	2
Abetxukobidea	4
Adatseko Andre Mariaren Kalea	1
Adrian Aldekoa Margolariaren Kalea	1
Adriano VI.aren Kalea, Lovaina Plaza/Vera-Fajardo, 2-22,1-17	1
Adriano VI.aren Kalea, Vera-Fajardo/Pedro Asua	2
Adurtza Kalea	2
Aerodromoko ibilbidea	2
Agirre Lehendakariaren Kalea	1
Agirre Miramon Kalea	2
Agirrelanda Kalea	4
Aguraingo Taldearen Kalea	2
Ahate Iturri Plazatxo	2
Aiala Kantzilerraren Kalea	1
Aiarako Taldearen Kalea	2
Aihotz Plazako Eskailerak	2
Aihotz Plaza	2
Aitzol Kalea	2
Aizkorri Kalea	4
Aiztogile Kalea	2
Ajanalde Kalea	4
Akazia Kalea	2
Alaba Jeneralaren Kalea	1
Alamedako Markesaren Plaza	2
Albert Einstein Kalea (Miñao Goien)	4
Albertia Kalea	4
Alberto Schommer Kalea	2
Alboka Kalea	2
Aldabe Kalea	2
Aldabe Plazatxo	2
Alegria Ibaiaren Ibilbidea	2
Alfontso XI.aren Kalea	2
Alfredo Donnay Kalea	2
Ali 2,3 eta 4	2
Ali (gainerakoa)	2
Alibarra Kalea	4
Almena Kalea (Mendiola)	4

Alonso Sarria Zidorra	2
Altube Mendatearen Kalea	2
Ama Vedruna Kalea	1
Amadeo Garcia De Salazar Plaza	2
Amadis Kalea	2
Amarika Plaza	1
Amarita	2
Amatierra Kalea	3
Amizkarra Kalea	2
Ámsterdam Kalea	2
Amurrio Kalea	2
Anboto Kalea	4
Andaluzia Kalea	2
Andia Mendiaren Kalea	2
Andollu	4
Andre Maria Zuriaren Koroatzearen Kalea	2
Andre Maria Zuriaren Plaza	1
Angel Saenz De Ugarte Margolariaren Kalea	2
Angela Figuera Aymerich Kalea	2
Anglo-Vascoaren Kalea	2
Angostoko Andre Mariaren Kalea (Villafranca)	2
Angulema Kalea	2
Anorbin Kantoia	2
Antepara Kalea	2
Antezana De Foronda	2
Antilletako Pasabidea	2
Antonia Maria De Oviedo Kalea	2
Antoniareneko Ibilbidea	2
Antoniareneko plaza	2
Antonio De Sucre Kalea	2
Antonio Machado Kalea, 12-54	3
Antonio Machado Kalea, (gainerakoa)	2
Antonio Miranda Kalea	2
Antso Jakitunaren Kalea	1
Añanako Taldearen Kalea	2
Apaizgaitegiko Kantoia	2
Apraiztarren Kalea	2
Araba Kalea	2
Aragoi Kalea	2
Araka Kalea	2
Arakako kanpamentua	4
Aralar Mendiaren Kalea	2
Aramangelu Kalea	2
Arana Kalea (Frantzia/Herrandarren kalea) 2-22, 1-13	2
Arana Kalea (Herrandarren kalea/Judimendi)	2
Aranbaltza Kalea	4

Aranbizkarra Kalea	2
Aranbizkarreko Parkea	2
Araneko, Parkea	2
Araneta Kalea	4
Aranguiz	4
Arangutxi Kalea	4
Arantzabal Kalea	1
Arantzabela Kalea	2
Arantzabela Plaza	2
Arantzabelako Parkea	2
Aratz Kalea	4
Arcaute	4
Arcaya	2
Arcena Kalea	4
Areatza Kalea	2
Areata Kalea	4
Aretxabaleta	4
Areitio Kalea	4
Aretxagako Gazteluaren Kalea	2
Argandoña	2
Argentina Kalea	2
Ariñiz / Aríñez, z.g	4
Ariñiz / Aríñez gainerakoa	2
Ariznabarra Kalea	2
Ariznabarreta Kalea	2
Arka	1
Arka Plaza	1
Arkamu Kalea	4
Arkatxa Kalea	4
Arkauti / Arcaute	4
Arkupeko Eskailerak	2
Arkupeko Ibilbidea	2
Arlaban Mendatearen Kalea	2
Arluzeko Gazteluaren Kalea	2
Armentia	2
Armentiabidea	4
Armentiagana	4
Arrasate Kalea	4
Arriaga	4
Arriagako Atea	2
Arriagako Atea, (industrialdea)	4
Arriagako Kofradiaren Kalea	2
Arriagana Kalea	4
Arrieta kalea	2
Arrieta Pasabidea	2
Arriurdina Kalea	4

Arroxeta Kalea	4
Artandi Kalea	3
Artapadura Kalea	4
Artaza De Foronda	2
Arteko Andre Mariaren Kalea (Villafranca)	2
Artzarana Kalea	2
Artzua Kalea	3
Ascarza	2
Asestadero Kalea	2
Aska Kalea	2
Askarra Kalea	4
Askatasun Kalea	2
Askatasunaren Lorategia	2
Assako Gazteluaren Kalea	2
Asteguieta	2
Astronomo Kalea	2
Astulezko Gazteluaren Kalea	2
Asturias Kalea	2
Atenas ibilbidea	2
Atxo Apellaniz Kalea	2
Aurelio Vera-Fajardo Margolariaren Kalea	2
Azazeta Mendatearen Kalea	2
Azeduia Kalea	2
Azukreola Kalea	4
A-132 Gasteiz-Santa Kurutze	2
A-2124 (Gasteiztik Biasterira, Urizaharran barrena)	2
A-3010 (Ilarratzatik Lubianora)	2
A-3110 (Gasteiztik Agurainera, Dulantzin barrena)	2
A-3302 (Gasteiztik N-1 errepidera, Mendozan barrena)	2
A-3600 (Gasteiztik Altubera, Aiurdindik eta Murgiatik)	2
A-3602 (Gobeotik Arangizera)	2
A-3604 (Mendigurendik Miñao Nagusira)	2
A-4001 (Zurbanorako bidea)	2
A-4134 (Oreitiatik Argomanizera)	2
A-4302 (Jundiztik adana zubira, Margarita eta Lemandan barrena)	2

## B

Babesgabetuen Andre Mariaren Plaza	1
Badaia Kalea	2
Baia Ibaiaren Kalea	2
Baiona Kalea	2
Bakardade Kantoia	2
Bake Kalea	1
Balentin Berriotxo Kalea	2
Ballester Apezpikuaren Kalea	2

Baranda Kalea	2
Barazar Mendatearen Kalea	2
Barnekale Berria	2
Baroa Kalea	2
Barratxi Kalea	4
Barrenkalea	2
Barrundia Ibaiaren Kalea	2
Bartzelona Kalea	2
Basaburua Kalea	4
Basaldea Kalea	4
Basoa Kalea	2
Bastiturri Kalea	2
Bastobi Kalea	3
Batan Ibilbidea	2
Batxikabo Kalea	4
Becerro De Bengoa Kalea	2
Beethoven Kalea	2
Begiratokiko Ibilbidea	2
Behenafarroa Kalea	2
Bekolarra Kalea	4
Belate Kalea	2
Benito Ginea Kalea	2
Benito Perez Galdos Plaza	2
Bergarako Atea	4
Berlin ibilbidea	2
Bernal Diaz De Luko Kalea	2
Bernedoko Gazteluaren Kalea	2
Berrostegieta	2
Berron Ibaiaren Kalea	2
Betoño (herria)	4
Betoño Atea	4
Biak Bat Kalea (Armentia)	2
Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen Kalea	2
Bidegana Kalea	4
Bidezarra	3
Bilbo Plaza	2
Biltzar Nagusien Kalea	2
Bilodabidea Kalea	4
Bitoriabidea	4
Bitorialanda Kalea	4
Bivere Apezpikuaren Kalea	2
Bizenta Mogel Kalea	1
Bizkai Kalea	2
Blas De Otero Kalea	2
Bolivar Kalea	2
Bolivia Kalea	2

Borrabizkarra Kalea	2
Brasil Kalea	2
Bremen Kalea	4
Bruno Villarreal Kalea	2
Bruselas Hiribidea	2
Bueno Monreal Kalea	2
Buesatarren Kalea	2
Buradongo Gazteluaren Kalea	2
Burgos Kalea	2
Burubizkarra Kalea	4
Buruileria Plaza	4
Bustaldea Kalea (Aretxabaleta)	4
Buztinzuri Kalea	2
Busturbi kalea	3

## C

Caballo De Pica Kalea	2
Cadena Y Eleta Apezpikuaren Kalea	1
Caracas Kalea	2
Carlos Saez De Tejada Margolariaren Kalea	2
Carlos Ymbert Eskultorearen Kalea	2
Castro Urdiales Kalea , 10, 12, z.g.	4
Castro Urdiales Kalea gainerakoa	
Carmelo Bernaola Ibilbidea	2
Ceferino Urien Kalea	2
Cervantes Ibilbidea	2
Clemente Arraiz Margolariaren Kalea	2
Cola Y Goiti Kalea	2
Concha Espina	2
Costa Rica Kalea	2

## D

Damaso Alonso Kalea	2
Dantzari Plaza	2
Deba Arroaren Kalea	4
Diego Borika ocen Kalea	2
Diego De Rojas Kalea	2
Diego Martinez de Alaba Kalea	2
Diputazio Kalea	1
Domingo Beltran De Otazu Kalea, (Tomas Zumarraga/Gurutze Zuria) 1-25, 2-30	2
Domingo Beltran De Otazu Kalea, gainerakoa	2
Domingo Martinez De Aragon Kalea	2
Don Bela Kondearen Kalea	2

Done Jakue Hiribidea	2
Donostia Kalea	2
Dublin Kalea	2
Duende Pasabidea	2
Dultzaina Kalea	2
Düsseldorf Kalea	4
E	
	2
Eduardo Belasko Kalea	2
Eduardo Dato Kalea	1
Ega Ibaiaren Kalea	2
Egileta Ibaiaren Kalea	2
Ehari Ibaiaren Zidorra	2
Eibar Kalea	4
Ecuador Kalea	2
El Ancora Pasabidea	4
Elejalde Kalea	2
Elgoibar Kalea	4
Elhuyar Anaïen Kalea	4
Eliza Kalea	4
Elorriaga	3
Elorriagako Atea	4
Elorribarra Kalea	4
Elvira Zulueta Kalea	2
Emilia Pardo Bazan Kalea	2
Karlos I. Enperadorearen Plaza	2
Enrique Eguren Kalea	2
Entzia Kalea	4
Erea Kalea	4
Ernestina Champourcin Kalea	2
Erraimun Olabide Kalea (industrialdea)	4
Erraimun Olabide Kalea, (gainerakoa)	2
Errege Atea	2
Errege-Erregina Katolikoën Kalea	2
Errekaberri Ibaiaren Kalea	2
Errekaleor Kalea	2
Errekatxiki Kalea	2
Errementari Kalea	2
Errioxa Kalea	1
Erroma Hiribidea	2
Errota Kalea	2
Errotalde	2
Errotamendia Kalea	2
Errotaurra	4
Eskalmendi Kalea	4

Eskibel	3
Eskibelgo Gazteluaren Kalea	2
Eskola Kalea	2
Eskolunbeko Andre Mariaren Kalea (Villafranca)	2
Eskoriatza Kalea	4
Espainia Plaza (Plaza Berria)	1
Esperantza Kalea	2
Espoz y Mina Kalea	2
Estarrona	3
Estenaga Apezpikuaren Kalea	2
Estibalitz	3
Estibalizko Andre Mariaren Hiribidea	2
Estrasburgo Ibilbidea	2
Etxalde Kalea	2
Etxanobetarren Zidorra	2
Etxegarate Mendatearen Kalea	2
Etxezarra Kalea	2
Eulogio Serdan Kalea	2
Eulogio Serdan Pasabidea	2
Europa Ibilbidea	2
Europako Konstituzioaren Hiribidea	4
Europar Batasunaren Plaza	2
Euskal Herria Bulebarra	2
Euskaldunberri plaza	2
Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Kalea	2
Euskaltzaindiaren Plaza	2
Extremadura Kalea	2
Ezki Kalea	2

## F

F. Xabier Landaburu Kalea	2
Fausto Iñiguez De Betolatza Kalea	2
Federico Baraibar Kalea	2
Federico Garcia Lorca Kalea	2
Felicia Olabe Kalea	2
Felix Alfaro Fournier Kalea	2
Felix Maria Samaniego Kalea	2
Ferdinand Zeppelin Kalea (Miñao Goien)	4
Fermin Lasuen Kalea	2
Fernan Gonzalez Kalea	2
Flandria Kalea	2
Florida Kalea, 1-51 eta 2-56	1
Florida Kalea, gainerakoa	2
Floridako Ibilbidea	1
Florida parkea	1

Fontetxako Gazteluaren Kalea	2
Foronda (aireportua izan ezik)	3
Forondako Atea	2
Foru Kalea	1
Foru plaza	1
Francisco Vitoria Ibilbidea	2
Frai Zacarias Martinez Kalea	2
Francisco Juan Aiala Plaza	2
Francisco Leandro Viana Kalea	2
Francisco Longa Kalea	4
Francisco Tomas y Valiente Kalea	2
Frantzia Kalea, 1-33 eta 2-22	1
Frantzia Kalea, (gainerakoa)	2
Fuentecillas Kalea	4

## G

Gabriel Aresti Kalea	2
Gabriel Zelaia Kalea	2
Galizia Kalea	2
Galtzada Kalea	2
Gamarra Txikia	3
Gamarra Nagusia	3
Gamarra Plaza	3
Gamarrako Atea, 1	1
Gamarrako Atea, 19-43, 46-60 , z.g.	4
Gamarrako Atea, (gainerakoa)	3
Gamarrarte	3
Gamiz	3
Garalbide Kalea	2
Gardelegui	3
Gasteiz Hiribidea	1
Gasteiz	2
Gasteizko Mendien kalea	4
Gasteizko Taldearen Kalea	2
Gazalbideko Parkea	2
Gaztelako Atea (Ramón y Cajal/Gasteiz hiribidea) 1-39 eta 2-20	1
Gaztelako Atea, (gainerakoa)	2
Gaztelu	3
Gebarako Gazteluaren Kalea	2
Geltoki Plazatxoa	1
Gerardo Armesto Plaza	1
Gerardo Diego Kalea	2
Gereña	3
Gerezpea Kalea	4
Gernikako Arbolaren Kalea	2

Gernikako Estatutuaren kalea	1
Gertrudis Gomez de Avellaneda Kalea	2
Getaria Kalea	2
Guipúzcoa Kalea	2
Girona	2
Giza Eskubideen Hiribidea	2
Gobeo	3
Gobeo (L-6216) Carretera	3
Goiena kalea	3
Goikoberaza Kalea	4
Goiuriko Plaza	2
Gometxa	3
Gorbeia Kalea	2
Gordoa kalea	2
Goro Plazatxoa	2
Gran Sol Kalea	2
Gregorio Altube Plaza	2
Guatemala Kalea	2
Guayaquil Kalea	2
Guereña	3
Gurutze Berdeko Kalea	2
Gurutze Santuaren Hiribidea (Mendiola)	2
Gurutze Zuriko Kalea	2
Gurutzelarre Kalea (Armentia)	4
Gustavo Maeztu Margolariaren Kalea	2

## H

Habana Kalea	2
Haga Kalea	2
Haitz Kalea	2
Harategi Kantoia	2
Harria Kalea	4
Harrobi Kalea (Betoño)	4
Hedegile Kalea	2
Helsinki Kalea	2
Heraclio Alfaro Kalea	2
Heraclio Fournier	2
Heraclio Fournier Plaza	2
Herminio Madinabeitia Kalea	2
Herrandarren Kalea	2
Herrera Mendatearen Kalea	2
Herriko Plaza	3
Hiru Probintzien Plaza	1
Hondarribi Kalea	2
Honduras Kalea	2

Hortaleza Kalea	2
Huetto Abajo / Otobarren	3
Huetto Arriba / Otogoi	3

## I

Ibaialde Kalea	4
Ibaibariaga Koroneltsaren Kalea	2
Ibarredi Kalea	4
Ibernaloko Andre Mariaren Kalea (Villafranca)	2
Ignacio Aldekoa Plaza	2
Ignacio Diaz Ruiz De Olano Margolariaren Kalea 1-16	1
Ignacio Diaz Ruiz De Olano Margolariaren Kalea, (gainerakoa)	2
Ihurrealdea Kalea	2
Ilarraza	3
Ilustrazioaren Hiribidea	2
Independentzia Kalea	1
Inglares Ibaiaren Kalea	2
Intxaurrondo Kalea	2
Irati Kalea	2
Iratxeko Monasterioaren Kalea	2
Iruñea Kalea	2
Isaac Albeniz Kalea	2
Isaac Diez Eskultorearen Kalea	2
Isabel Orbe Kalea	2
Isabel Urkiola kalea	2
Istora Ibaiaren Kalea	2
Isuntzatarren Kalea	2
Iturbide Kalea	3
Iturgana Kalea	3
Iturizulo	3
Iturritxu Kalea	2
Iturizabala Kalea	4
Iturizabaleta Ibaiaren Kalea	2
Izarbenta Kalea	4
Izardui Komandantearen Kalea	2
Izki	4
Izkiz Ibaiaren Kalea	2

## J

Jacinto Arregi Kalea	2
Jacinto Benavente Kalea	2
Jacinto Quincoces Kalea	2
Jauregi Kalea	2
Jauregilanda Kalea (industrialdea izan ezik)	2

Jauregilanda Kalea (industrialdea)	4
Jeanne Jugan Kalea	2
Jesus Apellaniz Margolariaren Kalea	2
Jesus Guridi Kalea	2
Jesus Maria Leizaola Plaza	2
Jesusen Bihotzeko Santa Maria Josefa Kalea	2
Jesusen Zerbitzarien Fundatzailean Kalea	2
Joan Karlos I.aren Hiribidea	2
Joan II.aren Kalea	2
Joaquin Collar Kalea	2
Joaquin Jose Landazuri Kalea	2
Joaquin Lucarini Eskultorearen Kalea	2
Jorge Diez Lorategia	2
Jorge Guillen Kalea	2
Jose Antonio Andonegi Kalea	2
Jose Antxieta Kalea	2
Jose Atxotegi Kalea	2
Jose Domingo Olarte Kalea	2
Jose Erbina Kalea	2
Jose Lejarreta Kalea	2
Jose Luis Compañon "Compa" Kalea	2
Jose Luis Gonzalo-Bilbao Zidorra	2
Jose Mardones Kalea	2
Jose Maria Cagigal Kalea	2
Jose Maria Diaz De Mendibil Kalea	2
Jose Maria Iparragirre Kalea	4
Jose Miguel Barandiaran Kalea	2
Jose Pablo Ulibarri Zidorra	2
Jose San Martin Kalea	2
Jose Uruñuela Kalea	2
Juan Angel Saenz Margolariaren Kalea	2
Juan Bautista Gamiz Kalea	2
Juan Velasco Kalea	4
Juan Crisostomo Arriaga Plaza	2
Juan De La Cierva Kalea	2
Juan Garai Kalea	2
Juan Ibañez De Santo Domingo Kalea	2
Juan Jose Diaz De Espada Kalea	2
Juan XXIII.aren Kalea	2
Judimendi	2
Julian Apraiz Kalea	2
Julian Arrese Kalea	2
Julio Caro Baroja Kalea	2
Jundiz Kalea	4
Jundiz Polígonoa	4
Junguitu	3

Justo Velez De Elorriaga Kalea 2

## K

Kainabenta Plaza 2

Kale Nagusia 3

Kale Txikia (Armentia) 2

Kalkutako Teresa Kalea 2

Kalonjeen Zidorra 2

Kanpokale 2

Kantabrikoaren Hiribidea 4

Kapelamendi Kalea 4

Kapildui Kalea 4

Karlos I. Enperadorearen Plaza 2

Katalunia Plaza 2

Kexaako Gazteluaren Kalea 2

Kiotoko Ituna Kalea 4

Koldo Mitxelena Kalea 1

Kolombia Kalea 2

Konstituzio Plaza 2

Kontzeju Kalea 3

Kooperatiba Plaza 3

Kopenhage Kalea 2

Korazonisten Kalea 2

Krispiñana 3

Kristo Kalea 2

Kuba Kalea 2

Kutaisi Kalea 1

Kutxa Kalea 2

## L

La Paloma Kalea 2

Lakuabizkarra 4

Lakuaburua Kalea 2

Lanbarria Kalea 2

Landaberde Kalea 2

Landabiña Kalea 4

Landaluzea Kalea 4

Lantarongo Gazteluaren Kalea 2

Lapurdi Kalea 2

Larrabazterra Kalea 2

Larragana Kalea 4

Larrangoiti Kelea 4

Larra ibilbidea 2

Larrinbe Kalea (Mendiola) 4

Larrugile Kalea	2
Lasarte	3
Lasarteko Atea	2
Laskarai Kalea	1
Las Roturas Kalea	2
Las Callejas Kalea	3
Latinoamerika Plaza	2
Lauaxeta Kalea	2
Laubidea Plazatxo	2
Laubideta Kalea	2
Laudio Plaza	2
Legarda	3
Legunbe Kalea	4
Legutianoko Atea	2
Leireko Monasterioaren Kalea	2
Leon Kalea	2
Leonardo Da Vinci Kalea (Miñao Goien)	2
Leonce Garnier Kalea	2
Lermanda	4
Lermandabidea	4
Lisboa Kalea	2
Lima Kalea	2
Lizarra Kalea	2
Lizarrako Markesaren Kalea	1
Lleida Kalea	2
Logroño Kalea	2
Loma Jeneralaren Plaza	1
Londres Hiribidea	2
Lope De Larrea Kalea	2
Lopidana	3
Lorenzo Fernandez De Viana Eskultorearen Kalea	2
Lorenzo Prestamero Kalea	2
Loreto Arriola Kalea	2
Louis Heintz Kalea	1
Lovaina Plaza	1
Lubiano	2
Luis Maria Uriarte Kalea	2
Luis Olariaga Kalea	2
Lukurumendi Kalea (Mendiola)	4
Lumiere Anaien Kalea (Miñao Goien)	4
Luxenburgo Kalea	2
Luzurio Kalea	4

## M

Madril Kalea	2
--------------	---

Magdalena Kalea	1
Mahatma Gandhi Kalea	2
Maiatzaren Lehenaren Plaza	2
Maite Zuñiga Kalea	2
Malizhaeza (Armentia)	2
Maltzaga Kalea	2
Mandojana	2
Mantelitarren Kalea	2
Manuel Diaz De Arkaia Kalea	2
Manuel Iradier Kalea	1
Margarita	2
Maria Maeztu Parkea	2
Mariano San Miguel Musikariaren Kalea	2
Marie Curie Kalea	4
Martin Fiz Kalea	2
Martin Luther King Kalea	2
Martin Olabe Kalea	2
Martin Salinas Plaza	2
Martin Sarazibar Kalea	2
Martin Susaeta Kalea	2
Martin Ttipia lekua	2
Martioda	2
Martxoaren Hiruaren Plaza	2
Martxoaren 8 Ibilbidea	2
Masparra Kalea	4
Matauco	2
Mateo Benigno Moraza Kalea	1
Mateo Muxika Apezpikuaren Kalea	2
Maurice Ravel Lorategia	2
Mauricio Valdivieso Plazatxoa	2
Mauro Ortiz De Urbina Margolariaren Kalea	2
Maximo Casado Lorategia	2
Maximo Gisasola Kalea	2
Mediterraneoaren Hiribidea	2
Mendaro Kalea	4
Mendateen Zidorra	2
Mendi Kalea (Mendiola)	4
Mendia Kalea, 10	2
Mendia Kalea, gainerakoa	3
Mendigorritxu Kalea	4
Mendigularra	4
Mendiguren	2
Mendiko Bidea (Armentia)	4
Mendiluzeko Gazteluaren Kalea	2
Mendiola	3
Mendiolabidea	3

Menditxo	3
Mendizabala Kalea	2
Mendoza (Herria)	4
Mendoza Kalea	2
Mexiko Kalea	2
Micaela Portilla Kalea	1
Miguel Hernandez Kalea	2
Miguel Jimeno De Lahidalga Margolariaren Kalea	2
Miguel Mieg Kalea	2
Miguel Unamuno Hiribidea	2
Miñao Gocen	2
Miñao Gotxia	2
Miranda De Ebro Kalea	2
Miravalles Kalea	4
Miren Martinez Saez del Burgo Kalea	2
Molinuevo Parkea	2
Monasterioguren	2
Mundigalai Kalea	2
Musikaren Ibilbidea	2

## N

Nafarroa Kalea	2
Nafarroako Errege-Erreginen Kalea	2
Navarro Villoslada Kalea	2
Nazio Batuen Hiribidea	2
Nelson Mandela Kalea	2
Nerbioi Ibaiaren Kalea	2
Nieves Cano Kalea	2
Nikaragua Kalea	2
Norteko Trenbidearen kalea	2
N-1 Madril-Irun	4
N-240 Gasteiz-Bilbo	4
N-622 Gasteiz-Altube	4

## O

Obdulio Lopez De Uralde Margolariaren Kalea	2
Odol Emaileen Zidorra	2
Oilamendi Kalea	4
Oka Ibaiaren Kalea	2
Olagibel Kalea (Agirre Lehendakaria/Bake kalea) 1-27, 2-22	1
Olagibel Kalea (gainerakoa)	2
Olaranbe Hiribidea	4
Olarizu Hiribidea	2
Olarizu Parkea	4

Omecillo Ibaiaren Kalea	2
Oñati Kalea	4
Oreitia	2
Oreitiasolo Kalea	4
Oreitiasoloko Pasabidea	4
Ori Kalea	2
Orio Kalea	2
Orixe Kalea	2
Ortuoste Kalea	4
Orreaga Kalea	2
Osasun Iturri Kalea	2
Osegarpe Ibaiaren Kalea	2
Osinagea Kalea	4
Ospitale Plaza	2
Otazu	2
Otobarren	3
Otogoien	3
Oto Hiribidea 40-70	3
Oto Hiribidea (Ehari/Urartea) 2-38	2
Oto Hiribidea (gainerakoa)	4
Ozioko Gazteluaren Kalea	2

P

Pablo Morillo Kalea	2
Pablo Neruda Kalea	2
Pablo Uranga Margolariaren Kalea	2
Pablo Xerica Kalea	2
Paduleta Kalea	4
Paduragoia Kalea (Betoño)	4
Pagogan Kalea	4
Palentzia Kalea	2
Panama Kalea	2
Paraguai Kalea	2
Paris Hiribidea	2
Parisko Itunaren kalea	4
Pascual Andagoia Plaza	2
Paula Montal Kalea	2
Pausetako bidea, 16-30, z.g.	2
Pausetako bidea gainerakoa	3
Pedro Asua, Komentua	2
Pedro Asua Kalea	2
Pedro Egaña Kalea	2
Pedro Ignacio Barrutia Zidorra	2
Pedro Orbea Kalea	2
Pedro Salinas Kalea	2

Peñafloridako Kondearen Plaza	2
Pepe Ubis Plaza	2
Perretagana Kalea	4
Perretxin Kalea	2
Peru Kalea	2
Pintore Kalea (San Frantzisko/San Frantzisko Kantoia) 1-23, 2-62	2
Pintore Kalea (gainerakoa)	2
Pio XII.aren Kalea	1
Plaza Nagusia	2
Posta Kalea	1
Posta Pasabidea	1
Pozoa Kalea	4
Pozoaldea Kalea	2
Prado Kalea	1
Prado Parkea	2
Presa Kalea	4
Presagana	3
Presentación de Mariako lorategia	2
Probintzia Plaza	1
Prudencio Maria Berastegi Kalea	2
Puerto Rico Kalea	2
Puron Ibaiaren Kalea	2

## R

Rafael Alberti Kalea	2
Ramiro Maeztu Kalea	2
Ramiro Maeztu Pasabidea	2
Ramon Fernandez De Pieroña Apezpikuaren Lorategia	1
Ramon Ortiz De Zarate Kalea	1
Ramón Rubial	2
Ramon y Cajal Kalea	1
Rene Cassin Kalea	2
Resurreccion Maria Azkue Kalea	2
Retana	2
Ricardo Buesa Kalea	2
Ricardo Puga Kalea	2
Ricardo Sacristan Kalea	2
Rigoberta Menchu Plaza	2
Rosalia De Castro Kalea	2

## S

Sabando Ibaiaren Kalea	2
Saez De Quejanatarren Kalea	2
Salbaterrabide	2

Salburuko Bulebarra	2
Salburuko Parkea	2
Salceda Kalea (Mendiola)	3
Salvador Allende Zidorra	2
Salvador Azpiazu Ibilbidea	2
Salvador Garcia Del Diestro Kalea	2
Salvador Kalea	2
San Adriango Gazteluaren Kalea	2
San Adriango Tunelaren kalea	2
San Andres kalea	3
San Anton Plaza	2
San Antonio Kalea	1
San Antonio Maria Claret kalea	2
San Bartolomeko Eskailerak	2
San Bizente Aldapa	2
San Bizente Paulekoaren Kalea	2
San Frantzisko Aldapa	1
San Frantzisko Kalea	1
San Frantzisko Xabierkoaren Kantoia	2
San Ignacio Loiolakoaren Kalea	2
San Ildefonso Kalea	2
San Jose Plaza	2
San Juan Handiaren Kalea (Mendiola)	2
San Juan Txikiaren Kalea (Mendiola)	2
San Julian kalea	2
San Kristobal Plaza	2
San Markos Kantoia	2
San Martin Abendañoaren Plaza	2
San Martin Parkea	2
San Migel Atxakoaren Kalea	4
San Migeleko Eskailerak	2
San Migeleko Pasabidea	2
San Pedroko Pasabidea	2
San Prudentzio Hiribidea	2
San Prudentzio Kalea	1
San Roke Kantoia	2
San Saturio Kalea	2
San Viator Kalea	2
Sansomendi Kalea	2
Santa Ana Kantoia	2
Santa Barbara Plaza	1
Santa Engrazia Ibaiaren Kalea	2
Santa Isabel Kalea	2
Santa Katalina Kalea	2
Santa Luzia Kalea	2
Santa Maria Kalea	2

Santa Maria Kantoia	2
Santa Maria Plaza	2
Santa Olaja De Acero Kalea	2
Santa Teresa Bidea	2
Santo Domingo Kalea	2
Santo Domingo Plaza	2
Santo Tomas Ibaiko Plaza	4
Santo Tomasen Ubideko Kalea	4
Sarburua Kalea	2
Sebastian Fernandez De Lezeta Kalea	2
Sebastian Hurtado De Corcuera Kalea	2
Sefarad Plaza	2
Senda Ibilbidea	1
Serafin Ajuria Kalea	2
Sierras Alavesas Kalea	2
Simon Bolibar Plaza	2
Simon De Anda Kalea	2
Sofia Erreginaren Kalea	2
Soraluze Kalea	4
Sor Sofia plaza	2
Stockholm Kalea	2
Stuttgart Kalea	4
Subillana-Gasteiz	3
Sutaustegi Zaharreko Kalea	2

## T

Tanis Agirrebengoa Kalea	2
Tarazona Kalea	2
Tarragona Kalea	2
Telesforo Aranzadi Kalea	2
Teodoro Dublang Margolariaren Kalea 45-53	1
Teodoro Dublang Margolariaren Kalea (gainerakoa)	2
Teodoro Gonzalez De Zarate Kalea	2
Toloñoko Andre Mariaren Kalea (Villafranca)	2
Tomas Alfaro Margolariaren Kalea	1
Tomas Zumarraga Dohatsuaren Kalea ( México/Francisco Leandro Viana)	2
Tomas Zumarraga Dohatsuaren Kalea (gainerakoa)	2
Tornay Medikuariaren Kalea	2
Tornu Kalea	2
Toroko Gazteluaren Kalea	2
Trebiñoko Konderriaren Kalea	2
Trenbide Kalea	2
Triana Kalea	2
Trikitixa Kalea	2
Tullonio kalea	2

Txalaparta Kalea	2
Txarrakea Kalea	4
Txikita Kalea	2
Txile Kale	2
Txiribia Kale	2
Txirpia Kalea (Betoño)	4
Txirula Kalea	2
Txistulari Kalea	2

## U

Uda Ibaiaren Kalea	2
Udaletxe plaza	1
Ugalde Ibaiaren Kalea	2
Uhaska Zaharreko Kalea	2
Uleta Kalea	2
Ullibarri-Arrazua	2
Ultreya kalea	2
Unibertsitateko Ibilbidea	2
Uragana Ibaiaren Kalea	2
Ural-Mendi Kalea	2
Urartea Kalea	4
Urbasa Mendiaren Kalea	2
Urbina Kalea	2
Uribarri Nagusia	3
Uribarri-Dibiña	2
Urederra Ibaiaren Kalea	2
Uribeguela Kalea	2
Urkillla Kalea	4
Urkiola Mendatearen Kalea	2
Urriaren Hamabiaren Kalea	2
Urrundi Kalea	4
Urrutxaga Kalea	3
Uruguai Kalea	2
Uzbina Kalea	4

## V

Valentin Foronda Zidorra	2
Valladolid Kalea	2
Venancio Del Val Plaza	1
Venezuela Kalea	2
Vicente Abreu Margolariaren Kalea	2
Vicente Aleixandre Kalea	2
Vicente Goikoetxea Kalea	1
Vicente Gonzalez De Etxabarri Kalea	2

Vicente Manterola Kalea	2
Viena Kalea	2
Villafranca	2
Villamonteko Gazteluaren Kalea	2
Voluntaria Entrega Kalea	2
W	
Wellingtongo Dukearen Kalea	2
X	
Xabier Kalea	2
Y	
Yurre	2
Z	
Zabalganeko Ibilbidea	2
Zabalganeko Parkea	2
Zadorra Hiribidea	4
Zadorrako Parkea	4
Zaia Ibaiaren Kalea	2
Zaitegiko Gazteluaren Kalea	2
Zalburu Kalea	2
Zaldiaran Plaza	2
Zapardiel Kalea	2
Zapatari Kalea	2
Zaramaga, z.g. (Centro Comercial)	1
Zaramaga Kalea	4
Zaramaga Plaza	2
Zarautz Kalea	2
Zaroa Kalea	4
Zearsoloeta Kalea	4
Zendaguren Kalea	2
Zerio	2
Zerkabarren Kalea	2
Ziudadela Plaza	2
Zorrolleta Kalea	4
Zorrostea Kalea	4
Zuazobidea	4
Zuberoa Plaza	2
Zubialde Ibaiaren Kalea	2
Zubibarri Kalea	4

Zubigarai Kalea	4
Zuhatzu	3
Zuiako Taldearen Kalea	2
Zumabide	2
Zumaia Plaza	2
Zumakadi Ibilbidea	2
Zumakadi Plazatxoa	2
Zumarren Hiribidea	4
Zumeltzu	2
Zurbanoko Atea	4
Zurupitieta Kalea	4

**Oharrak:**

1.- Establezimenduren batek kategoria desberdineko kale bat baino gehiagotan baldin badu etxaurrea, sarrera kalea hartuko da aintzat, eta batetik baino gehiagotik baldin badu sarrera, kategoria handiena duena. Izkina eginez dauden kasuan berdin jokatuko da.

2.- Ordenantza honen indarraldian sortzen diren kaleei ingurukoek kategoria egokituko zaie.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.1 HIRIGINTZA LIZENTZIA ETA ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hirigintza-lizentzia eta -zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Hirigintzaren alorreko lege eta arauetan, eraikuntzei buruzko ordenantzetan eta eraikuntzei, instalazioei, obrei eta lurzoruaren erabilerari buruzko gaietan aplikatu beharrekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera udal lizentzia eskatzea edo erantzukizunpeko aitortpena nahiz aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein egintza izapidetzea da tasa honen zerga-egitate, baita —dosierrean jasota ageri zelarik administrazioak jardueraren bat burutuko zuela eta eskatzailea horren jakitun zelarik— administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik obrak egiten ez badira ere, bai eta hirigintza-ikuskaritza, -kudeaketa eta -plangintzarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea ere. Zerga-egitate dira, halaber, hiru hauek: lursailak edo eraikitako espazioa zatitzeko hirigintza-lizentziak ematea, partzela-batasunari eutsiz; hirigintza-kontsultak idatziz ebatzea; eta nahitaezko desjabetze-espedienteak izapidetzea, hirugarren pertsona batek eskatuta eta/edo onuraduna administrazio publikoa ez denean.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

1. Zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren entitateak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa.

2. Zergadunaren ordezkotzat joko dira obra eraikitzaile eta kontratistak, Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 26.2. b) artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.

4. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

## IV. TARIFAK

### 4. artikulua

Epigrafe hauen arabera sortuko dira tasak:

#### 1. epigrafea.-

Proiektuaren gauzatze materialaren aurrekontua aurkeztea nahitaezkoa denean, horri tasa jakin bat —ikus ondorengo laukia— aplikatuz ateratzen den kopurua izango da obradossierengatik galdatuko den kuota; proiektu teknikoa aurkeztea ez bada beharrezko, berriz, obra gauzatzeko aurreikusten den kostuaren gainean aplikatuko da tasa —eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute interesdunek kostu horren gaineko deklarazioa, edo gerora jakinarazi—:

##### Zergaldia

Obra handietarako zerga-tasa .....	ehuneko 0,23
Obra txikietarako zerga-tasa .....	ehuneko 0,11

#### 2. epigrafea.-

Gauzatzearen azken kostuari tasa jakin bat —ikus ondorengo laukia— aplikatuz ateratzen den kopurua izango da lehenengoz okupatzeko lizentziak emateagatik galdatu ahal izango den kuota:

##### Zergaldia

Zerga-tasa .....	ehuneko 0,016
------------------	---------------

Aurreko bi epigrafeetan, gutxieneko kuota 18,21 eurokoa izango da.

#### 3. epigrafea.-

Lursailak zatitzeko, eraikinen erabilera aldatzeko, lursail-unitateari eutsiz eraikitako espazioa zatitzeko eta antzekoetarako hirigintza-lizentziak:

- Jatorrizko lursail bakoitzeko .....518,53 euro.
- Ondoriozko lursail bakoitzeko .....518,53 euro.

#### 4. epigrafea.-

Hirigintza-kontsultak mota hauetan banatzen dira:

- Oinarrizko hirigintza-kontsulta .....54,93 euro.

Hirigintza-araudiaren aplikazioari edo udal-eskumenarekin zerikusia duten beste gai batzuei buruzko kontsulta, teknikoki sinplea, baldin eta hori ebazteko ez bada azterketa xehaturik behar, ezta zerikusia duten digitalizatu gabeko beste espediente batzuk kontsultatu behar, ez eta beste udal-sail edo udal-zerbitzu batzuekin kontsultatu beharrik ere.

- Hirigintza-kontsulta orokorra.....116,32 euro.

Hirigintza-araudia kokapen jakin batean (*dela lurzati, eraikin, sektore, etab.*) aplikatzeari buruzko kontsulta, baldin eta hura ebazteko hirigintza-zedula batekin pareka daitekeen eta

- kasu guztietan hala ez bada ere- digitalizatutako edo digitalizatu gabeko beste udal-espedito batzuk kontsultatzea eska dezakeen gai baten azterketa eta azterketa zehatza egin behar bada. Hirigintza-araudia kalkulu eta analisi zehatzak eskatzen dituzten kasu zehatzetan aplikatzea eta interpretatzea ere kontsulta horien xede izango litzateke.

- Hirigintza-kontsulta berezia .....450,80 euro.

Hirigintza-kontsulta orokorra, baina bereziki konplexua, hura ebazteko beste udal-zerbitzu edo -sail batzuei kontsulta egitea eskatzen duena. Hirigintza-araudia kalkulu eta azterketa zehatzak eskatzen dituzten kasu zehatzetan aplikatzea eta interpretatzea ere kontsulta horien xede izango litzateke.

Kasu guztietan, kontsulta independente gisa izapidetuko da kokaleku, partzela edo eraikin bakar bati buruzkoa.

Lurzati, kokaleku edo eraikin batekin baino gehiagorekin lotutako kontsultak dituzten eskaerak bereiz izapidetuko dira, espedito independente gisa, eta dagokion tarifa aplikatuko zaio bakoitzari.

## **5. epigrafea.-**

- Jabetza nahitaez kentzeko dosierak izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada .....483,03 euro.

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

4. artikuluko 1. eta 2. epigrafeetan adierazten den tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, hura ezarri zen egunetik, Gasteizko udalerriko kontzejuek eskatzen dituzten lizentzia edo baimenak, jabe diren eta zerbitzu edo erabilera publikoa xede duen edozein eraikuntza, instalazio edo obrari dagozkiolarik.

2. 4. artikuluko 1. eta 2. epigrafeetan adierazten diren tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira auzoak modu integralean eraberritzeko proiektuetako lizentziak, energia berriztagarrien sistemak sartzen dituztelarik.

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

1. Zerga-egitatetzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra. Ondorio horietarako, hirigintza-lizentzia eskuratzeko eskabidea, aurretiko komunikazioa edo erantzukizunpeko aitortpena aurkezten den eguna joko da jardueraren hasiera-datatzat, edo 4. artikuluan aurreikusitako administrazio-jarduna eragiten duen eskabidea egiten den eguna..

2. Behar zen lizentzia eskuratu gabe ekin bazaie edo gauzatu badira obrak, edo aurretiko komunikazioa edo erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu gabe, obra baimendu daitekeen ala ez erabakitzeke udal jarduerari benetan ekiten zaionean sortuko da tasa, obra horiek baimentzeko

edo, baimendu ezin badira, eraitsarazteko izapidetzen den administrazio-dosierraren hasiera data gorabehera.

3. Behin sortuz gero, ordaintzeko obligazioak bere horretan iraungo du bai aurkeztutako proiektua aldatzea baldintzatzen jarrita ematen delarik lizentzia, bai lizentzia eman ondoren eskatzaileak uko egiten diolarik.

## **7. artikulua**

Gasteizko udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta dena delako tarifaren arau partikularrei jarriki ordaindu beharko dira likidatutako kopuruak.

Nolanahi ere, tasen kobrantza autolikidazio erregimena baliatuz gauzatzeko galdatzerik ere izango du.

## **VII. KUDEAKETA**

### **8. artikulua**

Lizentzia edo baimen eskabideak nahiz aurretiko komunikazio edo erantzukizunpeko aitorenak sistema telematikoen bitartez aurkezten badira, likidazioa onartu eta sistema telematikoa eskuragarri jartzen den eguna joko da tasa-likidazioaren jakinarazpenaren datatzat eta, horrenbestez, ordaintzeko borondatezko epearen hasiera-datatzat.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **9. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **6.2 JARDUERAK LEGEZTATZEKO GAITZE-AGIRIAK TRAMITATZEKO ZERBITZUARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Administrazio-titulu gaitzaileak emateagatik nahiz aurretiko komunikazioetan edo erantzukizunpeko aitortpenetan deklaraturako betekizunak egiaztatzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

1. Honako hau da tasaren zerga-egitatea:

- Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren II. eranskineko A atalean jasota dauden jarduerak ezarri, aldatu edo handitzeko eskuratu beharreko jarduera sailkaturako lizentzia emateko beharrezko diren zerbitzu teknikoak eta administrazio zerbitzuak eskaintzea.
- Jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioaren erregimenaren menpe dauden jarduerak (3/1998 Legearen II. eranskineko B atala) ezarri, aldatu edo handitzeari eta Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa 12/2012 Legean aurreikusitako erantzukizunpeko aitortpenari edo aurretiko komunikazioari dagozkien egiaztatze jarduerak egitea.
- 3/1998 Legearen II. eranskineko A eta B ataletako jardueren gaineko udal ikuskaritza, titulartasun aldaketan ondorio delarik.
- Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa 12/2012 Legean adierazten diren jardueren gaineko udal ikuskaritza, titulartasun aldaketan ondorio delarik.

2. Ordainarazpen honi dagokionez, honako hauek joko dira gaitze-agiria eskuratzeko beharra berekin dakarten establezimendu edo instalaziotzat:

- a) Lehen aldiko instalazioak, baita merkataritza, industri edo zerbitzu xedeak dituzten makinak edo bestelako elementuak instalatze hutsa ere, nahiz eta ondoren ez abian jarri, funtzionatzen hasi edo zabaldu.
- b) Lokalen lekualdatzeak.
- c) Jarduera-aldaketak, nahiz ez aldatu ez izena, ez titularra, ez lokala.
- d) Jarduera handitzea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kuotaren gehitzeak dakartzanean hori egon dela susmatuz, kuotaren gehitze horiek zerga erreformagatik izan direnean izan ezik.

- e) Establezimendua handitzea, edo udal zerbitzu teknikoek udal ordenantza eta araudietan nahiz arau orokorretan haren funtzionamendu normalerako galdatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzea eskatzen duen edozein aldaketa.

3. Lizentzia eskuratua izan ondoren, establezimenduek bere eginkizuna aldatzen badute, ondorengo puntuen arabera likidatuko dira tasak:

Baldin eta jarduera berriak Ekonomi Jardueren gaineko Zergako sekzio edo atalaren aldakuntza badakar, tarifa orokorrean xedatutakoa aplikatuz zehaztuko da tasa.

4. Bi gaitze-agiri ezberdin eskuratu beharra badakar jarduera batek edo gaitze-agiriak jarduera bat baino gehiago hartzen baditu bere baitan, zenbateko handieneko epigrafearen arabera ordainduko da zerga.

5. Ez dira zergapetuko abenduaren 26ko 12/2012 legeko I. eranskinean jasotako jardueren lizentzia-eskualdaketa eta titulartasun-aldaketak, baldin eta horiek izapidetzeko ez bada nahitaez lokalak ikuskatzeko bisitarik egin beharrik.

### III. SUBJEKTU PASIBOAK

#### 3. artikulua

Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztelarik nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen direlarik.

### IV. TARIFAK

#### 4. artikulua

Honako hauek izango dira:

**1. epigrafea.- Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko 12/2012 Legean aurreikusitako jarduerari ekin aurreko erantzukizunpeko aitopena edo aurretiko komunikazioa.**

- 100 m<sup>2</sup>tik behera: ..... 400,79 euro
- 101 eta 200 m<sup>2</sup> artean: ..... 447,44 euro
- 201 eta 300 m<sup>2</sup> artean: ..... 494,22 euro
- Hortik gora, 100 m<sup>2</sup>ko edo zatiko: ..... 46,83 euro
- Muga: ..... 3.339,35 euro

**2. epigrafea.- Jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioa (3/1998 Legearen II. eranskineko B ataleko jarduerak).**

- 75 m<sup>2</sup>ra arte: ..... 374,28 euro
- 76 m<sup>2</sup>tik 100 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 985,16 euro
- 101 m<sup>2</sup>tik 500 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 1.182,20 euro
- 501 m<sup>2</sup>tik 1.000 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 1.379,26 euro

Lokalak hortik gora duen beste 1.000 m<sup>2</sup>ko edo zatiko ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da, 501 m<sup>2</sup>tik 1.000 m<sup>2</sup>ra arteko lokalentzat oinarritzat hartutako kopuruaren gainean; azken kopuruak ezingo du izan oinarri gisa hartzen den kopuru horren bikoitzetik gorakoa.

Zerbitzuaren onuraduna finantza erakunde bat denean, 1. eta 2. epigrafeetan finkatutako kuotak ehuneko 20 handituko dira.

### **3. epigrafea.- Jarduera-lizentzia.**

#### **1. atala.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren sailkapenaren arabera etxebizitzetarako hiri-lurrean jar daitezkeen jarduera baterako lizentzia: .....1.382,55 euro

#### **2. atala.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren sailkapenaren arabera industriarako hiri-lurrean nahiz urbanizatu ezin den lurrean jar daitezkeen jardueretarako lizentziak:

- 100 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 1.382,55 euro
- 101 m<sup>2</sup>tik 500 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 2.764,98 euro
- 501 m<sup>2</sup>tik 1.000 m<sup>2</sup>ra arteko lokala: ..... 3.472,92 euro

Lokalak hortik gora duen beste 1.000 m<sup>2</sup>ko edo zatiko ehuneko 10 gehiago ordaindu beharko da, 501 m<sup>2</sup>tik 1.000 m<sup>2</sup>ra arteko lokalentzat oinarritzat hartutako kopuruaren gainean; azken kopuruak ezingo du izan oinarri gisa hartzen den kopuru horren bikoitzetik gorakoa.

Jarduerak zabaldu nahiz jarduera baimenduek hartzen duten lekua handitzen delarik, lizentzia berria bailitzan jokatuko da.

### **4. epigrafea.- 3/1998 Legearen II. eranskineko A eta B ataletan eta 12/2012 Legean adierazten diren jardueren gaineko ikuskaritza, titulartasun aldaketan ondorio delarik.**

JARDUERA	TARIFA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sailkatutako jarduerak</li> <li>• Jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioa eskatzen duten jarduerak</li> <li>• Jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioa eskatzen duten jarduerak, 100 m<sup>2</sup>tik beherako azalera dutenak</li> <li>• 19/2012 LEDan aurreikusten den aurretiko komunikazioa eskatzen duten jarduerak</li> </ul>	227,88

## **Ezartze arauak:**

**1.-** Lizentzia eskabidea, aurretiko komunikazioa edo erantzukizunpeko aitortena aurkeztean sortuko da tasa —jarduera sailkatuetarako lizentzien, aurretiko komunikazioen, erantzukizunpeko aitortenen eta jarduerak ikuskatzeko ebazpenen kasuan—, edo, lizentzia eskatu gabe ere, hurrengo atalean adierazten diren zirkunstantzietakoren bat egokitzen denean.

**2.-** Ordainarazpen honi dagokionez, honako hauek joko dira jarduera ezartze, aldatze edo handitzetzat:

- a) Lehen aldiko instalazioak, baita merkataritza, industri edo zerbitzu xedeak dituzten makinak edo bestelako elementuak instalatze hutsa ere, nahiz eta ondoren ez abian jarri, funtzionatzen hasi edo zabaldu.
- b) Lokalen lekualdatzeak.
- c) Jarduera-aldaketak, nahiz ez aldatu ez izena, ez titularra, ez lokala.
- d) Jarduera handitzea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kuotaren gehitzeak dakartzanean hori egon dela susmatuz, kuotaren gehitze horiek zerga erreformatatik izan direnean izan ezik.
- e) Establezimendua handitzea edo establezimenduan edozein aldaketa nabarmen egitea, baldin eta horrek udal zerbitzu teknikoek udal ordenantza eta araudietan nahiz arau orokorretan haren funtzionamendu normalerako galdatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzea eskatzen badute.

**3.-** Lizentzia eman edo aurretiko komunikazio nahiz erantzukizunpeko aitortena aurkeztu ondoren establezimenduek beren jarduera aldatzen badute, honela likidatuko dira tasak:

Baldin eta jarduera berriak Ekonomi Jardueren gaineko Zergako sekzio edo atalaren aldaketa badakar, tarifa orokorrean xedatutakoa aplikatuz zehaztuko da tasa.

**4.-** Bi jarduera-lizentzia ezberdin eskuratu beharra badakar jarduera batek edo jarduera-lizentziak, aurretiko komunikazioak edo erantzukizunpeko aitortpenak jarduera bat baino gehiago hartzen baditu bere baitan, zenbateko handieneko epigrafearen arabera ordaindu beharko da.

**5.-** Behin sortuz gero, ordaintzeko obligazioak bere horretan iraungo du bai aurkeztutako proiektua aldatzea baldintzatzat jarrita ematen delarik lizentzia, bai lizentzia eman ondoren eskatzaileak uko egiten diolarik.

**6.-** Indarrean dagoen legedira egokitzeko lizentzia-emakidarako prozedura izapidetzerik eskatzen ez duten lizentzia-eskualdaketak ez dira zergapetuko.

**7.-** Tasa hau autolikidazio prozeduraren bidez ordaindu beharko da.

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

1. Gaikuntza-titulua emateagatik ordaindu beharreko kuota ordaintzetik salbuetsita egongo dira Enpresen Udal Zentroetako —Jundizko Enpresa Zentroa, Erdi Aroko Hiriguneko Enpresa Zentroa eta Basaldea Enpresa Zentroa— lokaletan dauden enpresak.

2. Enplegu ekimen edo proiektu lokal guztiek ehuneko 50eko hobaria izango dute sortutako tasaren gainean, baldin eta udalak udalerrirako interesgarritzat jotzen baditu, dela garatuko den jardueragatik, dela egingo den inbertsioagatik, dela sortuko den enpleguagatik; gainera, arreta berezia emango zaie 35 urtetik beherakoek aurkeztutako proiektuei.

Orobat izango dute ehuneko 50eko hobaria, sortutako tasaren gainean, udalbatzaren erabakiz estrategikotzat edo biziberritu beharrekotzat jotzen diren eremuetarako ematen diren baimenek.

Onura fiskalak aplikatu dakizkiola interesdunak berak eskatu beharko du, berariaz, jarduerari ekiteko baimena eskatzen edo aurretiko komunikazioa nahiz erantzukizunpeko aitortpena aurkezten duenean.

Zerga-hobaria aplikatu dakiola eskatzen den jarduerak udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari (sozietatearen estatutuak, onura publikoaren aitortpena...).

3. Tasaren ehuneko 50eko murrizketa izango dute irabazi asmorik gabeko entitateek, Irabazte Xederik gabeko Erakundeek eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Zerga Araubideari buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan aurreikusitako moduan, baldin eta beren berariazko xede edo helburua betetzera bideratutako ekonomi ustiapenerako baliatzen badute lokala.

Onura fiskalak aplikatu dakizkiola interesdunak berak eskatu beharko du, berariaz, jarduerari ekiteko baimena eskatzen edo aurretiko komunikazioa nahiz erantzukizunpeko aitortpena aurkezten duenean.

Zerga-hobaria aplikatu dakiola eskatzen den jarduerak udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari (sozietatearen estatutuak, onura publikoaren aitortpena...).

4. Ehuneko 25eko murrizketa izango dute, sortutako tasaren gainean, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera A edo B sailkapen energetikoa ziurtatzen duten lokalek.

5. Irekitzeko lizentziaren kostuen ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango zaie mikroenpresaren baldintzak betetzen dituzten ekimenei (10 soldatapeko baino gutxiago, eta 2 milioi eurotik beherako balantzea), baldin eta autoenpleguaren zein saltoki tradizional berriak irekitzearen alde egiten badute; gainera, arreta berezia emango zaie 35 urtetik beherakoek zein emakumeek.

6. Ehuneko 20ko hobaria aplikatuko zaio mikroenpresen sorkuntzari, eta ehuneko 40koa 35 urtetik beherakoak zein emakumeak kontratatzen dituzten mikroenpresei. (Indarreko foru-araudia kontuan hartuta).

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Zerga-egitatetzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra. Ondorio horietarako, lizentzia eskuratzeko eskabidea, aurretiko komunikazioa edo erantzukizunpeko aitortpena aurkezten den eguna joko da jardueraren hasiera-datatzat.

### **7. artikulua**

1. Tasa hau autolikidazio prozeduraren bidez ordaindu beharko da.

2. Ebatzi baino lehenago bertan behera uzten bada eskabidea edo eskatutakoa ukatzen bada ez da inongo tasarik ordaindu beharrik sortuko.

## **VII. KUDEAKETA**

### **8. artikulua**

Lizentzia edo baimen eskabideak nahiz aurretiko komunikazio edo erantzukizunpeko aitopenak sistema telematikoen bitartez aurkezten badira, likidazioa onartu eta sistema telematikoan eskuragarri jartzen den eguna joko da tasa-likidazioaren jakinarazpenaren datatzat eta, horrenbestez, ordaintzeko borondatezko epearen hasiera-datatzat.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **9. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **6.3 HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA SUNTSITZEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Ekonomia zirkularra helburu hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren bidetik, eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua. Tasaren objektua**

Etxebizitza, lokal, industri eta merkataritza establezimendu eta bestaleko higiezinetakoa hondakinak bildu nahiz udal hondakintegietara garraiatu eta bertan tratatzeko zerbitzua eskaintzea da tasa honen zerga-egitatea, kudeaketa zuzenaren bitartez nahiz kontratista edo udal enpresa baten bitartez egiten delarik ere.

Higiezina kokatuta dagoen lekuan hondakinak biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta funtzionamenduan dagoelarik zerbitzua eskaintzen dela esan nahiko du.

#### **3. artikulua. Hondakinak biltzeko zerbitzuaren nahitaezkotasuna**

Hondakinak biltzeko zerbitzua orokorra eta nahitaez hartu beharrekoa da; hortaz, udal antolakuntzak hartzen duen eremuan dauden higiezinaren jabe eta erabiltzaileek erabiltzen dutela ulertuko da, direla etxebizitzak, egoitzak, ikastetxeak, osasun edo ostalaritza establezimenduak nahiz industri, merkataritza edo zerbitzu jarduera bat egiten den edo egin daitekeen lokalak, direla beste edozertarako erabiltzen diren lokalak.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **4. artikulua. Subjektu pasiboa**

Ondasunaren titularrak joko da tasaren subjektu pasibotzat, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 7. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

## IV. TARIFAK

### 5. artikulua. Zerga-kuota

1. Zerga-kuota —zein ezingo baita ez murriztu ez hainbanatu—, urtekoa da, eta hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuaren tasaren tarifa-taularen arabera kalkulatzen da. Higiezinaren azalera eraikia, Higiezinaren Katastroan ageri dena, hartuko da kontuan horretarako.

Higiezinaren azalera eraikia, Higiezinaren Katastroan ageri dena, hartuko da kontuan horretarako.

2.- Etxebizitzaren zerga azalaren arabera ordainduko da, ordenantza honetako tarifetan ezarritako kuoten arabera.

Jarduera ekonomikoren bat garatzen den etxebizitzaren zerga Ekonomia Jardueren gaineko Zergan adierazitako jarduerari dagokion tarifaren arabera ordainduko da, artikulua honetako tarifa-taularen arabera.

3.- Lokal eta establezimenduei hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko zerga tasa horren tarifa-taularen arabera ordainduko da. Horretarako, aintzat hartuko dira Higiezinaren katastro-erabilera eta garatzen den jarduera ekonomikoa.

4. Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren mende ez dauden edo hori ordaintzetik salbuetsita dauden merkataritza, industria edo fabrika establezimenduek eta lokalek, tarifa-zerrendan ageri ez badira, antzagatik ongien egokitzen zaien tarifa ordaindu beharko dute, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpen arrazoitua dela medio.

5. Katastro-erabilera gisa honako hauek esleituta dituzten higieziinei ez zaie tasa hau aplikatuko (trastelekua, egiturako lokala, garajea, biltegia, barruko urbanizazio-obra, lorategia, eraikin txiki osagarria, eta orubea), non eta horietan ez den jarduera ekonomikorik egiten.

### **6. HONDAKINAK BILDU ETA SUNTSITZEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN TARIFA-TAULA**

<b><u>Tarifa</u></b>	<b><u>Deskribapena</u></b>	<b><u>Urteko kuota</u></b>
<b>1</b>	<b>Etxebizitzak</b>	
1.1	45 m <sup>2</sup> edo gutxiago	50,05 euro
1.2	45 m <sup>2</sup> eta 60 m <sup>2</sup> bitartean	66,91 euro
1.3	60 m <sup>2</sup> eta 75 m <sup>2</sup> bitartean	81,17 euro
1.4	75 m <sup>2</sup> eta 90 m <sup>2</sup> bitartean	100,32 euro
1.5	90 m <sup>2</sup> eta 105 m <sup>2</sup> bitartean	128,54 euro
1.6	105 m <sup>2</sup> eta 120 m <sup>2</sup> bitartean	132,60 euro
1.7	120 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	149,23 euro
1.8	150 m <sup>2</sup> eta 180 m <sup>2</sup> bitartean	163,05 euro
1.9	180 m <sup>2</sup> tik gora	179,45 euro
<b>2</b>	<b>Aparkatzeko lokalak</b>	
2.1	1.000 m <sup>2</sup> edo gutxiago	278,73 euro
2.2	1.000 m <sup>2</sup> eta 5.000 m <sup>2</sup> bitartean	398,18 euro

2.3	5.000 m <sup>2</sup> eta 10.000 m <sup>2</sup> bitartean	796,36 euro
2.4	10.000 m <sup>2</sup> tik gora	1.194,54 euro
<b>3</b>	<b>Antzerki/zinemak</b>	
3.1	100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	242,77 euro
3.2	100 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	364,16 euro
3.3	150 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	606,93 euro
3.4	250 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	728,31 euro
3.5	300 m <sup>2</sup> tik gora	849,70 euro
<b>4</b>	<b>Jantokirik gabeko ikastetxeak</b>	
	Jarduera dutenak	577,15 euro
<b>5</b>	<b>Jantokidun ikastetxeak</b>	
	Jarduera dutenak	1.107,15 euro
<b>6</b>	<b>Ikastetxe eta akademiak</b>	
6.1	100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	241,56 euro
6.2	100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	301,96 euro
6.3	200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	377,44 euro
6.4	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	471,80 euro
6.5	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	589,76 euro
6.6	500 m <sup>2</sup> tik gora	784,38 euro
<b>7</b>	<b>Bulegoak, aseguruak, notarioak</b>	
7.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	296,00 euro
7.2	50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	370,00 euro
7.3	100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	462,50 euro
7.4	200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	578,13 euro
7.5	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	722,66 euro
7.6	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	903,32 euro
7.7	500 m <sup>2</sup> tik gora	1.201,42 euro
<b>8</b>	<b>Eraikin mistoan dauden bankuak</b>	
8.1	100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	442,61 euro
8.2	100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	553,26 euro
8.3	200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	691,58 euro
8.4	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	864,47 euro
8.5	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	1.080,59 euro
8.6	500 m <sup>2</sup> tik gora	1.437,19 euro
<b>9</b>	<b>Kirol- eta kultura-erabilerako lokalak</b>	
9.1	100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	179,60 euro
9.2	100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	224,50 euro
9.3	200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	280,62 euro
9.4	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	350,78 euro
9.5	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	477,06 euro
9.6	500 m <sup>2</sup> tik gora	667,88 euro

<b>10</b>	<b>Erljio-erabilerako lokalak</b>		
10.1		100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	87,51 euro
10.2		100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	115,51 euro
10.3		200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	152,48 euro
10.4		300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	201,27 euro
10.5		400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	265,68 euro
10.6		500 m <sup>2</sup> tik gora	356,01 euro
<b>11</b>	<b>Supermerkatu eta hipermerkatuak</b>		
11.1		50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	260,57 euro
11.2		50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	521,15 euro
11.3		100 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	781,72 euro
11.4		150 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	1.042,30 euro
11.5		200 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	1.302,87 euro
11.6		250 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	1.563,45 euro
11.7		300 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> bitartean	1.824,02 euro
11.8		350 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	2.084,59 euro
11.9		400 m <sup>2</sup> eta 450 m <sup>2</sup> bitartean	2.345,17 euro
11.10		450 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	2.605,74 euro
11.11		500 m <sup>2</sup> tik gora	2.866,32 euro
<b>12</b>	<b>Elikagai-dendak</b>		
12.1		50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	288,82 euro
12.2		50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	361,03 euro
12.3		100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	451,29 euro
12.4		200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	564,11 euro
12.5		300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	705,14 euro
12.6		400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	881,42 euro
12.7		500 m <sup>2</sup> tik gora	1.172,29 euro
<b>13</b>	<b>Fruta-dendak</b>		
13.1		50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	295,60 euro
13.2		50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	378,37 euro
13.3		100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	484,32 euro
13.4		200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	619,93 euro
13.5		300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	793,51 euro
13.6		400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	1.015,69 euro
13.7		500 m <sup>2</sup> tik gora	1.350,87 euro
<b>14</b>	<b>Azalera handiko saltokiak (merkataritza-gunea, hainbat solairutako eraikin eksklusiboan)</b>		
			8.418,72 euro
<b>15</b>	<b>Osasun-jarduera duten klinikak, ospitaleak, anbulatorioak</b>		
15.1		100 m <sup>2</sup> edo gutxiago	386,58 euro
15.2		100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	483,22 euro
15.3		200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	604,03 euro

15.4	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	755,03 euro
15.5	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	1.004,20
15.6	500 m <sup>2</sup> tik gora	1.506,29 euro
<b>16</b>	<b>Epigrafeetan jaso gabeko beste edozein lokal</b>	
16.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	270,00 euro
16.2	50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	345,60 euro
16.3	100 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	442,37 euro
16.4	200 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	566,23 euro
16.5	300 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	724,78 euro
16.6	400 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	942,21 euro
16.7	500 m <sup>2</sup> tik gora	1.253,14 euro
<b>17</b>	<b>Tabernak</b>	
17.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	282,37 euro
17.2	50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	580,87 euro
17.3	100 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	895,50 euro
17.4	150 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	1.194,00 euro
17.5	200 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	1.573,18 euro
17.6	250 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	1.916,86 euro
17.7	300 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> bitartean	2.258,92 euro
17.8	350 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	2.581,62 euro
17.9	400 m <sup>2</sup> eta 450 m <sup>2</sup> bitartean	2.904,33 euro
17.10	450 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	3.227,03 euro
17.11	500 m <sup>2</sup> tik gora	3.549,73 euro
<b>18</b>	<b>Jantokiak</b>	
18.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	266,29 euro
18.2	50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	532,59 euro
18.3	100 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	798,88 euro
18.4	150 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	1.065,18 euro
18.5	200 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	1.331,47 euro
18.6	250 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	1.597,76 euro
18.7	300 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> bitartean	1.864,06 euro
18.8	350 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	2.130,35 euro
18.9	400 m <sup>2</sup> eta 450 m <sup>2</sup> bitartean	2.396,65 euro
18.10	450 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	2.662,94 euro
18.11	500 m <sup>2</sup> tik gora	2.929,24 euro
<b>19</b>	<b>Hotelak, ostatuak, motelak, ikastetxe nagusiak, barnetegiak, etab.</b>	
19.1	10 gela edo gutxiago	228,48 euro
19.2	10 - 20 gela bitartean	456,96 euro
19.3	20 - 40 gela bitartean	913,91 euro
19.4	40 - 60 gela bitartean	1.370,87 euro
19.5	60 - 100 gela bitartean	2.284,78 euro

19.6	100 - 120 gela bitartean	2.741,73 euro
19.7	120 - 160 gela bitartean	3.655,64 euro
19.8	160 - 180 gela bitartean	4.112,60 euro
19.9	180 gelatik gora	5.940,42 euro
<b>20</b>	<b>Adinekoentzako egoitzak</b>	
20.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	278,04 euro
20.2	50 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	556,08 euro
20.3	100 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	834,12 euro
20.4	150 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	1.112,16 euro
20.5	200 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	1.390,20 euro
20.6	250 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	1.668,24 euro
20.7	300 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> bitartean	1.946,28 euro
20.8	350 m <sup>2</sup> eta 400 m <sup>2</sup> bitartean	2.224,32 euro
20.9	400 m <sup>2</sup> eta 450 m <sup>2</sup> bitartean	2.502,36 euro
20.10	450 m <sup>2</sup> eta 500 m <sup>2</sup> bitartean	2.780,41 euro
20.11	500 m <sup>2</sup> tik gora	3.058,45 euro
<b>21</b>	<b>Dantzalekuak, diskotekak, pubak, bingoak, kasinoak</b>	
		1.039,69 euro
<b>22</b>	<b>Txokoak eta gastronomia-elkartekak</b>	
22.1	50 m <sup>2</sup> edo gutxiago	518,17 euro
22.2	51 m <sup>2</sup> eta 100 m <sup>2</sup> bitartean	561,35 euro
22.3	101 m <sup>2</sup> eta 150 m <sup>2</sup> bitartean	604,53 euro
22.4	151 m <sup>2</sup> eta 200 m <sup>2</sup> bitartean	647,72 euro
22.5	201 m <sup>2</sup> eta 250 m <sup>2</sup> bitartean	690,90 euro
22.6	251 m <sup>2</sup> eta 300 m <sup>2</sup> bitartean	734,08 euro
22.7	301 m <sup>2</sup> eta 350 m <sup>2</sup> bitartean	777,26 euro
22.8	350 m <sup>2</sup> tik gora	863,62 euro

Oro har, 2.etik 22.era bitarteko epigrafeetako tarifetan, epigrafe guztietan, eta inolako jarduera ekonomikorik egiten ez duten lokal eta establezimenduetan, % 10eko murrizketa aplikatuko da dagokien tarifyan.

## V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 6. artikulua. Onura fiskalak

#### 1.- Hobaria, horretarako prestatutako edukiontzian biohondakina edo material konpostagarria uzteagatik.

Horretarako propio prestatutako edukiontzian Materia organikoa biltzen laguntzen duten erabiltzaileek tarifa-taulan etxebizitzari esleitutako kuotaren gainean hobaria jasotzeko eskubidea izango dute.

Erregistro bat osatuko da Gasteizko Udalak eskaintzen duen materia organikoa gaika biltzeko —horretarako propio prestatutako edukiontzietan— borondatea jakinarazten duten erabiltzaileen datuekin.

Erabiltzaileen Erregistro horretan adierazitako etxebizitzari —eta etxebizitza bakar bati— aplikatuko zaio hobaria. Bi erabiltzailek edo gehiagok etxebizitza berarekin lotura dutela adierazten badute, zenbatu egingo dira horietako bakoitzak etxebizitzari jakin horretatik egin duen edukiontzien erabilera-kopuruak.

Erabiltzaileen Erregistroak hobaria emateko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren datuak (katastroko erreferentzia, edukiontzia irekiera-kopurua eta dagokion aldia, besteak beste) helaraziko dizkio Ogasun Sailari.

Urtean irekiera-kopuru gutxienerako jakin bat ezarriko da, etxebizitzaren tamainaren arabera, honela:

- Etxebizitza 75 m<sup>2</sup>tik beherakoa bada: urtean gutxienez 70 irekiera
- Etxebizitza 75 m<sup>2</sup> eta 90 m<sup>2</sup> artekoa bada: urtean gutxienez 100 irekiera
- Etxebizitza 90 m<sup>2</sup>tik gorakoa bada: urtean gutxienez 120 irekiera

Edukiontzia tasaren sortzapen-dataren —hau da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen— aurreko urtean zenbat aldiz ireki den zenbatuko da.

Hobaria tarifa-taulan etxebizitzari esleitutako kuotaren ehuneko 10ekoa izango da.

Tasa indarrean dagoen lehen urtean, aparteko % 10eko hobaria emango da berariaz prestatutako edukiontzian bio-hondakina edo material konpostagarria gordetzeagatik hobari-sisteman parte hartzeko beharrezkoak diren datuak lagatzen dituzten pertsonen etxebizitzari esleitutako kuotan.

## **2.- Hobaria, banakako konpostajearen aritzeagatik.**

Banakako konpostaje jardueretan parte hartzen duten erabiltzaileek, ekimen publikokoak zein pribatukoak izan, hobari bat jasotzeko eskubidea izango dute tarifen taulan etxebizitzari esleitutako kuotan.

Erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da nahitaez, banakako konpostaje jarduerak egiten ari dela eta jarduera hori etxebizitza bakarrari atxikitzen zaiola adierazteko. Horretarako, horretarako ezartzen den berariazko formularioa bete beharko da, eta Udalean idazkiak eta eskaerak aurkezteko oro har aurreikusitako bitartekoen bidez aurkeztuko da.

Banakako konpostaje ardueretan parte hartzen duten pertsona fisikoak diren erabiltzaileek banakako konpostaje erabiltzaileen erregistroa osatuko dute.

Erabiltzaileen Erregistroak hobaria emateko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren datuak (katastroko erreferentzia eta dagokion aldia, besteak beste) helaraziko dizkio Ogasun Sailari.

Hobaria tarifa-taulan etxebizitzari esleitutako kuotaren ehuneko 20ekoa izango da.

## **3.- Hobaria, komunitateko konpostajearen aritzeagatik.**

Komunitateko konpostaje jardueretan parte hartzen duten erabiltzaileek, ekimen publikokoak zein pribatukoak izan, hobari bat jasotzeko eskubidea izango dute tarifa-taulan etxebizitzari esleitutako kuotaren gainean.

Erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da nahitaez, komunitateko konpostaje jarduerak egiten ari direla eta jarduera hori erabiltzaile bakoitzeko etxebizitza bakar bati atxikita dagoela adierazten duena. Horretarako, horretarako ezartzen den formulario espezifikoa erabiliko da, eta Udalean idazkiak eta eskabideak aurkezteko oro har aurreikusitako bitartekoen bidez aurkeztuko da.

Komunitateko konpostaje jardueretan parte hartzen duten pertsona fisikoak diren erabiltzaileek komunitateko konpostaje erabiltzaileen erregistroa osatuko dute.

Erabiltzaileen Erregistroak hobaria emateko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren datuak (katastroko erreferentzia eta dagokion aldia, besteak beste) helaraziko dizkio Ogasun Sailari.

Hobaria tarifa-taulan etxebizitzari esleitutako kuotaren ehuneko 20ekoa izango da.

#### **4.- Hobari sozialak**

Etxebizitza-erabilera duten higiezonei hobaria aplikatuko zaie, ehuneko hauen arabera, betiere subjektu pasiboa bertan erroldatuta badago eta familia-unitateak errenta hauek gainditzen ez baditu, bertan erroldatutako kide kopurua kontuan hartuta.

	<b>1. TARTEA</b>	<b>2. TARTEA</b>	<b>3. TARTEA</b>
<b>Kide kopurua:</b>	<b>15.876 euro edo gutxiago</b>	<b>15.876 eta 23.814 euro bitartean</b>	<b>23.814 eta 31.752 euro bitartean</b>
<b>1 edo 2</b>	ehuneko 15		
<b>3</b>	ehuneko 20	ehuneko 15	
<b>4</b>	ehuneko 25	ehuneko 20	ehuneko 15
<b>5 edo gehiago</b>	ehuneko 35	ehuneko 30	ehuneko 20

Aurreko taulako baldintzak betetzeaz gain, familia ugariko guraso bakarreko familiako kideak diren subjektu pasiboei, ehuneko 10 areagotuko zaie kuotaren gaineko erroldatuta dauden etxebizitzari aplikatu beharreko hobaria.

6. artikulua honetan jasotako hobari guztiak bateragarriak dira elkarren artean.

### **VI. SORTZAPENA**

#### **7. artikulua. Sortzapena**

Urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean sortzen da tasa, eta, horri dagokionez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 18. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

### **VII. KUDEAKETA**

#### **8. artikulua. Kudeaketa**

Subjektu pasiboak behartuta daude dagozkien alta, baja eta aldakuntza deklarazioak aurkeztera udalari, eta horrekin batera tasa hau egoki aplikatzeko beharrezko diren datuak, hilabeteko epean, erosketan, eskuz aldatzea nahiz aldakuntza gertatzen denetik. Horretarako, aski izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta aurkezten den deklarazioa (udalak onetsitako ereduari jarraiki egina).

### **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

#### **9. artikulua.**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau

Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.4 PREBENTZIO ETA SU ITZALTZE ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Su Itzaltze Zerbitzuaren zerbitzu eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

**2.1.** Interesdun partikularrek eskatuta nahiz ofizioz —segurtasun edo prebentzio arrazoiak direla medio— udal suhiltzaileek ematen dituzten zerbitzuak izango dira tasa honen zerga-egitatea, zerbitzu horiek subjektu pasiboaren onurarako direlarik.

#### **2.2.- Hortaz, honelakoak izango dira zerga-egitate:**

- a) Trafiko istripuak: galtzada garbitzea eta antzekoak.
- b) Pertsonen laguntza ematea: trafiko istripuetatik erreskatatzea eta askatzea, igogailuetatik erreskatatzea eta antzekoak.
- c) Animaliak: neutralizatzea, erreskatatzea, batetik bestera eramatea eta antzekoak.
- d) Ura, gasa, produktu arriskutsuak eta elektrizitatea:
  - d.1) Ura: ateratzea, eustea edo desbideratzea, kanalizazioak libratzea eta antzekoak.
  - d.2) Gasak eta produktu arriskutsuak: ihes eta isuriak neutralizatzea, batetik bestera eramatea, batetik bestera joanaraztea, aireztatzea eta antzekoak.
  - d.3) Elektrizitatea: alarmak, goi tentsioko lineak, transformadoreak, koadro elektrikoak, publizitate errotuluak eta antzekoak deskonektatzea, baldin eta esku-hartzea eraikuntzaren, instalazioaren edo mantentzearen gabeziek eragin badute.
- e) Zerbitzu bereziak: zuhaitzak, kartelak, kristalak, farolak, hesiak eta bestelakoak erortzea, erakusleihoak, pertsianak, ateak eta abar ixtea, eraikuntzak finkatzea, eskoratzak, eraikuntzak eraistea, fatxadak eta teilatuak saneatzea, eta antzeko beste batzuk.
- f) Galtzadak garbitzea edo horietako arriskuak kentzea, erregaiak, olioak, likido arriskutsuak edo antzekoak isuri badira, edo material solidoak jausi badira zamalanetan edo zirkulazioan izandako matxura edo arduragabekeriagatik.
- g) Laguntza teknikoak: prebentzio taldeak eta antzekoak.
- h) Suteak itzaltzea, salbamenduak eta laguntza teknikoak: suteak itzaltzea, salbamenduak eta laguntza teknikoak, ordezkapen edo osagarri modura egiten direnean, zerbitzu horiek

estabilita izateko betebeharra daukaten erakunde publiko edo pribatuen alde.

i) Suhiltzaile teknikariek egiten dituzten ikuskapenak: suhiltzaile teknikariek egiten dituzten ikuskapenak, segurtasun baldintzak betetzen edo egiaztatzen ez direnean jai ekitaldietan, barraketan, ikuskizunetan eta antzeko beste jarduerak batzuetan.

j) Era berean, tasa hau ordaindu beharra ekarriko dute Suhiltzaile Zerbitzuak eskaintzen dituen prestakuntza eta entrenamendu zerbitzuek, baita suhiltzaileen instalazioak erabiltzeak ere.

k) Gasteizko udalerritik kanpo edonolako jarduerak.

### **2.3.- Tasa ordaindu beharrik ekarriko ez dutenak.**

Honako hauek ez dute ekarriko tasa ordaindu beharra:

a) Hondamendi edo zorigaitz publikoaren mailako ezbeharrak.

b) Aparteko edo hondamendi mailako fenomeno meteorologikoen ondorioz egindako esku hartzeak.

c) Laguntza humanitarioaren beharrak eragindako jarduerak.

d) Zerbitzua eskatzearen edo ematearen arrazoia pertsonen edo ondasunen kalte fisikoak ekiditea izan bada, sute edo salbamenduetan, kausak ustekabekoak edo saihestezinak izan direlarik.

## **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

### **3. artikulua**

3.1.- Subjektu pasibo zergadunak dira ezbeharra izan duten eta zerbitzuaren xede izan diren funtsen erabiltzaile diren entitateak —Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen direnetakoak— nahiz pertsona fisiko edo juridikoak, halakotzat joko baitira, kasuan kasu, horien jabeak, gozamedunak, maizterrak eta errentariak.

3.2.- Salbamendu zerbitzuak eta antzekoak izanik, eskatu dituen edo onuradun egokitzen den entitatea —Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen direnetakoa— nahiz pertsona fisiko edo juridikoa izango da subjektu pasibo zergaduna.

3.3.- Subjektu pasiboak tasa honen objektu diren kasuak estaltzen dituen aseguru poliza kontratatua badauka, erakunde edo sozietate aseguratzalea izango da ordezkotako subjektu pasiboak.

## **IV. TARIFAK**

### **4. artikulua.- ZERGAREN KUOTA**

4.1.- Kuota zehazteko, kontuan hartuko da, batetik, zerbitzua emateko zenbat langile eta baliabide behar izan diren, eta, bestetik, langile eta baliabide bakoitzak zerbitzua ematen zenbat denbora egin duen.

4.2. Langileak, orduko (bakoitza): ..... 39,74 euro

4.3. Ibilgailuak eta baliabide materialak (orduko).

### **Ibilgailu bakoitzeko:**

BUP, BRP, BNL, BFL eta beste.....	55,19 euro orduko
Altueretarako ibilgailuak .....	60,71 euro orduko
Ibilgailu osagarriak.....	41,94 euro orduko
Ontziak .....	104,86 euro orduko

### **Materialak (15 egunetik gora):**

Motoponpa, sorgailu eta antzekoak .....	22,08 euro
Elektroponpa .....	16,56 euro
Multzo elektrogenoa .....	22,08 euro
Taula, olana eta antzekoak .....	55,19 euro
Itzalgailua .....	38,63 euro
Mahuka .....	1,10 euro
Hesi bat, eguneko .....	6,62 euro
Babes pasabidea .....	11,04 euro
Eskora .....	6,62 euro
Osasun postua .....	33,11 euro

Hesiak, babes pasabideak eta eskorak jartzeagatik kuotak 15 egun baliodontetik aurrera kalkulatu dira, subjektu pasiboak jakinarazpena jaso duen egunetik aurrera.

### **Prestakuntza eta entrenamendu zerbitzuak ematea eta suhiltzaileen instalazioak erabiltzea.**

#### **Praktikak, itzalgailuekin:**

10 lagun arte, itzalgailu banarekin .....	44,15 euro.
20 lagun arte, itzalgailu banarekin .....	38,63 euro.

**4.4.- Ateak irekitzea.** Zerbitzu hori ez da emango, salbu eta arriskua badago pertsonentzat edo gauzentzat; kasu horretan, dagoen arrisku motaren arabera katalogatuko da. Zerbitzua eman ondoren, esku hartu duten langileek egiaztatzen badute zirkunstantzia hori ez dela egokitu, aurreko epigrafeetan xedatutakoaren arabera kalkulaturako kuota aplikatuko da.

#### **4.5.- Tarifaren epigrafeetan zehaztutakoez bestelako laguntza-talde eta zerbitzuak.**

Ikuskizun, erakusketa, industria eta bestetan laguntza-taldeek ematen dituzten zerbitzuek, partikularrek eskatzen dituztelarik, aurreko epigrafeetan xedatutakoa aplikatuz ateratzen den kuota sortuko dute.

Zerbitzuaren prezioa 'orduko' adierazita dagoen tarifa honen atal guztietan, likidatuko den gutxieneko denbora-tartea ordu erdi izango da.

Zerbitzuko buruaren ustez beharrezko diren suhiltzaileak, ibilgailuak eta materiala sartuko dira aurreko eskubideetan, material suntsikorra izan ezik; izan ere, material hori, erabiltzen bada, aparte kobratuko da.

Ordu zatien kasuan, aurreko tarifiari adierazitako zenbatekoak modu proportzionalan aplikatuko dira. Gehienez ere lau ordu likidatuko dira.

Tasa honen likidazioan, honako hauek zehaztu beharko dira: esku hartu duten langileak eta baliabideak, unitate kopurua, emandako denbora eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa, indarrean dagoen tarifaren arabera.

Zerbitzua aldi berean subjektu pasibo bati baino gehiagori ematen bazaio, haien artean hainbanatuko da kuota.

## **VI. ONURA FISKALAK**

### **5. artikulua**

Herritarren Segurtasunaren Sailari atxikitako zerbitzuen presazko esku-hartzea beharrezko gertatuz gero, tasaren ehuneko 99ko hobaria eman ahal izango da, salbu eta esku-hartze hori eragin duen ezbeharrak sortutako kalteak estaltzen dituen aseguru hitzartuta dagoenean.

Zerbitzu hau emateagatik ordaindu beharreko prezioetan ez zaie hobaririk edo deskonturik egingo 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsona edo familiei.

## **VII. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Zerbitzuari subjektu pasiboaren eskariz ekiten zaiolarik, suhiltzaileak suhiltzaileen etxetik ateratzen diren unean sortuko da tasa. Gainerakoetan, zerbitzua emateari benetan ekiten zaionean sortuko da tasa.

## **VIII. KUDEAKETA**

### **7. artikulua.- Likidazioa eta ordainketa**

Suhiltzaileek egiaztatzen dituzten datuak kontuan harturik egingo dituzte likidazioak zerga-kudeaketarako zerbitzuek, eta interesdunei jakinaraziko, Diru-bilketa Araudi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan ordain ditzaten, zuzenean.

## **IX. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.5 IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENDU ETA HORRETARAKO EGOKITUTAKO BILTEGIETAN GORDETZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Ibilgailuak bide publikotik kendu eta horretarako egokitutako biltegieta gordetzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Zirkulazioa oztopatzen, zailtzen nahiz galarazten duten ibilgailuak, arriskua sortzen dutenak eta arlo horretako lege-arauetan xedatutakoa urratzen dutelarik erretiratu beharrekoak direnak bide publikotik kendu eta horretarako egokitutako biltegieta eramateko zerbitzua eskaintzea da tasaren zerga-egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

- 1.** Zerbitzua eragin duten pertsonak izango dira zergapeko subjektu pasiboak, halakotzat joko baitira bide publikotik kentzen diren ibilgailuen gidariak, eta, ordezeko erantzule gisa, haien titularrak, ibilgailuak legez kontra erabili direnean izan ezik.
- 2.** Ibilgailua bide publikotik kentzeak sortutako gastuak gidariaren edo jabearen kontura joango dira, legez finkatutako moduan.
- 3.** Ibilgailuak txatar bihurtzeko unean, zirkulazio-baimenean ibilgailua bere izenean duen pertsona izango da zergapeko subjektu pasiboa.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

Tasa hauek sortuko dira:

#### **Tarifa:**

## 1. Ibilgailuak bide publikotik kentzeagatik:

- a) Ziklomotor, motozikleta eta antzeko ibilgailuak, bakoitzeko: .....41,92 euro
- b) Bizikleta bakoitzeko: .....20,96 euro
- c) 1.750 kiloko edo hortik beherako tara duen auto, furgoneta edo antzeko ibilgailu bakoitzeko (noranahikoak, bolumen bakarrekoak etab.) nahiz gehienez 750 kiloko masa baimendua duen atoi edo erdi-atoi bakoitzeko: .....155,51 euro
- d) 1.750 kilotik gorako tara duen auto, furgoneta edo antzeko ibilgailu bakoitzeko (noranahikoak, bolumen bakarrekoak etab.) nahiz 750 kilotik gorako masa baimendua duen kamioi, traktore, autokarabana, atoi, erdi-atoi edo antzeko ibilgailu bakoitzeko: .....256,92 euro

Aurreko puntuetan adierazten diren egintzak hasi besterik egiten ez badira, hau da, ibilgailua kaletik kendu aurretik gidaria edo baimendutako beste norbait agertu eta behar diren neurriak hartzen baditu, ehuneko 50era murriztuko dira tarifak.

Ibilgailuaren ezaugarriak direla eta, Gasteizko Udalak ez baditu hura bide publikotik kendu eta garraiatzeko baliabide egokiak, horretarako zerbitzua kontratatzeak sortzen dituen gastuen arabera ordaindu beharko da.

Erretiratu beharreko ibilgailua bide publikoan aparkatuta badago, eta titularrak hari uko egiten badio udal-biltegiara eraman baino lehen, ez da kobratuko ibilgailua erretiratzeagatik ordaindu beharreko tasa, ez eta udal-biltegian gordetzeagatik ordaindu beharrekoa ere.

## 2. Bide publikotik kendutako ibilgailuak gorde eta edukitzeagatik:

1. ataleko tarifei ibilgailuak gorde eta zaintzeagatik ordaindu beharreko kuotak gehituko zaizkie, baldin eta ibilgailua bide publikotik kendu zenetik gidariak edo jabeak jaso bitartean hamabi ordu igarotzen badira.

Hauek izango dira kuotak:

- a) Ziklomotorrak, motozikletak eta antzeko ibilgailuak, egun edo egun-zati bakoitzeko: ..... 4,06 euro
- b) Bizikletak egun edo egun-zati bakoitzeko: ..... 2,03 euro
- c) 1.750 kiloko edo hortik beherako tara duten autoak, furgonetak eta antzeko ibilgailuak (noranahikoak, bolumen bakarrekoak etab.) nahiz gehienez 750 kiloko masa baimendua duten atoi eta erdi-atoiak, egun edo egun-zati bakoitzeko: .....16,90 euro
- d) 1.750 kilotik gorako tara duten autoak, furgonetak eta antzeko ibilgailuak (noranahikoak, bolumen bakarrekoak etab.) nahiz 750 kilotik gorako masa baimendua duten kamioiak, traktoreak, autokarabanak, atoiak, erdi-atoiak eta antzeko ibilgailuak, egun edo egun-zati bakoitzeko: .....50,03 euro

Ibilgailua udal-biltegiari badago, eta titularrak hari uko egiten badio bide publikotik kendu eta lehenengo hilabetean, ibilgailua bide publikotik kentzeagatik tasa kobratuko da, baina ez da udal-biltegiari ibilgailua gorde eta zaintzeari dagokion tasa kobratuko.

Ibilgailu bat udal-biltegiari badago, eta titularrak ibilgailua entregatzeko eskatzen badu hura hiri-hondakin solidotzat (HHS) jotzeko legez ezarritako epea igaro baino lehen, ibilgailua bide publikotik kentzeagatik ordaindu beharreko tasa kobratuko da, bai eta erretiratutako ibilgailua biltegiari gorde eta zaintzeagatik ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa ere, zein, oro har, 3 hilabetekoa izango baita.

Ibilgailu bat udal-biltegiari badago, eta hura hiri-hondakin solidotzat (HHS) jotzeko legez ezarritako epea igaro dela, eta Tratamendurako Zentro Baimendu (TZB) batera eraman bada, ibilgailua bide publikotik kentzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoa kobratuko da, bai eta erretiratutako ibilgailua gorde eta zaintzeagatik ordaindu beharreko tasa ere. Kontzeptu horrengatik, oro har, bi egun ordainduko dira gehienez.

### **3. Ibilgailuak gelditu atxikitzeagatik:**

- a) Ibilgailuak gelditu atxikitzeagatik, tarifa hau aplikatuko da: .....37,19 euro
- b) Bizikletak gelditu atxikitzeagatik, tarifa hau aplikatuko da: .....18,60 euro
- c) 16 zaldi fiskal baino gehiagoko ibilgailuak gelditu atxikitzeagatik, tarifa hau aplikatuko da: .....37,19 euro

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

Ez da inongo salbuespen edo hobaririk onartuko, tasa hau ordainarazteari dagokionez.

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Ibilgailua bide publikotik kentzeko ekintzak hasten direnean sortzen da ordaintzeko obligazioa, hau da, garabia eraman beharreko ibilgailua dagoen lekura iristearekin, salbu eta gidariaren ezintasun materiala egiaztatzen delarik.

Ibilgailuaren ezaugarriak direla eta Gasteizko Udalak zerbitzua kontratatu beharra badauka, kontratatutako zerbitzuen tasak sortzen diren unetik bertatik izango da ordaintzeko obligazioa, garabia bide publikotik kendu beharreko ibilgailuaren ondoan egon ala ez.

## **VII. KUDEAKETA**

### **7. artikulua**

1. Bide publikotik kendu eta biltegiari utzitako ibilgailua ez zaio itzuliko bidezko erreklamatzailerari aldezturik ordenantza honen arabera likidatutako tasa ordaindu ezean, errekurtsioa aurkezteko eta hura bidezko ez dela deklaratu gero dirua itzultzeko eskubidea gorabehera.

2. Ordenantza honetan arautzen den tasaren ordainarazpena bateragarri izango da aldi berean zirkulazio arauak edo polizia urbanokoak urratzeagatik egokitzen diren zigor edo isunak ordaintzearekin.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **6.6 UDALAREN HIRIGINTZA KUDEAKETAREN KOSTU OROKOR ETA ADMINISTRAZIO KOSTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hirigintza-kudeaketaren gastu orokor eta administratiboengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Gasteizko Udalak egiten eta onesten dituen hirigintza planeamendu eta kudeaketarako instrumentuak izango dira tasaren zerga-egitatea, dagokien interesdun partikularrek idatzi beharrekoak izanik haien orde z udalak idazten dituelarik, haiek egin ez dutelako.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, zerbitzuak edo jarduerak eragiten dituztelarik nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen direlarik.

### **IV. ZERGA-OINARRIA**

#### **4. artikulua**

Lurzoru urbanizatuaren balioa izango da zerga-oinarrria.

Lurzoruaren Erregimenari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko irizpideak eta horren osagarri den legedia aplikatuz zehaztuko da urbanizatutako lurzuaren balioa. Jabetza kentzearen ondorioz jardunez gero, elkarren arteko eta adiskidetasunezko akordioan lortutako balio justua izango da, edo, horretara heldu ezean, administrazio bidean behin betikotzat jotzen dena. Urbanizazio eta eraikuntza prozesuarekin jarraitzeko ordaindu beharreko eskubide ororen kalte-ordainen zenbatekoak ere gehituko zaizkio, lurzuaren jabetza eskubideari dagokion zenbatekoaz gain.

Urbanizatutako lurzorua ren kostua zehazteko, aurreko paragrafoaren arabera ateratzen diren balioei urbanizazioen kostua gehituko zaie, aintzat harturik ez bakarrik kontratistak egindako obra nagusiak, baizik eta baita obra osagarriak ere.

## **V. ZERGAREN KUOTA**

### **5. artikulua**

Zerga-oinarriari ehuneko hauek aplikatzen ateratzen dena izango da:

- 1. epigrafea.- Plangintza: ehuneko 5,93
- 2. epigrafea.- Kudeaketa: ehuneko 5,93
- 3. epigrafea.- Gauzatzea: ehuneko 5,93

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Tarifetan adierazitako faseetako bakoitzari dagokion ordainketa egiteko obligazioa Gasteizko Udalak hari dagokion hirigintza jarduera edo kudeaketa egiten duenean sortuko da eta galdatu ahal izango da, honako honen arabera:

1. fasea.- Plangintza: behar den antolamendu tresnari behin betiko onespina ematen zaionean.
2. fasea.- Kudeaketa: Gasteizko Udalak urbanizazio proiektua onesten duenean, edo jabetza kentzea nahiz nahitaezko salmenta dakarren ez betetzea deklaritzen edo kalte-ordainaren balio justua zehazten duen ebazpena ematen duenean.
3. fasea.- Obren behin betiko likidazioa onesten denean, jaulkitako tasaren oinarritzat hartu zenarekin bat ez badator, hori berdindu arte.

Tasa likidatzeko, tarifaren epigrafeetan zehaztutako tasetako bakoitzak "urbanizatutako lurra ren kostuaren aurrekontuaren aurrerapen" bat izango du, proiektua osorik gauzatuko bailitzan, eta aurrekontu horren gainean jaulkiko da dagokion ehunekoa, "kontura", dena delako faseari dagokion tarifaren arabera, nahiz eta bukaeran, fase guztiak eta horiei dagozkien kopuruak kontuan izanik, azken likidazioa egingo den.

Tasa honen subjektu pasibo bakoitzak ordaindu beharko duen kuota bera jabe edo titular deneko lursaili dagokien bolumen eraikigarriaren arabera izango da, dena delako hirigintza planeamendurako instrumentu edo gauzatze unitateko lursailen bolumen eraikigarri osoarekiko erlazioan.

## **VII. KUDEAKETA**

### **7. artikulua**

Zergapeko subjektu pasiboari zerga-zorra jakinarazten zaionean egin beharko da ordainketa, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean finkatutako epeen arabera.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.8 ETXEKOAK EZ DIREN HONDAKIN-URAK ESTOLDA-SARERA ISURTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

### **ETXEETAKOEZ KANPOKO UR ZIKINAK ESTOLDA-SARERA ISURTZEA**

#### **1. artikulua XEDEA**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen du Gasteizko Udalak "Udal-estolderia-sarearen zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa".

#### **2. artikulua APLIKAZIO-EREMUA**

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

#### **3. artikulua ZERGA-EGITATEA**

1. Etxekoak ez diren hondakin-urak Udalaren estolda-sarera isurtzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen du ordenantza honek.

2. Era berean, etxekoak ez diren hondakin-urak udal estolderia-sarera isurtzen dituzten jardueren arazketa- eta estolderia-zerbitzuak likidatzeko baliatu beharreko parametroak ezartzen ditu, GASTEIZKO UDALAREN URAREN ZIKLO INTEGRALEKO UDAL ZERBITZUEN ZERGA-SISTEMAZ KANPOKO IZAERA PUBLIKOKO ONDARE-PRESTAZIOAREN ORDENANTZA LOKALAK xedatzen duenaren arabera.

3. Etxeetakoez kanpoko ur zikinak isur ditzaketen instalazio, establezimendu, jarduera, industria nahiz biltegiei aplikatuko zaie, publikoak nahiz pribatuak izan, edonor delarik ere titularra, dela gaur egun daudenei, dela aurrerantzean ezartzen direnei, udalerrian kokatuta daudelarik —guztiei ere, aurrerantzean, 'jarduera' deituko zaie—.

#### **4. artikulua DEFINIZIOA**

Aurreko artikuluan zehaztutako jardueretakoren baten ondorio zuzena den edozein hondar solido, oretsu, likido nahiz gasdun joko da etxeetakoez kanpoko isuritzat.

#### **5. artikulua ZERGA-OINARRIA**

1. Likidatu beharreko zenbatekoa bi elementu aintzat hartuta finkatuko da: batetik isuritako hondakin-uren elementu kuantitatiboa, eta bestetik kualitatiboa.

2. Elementu kuantitatiboari (Qi) dagokionez, industria-prozesuetatik sortu eta estoldara isurtzen den ur bolumena hartuko da aintzat.

3. Elementu kuantitatiboa (Q) zehazteko zuzeneko neurketa egingo da, aipatutako sistemetarako I. eranskinean ezartzen diren zehaztapan teknikoak aintzat hartzen direlarik.

4. Elementu kualitatiboa (K), berriz, estoldara isurtzen diren gai-kutsatzaileen kopuruaren arabera zehaztuko da, etxeetako ur isurietan ageri ohi diren gai-kutsatzaileen batez bestekoarekiko erlazioan baloratzen delarik.

Elementu kualitatiboa zehazteko, laginketa egingo da, II. eranskinean zehazten denaren arabera.

## **6. artikulua ELEMENTU KUANTITATIBOA (Qi) ZEHAZTEA**

- 1.** Ura hornitzeko iturri bakarria Udalaren sarea denean, ur-kontagailuak zehazten duena izango da elementu kuantitatibotzat hartuko dena.
- 2.** Isuritako hondakin-uraren bolumena ez badator bat udal-saretik kontsumitutako ur-bolumenarekin, honako egoera hauetako bat gertatuko da:
  - a. Isuritako hondakin-uren bolumena kontsumitutako ur-bolumena baino txikiagoa bada, hura kuantifikatzeko beharrezkoak diren zuzeneko neurketa-sistemak instalatuko dira. Hartara, elementu kuantitatiboa (Qi) isuritako hondakin-uraren bolumena izango da, instalatutako zuzeneko neurketa-sistemen bidez zehaztuta. Salbuespenez, eta behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak tarteko, ezin bada zuzeneko neurketa-sistemarik instalatu, azterketa xehatu bat egingo da, I. eranskinean (Zeharkako neurketa-sistemak)ezarritakoaren arabera, produktuan sartutako ur-bolumena edo lurrunketaren ondorioz galdutakoa zehazteko. Hartara, elementu kuantitatiboa (Qi) kalkulatzeko, ur-bolumen hori kendu beharko zaio saretik kontsumitutako ur-bolumenari, betiere saretik kontsumitutako bolumenaren eta kalkulaturako elementu kuantitatiboaren (Qi) arteko aldea % 10etik gorakoa bada. Bestela, elementu kuantitatiboa (Qi) udal-saretik kontsumitutako ur-bolumena izango da.
  - b. Isuritako hondakin-uraren bolumena saretik kontsumitutako ur-bolumena baino handiagoa bada, ur-hornidurarako beste iturri alternatibo batzuk daudelako, elementu kuantitatiboa (Qi) zehazteko emaria neurtu eta totalizatzeko dagozkion sistemak instalatuko dira, I. eranskineko (Zuzeneko neurketa-sistemak) zehaztutako teknikoaren arabera. Egoera horretan dauden jarduerak horren berri eman behar dute nahitaez Gasteizko Udaleko Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailari atxikitako Jarduerak Kontrolatzeko Atalaren aurrean. Hartara, elementu kuantitatiboa (Qi) isuritako hondakin-uraren bolumena izango da, instalatutako zuzeneko neurketa-sistemen bidez zehaztuta.
- 3.** Salbuespen gisa, aurreko bi egoeretako batean dauden jarduerak, elementu kuantitatiboa (Qi) zehazteko zuzeneko neurketa-sistemak instalatuzetik salbuetsita gera daitezke, baldin eta emaria zuzenean zehaztea eragozten duten behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak badaude. Hala ez izatera, eskura dituzten hornidura-iturrien azterketa xehatua egingo dute, bai eta ur-kontsumoa eta produktuan sartzea gertatzen den prozesuena ere, I. eranskinean (Zeharkako neurketa-sistemak) zehazten denaren arabera. Azterketa xehatu hori Gasteizko Udaleko Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailari atxikitako Jarduerak Kontrolatzeko Atalaren aurrean, horrek onar dezan.

## **7. artikulua ELEMENTU KUANTITATIBOA (Qi) ZEHAZTERAKOAN JARIATZE-URAK KONTUAN HARTZEA**

Beharrezko diren neurriak hartu beharko dira, jardueraren azalera bildutako euri-uraren ahalik eta parterik txikiena sar dadin saneamendu-sarera. Nolanahi ere, minimizazio-neurri horiek ezartzea mugatzen duten eta behar bezala justifikatuta dauden inguruabarrak identifikatzen dituzten jarduerak berariazko azterketa bat aurkeztuko dute, Gasteizko Udaleko Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailari atxikitako Jarduerak Kontrolatzeko Atalaren aurrean, horrek onar dezan. Analisi horrek elementu kuantitatiboa (Qi) zehaztuko du, kontuan hartuta Udalaren saneamendu-sarera isuritako hondakin-uraren guztizko bolumena –zuzeneko neurketaren bidez zehaztuta–, eta

jariatze-uren gehitutako bolumenaren kalkulua. Horretarako, formula matematiko hau erabiliko da:

$$Q_i = Q_t - (I * S * f)$$

horiek izanik:

<b>Q<sub>t</sub></b>	Isurketaren guztizko emaria, zuzeneko neurketaren bidez zehaztua (m <sup>3</sup> ).
<b>I</b>	Inguru horretako batez besteko prezipitazioa (m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> ).
<b>S</b>	Euri-ura jasotzen deneko azalera (m <sup>2</sup> ).
<b>f:</b>	Jariatze-koefizientea.

## 8. artikulua ELEMENTU KUALITATIBOA (K) ZEHAZTEA

1. Elementu kualitatiboa formula honen arabera zehaztuko da:

$$K = k * F$$

horiek izanik:

<b>k</b>	Kutsadura-koefizientea. $k = 0,5 (MO/500) + 0,3 (SS/200) + 0,05 (MI/2) + 0,15(Nt/30)$
----------	--

Hauek dira kutsadura-koefizientea osatzen duten terminoak:

<b>MO</b>	Industria-isuriko materia organiko oxidagarria, oxigeno eskari kimiko gisa (mg O <sub>2</sub> /l).
<b>SS</b>	Industria-isuriko materia esekia (mg/l).
<b>MI</b>	Industria-isuriaren materia inhibitzaileak, Equitox/m <sup>3</sup> tan * adierazita (% 50eko inhibizioa eragiten duen hondakin-uraren diluzioaren alderantzizkoa).
<b>Nt</b>	Nitrogenoa, guztira.

Aipatutako parametroen zehaztapen analitikoak III. eranskinean biltzen diren metodoen arabera egingo dira.

**F:** faktore zuzentzailea, jarduera-motaren arabera.

IV. eranskinean ageri den jardueren sailkapena aintzat hartuz zehaztuko da F-ren balioa, honela:

**F** = 1,00 izango da, 1. motako jarduerak direnean.

$F = 1,10$  izango da, 2. motako jarduerak direnean.

Kutsadura-koefizientearen (k) balioa unitatea edo hori baino txikiagoa; elementu kualitatiboaren (K) terminotzat F-ren balioa hartuko da. ( $k \leq 1$ ;  $K = F$ ).

Kutsadura-koefizientearen balioa (k) unitatea baino handiagoa bada, elementu kualitatibotzat (K) joko da F faktorea bider kutsadura-koefizientea. ( $k > 1$ ,  $K = F * k$ ).

## 9. Artikulua SALBUESPENA, ZEHARKAKO HOZTE-PROZESU BAIMENDUETATIK DATOZEN HONDAKIN-URAK ISURTZEKO JARDUEREI DAGOKIENA

Zeharkako hozte-prozesuetatik datozen hondakin-urak etxeoak ez diren industria-uren isurketatzat hartuko dira, Ordenantza hau onartzen den unean baimenduta dauden jarduerak izan ezik. Kasu horietan, isuritako bi hondakin-ur mota hartuko dira kontuan: industria-prozesutik datorren ur-bolumena ( $Q_i$ ) eta zeharkako hozte-zirkuituetatik datorren hondakin-uraren bolumena ( $Q_r$ ). Azken horri hozte-uraren isurketari ( $P_r$ ) lotutako kostu finkoa aplikatuko zaio ( $\text{€}/\text{m}^3$ ).

Zeharkako hozte-uraren isurketari lotutako kostu finkoaren prezioa ( $\text{€}/\text{m}^3$ ) ( $P_r$ ) eurotan ( $P_f$ ) isuritako industria-prozesuko ur-bolumenari lotutako kostu finkoan oinarrituta kalkulatu da, formula honen arabera:

$$P_r = 0,1 * P_f$$

## 10. artikulua ISURKETA-TASAREN URTEKO ZENBATEKOA (€ / URTE) ETA ARAZKETA-ZEIN ESTOLDERIA-ZERBITZUEN LIKIDAZIOAN BALIATU BEHARREKO PARAMETROAK ZEHAZTEA

1. Elementu kuantitatiboa nahiz kualitatiboa, biak hartuko dira aintzat isurtze-tasaren kuota kalkulatzeko.
2. Honela kalkulatu da kuota hori:

$$C = S + Q_r * P_r + K * (Q_i * P_f) + Q * P_a$$

$$(Q = a * Q_r + Q_i)$$

horiek izanik:

- C** Isurtze-tasaren urteko zenbatekoa (euro urtean).
- S** *Estolderia- eta arazketa-zerbitzuaren kuotak (euro urtean). Urtez urte onesten diren ordenantza fiskalen arabera eguneratuko dira —ur-hornidura eta saneamendua—.*
- Q** Isuritako hondakin-uraren guztizko bolumena, isuritako industriako hondakin-ura eta zeharka hoztutako ura barne ( $\text{m}^3$ ).
- Q<sub>i</sub>** Isuritako industria-uraren bolumena ( $\text{m}^3$ ).
- Q<sub>r</sub>** Zeharkako hozte-zirkuituetatik datorren ur-isuriaren emana ( $\text{m}^3$  urtean).
- P<sub>r</sub>** hozte-uraren isuriari dagokion kostu finkoa ( $\text{€}/\text{m}^3$ ).

- Pf** Isuritako industria-uraren m<sup>3</sup> bakoitzeko kostu finkoa (euro/m<sup>3</sup>).
- Pa** Isuritako ur m<sup>3</sup> bakoitzari lotutako estolderia-kostu finkoa (euro/m<sup>3</sup>).
- a** Estolderia-kostu finkoa (Pa) Qr bolumenean aplikatzeko koefizientea. Koefiziente horrek 0,33ko balioa izango du 2024an, 0,66koa 2025ean eta 1ekoa 2026an eta hurrengo ekitaldietan.
- K** Elementu kualitatiboa, isuriaren karga kutsatzailearekiko funtzioa.

**Horrela kalkulaturako kuota 14. artikuluan (Aplikazio-arauak) azaldutako irizpideen arabera likidatuko da, kalkulu honen arabera:**

**Udalak:  $C = (K-1) \cdot Q_i \cdot P_f$**

**Gasteizko Udal Urak SAK (AMVISA):  $C = S + Q_r \cdot P_r + Q_i \cdot P_f + Q \cdot P_a$**

### **11. artikulua KUTSADURA-KOEFIZIENTEA (k) BERRAZTERTZEA**

1. Jarduera bakoitzak urtean behin baino ezingo du eskatu kutsadura-koefizientea (k) berraztertzeke. Industria-prozesuan efluentearen kutsadura zehazteko parametroetan gorabehera nabarmenak izan direla pentsatzeko bide ematen duten aldaketak izan badira baino ez da onartuko horretarako eskabidea.

2. Azken kasu horretan, eskabidea egiten duen jardueraren kontura joango dira laginketa eta analisi horien kostuak, 6.13 zenbakiko ordenantza fiskalean ezarritakoaren ildotik.

### **12. artikulua ISURITAKO HONDAKIN-UREI LOTUTAKO KOSTU FINKOAK**

1. Kostu finkoen terminoa (**Pf eta Pa**) Gasteizko Udalak finkatuko du, urtez urte. **Pf eta Pa**-ren balioa, urte bakoitzerako, 6.7 zenbakiko ordenantza fiskaleko 2. tarifako 2.4 epigrafean hondakin-uren arazketari eta estolderiari dagokionez ezarrita dagoena izango da.

### **13. artikulua ISURTZEKO MUGEN BETEKIZUNA**

Isurtze-tasa ordainduta ere errespetatu beharrekoak izango dira estolda-sarera gai kutsatzaileak botatzeari dagokionez Etxekoak ez diren isurketen Ordenantzan ("Ordenanza municipal de vertidos no domésticos", gaztelaniaz) zehaztutako mugak.

### **14. Artikulua APLIKAZIO ARAUAK**

1. Dagokien BEZ tasa aplikatuko zaie tarifei.
2. Hemen xedatu gabekoetan, etxekoak ez diren hondakin-urak isur ditzaketen instalazio, establezimendu, jarduera, industria eta biltegiak, dela gaur egun daudenak, dela aurrerantzean ezartzen direnak, indarrean dagoen Etxekoak ez diren isurketen Ordenantzan ("Ordenanza municipal de vertidos no domésticos", gaztelaniaz) xedatutakoaren mende egongo dira.
3. Tarifa horien likidazioa honela egingo da:

- Isuritako hondakin-uraren bolumenak Udalaren hornidura-saretik kontsumitutako uraren bolumenarekin bat egiten duen jardueren kasuan (6. artikulua, 1. atala), hondakin-urak arazteko zerbitzuari dagokion partea aldian-aldian likidatuko du Gasteizko Udal Urak enpresak, GASTEIZKO UDALAREN URAREN ZIKLO INTEGRALEKO UDAL ZERBITZUEN ZERGA-SISTEMAZ KANPOKO IZAERA PUBLIKOKO ONDARE-PRESTAZIOAREN ORDENANTZA LOKALEan ezarritako irizpide berak aintzat harturik.
- Isuritako hondakin-uraren bolumena Udalaren hornidura-saretik kontsumitutako uraren bolumenarekin bat ez datorren jardueren kasuan —handiagoa nahiz txikiagoa izan, dela bestelako hornikuntza-iturri alternatiborik dagoelako, dela ekoizpen-prozesura ura sartzen delako edo lurrunketa-galerak daudelako (6. artikulua, 2. atala)—, kutsaduraren zehaztea eta dagokion partea (K) urtero-urtero likidatuko du, zuzenean, Gasteizko Udalak. *Elementu kuantitatiboari dagokion partea (Qi) Gasteizko Udal Urak SAK (AMVISA) likidatuko du —estolderia eta arazketa kontzeptuak—, hornikuntzaren maiztasun berarekin, aurreko ekitaldiko urteko Qi oinarritzat harturik, ordenantza honen 10. artikuluan adierazitakoaren arabera lortzen den datu erreala baliatuz urteko behin betiko likidazioa egin bitartean.*

## **I. ERANSKINA**

### **Elementu kuantitatiboa zehaztea.**

#### **1. Zuzenean neurtzeko sistemak.**

Eskura daukagun teknologia baliatuz isuritako emaria objetiboki neurtzeko balio duten sistemak dira.

Bi egoera gerta daitezke:

- a) Hodietan neurtzea: emari-neurgailu elektromagnetikoak baliatuko dira, totalizatzaile elektronikoa dutenak, nahiz eta jarduerak bestelako zehazte-sistema fidagarririk proposatzerik izango duten (betiere udal zerbitzu teknikoek ontzat ematen badituzte).
- b) Lamina askean neurtzea: Emariaren maila ultrasoinuen bitartez neurtzen eta guztizkoa ematen duten isurbide edo Parshall ubideak baliatuko dira, gutxienez, nahiz eta jarduerak bestelako sistemarik proposatzerik izango duten (betiere udal zerbitzu teknikoek ontzat ematen badituzte).

#### **2. Zeharka neurtzeko sistema.**

Kontsumitutako eta isuritako uraren balantzearen azterketa zehatua egingo da, jardueraren kontura; udal zerbitzu teknikoek azterketa horren norainokoari eta xehetasun-mailari buruzko irizpena eman beharko dute.

Bateko eta besteko hornidura-iturrietako kontsumoa zenbatekoa den aztertuko da, baita urak prozesu bakoitzean duen erabilera ere, eta galerak baloratuko dira, daudenean; horren arabera zehaztuko da isuritako emariaren balioa.

Elementu kuantitatiboa zehazteko metodo hori salbuespen gisa erabiliko da, baldin eta zuzenean neurtzeko sistemak instalatzea eragozten duten behar bezala justifikatutako inguruabar teknikoak badaude. Azterketa zehatu hori Gasteizko Udaleko Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailari atxikitako Jarduerak Kontrolatzeko Atalaren onespena jaso beharko du.

## **II. ERANSKINA.- Laginketa eta analisisien baldintzak**

Isuriaren karga definituko duten parametro analitikoak zehazteko neurketak egiteko laginketa-baldintzak definitzea du xedetzat eranskin honek.

1. Isurketaren azken kutxatilan egingo da laginketa.
2. Laginak hartzeko aldiak bermatu egin beharko du jardueraren ekoizpen-sisteman ohiko diren isurketen gainean egiten dela neurketa.
3. Laginketak gutxienez 6 eguneko epea hartu beharko du, baina udal zerbitzu teknikoaren irizpide teknikoaren arabera aldi hori luzatzerik izango da.

4. Programatutako lagin-hartzaile automatikoen bidez eskuratuko dira laginak, eta emaria edo denborarekiko proportzioa izango dute.

5. Laginketa-aldian lagin bat hartuko da, eta III. eranskinean ageri diren metodo analitikoaren arabera analizatuko. Laginetako bat lehen analisi bat egiteko erabiliko da, eta bigarrena behar bezala zigilatuta geratuko da, behar izatera ondorengo analisi erabakigarri bat egiteko.

6. Lortzen diren emaitza guztiak baliatuko dira kutsadura-koefizientea zehazteko orduan.

7. Bi laginak hartu ondoren, horietako bat analizatuko da (hasierako analisiarekin eta kontraesanezkoarekin bat etorriz) Udal Laborategian. Xede den enpresaren ordezkari bat gonbidatuko da azterketan egoteko. Hasierako analisisira jardueraren ordezkari agertzen ez bada, hark Udal Laborategiak emandako emaitza onartzen duela ulertuko da.

8. Jardueraren ordezkaria ez badator lortutako emaitzekin, bigarren lagin baten analisia egingo da analisia egin zenetik 24 ordu igaro aurretik. Bigarren laginaren analisia Udal Laborategian egingo da, enpresa ordezkatzeko duen pertsonak azaldutakoak kontuan hartuta, horiek Gasteizko Udaleko Hiri, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumen Saileko Jardueren Kontrol Unitateko Isurketak kontrolatzeko lanen ardura duen teknikariarekin adostu ondoren.

### **III. ERANSKINA**

Eranskin honek termino kualitatiboa definitzen duten parametroak zehazterakoan erreferentzia gisa aplikatuko diren teknika analitikoaren deskribapena biltzen du:

#### **OXIGENO ESKARI KIMIKOA**

##### **METODOA**

508 C. Errefluxu itxiaren metodoa. Zehaztapen koloremetrikoa. Standard Methods for the examination of water and wastewater.

##### **PRINTZIPIOA**

Materia organiko oxidagarriak erreakzioa egiten du dikromato potasikoarekin inguru sulfurikoan, zilar sulfatoaren eta merkurio sulfatoaren presentzian.

Erreakzioa guztiz itxitako hodi batean egiten da, bi orduz 150° berotuz.

Zehaztapena koloremetriaz egiten da.

##### **APARAILUAK**

- a) Digestio-blokea, 150 ± 2° C-ra diharduena.
- b) Koloremetroa edo espektrofotometroa, VIS.

## **ERREAKTIBOAK**

- a) 508 C metodoan adierazitakoaren arabera presta daitezke.
- b) Merkatuan salgai dauden test arinak erabili ahal izango dira.
- c) Potasio hidrogeno ftalato patroia.

## **PROZEDURA**

- a) Zehatz-mehatz neurtu lagin eta errektibo bolumen bana eta ongi ixteko moduko hodi batean sartu. Gora eta behera irauliz, zenbait bider astindu.

Hodia digestorean sartu eta 150°C-tan eduki 2 orduz.

Ondoren hozten utzi eta espektrofotometroa irakurri, 600 mm-tan, baldintza berberetan tratatutako zuri baten aurrez aurre.

Patroi-kontzentrazio egokiak erabiliz moldatutako kalibraketa-marra batekiko interpolazioaren bidez egingo da zehazpena.

- b) Fabrikatzaile bakoitzaren oharrei jarraiki jokatu, analisisen emaitzen kalitatea patroiak sartuz ziurtatzen delarik.

## **INTERFERENTZIAK**

Kloruro kontzentrazio handiak izateak interferitu egiten du zehazketa; hortaz, kontzentrazio hori aintzat hartu beharko da digestio-bolumenak aukeratzekoan.

## **SOLIDO ESEKIAK**

### **METODOA**

209 C. Solido esekiak guztira, 105°C-tara. Standard Methods for the examination of water and wastewater.

### **PRINTZIPIOA**

Lagina, pH = 7,0 ± 0,2 delarik, aurrez tratatutako beira-zuntzeko iragazki baten bidez iragazten da. Hondarra 105°C-tara lehortzen da, pisua konstante izan arte. Irazkiaren pisu-gehikuntza guztirako solido esekiena izango da.

### **APARAILUAK**

- a) Hutsean iragazteko sistema.
- b) Huts-ponpa.

## **IRAGAZKIAREN HAUTAKETA**

Zehazketa honetarako iragazki egokiak hauexek dira: Millipore AP40, Whatman 934AH, Gelman A/E.

## **PROZEDURA**

Laginean solido larriak ageri badira, galbahearen bidez kendu.

Lagin homogeneousatuaren alikuota bat honetara doitzen da: pH = 7,0 ± 0,2. Bolumena halako moduan aukeratzen da, non ez duen 200 mg hondakin baino gehiago sortzen.

Irazkia, aurrez garbitu eta 105 °C-tara lehortua eta lehorgailuan hoztua, zehatz-mehatz pisatu.

Iragazte-sistemaren gainean jarri hura, alikuota gehitu eta hutsean iragazi.

Ondoren, ur desionizatuz garbitu iragazkia. 105°C-tako estufan lehortu, gutxienez ere ordu betez. Lehorgailuan hoztu eta pisatu.

Emitza mg/l-tan adieraziko da.

## **GAI INHIBITZAILEEN ZEHAZTAPENA**

UNE-EN-ISO 11348 araua.

## **NITROGENOA, GUZTIRA**

### **METODOA**

Ur-laginetan ageri den N zehaztea (guztira), oxidazio termo-katalitiko delako medio, eta detektatze elektrokimikoa, N/C analizatzailearen bitartez.

### **PRINTZIPIOA**

Lagina digeritu egiten da, oxidazio termokatalitiko baten bitartez, tenperatura altuetan, katalizatzaile berezien presentziarekin. Hartara, karbonoa eta nitrogenoa duten osagai egonkorrenak berak ere modu kuantitatiboan digeritu daitezke. Pirolisi katalitiko gas-korronte batean gertatzen da, eta laginean osagai desberdinen forman presente dagoen nitrogenoa nitrogeno-oxido bihurtzen da, eta oxido horiek neurtzen dira detektatzaile elektrokimiko baten bitartez.

### **ERREAKTIBOAK**

Azido fosforikoa % 10  
Katalizatzailea Pt/Al<sub>2</sub>O<sub>3</sub>.

## **TRESNAK**

Karbonoa eta nitrogenoa (guztira) detektatzeko analizatzailea, NDIR eta elektrokimikarekin.

## **INTERFERENTZIAK**

Interferentziarik gabe.

## **IV. ERANSKINA**

### **Jardueren sailkapena.**

Sailkapen hau ez da enpresen jarduera nagusien arabera aplikatuko, isurtzen diren urekiko eraginik handiena duten jardueren arabera baizik.

### I. MOTA

- 151 Elektrizitatea sortu, garraiatu eta banatzea.
- 152 Gasa sortu eta banatzea.
- 153 Ur beroa sortu eta banatzea.
- 161 Hiriguneetarako ura bildu, araztu eta hodiz banatzea.
- 223 Altzairuzko hodiak egitea.
- 246 Beira laua, hutsarteduna edo teknikoa nahiz beirazko zuntza egitea eta beira-lanak.
- 311 Piezen fundizioa.
- 312 Forja, estanpazioa, enbutizioa, puntzonaketa, ebaketa eta bozelketa.
- 314 Metal-lanak, egitura metalikoak
- 315 Biltegi handiak eta neurri handiko galderak egitea.
- 316 Esku-erremintak eta nekazaritzakoak, burdindegia eta sarrailagintza gaiak, torlojuak eta alanbretik eratorritako gaiak, etxeetarako, sukaldeetarako eta bestetarako burdinazko gaiak, elektrikoak ez direnak, metalezko altzariak eta ontziak, arma arinak eta munizioa, eta abar.
- 319 Mekanika, oro har (metalen itxuraldaketa, makina-erreminten bidez), eta lantegi mekanikoak, soldaketakoa, eta abar, oro har.

- 32 Nekazaritzarako makinak, metalak nahiz zura lantzeko makinak eta beste, makina-erreminta, ehungintzarako makinak, fundiziokoak eta abar, engranaje, transmisio kate, goratze makinak, errodamenduak eta beste egitea.
- 330 Bulegoetarako makinak eta ordenagailuak egitea.
- 34 Hari eta kable elektrikoak, material elektrikoa eta ekipamenduak egitea, salbu eta pila eta metatzaileak; kontagailu eta neurketa aparailuak, etxetresna elektrikoak, lanparak eta argiztapenerako materiala.
- 35 Telefonia eta telegrafia aparailuak eta tresneria, irrati-komunikazio eta telebista aparailuak, elektromediko, profesional eta zientifikoak, eta abar egitea, baita osagai elektronikoak eta zirkuitu integratuak ere.
- 36 Ibilgailuak, horien motorrak, karrozeriak, atoiak eta beste egitea.
- 38 Trenbideetako materiala nahiz hegazkin, bizikleta, motozikleta eta abarretarako egin, konpondu eta onean zaintzea.
- 39 Prezisio, neurketa eta kontrol tresneria egitea, material mediko-kirurgikoa, tresneria optikoak eta fotografikoak, erlojuak eta abar.
- 41 Oliba-olioa egitea, hazi oleaginosoetatik olioak erauzteak, animalia koipeetatik olioak erauzteak, bestelako gorputz koipetsuak birfindu eta hidrogenatzea, margarina eta janaritarako koipeak egitea.
- 413 Abere-hilketa, okela prestatzea eta kontserbak egitea, eta hegazti inkubazioa.
- 414 Esnekien industria.
- 415 Barazki-zuku eta -kontserbak egitea.
- 416 Barazki-kontserbak eta bestelako produktuak egitea.
- 417 Errotako produktuak egitea.
- 418 Jateko pasten fabrikazioa
- 419 Ogia, opilak, gozokiak eta galletak egiteko industria.
- 42 Kakaoaren eta txokolatearen industria eta konfitegia produktuak nahiz animaliak elikatzekeko produktuak (pentsuak) egitea. Kafea, tea eta antzekoak eta prestatutako zopak, erauzitako gaiak eta saltsakariak, produktu dietetikoak eta erregimenekoak, eta abar egitea.
- 420 Azukrearen industria.
- 424 Irakinarazi beharreko alkohol etilikoaren industria.
- 425 Ehunen industria.

- 426 Sagardotegiak.
- 427 Garagardoa eta malta egitea.
- 428 Mineral ur, ur gasdun eta alkoholik gabeko bestelako edarien industria.
- 429 Tabako-industria.
- 451 Oinetakoak seriean egitea eta oinetakoen alorreko artisautza.
- 46 Egurraren zerraketa eta prestakuntza industrialak. Zurezko erdi-landutako produktuak egitea (txapak, taulak eta abar). Zurgintza piezak, parketak eta abar seriean egitea. Egurrezko enbase eta bilgarriak, zurezko objektuak, kortxo produktuak, ihiz eta kanaberaz egindako gaiak, saskigintza eta abar. Etxerako, eskolarako nahiz bulegoetarako altzariak; zerraldoak.
- 121 Petrolio eta gas natural prospekzioak.
- 122 Petrolio gordina erauzi eta banatzea.
- 123 Gas naturala erauzi, araztu eta banatzea.
- 124 Arbel bituminosoen erauzketa.
- 211 Burdinazko mineralak erauzi eta prestatzea.
- 212 Burdinazkoak ez diren mineralak erauzi eta prestatzea.
- 221 Siderurgia integrala.
- 222 Siderurgia ez-integrala.
- 224 Altzairua hotzean trefilatu, luzatu, profilatuta eta ijezteak.
- 241 Egositako lurrezko produktuak egitea, eraikuntzarako, salbu eta gai errefraktarioak.
- 242 Zementua, karea eta igeltsua egitea.
- 243 Eraikuntzarako materialak egitea, ormigoiz, zementuz, igeltsuz, eskaiolaz eta bestez.
- 316 Metalezko altzariak egitea, fosfatazioa tarteko. Arma arinak egitea, ilunketaz.
- 431 Kotoiaren industria, harigintza eta kotoizko ehungintza.
- 432 Artilezko zuntzak prestatzea, harigintza, artile-bihurriketa eta ehungintza eta nahasketak.
- 433 Zeta naturalaren eta horren nahasketen industriak.

- 434 Zuntz gogor eta horien nahasketen industriak.
- 435 Piezako puntu-gaiak fabrikatzea, galtzerdiak, barruko arropak nahiz kanpokoak egitea.
- 436 Ehunen akabera.
- 437 Alfonbra eta inpregnatutako ehunak egitea.
- 439 Bestelako ehungintza-industriak.
- 442 Larrukitegi gaiak eta bidaiakoak, eskularruak eta larruzko bestelako produktuak fabrikatzea.
- 468.5 Altzairuen industriari atxikitako jarduerak (urreztatzea, bernizatzea).
- 473.4 Dekoraziorako gaiak eta etxean erabiltzekoak fabrikatzea (pintatutako papera).
- 473.9 Papera eta kartoia landuz egindako bestelako gaien fabrikazioa (argizariz, parafinaz, breaz eta bestez estalitako papera).
- 474 Inprimaketa grafikoa, serigrafia, fotokonposaketa eta erreprodukzioa. Inprimaketari atxikitako jarduerak.
- 475 Arte grafikoei atxikitako jarduerak.
- 481 Kautxua transformatzea.
- 482 Gai plastikoak transformatzea.
- 491 Bitxiak eta bisuteria.
- 917 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.

## II. MOTA

- 225 Burdinazkoez beste metalen produkzioa eta lehen transformazioa.
- 245 Urratzaileen fabrikazioa.
- 247 Zeramika-produktuen fabrikazioa.
- 251 Jatorri petrokimikoko produktu kimiko organikoak, bestelako produktu kimikoak, produktu inorganikoak, lehenengo gai plastikoak, kautxua eta latex sintetikoa fabrikatzea.
- 252 Ongarri eta plagiziden fabrikazioa.

- 253 Gas konprimituak, kolore-emaile eta pigmentuak, pinturak, berniz eta lakak, inprentarako tintak, industriadako olio eta koipeak, lehegailuak eta abar fabrikatzea.
- 254 Oinarrizko farmazia-produktuak, espezializatuak eta bestelakoak egitea.
- 255 Xaboi, garbigarri, lixiba, lurrin-produktu eta kosmetikoak fabrikatzea, baita argizaritik eratorriak eta parafinak ere. Argazkigintza-material sentikorraren fabrikazioa. Argazkigintza-material sentikorraren fabrikazioa. Piroteknia gai, pospolo eta antzekoen fabrikazioa.
- 313 Metalen tratamendua eta estalketa.
- 343 Pila eta metagailuen fabrikazioa.
- 493 Argazkigintza eta zinema laborategiak.
- 441 Larrua ondu eta lantzea.
- 472 Papergintzarako pasta, papera nahiz kartoia, kartoi ondulatua eta kartoi ondulatuzko gaiak fabrikatzea.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.9 HONDAKINAK UDALAREN TRATAMENDU LANTEGIETAN HUSTU ETA TRATATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Gardelegiko zabortegia erabiltzeagatiko tasak eta Gasteizko hiri hondakinak tratatzeko Jundiz Mendebaldeko lantegian hondakinak tratatzeagatiko tasak".

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Arau honen objektua Gardelegiko udal zabortegian eta hiri hondakinak tratatzeko Jundiz Mendebaldeko lantegian hondakinak utzi eta tratatzeagatik ordaindu beharreko tarifak zehaztea da.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

#### **3. artikulua**

Tasa honen subjektu pasiboa hondakina utzi edo uzteko agindu duen pertsona natural edo juridikoa izango da Gardelegiko zabortegiaren kasuan, edo erabiltzen duen pertsona natural edo juridikoa hiri hondakinak tratatzeko Jundiz Mendebaldeko lantegiaren kasuan.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

Epigrafe hauen arabera sortuko dira tasak:

##### **1. EPIGRAFEA**

Gasteizko hiri hondakinak tratatzeko Jundiz Mendebaldeko lantegian hondakinak utzi eta tratatzeagatiko tasa

- Hiri-hondakinen multzoak edo hiri hondakintzat jo daitezkeenak:

126,95 euro/Tm

- Zati organikoaren gaikako bilketatik sortzen diren hiri-hondakinak:

98,10 euro/Tm

- Bilketa pribatuetako hondakin berdeak:

63,96 euro/Tm
---------------

## 2. EPIGRAFEA

- Gardelegiko zaborteji kontrolatuan hondakin solidoak deuseztatzeagatiko tasak.

HONDAKIN MOTA	
Industria hondakin geldoak	26,05 euro/Tm
Industria hondakin ez arriskutsuak	47,58 euro/Tm
Igeltsuak eta igeltsua duten hondakinak	35,87 euro/Tm
Hiri hondakinak eta antzekoak tratatzeko lantegietan eta ur zikinen araztegiak atzera botatako hondakinak	49,84 euro/Tm
Hiri hondakinen antzekoak	63,72 euro/Tm
Inausketa eta lorezaintza hondarrak	63,72 euro/Tm
Eraikitze eta eraiste lanen hondakinak (harrizkoak) tratatzeko lantegiak atzera botatako gai ez arriskutsuak	35,04 euro/Tm

Hondakinaren konposizioa hainbat motaren nahasketa denean, tasarik handiena duen hondakinaren tarifa aplikatuko da.

## V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 5. artikulua

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- Gasteizko udalerriko zabor bilketa eta hiri garbiketako zerbitzuek ekarritako hondakinak uztea eta tratatzea.
- Udal titularitateko Gasteizko Hiri Hondakinak Biometanizazioz eta Konpostatzeaz Tratatzeko Lantegian sortzen den gai bio-egonkortua.

## VI. SORTZAPENA

### 6. artikulua

Gasteizko Udalak tasa auto-likidazio erregimenean ordaintzeko eskatu ahal izango du, eta auto-likidazioa isurketa egiteko baimenarekin edo eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Baimen hori eskatzearekin batera egingo da tasaren behin-behineko likidazioa.

## VII. KUDEAKETA

### 7. artikulua

1.- Gardelegiko zabortegiaren kasuan, ordenantza honetan adierazi diren zerbitzuak emateko, aldez aurretik, hondakinak uzteko baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, 1997ko abuztuaren 18ko ALHAOn argitaratutako araudiari jarraiki. Zerbitzurako baimena emantzat jotzeko, edonola ere, ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharko da aurretik, eta tasa ordaintzen ez bada zerbitzua ez da emango.

2.- Gasteizko hiri hondakinak tratatzeko Jundiz Mendebaldeko lantegiaren kasuan ere baimena eskatu beharko da, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Sailak zehazten duen eran. Zerbitzurako baimena emantzat jotzeko, edonola ere, ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharko da aurretik, eta tasa ordaintzen ez bada zerbitzua ez da emango.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **6.11 UDAL LANGILE ETA MATERIALEKIN EMANDAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Udal-langile eta -materialekin emandako zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Udalak adierazten diren administrazio jarduerak egitea izango da tasaren zerga-egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

1. Zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren entitateak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

Tarifa hauek aplikatuko dira, zerbitzuen arabera:

1. Zerbitzu elektrikoei atxikitako zurubia, langileak barne, ordu edo ordu zatiko ..... 60,55 euro.
2. Oholtza edo antzeko egiturak uzteagatik, eskabidean zehaztutako epea igarotzen delarik, hau kobratuko da, egun eta metro lineal bakoitzeko —lurreko proiektzio horizontala neurtuta— .....20,76 euro.

3. Tutu malguak uzteagatik, Su Itzaltze Zerbitzua emateari buruzko ordenantzaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

1-3 puntuak aplikatzearen ondorioz ordaindu beharrekoa likidatzeko orduan, langile edo materialak parketik ateratzen direnetik hasi eta —zerbitzua amaitu ondoren— berriro bertara sartzen diren arteko denbora joko da benetako zerbitzu-alditzat. Nolanahi ere, gutxienez bi ordukotzat joko da zerbitzu-aldi hori.

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Zerga-egitatzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra.

## **VI. KUDEAKETA**

### **6. artikulua**

Zergapeko subjektu pasiboari zerga-zorra jakinarazten zaionean egin beharko da ordainketa, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean finkatutako epeen arabera.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **I. FUNTSA ETA IZAERA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hileta-zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **2. artikulua**

Udalak adierazten diren administrazio jarduerak egitea izango da tasaren zerga-egitatea.

## **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

### **3. artikulua**

1. Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztelarik nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen direlarik.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

## **IV. TARIFAK**

### **4. artikulua**

Tarifa hauek aplikatuko dira, zerbitzuen arabera:

### **LEHEN TARIFA**

#### **1. Ehorzketak:**

	<b>GORPUA</b>	<b>ERRAUTSAK ETA GORPUZKIAK</b>
Panteoian, hilobian, nitxoan edo bestelako hileta-monumentuan, eta 213 lursailean:	215,00 euro	123,80 euro
Eremu komunean	215,00 euro	
Kolunbarioan		60,70 euro
Errauts-lorategian, oroitarriko inskripzioa barne	1. aldiz zabaltzea	60,70 euro
	2. eta hurrengoetan, batera	30,40 euro
Ebakuntzetatik sortutako giza hondarrak, errausteko	174,50 euro	
Abortu edo ebakuntzetatik sortutako giza hondarrak.	119,00 euro	
EZ da kobratuko <b>ERRAUTSAK</b> eta gorpuzki bilduak ehorzteagatik: > Hilkutxa bat ehorzten edo hobitik ateratzen den une berean egiten bada. > Gorpuzkiak biltzen diren une berean egiten bada. > Aldi berean errauts eta gorpuzki bilduen multzo bat edo batzuk ehorzten direnean, bigarrena eta hurrengoak.		

## 2. Hobitik ateratzea:

	<b>GORPUA</b>	<b>ERRAUTSAK ETA GORPUZKIAK</b>
Panteoitik, hilobitik, nitxotik edo bestelako hileta-monumentu batetik	262,50 euro	123,80 euro
Eremu komunetik	262,50 euro	
Haurrentzako hilobitik	262,50 euro	
Kolunbariotik		60,70 euro
Hezurtegi komunetik, irakaskuntza edo ikerketa xedearekin (gorpuzkiak)	0,00 euro	
Abortu edo ebakuntzetatik sortutako giza hondarrak	123,80 euro	
EZ da kobratuko <b>ERRAUTSAK</b> eta gorpuzki bilduak ateratzeagatik > Hilkutxa bat hobitik ateratzen edo ehorzten den une berean egiten bada. > Gorpuzkiak biltzen diren une berean egiten bada. > Aldi berean errauts eta gorpuzki bilduen multzo bat edo batzuk ateratzen direnean, bigarrena eta hurrengoak		

## 3. Nitxotik ateratzea eta berehala beste batean sartzea

	<b>GORPUAK</b>	-----
<b>Nitxotik</b>	201,92 euro	-----
Gorpuaren hondarrak deuseztatzen saiatu arren, berriro nitxoan sartu behar denean, haren hondarrak ezin izan direlako deuseztatu.		

#### 4. Hondarrak deuseztatzea:

##### Gorpu bakoitzeko, hau ordainduko da:

Hilobi-eraikinean-gorpuzkiak deuseztatzea	1. deuseztatzea	291,80 euro
	Zerbitzu bereko deuseztatze gehigarri bakoitzeko	116,80 euro
Gorpuzkiak —bilduak— poltsa edo kutxa batean gordetzea	Poltsa edo kutxa bakoitza	99,20 euro

Gorpuzkiak jasotzeko poltsa edo kutxaren zenbatekoa eskatzaileari ordainaraziko dio Udalak, **bai eta gorpua hartzeko kartoizko hilkutxa ere**, enpresa hornitzaileak Udalarari berari kobratutako prezio berean.

#### 5. Lauzak eta estalkiak mugitzea:

Lagatako eraikuntzak zabaldu eta ixteko lauzak eta estalkiak mugitzeagatik, junturak lotzea barne (eremu komunean ehorztea salbuetsita dago)	Hilobiak, nitxoak eta panteoiak	Kolonbarioak
	68,10 euro	42,60 euro

#### 6. Beste zerbitzu batzuk:

Tarifa hau aplikatu ondoren likidatutako kuotak zerbitzua eskatzen denean ordaindu beharko dira, udalerriko hileta-agentziek instalatzen dutenean izan ezik; orduan kobratze-agiria eman ondorengo hamabost egunen barruan kobratuko da, eta agentziak ordaindu beharko du.

Eraikuntzean jarritako objektuak kentzea; unitate bakoitzeko	15,20 euro
Barruko trenkada bat kentzea	205,60 euro
Nitxoaren leihoa edo beiratea kentzea, Salbatzailearen hilerrian	57,50 euro
Nitxoaren fatxadako apala edo alboetako xaflak kentzea, Salbatzailearen hilerrian, bakoitza	15,80 euro
Zuhaixka edo heskaia inaustea, hilobi edo panteoiaren ondoko sailetik	57,50 euro
Harrizko materiala kentzea eta hilobiaren saila birmoldatzea, metro lineal bakoitzeko:	57,50 euro
Burdin sarea kentzea edo jartzea, Santa Isabel hilerriko panteoian	115,20 euro
Zuhaitza edo zuhaixka inaustea:	
- 10 cm-ko diametroa arte	43,40 euro
- 10 cm-tik 20 cm-ra arteko diametroa	51,80 euro

- 20 cm-tik 30 cm-ra arteko diametroa - 30 cm-tik 50 cm-ra arteko diametroa	64,40 euro 80,00 euro
Tokoi murrizketa	205,60 euro
Hilobia presiozko urez garbitzea, Salbatzailearen hilerrian	112,90 euro
Junturak lotzea, hileta-zerbitzu bati ez dagokionean.	28,30 euro

## **BIGARREN TARIFA**

Hilerrriak zaindu, mantendu eta garbitze zerbitzuengatik, kopuru hauek eskatuko zaizkie ehorzketa-eskubidearen titularrei:

- Nitxoak.....10,90 euro
- Eraikitako hilobiak.....42,40 euro
- Kolunbarioak ..... 6,30 euro
- 1. hobiko panteoia, azaleran .....40,80 euro
- Gainerako hilobi-eraikinak, azaleraren arabera ..... 7,56 euro/m2

Tasa horiek urtekoak, banatu ezinak eta murriztu ezinak dira, eta dena delako ehorzketa eskubidea eman den urtearen hurrengoaren lehenengo egunetik sortuko dira. Titulartasun aldaketek hurrengo zergaldian izango dituzte ondorioak.

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Zerga-egitatzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra.

## **VI. KUDEAKETA**

### **6. artikulua**

Zergapeko subjektu pasiboari zerga-zorra jakinarazten zaionean egin beharko da ordainketa, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerara lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean finkatutako epeen arabera.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrerara batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**6.13 AZOKEN, INGURUMENAREN ETA OSASUNGARRITASUNAREN ALORREKO IKUSKAPENAREKIN, LABORATEGIAREKIN ETA ANALISI KIMIKO ETA ANTZEKOekin ZERIKUSIA DUTEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

## **I. FUNTSA ETA IZAERA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Azoken, ingurumenaren eta osasungarritasunaren alorreko ikuskapenarekin, laborategiarekin eta analisi kimiko eta antzekoekin zerikusia duten zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **2. artikulua**

Udalak adierazten diren administrazio jarduerak egitea izango da tasaren zerga-egitatea.

## **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

### **3. artikulua**

1. Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztelarik nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen direlarik.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

## **IV. TARIFAK**

### **4. artikulua**

Tarifa hauek aplikatuko dira, zerbitzuen arabera:

## **1. Laginak prestatzea**

### **1.1. Oinarrizko metodoak**

1.1.1.	Dekantatzea.....	7,28
1.1.2.	Lehortzea nahiz mineralizatzea.....	14,57
1.1.3.	Destilatzea.....	14,57
1.1.4.	Digeritzea.....	14,57
1.1.5.	Analisi kimikoen diluzioak.....	7,28
1.1.6.	Janarien diluzioak, mikrobiologiarako.....	14,57
1.1.7.	Erauztea.....	14,57
1.1.8.	Iragaztea.....	7,28
1.1.9.	Lixibatzea.....	60,71
1.1.10.	Neutralizatzea.....	7,28
1.1.11.	Egonkortzea.....	7,28

## **2. Teknika analitikoak**

### **2.1. Zuzeneko analisiak, tresna soilarekin**

2.1.1.	Potentziometria.....	14,57
2.1.2.	Turbidimetria.....	14,57
2.1.3.	Konduktimetria.....	14,57
2.1.4.	Bolumetria.....	14,57
2.1.5.	Bolumetria, elektrodo selektiboekin.....	24,28
2.1.6.	Grabimetria.....	25,50
2.1.7.	Errefraktometria.....	14,57
2.1.8.	Dentsitometria.....	12,14

### **2.2. Teknika espektrofotometrikoen bidezko analisiak**

2.2.1.	VIS-UV espektrofotometria.....	30,35
2.2.2.	ICP emisioen espektrofotometriak.....	206,40

### **2.3. Teknika espektrofotometrikoen bidezko analisiak**

2.3.1.	Gasen kromatografia, erauzte prozesurik gabe.....	115,34
2.3.2.	Gasen kromatografia, erauzte nahiz deribatizazio prozesuarekin.....	163,91
2.3.3.	Bereizmen handiko kromatografia likidoa, erauzte prozesurik gabe.....	224,62
2.3.4.	Bereizmen handiko kromatografia likidoa, erauzte nahiz deribatizazio prozesuarekin.....	261,04
2.3.5.	Kromatografia ionikoa, erauzte prozesurik gabe.....	139,63
2.3.6.	Kromatografia ionikoa, erauzte prozesuarekin.....	182,12
2.3.7.	Gasen kromatografia / masen espektrometria, 1-10 analito.....	242,83
2.3.8.	1-10 analitoko multzo osagarri bakoitzeko.....	121,41

### **2.4. Analizatzaile automatikoaren bidez zehaztea**

2.4.1.	Gutzizko karbono organikoa (TOC).....	151,77
2.4.2.	Gutzizko nitrogeno organikoa (NT).....	151,77

## **3. Ingurumen analisi fisiko-kimikoak**

### **3.1. Tresnarik gabeko tekniken bidezko analisiak**

3.1.1.	Olio eta koipeak.....	40,07
3.1.2.	Amoniakoa (kualitatiboa).....	14,57
3.1.3.	Amoniakoa (kuantitatiboa).....	26,71

3.1.4.	Bikarbonatoak .....	26,71
3.1.5.	Karbonatoak .....	26,71
3.1.6.	Kloro askea eta guztira .....	9,71
3.1.7.	Kloruroak .....	26,71
3.1.8.	DBO .....	53,42
3.1.9.	Detergenteak .....	53,42
3.1.10.	Gogortasuna .....	26,71
3.1.11.	Materia organikoa .....	23,07
3.1.12.	Nitratoak .....	26,71
3.1.13.	Nitritoak .....	26,71
3.1.14.	Solido esekiak .....	26,71
3.1.15.	Jalki daitezkeen solidoak .....	9,71
3.1.16.	Sulfatoak .....	26,71
<b>3.2. Analisisirako tresna-jokoen bidez zehaztea</b>		
3.2.1.	DQO .....	46,14
3.2.2.	Fenolak .....	43,71
3.2.3.	Zianuroak .....	64,35
3.2.4.	Fosforoa eta fosfatoak .....	55,85
<b>3.3. Bestelako teknikak</b>		
3.3.1.	Ekotoxikotasuna .....	230,69
<b>4. Elikagaien analisi fisiko-kimikoak</b>		
<b>4.1. Elikagaiak, oro har</b>		
4.1.1.	Sulfito kopurua zehaztea .....	43,71
4.1.2.	Kloruroak zehaztea .....	38,85
4.1.3.	Elikagaietako kontserbagarriak zehaztea, HPLC bidez: bentzoikoa, sorbikoa, m-paraben, e-paraben, p-paraben eta b-paraben .....	261,04
4.1.4.	Nitrato eta nitritoak zehaztea, HPLC bidez .....	261,04
4.1.5.	Nitritoak zehaztea, kolorimetria bidez .....	44,92
4.1.6.	Proteinak zehaztea .....	43,71
<b>4.2. Olio eta koipeak</b>		
4.2.1.	Oliba-olioaren azidotasuna zehaztea .....	14,57
4.2.2.	Peroxidoen indizea zehaztea .....	14,57
4.2.3.	s errefrakzio indizea zehaztea .....	14,57
4.2.4.	K232, K270 eta delta K zehaztea .....	30,35
4.2.5.	Gantz-azidoak zehaztea, gas kromatografiaren bidez: landare-olioak .....	115,34
4.2.6.	Gantz-azidoak zehaztea, gas kromatografiaren bidez: esnekiak .....	163,91
4.2.7.	Gantz-azidoak zehaztea, gas kromatografiaren bidez: esnekiez bestelako elikagaiak .....	163,91
<b>4.3. Edariak</b>		
4.3.1.	Anhidrido sulfuroso askea, konbinatua eta guztizkoa .....	43,71
4.3.2.	Alkohol gradua zehaztea .....	29,14
4.3.3.	Sakarina eta azido bentzoikoa zehaztea .....	224,62
4.3.4.	Azido zitrikoa zehaztea .....	224,62
4.3.5.	Esterrak zehaztea .....	44,92

4.3.6.	Likoreen azidotasun lurrunkorra zehaztea .....	24,28
4.3.7.	Ardoen guztizko azidotasuna zehaztea.....	24,28
<b>4.4. Haragia eta haragikiak</b>		
4.4.1.	Almidoi kopurua zehaztea .....	44,92
4.4.2.	Almidoiaren kalitatea zehaztea .....	14,57
4.4.3.	Sulfito kopurua zehaztea .....	14,57
4.4.4.	Errautsak zehaztea .....	25,50
4.4.5.	Fosforoa zehaztea .....	44,92
4.4.6.	Koipea zehaztea .....	54,64
4.4.7.	Hidroxiprolinak zehaztea.....	54,64
4.4.8.	Hezetasuna zehaztea .....	25,50
<b>4.5. Esnea eta esnekiak</b>		
4.5.1.	Fosfatas-a-jardueraren kalitatea zehaztea, esne pasteurizatueta.....	7,28
4.5.2.	Esnearen azidotasuna zehaztea .....	24,28
4.5.3.	Esne-hautsaren azidotasuna zehaztea .....	24,28
4.5.4.	Azukreak zehaztea, HPLC bidez .....	261,04
4.5.5.	Esnearen kaseina zehaztea .....	43,71
4.5.6.	Esnearen errautsak zehaztea.....	25,50
4.5.7.	Esnekien errautsak zehaztea .....	40,07
4.5.8.	Gaztaren kloruroak zehaztea .....	38,85
4.5.9.	Gaztaren fosforoa zehaztea.....	44,92
4.5.10.	Esne-hautsaren hezetasuna zehaztea .....	25,50
4.5.11.	Esnearen dentsitatea zehaztea .....	12,14
4.5.12.	Esnearen etanolarekiko (ehuneko 68) egonkortasuna zehaztea .....	7,28
4.5.13.	Esnekien koipea zehaztea .....	38,85
4.5.14.	Esne-hautsaren gai koipetsua zehaztea .....	64,35
4.5.15.	Esnearen laktosa zehaztea .....	29,14
4.5.16.	Esnearen estraktu lehorra zehaztea .....	25,50
4.5.17.	Esnekien estraktu lehorra zehaztea .....	25,50
4.5.18.	Gazten estraktu lehorra zehaztea.....	25,50
<b>4.6. Eztia</b>		
4.6.1.	Hezetasuna zehaztea .....	18,21
4.6.2.	Azidotasun askea zehaztea .....	24,28
4.6.3.	Jarduera diastasikoa zehaztea .....	52,21
4.6.4.	Elektrizitate-eroankortasuna zehaztea .....	14,57
4.6.5.	Eztiaren azukreak zehaztea, HPLC bidez .....	224,62
4.6.6.	Errautsak zehaztea .....	25,50
<b>4.7. Arrantza-produktuak</b>		
4.7.1.	Krustazeoen azido borikoa kualitatiboki zehaztea .....	14,57
4.7.2.	Krustazeoen azido borikoa in situ ikertzea.....	14,57
4.7.3.	Arrantza-produktuen NBVT zehaztea .....	53,42
<b>4.8. Substantziak zehaztea, berariazko entzima-jokoan bidez</b>		
4.8.1.	Glutena zehaztea, jakietan, ELISA bidez .....	72,85
4.8.2.	PSP toxina zehaztea, moluskuetan, ELISA bidez .....	72,85

4.8.3.	Histamina zehaztea, arrainetan, ELISA bidez.....	72,85
4.8.4.	Behi-kaseina zehaztea, ardi-gaztetan, ELISA bidez .....	72,85
4.8.5.	Arrautza-proteina zehaztea, jakietan, ELISA bidez .....	72,85
4.8.6.	Zehazte mota bakoitzeko laginen kopurua 25etik gorakoa bada, ehuneko 30 murriztuko da entseguen kostua.	

## **5. Mikrobiologi analisiak**

### **5.1. Janarien mikrobiologi analisiak**

5.1.1.	Aerobio suspergarriak zenbatzea .....	19,43
5.1.2.	Koliformeak zenbatzea, guztira.....	19,43
5.1.3.	Enterobakterioak zenbatzea, guztira .....	19,43
5.1.4.	Estreptokoko fekalak zenbatzea.....	19,43
5.1.5.	Lizun eta legamiak zenbatzea.....	19,43
5.1.6.	<i>Bacillus cereus</i> zenbatzea .....	42,49
5.1.7.	<i>Clostridium perfringens</i> zenbatzea .....	42,49
5.1.8.	<i>Escherichia coli B glucuronidasa</i> + zenbatzea .....	31,57
5.1.9.	<i>Listeria monocytogenes</i> zenbatzea .....	37,64
5.1.10.	<i>Listeria monocytogenes</i> detektatzea.....	42,49
5.1.11.	<i>Salmonella</i> spp detektatzea.....	42,49
5.1.12.	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea .....	42,49
5.1.13.	Antibiotiko-kalitatea zehaztea.....	24,28

### **5.2. Uraren mikrobiologi analisiak**

5.2.1.	Aerobioak zenbatzea, 22 <sup>o</sup> tara .....	19,43
5.2.2.	<i>Clostridium perfringens</i> zenbatzea, mintz-iragazpenaren bidez .....	37,64
5.2.3.	<i>Escherichia coli</i> eta koliformeak zenbatzea, mintz-iragazpenaren bidez, inguru kromogenikoan.....	24,28
5.2.4.	<i>Pseudomonas aeruginosa</i> zenbatzea, mintz-iragazpenaren bidez .....	37,64
5.2.5.	Estreptokoko fekalak zenbatzea, mintz-iragazpenaren bidez .....	15,78
5.2.6.	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea, mintz-iragazpenaren bidez.....	37,64
5.2.7.	<i>Legionella pneumophila</i> zenbatzea .....	78,92
5.2.8.	<i>Legionella pneumophila</i> identifikatzea.....	24,28

### **5.3. Ingurumenaren mikrobiologi analisiak**

5.3.1.	Azaleretako aerobioak zenbatzea .....	24,28
5.3.2.	Azaleretako enterobakterioak zenbatzea .....	24,28

### **5.4. Bestelako analisi teknikak**

5.4.1.	Mikrobiologi analisia, PCR bidez, denbora errealean .....	84,99
--------	---	-------

## **6. Analisi multzoak: ura**

### **6.1. Isurtze kanona**

6.1.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	784,03
	Metalak zehaztea: aluminioa, artsenikoa, baria, beruna, boroa, burdina, eztainua, kadmioa, kobalto, kobrea, kromoa, kromo hexabalentea, manganesoa, molibdenoa, nikela, selenioa, zinka.	
	Fosforoa zehaztea, guztira.	
	Sulfatoen analisia, ioi kromatografiaren bidez	
	Olio eta koipeak zehaztea, pentanoarekin eta grabimetriaz erauziz	
	Fluoruroak zehaztea, ioi kromatografiaren bidez	
	Fosfatoak zehaztea, lagina iragazi ondoren	

Oxigeno eskari kimikoa zehaztea  
 Gai esekiak zehaztea  
 Gai inhibitzaileak zehaztea (EC50-tan adierazita)  
 Erraz aska daitezkeen zianuroak zehaztea  
 Kloruroak zehaztea  
 pH-a zehaztea  
 Nitrogenoa zehaztea, guztira, TOC analizagailuarekin

## **6.2. Ibaietako ura**

6.2.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	658,37
	Metalak zehaztea: beruna, burdina, kadmioa, kromoa, kobrea, magnesioa, nikela, zinka	
	Uhertasuna zehaztea	
	Oxigeno eskari biokimikoa zehaztea	
	Oxigeno eskari kimikoa zehaztea	
	Nitrogenoa zehaztea, guztira (Kjeldahl)	
	Nitritoak zehaztea, kolorimetria bidez	
	Gai esekiak zehaztea	
	Gai inhibitzaileak zehaztea (GL20-tan adierazita)	
	Amonioa zehaztea	
	Kloruroak zehaztea	
	Eroankortasuna zehaztea	
	Fosfatoak zehaztea	
	Fosforoa zehaztea, guztira.	
	pH-a zehaztea	

## **6.3. Edateko ona den jakiteko entseguak**

6.3.1.	Gutxienekoa.....	150,55
	Amonioaren kalitatea detektatzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	Anioiak neurtzea (nitratoak, nitritoak, sulfatoak, fluoruroak), ioi kromatografiaren bidez	
	Koliformeak zenbatzea	
	<i>Escherichia coli</i> zenbatzea	
6.3.2.	Arrunta.....	230,69
	Materia organikoa	
	Uhertasuna	
	Amonioaren kalitatea detektatzea	
	pH-a neurtzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	Anioiak neurtzea (nitratoak, nitritoak, sulfatoak, fluoruroak), ioi kromatografiaren bidez	
	Heste-enterokokoak zenbatzea	
	Koliformeak zenbatzea	
	<i>Escherichia coli</i> zenbatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, 21 eta 37 °C-tan	
6.3.3.	Osoa .....	412,81
	Materia organikoa	
	Uhertasuna	
	Amonioaren kalitatea detektatzea	
	pH-a neurtzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	Anioiak neurtzea (nitratoak, nitritoak, sulfatoak, fluoruroak), ioi kromatografiaren bidez	
	Metalak zehaztea: aluminioa, antimonioa, artsenikoa, beruna, burdina, kadmioa, kobrea, kromoa, manganesoa, merkurioa, nikela, selenioa, sodioa, zinka	

Heste-enterokokoak zenbatzea  
 Koliformeak zenbatzea  
*Escherichia coli* zenbatzea  
 Mikroorganismoak zenbatzea, 21 eta 37 °C-tan  
*Clostridium perfringens* eta haren esporoak zenbatzea

#### **6.4. Igerilekuetako ura**

6.4.1.	Oinarrizko analisia .....	167,55
	Materia organikoa	
	Uhertasuna	
	Amonioaren kalitatea detektatzea	
	pH-a neurtzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	Heste-enterokokoak detektatu eta zerrendatzea	
	Estafilokokoak detektatu eta zerrendatzea	
	Estafilokoko koagulasa positiboak detektatu eta zerrendatzea	
	<i>Pseudomonas aeruginosa</i> detektatu eta zenbatzea	
	Koliformeak zenbatzea	
	<i>Escherichia coli</i> zenbatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, 37 °C-tan	
6.4.2.	Osoa .....	321,75
	Materia organikoa	
	Uhertasuna	
	Amonioaren kalitatea detektatzea	
	pH-a neurtzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	Aluminioa zehaztea	
	Kobrea zehaztea	
	Burdina zehaztea	
	Beruna zehaztea	
	Heste-enterokokoak detektatu eta zerrendatzea	
	Estafilokokoak detektatu eta zerrendatzea	
	Estafilokoko koagulasa positiboak detektatu eta zerrendatzea	
	<i>Pseudomonas aeruginosa</i> detektatu eta zenbatzea	
	Koliformeak eta <i>Escherichia coli</i> zenbatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, 37 °C-tan	

#### **6.5. Legionellaren kontrola**

6.5.1.	Analisisa .....	128,70
	pH-a neurtzea	
	Eroankortasuna neurtzea	
	<i>Legionella</i> spp detektatu eta <i>Legionella pneumophila</i> identifikatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, 22 °C-tan	
	Mikroorganismoak zenbatzea, 37 °C-tan	
	<i>Legionella pneumophila</i> zenbatzea	
	<i>Legionella</i> spp. zenbatzea	

### **7. Analisi multzoak: janariak**

#### **7.1. Olioia**

7.1.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	142,05
	Azidotasun-gradua	
	Peroxidoen indizea zehaztea	
	Olioaren errefrakzio indizea, 20 °C-tan	
	K232 eta K270 zehaztea, olioetan	
	Azido koipetsuen profila, olioetan	

## **7.2. Haragi-produktuak**

7.2.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	467,44
	Sulfito-kalitatea detektatzea	
	Almidoi-kalitatea detektatzea	
	Errautsak zehaztea	
	Kloruroak zehaztea	
	Hidroxiprolina zehaztea	
	Hezetasuna zehaztea	
	Karbono hidratoak zehaztea	
	Gai koipetsua zehaztea	
	Nitratoak zehaztea, HPLC bidez	
	Nitritoak zehaztea	
	Proteinak zehaztea	
	Fosforoa zehaztea	

## **7.3. Eztia**

7.3.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	269,54
	Hezetasuna zehaztea	
	Azidotasuna zehaztea	
	Eroankortasuna zehaztea	
	Jarduera diastasikoa neurtzea	
	Errautsak zehaztea	
	Eztiaren azukreak neurtzea, HPLC bidez	
7.3.2.	Mikrobiologi analisia.....	145,70
	Salmonella spp detektatzea	
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	Lizun eta legamiak zenbatzea, aw < 0,95 duten janarietan	
	<i>Clostridium perfringens</i> zenbatzea, plakan	
	Enterobakterioak zenbatzea, guztira, plakan, °C 37-tan	
	Antibiotiko-kalitatea detektatzea	

## **7.4. Plater prestatuak**

7.4.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	162,69
	Koipea zehaztea	
	Proteinak zehaztea	
	Errautsak neurtzea	
	Karbono hidratoak zehaztea	
	Hezetasuna zehaztea	
	Kloruroak zehaztea	
7.4.2.	Mikrobiologi analisia. Tratamendu termikorik gabeko platerak, edo tratamendu termikoa izan arren osagai gordinak dituztenak.....	166,34
	Salmonella spp detektatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	Koliformeak zenbatzea, plakan, 37 °C-tan	
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	<i>Listeria monocytogenesa</i> zenbatzea	
	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea	
7.4.3.	Tratamendu termiko osoa duten platerak.....	169,98
	Salmonella spp detektatzea	
	<i>Listeria monocytogenesa</i> detektatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	Koliformeak zenbatzea, plakan, 37 °C-tan	
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea	

7.4.4.	Esterilizazio tratamendua izan duten janariak.....	42,49
	<i>Clostridium perfringens</i> zenbatzea, plakan	
7.4.5.	Janari ontziratutak, barazki gordinekin eginak .....	109,27
	<i>Salmonella</i> spp detektatzea	
	<i>Listeria monocytogenesa</i> zenbatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
<b>7.5. Gaztak</b>		
7.5.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	139,63
	Elikagaien proteinak zehaztea	
	Janarien ph-a neurtzea	
	Gaztaren koipea zehaztea	
	Gaztaren estraktu lehorra	
	Errautsak neurtzea	
	Janarien kloruroak zehaztea	
7.5.2.	Mikrobiologi analisia .....	155,41
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	<i>Salmonella</i> spp detektatzea	
	Enterobakterioak zenbatzea, plakan, guztira, 37 °C-tan	
	<i>Listeria monocytogenesa</i> zenbatzea	
	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea	
<b>7.6. Esne pasteurizatuak eta iraunaldi luzekoak</b>		
7.6.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	168,77
	Esnearen dentsitatea	
	Errautsak zehaztea	
	Koipea zehaztea	
	Azidotasuna zehaztea	
	Laktosa zehaztea	
	Proteinak zehaztea	
	Estraktu lehorra zehaztea	
	Estraktu lehor iharra zehaztea	
7.6.2.	Mikrobiologi analisia .....	142,05
	<i>Escherichia coli</i> $\beta$ -glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	<i>Salmonella</i> spp detektatzea	
	Enterobakterioak zenbatzea, plakan, guztira, 37 °C-tan	
	<i>Listeria monocytogenes</i> zenbatzea	
	Antibiotiko-kalitatea detektatzea	
<b>7.7. Koipe eta olioak</b>		
7.7.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	158,45
	Oliba-olioaren azidotasuna zehaztea	
	Olio eta koipeen peroxido indizea zehaztea	
	Koipe eta olioaren errefrakzio indizea zehaztea	
	Koipe eta olioaren K232, K270 eta delta K zehaztea	
	Gantz-azidoak zehaztea, gas kromatografiaren bidez	
<b>7.8. Izoziak</b>		
7.8.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	287,75
	Proteinak zehaztea	
	Estraktu lehor iharra zehaztea	

	Estraktu lehorra	
	Errautsak neurtzea	
	Koipea zehaztea	
	Azukreak neurtzea, HPLC bidez	
7.8.2.	Mikrobiologi analisia .....	142,05
	<i>Salmonella spp</i> detektatzea	
	<i>Listeria monocytogenes</i> detektatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	Koliformeak zenbatzea, plakan	
	<i>Escherichia coli</i> β-glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	
	Estafilokoko koagulasa positiboak zenbatzea	

## **7.9. Jogurta**

7.9.1.	Analisi fisiko-kimikoa.....	698,13
	Proteinak zehaztea	
	Azesulfam-K eta sakarina zehaztea	
	Aspartama zehaztea, HPLC bidez	
	pH-a zehaztea	
	Estraktu lehorra zehaztea	
	Elikagaietako kontserbagarriak zehaztea, HPLC bidez	
	Azukreak neurtzea, HPLC bidez	
	Koipea zehaztea	
	Errautsak zehaztea	
7.9.2.	Mikrobiologi analisia .....	112,92
	<i>Salmonella spp</i> detektatzea	
	<i>Listeria monocytogenes</i> detektatzea	
	Mikroorganismoak zenbatzea, plakan, 30 °C-tan	
	<i>Escherichia coli</i> β-glukuronidasa positiboa zenbatzea, plakan	

## **8. Hondakin solidoak**

### **8.1. Zabortegei zerbitzuaren ordenantza.**

8.1.1.	Hondakin geldoen ezaugarriak zehaztea .....	378,81
8.1.2.	Arriskutsu ez diren hondakinen ezaugarriak zehaztea .....	378,81

## **9. Desinfektatzea, eta intsektuak eta arratoiak hiltzea.**

- a) Intsektuak hiltzea edo desinfektatzea.....135,33 euro
- b) Arratoiak hiltzea: 73,71 euro lehen kilogramoa, eta 15,94 euro hortik gorako kg bakoitzeko

## **10. Higieneari aplikatzekoak diren tresnak ikuskatzea .....50,20 euro.**

(Ikuskatze denbora ordubetetik gorakoa bada, ordu edo ordu-zati gehigarri bakoitzeko 35,10 euro gehitu da)

## **11. Osasun publikorako arriskutsuak diren produktuak suntsitzea: .....59,63 euro.**

(Kargatu, garraiatu eta suntsitzen ordubetetik gora ematen delarik, ordu edo ordu-zati gehigarri bakoitzeko 39,07 euro gehitu da)

## **12. Kasu hauetan adierazitako eskubideen bikoitza sortuko da:**

- a) Industri edo ikerketa xedeak dituzten analisi eta analisi-txosten bereziak direnean.

- b) Bigarren aldiko analisiak direnean, lehenengoan emandakoekin bat baldin badatoz emaitzak.
- 13.** Tarifa honetan zerrendatu ez diren analisiak —produktuen parametroak zehazteko egiten direnak— analogiaz finkatuko dira, eta likidazio-oinarriak eta zordunketa justifikatzen duten datuak helaraziko zaizkio zergapekoari.
- 14. Zarata espektro bat zehaztea:**.....297,71 euro.
- 15. Erreberberazio denbora zehaztea:** .....743,95 euro.
- 16. Isolamendu akustikoa zehaztea**
- a) ISO-140ren arabera: .....967,14 euro.
- b) ASTM E 597-711ren arabera:.....246,45 euro.
- 17. Animalien babesa:**
1. Animaliak Babesteko Zentroan norberaren borondatez animaliak uztea:
    - a) Txakurrak uztea (bakoitza): .....185,51 euro  
Katuak uztea (bakoitza):..... 92,76 euro
    - b) Sabelaldi bereko txakurkumeak uztea (bakoitza): ..... 46,98 euro  
Sabelaldi bereko katakumeak uztea (bakoitza): ..... 23,51 euro
  2. Animaliak bide publikotik hartzea: .....107,00 euro.
  3. Kaleko animaliak Animaliak Babesteko Zentroan egotea, beren jabeek berreskuratu zain (egun bakoitzeko): ..... 22,91 euro.
  4. Arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzeko Udalaren administrazio-lizentzia ematea eta/edo hura berritzea:..... 79,42 euro.
  5. Zoonosi-ebaluazioa Animaliak Babesteko Zentroan: ..... 58,43 euro.
  6. Arriskutsu izan daitezkeen txakurren erregistroko inskripzioaren egiaztagiriaren kopia ematea egiaztagiriaren kopia ematea: ..... 2,16 euro
  7. Arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren egiaztagiriaren kopia ematea: ..... 2,16 euro
  8. Animalia-izaeraren arriskuen ebaluazioa..... 94,87 euro
  9. Espazio eta/edo bide publikoan bakarrik eta identifikaziorik gabeko animaliak —titularra izan arren— mikrotxip bidez identifikatzea, eta EAEko Etxeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorra (AIEO) inskribatzea:..... 40,00 euro
  10. Titularra izan arren, espazio eta/edo bide publikoetan bakarrik aurkitu eta Animaliak Babesteko Zentroak jaso diren txakurrei amorraren aurkako txertoa jartzea, baldin eta lehenagotik txerto hori jarrita ez badute: ..... 50,00euro

Tasa horiek pilatu egin daitezke, hau da, zerbitzu bat baino gehiago eskatuz gero, guztiak ordaindu beharko dira.

Tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko da interesduna —hala eskatzen duelarik— baldin eta hilabeteko epean —animalia Gasteizko Animaliak Babesteko Zentrotik hartu eta berarekin eraman zuen egunetik— haren portaera-arazoengatik —beste animalia batzuei edo pertsoneri eraso egiten dielako— hura atzera bertan utzi beharra egokitzen bazaio eta etologo, txakur-trebatzaile edo albaiari baten txostenaren bitartez hala egiaztatzen badu.

Animalia uzteari zein animaliak bide publikotik hartzeari eta Animaliak Babesteko Zentroan egoteari dagokion tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira ahuldade bereziko egoeran dauden jabeak, egoera horrek animalien tratuari, higienerari eta zaintzari dagokienez jaso beharreko gutxieneko arreta bermatzea eragozten dienean. Gizarte zerbitzuen txosten baten bidez egiaztatutako da ahultasun-egoera, eta Osasun Publikoaren arloko udal zerbitzu teknikoek erabakiko dute animalia Zentroan hartzea egokia den, Animaliak Babesteko Zentroko uneko zirkunstantziak kontuan hartuta.

**Oharra:** Administrazioaren esku-hartzea ofizioz egiten bada —eta indarrean dauden xedapen eta ordenantzak urratzearen ondorio bada—, zerbitzua eragiten duen pertsona edo erakundeari galdutako zaizkio tasak.

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Zerga-egitatzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra.

## **VI. KUDEAKETA**

### **6. artikulua**

**Zerbitzu kudeatzaileak** egiaztatzen dituen datuak kontuan harturik egingo dituzte likidazioak zerga-kudeaketarako zerbitzuek, eta interesdunei jakinaraziko, Diru-bilketa Araudi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan ordain ditzaten.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**6.14 TXOSTENAK, ATESTATU, ARGAZKI ERREPRODUKZIOAK, FOTOKOPIAK, KARTOGRAFIA PLANOAK, TOPOGRAFIA DATUAK ETA ANTZEKOAK EMATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Txostenak, atestatu kopiak, argazki erreprodukzioak, fotokopiak, kartografia planoak, topografia datuak eta antzekoak emateagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

Interesdunak hala eskatzen duelarik ematen diren honako agiria hauek izango dira tasa honen objektu: sute eta ezbeharrei buruzko txostenak, poliziaren trafiko- eta zirkulazio-istripu eta ezbeharren inguruko atestatuak, garraio berezietarako baimenak, kirol-probak, txirrindularitza-saioak eta antzekoak baimentzeko txostenak, jendearentzat zabalik dauden establezimenduen txostenak, argazki-erreprodukzioak, fotokopiak, kartografia planoak, kartografia sorten euskarri magnetikoak eta topografia erreferentzien udal sareko erpinak suntsitu edo baliogabetzea.

**III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

**3. artikulua**

Zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak egongo dira ordaintzera behartuta; ez da zerbitzurik emango aurretiaz finkatutako tasa ordaintzen ez bada.

Zerbitzua eskatzearekin batera sortzen da ordaintzeko obligazioa.

**IV. TARIFAK**

**4. artikulua**

**TARIFAK**

**Lehen tarifa:**

- a) Udaltzaingoaren eta suhiltzaileen interbentzio-fitxak jaulkitzea, ale bakoitzeko: .....27,93 euro.
- b) Trafiko-istripuagatiko atestatu sinplifikatuak igortzea, ale bakoitzeko: .....49,47 euro.

- c) Sute, istripu, adituen balioespen eta antzekoei buruzko txosten teknikoak jaulkitzea, ale bakoitzeko .....111,69 euro.
- d) Sute, istripu, adituen balioespen eta antzekoei buruzko txosten teknikoak jaulkitzea, ale bakoitzeko ..... 45,65 euro.
- e) Kirol probak, txirringularitza saioak eta antzekoak baimentzeko txostenak egitea, ale bakoitzeko .....111,69 euro.
- f) Arlo zibileko gaiekin lotuta egiaztapenak egitea eta polizia txostena ematea, partikularrek hala eskatuta  
Jendearentzat zabalik dagoen establezimenduaren egiaztagiria,  
Ingurumeneko dosierak, Burutzari zuzendutako txostenak: ..... 49,47 euro.
- g) 4. kategoriako arma-baimenak ematea, armei buruzko legeen arabera: ..... 49,47 euro.

Besterik gabe udal artxiboetan lehendik dagoen txosten edo agiri baten kopia eskatzen delarik, artikuluko honetako bigarren ataletik seigarrenera bitartean jasota dauden tarifak aplikatuko dira, eskatutako agiriaren izaera aintzat harturik.

### **Bigarren tarifa:**

#### **1. Euskarri digitaleko kartografia.**

Hiri Proiekturako egindako topometria, informatika eta fotogrametria lanetatik sortutako hiri-lurzoruak, DWG formatuan, beren kodifikazio, sinbologia eta prototipoarekin .....718,88 euro/Ha

Geruza kodifikatuak, udal kartografiatik sortuak, 1:500 eskalan (Hiri Proiektua) ..... 3,41 euro/geruza/Ha

Geruza kodifikatuak, udal kartografiatik sortuak, 1:2.000 eskalan ..... 2,83 euro/geruza/50 Ha

Kaleen izenen testu geoerreferentziadunen geruzak, 1:10.000 eskalan txertatzeko prestatuak .....273,81 euro

Atari zenbakien testu geoerreferentziadunen geruzak, 1:10.000 eskalan txertatzeko prestatuak .....273,81 euro

Kaleen planoak, DWG formatuan ..... 56,84 euro

#### **2. Paperezko euskarriko kartografia.**

Hiriko nahiz nekazaritza eremuko lurzorua, Geografi Datuen Base Informatikoan bildutako datuetatik ploteatutako jatorrizko opakoetan

1:500 eskala .....68,49 euro/orria

1:1.000 eskala (1:500eko lauk osatua).....205,39 euro/orria

1:2.000 eskala.....68,49 euro/orria

1:5.000 eskala (1:2.000ko lauk osatua).....136,92 euro/orria

1:10.000 eskala (1:2.000ko hamaseik osatua) .....	136,92 euro/orria
1:20.000 eskala (1:2.000ko hirurogeita lauk osatua).....	136,92 euro/orria
Kartografiaren fotokopia edo inprimagailuko orria Din A4 neurrian, edozein eskalatan.....	14,36 euro/alea
Kartografiaren fotokopia edo inprimagailuko orria Din A3 neurrian, edozein eskalatan.....	28,78 euro/alea
Kartografia historikoa (1950. urtea baino lehenagokoa). Udal artxiboan dauden jatorrizkoak. Duela gutxiko digitalizaziotik ploteatua .....	17,05 euro/alea
Hiriko kaleen planoak, 1:10.000 eskalan, eta udalerrarena, 1:30.000 eskalan. Inprentako alea. Edozein urtekoa.....	2,88 euro/alea
RUR erpina berriro jartzea .....	1.250,10 euro/alea
Auzo, barruti eta sekzioen planoak.....	28,78 euro/alea

**Hirugarren tarifa: argazki-erreprodukzioak edo digitalak.**

Laborategikoak

Positiboak	Zuri-beltzean
9 x 12	3,17 euro
10 x 15	4,09 euro
13 x 18	5,63 euro
18 x 24	9,95 euro
24 x 30	13,89 euro
30 x 40	20,01 euro
40 x 50	34,61 euro

Imprimagailua (argazkigintzaren kalitatea)

Zuri beltzeko positiboak / Colorez

DIN A6 (paperaren neurria 10,5x14,8 zm)	1,22 euro
DIN A5 (paperaren neurria 14,8 x 21 zm)	2,12 euro
DIN A4 (paperaren neurria 21x29,7 zm)	3,99 euro
DIN A3 (paperaren neurria 29,7x42 zm)	5,28 euro

## Digitalak

### JPEG 7.000x4.800 píxeletako artxiboa (gutxi gorabehera)

CDa	1,52 euro
Irudi bakoitzeko	0,31 euro

Gehienez ere, 3 hilean behin ematen diren kopiak, erabilera partikularretarako:

Kopia digitalak: 40 gehienez.

Kopiak paperean: 20 gehienez.

### Laugarren tarifa: fotokopiak eta udal intraneteko inprimakiak.

<u>Tamaina</u>	<u>Normala</u>	<u>Txikitua</u>	<u>Handitua</u>
Din A4.....	0,20 euro .....	0,24 euro .....	0,24 euro
Din A3.....	0,31 euro .....		0,31 euro
Din A3 baino handiagoa.....		1,52 euro/m <sup>2</sup>	

### Bosgarren tarifa: jatorrizko kopiak, egiaztatuak eta konpultsatuak.

Kopia bakoitzeko .....	6,19 euro
Dokumentuaren orrialde gehigarri bakoitzeko .....	0,60 euro
Kontabilitate liburuen, akten eta ondorio berberetarako aurkezten den beste edozein agiriren zuzemenengatik, agiri bakoitzeko .....	6,19 euro
Erregistro eta errolda ofizialetan izena ematea .....	6,19 euro
Ahalordeak eta legitimazioa egiaztatzeako agiriak askiestea .....	6,19 euro
Sinadurak legeztatzea .....	6,19 euro

### Seigarren tarifa: mikrofilm-fotogrametatik ateratako paperezko inprimakiak.

A3 folio bakoitzeko.....	0,19 euro
--------------------------	-----------

Lauki tamainako erreprodukzioetan, formatu errektangeluarraren alderik txikiena joko da eskatutako neurritzat, prezioa zehazteko orduan.

## V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 5. artikulua

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Lehenengo tarifari dagokionez:
  - Administrazio publikoak oro har, erakunde ofizialak eta botere judizialaren organoak: a) eta b) atalak.Administrazio publikoak oro har eta erakunde ofizialak: c) eta d) atalak.
  - Tasa ordaintzetik salbuetsi ahal izango da hiriarentzat interesgarri diren kirol proba eta txirrindularitza saioak antolatzen direlarik, baita onura publikoko izendatuta dauden edo udalaren laguntzaile diren irabazte xederik gabeko fundazio, elkarte eta gainerako erakundeak ere. Halakoetan, inprimatutako, soinuzko nahiz ikusteko publizitatean udalaren babesa aipatzera eta haren logotipoa agertzera behartuta egongo dira onuradunak.
  - Aurreko atalean aurreikusitako tasa-salbuetspena ematekotan, berariaz eskatu beharko dute interesdunek, baimena izapidetzeko beharrezko diren agiriak aurkezteaz batera, eta zinegotzi ordezkariak erabakiko du, ebazpen baten bitartez, egokitzen jotzen duena.
  
- b) Bigarren tarifari dagokionez:
  - Onetsitako irakaskuntza-erakundeak, baldin eta eskabidea, behar bezala justifikatua, ikastetxeko zuzendariak izenpetzen badu.
  - Udalarentzat interesgarri diren ikerketa-lanen arduradunak, lanaren zuzendariak, arrazoiak agertuz, eskabidea egiten duelarik —lana bukatzean Gasteizko Udalaren esku ale bat uzteko konpromisoa agertu beharko du bertan—.

## V. SORTZAPENA

### 6. artikulua

Zerbitzua eskatzen denean sortuko da tasa, eta autolikidazio erregimena baliatuz ordaindu beharko da.

## VI. KUDEAKETA

### 7. artikulua

Zerbitzua ematen hastean egin beharko da ordainketa.

## VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau

Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**6.15 IBILGAILUAK DESINFECTATZEKO UDAL PARKEKO ZERBITZUENGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Ibilgailuak desinfektatzeko udal parkeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

Ibilgailuak desinfektatzeko udal parkeko zerbitzuak erabiltzea izango da tasa honen zerga-egitatea.

**III. SUBJEKTU PASIBOAK**

**3. artikulua**

Zerbitzua eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak egongo dira ordaintzera behartuta, eta zerbitzua ez da emango finkatutako tasa aldeztatik ordaintzen ez bada.

**IV. TARIFAK**

**4. artikulua**

Hauek dira tasa honetan aplikatuko diren tarifak:

**TARIFA**

Ibilgailuak desinfektatzeko udal parkeko zerbitzuak erabiltzen direlarik, honako tasa hauek ordaindu beharko dira:

- Bi ardatzeko garraio-kamioiak (urez garbitu, aparra eman eta desinfektatzea).....30,17 euro.
- Hiru ardatzeko garraio-kamioiak (urez garbitu, aparra eman eta desinfektatzea).....43,82 euro.
- Auto eta furgonetak (desinfektatzea).....27,40 euro.

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

Salbuetsita egongo dira tasa hau ordaintzetik Gasteizko udal administrazioa, horren erakunde autonomoak eta merkataritza sozietate publikoak.

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Zerbitzua eskatzen denean sortuko da tasa ordaintzeko beharra, eta autolikidazio erregimena baliatuz ordaindu beharko da.

## **VII. KUDEAKETA**

### **7. artikulua**

Ez da zerbitzua eskainiko finkatutako tasa aldeztatik ordaintzen ez bada.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **6.16 GASTEIZKO AUTOBUS GELTOKIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

### **I. IZAERA ETA FUNTSA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "GASTEIZKO AUTOBUS GELTOKIKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Gasteizko autobus geltokiko areto eta instalazioetan ematen diren zerbitzuak dira tasa honen zerga-egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

1. Arabako Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, Gasteizko autobus geltokiko zerbitzu eta jardueren onuradun direlarik, baita Gasteizko autobus geltokian abiapuntu-, igaroleku- edo helmuga-geldialdia egiten duten bidaiari-garraio zerbitzuen titularrak ere.
2. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.
3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

### **IV. ZENBATEKOA**

#### **4. artikulua**

1. Zerga-oinarria honela zehaztuko da:
  - Autobusak bidaiariekin —bidaia bukatu edo hastean— sartu edo ateratzeari dagokionez: autobus bakoitza.
  - Txartelak ateratzeari dagokionez: linearen ibilbidea, kilometrotan adierazia.
  - Lineaz kanpoko garraio zerbitzu kolektiboari dagokienez: autobus eta bidariari bakoitzeko.

- Txartelak saltzeko lokalak okupatzeari dagokionez: modulu mota bakoitzeko, hilean.
- Geltokiak arautu eta administratzen dituen fakturazio zerbitzuengatik: fardel bakoitzeko, egunean.
- Kontsigna zerbitzua erabiltzeagatik: okupatutako modulu mota bakoitzeko, egunean.
- Aparkalekuagatik: autobus bakoitza eta egonaldiaren iraupena.
- Gidarien gela erabiltzeari dagokionez: baimendutako gidari bakoitzeko, hilean.
- Stand edo saltokia jartzeagatik: azalera eta hori okupatzen den denbora.
- Nasetan saltokia edo promozio-lekua jartzeagatik, azaleraren arabera, egunean.
- Liburuxkak eta laginak banatzeagatik, standik gabe: egunean.
- Salmenta-makinak: bakoitzeko eta denbora-tarteko.
- Bulegoak aldizka erabiltzea: eguneko.
- Espazio bereziak erabiltzea: espazio motaren arabera, eguneko.
- Geltokiko informazio-pantailetan publizitatea jartzeko, iragarki eta aldi bakoitzeko, ordenantzan finkatzen diren formatu eta denboren arabera

2. Tarifa hauen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak (euroak, BEZ gabe):

**1. epigrafea** Gasteizko autobus geltokiko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tarifen laukia.

#### **A TARIFA:**

**A.1.-** Bidaiariak daramatzen autobus bat sartu edo ateratzeagatik, zerbitzu erregularreko bidaia hasi edo bukatzean, edo bertatik igarotzean, 20 km arteko ibilbideak dituzten lineak: ..... 0,219298 euro

**A.2.-** Bidaiariak daramatzen autobus bat sartu edo ateratzeagatik, zerbitzu erregularreko bidaia hasi edo bukatzean, edo bertatik igarotzean, 20 km-tik 50era bitarteko ibilbideak dituzten lineak: ..... 0,328946 euro

**A.3.-** Bidaiariak daramatzen autobus bat sartu edo ateratzeagatik, zerbitzu erregularreko bidaia hasi edo bukatzean, edo bertatik igarotzean, 50 km-tik 100era bitarteko ibilbideak dituzten lineak: ..... 0,548244 euro

**A.4.-** Bidaiariak daramatzen autobus bat sartu edo ateratzeagatik, zerbitzu erregularreko bidaia hasi edo bukatzean, edo bertatik igarotzean, 100 km-tik gorako ibilbideak dituzten lineak: ..... 0,767542 euro

#### **B TARIFA:**

Geltokiko zerbitzu orokorregatik, bidaia Gasteizen hasten edo bukatzen duten bidaiariei saldutako txartel bakoitzeko:

B.1.- 20 km arteko lineak ..... 0,054824 euro

B.2.- 20 km-tik 50era arteko lineak ..... 0,109648 euro

B.3.- 50 km-tik 100era arteko lineak ..... 0,137061 euro

B.4.- 100 km-tik gorako lineak ..... 0,191852 euro

### **C TARIFA:**

Lineaz kanpoko garraio zerbitzu kolektiboek, turismo garraioek eta bestek geltokia erabiltzea —abiatzea, heltzea nahiz igarotzea—

- C.1.- Autobus bakoitzeko ..... 1,781794 euro  
C.2.- Bidaiari bakoitzeko ..... 0,164474 euro

### **D TARIFA:**

- D.1.- Leihatila soil baten hileko alokairua ..... 91,30 euro  
D.2.- Leihatila arrunt baten hileko alokairua ..... 182,40 euro  
D.3.- Turismo enpresei eta lineaz konpoko garraioa eskaintzen dutenei leihatila bat alokatzea, ordu edo ordu-zatiko ..... 9,20 euro

### **E TARIFA:**

#### **E.1.** Geltokiak arautu eta administratutako fakturazio zerbitzuengatik

Garraiolariak bidalketa horretarako duen paketeria-tarifaren ehuneko 20 kobratuko da bidalitako nahiz jasotako fardel bakoitzeko (garraioa eta beste geltokiko fakturazio-tarifa barne).

- E.2.-** Eskuko ekipaje fardel bakoitzak fakturazioan egiten duen egun gehigarri bakoitzeko ..... 0,95 euro

- E.3.-** Maleta bakoitzak fakturazioan egiten duen egun gehigarri bakoitzeko ..... 1,79 euro

Egunak kalkulatzeari dagokionez, geltokiko atondoa jendearentzat ixten den ueña joko da egunaren amaieratzat.

### **F TARIFA:**

Kontsigna automatikoa erabiltzeagatik (gehienez 15 egun natural):

- F.1.- Kontsigna ertainagatik, eguneko edo egun zatiko. .... 2,73 euro  
F.2.- Kontsigna handiagatik, eguneko edo egun zatiko. .... 3,57 euro

Egunak kalkulatzeari dagokionez, geltokiko atondoa jendearentzat ixten den ueña joko da egunaren amaieratzat.

Kontsigna automatikoa erabiltzen hasten denetik 15 egun igarotzen direlarik, geltokiko administrazioak biltegiara eraman ahalko ditu kontsignetan gordetako ondasunak. Kontsignan 15 egunetik gora egon diren ondasunak eskuratzeko, kontsigna 15 egunez erabiltzeari dagokion prezioa ordaindu beharko da eta horretaz gainera:

- F.3** .- Hamabosgarren egunetik aurrera, kontsigna ertain batean gordetako ondasunak biltegian egiten duen egun bakoitzeko 0,84 euro

- F.4** .- Hamabosgarren egunetik aurrera, kontsigna handi batean gordetako ondasunak biltegian egiten duen egun bakoitzeko 1,79 euro

Gasteizko Udalak kontsignetan edo biltegian gordetako ondasunak bahitzeko eskubidea izango du, edozeinen aurrean, kontsigna eta biltegia erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioaren ordainketaren berme gisa.

Kontsignetan utzitako eta biltegia eramandako ondasunak abandonatuta geratu direla zehazteko legezko epea gainditzen delarik, udaltzaingoari emango zaizkio, eta galdutako objektuen arloan indarrean dauden xedapenenetan jasotakoa aplikatu ahalko du.

#### **G TARIFA:**

**G.1.-** Autobusa aparkatzeagatik —lekua izanik—, 08:00etatik 24:00ak arte, orduko..... 1,47 euro

**G.2.-** Autobusa aparkatzeagatik —lekua izanik—, 24:00etatik 08:00ak arte, orduko..... 0,84 euro

#### **H TARIFA:**

Geltokiko gidarien gela erabiltzeagatik, baimendutako gidari bakoitzeko, hilean. .... 9,20 euro

#### **I. TARIFA:**

I.1.- Ongi koadratu gabeko zerbitzu bakoitzagatik 216,40 euro (gehi BEZa) fakturatuko zaio garraio enpresari, zenbaketak eta likidazio-zuzenketak sortutako gastu gisa.

Hori guztia ordezeko kobrantzez bidegabeki jabetzearen ondorioz garraio-enpresari eta bertako langileei legezkiekeen erantzukizun penalez eta bestelakoez aparte izango da.

## **2. epigrafea STAND ETA SALTOKIAK**

Produktu edo zerbitzuen promozioa egiteko standak oro sartzen dira epigrafe honetan, baita bazkide edo bezeroak egiteko direnak ere. Orobat sartzen dira bertan nagusiki unean uneko transakzio ekonomikoak —ondasun edo zerbitzu bat erosi eta ordaindu— egiten diren standak oro.

Ez dira sartzen, ordea, Estatuaren loteria eta apustuen saltokiak eta bestelako joko eta apustuak, beste prozedura batzuen bitartez kontratatzen direnak.

Aldi berean gehienez bi stand edo saltoki egon ahalko dira instalatuta, geltokiaren portxe edo atondoan, Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak zehazten dituen lekuetan.

Aukeran, urte osorako esleituko dira; lekuetakoren bat urte osorako esleitzerik ez badago, hilabeteka kontratatuko da, eta, modu horretan ere lekuren bat bete gabe geratzen bada, aldi txikiagoetarako kontratatu ahalko da.

### **2.1** Stand edo saltokia, 8 m<sup>2</sup> arte:

- Egunean, .....44,10 euro
- Hilean, .....662,20 euro
- Urtean, ..... 7.450,40 euro

### **3. epigrafea NASETAKO LEKUA.**

Nasan jartzen diren gurditxo txikiak eta salmenta nahiz promozio kioskoak sartzten dira epigrafe honetan.

Aldi berean gehienez halako bi egon ahalko dira instalatuta nasen eremuan, Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak zehazten dituen lekuetan.

**3.1** Nasako lekua, 6 m<sup>2</sup> arte, ..... 33,10 euro egunean

### **4. epigrafea LIBURUXKA ETA LAGINEN BANAKETA (standik gabe).**

Pertsona batek material grafikoa edo lakinak ematea sartzten da epigrafe honetan — bestelako promozio euskarri finko nahiz mugikorrik gabe, halakorik baliatuz gero promozio lekutzat jo beharko bailitzateke—. Materiala eramateko gurditxo bat erabiltzen utziko da.

**4.1** Liburuxkak banatzea, standik gabe: ..... 55,10 euro egunean

### **5. epigrafea SALMENTA-MAKINAK**

Salmenta makinak jartzea sartzten da epigrafe honetan. Ez dira sartzten, ordea, janari-edariak saltzeko makinak, telefono kabinak, kutxazain automatikoak eta beste.

Aukeran, urte osorako esleituko dira. Lekuetakoren bat urte osorako esleitzerik ez badago, hilabeteka kontratatuko da.

**5.1** Geltokian zerbitzua eskaintzen duten lineetako bidaia-txartelak saltzeko edo garraio-txartelak edo antzeko bitartekoak kargatzeko makinak

- Hilean 551,90 euro, edozein delarik ere esleipenaren iraupena.

**5.2** Bestelako salmenta-makinak:

- Hilean, ..... 220,80 euro
- Urtean, ..... 2.207,50 euro

**6. epigrafea** Autobus geltokiaren barruan **telefonía mugikorra** instalatzea, antenen bitartez, zerbitzuak komertzializatzen dituen enpresaren bezeroei estaldura egokia emate aldera, ekipo zentralak instalatzeko lekuak lagatzea barne.

**6.1** Estaldura mugikorrekoreko sare bakoitzeko: .....4.415,00 euro urtean.

### **7. epigrafea ESPAZIO BEREZIAK**

Aurreko puntuetan adierazitakoez bestelako lekuak dira, geltokiaren barruan, beren neurri eta ezaugarriengatik ospakizunak, azokak, multimedia grabazioak eta beste egiteko egokiak.

**7.1** Portxea erabiltzeagatik —geltokia zabalik dagoen orduetan, geltokiaren erabiltzaileekin partekatu beharko da erabilera, ezinbestean, eta ezingo da autobus geltokiko zerbitzuan interferentziarik sortu—:

- Egunean..... 496,70 euro.

**7.2** Atondoa erabiltzeagatik —geltokia zabalik dagoen orduetan, geltokiaren erabiltzaileekin partekatu beharko da erabilera, ezinbestean, eta ezingo da autobus geltokiko zerbitzuan interferentziarik sortu—:

- Egunean..... 496,70 euro.

**7.3** Nasen eremua erabiltzeagatik —geltokia zabalik dagoen orduetan, geltokiaren erabiltzaileekin partekatu beharko da erabilera, ezinbestean, eta ezingo da autobus geltokiko zerbitzuan interferentziarik sortu—:

- Egunean..... 496,70 euro.

**7.4** Aparkaleku eremu mugatua ibilgailuak aparkatzeko ez bestetarako erabiltzeagatik:

- aparkaleku bakoitzeko, 13,20 euro egunean.

Aurreko epigrafeetan —1.tik 7.era— ageri diren tarifei balio erantsiaren zerga gehituko zaie.

Kutzazainetan edota kobratzeko makina automatikoetan egiten diren ordainketen kasuan, kalkulatzen diren BEZaren zenbatekoak bost zentimoren multiplo txikiagora biribilduko dira.

## **8 epigrafea. INFORMAZIO-PANTAILETAKO PUBLIZITATEA**

Informazio-pantailak berrogei hazbeteko (40') 6 pantaila dira, honako lekuetan kokatuta:

- ◆ Hiru geltokiko atondoan.
- ◆ Bi nasen inguruan.
- ◆ Bat kafetegian

eta 55 hazbeteko zortzi pantaila dituen videowalla. Hau geltokiko atondoan dago. Neurria: 2 x 4ko luze-zabalera.

Soinurik gabeko bideo edo irudi formatuetako iragarkiak 150 segundoan behin emango dira.

**8.1. tarifa-** 10 segundoko iragarkia, 120 segundoan behin, 40 hazbeteko 6 pantailatan, 1920\*1080 pixeletan, honako espazioetan: 55 hazbeteko bi monitore dituzten bi espaziotan, 960\*1080 pixeleko formatuan, videowallaren muturretan, edo 55 hazbeteko lau monitore dituen espazio batean, 1920\*1080 formatuan. Iragarki eta hamabostaldi bakoitzeko 102,90 euro

**8.2. tarifa-** 10 segundoko iragarkia, 120 segundoan behin, videowalleko lau monitoretan. Formatua: 1920 \* 1080 pixel. Iragarki eta aste bakoitzagatik: 54,10 euro: sei hilabetegatik: 595,20 euro; urtebetegatik: 919,90 euro (sei hilabeteko edo urtebeteko emisioak badira, interesdunak astero aldatu ahalko ditu iragarkiak).

Iragarleak arduratu beharko du iragarkiak geltokiko emisio sistemarekin bateragarriak diren irudi edo bideo formatuan emateaz.

Udalak debekatu egin ahalko du hainbat eduki zabaltzeaz. Edonola ere, debekatuta dago Publizitatearen 34/1998 Lege Orokorraren 3., 4. eta 5. artikuluetan adierazitako legez kanpoko publizitatea eta alderdi politikoen publizitatea.

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

#### **1. Hobariak**

Hala eskatzen dutelarik, ehuneko 90ko hobaria lortzeko eskubidea izango dute onura publikoa aitortu zaien elkarteek standei dagokien tasan —gehienez hilabeteko kanpainak egiteko—, baita standik gabe liburuxka eta laginak banatzeari dagokion tasan ere. Horretarako, onura publikoa adierazten duen agiriaren fotokopia erantsi beharko diote espazioak erabili ahal izateko eskabideari, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimena arautzen duen abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauan aurreikusitakoaren ildotik.

#### **2. Salbuespenak**

Erakunde publikoak salbuetsita egon dira standei dagokien tasa ordaintzetik —gehienez hilabeteko kanpainak egiteko—, baita standik gabe liburuxka eta laginak banatzeari dagokion tasa ordaintzetik ere, baldin eta udal administrazioaren helburuekin bat datozen jarduerak badira.

Era berean, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio —aldez aurretik eskabidea egiten delarik, eta proposamen-txosten arrazoitua—, tasa nahiz bermea ordaintzetik salbuetsi ahal izango dira beren ezaugarri bereziengatik hiriarentzat eta bertako biztanleentzat interes handikotzat jotzen diren jarduera eta zerbitzuak.

## **VI. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA**

### **6. artikulua**

2. artikuluan aipatu diren zerbitzuak ematen nahiz esparruak edo instalazioak erabiltzen direnean sortzen da tasak eta, beraz, ordaintzeko obligazioa.

Zerbitzua edo jarduera benetan eman aurretik galdatu ahal izango da tasaren ordainketa.

## **VII. KUDEAKETA ARAUAK**

### **7. artikulua**

Espazio horien kudeaketari dagozkionetan, Ogasun Sailak ezartzen dituen berariazko arauak beteko dira.

Eta, nolanahi ere, xedapen hauek:

#### **OROKORRAK:**

Aurreko epigrafeetako prezioetan ez dira sartzen honako hauek:

- Berariazko segurtasuna —halakorik jarri edo kontratatzekotan, Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak ontzat eman beharko du, ezinbestean—.
- Promozio stand eta saltokiak, nasetako lekuak nahiz salmenta-makinak instalatzeko egiten diren lan osagarriak aparte fakturatuko zaizkio bezeroari —aldez aurretik onartu beharko ditu gastu horiek—, edo hark kontratatuko ditu zuzenean, Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak baimendu ondoren.
- Dena delako ekitaldiak iraun bitarteko garbiketa eta mantentze lanak, eta ondorngo garbiketa, zein nahitaezkoa izango den.
- Lizentzia eta baimenak.
- Aseguruak.
- Elektrizitate eta ur kontsumoa, eta datu-linearena.
- Geltokiaren esparruko publizitatea (banderak, pankartak eta antzekoak).
- Indarrean dagoen legediaren arabera aplikatu beharreko zergak.
- Muntatze eta desmuntatze denborak.
- Aparkalekua.

#### Nahitaezkoak dira:

- Erantzukizun zibilaren, suteen eta kalteen alorreko arriskuak oro estaltzen dituen aseguru-poliza.
- Bermea.

#### **PARTIKULARRAK:**

- Kontratazioa egingo bada, ezinbestean aurkeztu beharko da promozio stand eta saltokiaren, nasako lekuaren edo salmenta-makinaren irudia. Orobat zehaztu beharko da azalera (m<sup>2</sup>), baita diseinua eta ezaugarriak ere, eta argazki edo marrazki bat erantsi. Publizitatea egin eta laginak banatuko badira, produktuari buruzko informazio zehatza eman beharko da, baita banatzaileak eramango duen janzkera ere.
- Promozioa egin edo saldu nahi den produktua zein motatakoa den kontuan izango da, bertako negozioei zuzeneko konkurrentziarik ez egiteko.
- Promozio edo salmenta leku bakoitzean gehienez hiru lagun arituko dira, eta bana nasetakoetan —gehiago jartzekotan, proposamena egin beharko da, eta Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak aztertu eta onetsi beharko du—.
- Kontratazio-aldia gehienez 12 hilabetekoa izango da.
- Argi eta garbi zehaztu beharko da jarduera-eremua.
- Ezingo da inolako megafoniarik baliatu, ezta girotze musika ere, berariazko baimenik gabe.
- Muntatze, desmuntatze eta garbitze lanek hartzen duten denbora kontratazio-aldian sartu beharko da.
- Kontrataturako denbora gaitzen delarik, ehuneko 25eko gainordaina aplikatuko da, egun bakoitzeko, lehenengo bi egunetan. Hirugarren egunetik aurrera, standak kendu egingo da bertatik, eta biltegira eramango, eta sortzen diren gastuak errentariaren kontura izango dira.
- Ordainketa aldez aurretik egin beharko da, beti. Iraupena hainbat hilabetekoa bada, hilabetez hilabete ordaindu ahal izango da, baldin eta gutxienez bi hilabeteri dagokiona adinako bermea jarri bada.
- Nasetako lekuak olana batez estali beharko dira lanaldia bukatzean, eta segurtatu, inork kalterik eragin ez diezaien eta lekutik mugitu ez ditzen.
- Nasetako lekuek ezingo dute bota kerik nahiz usainik. Ur biltegia badute, ezingo da bidean edo nasetan hustu.

- Publizitatea egin eta laginak banatzen badira, enpresa banatzailearen ardura izango da garbitasuna zaintzea, eta geltokiko banaketa-lekuan lurrera botatzen diren liburuxka eta laginak jasotzea. Hala egin ezean, Autobus Geltokiaren Zerbitzuko buruak berehalakoan geldiarazi ahal izango du banaketa.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**6.17 LURZORUAREN KUTSADURAREN PREBENTZIOAREN ETA ZUZENKETAREN  
ALORREKO TXOSTENAK EGIN ETA KONTSULTEI ERANTZUTEARI DAGOZKION  
TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Lurzoruaren kutsaduraren eta zuzenketaren alorreko txostenak egin eta kontsultei erantzuteari dagozkion tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

Lurzoruaren kutsaduraren prebentzioaren eta zuzenketaren alorreko txostenak egin eta kontsultei erantzutea da tasaren zerga-egitatea.

**III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

**3. artikulua**

5. Arabako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztelarik nahiz horien onuradun edo eraginpeko egokitzen direlarik.

6. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo dute subjektu pasiboaren zerga-betebeharren aurrean.

7. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 43. artikuluan adierazten diren pertsona edo erakundeak izango dira erantzule subsidiarioak.

**IV. TARIFAK**

**4. artikulua**

Epigrafe hauen arabera sortuko dira tasak:

**1. epigrafea.**

- Lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroari buruzko kontsultari erantzutea, izan litezkeen kutsatzaile motak eta bertan garatu diren jarduerak adierazten direlarik .....104,93 euro

## **2. epigrafea.**

- Lurzoruaren kalitatearen inguruko aitorten-prozeduratik salbuesteko eskabidea justifikatzen duen txostena egitea.....220,75 euro

## **3. epigrafea.**

- EAEko kutsatuta egon daitezkeen lurzoru inbentariotik salbuesteko txostena egitea.....220,75 euro

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Zerga-egitatzat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da tasa, eta hori ordaintzeko beharra. Ondorio horietarako, txosten edo kontsultaren eskabidea aurkezten den eguna joko da jardueraren hasiera-datatzat.

## **VI. KUDEAKETA**

### **6. artikulua**

Gasteizko udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta dena delako tarifaren arau partikularrei jarraiki ordaindu beharko dira likidatutako kopuruak.

Nolanahi ere, tasen kobrantza autolikidazio erregimena baliatuz gauzatzeko galdatzerik ere izango du.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**7.1 ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN JARRITAKO SALTOKI, BARRAKA, SALMENTA-ETXETXO, IKUSKIZUN EDO JOLAS-INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Erabilera publikoko lurretan jarritako saltoki, barraka, salmenta-etxetxo, ikuskizun edo jolas instalazioengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrerara batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

Bide publikoko lurzorua ustiapen berezia —ordenantza honen xede diren elementuetakoren bat jarriz— izango da tasa honen zerga-egitatea.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23.6. artikulua araberak, ez dute ordaindu beharko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren tasarik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabideen zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduengatik eta herritarren segurtasuna edo defentsa nazionala zuzenean ukitzen duten aprobetxamenduengatik.

**III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

**3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, lizentzia ematen zaien pertsona edo erakundeak, baita behar zen baimena izan gabe ustiapen horri etekina ateratzen diotenak ere.

**IV. TARIFAK**

**4. artikulua**

Tarifa hauen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak:

**1. epigrafea**

Goxoak, fruitu lehorrak, izozkiak, barkilloak eta antzekoak; liburuak, aldizkariak eta horrelakoak; landareak, loreak eta haziak; fruituak, barazkiak eta beste jaki natural edo landu batzuk; hegaztiak, arrautzak eta ehizakiak saltzeko edo erakusteko saltoki bakoitzeko

- o hau ordainduko da eguneko: ..... 3,08 euro.
- o Saltoki horietako bakoitzaren hileko abonua hau izango da: .....54,01 euro

## 2. epigrafea

Purtxileriak, ehunak, jantziak, girgileriak, pirtzilak, burdinkiak, laukiak, zirtzileriak, jostailuak eta era horretako gauzak saltzeko edo erakusteko postu bakoitzeko

- o Hau ordainduko da eguneko:..... 5,67 euro

**Oharra:** Aurreko bi epigrafeetako saltokiak 2 metroko luzerakoak izango dira, eta neurri hori gainditzen badute, 2 metroko zati bakoitza saltoki bat bailitzan ordaindu beharko da. Trakzio mekanikoko ibilgailuek okupatzen dituzten saltokiek ehuneko 100eko gehikuntza izango dute. Bestelako saltzaileek antzeko saltoki bati dagokion tasa ordaindu beharko dute.

## 3. epigrafea

### Denboraldiko saltokiak, saltoki bakoitzeko:

Izozkiak, gaztainak eta txurroak. Konkurrentzia bidez esleituko dira, prozesutik ateratzen den zenbatekoa aplikatuz, honela:

- o Izozkiak: ..... 1.287,73 euro denboraldiko (martxotik irailera)
- o Gaztainak: ..... 110,38 euro denboraldiko (urritik urtarrilera)
- o Txurroak: ..... 2.207,53 euro denboraldiko (urte osoa)
- o Denda-ibilgailuak: .....2.207,53 euro urte osoan, edo denboraldi bakoitzari dagokion zati proportzionala

## 4. epigrafea

Barraka, saltoki eta ikuskizun eta atrakzioak jartzeagatik, deitutako lizitazio sistemaren ondorioz suertatzen den tasa ordaindu beharko da, edo, zuzenean, egun eta metro karratu bakoitzeko, honako hauek:

- o 5 m<sup>2</sup>ra iristen ez diren instalazioak..... 6,64 euro
- o 5 m<sup>2</sup>tik 20 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 0,72 euro
- o 20 m<sup>2</sup>tik 100 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 0,64 euro
- o 100 m<sup>2</sup>tik gorako instalazioak..... 0,58 euro

## 5. epigrafea **Salmenta ibiltariko aldian aldiko azokak (Espainia plazako igandeetako azoka salbu).**

1. Salmenta ibiltariko aldian aldiko azoka horietako saltoki bakoitzeko honako hau ordaindu beharko da:
  - o Santa Barbara azokan, 3 metro zabaleko saltokia: 12,99 euro egunean
  - o Simon Bolibar plazako eta Lakuako azoketan, 6 metro zabaleko saltokia: 12,99 euro egunean
2. Udalak hileru kobratuko du tasa hori, banketxearen bidezko helbideratzea baliatuz, nahitaezkoa izango baitute hori interesdunek.

## **6. epigrafea Jai edo ospakizun bereziak direla eta saltokiak jartzea —bide publikoa okupatzeagatik, saltoki bakoitzeko—:**

**1. Eskulangintza azokak:** ..... 192,58 euro, azokak dirauen aldi osorako.

Horrez gain, azoka bakoitzak sortzen dituen gastuei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko dute esleipendunek —dena delako deialdian zehaztuko dira gastu horiek—.

**2. Jaietako puxikak, paineluak, txanoak eta beste oinez**

**saltzea:** ..... 110,38 euro kanpaina bakoitzeko.

**3. Domu Santurako loreak saltzeko saltokiak:** ..... 44,15 euro kanpaina bakoitzeko.

**4. Eguberrietako zuhaitzen salmenta:** ..... 44,15 euro kanpaina bakoitzeko.

**5. Santiago Eguna:**

○ Baratxuri salmenta: ..... 40,57 euro

**6. Olarizu Eguna:**

○ Janari, fruitu lehor, barkillo eta antzekoak saltzeko saltokiak: ..... 78,86 euro

○ Txosnak eta denda-ibilgailuak: ..... 165,06 euro

**7. Eguberrietako nekazaritza-azoka:**

○ 3 m zabaleko saltokia: ..... 13,01 euro

## **7. epigrafea Espainia plazako igandeetako azoka:**

Aisia eta kultura arloko bildumazaletasunarekin zerikusia duten gaiak (filatelia, numismatika, postalak, kromoak, puruen eraztunak, txapak, giltzatakoak, liburuak edo antzekoak) erakutsi eta inoizka saltzeko jartzen den saltoki bakoitzeko, gehienez metro bat zabal eta bi metro luze dutenak

○ Hau ordainduko da urtean: ..... 125,81 euro.

## **8 epigrafea Askotariko jarduerak.**

Askotariko jardueretarako jartzen den mahai, saltoki, barra edo antzeko instalazio bakoitzeko eta eguneko tasa hau ordainduko da:

○ 3 m<sup>2</sup>ra iristen ez diren instalazioak: ..... 5,88 euro.

○ 3 m<sup>2</sup>tik 15 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak: ..... 26,46 euro.

○ 15 m<sup>2</sup>tik 50 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak: ..... 88,19 euro.

○ 50 m<sup>2</sup>tik 100 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak: ..... 176,37 euro.

○ 100 m<sup>2</sup>tik 500 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak: ..... 881,87 euro

○ 500 m<sup>2</sup>tik 1.000 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak: ..... 1.763,75 euro.

○ 1.000 m<sup>2</sup>tik gorako instalazioak: ..... 2.645,62 euro.

Ordaintzeko beharra dutelarik hartuko duten azalera zehazten ez dutenei, organo eskudunaren iritziz eskabidean adierazitakoari ondoen egokitzen zaion tartea aplikatuko zaie.

## V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 5. artikulua

1. Udalak, , toki jaurbidearen alorreko oinarrizko legediaren arabera eskumena duen organoaren xedapena dela medio, ordenantza honetan jasotzen diren tasen zenbatekoaren ehuneko 90era arteko hobari galdatua eman ahal izango die subjektu pasiboiei, baldin eta jabetza publikoko ondasunen erabilera pribatiboetan edo ustiapen berezietan zirkunstantzia subjektibo hauek egokitzen badira: onura publikoko izendatutako erakundea izatea edo gizartearentzat eta udalarentzat interesgarri egiten duten baldintza justifikatuak betetzea, horri buruz egindako txostenaren arabera.

Onura fiskalak aplika dakizkiola interesdunak berak eskatu beharko du, berariaz, bide publikoa okupatzeko eskabidean bertan.

Zerga-hobaria aplika dakiola eskatzen den jarduerak udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari (sozietatearen estatutuak, onura publikoaren aitorpena...).

Auzo elkarteek beren festak ospatzeko okupatzen dutelarik bide publikoa —irabazte xederik gabeko jarduerekin, edo beren kide boluntarioek egiten dituzten jarduerekin—, kontzeptu honi dagokion tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

2. Doan izango dira jarduera hauek:

- Gasteizko Udalarenak berarenak. , baita irabazi-asmorik gabeko erakundeekin sinatutako lankidetzak hitzarmenetan jasotzen direnak ere, espazio horiek erabiltzea aurreikusten delarik bertan.
- Beste erakunde publiko batzuek antolatutakoak, udal jarduerarekin bat datozen jarduerak baldin badira.
- Mahai-aulkiak jartzeko baimenen titularren antolatzen dituzten ikuskizunak, haien esparruan eskaintzen direlarik.

3. Era berean, toki jaurbidearen alorreko oinarrizko legediaren arabera eskumena duen organoaren xedapena dela medio —aldez aurretik eskabidea egiten delarik, eta proposamen-txostena—, tasa ordaintzetik salbuetsi ahal izango dira beren ezaugarri bereziengatik hiriarentzat eta bertako biztanleentzat interes handikotzat jotzen diren gizarte, kultur nahiz kirol ekitaldi edo jarduerak.

## VI. SORTZAPENA

### 6. artikulua

Ordenantza honek bere baitan hartzen dituen ustiapenetakoren bati ekiteko lizentzia edo baimena ematen denean sortuko da tasa, edo hari ekin zitzaionetik, behar zen baimenik gabe egin bazen.

## VII. KUDEAKETA

### 7. artikulua

Gasteizko udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta dena delako tarifaren arau partikularrei jarriki ordaindu beharko dira likidatutako kopuruak. Nolanahi ere, tasen kobrantza autolikidazio erregimena baliatuz gauzatzeko galdatzerik ere izango du.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

1. Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

2. Bereziki, iruzur gisa sailkatuta dagoen arau-haustea da saltoki eta ustiapenak baimenik gabe instalatzea, baita baimendutakoa baino azalera handiagoa hartzea ere, eta baimendutakoaz gaindiko azalerari nahiz edo baimenik gabe hartutakoari dagokion tasa halako biko isuna jarriz zigortuko da.

### Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **I. FUNTSA ETA IZAERA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Bide publikoan kioskoak jartzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **2. artikulua**

Bide publikoko lurzorua ustiapen berezia —ordenantza honen xede diren elementuetakoren bat jarriz— izango da tasa honen zerga-egitatea.

## **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, lizentzia ematen zaien pertsona edo erakundeak, baita behar zen baimena izan gabe ustiapen horri etekina ateratzen diotenak ere.

Titularrak izan gabe instalazioko jarduera burutzen dutenek modu solidarioan erantzun beharko dute.

## **IV. TARIFAK**

### **4. artikulua**

Tarifa honen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak:

#### **TARIFA**

Zozketa-txartelak, kupoiak, loteria, egunkariak, tabakoa edo beste edozein salgai saltzeko edo beste ezertarako hiriko kale, plaza eta parkeetan jarritako kiosko bakoitzeko, hilean:.....70,52 euro

## **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **5. artikulua**

ehuneko 99ra arteko hobaria eman ahal izango da, subjektu pasiboak hala eskatzen duelarik, udalarentzat interesgarritzat jotzen diren jarduerak gauzatzen dituzten interes orokorreko nahiz onura publikoko erakundeak badira.

Onura fiskalak aplika dakizkiola interesdunak berak eskatu beharko du, berariaz, bide publikoa okupatzeko eskabidean bertan.

Zerga-hobaria aplika dakiola eskatzen den jarduerak udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari (sozietatearen estatutuak, onura publikoaren aitortpena...).

## **VI. SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

Ordenantza honek bere baitan hartzen dituen ustiapenetakoren bati ekiteko lizentzia edo baimena ematen denean sortuko da tasa, edo hari ekin zitzaionetik, behar zen baimenik gabe egin bazen.

## **VII. KUDEAKETA**

### **7. artikulua**

Gasteizko udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta tarifaren arau partikularrei jarriki ordaindu beharko dira likidatutako kopuruak.

Nolanahi ere, tasen kobrantza autolikidazio erregimena baliatuz gauzatzeko galdatzerik ere izango du.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

### **7.3 BIDE PUBLIKOAN MAHAIAK, AULKIAK ETA ABAR JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

#### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

##### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Bide publikoan mahaiak, aulkiak eta abar jartzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

#### **II. ZERGA-EGITATEA**

##### **2. artikulua**

Bide publikoko lurzoruaren ustiapen berezia —terrazak instalatuz, itxiturarekin nahiz itxiturarik gabe— izango da tasa honen zerga-egitate. Horri dagokionez, hauek joko dira terrazatzat: mahaiz, aulki edo besaulkiz eta bestelako edozein altzari mugikor eta desmuntagarri —eguzkitakoak, estalkiak, alboko babesak, klimatizazio tresnak, loreontziak eta antzekoak, publizitate elementuak eta antzeko erabilera dutenak, eta abar— osatutako instalazioak.

Mahai batek eta binaka aurrez aurre jarritako lau aulkik osatuko dute mahai-aulki multzoa. Mahaien gehieneko neurriak hauek izango dira: 60 zentimetroko diametroa edo 80 zentimetro luze bider 60 zentimetro zabal; mahai-aulki multzo bakoitzaren okupazio-azalera teorikoa, berriz, 1,80 x 1,80 metro.

#### **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

##### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluen 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, lizentzia ematen zaien pertsona edo erakundeak, baita behar zen baimena izan gabe ustiapen horri etekina ateratzen diotenak ere. Bide publiko hartzen duten establezimenduen jabe edo titularrak egongo dira behartuta ordaintzera, modu solidarioan.

#### **IV. TARIFAK**

##### **4. artikulua**

Tarifa hauen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak:

**1.** Bide publikoan jarritako beladore bakoitzeko (mahai bat eta lau aulki). Baita bina-binako aurrez aurreko aulkiak dituen beladore bakoitzeko ere — Hori guztia kalearen kategoriaren arabera, ikus ordenantza fiskal honen eranskina—:

<b>Kalearen kategoria</b>	<b>Bakoitzeko, urte osoko baimena</b>
<b>1</b>	96,43 euro
<b>2</b>	80,36 euro
<b>3</b>	58,93 euro
<b>4</b>	37,50 euro

**2.** Bide publikoko itxitura baten barruan kokatutako beladore bakoitzeko (mahai bat eta lau aulki).

<b>Kalearen kategoria</b>	<b>Bakoitzeko, urte osoko baimena</b>
<b>1</b>	192,85 euro
<b>2</b>	160,71 euro
<b>3</b>	117,85 euro
<b>4</b>	75,00 euro

**3.** Bide publikoan bi aulki dituen mahai-multzo bakoitzeko:

<b>Kalearen kategoria</b>	<b>Bakoitzeko, urte osoko baimena</b>
<b>1</b>	77,14 euro
<b>2</b>	64,28 euro.
<b>3</b>	47,14 euro
<b>4</b>	30,00 euro

**4.** Alboetako babesak, berogailuak, bakoitzeko, urtean: 16,13 euro

**5.** Estalpeak erdiko edo alboko euskarri batekin, beladore edo mahai-multzoetan eta bi aulkiekin. 4 m<sup>2</sup>ko modulu bakoitzeko tasak (azalera hartzen dituen moduluen arabera kalkulatu da), bakoitzeko, urtean: 28,49 euro.

**6.** Jardinerak edo publizitaterako elementuak, urtean: 10,95 euro

**7.** Santiagon eta Andre Maria Zuriaren jaietan salbuespenez jarritako barrak, m<sup>2</sup> eta eguneko, 11,07 euro.

**8.** Bestelako altzariak:

1. Epigrafean ezarritako prezioak ordainduko dira, elementu bakoitzeko, kalearen kategoriaren arabera.

**9.** Aurreko ataletako tarifei ehuneko 20 gehituko zaie, baldin eta publizitatea badaramate.

Bide publikoaren okupazioak kategoria desberdineko kaleen zatiak hartzen baditu, edo kategoria desberdineko zatiak kale berean, horiei dagozkien tarifetatik handiena aplikatuko da.

**10.** Ehuneko 50eko hobaria izango dute, 1., 2. eta 3. puntuetako tasetan —mahaitxoak, aldi baterako itxitura duten terraza eta mahaitxoak nahiz mahai baxu edo altuak direla eta sortuetan— beren jarduera Erdi Aroko hirigunean garatzen duten subjektu pasiboek, eremu estrategikoa izaki hori Udalarentzat —bertako jarduna sustatzeagatik—, ordenantza honen II. eranskinean ageri diren kaleetan.

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Ordaintzeko obligazioa egokitzen delarik sortuko da tasa, eta baimendu diren nahiz baimenduko diren okupatze aldien arabera galdatuko dira kuotak, edozein delarik ere ustiapenaren iraunaldia, edo ustiapenari ekin zitzaionetik, baldin eta behar zen baimenik gabe egin bazen.

## **VI. KUDEAKETA**

### **6. artikulua**

Eskatzen diren urterako emango dira baimenak, egoki bada, Ebazpenaren jakinarazpenaren egunetik aurrera, eta besterik gabe joko dira luzatutzat Terrazak eta horien altzariak baimentzeko ebazpenean —zein udal-zerbitzu kudeatzaile eskudunak onartuko baitu— ezarritako gehieneko eperaino, salbu eta interes publikoko egoeraren batek besterik badakar berekin edo baimenaren baldintzetan aldakuntzarik gertatzen bada, aldeetakoren batek, dela administrazioak, dela titularrak, kontrako asmorik jakinarazten ez badu, gutxienez ere luzapen-aldia hasi baino 15 egun lehenago.

Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzari jasota dauden muga eta debekuak aintzat harturik baimendu ahal izango da terrazak eta horietako altzariak instalatzea.

Gasteizko udal administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du, eta dena delako tarifaren arau partikularrei jarriki ordaindu beharko dira likidatutako kopuruak. Nolanahi ere, tasen kobrantza autolikidazio erregimenaren baliatuz gauzatzeko galdatzerik ere izango du.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

## Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

### I. ERANSKINA

#### **Gasteizko kaleen zerrenda (tasa hau aplikatzeko)**

(Udalbatzaren 2012ko abenduaren 28ko erabakia. Abenduaren 31ko ALHAO, 151. zk.)

### II. ERANSKINA

#### **Erdi Aroko hiriguneko kaleak, 4.12. artikulua aplikatzeko.**

KALE-KODEA	KALEA	KALE-KODEA	KALEA
10	Aska kalea	2860	Kanpokale Berria
200	Anorbin kantoia	2950	Jauregi kalea
2959	Arrieta kalea	3020	Pedro Egaña kalea
500	Barrenkalea	3090	Pintore kalea
650	Bueno Monreal kalea	3130	Errege atea, bakotiak
1240	Txikita kalea	3430	San Anton plaza
3620	San Prudentzio Ikastetxeko kalea	3450	San Bartolomeko eskailerak
1110	Hedegile kalea	3490	San Frantzisko kalea
1180	Kuboa	3500	San Frantzisko Xabierkoaren kantoia
1190	Aiztogile kalea	3510	San Frantzisko aldapa
1300	Diputazio kalea, bikoitiak	3520	San Ignazio Loiolakoaren kalea, 1-25
3950	Tornu kalea	3530	San Ildefonso kalea
710	Frantzia kalea, bakoitiak	3560	San Markos kantoia
1620	Frai Zacarias Martinez kalea	3591	San Migeleko eskailerak
1640	Ahate Iturri plazatxo	3595	San Pedroko pasabidea
3890	Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea, bikoitiak	3630	San Roke kantoia
1870	Errementari kalea	3800	San Bizente Pauleko kalea
675	Buruileria plaza	3790	San Bizente aldapa
3920	Bakardade kantoia	3650	Santa Ana kantoia
820	Harategi kantoia	3710	Santa Maria kalea
1470	Eskola kalea	3720	Santa Maria kantoia
370	Arkupeko eskailerak	3730	Santa Maria plaza
380	Arkupeko ibilbidea	3760	Santo Domingo kalea
2421	Aihotz plazako eskailerak	3830	Apaizgaitegiko kantoia
2420	Aihotz plaza	3910	Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kalea
2540	Mateo Benigno Moraza kalea	4170	Goiuriko plaza
2850	Barnekale Berria	4260	Zapatari kalea

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **7.4 IBILGAILUAK ERAIKIN PARTIKULARRETAN SARTZEAGATIK ETA ALDI BATERAKO APARKALEKU-ERRESERBENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzegatik eta aldi baterako aparkaleku-erreserbengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Hauxe da tasa honen zerga-egitatea: ustiapen berezia eratzea eta gauzatzea bide publikoan, ibilgailuak espaloietan barrena sar daitezten funtsetara, eta bide publikoan aparkatzeko erreserbak egitea, edonolako salgaiak kargatu edo deskargatzeko, baita ibilgailuen bestelako ustiapen edo erabilera pribatiboak ere.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, baimena ematen zaien pertsona edo erakundeak, baita behar zen baimena izan gabe ustiapen horri onura ateratzen diotenak ere.

Zergadunaren ordezkotzat joko dira ibilgailu-pasabideek sarbidea ematen dieten funts eta lokalen jabeak, zeinek, behar izanez gero, onuradunei leporatu ahal izango baitizkiete kuotak.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

**Tarifa hauen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak:**

##### **1. epigrafea**

Bi gurpil baino gehiago dituzten ibilgailuak gorde eta zaintzeko establezimenduek —horrez gain garbitze eta koipeztatze zerbitzua eman ala ez—, pasabide bakoitzeko, edukieraren arabera, eskala honen arabera ordaindu beharko dute:

**TARIFA, KATEGORIAREN ARABERA (euro/urtean)**

<b>Ibilgailu-dukiera</b>	<b>KATEGORIA 1</b>	<b>2 KATEGORIA</b>	<b>Gainerako kategoriak</b>
a) 500 ibilgailutik gora	2.093,78 euro	1.814,61 euro	1.699,30 euro
b) 151-500 ibilgailu	1.256,82 euro	1.089,25 euro	1.006,06 euro
c) 101-150 ibilgailu	823,63 euro	713,81 euro	671,23 euro
d) 51-100 ibilgailu	558,65 euro	484,17 euro	447,10 euro
e) 26-50 ibilgailu	279,39 euro	242,14 euro	223,79 euro
f) 11-25 ibilgailu	139,75 euro	121,11 euro	111,87 euro
g) 10 ibilgailu edo gutxiago	69,99 euro	60,66 euro	55,99 euro

**2. epigrafea**

Jabe baten edo hainbaten gordeleku kolektiboek, beren jabeek —batera nahiz eskusiboki— bost ibilgailu baino gehiago gordetzeko baliatzen dituztelarik, aurreko epigrafearen arabera ordaindu beharko dute.

**3. epigrafea**

Gidatzeko baimen ofiziala eskatzen duten motorrak, motozikletak eta bi gurpileko ibilgailu motordunak eta ez beste gorde eta zaintzeko establezimenduek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- o 1 kategoriako tarifa .....46,72 euro urtean.
- o 2 kategoriako tarifa .....40,48 euro urtean.
- o Gainerako kategorietako tarifa .....37,42 euro urtean.

**4. epigrafea**

Bi gurpil baino gehiagoko ibilgailuak egin, konpondu, pintatu eta koipeztatze lantegiek, baita karrozeriak egin eta konpontzeko nahiz desegiteko lantegiek ere, hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- o 1 kategoriako tarifa .....279,20 euro urtean.
- o 2 kategoriako tarifa .....241,97 euro urtean.
- o Gainerako kategorietako tarifa .....223,79 euro urtean.

**5. epigrafea**

Motorrak, motozikletak eta bi gurpileko ibilgailu motordunak egin eta konpontzeko lantegiek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....69,99 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa ..... 60,66 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....55,99 euro urtean.

## **6. epigrafea**

Garaje edo lantegiak ez izan arren bi gurpil baino gehiagoko ibilgailuak erakutsi eta saltzeko diren establezimenduek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....93,27 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa .....80,84 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....74,78 euro urtean.

## **7. epigrafea**

Berdin, bi gurpileko ibilgailuak izanik, hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....28,06 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa .....24,33 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....22,67 euro urtean.

## **8. epigrafea**

Bidaiari-geltokiek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....839,02 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa .....727,16 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....669,09 euro urtean.

## **9. epigrafea**

Salgaiak jaso eta atzera bidaltzen dituzten garraio-agentziek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....419,48 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa .....363,57 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....335,60 euro urtean.

## **10. epigrafea**

Zerbitzuguneek hauxe ordaindu beharko dute, pasabide bakoitzeko:

- 1 kategoriako tarifa .....931,61 euro urtean.
- 2 kategoriako tarifa .....807,40 euro urtean.
- Gainerako kategorietako tarifa .....745,57 euro urtean.

## 11. epigrafea

Denda, industria edo negozio bat dagoen funtsaren barrura sartzeko pasabide bakoitzeko, guztira, karga barne, 3.000 kg-tik gorako gehienezko pisua duten kamioiak nahiz autobusak sartu eta ateratzeko baliatzen bada, hauxe ordaindu beharko da:

- o 1 kategoriako tarifa .....232,82 euro urtean.
- o 2 kategoriako tarifa .....201,77 euro urtean.
- o Gainerako kategorietako tarifa .....99,07 euro urtean.

Pasabideak, udal lizentzia dela medio, pasabide baimendu bihurtzen direlarik, kuotek ehuneko 100eko gainordaina izango dute.

## 12. epigrafea

Guztira, karga barne, 3.000 kg-tik beherako gehienezko pisua duten kamioiak sartu eta ateratzeko pasabide bakoitzeko hauxe ordaindu beharko da:

- o 1 kategoriako tarifa .....70,06 euro urtean.
- o 2 kategoriako tarifa .....60,72 euro urtean.
- o Gainerako kategorietako tarifa..... 55,99 euro urtean.

Pasabideak, udal lizentzia dela medio, pasabide baimendu bihurtzen direlarik, kuotek ehuneko 100eko gainordaina izango dute.

## 13. epigrafea

Funts edo orube batera ibilgailuak —5.era artekoak—, orgak, orgatxoak eta eskorgak sartu eta ateratzeko pasabide bakoitzeko hauxe ordaindu beharko da:

- o 1 kategoriako tarifa .....22,77 euro urtean.
- o 2 kategoriako tarifa .....19,73 euro urtean.
- o Gainerako kategorietako tarifa .....18,89 euro urtean.

Pasabideak, udal lizentzia dela medio, pasabide baimendu bihurtzen direlarik, kuotek ehuneko 100eko gainordaina izango dute.

Industria edo merkataritza erabilera duten pasabideen kuota, baldin eta aparkatzeko debekua ordutegi jakin baterako bada, pasabide iraunkorrei dagokienaren % 75ekoa izango da.

## 14. epigrafea

Eraikuntza-lanetan zein obretan dauden eraikinetara (baita beste arrazoiren batzuegatik ere) bide publikotik ibilgailuak sartzeko behin-behineko baimen bereziak.

Sail eskudunak bide publikotik ibilgailuak sartzeko behin-behinean emandako baimen berezien arabera likidatuko dira, pasabide fiskal bakoitzeko, hileko edo hilabete-zatiko, tarifa hauen arabera:

- o 1 kategoriako tarifa .....27,16 euro.
- o 2 kategoriako tarifa .....23,54 euro.
- o Gainerako kategorietako tarifa .....25,28 euro.

### **15. epigrafea.**

Urte osorako etengabeko aparkaleku eskusiborako erreserbak, zama-lanetarako edo antzeko aprobetxamenduetarako.

Erreserba hori zimendatutako zutoin iraunkorren bidez mugatzen da, zeinek aparkaleku erreserbatuaren seinaleari eusten baitiote.

Sail eskudunak emandako okupazio-lizentziaren arabera likidatuko da, Metro linealeko edo zati eta urteko, tarifa hauen arabera:

Aplikatu beharreko tarifak:

1. eremua.....126,08 euro okupatutako metro lineal edo zatiko, urtean.
  2. eremua.....100,86 euro okupatutako metro lineal edo zatiko, urtean.
- Gainerako eremuak...67,18 euro okupatutako metroko edo metro-zatiko eta urteko.

Gutxienez 5 metro lineali dagokiona kobratuko da urtean.

**16. epigrafea.** Ibilgailuak aldi batez aparkatzeko erreserbak, ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetan.

Erreserba hori interesdunak mugatzen du seinale ez-iraunkorren bidez —"Gelditu eta aparkatzea, debekatuta" (R-307) edo "Aparkatzea, debekatuta" (R-308) seinalea—, zeinei erreserba-baimenaren fotokopia eransten baitzaie.

Sail eskudunak emandako okupazio-lizentziaren arabera likidatuko da, tarifa hauen arabera:

Hilabetetik beherako aparkaleku-erreserben kasuan, tarifa egunean okupatutako metro linealen (m/egun) arabera aplikatuko da.

Aplikatu beharreko tarifak:

1. eremua.....3,16 euro okupatutako metro lineal edo zatiko, egunean.
  2. eremua.....2,64 euro okupatutako metro lineal edo zatiko, egunean.
- Gainerako eremuak...1,85 euro okupatutako metro lineal edo zatiko, egunean.

Gutxienez 6 metro lineali dagokiona kobratuko da egunean.

Kuota hori independentea da, eta tarifaren 14. epigrafea aplikatuz galda daitekeenarekin bateragarria.

Hilabeteko edo hortik gorako aparkaleku-erreserben kasuan, obrekin zerikusia badute, tarifa hilean okupatutako metro linealen (m/hilabete) arabera aplikatuko da.

Aplikatu beharreko tarifak:

1. eremua.....58,32 euro okupatutako metro lineal, hilean.

2. eremua.....48,60 euro okupatutako metro lineal, hilean.  
Gainerako eremuak...34,02 euro okupatutako metro lineal, hilean.

Gutxienez 6 metro lineali dagokiona kobratuko da egunean.

Kuota hori independentea da, eta tarifaren 14. epigrafea aplikatuz galda daitekeenarekin bateragarria.

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Tasa edo ordaintzeko beharra honela sortzen da:

- a) Bide publikoaren ustiapen berrien kasuan, ustiapen berezia baimentzen denean, edo benetan gauzatzen denean, baldin eta behar zen baimenik gabe egin bada.
- b) Lehendik emandako ustiapen-baimenen kasuan, luzatzen direlarik, tarifan adierazitako aldietako bakoitzaren lehen egunean.

Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan ezarritako epeetan ordaindu beharko da tasa, ustiapen berezi edo erabilera pribatibo guztiak batera ordaindu ere, salbu eta 14., 15. eta 16. epigrafeetako tarifak.

### **5 bis artikulua**

% 50eko hobaria izango dute, 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 9., 13., 14., 15. eta 16. epigrafeetako tasetan, beren jardura Erdi Aroko hirigunean garatzen duten subjektu pasiboek, eremu estrategikoa izaki hori udalarentzat —bertako jarduna sustatzeagatik—, ordenantza honen eranskinean ageri diren kaleetan.

## **VI. ZERGALDIA**

### **6. artikulua**

1. epigrafetik 13.era artekoei dagozkien kuotak urtekoak dira, eta urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko dira. Nolanahi ere, erabilera pribatibo edo ustiapen bereziak ez badu urte natural osoa hartzen, hau da, urtea hasiz geroztik ekiten bazaio edo urtea amaitu aurretik bertan behera uzten, kuotak hainbanatu egingo dira, seihileko naturalak aintzat harturik, baimena ematen denekoa barne.

14., 15. eta 16. epigrafeei dagokienez, zergaldia jabari publikoa okupatzeko lizentzietan edo baimenetan ezarritako iraupenaren araberakoa izango da. Tarifak baimena ematerakoan ordainduko dira, dena delako okupazioa gauzatzeko ezinbesteko betebeharra izaki, edo hura benetan gauzatzen denetik, baldin eta behar zen baimenik gabe egin bada.

## VII. KUDEAKETA ARAUAK

### 7. artikulua

1. Ordenantza honen 4. artikuluan ezarritako tarifetan aipatzen diren kale kategoriak hauexek izango dira: 7.3. ordenantza fiskala aplikatzeari dagozkionetarako —bide publikoan mahaiak, terrazak eta aulkiak jartzea— udalak onetsia duen sailkapenean jasota daudenak.

2. Pasabide beretik erabiltzaile beraren mota desberdineko hainbat ibilgailu sartzen badira, eta, beren ezaugarriengatik, tasa desberdinak badagozkie, tasarik handiena duenari dagokion kuota aplikatuko da.

3. Pasabideak sarbidea ematen dion lokal edo lursailaren ezaugarriak aintzat harturik hura tarifaren epigrafe bat baino gehiagotan sar badaiteke, aplika litezkeen tasen arteko handiena galdatuko da.

Ondorio fiskaletarako, dena delako lokal, eraikin edo orubera ibilgailuak sartzeko baliatzen diren pasabide guztiak zenbatuko dira.

Lokal edo orubera sartzeko hutsartearen luzera 5 m-tik gorakoa bada, 5 m-ko zati bakoitza nahiz azken zatia zenbatuko dira.

4. Lokal edo establezimenduen eskualdatze edo lagapenetan, baldin eta ez badago etenik ustiapenean eta, horrenbestez, pasabidearen erabileran, tasa bakarra izango da, eta erabiltzaileek modu solidarioan ordaindu beharko diote udal administrazioari, guztien artean.

5. Pasabideak erabiltzekotan, tasa ordaintzera behartuek edo haien legezko ordezkariak alta-aitorpena aurkeztu beharko dute udal administrazioan. Orobat egongo dira behartuta baja-aitorpena aurkeztera, eta hurrengo seihilekotik aurrera izango ditu horrek ondorioak, baita egitatea benetan lehenago gertatu arren aitorpena egin ez bazen ere, sortutako kuotak ordaindu beharra izango baitute, dirua itzul dakiela edo ordainagiria baliogabetu dadila erreklamatzeko eskubiderik gabe.

6. Baimena ematen zaiolarik, ustiapenaren funtsezko baldintzak jasotzen dituen xafla bat ere emango zaio onuradunari. Xafla horren kostua haren kontura joango da.

7. Ibilgailu pasabide edo sarrera ustiatzeko ematen den baimenak ez ditu bere baitan hartuko espaloia edo zoladura egokitzeko obrak, halakorik behar denean; aitzitik, bereiz joango dira horiek. Beraz, obrak egin behar izanez gero, baimenaren titularrak udal lizentzia eskatu eta eskuratu beharko du, dagozkion eskubideak ordainduz, eta, era berean, bere gain hartu beharko ditu zoladura eta zintarriak lehengoratzeko obrak, emakida bukatzean.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

## Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

### ERANSKINA

#### Gasteizko kaleen zerrenda (tasa hau aplikatzeko)

(Udalbatzaren 2012ko abenduaren 28ko erabakia. Abenduaren 31ko ALHAO -151. zk.-)

### II. ERANSKINA

#### Erdi Aroko hiriguneko kaleak, 5. bis. artikulua aplikatzeko.

KODEA KALEA	KALEA	KODEA KALEA	KALEA
10	Aska kalea	2860	Kanpokale Berria
200	Anorbin kantoia	2950	Jauregi kalea
2959	Arrieta kalea	3020	Pedro Egaña kalea
500	Barrenkalea	3090	Pintore kalea
650	Bueno Monreal kalea	3130	Errege atea, bakotiak
1240	Txikita kalea	3430	San Anton plaza
3620	San Prudentzio Ikastetxeko kalea	3450	San Bartolomeko eskailerak
1110	Hedegile kalea	3490	San Frantzisko kalea
1180	Kuboa	3500	San Frantzisko Xabierkoaren kantoia
1190	Aiztogile kalea	3510	San Frantzisko aldapa
1300	Diputazio kalea, bikoitiak	3520	San Ignazio Loiolakoaren kalea, 1-25
3950	Tornu kalea	3530	San Ildefonso kalea
710	Frantzia kalea, bakoitiak	3560	San Markos kantoia
1620	Frai Zacarias Martinez kalea	3591	San Migeleko eskailerak
1640	Ahate Iturri plazatxo	3595	San Pedroko pasabidea
3890	Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea, bikoitiak	3630	San Roke kantoia
1870	Errementari kalea	3800	San Bizente Pauleko kalea
675	Buruileria plaza	3790	San Bizente aldapa
3920	Bakardade kantoia	3650	Santa Ana kantoia
820	Harategi kantoia	3710	Santa Maria kalea
1470	Eskola kalea	3720	Santa Maria kantoia
370	Arkupeko eskailerak	3730	Santa Maria plaza
380	Arkupeko ibilbidea	3760	Santo Domingo kalea
2421	Aihotz plazako eskailerak	3830	Apaizgaitegiko kantoia
2420	Aihotz plaza	3910	Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kalea
2540	Mateo Benigno Moraza kalea	4170	Goiuriko plaza
2850	Barnekale Berria	4260	Zapatari kalea

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**7.5 BIDE PUBLIKOAN EDO AUZO-LURRETAN ERRETEEN EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK ETA, ORO HAR, BIDE PUBLIKOKO ZOLADURA EDO ESPALOIAK URRATZEAGATIK NAHIZ BERTAN HESIAK, HABEAK, ASTOAK NAHIZ ALDAMIOAK JARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

## **I. FUNTSA ETA IZAERA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Bide publikoan edo auzo-lurretan erreten edo zangak irekitzeagatik eta, oro har, bide publikoko zoladura edo espaloiak urratzeagatik nahiz bertan hesiak, habeak, astoak nahiz aldamioak jartzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **2. artikulua**

Tasa honen zerga-egitatea bide publikoaren eta erabilera publikoko udal lursail eta ondasunen ustiapen berezi jakin bat izango da, zein baita erreten edo zangak irekitzea, zoladura edo espaloiak urratzea eta gisa horretakoak egitea, baita horretatik sortutako materialekin nahiz bestelako instalazioekin —hala nola hesiekin, aldamioekin, habeekin, astoekin eta bestelako eraikuntza-elementuekin— bide publikoa okupatzea ere.

## **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz entitateak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, baimena ematen zaien pertsona edo entitateak, baita behar zen baimena izan gabe ustiapen horri onura ateratzen diotenak ere.

## **IV. TARIFAK**

### **4. artikulua**

Tarifa hauen arabera zehaztuko dira zerga-kuotak:

- 1.** Gas, ur eta argindar hartune berriak jartzeko, kable edo hodiak bideratzeko, ixteko giltzak eta erregistroak instalatzeko, matxurak konpontzeko nahiz bestetarako zanga edo erretenak irekitzea.
  - a)** Obra berean, 5 metro arteko erreten batean, metro edo zati bakoitzeko hau ordainduko da: .....48,52 euro

**b)** Hortik gorako metro edo metro-zatiko: .....14,03 euro

- 2.** Zanga edo erretenaren zabalera metro batetik gorakoa bada, kuota horiek halako bi ordaindu beharko da.
- 3.** Biltegiak, transformadoreak, zerbitzuak, sarbide edo aireztapen putzuak eta antzekoak instalatzeko lurrazpiko ganberak, m<sup>3</sup> edo zatiko: .....16,69 euro
- 4.** Eraikuntza berrietako edonolako obra edo instalazioen aurrean, bide publikoa okupatzen delarik jarritako hesiak,  
Publizitaterik gabeko hesiak:  
m<sup>2</sup>ko edo zatiko eta hilabeteko ..... 8,37 euro

Hesiak edo obra-elementu osagarriak jarriz ustiatzen delarik bide publikoa, eta horien egituraren gainean publizitatea duten olanak, kartelak, sareak eta bestelako euskarri zurrun edo malguak jartzen, aurreko tasaz gain beste hau sortuko da:

Publizitatea duten hesiak:

m<sup>2</sup>ko edo zatiko eta hilabeteko

Kalearen kategoría 1.a .....8,74 euro

Kalearen kategoría 2.a .....7,64 euro

Kalearen kategoría 3.a .....6,55 euro

Kalearen kategoría 4.a .....5,46 euro

Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautzen duen udal ordenantza fiskala aplikatzeari dagozkionetarako onetsitako sailkapenean jasota dagoen kale-kategoría hartuko da aintzat tarifa finkatzeko.

Ez da ordaindu beharko obrak egiten dituzten enpresa sustatzaileak edo eraikitzaileak berak iragartzeko publizitate-elementuak jartzen direlarik.

Hirigintza-lizentzia eta -zerbitzuengatik ordaindu beharrekoa tasak arautzen dituen 6.1 ordenantza fiskalean ezarritakotik bereiz izango da tasa hau, eta harekin bateragarria.

- 5.** Aldamioak, bide publikoan ilaran zurrakaitzez jarriak, fatxadaren lerroarekin paralelo, 3 metrora arte txarrantxa eta zeharragarik gabe, azpitik igartzeko aukera uzten delarik, eta 3 metrotik gora hegal modura jarriak,  
Publizitaterik gabeko hesiak:  
m<sup>2</sup>ko edo zatiko eta hilabeteko ..... 4,52 euro

Aldamioak edo obra-elementu osagarriak jarriz ustiatzen delarik bide publikoa, eta horien egituraren gainean publizitatea duten olanak, kartelak, sareak eta bestelako euskarri zurrun edo malguak jartzen, aurreko tasaz gain beste hau sortuko da:

Publizitatea duten hesiak:

m<sup>2</sup>ko edo zatiko eta hilabeteko

Kalearen kategoría 1.a .....8,74 euro

Kalearen kategoría 2.a .....7,64 euro

Kalearen kategoría 3.a .....6,55 euro

Kalearen kategoría 4.a .....5,46 euro

Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautzen duen udal ordenantza fiskala aplikatzeari dagozkionetarako onetsitako sailkapenean jasota dagoen kale-kategoría hartuko da aintzat tarifa finkatzeko.

Ez da ordaindu beharko obrak egiten dituzten enpresa sustatzaileak edo eraikitzaileak berak iragartzeko publizitate-elementuak jartzen direlarik.

Hirigintza-lizentzia eta -zerbitzuengatik ordaindu beharrekoa tasak arautzen dituen 6.1 ordenantza fiskalean ezarritakotik bereiz izango da tasa hau, eta harekin bateragarria.

6. Obrak seinatzeko lekukoak, bakoitzeko, hilean: ..... 8,37 euro
7. Hesitik kanpoko habe eta asto bakoitzeko, hilean: .....32,92 euro
8. Bide publikoan, material eta hondakinen pilaketa edo bilketarako edukiontziak eta elementu lagungarriak edo osagarriak nahiz ibilgailurik gabeko motoreak jartzea. Okupatutako azalerako (luze-zabala) m<sup>2</sup>ko kobratuko da; egunean 5 m<sup>2</sup>ri dagokiona kobratuko da gutxienez.

Okupatutako m<sup>2</sup>ko edo zatiko eta eguneko edo zatiko .....0,47 euro/m<sup>2</sup> okupatu.

Edukiontzi bakoitzeko (5 m<sup>2</sup>) eguneko edo zatiko.....2,32 euro.

Epigrafe honetan adierazten diren obrak, arrazoi justifikaturik gabe, bi hilabetetik gora etenda geratzen badira, tarifa aplikatuz ateratzen diren kopuruek ehuneko 100eko gainordaina izango dute hirugarren hilabetetik aurrera; obrak bukatu arren ustiapenak bere horretan jarraitzen badu, berriz, ehuneko 200eko gainordaina izango dute.

## **V. SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

### **5. artikulua**

Interesdunek obrak egiteko nahiz tasaren objektu den ustiapenerako alde aurretik ezinbestean eskatu behar duten udal lizentzia eskuratzen dutenean sortuko da tasa, edo, behar zen baimenik gabe egin badira, ekiten zitzaizaien bertatik.

Zangak eta lurrazpiko ganberak egiteari dagozkion tasak aldi bakarrean likidatuko dira, ustiapen bakoitzeko; bestelako ustiapenei dagozkienak, berriz, hilean behin sortuko dira, eta zatietan izango dira —hileko ordainagiriaren bitartez kobratuko dira—. Zoladura lehengoratu edo berriro eraikitzearen ondorioz egiten diren likidazioak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta, jakinarazpena jasotzen dutelarik, hamabost eguneko epean ordaindu beharko dituzte haiek.

## **VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **6. artikulua**

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23.6 artikulua ildotik, autonomia erkidegoa eta toki erakundeak ez dira behartuta egongo tasak ordaintzera zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzuei atxikitako erabilera pribatibo edo ustiapen bereziengatik, ezta nazioaren defentsari nahiz hiritarren segurtasunari estu-estuan loturik daudenengatik ere.

Ehuneko 50 murriztuko dira lehendik dauden eraikinen fatxadak eraberritu, garbitu edo birgaitzeko obren ondorioz instalatu beharreko hesi eta aldamiokoei dagozkien tasak, baldin eta instalazio-aldiak hiru hilabeteko epea gainditzen ez badu.

Ehuneko 50 murriztuko dira babestutako etxebizitzak sustatzeko nahiz ekipamendu komunitarioko obretarako instalatzen diren bitarteko lagungarriei eta urbanizatzeko prozesuan dauden lurzoruetan jartzen direnei dagozkien tasak.

Ehuneko 50eko hobaria izango dute herri eskupeko lurzoruak okupatzeagatik ustiapenek, aurreko bietako bakoitzaren gainean, bitarteko lagungarriak, oso-osorik, ibilgailurik igarotzen ez den bidean instalatzen badira. Inolaz ere ezin izango da hobari hau aplikatu bere bakarrean, hots, ez bada aurretiaz aurreko paragrafoetan jasotako beste hobariren bat eskuratu.

## VII. KUDEAKETA-ARAUAK

### 7. artikulua

Tasa honen objektu diren obrak egin edo ustiapenak baliatzeko interesa duten pertsona edo entitateak behartuta egongo dira aldeztatik udal administrazioari behar den lizentzia eskatzera —obra edo ustiapenaren zer-nolakoak eta iraupena zehaztu beharko dituzte eskabidean, baita lizentzia emateko nahiz tasa kobratzeko beharrezko diren bestelako argibideak ere—.

Udalaren ikuskaritza-zerbitzuak jakinaren gainean egon daitezten eta kontrola dezaten, hasieran deklaraturako okupazio-aldian edo eragindako espazio publikoaren azalera gertatzen den aldaketa oro komunikatu beharko du interesdunak. Aldaketa horiek ez dute berekin ekarriko berariazko baimena ematea ebazpen bidez; aitzitik, emandakotzat joko da baimena, salbu eta, behar bezala arrazoitutako zirkunstantziak direla tarteko, berariaz ebazten bada ukatzea.

Deklaraturako aldakuntzek ez dute eraginik izango emandako lizentzian ageri diren —eta bide publikoa okupatzeari dagozkion— tasen likidazioan, okupazioa bukatzean egingo den likidazioa gorabehera.

Obrak bukatutakoan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du lizentziaren titularrak hilabeteko epean, eta bertan ageri beharko dute bitarteko lagungarriak bide publikoan jarri eta bertatik kendu zireneko behin-betiko datak, baita okupaturako azalera ere, behar izanez gero dagozkion tasen likidazioa egin dakion.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 8. artikulua

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **7.6 HIRIKO TRAFIKOA ETA IBILGAILUEN APARKALEKUAK ARAUTU ETA KONTROLATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hiriko trafikoa eta ibilgailuen aparkalekuak arautu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

1. Udal bideetan —aparkaldi mugatukotzat araututa dauden esparru eta aparkalekuetan— trakzio mekanikoko ibilgailuen aparkamendua antolatzeko zerbitzua eskaintzea da tasa honen zerga-egitatea; izan ere, zerbitzu hori eskaintzen delarik, ibilgailuak txandakatzea lortu nahi baita, hartara urria den ondasun baten erabilera, zein baita jabari publikoa, optimizatzeko aukera izan dadin.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira zerga honen subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki:

- a) Ibilgailuen gidariak.
- b) Ibilgailuaren gidariaren erantzule solidario gisa, haren jabea. Horri dagozkionetarako, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean noren izena ageri den, hura joko da ibilgailuaren jabetzat.

### **IV. ZERGAREN KUOTA**

#### **4. artikulua**

Tarifa hauek aintzat harturik zehaztuko dira zerga-kuotak:

#### **LEHEN TARIFA: APARKALDI MUGATUA.**

Diru-kopuru hauek ordaindu beharko dira —denbora jakin baterako eskubidea ematen du diru-kopuru bakoitzak— ibilgailuak —arau partikularretan adierazitako orduetan— aparkaldi mugatuko eremuetan uzteagatik.

Tarifa hauek aplikatuko dira 2025eko urtarrilaren 1.etik aurrera:

## **1. EREMUA**

<b>MINUTUAK</b>	<b>PREZIOA</b>
0-15	0,00 €
16-30	1,35 €
32	1,40 €
34	1,45 €
36	1,50 €
38	1,55 €
40	1,60 €
42	1,65 €
44	1,70 €
46	1,75 €
48	1,80 €
50	1,85 €
52	1,90 €
54	2,00 €
56	2,05 €
58	2,10 €
60	2,15 €
62	2,20 €
64	2,25 €
66	2,30 €
67	2,35 €
69	2,40 €
71	2,45 €
73	2,50 €
75	2,55 €
76	2,60 €
78	2,65 €
80	2,70 €
82	2,75 €
84	2,80 €
85	2,85 €
87	2,90 €
90	2,95 €

## **2. EREMUA**

<b>MINUTUAK</b>	<b>PREZIOA</b>
0-15	0,00 €
16-30	1,05 €
32	1,10 €
34	1,15 €
37	1,20 €
39	1,25 €
42	1,30 €
44	1,35 €
46	1,40 €
49	1,45 €
51	1,50 €
54	1,55 €
56	1,60 €
58	1,65 €
60	1,70 €
63	1,75 €
65	1,80 €
68	1,85 €

<b>MINUTUAK</b>	<b>PREZIOA</b>
70	1,90 €
73	2,00 €
75	2,05 €
77	2,10 €
80	2,15 €
82	2,20 €
84	2,25 €
87	2,30 €
89	2,35 €
90	2,40 €

0,05 euroren multiplo den kopurua dagokion aparkaldia baino ezin izango da eskatu.

Tarifa honekin aparkaldi mugatuko kale berean egon daitekeen gehieneko denbora 90 minutu izango da.

Ibilgailua aparkatzen den unean sortuko da kuota, horretarako txartela —TAO txartela— erosten delarik, bai paper-formatuan —bide publikoan horretarako jarritako makinetan—, bai modu birtualean, Udalak horretarako egokitzen dituen aplikazio informatikoen bitartez —Udalaren webgunean argitaratuko da horien izena, eta sarbidea emango—.

#### **BIGARREN TARIFA: MERKATARIENTZAKO TXARTELA ESKURATZEA.**

Hau izango da aparkaldi mugatuko esparruetan merkatarientzako TAO txartela duten ibilgailuei aplikatuko zaien tarifa —Lurrazaleko Aparkaldi Mugatuaren Zerbitzua arautzen duen Ordenantzan jasota dauden betebeharrak bete beharko dira hori eskuratzeko—.

Txartel hori eskuratzeko kopuru hau ordaindu beharko da urtean:

	<b>PREZIOA</b>
<b>MERKATARIENTZAKO TAO TXARTELA</b>	284,20 euro

Ibilgailuari baja eman edo eskuz aldatzen delarik, baita txartel edo baimen berrien kasuan ere, kuota hainbanatu egingo da, hura ematen den egunetik urtearen bukaerara arteko egun naturalak aintzat harturik.

Txartelari uko egiten zaiolarik ere hainbanatuko da kuota. Horretarako, txartela entregatu egin beharko da eskabidea egitean, eta egun horretatik aurrera kalkulatu da itzuli beharreko zenbatekoa.

Txartela ematean sortzen da zerga, eta kuotak ezingo dira inolaz ere murriztu, salbu eta txartela eskatu den eguna urte naturaleko lehenengoa ez bada; halakoetan kuota proportzioz kalkulatu da, txartela eman zen egunetik abenduaren 31ra bitartean dauden egunak kontuan hartuz, eta txartela ematen den egunean bertan sortuko da.

#### **BIGARREN TARIFA, BIS: Egoiliarrentzako txartela eskuratzea**

Egoiliarrentzako TAO txartela duten ibilgailuak aparkaldi esparruan aparkatzeari aplikatuko zaio tarifa hau —txartela lortzeko baldintzak ordenantzaren arau berezietan daude jasota—. Txartel hori eskuratzeko kopuru hau ordaindu beharko da urtean:

	<b>PREZIOA</b>
<b>EGOILIARRENTZAKO TAO TXARTELA</b>	45,60 euro

Urtarrilaren 1.etik sortuko da tasa, edo eranskailua eskuratzen den egunetik.

Tasa hainbanatzeari eta ordaintzeari dagokionez, bigarren tarifen bezalaxe jokatuko da.

#### **HIRUGARREN TARIFA: APARKALDIAZ GAINDIKOA ORDAINTZEA**

Lehen edo bosgarren tarifen arabera ordaindutako aparkaldia gaindituz gero ordaindu beharko da tarifa hau —jabari publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasatzat joko da—, nahiz eta horrek ez dituen galaraziko jokabideak berekin lekartzakeen salaketak eta hura zigortzeko administrazio prozedurak.

Bide publikoan horretarako jarritako makinetan ordaindu beharko da kuota, edo Udalak egokitutako aplikazio informatikoen bitartez —Udalaren webgunean argitaratuko da horien izena, eta sarbidea emango—.

Inolaz ere ez da itzuliko ordaindutako tasa isuna deuseztatzea bidezko ez den kasuetan, eta, bereziki, TAO txartela eskuratu edo jarri ez denean, 15 minutuko doako txartela denean edo aparkatzeko denbora gainditzeagatik jarritako salaketa indargabetzeko emandako gehienezko denbora gainditu bada, hots, 2 ordukoa, TAO txartelak baimentzen zuen denbora-muga gainditzen den unetik hasita.

	<b>PREZIOA</b>
<b>APARKALDIAZ GAINDIKOA ORDAINTZEA</b>	6,60 euro

#### **LAUGARREN TARIFA: APARKALDI MUGATUA LEKU BEREZIAN**

Kasuan kasu, adierazten den diru-kopurua ordaindu beharko da ibilgailua ondoren adierazten diren lekuetakoren batean uzteagatik —denbora jakin baterako eskubidea ematen du horrek—:

	<b>PREZIOA</b>
<b>RENFE (90 minutu)</b>	3,00 euro

Tarifa honen baitako lekuen sarreran gehienezko denbora muga adierazten duen seinalea izango da, eta hori izango da ibilgailu jakin batek bertan gehienez eman ahal izango duen denbora.

Ibilgailua aparkatzen den unean bertan sortuko da kuota, eta leku horietako bakoitzean horretarako izango den kontrolatzaileari eskatu eta erosi beharko zaio txartela.

Kobrantsak ordu erdiko tarteen arabera egingo dira, 90 minutura arte gehienez ere.

## BOSGARREN TARIFA: ZERBITZU-TARIFA

Merkataritza, industria eta zerbitzu jardueri atxikitako ibilgailuak aparkatzeari aplikatuko zaio, ibilgailu horiek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagozkionetarako 'auto' kalifikazioa ez dutelarik.

Tarifa honekin aparkaldi mugatuko kale berean egon daitekeen gehieneko denbora 240 minutu izango da.

Tarifa hau aplikatuko da:

Denbora (minutuak)	1. eremuko zerbitzuak
0-15	0,00 €
16-30	1,35 €
32	1,40 €
34	1,45 €
36	1,50 €
38	1,55 €
40	1,60 €
42	1,65 €
44	1,70 €
46	1,75 €
48	1,80 €
50	1,85 €
52	1,90 €
54	2,00 €
56	2,05 €
58	2,10 €
60	2,15 €
62	2,20 €
64	2,25 €
66	2,30 €
67	2,35 €
69	2,40 €
71	2,45 €
73	2,50 €
75	2,55 €
76	2,60 €
78	2,65 €
80	2,70 €
82	2,75 €
84	2,80 €
85	2,85 €
87	2,90 €
90	2,95 €
92	3,00 €

Denbora (minutuak)	2. eremuko zerbitzuak
0-15	0,00 €
16-30	1,05 €
32	1,10 €
34	1,15 €
37	1,20 €
39	1,25 €
42	1,30 €
44	1,35 €
46	1,40 €
49	1,45 €
51	1,50 €
54	1,55 €
56	1,60 €
58	1,65 €
60	1,70 €
64	1,75 €
66	1,80 €
69	1,85 €
71	1,90 €
74	2,00 €
77	2,05 €
79	2,10 €
82	2,15 €
85	2,20 €
87	2,25 €
90	2,30 €
94	2,35 €
99	2,40 €
103	2,45 €
108	2,50 €
113	2,55 €
117	2,60 €
122	2,65 €
126	2,70 €

<b>Denbora (minutuak)</b>	<b>1. eremuko zerbitzuak</b>
97	3,05 €
101	3,10 €
106	3,15 €
110	3,20 €
115	3,30 €
119	3,35 €
124	3,40 €
128	3,45 €
133	3,50 €
138	3,55 €
142	3,60 €
147	3,65 €
151	3,70 €
156	3,75 €
160	3,80 €
165	3,85 €
170	3,90 €
174	3,95 €
179	4,00 €
183	4,05 €
188	4,10 €
192	4,15 €
197	4,20 €
201	4,25 €
206	4,30 €
211	4,35 €
215	4,40 €
220	4,45 €
224	4,50 €
229	4,60 €
240	4,70 €

<b>Denbora (minutuak)</b>	<b>2. eremuko zerbitzuak</b>
131	2,75 €
135	2,80 €
140	2,85 €
145	2,90 €
149	2,95 €
154	3,00 €
158	3,05 €
163	3,10 €
168	3,15 €
172	3,20 €
177	3,30 €
181	3,35 €
186	3,40 €
191	3,45 €
195	3,50 €
200	3,55 €
204	3,60 €
209	3,65 €
214	3,70 €
218	3,75 €
223	3,80 €
227	3,85 €
232	3,90 €
237	3,95 €
240	4,00 €

## **V. SORTZAPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

### **5. artikulua**

Adierazitako trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko bide publikoetan —Lurrazaleko Aparkaldi Mugatuaren (TAO) zerbitzua arautzen duen ordenantzan zehaztutako eremuen baitako bide publikoetan, zein Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 18an hartu eta 20koko ekainaren 13ko ALHAOn (69 zk.) argitaratutako erabakian aldatu baitzen— aparkatzen direlarik sortzen da tasa, eta hori ordaintzeko beharra.

Lehen eta bosgarren tarifetako kuoten ordainketa TAO txartelen bitartez egin beharko da, bide publikoan horretarako jarritako makinetan erosiz edo Udalak egokitutako aplikazio informatikoen bitartez —Udalaren webgunean argitaratuko da horien izena, eta sarbidea emango—.

Ordenantza hau aplikagarri den lekuetan behar den txartelik gabe aparkatzen badira ibilgailuak, edo dena delako txartela faltsutua, baliogabetua edo iraungia badago, isuna jarriz zigortuko da, 2013ko azaroaren 29ko —2014/1/3ko ALHAO— Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzan xedatutakoaren ildotik —Eranskina: Arau-hauste eta zigorren taula.

Ibilgailua araututako lekuan aparkatzen duten gidariek ordaindu beharko dituzte ordenantza honetako lehen laugarrenean eta bosgarrenean adierazitako tasak.

Bigarren eta bigarren bis tarifei dagokien tasa ibilgailuaren titularrak ordaindu beharko du.

Erositako txartelak baimentzen duen denbora gainditzen delarik ordaintzekoa den hirugarren tarifa bide publikoan horretarako jarritako makinetan ordaindu ahal izango da, edo Udalak egokitutako aplikazio informatikoen bitartez —Udalaren webgunean argitaratuko da horien izena, eta sarbidea emango

Denbora neurtzeko, txartela erosi den makinak markatzen duen ordua izango da balio duen bakarra baldin eta bertan ordaintzen bada; Udalak horretarako egokitutako aplikazio informatikoak baliatuz gero, berriz, horiek adierazten dutena.

"Egoiliar" edo "merkatari" bereizgarria galduz gero, txartel berria eskuratu ahal izango du titularrak, baldin eta zinpean aitortzen badu galdu egin duela. 6 euro ordaindu beharko ditu aldez aurretik.

## **VI. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **6. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**"Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk."**



## **7.7 BIDE PUBLIKOKO LURZORU, LURPE ETA GAINAK OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Bide publikoko lurzoru, lurpe eta gainak okupatzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Erabilera publikoko bide publiko, lursail eta ondasunetako lurzoru, lurpe eta gainen ustiapen berezia da tasa honen zerga-egitatea; zehazki, horiek honelakoak jarritz okupatzea: kableak, hodiak, argindar, ur eta gas eroanbideak, zerbitzu galeriak, lurpeko ganbera eta konektoreak, aldagailuak, erregaienezako eta bestelako jariakinentzako tanke eta biltegiak, habeak, euskarriak, airetiko lineak, lotze, banatze eta miatze zuloak, baskulak eta salmenta automatikorako tresnak, biltegiak, hornigailuak, argazki kabinak edo beste edozein instalazio.

Mantendu eta zaintzea, osorik nahiz partez, udalaren ardurapean dagoen bideak oro joko dira udal bidetzat.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Arabako lurralde historiko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak nahiz erakundeak izango dira subjektu pasiboak, zergapeko gisa, eta, bereziki, lizentzia ematen zaien pertsona edo erakundeak, baita erabilera edo ustiapen horri etekina ateratzen diotenak ere.

### **IV. ZERGAREN KUOTA**

#### **4. artikulua**

Tarifa hauen arabera zehaztuko da:

## LEHEN TARIFA.- Eroanbideak

1. Gehienez hiru eroale eta neutro bat duten tentsio txikiko argindar eroanbideen metro edo metro-zatiko hau ordaindu beharko da, urtean:

	<u>Lurpekoak</u>	<u>Airetikoak</u>
a) 10 mm <sup>2</sup> arteko sekzioa .....	0,09 euro .....	0,13 euro.
b) 11 mm <sup>2</sup> tik 50era arteko sekzioa .....	0,13 euro .....	0,27 euro.
c) 51 mm <sup>2</sup> tik 200era arteko sekzioa .....	0,21 euro .....	0,46 euro.
d) 201 mm <sup>2</sup> tik 500era arteko sekzioa .....	0,49 euro .....	0,68 euro.
e) 500 mm <sup>2</sup> tik gorako sekzioa .....	0,98 euro .....	1,16 euro.

Lurpeko instalazioak hainbat eroanbide hartzen dituen hodi baten baitan jartzen direlarik, linea guztien sekzioen batura hartuko da likidazio-oinarritzat.

Airetiko lineetan, hiru eroale eta neutro bateko multzo bakoitza linea berritatzat joko da, eta eroanbide guztien sekzioen batura joko da likidazio-oinarritzat.

2. Berariaz tarifatu gabeko kable eta hodiak, metro edo metro-zatiko, urtean:

- o Lurpekoak..... 0,21 euro.
- o Airetikoak..... 0,39 euro.

## BIGARREN TARIFA.- Hodiak

Jariakinak edo solidoak eroateko lurpeko hodian metro edo metro-zatiko, urtean:

a) 50 mm arteko diametroa .....	0,19 euro.
b) 51 mm-tik 100era arteko diametroa.....	0,31 euro.
c) 101 mm-tik 200era arteko diametroa .....	0,64 euro.
d) 201 mm-tik 500era arteko diametroa .....	1,70 euro.
e) 500 mm-tik gorako diametroa .....	6,17 euro.

## HIRUGARREN TARIFA.- Aldagailuak

Argindar aldagailuak, bide publikoaren gainean:

- a) 20 m<sup>2</sup>tik gora hartzen ez badu, urtean: .....113,99 euro
- b) 20 m<sup>2</sup>tik gora hartzen badu, urtean: .....204,45 euro

Lurpeko aldagailu bakoitzeko, urtean: .....179,00 euro

## LAUGARREN TARIFA.- Bestelako instalazioak

- 1. m<sup>2</sup> erdira arteko miazte zuloak, bakoitzeko, urtean: ..... 7,73 euro
- m<sup>2</sup> erditik gorako miazte zuloak, bakoitzeko, urtean: .....14,81 euro

2. Tentsio handiko banatze edo bideratze kutxak, lurpean: ..... 7,73 euro
3. Salmenta makinak, baskula automatikoak eta antzekoak, txanponekin funtzionatzen dutenak, bakoitzeko, urtean: .....58,69 euro  
Aparatu horiek berak, udal eraikin edo lokaletan jarriz gero: .....87,88 euro
4. Gasolina hornigailuak, labaintzaileak, haizea ematekoak eta abar, urtean: 156,58 euro
5. Garoa jotzeko larrainak, herri lurretan, urtean: .....21,82 euro
6. Argazki kabinak, m<sup>2</sup> edo zatiko, urtean: .....78,03 euro
7. Toberak, estalkiak eta koipe astunak, ikatza eta antzekoen husteko ahoak, bakoitzeko:
  - a) m<sup>2</sup> erditik gora hartzen ez badu, urtean: .....19,84 euro
  - b) m<sup>2</sup> erditik gora hartzen badu, urtean: .....49,29 euro
8. Kalearen gaina hartzea, m<sup>2</sup>ko: ..... 0,70 euro

#### **BOSGARREN TARIFA**

Udal lurpea aurreko tarifetan aipatu gabekoetarako erabiltzen delarik, tasa hau sortuko da:

- o metro edo metro-zatiko ..... 0,92 euro

#### **SEIGARREN TARIFA**

**1.** Hauxe da tasa honen zerga-egitatea: bide publikoetako lurzorua, gaina nahiz lurpea gordailu-erakundeen edo bestelako finantza-erakundeen fatxadetan kutxazain automatikoak jartzeko baliatzea, zerbitzua bide publikoan ematen bazaio bezeroari.

**2.** Aurreko atalean adierazitako ezaugarriak dituzten kutxazain automatikoengatik tasa hau ordaindu beharko da:

Bakoitzeko, urteko baimena .....430,47 euro.

**3.** Erabiltzaileari zerbitzua bide publikoan eskaintzeko asmoz fatxadetan kutxazain automatikoak jarriak dituzten gordailu-erakundeak eta bestelako finantza-erakundeak egongo dira tasa ordaintzera behartuta

### **V. SORTZAPENA**

#### **5. artikulua**

Ustiapena baimentzen duen udal lizentzia edo emakida ematearekin batera sortuko da ordaintzeko obligazioa, edo okupazioa gauzatzen denean, behar den lizentziarik gabe egiten bada.

Ordenantza honetako tarifan adierazitako kuotak urtekoak, murriztu ezinak eta banatu ezinak dira, eta urteko lehen egunean joko dira sortutzat, salbu eta ordaintzeko obligazioa gerora sortzen delarik, obligazio hori sortzen den unean joko baita sortutzat kuota halakoetan.

## **VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

### **6. artikulua**

Ez da inongo salbuespen edo hobaririk onartuko, tasa hau ordainarazteari dagokionez.

## **VII. KUDEAKETA ARAUAK**

### **7. artikulua**

1. Ordenantza honetan arautzen diren ustiapenentarako lizentzia eskuratu nahi duten pertsona natural nahiz juridikoek egin nahi dituzten instalazioen deklarazio zehatza aurkeztu beharko dute Bide Publikoaren Zerbitzuan, epeak ere adierazten dituztelarik.

2. Zerga Kudeaketarako Zerbitzua arduratuko da tasa hau kudeatzeaz eta behar diren likidazioak egiteaz —tasaren errolda edo erroldak eratuko ditu horretarako, behar izanez gero—, eta orobat jaulkiko ditu ordainagiriak, tasa kobratzeko.

3. Erabilera pribatuak edo ustiapen bereziak udal ondasunei kalterik ekar baliezaieke, kalte horiei aurre egiteko egokitzat jotzen duen diru-kopurua gordailu uztea galdatu ahal izango du Gasteizko Udalak, ordaindu beharreko tasa ordainarazteaz gain.

4. Nolanahi ere, ondasunak lehengoratu edo konpon daitezela galdatuko du Gasteizko Udalak. Konpontzerik ez badago, suntsitutako ondasunen balioaren edo hondatutakoa konpontzeko behar den diru-kopuruaren pareko kalte-ordaina jasoko du udalak.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**7.8 INTERES OROKORREKO HORNIKUNTZA-ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK EGITEN DUTEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua.**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Interes orokorrekoak diren edo auzotar guztiei edo gehienei eragiten dieten hornikuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bide publikoen lur, lur azpi eta airearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

1. Hauxe izango da tasa honen zerga-egitatea: interes orokorreko hornikuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten eta auzotar guztiei edo gehienei eragiten dieten zerbitzuak dituzten enpresek udal jabari publikoko lurzorua, lur-azpiaren edo gainaldearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea.

2. Jabetza publikoaren aprobetxamendu berezia hornikuntzarako bide publikoen lurra, lur azpia edo airea hartzen duten antena, instalazio edo sareak jarri behar diren guztietan gertatuko da.

3. Aurreko ataletan adierazitako zerbitzuen artean, honakoak bilduko dira, bereziki: ura, gasa, elektrizitatea, telefonia finkoa eta bestelako komunikabideak hornitzeko udal jabetza publikoa hartzen duten sare eta antena finkoak guztiz edo hein batean baliatzen dituztenak.

4. Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeak berekin dakar interes orokorreko hornikuntza zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoa den bide publikoetako lur, lur azpi edo airearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik sortutako beste tasak ordaintzetik kanpo geratzea.

**III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

**3. artikulua**

1. Interes orokorrekoak diren edo herritar guztiei edo gehienei eragiten dieten hornikuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde edo enpresak dira subjektu pasiboak, esaterako ura, gasa, elektrizitatea, telefonia finkoa eta antzekoak hornitzen dituztenak. Halaber izango dira, komunikazio sarea zuntz optikoz, kable bidez edo beste edozein teknika sistemez ustiatzen dituzten enpresak, izaera publiko edo pribatukoak izan gorabehera.

Horretarako, horien barne sartzen dira zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere.

2. Aurreko atalean aipatzen diren enpresa edo ustiapen-erakundeak izango dira subjektu pasiboak.

3. Bestalde, tasa honen subjektu pasibo izango dira, merkatuan komunikazio sare bat ustiatu edo zerbitzua eskaintzen duten erakunde edo enpresa publiko eta pribatuak, telekomunikazioen arloko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorraren 6. artikuluan eta bestetan ezarritakoaren haritik.

4. Aurreko ataletan aurreikusitakoa ezargarri ez duten sare fisikoen enpresa titularrak bide publikoaren lurra, lur azpia eta airea okupatzeagatiko tasaren menpe daude, zein dagokion ordenantza fiskalean araututa baitago.

#### 4. artikulua

1. Desegin eta likidatutako sozietate eta erakundeek ordaintzeko dituzten zerga-betebeharrak bazkide, partaide edo titular-kideei igorriko zaizkie, eta modu solidarioan egongo dira horiei aurre egitera behartuta, muga hauetan:

- Ondarearen gaineko erantzukizunak mugarik ez badu, zor guztiaren zenbatekoa.
- Erantzukizuna legez mugatu bada, dagokien likidazio kuotaren balioa.

Likidatu gabe egonik ere, sozietate edo erakundearen nortasun juridikoa iraungitzen deneko zorrak eskualdatu ahalko dira.

2. Likidatu gabe iraungi edo desegin diren merkataritza sozietateen zerga-betebeharrak oinordekoei edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie.

3. Fundazioak edo Zerga Lege Orokorreko 35.4 artikuluan aipatutako erakundea desegitean bete gabeko zerga-betebeharrak badira, fundazio horien edo erakunde horien bazkide edo titular kideen ondasun eta eskubideen oinordekoei eskualdatuko zaizkie.

4. Aurreko ataletan aipatutako sozietate eta erakundeek egindako arau-hausteengatiko isunak haien oinordekoei eskatuko zaizkie, dagokien likidazio kuotaren balioaren mugara bitartean.

5. Honako pertsona edo erakundeek modu solidarioan erantzungo diote zerga zorrari:

- Zerga arau-haustearen egile direnak edo aktiboki horretan parte hartu dutenak. Erantzukizuna isunari ere badagokio.
- Zerga Lege Orokorren 35.4 artikuluan jaso diren erakundetako bazkide edo titular kideak, duten partaidetzaren proportzioan.
- Edozein arrazoi tarteko ustiapen ekonomikoen titulartasuna oinordetzan hartu dutenek, aurreko titularraren zerga-betebeharrak eta jardunetik sortutakoak direla eta.

Erantzukizunetik kanpo geratzen dira konkurtso prozedura bidez egindako eskuratzeak.

6. Zerga zorraren erantzule subsidiarioak izango dira honakoak:

a) Pertsona juridikoen izatezko edo eskubidezko administratzaileak, zerga-betebeharrak betetzeko dituzten zereginetako egintzak egin ez badituzte. Muga hauek izango dituzte:

- Zergen alorreko arau-hausteak egin badira, zor diren zergen eta isunen erantzule izango dira.
- Jarduerak eten badira, data horretan zor diren zerga-betebeharren erantzule izango dira, baldin eta ordaintzeko egin beharrekoak bete ez badituzte edo ez ordaintzea ekarri duten neurriak hartu badituzte.

b) Konkurtso-administrazioko kideak eta aurretik sortutako zerga-betebeharrak betetzeko beharrezko ziren kudeaketak egin ez dituzten sozietate eta erakundeetako likidatzaileak.

7. Erantzukizuna Zerga Lege Orokorrean ezarritako prozedurari eta moduari jarraiki eskatuko da beti ere.

## IV. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTA

### 5. artikulua

1. Aprobetxamendu berezia egiten duen subjektu pasiboa bide publikoaren lurrazala, lur azpia eta airea okupatzen duen sarearen titularra bada, ordenantza honetako 3. artikuluan adierazitako enpresa edo erakundeek udalerrian urtero lortzen duten diru-sarrerara gordina izango da zerga oinarria.

2. Subjektu pasiboak aurreko paragrafoan aipatutako aprobetxamendu berezirako bereak ez diren sareak erabili baditu, udalerrian urtero lortzen duen diru-sarrerara gordinari kendu egingo zaio sare hori erabiltzeagatik sare horren titularrari ordaindu beharrekoa, eta geratzen den kopuru hori izango da tasaren zerga oinarria.

3. Aurreko paragrafoetan xedatutakoari dagokionez, honakoak izango dira fakturaziotik lortutako diru-sarrerara gordinak: erakundeari egozgarriak izanik, ohiko jarduerak burutzean udalerrian eskainitako zerbitzuen ordain gisa lortutakoak. Aparteko jarduera edo egintzen bitartez lortutako diru-sarrerak bakarrik geratuko dira kanpo.

Honako kontzeptuengatik lortutako fakturak joko dira, esaterako, diru-sarrerara gordintzat:

- Enpresaren jardunekoak diren interes orokorreko hornikuntza edo zerbitzuak, udalerrian abonatuak egindako kontsumoei dagozkienak.
- Kontsumitzaileei interes orokorreko zerbitzua edo hornikuntza izateko eman diren ezinbesteko zerbitzuak, enpresaren beraren objektu direnak. Honek barne hartzen ditu: sareko lotuneak, abian jartzea, onik zaintzea, aldatzea, konexioa egin eta kentzea eta kontagailuen edo enpresaren instalazioak aldatzea.
- Subjektu pasiboa den erakundearen sarea erabiltzeagatik beste zerbitzu-enpresa batzuegandik jasotako alokairu, kanon edo interkonexio eskubideak.
- Kontsumitzaileek kontadoreak edo zerbitzua emateko erabilitako beste bitarteko batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharreko alokairuak.
- Enpresa hornitzaileen berezko jardunen zerbitzuetatik lortzen diren diru-sarrerak.

4. Ondorio hauetarako ez dira diru-sarrerara gordintzat joko eskainitako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta ere besteren kontura kobratutako kopuru eta partidak ere, tasaren subjektu pasibo den erakundearen diru-sarrerara propio ez badira.

5. Ez dira diru-sarrerara gordintzat joko honako kontzeptuengatik lortutako diru-sarrerak:

- Enpresek jaso ditzaketen ustiapen edo kapital arloko diru-laguntzak
- Kalte eta galerengatik eskatutako ordainak, salbu eta kobratu gabeko konpentsazio edo kontraprestazioak izanik 3. atalean zehaztutako diru-sarrerara gordinen atalean jasotzekoak diren.
- Finantza arloko diru-sarrerak, esaterako, interesak, dibidenduak edo antzeko izaerako beste edozein.
- Enpresak bere ibilgeturako egindako lanak
- Bere ondarearen ondasun eta eskubideak besterentzetik lortutako kopurua.

6. Ordenantza honetako 3. artikuluan adierazitako enpresa edo erakundeei eska dakizkien ordenantza honetako tasak bateragarriak dira enpresa horiek subjektu pasibo izanik udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik udalak dituen edo ezar ditzakeen beste tasa batzuekin.

7. Tasa zehazteko ehuneko 1,5 ezartzen zaio artikulua honetan zehaztutako zerga oinarriari.

## **V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

### **6. artikulua**

1. Zergaldia urte naturalarekin bat dator, hornikuntza edo zerbitzua emateko jabetza publikoaren erabilera bereziarekin hasi edo horri amaiera ematen zaionean izan ezik. Orduan, hiru hileko hainbanaketa egingo da, honako arauari jarraiki:

- Jarduera hasteagatiko altei dagokienez, ekitaldia amaitzeko falta diren hiru hilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta gertatzen deneko hiru hilekoa barne delarik.
- Jarduera eteteagatiko bajei dagokienez, ekitaldia hasi zenetik igaro diren hiru hilekoei dagokien kuota likidatuko da, baja gertatzen deneko hiru hilekoa barne delarik.

2. Ordenantza honetan araututako ordainketa betebeharra noiz sortzen den:

- Aprobetxamendu berrietarako emakida edo baimenak badira, dagokien baimena eskatzeko unean.
- Ordenantza honetako lehen artikuluan adierazi den aprobetxamendu bereziak lizentziarik edo baimenik behar ez badu, aprobetxamenduari ekin zaion unean. Horretarako, eskaera egiten duten erabiltzaileei zerbitzua ematen hasten den unea joko da aprobetxamendu bereziaren hasieratzat.

3. Bide publikoetako lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia hainbat ekitalditan zehar egiten bada, tasaren zorbidea urte bakoitzeko urtarrilaren lehenean gertatuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du.

## **VI. DEKLARAZIO-ERREGIMENA ETA ORDAINKETA**

### **7. artikulua.**

1. Ordenantza honetako 6. artikuluan araututako hornikuntza zerbitzuei dagokienez, autolikidazio erregimena ezartzen da hornikuntza mota guztietarako. Hau hiru hilerokoa izango da eta dagokion hiru hileko naturalean fakturatutako diru sarrera gordinak hartuko ditu barne. Interes orokorreko edozein zerbitzu edo hornikuntza emateari uzteak berekin dakar dagokion hiru hilekoko autolikidazioan gertaera horren berri emateko beharra baita noiz utzi zaion adieraztea ere.

2. Azken aitortpena hiru hileko naturala amaitu eta hurrengo hilabeteko azken egunean aurkeztuko da, edo horren ondo-ondoko hurrengo egun baliodunean. Udalerrian egindako hornikuntza mota bakoitzeko autolikidazio bat aurkeztu beharko da Gasteizko Udalean, eta bertan zehaztu behar da zerga-oinarria osatzen duten talde bakoitzarengatik jasotako diru-sarreraren bolumena, Ordenantzaren 6.3 artikuluan jasotakoari jarraiki. Aipatutako artikuluko c) letraren kontzeptuari dagozkion xehetasunetan identifikatu egin behar dira ordainsari gisa dirua fakturatu zaien zerbitzu-enpresak.

Tasa honi dagozkion azken aitortpenak Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan egingo dira, bai eta ordaindu ere.

6.3 artikuluko a) atalean adierazitako hornikuntzengatik aitortutako diru sarreraren zenbateko guztia ezin izango da udalerrian kokatutako kontagailuetan edo neurtzeko bestelako tresnetan erregistratutako kontsumoen batuketara baino baxuagoa izan.

3. Beste batzuen sareak erabiltzen dituzten enpresek sare horien jabeek ordaindutakoa egiaztatu beharko dute, ordenantza honetako 6.2 artikuluan aipatutako diru-sarreraren jaitziera justifikatze aldera. Egiaztatze horrekin batera, erabilitako sarearen jabea den enpresa edo erakundea identifikatu behar da.

4. Interesatuari diru-sarrera agiri bat emango zaio, kuota bertan adierazten diren leku eta epeetan ordaintzerik izan dezan.

5. Autolikidazioak artikuluko 2. puntuan adierazitako epea baino beranduago aurkezten badira, garaiz kanpoko izateari dagozkion gainordainak eskatuko dira, Zerga Lege Orokorreko 27. artikuluan ezarritakoaren haritik.

6. Telefónica de España SAU enpresak —zeini Telefonica SAK Espainiako oinarrizko telekomunikazio-zerbitzuei dagozkien titulu gaitzaileak laga baitzizkion— ez du tasa hau ordaindu beharko; izan ere, zenbateko hori Gasteizko Udalari ematen dion diru-sarrera gordinen ehuneko 1,9ko konpentsazioak barne hartzen baitu.

Telefónicaren taldeko gainontzeko enpresek ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharko dute.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **8. artikulua**

1. Tasa hau zuzen autolikidatzeetik sortzen den zerga-zorra Ordenantza honetan ezarritako epeetan ordaintzen ez bada, Zerga Lege Orokorreko 191. artikuluan zehaztutako arau-haustea ekarriko du, eta artikuluko horretan jasotakoaren arabera sailkatu eta zigortuko da.

2. Tasa hau kudeatu, ikuskatu eta biltzeko prozeduretan egin daitezkeen gainontzeko zerga arau-haustek honako lege eta araudien bidez sailkatu eta zigortuko dira: Zerga Lege Orokorra, zerga kudeaketa eta ikuskaritza arloko jardun eta prozeduren inguruko araudi orokorra (1065/2007 Errege Dekretu bidez onetsia) eta udalaren Zuzenbide Publikoko diru-sarreraren Gestio, Ikuskaritza eta Zerga-bilketari buruzko Ordenantza Orokorra.

3. Tasa hau likidatzeko beharrezkoak diren agiri eta aitortpenak zuzen eta osorik ez aurkezteak Zerga Lege Orokorreko 192. artikuluan zehaztutako arau-haustea ekarriko du, eta artikuluko horretan jasotakoaren arabera sailkatu eta zigortuko da.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**7.9 BIDE PUBLIKOAREN GAINENKO EDO FATXADA-LERROTIK KANPOKO TRIBUNA, OLANA, BALKOI, ERROTULU, BEHATOKI ETA ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua.**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Bide publikoaren gaineko edo fatxada-lerrotik kanpoko tribuna, olan, balkoi, errotulu, behatoki eta antzeko instalazioengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua.**

Hauxe da tasa honen zerga-egitatea: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia, bai lizentzia, baimen edo emakiden ondorio delarik, bai erabilera edo ustiapena arauzko baimena eskatu gabe gauzatzen delarik.

**III. SUBJEKTU PASIBOA ETA ERANTZULEAK**

**3. artikulua.**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta ustiapen bereziaren tasen subjektu pasiboak, zergadun diren aldetik, honako hauek dira: Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoak eta entitateak, udal jabari publikoa onura partikularrerako baliatzen, erabiltzen edo ustiatzen dutelarik.

**IV. ZERGA-OINARRIA**

**4. artikulua.**

Honako hauek izango dira ordenantza honetan arautzen diren tasak kobratzeko oinarri: dena delako instalazioaren elementuen zer-nolako eta ezaugarriak, hura instalatzen den bide publikoaren kategoria, ustiapenaren iraunaldia eta hartzen duen azalera —lizentzia dela medio baimendua nahiz baimenik gabe jarria izan—, eta, horrez gain, ustiapenaren ondorio den erabilerak merkatuan izango lukeen balioa ere aintzat hartuko da, erreferentzia gisa.

Ekonomi Jardueren gaineko Zergarako kalifikazio bera baliatuz zehaztuko da kalearen kategoria.

## V. ZERGAREN KUOTA

### 5. artikulua.-

Hauxe izango da zergaren kuota, artikulua honetan adierazten denaren ildotik: tarifa bat aplikatuz ateratzen den kopurua, ezartzen den kopuru finkoa edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

TARIFAK:

ERAKUSLEIHOAK, DEKORAZIO-AITZINALDEAK, OLANAK, MARKESINAK ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK	KALEAREN KATEGORIA	KUOTA
1. Erakusleihoak, erakusgaiak, dekorazio-aitzinaldeak, erakusleihen itxitura eta instalazio osagarriak edo ordezkioak, fatxadaren luzeraren metro bakoitzeko nahiz azken metro zatiagatik, bide publikoaren kategoriaren arabera, urtean	1	85,12 euro
	2	74,02 euro
	3	62,91 euro
	4	48,85 euro
2. Olanak, fatxadaren luzeraren metro bakoitzeko nahiz azken metro zatiagatik, bide publikoaren kategoriaren arabera, urtean	1	15,61 euro
	2	13,57 euro
	3	11,53 euro
	4	8,95 euro
3. Markesinak, m <sup>2</sup> ko nahiz azken zatiagatik, bide publikoaren kategoriaren arabera, urtean	1	75,66 euro
	2	65,80 euro
	3	55,93 euro
	4	43,42 euro
4. Ustiapen edo erabilera pribatiboa —behatoki, galeria eta balkoiak—, m <sup>2</sup> ko nahiz azken zatiagatik, bide publikoaren kategoriaren arabera, urtean	1	63,05 euro
	2	54,82 euro
	3	46,60 euro
	4	36,18 euro
5. Errotuluak, idazkunak eta leiho-balkoietako zintzilikariak, bide publikoaren gainean proiektatzen duten azaleraren m <sup>2</sup> ko nahiz azken zatiagatik, urtean	1	68,09 euro
	2	59,22 euro
	3	50,33 euro
	4	39,08 euro

### 6. artikulua.

Balkoi, galeria edo behatokiek jabari publikoaren gaina hartzen badute, aurreko artikuluan finkatutako tasak ordaindu beharko dira —behin bakarrik, urtebeteri dagokiona—, dena delako obra-lizentzia ematen denean.

Horretarako, solairu bakoitzeko behatoki, galeria edo balkoien neurketa oinean egingo da, kanpoko marrak mugatzen duen —eta ahalik eta alderik gutxien izan beharko dituen— irudi geometriko erregular nahiz irregularraren azalera kalkulatu eta guztienak batuz.

## **7. artikulua.**

Bide publikoa errotulu eta iragarkiekin hartzen delarik, proiektatzen duten irudi geometrikoaren azalera kalkulatu neurtuko dira horiek, erregularrak nahiz irregularrak izan. Fatxada-lerrotik 10 cm baino gutxiago irteten diren iragarki eta errotuluengatik ez da tarifarik ordainduko; aldiz, 10 cm baino gehiago irteten direnengatik hartzen den azalera osoari dagozkion tarifak ordaindu beharko dira, epigrafe honetako arauari jarraiki.

## **VI. SORTZAPENA**

## **8. artikulua.**

Tasa edo ordaintzeko beharra sortzen da erabilera edo ustiapen berezia dakarren lizentzia, baimena edo emakida ematen den unean, edo erabilera hori egiatan gauzatzen den unean, behar den baimena eskatu gabe egin bada.

## **VII. KUDEAKETA ARAUAK**

## **9. artikulua**

Lizentzia edo baimen eskabideak nahiz aurretiko komunikazio edo erantzukizunpeko aitortpenak sistema telematikoen bitartez aurkezten badira, likidazioa onartu eta sistema telematikoan eskuragarri jartzen den eguna joko da tasa-likidazioaren jakinarazpenaren datatzat eta, horrenbestez, ordaintzeko borondatezko epearen hasiera-datatzat.

## **VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

## **10. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **I. FUNTSA ETA IZAERA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Hilerrian eraikuntzak lagatzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **2. artikulua**

Ondoren adierazten diren zerbitzuetako edozein ematea izango da tasa honen zerga-egitatea.

## **III. SUBJEKTU PASIBOAK**

### **3. artikulua**

Hilobi, horma-hilobi eta panteoien gaineko eskubideen izenburuetan adierazten diren zerbitzuetako edozein eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira subjektu pasiboak.

## **IV. ZERGAREN KUOTA**

### **4. artikulua**

Tarifa hauen arabera zehaztuko da:

#### **A) HILOBI ESKUBIDEAK LAGATZEA, EREMU KOMUNEAN**

Lurrean edo hilobi komunetan ehorzteko lursail lagapenak aldi baterako hileta-eskubidetzat joko dira, eta ez da tasarik sortuko halakoengatik.

Lagapenak 10 urte iraungo du gehienez; epea igarotakoan, gorpuzkiak bertatik atera eta hezurtegi komunera eramango dira, baldin eta lagapen epea bukatzen den eguna baino hiru hilabete lehenago beste hilobi batean ehorzteko eskatzen ez bada; kasu horretan, zerbitzu horri dagozkion tasak ordaindu beharko dira.

## B) HILOBI LAGAPEN EDO ESKUBIDEAK

	25 urterako	Aurrealdean	50 urterako	Aurrealdean
Horma-hilobia	943,36 euro		1.886,72 euro	
Hilobia handia	7.541,35 euro	8.446,31 euro	15.082,71 euro	16.892,64 euro
Hilobi ertaina	5.545,10 euro		11.090,23 euro	
Hilobi txikia	3.696,74 euro		7.393,48 euro	
Kolunbarioa	754,69 euro		1.509,68 euro	

Tarifa hori aplikatzen den kuota garbia udal bulegoetan ordaindu beharko da, hilabeteko epean, interesdunari hilobi-eskubidea aitortu zaiola jakinarazten zaion egunaren biharamunetik. Kuoten ordainketa zatikatzea eskatu ahal izango dute interesdunek, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean ezarritako moduan, epeetan eta baldintzekin.

Hilobia osorik edo partez granitoz estalia badago, lagapen-hartzaileari egotziko zaio materialaren zenbatekoa, enpresa hornitzaileak Udalari kobratzen dion prezio berean.

## C) HILOBI ESKUBIDEAREN TITULARTASUNA ALDATZEA

Hilobi eskubide bat eskuz aldatu edo ondorengo esku geratzen delarik, tasa hau ordaindu beharko da .....93,22 euro.

Udal bulegoetan ordaindu beharko da kuota, titulartasuna aldatzeko eskatzen denean. Kuota honetatik salbuetsita daude horma-hilobia, hilobia edo panteoia batera erosi zuten ezkontideen artean egiten diren eskualdatzeak, baita helburutzat udalari lagatzea dutenak ere.

Ehorzte-eskubidearen balioa, ondorio fiskaletarako, itzulketa-balioak zehaztuko du.

## D) HILOBI ESKUBIDEA ITZULTZEA

Hilobi eskubidearen lagapenari uko egiten badio titularrak —hilobia hutsik egonik, eta karga fiskalik eta legez kanpoko eraberritzerik gabe—, eta uko egite hori udalaren alde egin nahi ez badu, erosi zen urteko tasari —KPIaren arabera eguneratuta— igarotako aldiari dagokion ehuneko eta, behar izanez gero, inskripzio-estalki berriaren kostua kentzetik ateratzen den zenbatekoa ordainduko zaio.

Hilobia granitoz estalita badago, lizentziaren arabera, gaineztatze horren kostua ordainduko zaio titularrari, enpresa hornitzaileak Udalari kobratutako prezioan.

## V. SORTZAPENA

### 5. artikulua

Oro har, edozein zerbitzu eskatzen denean sortzen da tasa, edo lurperatzeko lekuak esleitzen direnean.

## **VI. KUDEAKETA ARAUAK**

### **6. artikulua**

Zerga Kudeaketarako Zerbitzua arduratuko da tasa hau kudeatzeaz, Hilerri Zerbitzuak ematen dion informazioa baliatuz. Zerbitzu horri dagokio espazioak esleitzeko eta horien erabilera zehazteko arauak ematea, arlo hori arautzen duen berariazko araudiaren ildotik.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 62.2 artikuluan ezarritako epeetan ordaindu beharko da tasa.

## **VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **7.11 KULTUR ETA BILTZAR EKIPAMENDUAK, EKIPAMENDU POLIFUNTZIONALAK ETA GIZARTE ETXEAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Kultur eta biltzar ekipamenduak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Testuaren artikuluetan zehazten diren kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizarte etxeak erabiltzea da tasaren zerga-egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Tasaren objektu diren espazioak okupatzea eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak nahiz Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren entitateak izango dira subjektu pasiboak.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

##### **7.11.1 BILTZAR EKIPAMENDUAK**

Europa eta Goiuri biltzar jauregietako aretoak nahiz eraikin horiek berak osorik erabiltzen direlarik mintegiak, biltzarrak, bilerak, jardunaldiak, erakusketak, feriak eta antzekoak egiteko, baliatze berezi horri dagokion tasa ordaindu beharko da.

#### **LEHEN TARIFA: EUROPA BILTZAR ETA ERAKUSKETA JAUREGIA BILTZAR ETA FERIETARAKO NAHIZ BESTELAKO EKITALDIETARAKO ERABILTZEA**

1. Hauek izango dira Europa biltzar jauregiko aretoak erabiltzeko ordaindu beharreko tasak:

ARETOA	EGUN OSOA	EGUN ERDIA
<b>IPAR-HEGALA</b>		
- FCO. VITORIA ARETOA	1.071,00 euro	750,00 euro
- J. M. BARANDIARAN ARETOA	536,00 euro	321,00 euro
- MICAELA PORTILLA ARETOA	536,00 euro	321,00 euro
- GASTEIZ ARETOA	536,00 euro	321,00 euro
- AIARA ARETOA	309,00 euro	180,29 euro
- ATONDO NAGUSIA	161,00 euro	
- ERAKUSMAHAIA	54,00 euro	
- ARMENTIA ARETOA	321,00 euro	187,50 euro
- FLORIDA ARETOA	321,00 euro	187,50 euro
- PRADO ARETOA	214,00 euro	107,14 euro
- SALBURUA ARETOA	321,00 euro	160,71 euro
- ZABALGANA ARETOA	268,00 euro	133,93 euro
- SORGINETXE ARETOA	375,00 euro	187,50 euro
- LA HECHICERA ARETOA	375,00 euro	187,50 euro
- BEGIRATOKIA	321,00 euro	214,28 euro
- 1. OFFICEA	107,00 euro	
<b>HEGO-HEGALA - ERAKUSKETA ARETOA</b>		
GREEN CAPITAL	643,00 euro	321,42 euro
ALMUDENA CID	1.071,00 euro	749,99 euro
ESTIBALITZ	428,00 euro	
- 2. OFFICEA	107,00 euro	
<b>ERDIKO EREMUA</b>		
	1.565,50 euro, kongresu-erabilera	1.060,50 euro, kongresu-erabilera
MARIA DE MAEZTU AUDITORIUMA	Ikuskizunak hartzen dituelarik, 7.11.2 puntuan adierazten diren tasak aplikatuko dira — Felix Petite antzokia erabiltzeari dagozkionak—.	Ikuskizunak hartzen dituelarik, 7.11.2 puntuan adierazten diren tasak aplikatuko dira —Felix Petite antzokia erabiltzeari dagozkionak—.
	1.545,30 euro	1.030,20 euro
MARIA DE MAEZTU AUDITORIUMA (PLATEA)	Ikuskizunak hartzen dituelarik, 7.11.2 puntuan adierazten diren tasak aplikatuko dira — Felix Petite antzokia erabiltzeari dagozkionak—.	Ikuskizunak hartzen dituelarik, 7.11.2 puntuan adierazten diren tasak aplikatuko dira — Felix Petite antzokia erabiltzeari dagozkionak—.

HIRIBIDEA ARETOA	321,42 euro	187,50 euro
ERDIKO ATONDOA	187,50 euro	----
TERRAZA	191,25 euro, kongresu-erabilera	191,25 euro, kongresu-erabilera

## 2. Hileta zibiletarako erabiltzea

<u>ARETOA</u>	<u>ORDU ERDIKO EDO ORDU ZATIKO</u>
- FCO.VITORIA ARETOA	121,85 euro

### EUROPA BILTZAR JAUREGIKO ARETOAK ERABILTZEKO APLIKATUKO DIREN ARAUAK

- Prezio horietan ez da sartzen lekua 22:00etatik aurrera edo 8:00ak baino lehenago erabiltzea.
- Eguneko ordutegian jauregia irekitzeko langileak prezioan sartuta daude (8:00etatik 22:00etara).
- Areto bakoitzean dagoen ikus-entzunezko ekipamendu teknikoa prezioan sartua dago, baita ikus-entzunezko baliabide horietaz arduratuko den teknikaria ere, eguneko ordutegian (8:00etatik 22:00etara).
- Ekitaldiaren ezaugarriak direla-eta beste langile edo baliabiderik behar izanez gero, eskatzailearen kontura izango dira beti ere, eta zuzenean ordaindu beharko dizkie hark biltzar jauregiaren esleipendun diren enpresei.
- Egun erdiko ordutegia 8:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 22:00etara izango da.
- Gaueko erreserba bereziek, hau da, 22:00etatik 8:00etara bitartekoek, tarifa berezi baten karga izango dute orduko edo ordu zatiko 321,42 euro, salbu eta, jauregiko antolakuntza-premiengatik hala hitzartzen delarik, muntatze eta desmuntatze lanak egiteko.
- Gutxienez 10 egun lehenago kudeatu beharko dira erreserbak, eta 16 egun lehenago antolakuntza konplexua bada.
- Antolatzaileak eskatutako aretoak muntatzeko lehen egunak eta desmuntatze egunak ehuneko 25eko murrizketa izango dute, aplikatu beharreko tasan.
- Muntatze eta desmuntatze erreserbak erabili beharreko aretoak hartuko ditu, baita lan horiek direla eta beste ekitaldi baterako erabili ezingo direnak ere.
- Jauregiko ohiko dekoratuak erabat aldatzeak kostu gehigarria ekarriko du berekin: erreserbatutako aretoaren alokairu-tasaren ehuneko 25a.
- Aretoak altzari finkoak edo erdi-finkoak baditu, 15 egun lehenago eskatu beharko da horien antolamendua aldatzeko berariazko aurrekontua —antolatzailearen kontura—.
- Behatokia, atondoak eta igarobideak ez dira tasari lotuak egongo kafe-zerbitzuak, luncha eta antzekoak eskaintzeko baliatzen direlarik. Era berean, atondoak ez dira tasari lotuak egongo akreditazio-leku gisa baliatzen direlarik.
- Atarteetan eta igarobideetan apaingarriak, standak, catering-zerbitzuak edo beste edozein elementu jartzekotan, berariazko baimena eman beharko dute aldeztatik jauregiko arduradunek.

- Ordenantzan jasotzen diren hobarietakoren bat badagokio jarduerari —edo tasa ordaintzetik salbuetsita geratzea—, sarrerarako langile lagungarri bati edo gehiagori dagozkien kostuak bere gain hartu beharko ditu antolatzaileak, baita ikus-entzunezkoen arduratuko den langile lagungarri bati edo gehiagori dagozkienak ere, jauregiko arduradunek horien beharra dagoela uste badute. Areto hauetakoren bat erabiltzen denean beharko dira langile lagungarri horiek: Fco. de Vitoria auditoriuma, María de Maeztu auditoriuma —kasu horietan, langile lagungarri bat edo gehiago beharko dira une horretan erabiltzen ari diren hiru solairuetako bakoitzeko sarrerarako—, Green Capital aretoa, Olarizu aretoa edo Estibalitz aretoa. Jauregian zerbitzu hori esleitua duten enpresek hornituko dituzte langile horiek, kasuan-kasuan kontratazio-lehiaketan ezarritako prezioen arabera.
- Erreserbak bertan behera uztekotan, idatziz egin beharko da. Hamar egun baino gutxiago falta direla egiten bada, erreserbatutako areto edo lekuaren alokairuaren % 25 ordaindu beharko da.
- Udal areto horiek erabiltzeko arauak betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat indarrean dauden lege-arauak —edukiera, segurtasuna, higiena eta osasungarritasuna, autore-eskubideak, eta ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak—.

### **BIGARREN TARIFA: Goiuri biltzar jauregia.**

Hauek izango dira Goiuri biltzar jauregiko aretoak erabiltzeko ordaindu beharreko tasak:

<b>ARETOA</b>	<b>EGUN OSOA</b>	<b>EGUN ERDIA</b>
- MARTÍN DE SALINAS ARETOA	535,70	321,42
- P. MTZ. DE ÁLAVA ARETOA	321,42	187,50
- LEHEN ESKAILERA-BURUA	139,28	
- BIGARREN ESKAILERA-BURUA	139,28	
Beheko solairuko areto ojibala	107,14	
Solairuarteko areto ojibala	107,14	
OFFICE	103,00	

### **Hileta zibiletarako erabiltzea**

<b>ARETOA</b>	<b>ORDU ERDIKO EDO ORDU ZATIKO</b>
- MARTÍN DE SALINAS ARETOA	74,32 euro

### **GOIURI JAUREGIKO ARETOAK ERABILTZEKO APLIKATUKO DIREN ARAUAK**

- Prezio horretan ez da sartzen lekua gauetz erabiltzea —22:00etatik 8:00etara bitartean—.
- Eguneko ordutegian, astegunetan, jauregia irekitzeko langileak prezioan sartuta daude; ez, ordea, asteburu eta jaiegunetakoak.
- Asteburuetan, jaiegunetan eta gaueko ordutegian irekitzekotan, ekitaldi berezietarako izango da, eta horrek berekin ekarriko du eskatzaileak bere gain hartzea jauregiak

zerbitzu horiek hitzartuta dituen enpresek atea irekitzeko jartzen dituzten langileei (bi lagun) eta ikus-entzunezkoen teknikariari dagozkien kostuak.

- Areto bakoitzean dagoen ikus-entzunezko ekipamendu teknikoa prezioan sartua dago, baita ikus-entzunezko baliabide horietaz arduratuko den teknikaria ere, eguneko ordutegian, lanegunetan, astelehenetik ostiralera bitartean; ez, ordea, asteburu eta jaiegunetan.
- Ekitaldiaren ezaugarriak direla-eta beste langile edo baliabiderik behar izanez gero, eskatzailearen kontura izango dira beti ere, eta zuzenean ordaindu beharko dizkie hark Goiuri jauregiaren esleipendun diren enpresei.
- Egun erdiko ordutegia 8:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 22:00etara izango da.
- Gaueko erreserba bereziek, hau da, 22:00etatik 8:00etara bitartekoek, ordu eta aretoko 117,85 euroko tarifa berezi baten karga izango dute, salbu eta, jauregiko antolakuntza-premiengatik hala hitzartzen delarik, muntatze edo desmuntatze lanak egiteko.
- Gutxienez 10 egun lehenago kudeatu beharko dira erreserbak.
- Antolatzaileak eskatutako aretoak muntatzeko lehen egunak eta desmuntatze egunak ehuneko 25eko murrizketa izango dute, aplikatu beharreko tasan.
- Jauregiko ohiko dekoratuak erabat aldatzeak kostu gehigarria ekarriko du berekin: erreserbatutako aretoaren alokairu-tasaren ehuneko 25a.
- Muntatze eta desmuntatze erreserbak erabili beharreko aretoak hartuko ditu, baita lan horiek direla eta beste ekitaldi baterako erabili ezingo direnak ere.
- Aretoak altzari finkoak edo erdi-finkoak baditu, horietan edozein aldaketa egitekotan 15 egun lehenago eskatu beharko da, eta jauregiko arduradunek antolamendua aldatzeko aurrekontua bidaliko dute, antolatzailearen kontura.
- Eskailera-buruak, eremu ojibala eta igarobideak ez dira tasari lotuak egongo kafe-zerbitzuak, luncha eta antzekoak eskaintzeko baliatzen direlarik, edo akreditazio-leku gisa.
- Atarteetan eta igarobideetan apaingarriak, standak, catering-zerbitzuak edo beste edozein elementu jartzekotan, berariazko baimena eman beharko dute alde aurretik jauregiko arduradunek, eta orobat errespetatu beharko dira une horretan jauregian suertatzen diren ekitaldietara sartu behar duten pertsona guztien igarobide naturalak.
- Ordenantzan jasotzen diren hobarietakoren bat badagokio jarduerari —edo tasa ordaintzetik salbuetsita geratzea—, sarrerarako langile lagungarri bati dagozkion kostuak bere gain hartu beharko ditu antolatzaileak baita ikus-entzunezkoen teknikariari dagozkionak ere, jauregiko arduradunek ustez horren beharra badago. Jauregian zerbitzu hori esleitua duten enpresek hornituko dituzte langile horiek, kasuan-kasuan kontratazio-lehiaketan ezarritako prezioen arabera.
- Erreserbak bertan behera uzteketan, idatziz egin beharko da. Hamar egun baino gutxiago falta direla egiten bada, erreserbatutako areto edo lekuaren alokairuaren ehuneko 25 ordaindu beharko da.
- Seinaleztapena kanpoko euskarrien gainean egingo da; ezingo da inongo elementurik itsatsi horma, ate, beira eta altzarietan.
- Aretotako mahai, atril eta hormetan kartelik, pankartarik eta bestelakorik ez itsasteko konpromisoa hartu beharko du bere gain eskatzaileak, baita jauregiaren barruan erretzen ez uztekoa eta jauregiko arduradunei ekitaldirako kontratatutako enpresa eta zerbitzuen (pankartak, cateringa, loreak...) berri ematekoa ere.
- Aldez aurretik hala hitzartzen delarik eta erregistratutako catering enpresa batek hornitzen dituelarik baino ezingo dira janari eta edariak hartu jauregiaren barruan, edo halakoak hornitzen dituzten makinetatik hartuta, horretarako dagoen lekuan.

- Biltzarreko catering enpresak zoruen babesa bermatu beharko du, kaltetu litzakeen jardueraren bat gauzatzekotan delarik: garagardo-txorrotak muntatu, aldi baterako barrak eta abar.
- Jantoki, kafe-leku, dastaleku edo antzeko gisa erabilitako lekuan oinarritzko garbiketa egin beharko du catering enpresak. Eta, bereziki, catering jarduerak sortutako zaborra erretiratzeaz arduratu beharko du. Era berean, gela lagungarri gisa erabilitako espazioa ere garbitu beharko du.
- Ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren alorrean jauregian ezarrita dauden jarraibideak errespetatzeko konpromisoa beren gain hartu beharko dute catering enpresek.
- Muntatze lan guztiak ikuskatzeko konpromisoa hartu beharko du bere gain antolatzaileak, baita erabakitzen diren ordutegi eta baldintzak betetzeko ere. Standak, agertokiak eta antzekoak muntatzen badira, zoruak behar bezala babesten direla bermatu beharko du antolatzaileak, elementuak muntatu aurretik.
- Aurkitu zen egoera berean geratu beharko du instalazioa, eta antolatzaileak bere gain hartu beharko ditu kaltetu edo desagertzen diren materialak konpondu edo ordezteak berekin dakartzan gastuak, baita sortutako hondakinak erretiratzea eta beharrezko gertatzen diren aparteko garbiketak ere.
- Ingurumenaren eta hondakinen kudeaketaren alorrean jauregian ezarrita dauden jarraibideak errespetatzeko konpromisoa bere gain hartu beharko du antolatzaileak.
- Udal areto horiek erabiltzerakoan adierazitako baldintzak oro betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat edukierari, segurtasunari, higiena eta osasungarritasunari eta autore-eskubideei dagozkien lege-arauak oro, baita ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak ere.

#### **EUROPA BILTZAR-JAUREGIAN ETA GOIURI JAUREGIAN WI-FI TEKNOLOGIAREN BIDEZKO KOMUNIKAZIO-SAREAK BALIATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK**

Honako prezio publiko hauek ezartzea proposatzen da, biltzarraren antolatzaileek 256 K-tik gorako konexioa eskatzen dutenerako:

Biltzarreko parte-hartzaileen kopurua	
0-50 parte-hartzaile	32,14 euro
50-80 parte-hartzaile	53,57 euro
80 parte-hartzailetik gora	64,28 euro

#### **7.11.2 UDAL ANTZOKIAK: BEÑAT ETXEPARE ANTZOKIA, FEDERICO GARCÍA LORCA ANTZOKIA, JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA ETA FÉLIX PETITE ANTZOKIA.**

##### **HIRUGARREN TARIFA: Felix Petite antzokia erabiltzea.**

Hauek izango dira Felix Petite antzokia erabiltzeko ordaindu beharreko tasak:

##### **ALOKAIRU MOTA.** Ekipamendua erabiltzearen tasa

Eguna (muntatzea + emanaldia): ..... 1.377,60 euro  
 Muntatze-eguna bakarrik, edo emanaldia bakarrik : ..... 656,30 euro  
 Agertokiko maila eta plataformak: ..... 14,80 euro bakoitza

**1.** Felix Petite antzokiaren erabilera-tasan sartzen diren zerbitzuak eta ordutegiak hauexek izango dira:

Antzokia: Antzokiko areto guztiak gehi modulu gehigarriak

- Langileak:	(1) Ikuskizuna kudeatzeaz arduratuko den teknikaria. (1) Arte eszenikoetako teknikari espezialistak (1) Atezaina.
- Hornikuntza:	Argindarra, aire girotua, berokuntza eta leihatila-zerbitzua, eta salmenta informatizatua, ohiko ordutegian (asteartetik larunbatera, 18:30etik 20:30era, jaiegunetan izan ezik).
- Hornidura teknikoak:	Argi eta soinu tresneria eta agertokiko tresneria.
- Agertokia, prest:	Ganbara beltza eta argiztapen orokor soila. (Gainerako beharrak agertokiko gastu gisa fakturatuko ditu zerbitzu enpresak).
- Antzokiaren ordutegia:	Goizez: 09:00etatik 14:00etara. Arratsaldez: 16:00etatik 21:00etara.  Egun osoa: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik bukatu arte.

**2.** Sartzen ez diren gainerako zerbitzuak zuzenean fakturatuko dituzte horien emakidadun diren enpresek, Udalarekin finkatutako prezioetan, baita behar diren langileei dagoena ere — kargatu eta deskargatzea, mutatu eta desmuntatzea, emanaldiko zerbitzua eta sarbide kontroleko langileak eta aretozainak, leihatilako salmenta, ohiko ordutegitik kanpo, eta salmenta-programan emanaldia kudeatzea—. Udal Antzoki Sareak zehaztuko du zer langile behar diren, zer espezialitatetakoak eta zein ordutan.

**3.** Izanez gero, erabilera-tasari bakarrik egingo dio erreferentzia hobari fiskalak aplikatzeko eskabideak. Berariaz egin beharko du interesdunak eskabidea, espazio horiek erabiltzeko eskabidean bertan. Zerga-hobaria aplika dakiola eskatzen den jarduerak Udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari. Gainerako baldintzak 2. atalean azaltzen diren berak dira.

**4.** Erreserbak: Nahitaez, emankizunaren eguna baino lau hilabete lehenago egin beharko dira erreserbak.

**5.** Udal Antzoki Sareak eskubidea izango du aretoa ikuskizun jakin baterako alokatu eskabidea onartu nahiz ukatzeko, udalak finkatutako programazio-ildoari zenbateraino egokitzen zaion aintzat hartuta.

**6.** Dena delako espazioa erabiltzeko baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat indarrean dauden lege-arauak —edukiera, segurtasuna, higiena eta osasungarritasuna, autore-eskubideak, eta ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak—.

**LAUGARREN TARIFA: Beñat Etxepare antzokia, Federico García Lorca antzokia eta Jesús Ibáñez de Matauco antzokia erabiltzea:**

#### **ALOKAIRUAK:**

Ikuskarien arloko erakunde eta talde profesionalek antolatzen dituzten ikuskizunei aplikatuko zaie erabiltze mota hau, baita erakunde pribatuek antolatzen dituzten ekitaldi ez-merkantilistei ere.

<b>TASA</b>	
Egun osoa (muntatzea eta emanaldi bat)	551,90 euro
Goiza / arratsaldea (muntatzea eta emanaldi bat)	275,90 euro
Muntatze nahiz entsegu eguna	275,90 euro
Emanaldi bat gehiago, egun berean	138,00 euro
Alokairu egun bakoitza, muntaketa berarekin 138,00 euro	

a. Hauek dira antzoki horien erabilera-tasan sartzen diren zerbitzuak eta ordutegiak:

Hornikuntza:	Argindarra eta aire girotua
Hornidura teknikoa	Argi eta soinu tresneria eta agertokiko tresneria.
Agertokia	Ganbara beltza eta argitapen orokor soila.
Antzokien ordutegia:	Goizez: 9:00etatik 14:00etara. Arratsaldez: 16:00etatik 21:30era. Egun osoa: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:30era.

b. Udal Antzoki Sareak erabakiko du zein langile behar diren emankizunerako, horien lan-ordutegia eta espezialitatea.

Sartzen ez diren gainerako zerbitzuak —baita zamalanetarako, muntatze eta desmuntatze lanetarako eta leihatilako salmentarako behar diren langileak, atezainak eta aretozainak ere— zuzenean fakturatuko dituzte zerbitzu horien esleipendun diren enpresek, Udalarekin finkatuta dituzten prezioetan.

c. Ikuskizunaren eguna baino hilabete lehenago egin beharko dira erreserbak.

d. Udal areto hori erabiltzerakoan adierazitako baldintzak oro betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat edukierari, segurtasunari, higieena eta osasungarritasunari eta autore-eskubideei dagozkien lege-arauak oro, baita ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak ere.

#### **LAGAPENAK:**

Ikuskarien arloko irabazi-asmorik gabeko talde eta kultur elkarte amateurren kasuan aplikatuko da, baita izaera sozial edo kulturala nahiz interes publikoa duten elkarte edo erakunde pribatuen jardueren kasuan ere.

**EMANALDI BAKARRERAKO PREZIOAK****TASA**

- Goizez edo arratsalde.....77,20 euro
- Egun osoa, muntatzeko ..... 154,60 euro
- Aparteko emanaldi bakoitzeko.....55,10 euro

a. Ikuskizunaren eguna baino hiru hilabete lehenago egin beharko da erreserba.

b. Inolaz ere ezingo da sarrerarik kobratu Antzoki Sareak berariaz baimena ematen ez badu. Jardueretan parte hartzen dutenek kuotaren bat ordaindu beharrik izanez gero, Udal Antzoki Sareak bere esku izango du instalazioaz baliatzeko baimena eman nahiz ukatzea, eta, emanez gero, dena delako tasaz gain, jasotako kuota guztien ehuneko 10 ordainaraztea.

c. Antzokia alokatzen nahiz lagatzen delarik, Udal Antzoki Sareak eskubidea izango du aretoa ikuskizun jakin baterako alokatu edo uzteko eskabidea onartu nahiz ukatzeko, ikuskizunaren kalitatea eta Udalak finkatutako programazio-ildoari zenbateraino egokitzen zaion aintzat hartuta.

d. Udal areto hori erabiltzerakoan adierazitako baldintzak oro betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat edukierari, segurtasunari, higiena eta osasungarritasunari eta autore-eskubideei dagozkien lege-arauak oro, baita ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak ere.

**7.11.3 IRADIER ARENA****BOSGARREN TARIFA: IRADIER ARENA ekipamendua erabiltzea.**

- Barruti osoa erabiltzea

Ekitaldiaren lehen eguna:

eguneko ..... 2.632,83 euro

egun erdiko: ..... 1.347,93 euro

Emanaldia muntatzea, desmuntatzea edo errepikatzea

eguneko ..... 1.348,24 euro

egun erdiko ..... 674,15 euro

- Barruti osoa erabiltzea, tendidua eta goiko harmaila izan ezik,

Ekitaldiaren lehen eguna:

eguneko ..... 1.798,02 euro

egun erdiko ..... 898,46 euro

Emanaldia muntatzea, desmuntatzea edo errepikatzea

eguneko ..... 898,46 euro

egun erdiko ..... 449,26 euro

- Zezentokia eta platea erabiltzea

Ekitaldiaren lehen eguna:

eguneko: ..... 1.321,40 euro

egun erdiko: ..... 768,79 euro

Emanaldia muntatzea, desmuntatzea edo errepikatzea

eguneko ..... 449,26 euro

egun erdiko ..... 224,58 euro

- o Berpizkundearen plazaren kotako barruko eremua erabiltzea,

Ekitaldiaren lehen eguna:

eguneko: ..... 512,18 euro

egun erdiko, ..... 256,09 euro

Emanaldia muntatzea, desmuntatzea edo errepikatzea

eguneko ..... 169,95 euro

egun erdiko ..... 84,98 euro

- o Entsegu

Egun osoko ..... 970,78 euro

Egun erdiko ..... 485,39 euro

Kasu guztietan 220,75 euro gaueko ordu bakoitzeko

Bermea edo banku abala, prezioaren ehuneko 50.

Kontuan izanik ekipamendu honek, espazio polifuntzionala izaki, kirol erabilera ere har dezakeela bere baitan, Kirol Zerbitzuak bertara aldatu ahal izango ditu beren ezaugarriak direla eta halako espazio bat eskatzen duten kirol jarduerak, ordenantza honetako 8.4. ataleko arauak aintzat harturik —Iradier Arenari dagokionez atal honetan bertan adierazi diren tasa eta baldintza teknikoak aplikatu beharko dizkie, behar izanez gero—.

1. Iradier Arenaren kronograman edozein jarduera txertatzean, kultur jarduerak lehenetasuna izango dute, bestelakoan aldean.
2. Iradier Arenako jarduera edo emanaldiek kalitate parametroei erantzun beharko diete beti ere, eta ekipamendu polifuntzionalaren tamainari egokitzen zaizkion jarduerak izan beharko dute, hobeto hornitutako beste espazio publiko edo pribaturen batean egin ezin direnak. Zenbat jende bertaratzea aurreikusten den ere aintzat hartuko da.
3. Barrutiak ez du udal langile propiorik, eta, beraz, jarduera bakoitzaren antolatzaileak barrutia ireki, itxi nahiz kontrolatzeko eta ekitaldia prestatu, abian jarri eta gauatzeko beharrezko diren langileak kontratatu eta finantzatu beharko ditu, baita hura desmuntatu, barrutia garbitu eta erabilitako hornigaiak birjartzeko behar direnak ere (egun hori ez da zenbatuko, tasari dagozkionetarako).
4. Barruti osoa jaso zen egoera berean entregatu beharko da. Kalterik izanez gero, berehalakoan konpondu beharko ditu antolatzaileak.
5. Programatzen duten jarduerarako erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzera behartuta egongo dira antolatzaileak.
6. Iradier Arenan jarduerak sustatzen dituztenak sortzen diren kalte ororen erantzule bakarrak izango dira, baita jardueraren antolakuntza eta garapena dela eta edonork aurkezten duen edozein erreklamazioren aurrean ere, eta libratu egingo dute Gasteizko Udala jardueraren ondorioz sortzen den erantzukizun orotatik.
7. Antolatzaileek barrutiko tabernetako barrak erabili ahal izango dituzte, zuzenean nahiz hiriko ostalaritza-enpresari baten bitartez ustiatzeko. Orobat baliatu ahalko dira leku horiek jarduerari dagozkion salgaiak jendaurrean jarri eta saltzeko.

8. Publizitatea jarri ahal izango da horretarako lekuetan —jarduera bukatutakoan kendu egin beharko da—. Nolanahi ere, publizitate horrek ezingo du joan leku publikoetako iragarkiei buruzko araudiaren kontra, edukiei dagokienez.

9. Barrutiko palko guztiak gertaldiaren antolatzaileen esku jarriko dira, lehendakaritza-palkoa izan ezik. Izan ere, jabearentzat edo agintarientzat gordeko da hori, kasuan kasu eta ikuskizunen araudiaren arabera.

10. Antolatzaileak ez dira behartuta egongo Gasteizko Udalari sarrerarik edo gonbidapenik ematera.

11. Barrutia erabiltzeko behar diren izapideak egin eta berariazko betebeharrak nahiz indarrean dauden lege-arauetan —ikuskizunei, laneko arriskuen prebentzioari eta norberaren burua babesteko planari buruzkoetan eta jarduerari legezkiokkeen gainerakoetan, jabetza intelektualari eta irudiari buruzkoak barne— jasotzen direnak betetzeko —behin betiko lizentziarekin— konpromisoa hartu beharko du bere gain eskatzaileak.

12. Ekitaldia baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko da barrutia alokatzeko eskabidea, nahitaez.

13. Aldian aldikoak diren jardueren kasuan, atsedeen egunak ez dira zenbatuko, tasari dagozkionetarako.

14. Ekitaldia bertan behar utziz gero, hitzartutako zenbatekoaren ehuneko 25eko zigorra jarriko da.

#### **7.11.4 MONTEHERMOSO KULTURUNEA**

##### **1. ESPAZIOEN ERABILERA**

Montehermoso kulturunea Udal titulartasuneko ekipamendua da, arte eta kultura garaikidea sustatzen eta zabaltzen dituen, erakusketen eta kultur eta hezkuntza-jardueren programazio jarraituaren bitartez.

Zentroaren eta ingurunearen arteko lotura estutu eta indartzeko, Montehermoso Kulturuneak bertako espazio eta azpiegituren aldi baterako erabilera zabaldu du. Horiek aldi batez erabiltzeko eskabideak onartzeko edo ukatzeko irizpide orokorrak hauek izango dira:

- Montehermoso kulturuneak egiten duen programazioak lehentasuna du lagapen edo mailegu ororen aldean. Hortaz, bere ustez proiektuaren helburuekin bat ez datozen edo horiei egokitzen ez zaizkien eskabideak ukatzerik izango du Kultura Zerbitzuak.
- Udalaren jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzearen edo haien baliatze bereziaren tasak arautzen dituen ordenantzan dago araututa instalazioen aldi baterako erabilera (7.11.4 artikulua).

##### **SEIGARREN TARIFA. Montehermoso kulturunea erabiltzea.**

<b>LEKUA</b>	<b>EGUN OSOA</b>	<b>EGUN ERDIA</b>	<b>BI ORDU</b>
ORTUÑO ARETOA	551,88 euro	331,13 euro	331,13 euro
BETOLATZA ARETOA	331,13 euro	193,16 euro	193,16 euro
INFORMATIKA-GELA	220,75 euro	137,97 euro	137,97 euro
SALCEDO ARETOA	143,49 euro	77,26 euro	77,26 euro

## **MONTEHERMOSO KULTURUNEKO ARETOAK ERABILTZEKO APLIKATUKO DIREN ARAUAK**

- Gutxienez ikuskizuna hasi baino 30 lanegun lehenago kudeatu beharko dira erreserbak. Erreserba izapidetu ondoren, inprimakia bete eta udal espazio hori erabiltzeko araudia onartu beharko da..
- Prezio horietan ez da sartzen lekua 21:00etatik aurrera edo 9:00ak baino lehenago erabiltzea.
- Hauek sartzen dira prezioan:
  - a) Kulturunea irekitzeko langileak, 9:00etatik 21:00etara astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara larunbatetan, eta 11:00etatik 14:00etara igandeetan.
  - b) Aretoetan dagoen ikus-entzunezko ekipamendu teknikoa. Enpresa antolatzailearen kontura izango dira material suntsikorrak.
  - d) Ekitaldiaren ezaugarriak direla-eta beste langile edo baliabiderik behar izanez gero, eskatzailearen kontura izango dira, eta zuzenean ordaindu beharko dizkie hark Montehermoso kulturunearen esleipendun diren enpresei. Zerbitzu horien prezioak enpresa horiekin egindako kontratua arautzen duten baldintzetan jasota daudenak izango dira.
  - e) Espazioak doan edo ordainduta uzten diren kasu guztietan, jarduera burutzeko beharrezko diren profesionalak oro eskatzailearen kontura izango dira, ordenantzan jasotzen den bezala, eta hark ordainduko die, zuzenean, Montehermoso kulturuneko adierazitako enpresei.
- Egun erdiko ordutegia 10:00etatik 14:00etara edo 18:00etatik 21:00etara izango da.
- Gaueko erreserba bereziek, hau da, 21:00etatik 8:00etara bitartekoek, tarifa berezi baten karga izango dute: 220,75 euro orduko.
- Altzari finkoak kulturuenak adierazitako enpresek kenduko dituzte, eta erakunde eskatzailearen kontura izango dira.
- Erreserbak bertan behera uztekoan, idatziz egin beharko da. Bost egun baino gutxiago falta direla egiten bada, erreserbatutako areto edo lekuaren alokairuaren ehuneko 25 ordaindu beharko da.

Udal areto hori erabiltzerakoan adierazitako baldintzak oro betetzeko konpromisoa hartzen du bere gain eskatzaileak, eta orobat edukierari, segurtasunari, higiena eta osasungarritasunari eta autore-eskubideei dagozkien lege-arauak oro, baita ekitaldiari eragin diezaioketen gainerakoak ere.

## **2. ZERBITZU, JARDUERA ETA IKASTAROAK**

### **2.1 DOKUMENTAZIO-ZENTROA**

Montehermoso kulturuneko espazio bat da dokumentazio zentroa, zentzoko dokumentazioaren artxibotzat baliatzen dena, eta zerbitzu hauek eskaintzen dituena:

#### **- Kontsulta, bertan**

Funtsen zuzeneko kontsulta librea —ikus-entzunezkoak eta material bereziak salbu, bertako langileari eskatu behar baitzaizkie horiek—. Irakurri eta ikasteko zenbait leku daude, eta ordenagailu bat, OPAC katalogoa on line kontsultatzeko. Bazkide-txartela eduki behar da. Doako zerbitzua.

### - Erakusketen dokumentaziorako eremua

Montehermoson egiten ari diren erakusketa eta kultur jarduerari buruzko dokumentazioa lortzeko berariazko bibliografia hautatua. Bazkide-txartela eduki behar da. Doako zerbitzua

### - On-line eremua

19 ordenagailu dituen gunea, interneten nabigatzeko, hainbat programa erabiltzeko nahiz multimedia funtsak kontsultatzeko, eta inprimatze zerbitzua. Bazkide-txartela eduki behar da. Doako kontsulta-zerbitzua. Inprimatze-zerbitzuak tasak ditu.

### - Proiekzio eremua

Dokumentazio zentroko ikus-entzunezkoen funtsa kontsultatzeko eremua. Bazkide-txartela eduki behar da. Doako zerbitzua.

### - Maileguak

Bibliografi funtsak, aldizkako argitalpenak eta ikus-entzunezkoak. Bazkide-txartela eduki behar da. Doako zerbitzua

- Dokumentazio Zentroko txartela, ordenagailuak, inprimatze zerbitzua eta funtsen mailegua erabiltzeko eskubidearekin: doan.
- Kulturuneko argitalpenen salmenta (katalogoak, dosierak eta abar): 0,19 eurotik 92,91 eurora arte
- Fotokopiak eta udal intraneteko inprimakiak

Neurria	Normala	Txikitua	Handitua
Din A4.....	0,20 euro.....	0,24 euro.....	0,24 euro
Din A3.....	0,31 euro.....	.....	0,31 euro
Din A3tik gora.....	.....	1,52 euro/m2	.....

## 2.2 Jarduera eta ikastaroak

Erakusketa-programaren osagarri diren jarduerak, zeinen bitartez herritarrengana urbidu eta haiekiko harremanak sortzen diren.

Informazio orokorra:

1. Urte osoan eskaintzen dira jarduera eta ikastaroak.
2. Informazio Zerbitzuan eman behar da izena jarduera horietan parte hartzeko, kasuan-kasuan dauden arau partikularrei jarraituz.
3. Izena ematen duenak, hala prezio arrunta ordainduko badu nola prezio murriztua ordainduko badu, aldez aurretik bete beharko ditu bete beharreko baldintzak oro.
4. Zuzeneko izen-ematearen bitartez parte hartu ahal izango da jardueretan —iriste-hurrenkeran—.
5. . Udalaren webgunearen bitartez ordaindu ahal izango da jarduera, txartela baliatuz, edo bankuko kontuan, edo Informazio Zerbitzuan bertan, dirutan.. Nolanahi ere, bi egun balioduneko epea izango da ordaintzeko, eta epe hori igaroz gero galdu egingo da dena delako jardueran lekua izateko eskubidea.
6. Prezio murriztua ordaindu bada, kulturuneko bulegora jo eta murrizketa hori eskuratzeko arrazoiak egiaztatu beharko da bertan —bi eguneko epe berean, izena ematen denetik—, kasuan kasu eskatzen diren agiriak aurkeztuz. Hala egin ezean, galdu egingo da dena delako jardueran lekua izateko eskubidea —udalak itzuli egingo du ordaindutako diru-kopurua, interesdunak eskabidea egiten duelarik—.

7. Eskabidea jarduera hasi aurretik egiten bada bakarrik itzuliko da ordaindutako diru-kopurua. Nolanahi ere, ordaindutakoaren % 15 atxikiko da halakoetan, kudeaketa gastuak direla eta.

**Prezio publikoak:**

**Familiantzako jarduerak**

Nagusi betek lagundurik datozen hurrei zuzendutako guztiak. Prezioa: iraupenaren arabera. gutxienez 1,05 euro eta gehienez 12,60 euro.

**Lantegi eta ikastaroak:**

Herritarrak oro har. Prezioa: iraupenaren arabera. gutxienez 1,05 euro eta gehienez 31,51 euro. Prezio horren ez ditu barne hartzen jarduera garatzeko beharrezko diren materialak.

**Bisita gidatuak:**

Ikastetxeak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak (gutxienez 10 pertsona): Doan

18 urtetik gorako pertsona fisikoak: 2,10 euro bisitako

**ZAZPIGARREN TARIFA: BISITA TEKNIKO ETA AURKEZPEN TEKNIKOETAN LAGUNTZEA, BESTERI**

Bisita tekniko nahiz aurkezpen teknikoetan laguntza ematea, Gasteizko Udaleko langile espezializatuen bitartez. Gehienez bi orduko bisita tekniko edo aurkezpen teknikoaren prezioa: ..... 242,83 euro

**7.11.5 GIZARTE ETXEETAKO ARETOAK ERABILTZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

**ZORTZIGARREN TARIFA: GIZARTE ETXEETAKO ARETOAK**

**A) Izaera sozialeko nahiz interes publiko handiko jarduerak.**

Honako hauek sartzen dira epigrafe honen barruan:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen barne-bilerak, liturgia-ospakizunetarako, erlijio-ospakizunetarako edo ideia sasi-zientifikoak sustatzeko egiten direnak izan ezik.
- Edonork bakarka edo edozein erakundek (helburu hauetakoren bat badu: asoziazionismoa, hezkuntza, kultura, gizartea, kirola, dibulgazioa, zientzia, osasuna, ekologia edo boluntariora) sustatutako jarduerak, herritarren parte-hartzea, ingurumenaren defentsa, berdintasuna, bizikidetzak, komunitatearen ongizatea eta kulturaren, gizartearen edo kirolaren garapena helburu dutenak, betiere irabazi-asmorik gabekoak.
- Alderdi politikoek, sindikatuek, kirol-federazioek eta fundazioek sustatutako jarduerak, baldin eta legez esleituta dituzten eginkizunak betetzeko badira.

1. Areto eta lantegiak (jende gutxi hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago:  
..... 2,90 euro
2. Askoratako aretoak (jende gehixeago hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago:  
..... 4,25 euro
3. Gizarte etxeetako ekitaldi aretoak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago:  
..... 10,00 euro

**B) Entitate pribatuek antolatzen dituzten eta merkataritzaren alorrekoak ez diren jarduerak.**

Honako hauek sartzen dira epigrafe honen barruan:

- A) atalean jasota ez dauden erakunde pribatuen barne-bilerak.
- Edozein erakunde pribatuk produktuak, ondasunak eta zerbitzuak aurkezteko edo zabaltzeko sustatzen dituen jarduerak, betiere merkataritza-trukerik edo irabazteko asmorik ez badago.
- Hileta zibilak.

1. Areto eta lantegiak (jende gutxi hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 20,64 euro
2. Askoratako aretoak (jende gehixeago hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 28,00 euro
3. Ekialdi aretoak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 49,80 euro

**C) Profesional taldeek antolatutako jarduerak.**

Honako hauek sartzen dira epigrafe honen barruan:

- Legez eraturako elkargo edo gremio-elkarteetan bildutako profesionalen barne-bilerak.
- Erakunde horiek beren jarduerak zabaltzeko edo beren lanbide-eremuko gaiari buruzko informazioa emateko sustatzen dituzten jarduerak.

1. Areto eta lantegiak (jende gutxi hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 7,10 euro
2. Askoratako aretoak (jende gehixeago hartzekoak) erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 9,82 euro
3. Ekialdi aretoak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 17,80 euro

**D) Nazioarteko hauteskundeak egiteko:**

- a) Iparralde-2 eraikineko 1. aretoa erabiltzeko oinarritzko zenbatekoa:..342,10 euro
- b) Zentroaren ohiko ordutegitik kanpoko ordu gehigarri bakoitzeko.....11,50 euro
- c) Eskatutako egun gehigarri bakoitzeko.....80,51 euro

Aretoa bozketa-egunean bertan eta aurrekoan —Udalak eskura jarritako ekipamenduarekin egokitzeko— erabiltzea barne hartzen du oinarritzko zenbatekoak.  
Gizarte-etxea irekitzeko orduaren aurretik edo ixteko orduaren ondoren aretoa erabiltzen den ordu bakoitzari —edo ordu-zatiari— dagokio ordu gehigarriaren zenbatekoak.  
Oinarritzko zenbatekoak barne hartzen dituen bi egunez gain aretoa erabiltzen den egun bakoitzari —edo ordu-zatiari— dagokio egun gehigarriaren zenbatekoak.

**E) Gasteizko talde ez profesionalek antolatzen dituzten jarduera eszenikoetarako.**

1. Gizarte-etxeetako ekitaldi-aretoak erabiltzeagatik, emanaldiak dirauen denboragatik, ordu erdi edo zatiko: ..... 5,30 euro
2. Entsegu-ordutegian: ..... 1,05 euro
3. Muntatze- eta desmuntatze-denbora: ..... doan

## F) Jabe-erkidegoen bilerak.

Honako hauek sartzen dira epigrafe honen barruan:

- Jabe-erkidego gisa eratutako erakundeen barne-bilerak, betiere erkidegoak jabetzan duen ondasuna Gasteizko udalerrian badago.

1. Edukiera txikiko areto eta lantegiak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 5,20 euro
2. Edukiera ertaineko areto eta lantegiak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 8,32 euro
3. Ekitaldi-aretoak erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 15,60 euro

## Laguntza teknikoa ekitaldi aretoetan

Gizarte etxeetako ekitaldi aretoak erabiltzeko ezarri diren prezioen barruan ez dira sartzen jarduera egiteko behar diren laguntza teknikoko zerbitzuak sartzen; horrelakorik behar izanez gero, zerbitzu horiek ematen dituzten kanpoko enpresekin kontratatu beharko dira, eta erakunde eskatzaileak ordainduko ditu.

### 7.11.6 ATARIA, SALBURUKO HEZEGUNEA INTERPRETATZEKO ZENTROA

#### BEDERATZIGARREN TARIFA: BARRUKO ESPAZIOAK UZTEA

A) Ingurumenarekin zerikusia duten izaera sozialeko nahiz interes publiko handiko elkarte-jarduerak nahiz pribatuak:

1. Didaktika-gela erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 2,88 euro
2. Auditoriuma erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 4,17 euro

B) Ingurumenarekin zerikusia duten entitate pribatuek antolatzen dituzten eta merkataritzaren alorrekoak ez diren jarduerak:

1. Didaktika-gela alokatzea —aldez aurretik eskabidea eginda—, ordu erdi edo gutxiago: 20,24 euro
2. Auditoriuma alokatzea —aldez aurretik eskabidea eginda—, ordu erdi edo gutxiago: 48,80 euro

C) Profesional taldeek antolatutako jarduerak.

1. Didaktika-gela erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 6,90 euro
2. Auditoriuma erabiltzeagatik, ordu erdi edo gutxiago: ..... 9,64 euro

Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea:

Ikus-entzunezko bitartekoak (proiektagailua eta pantaila) erabiltzeko aukera dagoen aretoetan, aldez aurretik eskatu beharko da horiek baliatzeko baimena, eta saio bakoitzeko 36,78 euro gehiago ordaindu beharko da. Prezio horretan ezingo da hobaririk edo salbuespenik egin.

#### HAMARGARREN TARIFA: KANPOKO ESPAZIOA UZTEA.

Askotariko jardueretarako instalazio bakoitzeko eta eguneko tasa hau ordainduko da:

- 3 m<sup>2</sup>ra iristen ez diren instalazioak ..... 5,77 euro
- 3 m<sup>2</sup>tik 15 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 25,94 euro
- 15 m<sup>2</sup>tik 50 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 86,46 euro
- 50 m<sup>2</sup>tik 100 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 172,91 euro
- 100 m<sup>2</sup>tik 500 m<sup>2</sup>ra arteko instalazioak ..... 864,58 euro

## V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 4 bis artikulua

#### 1. Doan izango dira jarduera hauek:

- Gasteizko Udalarenak berarenak, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeekin sinatutako lankidetzak hitzarmenetan jasotzen direnak ere, hitzarmen horietan espazio horiek erabiltzeko ezartzen diren baldintzetan. Tratamendu bera izango dute Udalaren diru-laguntza jaso duten jarduera eta programek, baldin eta hala zehaztu bada dena delako diru-laguntzen deialdian.
- Orobat izango dira doan 7.11.5 epigrafeko espazioak (gizarte-etxeetako espazioak) ekitaldia beste erakunde publiko batzuek antolatua delarik eta udal jardunarekin bat datozen jarduerak direlarik.

#### 2. Ehuneko 50eko hobia izango dute jarduera hauek:

- Elkaratek —estatutueta jasotako xedearen ildotik— beren bazkideentzat antolatzen dituzten jarduerak, herritar ororentzat irekiak eta doakoak direlarik, baldin antolakuntza-kaudimena bermatuta badago, zortzigarren tarifan adierazitako salbu.
- Auzoetako jaiekin edo tradiziozko jaiegunekin zerikusia duten jarduerak.

**3.** Onura publikoa aitortua zaien erakundeei aplika dakiekeen hobia ehuneko 90ekoa izango da, beti ere. Horretarako, onura publikoa adierazten duen agiriaren fotokopia erantsi beharko diote aretoak erabili ahal izateko eskabideari, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimena arautzen duen 35/2021 Foru Arauan aurreikusitakoaren ildotik.

**4.** Toki jaurbidearen alorreko oinarrizko legediaren arabera eskumena duen organoaren xedapena dela medio —aldeztatik eskabidea egiten delarik, eta proposatzen duen udal sailak proposamen-txosten arrazoitua eman duelarik—, tasaren ehuneko 50/80/90eko hobia eman ahal izango zaie gure erakundearen laguntzaile diren entitateei —beren jarduerarekin hirian, batez ere Gasteizko zerbitzuen sektorean eta kultur industrian, aberastasuna sortzen duten fundazio, elkarte edo enpresei— baita beren ezaugarri bereziak direla eta hiriarentzat eta bertako biztanleentzat interes handikotzat jotzen diren jardueren kasuan ere Ekipamenduaren lagapena udalak jarduera horretarako egiten duen ekarpenentzat joko da, eta Gasteizko Udalaren eta hirugarrenen artean sinatzen den irudi-ordaina nahiz bestelako ordainak ekarriko ditu berekin. Nolanahi ere, hobia eskuratzekotan, irizpide objektibo hauetakoren bat bete beharko da:

- a) Elkaratea, fundazioa edo erakundea irabazi-asmorik gabekoa izatea, eta gauzatu nahi den ekitaldia haren xedearen edo fundazio-objektuaren baitakoa. % 50eko hobia
- b) Jarduera-motari dagokion arloan eskumena duen udal sailak txosten arrazoitua eman badu, indarreko tasen gainean egin beharreko hobia berariaz aipatuz, jarduera eta sailaren estrategia kontuan hartuta, eta jarduerak hiru urtetik gora iraun ez badu. % 90eko hobia.
- c) Jarduera-motari dagokion arloan eskumena duen udal sailak txosten arrazoitua eman badu, indarreko tasen gainean egin beharreko hobia berariaz aipatuz, jarduera eta sailaren estrategia kontuan hartuta, eta jarduerak hiru urtetik gora iraun badu. % 80ko hobia.

**5.** Era berean, toki jaurbidearen alorreko oinarrizko legediaren arabera eskumena duen organoaren xedapena dela medio —aldeztatik eskabidea egiten delarik, eta proposamen-

txosten arrazoitua—, tasa nahiz bermea ordaintzetik salbuetsi ahal izango dira beren ezaugarri bereziengatik hiriarentzat eta bertako biztanleentzat berebiziko interesekotzat jotzen diren gizarte, kultur nahiz kirol ekitaldi edo jarduerak.

Iradier Arenan edo biltzarretarako espazioetan edozein jarduera antolatzen dutenek —hura alokatu nahiz doan eskuratu, hoberia jaso nahiz tasa ordaintzetik salbuetsita geratu— barrutia ireki, itxi nahiz kontrolatzeko eta ekitaldia prestatu, abian jarri eta gauzatzeko beharrezko diren langileak kontratatu eta finantzatu beharko dituzte, baita hura desmuntatu, barrutia egunero nahiz gerora garbitzeko eta erabilitako hornigaiak birjartzeko behar direnak ere.

Pertsona fisikoek nahiz juridikoek jarduerak eta ekintzak egiteko udal instalazioak eskatzen ituztenean (kirol instalazioak, gizarte etxeetako gelak edo aretoak, kultur ekipamenduak, antzokiak, biltzarretako guneak, eta abar), eta ordenantzan jasotzen diren hobarietakoren bat dagokienean edo tasa ordaintzetik salbuetsita geratzen direnean, pertsona onuradunek egiten dituzten komunikazio orokor guztiak ele bietan egon behar dute.

Komunikazio orokorrak hauek dira:

- Argibideak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzuak eskaintzeko agiriak edo euskarri telematikoak.
- Megafoniaz ematen diren komunikazioak.
- Hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazioak.

## **VI. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Dena delako espazioa okupatzeko baimena ematen denean sortuko da tasa.

## **VII. KUDEAKETA-ARAUAK**

### **6. artikulua**

Zerga Kudeaketarako Zerbitzua arduratuko da tasa hau kudeatzeaz, Biltzar eta Turismo Zerbitzuak ematen dion informazioa baliatuz. Zerbitzu horri dagokio aretoak esleitzeko eta horien erabilera zehazteko arauak ematea, arlo hori arautzen duen berariazko araudiaren ildotik.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 62.2 artikuluan ezarritako epeetan ordaindu beharko da tasa.

## **ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **7. artikulua**

Zergen alorreko arau-hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagozkienetan, baita kasuan kasu horiei dagozkien zigorrak zehazteari dagozkienetan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da, baita Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrerara batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorreko arauak ere. Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **7.13 AZTERKETA-ESKUBIDEENGATIK ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **I. FUNTSA ETA IZAERA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "Azterketa-eskubideengatik eta ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Honako hau da tasaren zerga-egitatea:

- a) Gasteizko Udalak edo bere erakunde autonomoek hutsik dauden funtzionario lanpostuak jabetzan betetzeko deitzen dituzten azterketa, merezimendu-lehiaketa eta azterketa / merezimendu-lehiaketa ireki nahiz murriztuetan parte hartzeko eskabidea egitea.
- b) Gasteizko Udalak edo bere erakunde autonomoek kontratazio zerrendak sortzeko deitzen dituzten hautatze prozesuetan parte hartzeko eskabidea egitea, baldin eta zuzeneko deialdien bitartez bideratzen badira eta gutxienez ariketa bat egitea badakarte berekin.
- c) Prozesuan sortutako dokumentazioa eskuratzea, hirugarren interesdun hura lortzeko eskubidea izanik.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **3. artikulua**

Gasteizko Udalak edo bere erakunde autonomoek hutsik dauden funtzionario lanpostuak jabetzan betetzeko deitzen dituzten azterketa, merezimendu-lehiaketa eta azterketa / merezimendu-lehiaketa ireki nahiz murriztuetan parte hartzeko eskabidea egiten duten pertsona fisikoak izango dira subjektu pasiboak, zergapekoak, baita kontratazio zerrendak sortzeko egiten diren hautatze prozesuetarako eskabidea egiten dutenak ere.

### **IV. ZERGAREN KUOTA**

#### **4. artikulua**

Lehiatzaile edo izangai bakoitzak ordaindu beharreko kuotak bete beharreko plazari dagokion taldearen arabera zehaztuko dira, eskala honen arabera:

**A) ENPLEGU-ESKAINZA PUBLIKOA ETA KONTRATAZIO-ZERRENDAK SORTZEKO ETA/EDO EDO HANDITZEKO DEIALDIA:**

Taldea	KUOTAK
A (A1-A2)	18,95 euro
B eta C (C1-C2)	12,55 euro
Beste lantalde profesional batzuk	4,30 euro

**AZTERKETA-KOPIAK:** 7,70 **euro**. Hauen bidalketa hartzen du barne: galdetegia, erantzun-orriaren kopia, puntuazioen banaketa eta zuzenketa-irizpide orokorrak edo erantzun zuzenen txantiloia, norberarenak nahiz besterenak. Ez da aplikatuko ebaluazio psikologikoko probetan. Eskatutako dokumentazioak prozesurako esanguratsuak ez diren datu pertsonalak jasotzen dituen kasuetan (kontratuak, lan-bizitza...), dokumentazio bidali ordeztatik bertara edo modu telematikoa kontsultatzeko aukera emango da. Tasa dokumentazioa eskatzen den pertsona/dosier bakoitzeko ordaintzekoa da.

**EPAIMAHAIAREN ERABAKIEN ZIURTAPENAK:** 7,70 **euro ziurtapen bakoitzeko**. Akta baten edukiaren ziurtapenak dena delako epaimahaiko idazkariak jaulkiko ditu. Dena delako pertsona dela eta hartutako erabakiak —argitaratu ez direnak— barne hartuko ditu, hala nola, alegazioak onetsi edo ezesteko arrazoiak, edo balioespen-irizpideen banaketa. Tasa ziurtapena eskatzen den lehiakide bakoitzeko ordaintzekoa da.

**B) GASTEIZKO UDALAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK.**

Ikastaro hauetan parte hartzen dutenek, udalaz beste administrazio publiko batekoak badira, tarifa hauek —batera— aplikatuzetik ateratzen den kopurua ordaindu beharko dute:

1. Taula		2. Taula	
Ikastaro edo lantegiaren iraupena	Orduko prezioa	Prestakuntza-taldearen gomendatutako gehienezko tamaina egokiaren araberrako koefizientea	
1-8 ordu	13,15 euro	12 pertsona arte	1,40
9-15 ordu	11,05 euro	13-15 pertsona	1,20
16-20 ordu	8,95 euro	16-18 pertsona	1,10
20 ordutik gora	6,70 euro	18 pertsona baino gehiago	1,00

## **V. SORTZAPENA**

### **5. artikulua**

Dosierra abiarazteak dakar berekin tasa ordaindu beharra, eta eskatzailea, edozein arrazoi dela medio, azterketatik, merezimendu-lehiaketatik, azterketa / merezimendu-lehiaketatik edo kontratazio zerrendak osatzeko hautatze prozesutik baztertua geratzen bada ere ez da ordaindutakoa itzuliko.

## **VI. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **6. artikulua**

Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordaindu beharko da tasa —izenduna eta berezia izango da lanpostu bakoitzerako—. Vital Kutxaren bulegoetan egin ahal izango da ordainketa, baita Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan ere, banku txartelaren bitartez, edo internet bidez. Ordainagiria gorde egin beharko du hautagaiak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez da inolaz ere onartuko tasa itzultzeko eskabiderik.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**7.14 TAXI GIDARI IZATEKO UDAL BAIMENA ESKURATZEKO AZTERKETA EGITEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

**I. FUNTSA ETA IZAERA**

**1. artikulua**

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira "Taxi-gidari izateko udal baimena eskuratzeko azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak", zein Gasteizko Udalak ezarri baititu, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.b) eta 31 artikuluetan xedatutakoaren haritik.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**2. artikulua**

Gasteizko Udalak nahiz haren erakunde autonomoek taxi gidari izateko udal baimenak emateko egiten dituzten deialdi ireki nahiz mugatuen baitako probetan lehiatzeko eskabidea egitea izango da tasaren zerga-egitatea.

**III. SUBJEKTU PASIBOA**

**3. artikulua**

Gasteizko Udalak nahiz haren erakunde autonomoek taxi gidari izateko autonomoentzako udal baimenak emateko egiten dituzten deialdi ireki nahiz mugatuen baitako probetan lehiatzen diren pertsona fisikoak izango dira zergapeko subjektu pasiboak.

**IV. ZERGAREN KUOTA**

**4. artikulua**

Hauxe izango da aurkezten den bakoitzak ordaindu beharko duen kuota: ..... 29,90 euro

Kuotaren ehuneko 50eko hobaria izango dute kontratu finkorik ez dutenek nahiz astean 35 orduetik beherako lan kontratua dutenek.

**V. SORTZAPENA**

**5. artikulua**

Dosierra izapidetzean sortzen da ordaintzeko obligazioa, eta eskatzailea edozein arrazoi dela medio azterketatik baztertuta geratzen delarik ere ez da dirurik itzuliko.

## **VI. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **6. artikulua**

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko da tasa, zehazten den kontuan sartuz dirua, edo Udal Diruzaintzara posta igorpena eginez, Administrazio Prozeduraren Legean adierazitakoaren ildotik. Dena delako deialdian parte hartzeko eskabideari erantsi beharko zaio ordainketa egin dela erakusten duen ordainagiria, banketxeak ontzat emana, edo posta igorpenari dagokion agiria, kasuan kasu.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**I. FUNTSA ETA IZAERA****1. artikulua**

Ordenantza honetan xedatutakoen arabera arautuko da "Herritarren Udal Txartela emateagatik ordaindu beharreko tasa", zein Gasteizko Udalak ezarri baitu, Gasteizko Udalak, zein, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.b) eta 31 artikuluetan xedatutakoaren haritik.

**II. ZERGA-EGITATEA****2. artikulua**

Gasteizko Udalak jaulkitzen duen txartel bat da Herritarren Udal Txartela, zeinek titularra udal zerbitzu eta izapide jakin batzuetarako identifikatzea baitu helburu.

Hori jaulkitzeko beharrezko diren administrazio zerbitzuak eskaintzea da tasa honen objektua.

**III. SUBJEKTU PASIBOA****3. artikulua**

Herritarren Udal Txartela ematea eskatzen duten pertsona fisikoak dira subjektu pasiboak, zergapeko gisa.

**IV. ZERGAREN KUOTA****4. artikulua**

Txartela lehenengo aldiz jaulkitzea doakoa izango da —norberak eta ez bestek erabiltzekoa da—.

Herritarren Udal Txartela galdu edo lapurtuz gero, herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean edo Gazteen Argibideetarako Bulegoan baliogabetu beharko du haren titularrak.

Ondoren, nahi izanez gero, txartel berria eskuratzeko izapideak egin ahalko ditu, ezarritako baldintzak betetzen baditu. Aldez aurretik —txartela galdu egin badu— 5,50 euro ordaindu beharko ditu, eta arrazoi beragatik berriro ere txartel berria egin behar zaion bakoitzean 1,10 euro gehituko zaio kopuru horri.

**V. SORTZAPENA****5. artikulua**

Zerga-egitategat jotzen den udal jarduerari ekiten zaionean sortuko dira tasa zein hori ordaintzeko beharra.

## **VI. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

### **6. artikulua**

Kopia egiteak kosturik dakarrenean, kopia emateko unean berean ordaundu beharko da.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **7.16 BIZAN SAREKO ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.**

### **I. IZAERA ETA FUNTSA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik ezartzen ditu Gasteizko Udalak "BIZAN sareko zentroetako aretoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak", zein ordenantza honetan arautuko baitira; bertan aurreikusi gabekoetan, berriz, Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketa, zerga-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

### **II. ZERGA-EGITATEA**

#### **2. artikulua**

Testuaren artikuluetan zehazten diren aretoak erabiltzea da tasaren zerga-egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOAK ETA ERANTZULEAK**

#### **3. artikulua**

Tasaren objektu diren aretoak okupatzea eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak nahiz Arabako Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. atalean aipatzen diren entitateak izango dira subjektu pasiboak.

### **IV. TARIFAK**

#### **4. artikulua**

BIZAN sareko zentroetako gela eta lantegiak denboraldiko jarduerak —urritik ekainera bitartekoak— antolatzeko erabiltzeagatik, honako hau ordainduko da: 1,66 euro, ordu edo ordu-zatiko.

### **V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

#### **5. artikulua**

##### **1. Hobariak**

Hala eskatzen dutelarik, tasaren ehuneko 80ko hobaria aplikatzeko eskubidea izango dute onura publikoa aitortu zaien elkarteek. Horretarako, onura publikoa adierazten duen agiriaren fotokopia erantsi beharko diote aretoak erabili ahal izateko eskabideari, irabazi-

asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimena arautzen duen 35/2021 Foru Arauan aurreikusitakoaren ildotik.

## **2. Salbuespenak**

Salbuesteko eskubidea izango dute Gasteizko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, baldin eta hitzarmenean bertan hala jasotzen bada eta hartan finkatutako helburuak lortu edo jarduerak bideratzeko erabiliko badituzte eskatutako aretoak. Horretarako, hitzarmenaren fotokopia eta egingo dituzten jardueren azalpena erantsi beharko dizkiete aretoak erabiltzeko eskabideari.

Erakunde publikoak ere ordaintzetik salbuetsita egongo dira, baldin eta BIZAN sareko zentroen edo udal administrazioaren helburuekin bat datozen jarduerak badira.

## **VI. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA**

### **6. artikulua**

Eskatutako aretoa erabiltzeko baimena ematen denean sortuko da tasa.

Aretoa erabiltzea eskatu duen pertsona fisiko edo juridikoak nahiz entitateak hura benetan erabili aurretik galdatu ahal izango da tasa ordaintzea.

## **VII. KUDEAKETA ARAUAK**

### **7. artikulua**

Areto horien kudeaketari dagozkionetan, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailaren berariazko araudia aintzat hartuko da.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**7.17 ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA, URA ETA HIDROKARBURUOK GARRAIATZEKO INSTALAZIOENTZAKO JABARI PUBLIKO LOKALAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

**Atarikoak**

Aintzat harturik Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan aitortzen den arautzeko ahalmenak zein Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretua –batez ere 23.1 A) artikulua eta hurrengoak, eta, bereziki, 27.1 artikulua–, Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioentzako jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko tasa ezartzen eta arautzen da ordenantza fiskal honen bitartez, bertan finkatzen direlarik berorren erregimena eta tarifak, zein Auzitegi Gorenak zuzenbidearekin bat datozela deklaratu duen kalkulu-metodoa eta parametroak aplikatuz egindako arauzko txosten tekniko ekonomikotik hartuak baitira.

**1. artikulua.-** APLIKAZIO-EREMUA: Arabako zerga orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikuluan adierazten diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak eta gainerako entitateak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den tasa ordaintzera, jabari publiko lokala erabiltzen dutelarik, edo nola edo hala aprobetxamendu bereziaren onuradun egokitzen –dena delako zehaztapenekin– edo onura horiei probetxua ateratzen dietelarik.

Erregimen orokorra du erreferentzia ordenantza honen aplikazioak, bat baitator Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 27.1.a) artikuluan ezarritako tasarekin, hau da, jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko tasarekin, non eta ez den egokitzen bizilagun guztiei edo gehienei eragiten dien interes orokorreko zerbitzuen hornitzaile diren enpresa izatea, eta udal bide publikoetan lurzorua, lurpea edo gainaldea okupatzen den – 27.1.c) artikuluan aurreikusitako zirkunstantziak–.

**2. artikulua.-** ZERGA-EGITATEA: Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 23. ARTIKULUAREN ILDOTIK, jabari publiko lokalaren –lurzorua, lurpea edo gainaldea– erabilera edo aprobetxamendu berezia da tasaren zerga-egitatea, honelakoak tartean direlarik:

a) Energia garraiatzeko instalazioak, ezinbesteko dituzten beren elementu guztiekin – lotzeko-kutxak, metalezko dorreak, transformadoreak, energia elektrikoa, gasa, ura edo beste energia-hornidura batzuk garraiatzeko edo banatzeko instalazio edo linea propioak, ponpaketa-instalazioak eta antzeko elementuak, energiarekin zerikusia dutenak–, atal horretan jaso gabeko jabari publiko lokalaren aprobetxamendua edo erabilerak direlarik.

b) Gasa, ura, hidrokarburoak eta antzekoak garraiatzeko instalazioak.

Ordenantza honi dagozkionetarako, jabari publiko lokaltzat joko dira udal honen titulartasuneko udal-mugartean dauden erabilera, jabari publiko edo zerbitzu publikoko

ondasun guztiak, baita bertako herri-ondasunak edo auzotarren ondasun komunak ere —ez, bada, ondare-ondasunak—.

### **3. artikulua.-** SUBJEKTU PASIBOAK.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan adierazten diren pertsona fisiko nahiz juridikoak eta entitateak izango dira tasen subjektu pasiboak.

Nagusiki, tasa honen subjektu pasiboak izango dira —adieraziko diren kategoria eta moten arabera— Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan adierazten diren pertsona fisiko nahiz juridikoak eta entitateak, baldin eta uraren, gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoen sektoreetako enpresak edo ustiatzaileak badira, eta jabari publiko lokala bereziki onura partikularrerako baliatu, erabili edo aprobetxatzen badute, Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 20. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetakoren batean, hala nola energia elektrikoa, hidrokarburoak —gasbideak, oliobideak eta antzekoak— eta ura ekoitzi, garraiatu, banatu, hornitu eta merkaturatzen dituzten enpresak —udalerrri honetan nahiz beste edonon zerbitzua emateko beharrezko diren elementu erantsiak barne—, baldin eta Udalaren jabari publikoa erabili edo aprobetxatzen badute, eta, hortaz, jabari publiko lokaleko instalazioei eragiten.

**4. artikulua.-** ZERGA-OINARRIAK, -TASAK ETA -KUOTAK. Ordenantza honetan arautzen diren tasen zenbatekoa hau izango da:

4.1. Auzitegi Gorenak zenbait epaitan ezarritakoarekin bat etorriz (apirilaren 26ko 718/2024 epaia hartzen da guztien eredutzat), bi zerga-oinarri bereiz ezartzen dira, jabari publiko lokala erabiltzeko edo haren aprobetxamendu berezia egiteko moduen arabera, modu bakoitzaren erabilera-intentsitatea kontuan hartuta:

a) Erabilera pribatiboaren edo horrekin parekatutako kasuen zerga-oinarria —Auzitegi Gorenaren arabera, instalazio finkoek osatzen dute, hala nola metalezko dorreak, zutoinak, amarratze-kutxak, transformadoreak edo beste elementu mota batzuk—, txosten tekniko-ekonomikoak jasotzen duen bezala, honako hau izango da: eraikuntzak dituen landa-lurzorua-ren katastro-balioa gehi erabilera-ondasunak, jabari edo zerbitzu publikoko ondasunak eta herri-ondasunak erabiltzen edo aprobetxatzen dituzten edo horietan finkatzen diren instalazioen balioa; izan ere, subjektu pasiboek ukitutako lurren gaineko jabetza ez izan arren, murriztu egiten dute jabari publiko lokalaren erabilera edo aprobetxamendu komun eta publikoa, eta beren enpresa-jarduerarako erabilera lortzen dute haien gainean.

b) Jabari publikoaren aprobetxamendu bereziaren kasuetan, aprobetxamenduak subjektu pasiboari dakarkion baliagarritasunak osatuko du zerga-oinarria, txosten tekniko-ekonomikoak jasotzen duenaren arabera, eta jurisprudentziak xedatutakoari jarraituz.

4.2. Zerga-tasak:

Arestian definitutako zerga-oinarriei % 5eko eta % 100eko zerga-tasak aplikatuko zaizkie, hurrenez hurren, deskribatutako ordenaren arabera.

4.3. Zergaren kuota:

Aurreko bat-egitearen emaitza izango da zerga-kuota, zeina ordenantza honi erantsitako tarifetan jasota baitago. Tarifa horiek, era berean, txosten tekniko-ekonomikotik atera dira.

Horrela, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 28. artikuluko aurreikuspenak betetzen dira.

Jabari publiko lokalaren erabilera pribatiboa —edo antzeko kasuak— edo aprobetxamendu berezia dela eta aurreikusitako tasen zenbatekoa erabilera edo aprobetxamendu horren ondoriozko baliagarritasunak merkatuan izango lukeen balioa erreferentziatzat hartuta finkatuko da, eragindako ondasunak jabari publikokoak ez balira bezala, merkatuko balioa adierazten duen txosten tekniko-ekonomikoa aintzat hartuta —atarikoan aipatutako Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak jaso duen bezala—, edo dakarren baliagarritasuna erreferentziatzat hartuta.

Horretarako, hori guztia jasotzen da, Auzitegi Gorenak baliozkotutako sistemaren eta irizpideen arabera, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 27.1.a artikuluekin bat etorriz, erabilera pribatiboaren —edo parekatutako kasuen— eta aprobetxamendu bereziaren izaera espezifiko kontuan hartuta.

Tasaren zerga-kuota txosten tekniko-ekonomikoaren tarifen eranskinean dago jasota; ordenantza honen parte da hori, eta bertan, erabilitako metodologiaren bitartez, kasuan kasuko zerga-kuota lortu eta jaso da.

## **5. artikulua.- ZERGALDIA ETA SORTZAPENA.**

1.- Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, salbu eta jabetza publiko lokalaren erabilera edo aprobetxamendu bereziari ekiten edo hura bertan behera uzten denean, hiruhileko hainbanaketa egingo baita halakoetan, arau hauen arabera:

a) Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziari ekitean ematen diren alten kasuan, ekitaldia bukatzeko falta diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta gertatzen den hiruhilekoa barne.

b) Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia bertan behera uztean ematen diren bajen kasuan, ekitaldiaren hasieratik igarotako hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, baja gertatzen den hiruhilekoa barne.

2.- Ordenantza honetan arautzen den ordaintzeko obligazioa une hauetan sortzen da:

a) Jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu edo erabilera berrien emakida edo baimenen kasuan, dagokien baimena eskatzen den unean.

b) Ordenantza honen 1. artikuluan adierazi den jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi edo erabilerak lizentziarik edo baimenik behar ez badu, jabari publiko lokalaren aprobetxamendu berezi edo erabilerari ekiten zaion unean.

3.- Jabari publiko lokalaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak hainbat ekitalditan barrena luzatzen direlarik, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da tasa, eta zergaldia urte naturala izango da.

## **6. artikulua.- KUDEAKETA-ARAUAK.**

1.- Tasa subjektu pasiboari kuotak jakinaraziz galdatuko da, baldin eta autolikidaziorik ez badago edo subjektu pasiboak aitortzen ez badu —zerga-kuotak kalkulatzeko elementuei eta gainerakoei dagokienez—.

2.- Eskatu edo gauzatutako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bakoitzeko eta erabilera bakoitzeko likidatuko dira tarifen arabera galda daitezkeen kopuruak, era honetan:

a) Aprobetxamendu berrien emakiden kasuan, tasaren autolikidazio-inprimakia aurkeztu beharko da —behar bezala beteta— aprobetxamendu berezia gozatzeko baimen-eskabidearekin batera, edo, bestela, artikuluko 2. paragrafoa aplikatuko da, hurrengo paragrafoan adierazten denaren ildotik.

Aukeran, aitorenaren elementuak aurkeztu ahal izango dira Ogasun Sailean, langile eskudunek behar den laguntza eman dezaten, zorra zehazte aldera. Hala eginez gero, abonu-agiri bat emango zaio interesdunari, kuota une horretan bertan ordaintzerik izan dezan, edo dagokion epean, abonu-agirian bertan adieraziko diren lekuetakoren batean.

b) Lehendik dauden edo baimenduta dauden aprobetxamendu edo erabileren kasuan, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordaindu beharko da tasa. Ordainketa errazte aldera, edo subjektu

pasiboak datuak aurkezten ez baditu, subjektu pasiboari dagokion likidazioa egingo du Udalak, eta banku-entitate laguntzaile batean edo udal-kutxan ordaintzeko likidazio-agiria bidali ahal izango dio hari, bere helbidera.

Nolanahi ere, ordainketa-agiri hori ez jasotzeak ez du baliogabetuko Udalak zehaztutako aldian tasa ordaintzeko obligazioa.

3.- Tasaren ordainketa helbideratzeko eskatu ahal izango du subjektu pasiboak. Hala egiten badu, ordaintzeko borondatezko epearen azken hamabostaldian aginduko da banku-kontuan karga dadila, eta 100eko 5eko hobaria izango du tasaren kuotan, Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 9. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren ildotik.

## **7. artikulua.- TASAK JAKINARAZTEA.**

1.- Ordenantza honetan aipatzen diren aprobetxamendu edo erabileren kasuan, autolikidazioa aurkezten duen unean edo —aurkezten ez badu— likidazioa egiten den unean helaraziko zaio interesdunari zerga-zorraren jakinarazpena.

Aurreko atalean aurreikusitakoa gorabehera, autolikidazioa aztertzen delarik okerra dela ondorioztatzen bada, dagokion likidazioa egingo da.

2.- Ordenantza honen objektu diren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezi edo erabilera jarraituen tasen kasuan, hots, izaera periodikoa dutelarik, pertsonalki jakinaraziko da, likidazioaren bitartez, eta une horretatik zergadunen erregistroan alta emandakotzat joko da. Hurrengo ekitaldietako tasa pertsonalki jakinarazi ahal izango zaio subjektu pasiboari, edo modu kolektiboan, Udal honeko errolda iragarki-taulan jendaurrean jarritz, dagokion aldian —halakoetan, Arabako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean iragarriko da—.

3.- Ordenantza honetan arautzen diren aprobetxamenduen emakidan edo erabilera pribatiboan interesatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako entitateek nahiz administrazio-emakiden edo bestelako legezko baimenen titularrek arauzko udal-lizentziarik ez badute, eskatu egin beharko dute, eta aplikatzekoak diren tramite legalak bete, nahiz eta hori ez edukitzeak ez dituen tasa ordaintzetik salbuetsiko.

4.- Ordenantza honetan aipatzen den ondasunen okupazioa baimentzen delarik —edo lehenik ezarria egonik ere aprobetxamendu edo erabilera pribatiboaren baimenaren iraupena zehazki finkatuta ez dagoelarik—, luzatutzat joko da, ordenantza honen ondorioei dagokienez, harik eta subjektu pasiboek baja-deklarazioa aurkeztu arte.

5.- Tarifen epigrafeetan adierazten den hurrengo aldi naturaleko lehen egunetik izango du eragina baja aurkezteak. Baja ez aurkezteak tasa ordaintzen jarraitzeko obligazioa ekarriko du berekin.

## **8. artikulua.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

Arau-hauste eta zigorren erregimenari dagokionez, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

## **AZKEN XEDAPENA**

Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta hurrengo urteko urtarrilaren lehenetik aurrera aplikatuko. Indarrean jarraituko du hurrengo ekitaldietan, harik eta berariaz aldatu edo indargabetzen den arte.

# 1. ERANSKINA: ZERGA-OINARRIA ETA TARIFAK KALKULATZEKO TULAK

## I.I MULTZOA - ELEKTRIZITATEA. AIRETIKO LINEAK

### EUSKARRIEN GUNEA

INSTALAZIOA	UNITATE-BALIOA	LURZORUA (euro/m <sup>2</sup> ) (A)	ERAIKUNTZA (euro/m <sup>2</sup> ) (B)	HIGIEZINA (euro/m <sup>2</sup> ) (A+B)	Zerga-oinarria	BALIOKIDETA SUNA, LURZORU MOTAREN ARABERA (m <sup>2</sup> /ml) (C)	INSTALAZIOEI ESLEITUTAKO BALIOA (euro/ml) (BxC)	ZERGA-OINARRIA, EUSKARRIA (euro/m <sup>2</sup> ) (A+B)x0.5	EUSKARRI-GUNEKO TARIFA ZERGA-OINARRIA EUSKARRIA. ZERGA TASA (%5) (euro/m <sup>2</sup> )
					RM=0.5 (A+B)xRM				
<b>KATEGORIA BEREZIA</b>									
A1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: U= 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,109	27,574	27,683	13,842	17,704	488,17 euro/ml	13,842 euro/m <sup>2</sup>	0,692 euro/m <sup>2</sup>
A2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: U= 400 Kv. Zirkuitu bakuna	0,109	16,8	16,909	8,455	17,704	297,427 euro/ml	8,455 euro/m <sup>2</sup>	0,423 euro/m <sup>2</sup>
A3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 220 Kv=U< 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,109	39,015	39,124	19,562	11,179	436,149 euro/ml	19,562 euro/m <sup>2</sup>	0,978 euro/m <sup>2</sup>
A4 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 220 Kv=U< 400 Kv. Zirkuitu bakuna	0,109	23,8	23,909	11,955	11,179	266,06 euro/ml	11,955 euro/m <sup>2</sup>	0,598 euro/m <sup>2</sup>
<b>LEHEN KATEGORIA</b>									
B1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 110 Kv<U< 220 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,109	26,333	26,442	13,221	6,779	178,511 euro/ml	13,221 euro/m <sup>2</sup>	0,661 euro/m <sup>2</sup>
B2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu vacuna	0,109	20,137	20,246	10,123	6,779	136,509 Euro/ml	10,123 euro/m <sup>2</sup>	0,506 euro/m <sup>2</sup>
B3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 66 Kv<U= 110 Kv	0,109	20,325	20,434	10,217	5,65	114,836 euro/ml	10,217 Euro/m <sup>2</sup>	0,511 euro/m <sup>2</sup>
<b>BIGARREN KATEGORIA</b>									
C1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 45 Kv<U= 66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,109	50,926	51,035	25,518	2,376	121,000 euro/ml	25,518 euro/m <sup>2</sup>	1,276 euro/m <sup>2</sup>
C2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 45 Kv<U= 66 Kv. Zirkuitu vacuna	0,109	29,461	29,57	14,785	2,376	69,999 Euro/ml	14,785 euro/m <sup>2</sup>	0,739 euro/m <sup>2</sup>
C3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 30 Kv<U= 45 Kv.	0,109	28,323	28,432	14,216	2,376	67,295 euro/ml	14,216 euro/m <sup>2</sup>	0,711 euro/m <sup>2</sup>
<b>HIRUGARREN KATEGORIA</b>									
D1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 20 Kv<U= 30 Kv	0,109	29,176	29,285	14,643	1,739	50,737 euro/ml	14,643 euro/m <sup>2</sup>	0,732 euro/m <sup>2</sup>
D2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 15 Kv<U= 20 Kv	0,109	20,553	20,662	10,331	1,739	35,742 euro/ml	10,331 euro/m <sup>2</sup>	0,517 euro/m <sup>2</sup>
D3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 10Kv<U= 15 Kv	0,109	19,691	19,8	9,9	1,534	30,206 euro/ml	9,900 euro/m <sup>2</sup>	0,495 euro/m <sup>2</sup>
D4 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 1Kv<U= 10 Kv.	0,109	14,534	14,643	7,322	1,517	22,048 euro/ml	7,322 euro/m <sup>2</sup>	0,366 euro/m <sup>2</sup>

HEGALDI-EREMUA

INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (euro/m2) (A)	BALIOKIDETAS UNA, LURZORU MOTAREN ARABERA (m2/ml) (B)	INSTALAZIOAREN BALIOA (euro/ml) (AXB)	HEGALDI EREMUKO INSTALAZIOAREN BALIOA (euro/m2) (A+B)x0.2	ONDORIOZKO BALIAGARRITASU NAREN BALIOA AXBx0.2/40 (euro/ml)
<b>KATEGORIA BEREZIA</b>						
A1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: U= 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	27,574	17,704	488,17 euro/ml	97,634 euro/ml	2,441 euro/ml
A2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: U= 400 Kv. Zirkuitu bakuna	16,800	17,704	297,427 euro/ml	59,485 euro/ml	1,487 euro/ml
A3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 220 Kv=U< 400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	39,015	11,179	436,149 euro/ml	87,230 euro/ml	2,181 euro/ml
A4 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 220 Kv=U< 400 Kv. Zirkuitu bakuna	23,800	11,179	266,06 euro/ml	53,212 euro/ml	1,33 euro/ml
<b>LEHEN KATEGORIA</b>						
B1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 110 Kv<U< 220 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	26,333	6,779	178,511 Euro/ml	35,702 euro/ml	0,893 euro/ml
B2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv . Zirkuitu bakuna	20,137	6,779	136,509 euro/ml	27,302 Euro/ml	0,683 euro/ml
B3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 66 Kv<U= 110 Kv	20,325	5,65	114,836 euro/ml	22,967 euro/ml	0,574 euro/ml
<b>BIGARREN KATEGORIA</b>						
C1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 45 Kv<U= 66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	50,926	2,376	121 euro/ml	24,200 euro/ml	0,605 euro/ml
C2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 45 Kv<U= 66 Kv. Zirkuitu bakuna	29,461	2,376	69,999 euro/ml	14,000 euro/ml	0,350 euro/ml
C3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 30 Kv<U= 45 Kv.	28,323	2,376	67,295 euro/ml	13,459 euro/ml	0,336 euro/ml
<b>HIRUGARREN KATEGORIA</b>						
D1 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 20 Kv<U= 30 Kv	29,176	1,739	50,737 Euro/ml	10,147 euro/ml	0,254 euro/ml
D2 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 15 Kv<U= 20 Kv	20,533	1,739	35,742 euro/ml	7,148 Euro/ml	0,179 euro/ml
D3 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 10Kv<U= 15 Kv	19,691	1,534	30,206 euro/ml	6,041 euro/ml	0,151 euro/ml
D4 MOTA	Goi-tentsioko airetiko linea. Tentsioa: 1Kv<U= 10 Kv.	14,534	1,517	22,048 euro/ml	4,410 euro/ml	0,110 euro/ml

U Tentsio izendatua

220Kv-tik beherako tentsio izendatua duten garraio-sareetako lineak beren tentsioaren kategorian sartuko dira, zergari dagozkionetarako

**I.II MULTZOA - ELEKTRIZITATEA. LURPEKO LINEAK**

INSTALAZIOA	ERAIKUNTZA (euro/m2) (A)	BALIOKIDETASUNA , LURZORU MOTAREN ARABERA (m2/ml) (B)	INSTALAZIOAREN BALIOA (euro/ml) (AXB)	ONDORIOZKO BALIAGARRITASUN AREN BALIOA AXB/40 euro/ml)	
<b>KATEGORIA BEREZIA</b>					
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: U= 400 Kv.	1185,928	0,600	711,557	17,789
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 220 Kv<U< 400 Kv.	1111,808	0,600	667,085	16,677
<b>LEHEN KATEGORIA</b>					
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv .	1063,406	0,500	531,703	13,293
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 66 Kv<U= 110 Kv	726,086	0,500	363,043	9,076
<b>BIGARREN KATEGORIA</b>					
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat.Tentsioa: 45 Kv<U= 66 Kv.	339,860	0,400	135,944	3,399
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 30 Kv<U= 45 Kv.	295,530	0,400	118,212	2,955
<b>HIRUGARREN KATEGORIA</b>					
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 20 Kv<U= 30 Kv	265,978	0,400	106,391	2,660
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 15 Kv<U= 20 Kv	236,425	0,400	94,570	2,364
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 10Kv<U= 15 Kv	141,855	0,400	56,742	1,419
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linea-metro bat. Tentsioa: 1Kv<U= 10 Kv.	118,213	0,400	47,285	1,182

U Tentsio izendatua

220Kv-tik beherako tentsio izendatua duten garraio-sareetako lineak beren tentsioaren kategorian sa

**II. MULTZOA - GASA ETA HIDROKARBUROAK**

INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (euro/m <sup>2</sup> ) (A)	BALIOKIDETASUN A, LURZORU MOTAREN ARABERA (m <sup>2</sup> /ml) (B)	INSTALAZIOEN BALIOA (euro/ml) (AxB)	ONDORIOZKO BALIAGARRITASU NAREN BALIOA AXB/40 (euro/ml)
A MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 4 hazbeteko diametroa arte.	13,266	3,000	39,798	0,995
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
B MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 4 hazbetetik 6ra arteko diametroa	13,260	6,000	79,560	1,989
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
C MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 6 hazbeteko diametrotik gora, 8 hazbetera arte.	19,900	6,000	119,400	2,985
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
D MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 8 hazbeteko diametrotik gora, 12 hazbetera arte.	26,530	6,000	159,180	3,980
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
E MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 12 hazbeteko diametrotik gora, 16 hazbetera arte.	29,850	8,000	238,800	5,970
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
F MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 16 hazbeteko diametrotik gora, 20 hazbetera arte.	39,800	8,000	318,400	7,960
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
G MOTA	Gasaren edo hidrokarbuoren kanalizazio-metro bat, 20 hazbeteko diametrotik gora	39,800	10,000	398,000	9,950
			(m <sup>2</sup> /ml)	(euro/ml)	(euro/ml)
H MOTA	Gas edo hidrokarbuoren bulkada-instalazio bat, edo biltegi bat, edo tanga bat, 10 m <sup>3</sup> -ra arte.	63,500	100,000	6.350,000	158,750
			(m <sup>2</sup> /unitate)	(euro/ unitate)	(euro/ unitate)
I MOTA	Gas edo hidrokarbuoren bulkada-instalazio bat, edo biltegi bat, edo tanga bat, 10 m <sup>3</sup> edo gehiagokoa.	63,500	500,000	31.750,000	793,750
			(m <sup>2</sup> /unitate)	(euro/unitate)	(euro/unitate)

**III. MULTZOA - URA**

INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (euro/m <sup>2</sup> ) (A)	BALIOKIDETASUN A, LURZORU MOTAREN ARABERA (B)	INSTALAZIOEN BALIOA (euro/ml) (AxB)	ONDORIOZKO BALIAGARRITASUN AREN BALIOA AXB/40 (euro/ml)
A MOTA	Hodi-metro bat, 10 cm-ko diametroa arte.	10,366	3,000	31,098	0,777
B MOTA	Hodi-metro bat, 10 cm-ko diametrotik gora eta 25 cm-ra arte.	13,292	3,000	39,876	0,997
C MOTA	Hodi-metro bat, 25 cm-ko diametrotik gora eta 50 cm-ra arte.	18,975	3,000	56,925	1,423
D MOTA	Hodi-metro bat, 50 cm-ko diametrotik gora.	22,869	3,000	68,607	1,715
E MOTA	Kanal-metro lineala.	26,532	D	26,532xD	26,532xD/40

D Kanalaren barne-perimetroa (m)

**“Udalbatzaren 2025eko maiatzaren 7ko bilkuran onetsitako testua –2025eko uztailaren 2ko ALHAO, 74. zk.”**



## **8.1 UDALAREN HAUR ESKOLETARA JOATEAGATIK ETA HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

### **KONTZEPTUA**

#### **1. artikulua**

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 2.1.e artikuluan eta 46.ean xedatutakoaren ildotik, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. eta 20. artikuluan ezarritakoaren arabera ere, ezarri egiten da "Udal haur-eskoletara eta Hezkuntza Zerbitzuaren oporretako programetara joateagatik ordaindu beharreko prezio publikoa", zein ordenantza honetan arautuko baita.

### **BEHARTUAK**

#### **2. artikulua**

Ordenantza honetan finkatutakoak eragiten dien eta seme-alabak udal haur-eskoletan eta/edo Hezkuntza Zerbitzuaren oporretako programetan matrikulatzen dituzten pertsonak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### **ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

#### **3. artikulua**

##### **I. UDALAREN HAUR-ESKOLETARA JOATEA, 2025-2026 IKASTURTEA**

1.- Udalaren haur-eskolek doako zerbitzua emango dute, matrikula barne, bi ordutegietan: 08:00 - 13:00 eta 08:00 - 16:00. Doakotasun-neurri horretatik kanpo geratuko da jantoki zerbitzua, zeina 08:00 - 16:00 ordutegiaren barruan sartuta baitago. Prezioa 35,30 euro izango da.

2.- Zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoeran dauden familietako haurrak, 2023, 2024 eta 2025ean jaiotakoak, jantoki zerbitzua ordaintzetik salbuetsita geratu ahal izango dira, baldin eta Udalaren gizarte-zerbitzuek bideratzen eta horretarako proposamen arrazoitua egiten badute. Ikasturte bakoitzean, udal haur-eskoletan matrikulatzeari buruzko araudiak zehaztuko du zenbat plaza gordeko diren gehienez udal gizarte-zerbitzuek bideratutako haurrentzat.

3.- Udal haur-eskoletara joateagatik eta jantoki zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak, 2025-2026 ikasturtean, hauek izango dira:

- **1. ASISTENTZIA:** 08:00etatik 13:00etara.

2023, 2024 eta 2025ean jaiotako haurrak .....0,00 euro hilean, bakoitzeko.

- **2. ASISTENTZIA:** 08:00etatik 16:00etara.

2023, 2024 eta 2025ean jaiotako haurrak (6 hilabete bete ondoren) ... 35,30 euro hilean, bakoitzeko.

4.- Jantoki zerbitzuaren kuota, 08:00 - 16:00 ordutegian matrikulatuta dauden 6 hilabeteko haurrei, 6 hilabete bete eta hurrengo hilabetetik aurrera kobratuko zaie.

5.- 2025ean jaiotako hurrek, 6 hilabete baino gutxiago izanik 08:00 - 16:00 ordutegian matrikulatuta badaude, jantoki zerbitzua erabili ahal izango dute familiak hala eskatzen badu. Kasu horretan, 2. asistentzian ezarritako prezio publikoa kobratuko zaie.

#### **APLIKAZIO-ARAUAK**

1. Ordainketa guztiak banketxearen bidez helbideratuko dira.
2. Jantoki zerbitzuaren kuota hila burutzean kobratuko da, eta hilabete bati dagokiona izango da, edozein delarik ere haurrak eskolan egiten duen egonaldia, eskola irekita dagoen egunen kopurua, edo funtzionamendu-mota.
3. Hilabete baino gehiago eta, gehienez ere, bi hilabete ematen badu haurrak eskolara joan gabe, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio idatziz eta behar bezala justifikatu, hamar egun balioduneko epean hutsegitearen lehen egunetik. 08:00 - 16:00 ordutegian, justifikatutako hutsegite horiek onartu badituzte, jantoki zerbitzuaren kuota ehuneko 50 murriztuko da.  
  
Aplikatu den kuota ez da proportzionala izango —absentzia-egunen arabera—, hilekoa baizik. Hortaz, hileko kuotari aplikatuko zaio ehuneko 50eko murrizketa, hilabete batean edo bitan, kasuan kasu.
4. Jantoki zerbitzua bi hilabetez ordaintzen ez bada, besterik gabe emango zaio baja haurrari jantoki zerbitzuan, eta, ondorioz, 08:00 - 16:00 ordutegian. Hala ere, 08:00 - 13:00 ordutegian matrikulatuta jarraitu ahal izango du.
5. Prezio publiko horiek adierazitako epeetan ordaintzen ez badira, premia bidezko prozedurari ekingo zaio, zordunaren ondarearen kontra, eta "premia bidezko gehikuntza" kontzeptuagatik ehuneko 20 erantsiko.
6. Noiz edo noiz 16:00ak arte geratzen bada haurra, jantoki zerbitzua ordutegi horren barruan dagoenez, tarifari ehuneko 10 gehitu ondoren hura hainbanatsetik ateratzen dena ordaindu beharko da.

#### **II. HEZKUNTZA ZERBITZUAREN OPORRETAKO PROGRAMA.**

Hezkuntza Zerbitzuak udaldirako antolatu ohi dituen oporretako programetan parte hartzeko ordaindu beharreko prezio publikoak ondoren adierazten direnak izango dira 2025ean. Hamar egunez irauten duten opor-jarduerari aplikatuko zaizkie prezio horiek. Jardueraren egun-kopurua beste bat izanez gero, prezio publiko proportzionalak aplikatuko dira.

- "Jolas-txokoak, jantokirik gabe", edo antzeko jardueraren bat, kostuan parekagarria: 58,20 euro.

- "Jolas-txokoak, jantokiarekin", edo antzeko jardueraren bat, kostuan parekagarria: 95,50 euro.

- "Udaleku irekiak", edo antzeko jardueraren bat, kostuan parekagarria: 106,50 euro.

- "Udaleku irekiak", edo antzeko jardueraren bat garraio zerbitzuarekin, kostuan parekagarria: 140,20 euro.

#### **APLIKAZIO-ARAUAK**

1. Izena ematean ordaindu beharko da prezio publikoa.
2. Ehuneko 50eko hobaria ezartzen da oporretako programaren aurreko azken ikasturtean Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren alorreko eskumena duen sailaren beka eskuratu duten haurrentzat.
3. Urtero, zehaztu egingo da zenbat plaza gordeko diren zaurgarritasun sozial eta ekonomiko bereziko egoeran daude haurrentzat; Udalaren Gizarte Zerbitzuek bideratu beharko dituzte

haur horiek. Gizarte Zerbitzuen proposamen arrazoitua dela medio, prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira.

**4.** Izena eman duen norbaitek azkenean jarduera burutzerik ez badu, hura hasi aurretik jakinarazi beharko da zirkunstantzia hori, hala egin ezean galdu egingo baitu ordaindutako diru-kopurua. Itzultzen bada, bankuko kontuan sartuz egingo da. Diru-kopuruaren ehuneko 85 itzuliko da, eta gainerako ehuneko 15a, berriz, kudeaketa-gastu gisa atxikiko.

**5.** Gutxieneko izen-emate kopurua lortzen ez duten jarduerak bertan behera gelditu daitezke. Jarduerak arrazoi horregatik nahiz izena eman dutenek zerikusirik ez duten eta gerora egokitu diren zirkunstantziengatik bertan behera geratzen direlarik ere, ehuneko 100 itzuliko da, bankuko kontuan sartuz.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berriaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## 8.2 "LUIS ARANBURU" UDAL MUSIKA ESKOLAREN ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA

### KONTZEPTUA

#### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen da "Luis Aranburu Udal Musika Eskolaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoa", zein ordenantza honetan arautuko baita.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 2. artikulua

Luis Aranburu Musika Eskolak antolatutako ikastaroetan matrikulatzen direnak nahiz eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### ZENBATEKOA

#### 3. artikulua

1. Hurrengo atalean adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoa.
2. Hauek izango dira prezio publiko honen tarifak, irakasgai eta aldiko:

<b>Luis Aranburu Musika Eskolako prezio publikoak</b>		
	<b>ikasturtea</b>	
	Prezioa	Aldia
<b>Matrikula</b>	75,42 euro	urtean
Multzoa: Instrumentua + instrumentu-multzoa, Abesbatza edo Eskolania	157,13 euro	hiru hilean
Multzoa: Musika-tresna + Musikaren lengoaia	169,70 euro	hiru hilean
Multzoa: Musika-tresna + Musikaren Lengoaia + Musika-tresna taldea	226,28 euro	hiru hilean

\* Matrikularen zenbatekoa matrikula egiten den hilaren arabera hainbanatuko da: irailean, % 100; urtarrilean, % 66, eta apirilean, % 33.

<b>Luis Aranburu Musika Eskolako prezio publikoak</b>		
	<b>ikasturtea</b>	
	Prezioa	Aldia
Musikaren lengoaia	75,42 euro	hiru hilean
Musika-tresna	113,13 euro	hiru hilean
Konboa, Instrumentu-multzoa edo Abesbatza edo Eskolania	56,57 euro	hiru hilean
Musika-informatika	100,57 euro	hiru hilean
Musika-informatika on-line	56,57 euro	hiru hilean
Harmonia	100,57 euro	hiru hilean
I. maila	56,57 euro	hiru hilean
Musika-tresnaren aurrekoa	62,85 euro	hiru hilean
Irakaskuntza indartua (15 minutu)	15,76 euro	hiru hilean
Irakaskuntza indartua (30 minutu)	31,51 euro	hiru hilean
Musika-tresnak mailegatzea	52,52 euro	hiru hilean

Aldi berean bi instrumentu-multzotan (edo bokaletan) parte hartzen duten ikasleei kuota bakarra aplikatuko zaie ikasgai horrengatik.

<b>Luis Aranburu Udal Musika Eskolaren bestelako zerbitzuen prezio publikoak</b>	
	<b>ikasturtea</b>
	<b>Prezioa</b>
Ikasgela bakarka ikasteko erabiltzea, hilean *	16,48 euro
Ikasgela bakarka ikasteko erabiltzea, urtean *	98,99 euro
Kontzertuak	5,25 euro

\* Prezio horretatik salbuetsita egongo dira ikasturtean matrikulatutako ikasleak.

Kategoria orokorreko familia ugariak matrikula erdia doan izango dute (% 50).  
 Categoria bereziko familia ugariak matrikula doan izango dute (% 100).

Guraso bakarreko familiek ehuneko 50eko hobaria izango dute matrikularen prezioan.

Zerbitzu hau emateagatik ordaindu beharreko prezioetan ez zaie hobaririk edo deskonturik egingo 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsona edo familiei.

## **IKASTARO OSAGARRIAK**

Honako hauek hartzen ditu zerbitzuak:

1. Ikasturtearen barruan noizbehinka programatzen diren ikastaroak, eskolak berak antolatuta.

Ikastaro bakoitzaren ordu kopuruaren arabera ezartzen dira prezioak, modu honetan:

<b>Ikastaro osagarriak</b>	
	<b>Ikasturtea</b>
	<b>Prezioa</b>
4 ordura arteko ikastaroak (ikasle aktiboak)	24,67 euro
4 ordura arteko ikastaroak (ikasle entzuleak)	12,98 euro
5 ordutik gorako ikastaroak (ikasle aktiboak)	55,56 euro
5 ordutik gorako ikastaroak (ikasle entzuleak)	26,53 euro

Prezio horretatik salbuetsita egongo dira ikasturtean matrikulatutako ikasleak.

Lekua dagoela baieztatu eta onartua izan ondoren ordaindu beharko da prezioa.

## **ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

### **4. artikulua**

Irakasgaietarako matrikula egiten denean sortzen da ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzeko obligazioa.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



### 8.3 GIZARTE POLITIKEN SAILAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK.

#### KONTZEPTUA

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen da “Gizarte Politiken Sailak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoak”, zein ordenantza honetan arautuko baita.

#### ZENBATEKOAK

Hauek izango dira tarifak:

**Lehen tarifa: Etxean laguntzeko nahiz otorduak etxera banatzeko zerbitzuaren prezio publikoa.**

Hileko per capita errenta		ELZ Orduko prezioa	Otorduak Otorduak (bakoitza)	Gehienez ordaindu beharrekoa, per capita errentaren gainean
IPREMen % 50era arte 350,00 €		0,25 €	1,24 €	ehuneko 25
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	0,30 €	2,04 €	ehuneko 30
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	0,35 €	3,06 €	ehuneko 35
IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	0,50 €	3,50 €	ehuneko 40
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	0,67 €	3,73 €	ehuneko 40
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	1,16 €	3,84 €	ehuneko 40
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	1,78 €	4,07 €	ehuneko 40
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	2,49 €	4,18 €	ehuneko 40
IPREMen % 135etik gora 945,01 €	IPREMen % 150era arte 1050,00 €	3,40 €	4,40 €	ehuneko 40

IPREMen % 150etik gora 1050,01 €	IPREMen % 165era arte 1155,00 €	4,46 €	4,75 €	ehuneko 40
IPREMen % 165etik gora 1155,01 €	IPREMen % 175era arte 1225,00 €	4,88 €	4,86 €	ehuneko 40
IPREMen % 175etik gora 1225,01 €	IPREMen % 200era arte 1400,00 €	5,24 €	5,42 €	ehuneko 40
IPREMen % 200etik gora 1400,01 €		5,58 €	5,99 €	ehuneko 40

IPREM: Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa

- Hileko per capita errentatzat hauxe joko da: familia-unitateak azken ekonomia-ekitaldian guztira izandako diru-sarrera dagokien kopurua zati urteko hamabi hilabeteak zati familia-unitateko kideen kopurua egitetik ateratzen den zenbatekoa.
- Onuraduna bakarrik bizi denean, taulan ezarritako prezioak zuzenean aplikatuko zaizkio dagokion errenta tarteari.
- Argitaratu den azken urteko IPREMaren (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tarteak, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.
- Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko, hilean aitortutako orduen kopurua zehaztu beharko da nahitaez; horretarako, asteko orduen batura 4,3 faktorearekin biderkatuko da.
- Etxeko laguntza zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzua aldi baterako erabiltzeari uzten diotenean ez da ezer kobratuko, baldin eta etena ondoz ondoko 7 egun naturalekoa edo gehiagokoa bada. Horretarako, erabiltzaileek idatziz eman beharko dute etenaren berri, etena hasi baino gutxienez 7 egun lehenago, behar bezala justifikatutako egoeretan izan ezik, hau da, premiaren ondorioz aurreabisu-epe hori betetzea ezinezkoa denean. Zerbitzuaren erabilera eten den aldia ondoz ondoko 7 egun naturalatik beherakoa bada, ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko dute erabiltzaileek.
- Adin txikikoez arduratzeari dagokionean defizita duten familiei nahiz atzera bueltarik gabeko hondatze-prozesuari aurre egiteko aldi batez laguntza behar duten pertsonen zuzenduak direlarik etxean laguntzeko zerbitzuak dohainik izango dira, baldin eta horren aldeko txosten soziala aurkezten bada.

**Bigarren tarifa: Adinekoentzako jantokien zerbitzuaren prezio publikoa.**

Balorazio soziala egin ondoren zerbitzua erabiltzen dutenek ondoko baremo-taulan adierazten dena ordaindu beharko dute:

Hileko per capita errenta		Ordaindu beharrekoa
IPREMen % 50era arte	350 €	1,04 euro
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	1,44 euro
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	1,83 euro

IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	2,34 euro
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	3,00 euro
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	3,64 euro
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	4,41 euro
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	4,82 euro
IPREMen % 135etik gora 945,01 €		5,07 euro

Jantoki-zerbitzua aldika erabiltzen dutenek otorduko 5,07 euro ordaindu beharko dute.

Argitaratu den azken urteko IPREMen (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tarteak, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.

**Hirugarren tarifa: Adinekoentzako Eguneko Arreta Zerbitzua emategatiko prezio publikoa.**

Hirugarrena-a: Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzuaren (astelehenetik igandera) prezio publikoa.

Prezioa: 297,26 euro hilean

Hilean ordaindu beharreko prezioa bitan banatuko da:

a) Lehen zatia, hileko per capita errentaren tartearen arabeko kuotari dagokio.

b) Bigarren zatia goian adierazitako moduan zehaztutako hileko kuotaren eta hileko 297,26 euroko kopuruaren arteko aldea izango da, eta horren ordainketa luzatu egin ahal izango da, zergapekoak hala eskatuz gero —ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du—.

Bi kopuruaren arteko hori Gasteizko Udalaren aldeko zortzat onartu beharko da.

Hileko per capita errenta		Gehieneko kuota (tarteztarte)
IPREMen % 50era arte	350 €	29,73 euro
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	44,59 euro
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	56,48 euro
IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	77,29 euro
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	98,09 euro
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	118,90 euro

<b>Hileko per capita errenta</b>		<b>Gehieneko kuota (tartez tarte)</b>
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	142,69 euro
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	166,46 euro
IPREMen % 135etik gora 945,01 €	IPREMen % 150era arte 1050,00 €	190,25 euro
IPREMen % 150etik gora 1050,01 €	IPREMen % 165era arte 1155,00 €	217,00 euro
IPREMen % 165etik gora 1155,01 €	IPREMen % 175era arte 1225,00 €	240,78 euro
IPREMen % 175etik gora 1225,01 €	IPREMen % 200era arte 1400,00 €	267,54 euro
IPREMen % 200etik gora 1400,01 €		297,26 euro

Erabiltzailea bertara joan gabe egoten bada aldi batez, arrazoi justifikatuengatik, ez du kuota murrizteko eskubiderik izango lehenengo 30 egunetan. Hogeita hamaikagarren egunetik aurrera, kanpoan emandako egunei dagokien kuotaren ehuneko 40 murriztu ahal izango zaio, hala eskatuz gero.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku, urtean arteko gutxieneko soldataren % 20tik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko.

Argitaratu den azken urteko IPREMen (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tartea, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.

**Hirugarrena-b: Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzuaren (astelehenetik ostiralera) prezio publikoa.**

Prezioa: 215,83 euro hilean

Hilean ordaindu beharreko prezioa bitan banatuko da:

- Lehen zatia, hileko per capita errentaren tartearen araberrako kuotari dagokio.
- Bigarren zatia goian adierazitako moduan zehaztutako hileko kuotaren eta hileko 215,83 euroko kopuruaren arteko aldea izango da, eta horren ordainketa luzatu egin ahal izango da, zergapekoak hala eskatuz gero —ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du—.

Bi kopuruaren arteko hori Gasteizko Udalaren aldeko zortzat onartu beharko da.

<b>Hileko per capita errenta</b>		<b>Hileko KUOTA (tartez tarte)</b>
IPREMen % 50era arte	350 euro	21,58 euro

Hileko per capita errenta		Hileko KUOTA (tartez tarte)
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	32,37 euro
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	41,01 euro
IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	56,12 euro
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	71,23 euro
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	86,34 euro
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	103,60 euro
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	120,87 euro
IPREMen % 135etik gora 945,01 €	IPREMen % 150era arte 1050,00 €	138,13 euro
IPREMen % 150etik gora 1050,01 €	IPREMen % 165era arte 1155,00 €	157,56 euro
IPREMen % 165etik gora 1155,01 €	IPREMen % 175era arte 1225,00 €	174,83 euro
IPREMen % 175etik gora 1225,01 €	IPREMen % 200era arte 1400,00 €	194,25 euro
IPREMen % 200etik gora 1400,01 €		215,83 euro

Erabiltzailea bertara joan gabe egoten bada aldi batez, arrazoi justifikatuengatik, ez du kuota murrizteko eskubiderik izango lehenengo 30 egunetan. Hogeita hamaikagarren egunetik aurrera, kanpoan emandako egunei dagokien kuotaren ehuneko 40 murriztu ahal izango zaio, hala eskatuz gero.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku, urtean arteko gutxieneko soldataren % 20tik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko.

Argitaratu den azken urteko IPREMaren (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tartreak, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.

### **Hirugarrena-c: Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzuaren (larunbat eta igandeetan) prezio publikoa**

Prezioa: 10,40 euro egunean.

Hilean ordaindu beharreko prezioa bitan banatuko da:

- a)** Lehen zatia, hileko per capita errentaren tartearen araberrako kuotari dagokio.

**b)** Bigarren zatia goian adierazitako moduan zehaztutako eguneko kuotaren eta eguneko 10,40 euroko kopuruaren arteko aldea izango da; horren ordainketa luzatu egin ahal izango da, zergapekoak hala eskatuz gero —ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du—.

Bi kopuruaren arteko hori Gasteizko Udalaren aldeko zortzat onartu beharko da.

<b>Hileko per capita errenta</b>		<b>Eguneko KUOTA (tartez tarte)</b>
IPREMen % 50era arte	350 euro	1,04 euro
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	1,56 euro
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	1,98 euro
IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	2,70 euro
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	3,43 euro
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	4,16 euro
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	4,99 euro
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	5,82 euro
IPREMen % 135etik gora 945,01 €	IPREMen % 150era arte 1050,00 €	6,65 euro
IPREMen % 150etik gora 1050,01 €	IPREMen % 165era arte 1155,00 €	7,59 euro
IPREMen % 165etik gora 1155,01 €	IPREMen % 175era arte 1225,00 €	8,42 euro
IPREMen % 175etik gora 1225,01 €	IPREMen % 200era arte 1400,00 €	9,36 euro
IPREMen % 200etik gora 1400,01 €		10,40 euro

Erabiltzailea bertara joan gabe egoten bada aldi batez, arrazoi justifikatuengatik, ez du kuota murrizteko eskubiderik izango lehenengo 30 egunetan. Hogeita hamaikagarren egunetik aurrera, kanpoan emandako egunei dagokien kuotaren ehuneko 40 murriztu ahal izango zaio, hala eskatuz gero.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku, urtean arteko gutxieneko soldataren % 20tik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko.

Argitaratu den azken urteko IPREMen (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tartea, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.

**Laugarren tarifa: ostatu-zerbitzuak**

**Laugarrena a): Adinekoentzako etxe komunitario eta egoitzetako egonaldien prezio publikoa:**

Prezioa: 12.318,68 euro urtean

Bi zatitan banatuko dira ordaindu beharreko prezioak:

- a) Lehena, urteko balioespen ekonomikoaren ehuneko 75koa, urtean 12.318,68 euroko mugarekin —1.026,55 euro hilean—, baldin eta diru-sarrerak baditu, edo erraz gauza daitekeen ondarea.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu egoiliarraren esku, urtean, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 20tik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko.

- b) Bigarren zatia goian adierazitako moduan zehaztutako urteko kuotaren eta urteko 12.318,68 euroko kopuruaren arteko aldea izango da, eta horren ordainketa luzatu egin ahal izango da, zergapekoak hala eskatuz gero —ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du—.

Bi kopuruen arteko hori Gasteizko Udalaren aldeko zortzat onartu beharko da. Erabiltzailea bertara joan gabe egoten bada aldi batez, arrazoi justifikatuengatik, ez du kuota murrizteko eskubiderik izango lehenengo 30 egunetan. Hogeita hamaikagarren egunetik aurrera, kanpoan emandako egunei dagokien kuotaren ehuneko 40 murriztu ahal izango zaio, hala eskatuz gero.

**Laugarrena b): Adinekoentzako zainpeko apartamentuen zerbitzuaren prezio publikoa.**

Prezioa: 296,06 euro hilean.

Hilean ordaindu beharreko prezioa bitan banatuko da:

- a) Lehen zatia, hileko per capita errentaren tartearen araberrako kuotari dagokio.
- b) Bigarren zatia goian adierazitako moduan zehaztutako hileko kuotaren eta 296,06 euroko kopuruaren arteko aldea izango da, eta horren ordainketa luzatu egin ahal izango da, zergapekoak hala eskatuz gero —ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du.

Bi kopuruen arteko hori Gasteizko Udalaren aldeko zortzat onartu beharko da

Hileko per capita errenta		Gehieneko kuota (tarteztarte)
IPREMen % 50era arte	350 euro	53,29 euro
IPREMen % 50etik gora 350,01	IPREMen % 65era arte 455,00 €	74,01 euro
IPREMen % 65etik gora 455,01 €	IPREMen % 75era arte 525,00 €	94,74 euro

Hileko per capita errenta		Gehieneko kuota (tartez tartez)
IPREMen % 75etik gora 525,01 €	IPREMen % 90era arte 630,00 €	121,39 euro
IPREMen % 90etik gora 630,01 €	IPREMen % 100era arte 700,00 €	150,99 euro
IPREMen % 100etik gora 700,01 €	IPREMen % 110era arte 770,00 €	180,60 euro
IPREMen % 110etik gora 770,01 €	IPREMen % 125era arte 875,00 €	216,13 euro
IPREMen % 125etik gora 875,01 €	IPREMen % 135era arte 945,00 €	251,65 euro
IPREMen % 135etik gora 945,01 €		296,06 euro

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku, urtean arteko gutxieneko soldataren % 20tik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko.

Erabiltzailea bertara joan gabe egoten bada aldi batez, arrazoi justifikatuengatik, ez du kuota murrizteko eskubiderik izango lehenengo 30 egunetan. Hogeita hamaikagarren egunetik aurrera, kanpoan emandako egunei dagokien kuotaren ehuneko berrogeita murriztu ahal izango zaio, hala eskatuz gero.

Argitaratu den azken urteko IPREMaren (hamalau ordainsari hamabi hilabetetan) arabera eguneratuko dira tartekak, eta guztira ordaindu beharreko zenbatekoa ezarritako prezio publikoaren arabera eguneratuko da.

#### **Laugarrena c): Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxeen zerbitzuaren prezio publikoa.**

Pertsonaren edo familiaren diru-sarreraren % 30.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku legokiokeen DBEren —diru-sarrerak bermatzeko errenta— % 25etik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko, alegia, gastu pertsonaletarako.

#### **Laugarrena d): Udalaren Harrera Zentroko zerbitzuen prezio publikoa.**

Pertsonaren edo familiaren diru-sarreraren % 30, sei hilabetetik gorako egonaldia egin eta —interesatuaren egoeraren arabera— Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako baliabideren bat eskatua dutenentzat.

Ehuneko hori aplikatzearen ondorioz ezingo da inolaz ere geratu erabiltzailearen esku legokiokeen DBEren —diru-sarrerak bermatzeko errenta— % 25etik beherako diru-kopurua, bere gisa erabiltzeko, alegia, gastu pertsonaletarako.

#### **Bosgarren tarifa: Podologia Zerbitzuaren prezio publikoa.**

Prezioa: 14,50 euro zerbitzu bakoitzeko.

## KUDEAKETA-ARAUAK

Udaleko Ogasun Sailari dagokio araudi honetan adierazten diren prezio publikoak kudeatu eta likidatzea, Udaleko Gizarte Politiken, adinekoen eta haurren Sailari dagozkion zereginak eta ahalmenak gorabehera.

### PREZIO PUBLIKOA DUTEN ZERBITZUAK ETA ORDAINTZERA BEHARTUAK

1. Zerbitzu hauek baliatzeko prezio publikoa ordaindu beharko da:

**Lehen tarifa** - Etxean laguntzeko nahiz otorduak etxera banatzeko zerbitzuaren prezio publikoa

**Bigarren tarifa** - Adinekoentzako jantoki-zerbitzua

**Hirugarren tarifa** – Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua

**Hirugarrena a** - Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua, astelehenetik igandera

**Hirugarrena b** - Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua, astelehenetik ostiralera

**Hirugarrena c** - Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua, larunbat eta igandeetan

**Laugarren tarifa** – Ostatu-zerbitzuak:

**Laugarrena a** - Etxe komunitarioak edo egoitzak

**Laugarrena b** – Adinekoentzako zainpeko apartamentuen zerbitzuaren prezio publikoa.

**Laugarrena c** – Gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko harrera-etxeen zerbitzuaren prezio publikoa.

**Laugarrena d** – Udalaren Harrera Zentroko zerbitzuen prezio publikoa.

**Bosgarren tarifa** – Podología zerbitzua

2. Eguneratu edo aldatzen ez diren bitartean izango dira aplikagarri ordenantza honetako tauletan finkatzen diren prezioak.

3. Inor ez da geldituko ordenantza honetan jasotzen diren zerbitzu publikoetatik kanpo prezio publikoei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik.

4. Hauek egongo dira prezio publikoak ordaintzera behartuta, ordenantza honetan arautzen denaren ildotik:

a) Zerbitzuak zuzenean erabiltzen dituzten pertsona fisikoak.

b) Zerbitzuaren erabiltzailea adingabekoa bada, guraso-ahala, tutoretza edo zaintza beren gain dutenak.

c) Pertsona nagusien kasuan, legezko ordezkari bat delarik bitartekari, hori egongo da ordaintzera behartuta, nahiz eta halakoetan ordezkatuaren errentaren eta ondarearen kontura joango den ordainketa, eta harena izango den kontuan hartuko den ahalmen ekonomikoa.

d) Modu subsidiarioan, ordaintzera behartuta egongo dira, hala egokituz gero, erabiltzaileak —60 urte betez geroztik edo zerbitzu-eskaera egin aurretiko 10 urteko aldian—, ordaintzera behartuak edo erabiltzailearen ezkontideak —edo ezkontzaren pareko harreman baten bitartez hari lotutako pertsonak— egindako doako eskualdaketa jasotzaile izan diren pertsonak. Eskualdatutako ondasun edo eskubideek zorra galdatzeko unean duten merkatuko balioaren zenbatekora artekoa izango da, gehienez, ordaintzeko obligazioa.

## **OSORIK ORDAINTZEA, HOBARIAK ETA SALBUESPENAK**

1. Zerbitzua ordaintzera behartuek osorik ordaindu beharko dute prezio publikoa baldin eta nahikoa ahalmen ekonomikorik badute horretarako, nahiz eta, horren ordeztu, prezioaren ordainketa ziurtatzeko egoki diren bermeak formalizatu ditzatela galdatu ahal izango zaien, ordenantza honetan aurreikusten diren kasuetan eta moduan.

Dena delakoek nahikoa ahalmen ekonomikoa dutela ulertuko da baldin eta "ahalmen ekonomikoa zehaztea" atalean aurreikusten denaren arabera zenbaturik, zerbitzuaren gehieneko prezioaren zenbatekoa berdindu edo gainditzen badute.

2. Ordaintzera behartuek ez badute nahikoa ahalmen ekonomikorik, hobariak jaso ahal izango dituzte, dena delako prezio publikoetan.

Nahikoa ahalmen ekonomikoa dagoela joko da dena delakoak 50.000 euroko edo hortik gorako ondare zenbakarria badu, nahiz eta kalkulaturako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugez beherakoa izan.

3. Aurreko paragrafoan aipatzen diren prezio publikoen hobariak progresibitate-printzipioa baliatuz zehaztuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta —ordenantza honetan ezartzen diren irizpideen arabera zenbatuta—.

4. Prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira erabiltzaileak harik eta ordenantza honen arabera norberaren esku geratu beharreko kopurutik beherako ahalmen ekonomikoa duten bitartean —urte osoa zenbatuta—.

5. Pertsona bera, aldi berean, eguneko zerbitzu baten eta etxez etxeko laguntza zerbitzuren baten erabiltzaile delarik, horientzat finkatutako prezioak batzetik ateratzen dena kontuan izanik, araudi honetan aurreikusi gabeko hobaria eman ahal izango du Udaleko Gizarte Politiken, adinekoen eta haurren Sailak tarifaren gainean, dena delako zerbitzuko buruak txosten arrazoitu baten bitartez hala egiteko premia justifikatzen duelarik.

Eguneko zentro baten edo eguneko sorospen zerbitzu baten erabiltzaile den pertsonari egonaldi laburreko zerbitzu bat onartzen zaiolarik, bi zerbitzuak ordaindu beharko ditu, salbu eta egonaldi laburra 7 egun naturalekoa edo hortik gorakoa bada; halakoetan, izan ere, egonaldi laburraren tarifa eta eguneko zentroko nahiz eguneko sorospen zerbitzuko prezioaren erdia ordaindu beharko du.

6. Araudi honen xede diren zerbitzuen erabiltzaileen zirkunstantzia sozio-ekonomiko bereziak direla eta, aurreko ataletan aurreikusi gabeko salbuespen edo hobaria eman ahal izango du Udaleko Gizarte Politiken, adinekoren eta haurren Sailak tarifaren gainean, dena delako zerbitzuko buruak txosten arrazoitu baten bitartez hala egiteko premia justifikatzen duelarik.

### **ERABILTZAILEAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA**

1. Ordaintzera behartuaren ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, familia-unitatearen errenta —edo *per capita*— eta ondarea balioetsi beharko dira —urte osoa kontuan harturik—, kapitulu honetan ezartzen diren balioespen-irizpideak aplikatuz.

2. Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, honako hauek baliatuko dira:

a) eskuragarri dauden azken datu fiskalei dagozkien balioak, salbu eta balio horiek aldatzea ekarri duen gertaera nabarmenen bat egokitu bada gerora, daturik berrienak hartuko baitira kontuan halakoetan.

b) hiri- edo landa-ondasunen kasuan, hiru hauen arteko baliorik handiena zenbatuko da: katastro-balioa, administrazioak beste zerga batzuetarako egiaztatu edo finkatutako balioa, edo eskuratze-prezio, -ordain edo -balioa.

3. Errenta

Aurreko artikuluan aurreikusitako ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru-sarrera zenbakarritzat joko dira lanaren ondorioz familia-unitateak urtean dituen etekin osoak eta eskubideak, baita jasotzen duen beste edozein ere, eta, edonola ere, honako hauek:

a) Funts publiko edo pribatuetatik jasotzen diren pentsio eta prestazio ekonomikoak —jasotzen diren diru-sarrera osoak zenbatuko dira—, halakotzat joko baitira subjektu eragilea zerbitzuaren hartzailera deneko pentsioak, subsidioak, prestazio ekonomikoak eta beste edozein eskubide ekonomiko.

b) Norberaren edo besteren kontura egindako lanetik eskuratutako etekin osoak.

Honako prestazio hauek ez dira zenbatuko, errenta zehazteko:

a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomiko finalistak, hau da: Familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoak eta Zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazioa, Arreta pertsonaleko prestazio ekonomikoak, eta Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak.

b) Aurreko a) letran ezarritako prestazioen antzeko xede eta ezaugarriak dituzten honako prestazio hauek:

— Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 194. artikuluan eta hurrengoetan araututako baliaiezintasun handiaren osagarria.

— Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 353 c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, desgaitasun maila ehuneko 75ekoa edo handiagoa daukan 18 urtetik gorako ardurapeko seme-alabaren ziozko esleipen ekonomikoaren osagarria.

— Kotizaziopekoa ez den baliaiezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzearen ziozkoa, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak —Gizarte Segurantzaren arloko

Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatua—, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, 364. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

— Hirugarren pertsona baten laguntzaren ziozko subsidioa, Minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2 c) artikuluan aurreikusia, Desgaitasuna dutenen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onetsi zeneko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantendua, legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri aurretik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituztenentzat.

Atal honetan aurreikusitako salbuespenak ez dira aplikagarri izango ostatu-zerbitzuetan, edozein modalitatetakoak direlarik ere; aitzitik, prestazio horiek guztiak aintzat hartuko dira halakoetan, errenta kalkulatzeko.

#### 4. Ondarea

Hauek joko dira ondareztat:

a) Familia-unitateko kideak osorik edo partez titular diren ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak —eskuragarri dauden azken datu fiskalak erreferentziatzen hartuta—, finantza-aktiboen gainean eskatzen den informazioarekin osatuta.

b) Ekitaldi batean edo gehiagotan sortu diren kalte-ordain edo errenta kapitalizatuak.

c) Erabiltzaileak, familia-unitateko kideren batek edo ordaintzera behartuak dena delako zerbitzua eskatu zeneko dataren aurreko 10 urteko aldian doan eskualdatutako ondasun eta eskubideen balioa, eta, halaber, baliabidearen onuradunak 65 urte betez geroztik egindako doako eskualdaketak oro.

#### 5. Ez dira ondareztat zenbatuko:

a) Ohiko etxebizitza, salbu eta aparteko balioa badu —halako aparteko balioa duela joko da 300.000 eurotik gorako katastro-balioa badu—; izan ere, halakoetan, muga horrez gaindiko katastro-balioa bai zenbatuko da ondareztat.

Ez da ohiko etxebizitzatzen joko titularra egoitza-zentro batean —edozein modalitatetan— edo ostatu-zerbitzu batean —etxebizitza komunitarioa— behin betiko sartzean haren ohiko etxebizitza izateari uzten diona, salbu eta familia-unitateko kide batek edo hainbatek bizileku horretan bizitzen jarraitzen badute.

Horri dagozkionetarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko dira, etxebizitza beraz gain, garaje eta trasteleku bana, baita —familia bakarreko landako edo hiriko etxebizitza bada— hari atxikitako lur-zatia ere, hartatik bereizi gabea.

b) Ondasunak eta eskubideak kargatzen dituzten eta horien balioa gutxitzen duten kargak, ohiko etxebizitzatzen erabiltzen den higieztina eskuratzeko direnak izan ezik edo, Gizarte Politiken Sailak onartu ondoren, higieztina zaharberitzeko erabiltzen. Karga konputagarri horiek ezingo dute inolaz ere balio garbi negatiborik sortu.

c) Zor eta obligazio pertsonalak.

#### 6. Familia-unitatea

1. Kapitulu honetan aurreikusitakoari dagokienez, familia-unitatearen osaera hauek hartuko dira aintzat:

a) zerbitzuaren onuraduna adinduna bada, hauek joko dira familia-unitateko kideetat:

- zerbitzuaren onuraduna bera.

- haren ezkontidea, edo legez onartutako eta behar bezala egiaztatutako ezkontzaren pareko harreman baten bitartez hari lotua.

- seme-alaba adingabeak; betiere eskatzaileak guraso-ahala badu eta ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.

- 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna dutelarik, baldin eta eskabidea egiten denean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

- ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko seme-alabak; betiere eskatzaileak guraso-ahala badu eta ekonomikoki mantentzen laguntzen badu, partzialki edo osorik.

b) zerbitzuaren onuraduna adingabekoa bada, hauek joko dira familia-unitateko kideak:

- zerbitzuaren onuraduna bera;

- Aitak edo amak, edo guraso-ahala, tutoretza edo zaintza bere gain duena.

- seme-alaba adingabeak, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

- 18 urtetik gorako anai-arrebak, ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna dutelarik, baldin eta eskabidea egiten denean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

- ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko anai-arrebak.

2. Nolanahi ere, pertsona bakoitza —dela zerbitzuaren onuraduna, dela erabiltzaile baten familia-unitateko kidea— familia-unitate bakar bateko kidea izan ahalko da.

## 7. Ahalmen ekonomikoa balioesteko irizpideak

1. Errentaren urteko zenbatekoari ondarearen urteko zenbatekoaren ondorengo ehunekoak gehituz ateratzen den kopuruaren pareko izango da ahalmen ekonomikoa —familia unitateko kide bakoitzaren adinaren arabera aldatuko dira ehuneko horiek—, ondoren zehazten den moduan:

a) 35 urtetik beherakoak, ondarearen ehuneko 3.

b) 35 urtetik 65era bitartekoak, ondarearen ehuneko 6.

c) 65 urtetik gorakoak, ondarearen ehuneko 20. Artean 65 urte ez badituzte ere salbuespen gisa adinekoentzako zerbitzu edo zentroetan sartzen direnei ere c) atal honetan aurreikusten dena aplikatuko zaie.

3. Prezio publikoa banako ahalmen ekonomikoaren arabera zehazten den zerbitzuen kasuan, familia-unitatearen errenten eta ondarearen batura zati kideen kopurua egitetik ateratzen den zenbatekoa izango da hori.

4. Hileko ahalmen ekonomikoa zehazteko, urteko ahalmen ekonomikoa zati hamabi egingo da.

## **EBAZTEA, BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA EBAZTEA**

Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio prezio publikoetan mota guztietako salbuespenak, hobariak eta ordainketen luzapenak onartzea edo ukatzea.

Eskabidea aurkeztu duenari arrazoi nahikoz justifikatuko den ebazpena helaraziko zaio eta bertan agertuko da ebazpenaren kontra zer errekurtso aurkez ditzakeen.

Gehenez ere 45 eguneko epean ebatzi beharko du eskabidea Udaleko Gizarte Politiken Sailak, baita ebazpenaren berri eman ere, jasotzen duenetik kontatuta. Epe hori kontatzeko orduan, ez da aintzat hartuko dosierra etenda egoten den denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari leporatu beharrekoak badira.

Aurreko atalean xedatutako epea igarotzen delarik berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsizat jo beharko da, ebazteko obligazioa gorabehera.

Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute dela eskatzaileak dela haren legezko ordezkariak Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, Gizarte Politiken, adinekoren eta haurren Saileko zinegotzi ordezkariari berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen duten egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

## **OFIZIOZ BERRIKUSTEA ETA KOMUNIKATU BEHARRA**

1. Ordaindu beharreko prezio publikoak —zenbateko osoak, hobaria aplikatu ondokoak, partez salbuetsi ondokoak nahiz atzeratuak—, ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo kudeatzaileak, edo interesdunak nahiz haren legezko ordezkariak eskaturik. Prezio publikoa aldatzea ekarri ahal izango dute berekin berrikuspen horiek —Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio—, baldin eta hura zehazteko oinarritzat baliatu zen ahalmen ekonomikoan funtsezko aldaketaren bat izan dela egiaztatzen bada.

2. Hori dela eta, prezio publikoa duen edozein zerbitzuren erabiltzaileak —edo haren legezko ordezkariak— gehienez hogeita hamar eguneko epean komunikatu beharko du bizikidetzagoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propio zenbakarrietan nahiz bizikidetzara-arrazoiengatik aintzat hartu beharrekoak diren besterenetan gertatzen den edozein aldaketa, baita erabiltzaileari jarritako prezio publikoan eragina izan dezakeen beste edozein zirkunstantzia ere. Komunikatzen den hilaren hurrengoan izango ditu ondorioak prezio publikoaren eguneratzeak.

3. Aldaketa ez bada behar bezala komunikatu —aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan—, ofizioz berrikusiko da jarritako prezio publikoa, zirkunstantzia berrietara egokitzeko. Kasu horretan, atzera eraginez aplikatu ahal izango da prezio publikoaren eguneratzea, zirkunstantzien aldaketa gertatu zen egunetik.

## **PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA, ORDAINKETA ETA ORDAINKETAREN ATZERAPEN PARTZIALA**

### **SORTZAPENA**

Zehazten diren zerbitzuetako edozein benetan ematen hasten den egunean sortuko da araudi honetan arautzen diren prezio publikoak ordaintzeko obligazioa, eta egun horretatik eta zerbitzua erabiltzeari behin betiko uzten zaion arte iraungo du betebeharrak.

### **ORDAINKETA**

1. Ordaintzera behartuta dagoenari ordainagiria aurkezten zaion unean ordaindu behar dira prezio publikoak —ordainketa osoa, hobaria aplikatu ondorengo nahiz partez salbuetsia—, bankuko helbideratzearen bitartez.

2. Ordainketaren zati bat atzeratzea onartzen den zerbitzuen kasuan, ordaintzera behartuak atzerapen hori eskatzen badu, honela jokatu da:

a) Ordainagiria aurkezten zaion unean ordaindu beharko du ordaintzera behartuak hilabete bakoitzean galdatzen zaion prezioaren partea, bankuko helbideratzearen bitartez.

b) Gainerako zatiaren eta sortutako interesen ordainketa zerbitzua emateari uzten zaionean gauzatuko da, salbu eta, dena delako zirkunstantziak aintzat harturik, Gizarte Politiken Sailak erabakitzen bada hori baino lehenago edo geroago galdatu beharra dagoela.

### **ORDAINTZEKO KONPROMISOA ETA BERMEAK ERATZEA**

1. Ordainketaren zati bat atzeratzea onartzen ez den zerbitzuen kasuan, zerbitzua esleitzen deneko ebazpena eman eta zerbitzua erabiltzeari ekiten zaiolarik hartutzat joko da galdatu beharreko prezio publikoa ordaintzeko konpromisoa, ez baita beharrezko izango, halakoetan, ordaintzeko konpromisoa jasotzen duen berariazko formulariorik betetzea.

2. Ordainketaren zati bat atzeratzea onartzen den zerbitzuen kasuan, atzerapen hori ez eskatzea erabakitzen bada, zerbitzura sartu baino gutxienez zazpi egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da ordaintzeko konpromisoa, behar bezala beteta.

3. Ordainketaren zati bat atzeratzea onartzen den zerbitzuen kasuan, atzerapen hori eskatzea erabakitzen bada, zorra onartzeko dokumentuan sartuko da ordaintzeko konpromisoa.

4. Ordainketaren zati bat atzeratzea onartzen den zerbitzuen kasuan, atzerapen hori eskatu nahiz ez eskatu, egokitzat jotzen dituen bermeak eskatu ahal izango dizkie Ogasun Sailak dena delako prezioa adinako edo hortik gorako aldizkako errentarik ez dutenei —hileko zenbaketa eginez—.

5. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, zuzenbidean onartzen direnen arteko edozein modutan galdatu ahal izango da bermea, onartutako zorraren nahiz sor litekeenaren ordainketa bermatzeko, baita —kasu bakoitzeko zirkunstantziak aintzat harturik— Ogasun Sailak egokitzat eta nahikotzat jotzen duen beste edozein formula baliatzea erabaki ere.

Ezinezko gertatzen bada bermeak aurreikusitako moduan eratzea, agiri hauek aurkeztu beharko ditu zerbitzua eskatzen duenak:

- Zerbitzuaren erabiltzailea titular edo titular-kide deneko banketxe edo aurrezki kutxetako aurrezki libreta arrunt nahiz epekakoan eta kontu korronteen mugimenduen orria, sartzeko eskabidea egiten den egunaren aurreko azken bost urteetako datuak ageri dituenak. Erabiltzaileak, edozein titulu dela medio, izan lezakeen diruzko edozein ondasunen berri jaso beharko da.
- Zerbitzuaren erabiltzailea alarguna bada, ezkontidearen testamentua aurkeztu beharko da, baita egin den banaketa-kaiera ere.
- Arabako lurralde historikotik kanpo kokatutako landa- nahiz hiri-lurreko ondasunen katastro-ziurtagiria, edo, bestela, baliabidearen erabiltzaileak izenpetutako zinpeko deklarazioa, non Espainiako beste inongo probintzian ez ondasun higiezinik, ez ondasun higigarri nahiz higiezinen gaineko eskubiderik ez berak ez ezkontideak edo legez eraturako izatezko bikoteko kideak ez dutela aitortzen duen.

Aurkeztutako agirien inguruko argibideak eskatu ahal izango dizkio Udaleko Ogasun Sailak zerbitzua eskatzen duen pertsonari.

Udaleko Ogasun Sailak alde aurretik berariaz baimena eman ezean zorra kitatu bitartean norberaren ondasunak ez besterentzeko eta ekonomia- nahiz ondare-eskubideei uko ez egiteko obligazioa ekarriko du berekin zorra onartzeko konpromisoak. Obligazio hori ez betetzeak, berriz, ordaintzeke dagoen diru-kopuru osoa galdatzea ekarriko du berekin, eta zorra onartzeko konpromisoaren ondorioak oro iraungitzea.

6. Bermea ondare higiezinekin eraturia bada, ondare hori identifikatzeko datu guztiak —erregistroko inskripzioan ageri diren bezala— adierazi beharko dira zorra onartzeko agirian

agertu behar duen berme-motaren deskribapenean, aipatutako paragrafoan xedatutakoaren ildotik. Halakoetan, zorra Jabetzaren Erregistroan inskriba dadila galdutako da, eta notarioaren eskritura aurkeztea.

### **ORDAINKETAREN ATZERAPEN PARTZIALA**

1. Zerbitzu hauei aplikatuko zaie ordainketaren atzerapen partziala:

- a) Eguneko arreta-zerbitzua
- b) Ostatu-zerbitzuak

Adinekoentzako apartamentuak

Etxe komunitarioak edo egoitzak

2. Finkatutako prezio publikoa osorik ordaintzeko behar adinako baliabide ekonomikorik ez dutela egiaztatzen badute zerbitzuak ordaintzera behartuta daudenek, ordainketaren parte bat atzerako aukera baliatu ahal izango dute, eskatuz gero.

Ordainketa partez atzeratzen delarik, ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko da.

3. Oro har, ez zaie onartuko prezio publikoaren ordainketaren atzerapenik guztira 15.000 eurotik gorako kopuruan erraz gauza daitezkeen ondasunak dituztenei, salbu eta delako prezioa ordainduko dela ziurtatzeko behar diren bermeak formalizatzen direlarik. Eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaileei dagokienez, kopuru hori kalkulatzeko ez da zenbatuko bere erabiltzen duten etxebizitza.

4. Adierazitako prezio publikoen ordainketaren parte baten luzapena aplikatzeko, gizarte zerbitzuen eskatzaileek edo erabiltzaileek —edo horien legezko ordezkariak— eskabidea aurkeztu beharko dute Udaleko Gizarte Politiken Sailean, eredu normalizatua baliatuz, behar bezala beteta, famili unitatearen urteko diru-sarrera guztien berri ematen duten agiri eguneratuak erantsita.

5. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren zerbitzuen erabiltzaileen zirkunstantzia sozio-ekonomikoak oro balioetsi ondoren, baita modu subsidiarioan ordaintzera behartuta daudenenak ere, ordenantza fiskal honetan adierazten diren hobari, salbuespen eta luzapenak aplikatu ahal izango dira bertako tarifetan ageri diren prezio publikoen gainean, eta, behar izanez gero, ordaintzeke geratzen den prezioaren gainerako partea gerora ordaintzeko utzi.

### **ZORRA ONARTZEA**

1. Zentro edo zerbitzura sartu edo hura baliatzen hasi aurretik ordainketaren atzerapen partzialik egiten ez den kasuetan, baldin eta hartara sartu edo hura baliatzen hasiz geroztik dena delako pertsonaren zirkunstantzia ekonomikoetan funtsezko aldaketarik gertatzen bada, ordainketaren atzerapena eskatzeko aukera ematen dionik, une horretan formalizatu beharko da zorraren onarpena.

2. Udaleko Gizarte Politiken Sailak alde aurretik berariaz baimena eman ezean zorra likidatu bitartean norberaren ondasunak ez besterentzeko eta ekonomia- eta ondare-eskubideei uko ez egiteko obligazioa dakarkie zorra onartzeak eta horren haritik hartutako ordaintzeko konpromisoak ordaintzera behartuei. Obligazio hori ez betetzeak ordainketaren atzerapen partziala bertan behera uztea ekarriko du, eta, une horretatik aurrera, ordaintzeke dagoen zenbateko osoa ordaintzea galdatu ahal izango da.

3. Zorra onartzeko agiri eguneratua bidaliko die urtero Gizarte Politiken Sailak ordaintzera behartuei, informazio gisa, eta berariaz adieraziko ditu bertan likidazio horietako bakoitzaren datan artean zor diren zenbatekoak.

### **ZOR DEN SALDOA JAKINARAZTEA**

1. Ordainketaren atzerapen partziala egin eta zorra onartzen den kasuetan, zerbitzua erabiltzeari behin betiko uzten zaiolarik, geratzen den zorraren saldoa jakinaraziko du Gizarte Politiken Sailak ebazpen baten bitartez, dela saldoaren zordunari berari —baldin eta zerbitzua erabiltzaileri ez bazaio utzi erabiltzailea hil egin delako—, dela ordaintzera behartuta dauden dohaintza-hartzaile edo oinordekoei, gehiturik saldo nagusia, sortutako interesak eta ordaintzeke edo kobratzeke dauden ordainagiriak —halakorik baldin badago—, 60 egun naturaleko epean —ebazpena jasotzen denetik— zorra likida dezaten, epe hori igarotzen delarik berandutze interesak sortuko baitira.

2. Prezio publikoaren ordainketaren atzerapen partziala egitea posible den beste zerbitzu batean zaindu dezaten uzten badio erabiltzaile zordunak zerbitzua erabiltzeari, lehenengo zerbitzuari dagokion zorraren saldoa jakinaraziko zaio, eta bi zorrak pilatu egingo direla harik eta azken zerbitzu hori erabiltzeari uzten dion arte.

### **ONDAREAREN GAINKO BETEARAZPENA**

Zorra kobratze aldera ordaintzera behartuaren ondarearen gaineko betearazpena baliatu beharra egokitzen delarik, ez da gauzatuko beraren etxebizitzaren gainean, berak erabili beharra badauka edo erabiltzailearen familia-unitatearen ohiko etxebizitza bakarra bada, edo ordaintzera behartuaren familia-unitatearena —erabiltzaileaz beste norbait delarik—, behar izanez gero delako etxebizitza hori tratatu edo bahitzeko aukera gorabehera.

### **PREZIO PUBLIKOENGATIKO ZORRAK**

1. Zerbitzuaren prezio publikoa ordaindu gabe geratzen bada, bankuak ordainagiria itzultze egin duelako, dagokion zenbatekoa galdatu da, eta 30 eguneko epea emango ordainketa egiteko.

2. Aurreko puntuan adierazitako epea igarotzen delarik ez bada eskatutakoa ordaindu, premiamenduzko administrazio-prozeduraren bitartez galdatuko da prezio publikoa, zuzenbide publikoko kredituak biltzeari dagokionez indarrean dagoen udal araudian xedatutakoaren ildotik.

3. Behin eta berriro ez ordaintzeak dena delako zerbitzuak baliatzeko eskubidea galtzea ekarri ahal izango du berekin.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak direla medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

## **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **8.4 UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

### **KONTZEPTUA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen da "Udalaren kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa", zein ordenantza honetan arautuko baita.

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

#### **2. artikulua**

Udalaren kirol instalazioak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### **ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

#### **3. artikulua**

1. Hurrengo atalean —udalaren kirol instalazioak erabiltzeko moduetako bakoitzeko— adierazten diren tarifetan finkatzen direnak izango dira ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoak.

2. Hauek izango dira prezio publiko honen tarifak:

#### **1. UDALAREN KIROL INSTALAZIOETAKO ABONATUAK**

##### **1.1. Definizioa**

Gasteizko udalerrian bizi ala ez, alta eskabidea egin duelarik Herritarren Udal Txartelaren (HUT) jabe den normahi izango da abonatu, baldin eta urteko kuota ordaindu badu.

Herritarren Udal Txartela (HUT) da pertsona bat abonatua dela egiaztatzeko balio duen euskarria, pertsonala eta besterenezina.

##### **1.2. Abonatuen eskubideak**

Eskubide hauek izango dituzte abonatuak:

- Herritarren Udal Txartela (HUT) nahitaez erakutsiz, prezio publikoa finkatua duten udalaren kirol instalazioetara sartzekoa.
- Igerilekuak, izotz-pista nahiz aldagela eta dutxak erabiltzekoa, baita araudi partikularren arabera kirolaren arloan eskumena duen sailak izendatzen dituen bestelako zerbitzuak ere (garaiz emango da horien berri).

- Kirol ikastaroetan, kultur ikastaroetan, jarduera artistikorako hastapen ikastaroetan, elikadura eta osasun ikastaroetan nahiz gizarte sustapenekoetan izena ematekoa, lekurik izanez gero, behar den kuota ordainduz. Abonatu ez direnen aldean, izena emateko kuota hori murriztua izango da.

### 1.3.- Abonatu-motak.

Bazkide-mota hauek izango dira:

A mota: 30 urtetik aurrera.
B mota: 18 urtetik 29ra arte.
C mota: 5 urtetik 17ra arte.
D mota: 4 urtera arte (aita-amak edo tutoreak abonatuak izan ala ez).

D motako abonatuak ere dagokien Herritarren Udal Txartela (HUT) eduki beharko dute, instalazioetara sartzeko kontroletan identifikatzeko. Bestela, familia-liburuaren edo nortasun-agiriaren kopia aurkeztuz egiaztatu beharko da horien adina.

### 1.4. Abonatu gisa alta ematea.

Alta eskatzen dutenek matrikula eta inskripzio gastuak biltzen dituen kuota ordaindu beharko dute. Hain zuzen ere:

A mota ... 54,10 euro
B mota ... 43,30 euro
C mota ... 21,60 euro
D mota... 0,00 euro

Alta familiako zenbait kiderentzat batera egiten bada, edo familiako kide gehiago gehitzen badira, soilik adin handieneko kidearen matrikula ordainduko da.

D motako abonatuak, baja hartzen ez badute, dohainik izango dute alta, kategoria-aldakuntzatzat joko baita.

### 1.5. Abonatu gisa baja ematea.

#### Borondatezko baja:

Baja eman nahi duten abonatu adinez nagusiek herritarrei laguntzeko bulegoren batean jakinarazi beharko dute, aurrez aurre. Adingabeen kasuan, horien gurasoek edo tutoreek izapidetu beharko dute baja. Horrez gain, adinez nagusiek online izapidetzerik izango dute, aldeztu aurretik beren burua Herritarren Udal Txartelaren edo ziurtagiri digital baten bidez identifikatuta.

Kuota urte osorako da; beraz, abenduaren 31 baino lehen baja eman arren ez da itzuliko.

Hurrengo urteko urtarrilaren 1.etik aurrera izango dute eragina bajek.

### **Baja, ez ordaintzeagatik:**

Edozein arrazoirengatik ordainagiriak ordaindu ez edo itzuliz gero —administrazioaren akatsa izan bada salbu—, besterik gabe baja emango zaio abonatuari.

### **Aldi baterako bajak:**

Aldi baterako baja eskatu ahal izango dute abonatuak, beren bizilekua Gasteiztik kanpora aldatzen badute —40 kilometrotik gorako distantziara dagoen herriren batera, edo, bestela, Araba probintziatik kanpo—, horren egiaztagiria aurkezten dutelarik. Aldi baterako baja beste arrazoiren batengatik eskatzen bada, idatzizko eskabidea bideratu beharko dio interesatuak kirolaren alorrean eskumenak dituen sailari, kirol instalazioak erabiltzeko ezintasuna argi azalduta, eta sail horrek hartuko du erabakia.

Aldi baterako bajak gutxienez urte baterako eta gehienez laurako izango dira. Epe hori igaroz gero, behin betiko emango zaio baja abonatuari.

Baja hartu ondoren —arrazoia edozein delarik ere— berriro alta eskatu nahi izanez gero, matrikula ordaindu beharko da aldez aurretik.

### **1.6. Abonatuen urteko kuotak.**

Kuota hauek ordaindu beharko dituzte abonatuak, urtean:

A mota... 99,20 euro
B mota... 82,30 euro
C mota... 20,70 euro
D mota... 0,00 euro

65 urtetik gorakoek eta ehuneko 65eko edo hortik gorako elbarritasuna dutenek ehuneko 50eko murrizketa izango dute kuotan.

Ordainagiri bidez eskatuko dira urteko kuotak, eta ordainketa nahitaez helbideratu beharko da Gasteizen bulegoa duen edozein bankuren bitartez.

Alta-urteko kuota, alta noiz hartzen den, ordutik abenduaren 31ra bitartean geratzen den denborarekiko proportzioan ordainduko da.

Mota aldaketak seihilekoak kontuan hartuta egingo dira; beraz, urteko lehenengo sei hilabeteetan jaiotakoak urtarrilaren 1.ean aldatuko dira motaz. Azken sei hilabeteetan jaiotakoak, berriz, hurrengo urteko urtarrilaren 1.ean aldatuko dira, eta egun horietatik aurrera ordaindu beharko dituzte dagozkien kuotak.

### **1.7 Hobariak**

Familia-multzoa:

Atal honi dagozkionetarako, hauek joko dira familia-multzotzat: Erregistro Zibilean izena emanda daudenak nahiz izatezko bikoteak, helbide berean erroldatuak. Familia-liburua edo dena delako egiaztagiria aurkeztuz egiaztatu beharko da hori.

Familia-multzo bateko hainbat kide abonatu badira, ondorengo eskalaren araberako tarifa aplikatuko zaie:

- Lehenengoa:.....adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 100.

- Bigarrena: .....adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 100.
- Hirugarrena: ..... adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 75.
- Laugarrena: ..... adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 50.
- Bosgarrena: ..... adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 25.
- Seigarrena eta hurrengoak: ..... adinagatik dagokien kuotaren ehuneko 20.

Guraso bakarreko familien kasuan, lehen seme edo alabak hirugarren lekua hartuko du, eta horrela hurrenez hurren.

18 urtetik gorakoek leku bat beteko dute aurreko mailaketan, baina ez dute inolako deskonturik izango.

Famili unitateko kideak urtariletik abonatzan badira bakarrik aplikatuko da familientzako hobaria kuotan.

Familiaren baitan hobaria izan duen hartako kideetako batek abonatu izateari uzten badio, galdu egingo dira hobariak, eta deskontatutako kopuruak kobratzerik izango du sailak.

.- Gasteizko udalerritik kanpo ikasten ari diren ikasleak:

Gasteizen erroldatuta dauden 29 urtera arteko ikasleek, Gasteiztik kanpo —barnetegian edo ostatua nahiz bizilekua bertan hartuta— ikasten ari direla egiaztatzen dutenek, ehuneko 50eko murrizketa izango dute beren motari dagokion kuotan.

Aurreko ataletan adierazitako murrizketa edo hobariak eskuratzekotan, abenduaren 31 baino lehenago egin beharko da eskabidea, hurrengo urteari begira, baita murrizketa lekarkeen egoera egiaztatu ere, egun horretatik aurrera galdu egingo baita horretarako eskubidea.

### **1.8. Bestelako alderdi orokorrak**

Herritarren Udal Txartela (HUT) galdu edo lapurtuz gero, herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batean edo Gazteen Argibideetarako Bulegoan baliogabetu beharko da. Ondoren, nahi izanez gero, beste txartel bat lortzeko izapideak egin ahalko dira, horretarako ezarritako baldintzak betetzen direlarik.

Edozein datu pertsonal aldatuz gero, hala nola helbidea, telefonoa, kontu zenbakia, errolda, famili egoera eta abar, jakinarazi egin beharko dute abonatuak.

Adierazitako guztiari buruzko argibide-eskabideak nahiz izapideak herritarrei laguntzeko bulegoen bitartez egin beharko dira.

Hobariak edo kuota-murrizketak ezingo dira metatu.

## **2. UDALAREN KIROL INSTALAZIOETARAKO ALDI BATERAKO PASEA**

### **2.1. Onuradunak**

Garaiz eta behar bezala eskatzen duen edonork erosi ahal izango du aldi baterako basea, Gasteizko udalerrian bizi ala ez.

Herritarren Udal Txartela (HUT) da aldi baterako pasea egiaztatzeko euskarria, pertsonala eta besterenezina.

## 2.2. Aldi baterako pasea dutenen eskubideak

Eskubide hauek izango dituzte aldi baterako pasea dutenek:

- Herritarren Udal Txartela (HUT) nahitaez erakutsiz, prezio publikoa finkatua duten udalaren kirol instalazioetara sartzekoa.
- Igerilekuak, izotz-pista nahiz aldagela eta dutxak erabiltzekoa, baita araudi partikularren arabera kirolaren arloan eskumena duen sailak izendatzen dituen bestelako zerbitzuak ere (garaiz emango da horien berri).
- Kirol ikastaroetan, kultur ikastaroetan, jarduera artistikorako hastapen ikastaroetan, elikadura eta osasun ikastaroetan nahiz gizarte sustapenekoetan izena ematekoa, lekurik izanez gero, behar den kuota ordainduz. Abonatu ez direnen aldean, izena emateko kuota hori murriztua izango da.

Pasean bertan adierazten den egunera arte izango du balioa paseak, eta eskubideak aplikatuko —pasearen iraunaldiak ezingo du ikasturtearena gainditu—.

## 2.3.- Aldi baterako paseen motak eta prezioa:

Hilabeteko pasea honela ordainduko da:

4 urtera arte... 0,00 euro
5 urtetik 17ra arte ... 30,90 euro
18 urtetik 29ra arte... 55,30 euro
30 urtetik aurrera... 66,70 euro

15 eguneko pasea honela ordainduko da:

4 urtera arte... 0,00 euro
5 urtetik 17ra arte ...18,40 euro
18 urtetik 29ra arte... 33,00 euro
30 urtetik aurrera... 39,70 euro

Bai hilabeteko pasean bai 15 egunekoan, 65 urtetik gorakoek eta ehuneko 65eko edo hortik gorako elbarritasuna dutenek ehuneko 50eko murrizketa izango dute kuotan.

## 3. PASE BEREZIA

### 3.1. Onuradunak

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek hezkuntzaren esparruan sustatutako truke programen baitako pertsonak oro erosi ahalko dute pase berezia, baita GKEek sustatutako aldi baterako harrera programen baitakoak ere.

Pasea noizko den, gutxienez 15 egun lehenago egin beharko du eskabidea dena delako erakunde edo pertsonak —idatziz, ezinbestean—, kirolaren arloan eskumena duen saileko zuzendaritzari zuzenduta eta behar bezala arrazoituta. Orobat erantsi beharko dizkio azaldutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Herritarren Udal Txartela (HUT) da pase berezia egiaztatzeko euskarria, pertsonala eta besterenezina.

Pase bereziaren jabe izateak ez du ematen udalaren kirol instalazioetako eta gizarte etxeetako abonatu izateko eskubiderik.

### 3.2. Pase berezia dutenen eskubideak

Eskubide hauek izango dituzte aldi baterako pasea dutenek:

- Herritarren Udal Txartela (HUT) nahitaez erakutsiz, prezio publikoa finkatua duten udalaren kirol instalazioetara sartzekoa.
- Igerilekuak, izotz-pista nahiz aldagela eta dutxak erabiltzekoa, baita araudi partikularren arabera kirolaren arloan eskumena duen sailak izendatzen dituen bestelako zerbitzuak ere (garaiz emango da horien berri).

Pasean bertan adierazten den egunera arte izango du balioa paseak, eta eskubideak aplikatuko.

Pase berezia honela ordainduko da:

4 urtera arte... 0,00 euro
5 urtetik 17ra arte ... 10,30 euro
18 urtetik 29ra arte 25,10 euro
30 urtetik aurrera... 30,30 euro

65 urtetik gorakoek eta ehuneko 65eko edo hortik gorako elbarritasuna dutenek ehuneko 50eko murrizketa izango dute kuotan.

## 4. MENDIZORROTZEKO KIROL ESPARRUA

### 4.1. Kirol esparruan sartzea:

⇒ Herritarren Udal Txartela (HUT) erakutsiz.

⇒ 2.eta 3. ataletan aipatutako aldi baterako paseak erabiliz (indarrean dauden bitartean).

⇒ Eguneko sarrera ordainduz:

Denboraldi arruntean:

- 4 urtera arte ..... 0,00 euro.
- 5 urtetik 17ra arte ..... 3,50 euro.
- 18 urtetik 29ra arte ..... 5,30 euro.
- 30 urtetik aurrera..... 7,80 euro.

Udako denboraldian:

- 4 urtera arte ..... 0,00 euro.
- 5 urtetik 17ra arte ..... 7,60 euro.
- 18 urtetik 29ra arte ..... 10,40 euro.

- 30 urtetik aurrera..... 13,90 euro

Mendizorrotzeko kirol esparrurako sarrerak egun baterako balio du.

Kuota horiek ordaintzeak igerilekuak, aldagelak, arropa-gordelekuak eta aparte ordaindu beharrekoak ez diren gainerako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ematen du.

#### **4.2. Kirolaren arloan eskumena duen sailaren ikastaroak: aldeztatik izena emanda.**

- Denboraldi arruntean egiten diren ikastaroak:  
Abonatu izan ez eta HUTrik ez duten pertsonari pase mekanizatu bat emango zaie, ikastaroa ematen den egun-orduetan instalaziora sartzerik izan dezaten.
- Udako denboraldian egiten diren ikastaroak:  
Abonatu ez direnek behar den pasea eskuratu beharko dute, edo eguneko sarrera ordaindu, ikastaroak dirauen bitartean.

### **5. GAMARRAKO PARKEA**

#### **5.1. Parkera denboraldi arruntean sartzea.**

Denboraldi arruntean dohainik sar daiteke parkera. Nolanahi ere, erreserba-prezioa duten instalazioak erabiltzekotan, prezio osagarri hori bai ordaindu beharko dute abonatu ez direnek.

#### **5.2. Parkera udako denboraldian sartzea.**

- ⇒ Abonatuak Herritarren Udal Txartela (HUT) erakutsi behar dute sartzeko.
- ⇒ Gamarrako parkeko udako denboraldirako abonatuak Herritarren Udal Txartela (HUT) erakutsi behar dute sartzeko.
- ⇒ 2.eta 3. ataletan aipatutako aldi baterako paseak erabiliz (indarrean dauden bitartean).
- ⇒ Eguneko sarrera ordainduz:
  - 4 urtera arte ..... 0,00 euro.
  - 5 urtetik 17ra arte ..... 1,50 euro.
  - 18 urtetik 29ra arte ..... 4,00 euro.
  - 30 urtetik aurrera..... 6,90 euro.

Gamarrako parkerako sarrerak egun baterako balio du.

Herritarren Udal Txartela (HUT) da Gamarrako udako denboraldirako abonamendua egiaztatzeko euskarria, pertsonala eta besterenezina.

#### **5.3 Udako denboraldirako abonamendua:**

4 urtera arte... 0,00 euro
5 urtetik 17ra arte ...11,40 euro
18 urtetik 29ra arte... 27,20 euro
30 urtetik aurrera... 32,80 euro

65 urtetik gorakoek eta ehuneko 65eko edo hortik gorako elbarritasuna dutenek ehuneko 50eko murrizketa izango dute kuotan.

Kuota horiek ordaintzeak igerilekuak, aldagelak, arropa-gordelekuak eta aparte ordaindu beharrekoak ez diren gainerako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea ematen du.

Gamarrako parkeko udako denboraldirako abonamenduaren kuota denboraldi osorako da; beraz, ez da ezer itzuliko udako denboraldia bukatu aurretik baja emanagatik.

#### **5.4. Kirolaren arloan eskumena duen sailaren ikastaroak: aldeztatik izena emanda.**

Abonatu ez direnek behar den pasea eskuratu beharko dute, edo eguneko sarrera ordaindu, ikastaroak dirauen bitartean.

Abonatu ez direnek udako denboraldiko abonamendua eskuratu beharko dute, edo eguneko sarrera ordaindu, ikastaroak dirauen bitartean.

### **6. ARAU OSAGARRIAK**

**6.1.** Eguraldi txarrak ez du instalazioetara sartzeko kuota berreskuratzeko eskubiderik emango.

**6.2.** 5 urtera arteko pertsonak dagokien Herritarren Udal Txartela (HUT) eduki beharko dute, instalazioetara sartzeko kontrolean identifikatzeko. Bestela, familia-liburuaren kopia, erregistro zibileko ziurtagiria edo nortasun-agiria aurkeztuz egiaztatu beharko da horien adina.

**6.3.** Udako denboraldiko pase eta abonamenduei dagokienez, balio-aldiaren hasierako adina hartuko da kontuan, adin-tartea zehazteko.

**6.4.** Gasteizko Udalak ez du sarrera-prezio publikoa duen inongo instalaziotara dohainik sartzeko aukerarik uzten, ordenantzetan aurreikusitako salbuespenak salbu.

**6.5.** Sarrera-prezio publikoa duten udalaren kirol instalazioetan sartzeko Herritarren Udal Txartela (HUT) erakutsi beharko da nahitaez.

## **7 UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK**

### **Kirol instalazioa dohainik uztea**

Erakundearen lehentasunezko lankidetzak eskatzen duten erabilera motak:

- Nahitaezko irakaskuntzako ikastetxe publiko nahi pribatuek Hezkuntza Fisikoko eskolak emateko instalazioak.
- Guraso elkarteek eta kirol erakundeek eskola-kirola bideratzeko instalazioak.
- Unibertsitateko kirol lehiaketa eta sustapenerako instalazioak.
- Arabako lurralde federazioen gain utzitako zeregin publikoak bideratzeko instalazioak.
- Ezinduentzako kirol erakundeen kirol eskaintzarako eta entrenamenduetarako instalazioak.
- Herritar orori zuzendutako kirol ikuskizunak, dohainekoak eta kirol erakundeek taxuz antolatutako gauzatzeko instalazioak.

- Gasteizko Udaleko beste sail batzuek berek antolatzen dituzten jarduera interesgarrietarako eskatzen dituzten instalazioak.

### **Kirol instalazioa erabiltzeagatik prezio publikoa ordaintzea**

Oinarrizko zerrenda gisa finkatzen diren erabilera motak:

- Erabiltzaileak inork zuzendu gabe jolasteko instalazioak.
- Kirol erakundeek beren bazkideentzat egiten duten kirol eskaintza nahiz herritar orori eskainitako kirol ikuskizunak gauzatzeko instalazioak, antolakuntza taxuz egingo dela bermatua dagoelarik.
- Ezintasunen bat dutenek ikuspegi sozialetik edo osasunarenetik —edo erakundeek helburu berarekin— antolatzen dituzten jarduera fisiko eta olgetarakoak gauzatzeko instalazioak.
- Kirol federazioetan sartutako ikastetxe edo elkarten prestakuntza programak gauzatzeko instalazioak.
- Nahitaezkoa ez den irakaskuntza arautuko prestakuntza moduluak, irakaskuntza erakundeek antolatuak, gauzatzeko instalazioak.
- Auzoko jaiekin edo tradiziozko jaiegunekin zerikusia duten ekintza edo ekitaldiak prestatu edo eskaintzeko instalazioak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeek antolatutako topaketak edo txapelketak egiteko instalazioak; horietan, antolatzaileak bere kudeaketa ahalmena bermatu beharko du, kirola sustatzeko proiektua —kirola sustatzeko berariazko helburuak zehaztuta— eta gizarte garrantzia —gutxienez 25 talde edo 500 parte-hartzaile— justifikatzen duen agiri bat aurkeztuz.

Bermea 619,15 euro eta 3.668,80 euro artekoa, inguruabarren arabera (iraupena, intentsitatea edo arriskua).

### **Prezio publikoei buruzko ohar orokorrak**

- Prezio publikoek ez dituzte muntatze lanak eta bestelako aparteko prestakuntza lanak beren baitan hartzen.
- Prezio publikoak ordaindu izanak ez du eskubiderik ematen publizitatea jartzeko edo besteri sarrerak kobratzeko, ezta saltokiak jartzeko ere.
- Prezioek ez dute kirol materiala beren baitan hartzen.

### **7.1. Abonatu ez direnek instalaziora sartzeko osagarririk ordaindu behar ez duten instalazioak**

Mendizorrotzeko kiroldegia (ordu erdi):..... 10,40 euro.

Kiroldegiko pistak (kantxak) eta gimnasioak (ordu erdi): ..... 7,00 euro.

Askotarako aretoak (ordu erdi): ..... 2,95 euro.

Izotz-pista (ordu erdi): ..... 51,60 euro.

Futbol eta errugbi zelaiak (ordu erdi)

Futbol eta errugbi zelaiak..... 10,20 euro.

Futbol-5 edo 7 zelaiak ..... 5,20 euro.

Patinatzeko pista (ordu erdi)

Lakua 03/400 m ..... 10,00 euro.

## **7.2. Abonatu ez direnek instalaziora sartzeko osagarria ordaindu behar duten instalazioak**

Abonatu ez direnek atal honetan adierazten diren instalazioetara sartzeko ordaindu beharreko osagarria:

Dena delako instalazioa dagoen kirol zentroan indarrean dagoen sarrera ordaindu beharko da osagarri gisa. Sarrera-tarifarik ez badago, osagarri hau aplikatuko da:

18 urtetik beherako eta 5etik gorakoek..... 1,20 euro.

18 urtetik gorakoak..... 2,20 euro.

### **Eragindako instalazioak:**

#### **Kirol aretoak**

Bakarkako erabilera, askotarako aretoan (ordu erdi): ..... 0,65 euro.

Bakarkako erabilera, ariketa-aretoetan (ordubete): ..... 0,50 euro.

#### **Igerileku (ordu erdi):**

Kale bat erabiltzea ..... 17,35 euro.

3 eta 6 kale artean erabiltzea ..... 53,60 euro.

6 kale baino gehiago erabiltzea ..... 88,20 euro.

**Badminton pista, mahai-teniseko mahai eta billar mahaiak** (ordu erdi; gehienez lau lagun) ..... 1,25 euro.

#### **Pilotalekuak** (ordubete)

Beti Jaiko 1. frontoia (Olabe) eta 2. frontoia (Ogeta) ..... 10,30 euro.

Beti Jaiko 3., 4. eta 6. (trinketea) frontoiak, eta

auzoetako pilotaleku estaliak. .... 8,20 euro.

Beti Jaiko 5. frontoia ..... 6,10 euro.

**Squash pistak** (ordu erdi) ..... 2,55 euro.

#### **Tenis pistak** (gehienez lau lagun) (ordubete):

Estali gabea ..... 3,45 euro.

Estalia ..... 4,95 euro.

#### **Padel pistak** (gehienez lau lagun) (ordubete):

Estali gabea..... 3,45 euro.

Estalia ..... 4,95 euro.

## **7.3. Sarrerak**

### **Udal-instalazioetako igerileku estaliak**

18 urtetik beherako eta 5etik gorakoak, abonatuak ez badira ..... 2,00 euro  
 18 urtetik gorakoak, abonatuak ez badira ..... 3,70 euro

**Eskalada-murruak**

<b>EGUNEKO SARRERA</b>	<b>ABONATUAK</b>	<b>ABONATU EZ DIRENAK</b>
18 urtetik beherakoak .....	1,80 euro .....	2,45 euro.
18 urtetik gorakoak .....	3,45 euro .....	4,95 euro.
<u>Hilabeteko abonamendua</u>		
18 urtetik beherakoak.....	4,50 euro .....	6,40 euro.
18 urtetik gorakoak.....	13,25 euro .....	18,70 euro.
<u>Hiru hileko abonamendua</u>		
18 urtetik beherakoak.....	12,30 euro .....	17,15 euro.
18 urtetik gorakoak.....	36,75 euro .....	50,85 euro.
<u>Denboraldiko abonamendua (urritik irailera)</u>		
18 urtetik beherakoak.....	33,50 euro .....	47,70 euro
18 urtetik gorakoak.....	99,85 euro .....	142,85 euro

Igerileku estali eta eskalada-murruetarako sarrerak aldi bakarrerako izango dira.

**7.4. Alokairu-prezioen murrizketak, denboraldiko entrenamenduak direnean**

**Futbol eta errugbi zelaiak (ordu erdi)**

Futbol eta errugbi zelaiak ..... 2,06 euro.  
 Futbol-5 edo 7 zelaiak..... 1,09 euro.

**Patintzeko pista (ordu erdi)**

Lakua 03/400 m ..... 2,06 euro.

**Kiroldegia, gimnasioak eta askotarako aretoak**

Federazioek antolatutako lehiaketetan edo aisialdikoetan parte hartzen dutela egiaztatzen duten erakundeek, edo erakundea sortzeko helburuekin bat datorren kirol programa garatzen dutela egiaztatzen duten kirol erakundeek ehuneko 50eko deskontua izango dute eskatzen dituzten denboraldiko erreserbetan, baldin eta etenik gabe eusten badiote erreserbari.

Intentsitate handiko entrenamendu-espezialitateetarako, parte hartzen duten guztiak abonatu direlarik (ordu erdi)..... 0,57 euro.

**Igerilekuak eta izotz-pista**

Intentsitate handiko entrenamendu-espezialitateetarako, parte hartzen duten guztiak abonatu direlarik (ordu erdi) ..... 0,57 euro.

Igerilekuan kale bakoitzeko da prezioa, hiru gehienez.

Izotz-hockey eta waterpolo espezialitateetarako entrenamendu edo berariazko jardueretarako, parte hartzen duten guztiak abonatuak direlarik eta saio publikoetatik aparteko ordutegietan (ordu erdi) ..... 3,10 euro.

### **Badminton, squash, tenisa eta padel pistak eta pilotalekuak**

Kirol erakundeek ehuneko 75eko deskontua izango dute eskatzen dituzten denboraldiko erreserbetan, baldin eta jokalarik guztiak bazkideak badira eta etenik gabe eusten badiote erreserbari.

Kasu guztietan, ez erabiltzeari buruzko abisua ezinbestekoa izango da erreserbari eusteko, baina ez du eraginik izango orduaren deskonturako.

## **8 INSTALAZIOAK EKITALDI BEREZIETARAKO ERABILTZEA**

### **8.1. Xedea**

Instalazioak kultur ekitaldietarako, aparteko kirol ikuskizunetarako nahiz kirolaz besteko ekintzetarako erabiltzeari dagokionez erabiltzaileek izango dituzten eskubide, betekizun eta baldintzak arautzea da artikuluko honen xedea.

Araudi hau betetzen duten eta dagozkien erabiltze-tasak ordaintzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, kirol elkarteek eta bestelako erakunde onetsiek izango dute eguneroko kirol jardueraz aparteko ekintzetarako instalazioez baliatzeko eskubidea.

### **8.2. Prezioak**

#### **8.2.1 Tipologia hauen arabera egindako erreserbentzat:**

- Irabazi-asmorik gabeko kirol erakundeak, kirol saio irekia antolatzen dutenak, beren egituraren oinarritutako antolakuntza-ekarpenik gabe edo jarritako helburua ez lortzeko arriskuarekin.
- Baliabideak eskuratzeko helburu ekonomikoa lortzeko sustatzaile gisa diharduten kirol erakundeak. Ustiapenak elkartearen xedea lortzen laguntzen du, eta erakundearen aldetik elkarrekin garatu eta bultzatzeko funtsezko eta ezinbesteko antolakuntza-ekarpena egiten delarik egiten da.
- Talde politikoen bilkura, sindikatuen biltzar edo bilerak edo barneko erlijio ekitaldiak.
- Enpresek eskainitako kirol jarduerak, herritar orori zuzenduak eta doakoak, merkataritza-jarduerarik gabek.

1.500 lagunetik gorako edukiera duten instalazioak, ordu edo edozein ordu-zatiko .....60,03 euro.

Gainerako instalazioak, ordu edo edozein ordu-zatiko .....38,81 euro.

Bermea\* ..... 619,15 eurotik 3.668,80(e)ra

#### **8.2.2 Tipologia hauen arabera egindako erreserbentzat:**

- Baliabideak eskuratzeko helburu ekonomikoa lortzeko sustatzaile gisa diharduten kirol erakundeak. Ustiapenak elkartearen xedea lortzen laguntzen du, eta erakundearen aldetik

elkarteak garatu eta bultzatzeko funtsezko eta ezinbesteko antolakuntza-ekarpena gabe egiten da.

- Elkartearen xedearekin zerikusirik ez duten kirol saioak edo kirolaz bestelako jarduerak sustatzen dituzten kirol erakundeak. Ustiapena pribatua da ondorio guztietarako, eta ezin du abantailarik izan kirol erakunde izateagatik, beste sektore batzuekiko lehia desleiala izango bailitzateke.
- Alderdi politikoen edo sindikatuen mitinak eta biltzarrak.
- Jende asko biltzen duten erlijio ekitaldiak.
- Irabazi-asmoa duten bestelako erakundeak.

Mendizorrotzeko futbol zelaia, ordu edo edozein ordu-zatiko..... 396,08 euro.

1.500 lagunetik gorako edukiera duten instalazioak, ordu edo edozein ordu-zatiko 216,10 euro.

Bermea\* ..... 3.668,80eurotik 7.337,60(e)ra

Gainerako instalazioak, ordu edo edozein ordu-zatiko .....92,37 euro.

Bermea\* ..... 619,15eurotik 3.668,80(e)ra

(\*) *Inguruabarren arabera (iraupena, intentsitatea edo arriskua)*

### **8.3 Ustiapen eta zerbitzu bereziak:**

Agertokiak muntatu eta desmuntatzea, kantzak babesteko erroiluak nahiz aulkiak jarri eta kentzea, materialak garraiatzea, behar diren garbitze lanak eta gainerako zerbitzuak instalazioa kontratatu duen enpresaren kontura joango dira. Kirolaren arloan eskumena duen sailak beste enpresaren bat badu kontratatuta zerbitzu horietarako, horren ardura izango da lan horiek egitea, eta instalazioa kontratatu duenari fakturatuko dizkio, zerbitzu bakoitzeko ezarritako prezioaren arabera.

### **8.4. Mendizorrotzeko pabilioiko taberna**

Mendizorrotzeko pabilioia ekitaldi berezietarako erreserbatuz gero, bertako taberna baliatu ahal izango du interesdunak, prezio gehigarri hau ordainduta, eguneko, .....251,15 euro.

## **9. SALBUESPENAK**

Salbuespen gisa, kirolaren arloan eskumena duen sailak proposatu eta Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariak hala ebatzen duelarik, prezio publikoa ordaintzetik nahiz bermea jartzetik salbuetsi ahal izango dira erreserbak egiten dituztenak, honelakoetan:

- Onura publikoa aitortu zaien irabazte xederik gabeko erakundeek eskatutako erreserbak.
- Beren ezaugarri bereziengatik hiriarentzat eta bertako biztanleentzat interes handikotzat jotzen diren gizarte, kultur nahiz kirol ekitaldi edo ospakizunetarako erreserbak.

Onura fiskalak aplika dakizkiola pertsona edo entitate interesdunak berak eskatu beharko du, berariaz, instalazioa erabiltzeko eskabidean bertan.

Zerga-salbuespena aplika dakiola eskatzen den jarduerak udalarentzat izan lezakeen interesa argitzeko beharrezko den dokumentazioa erantsi beharko zaio eskabideari (sozietatearen estatutuak, onura publikoaren aitortpena...).

## **10. GAMARRAKO PARKEAN HAMAKAK GORDETZEKO KAIOLA ZERBITZUA**

Kaiola bat, udako denboraldi osorako ..... 5,80 euro

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## 8.5 UDALAREN FOLKLORE AKADEMIAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.

### KONTZEPTUA

#### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Udalaren Folklore Akademiaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 2. artikulua

Udalaren Folklore Akademiak antolatzen dituen ikastaroetan matrikulatzen direnak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

#### 3. artikulua

1. Hurrengo atalean adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoa.

2. Hauek izango dira prezio publiko honen tarifak:

#### 1. IKASTURTEA

Irailan hasi eta ekainean bukatzen den ikasturtea hartuko du zerbitzuak.

Ikasturte osoari dagokio prezioa, bai instrumentu ikasgaietan (Alboka, Gaita/dultzaina, Panderoa, Perkusioa, Trikitia, Txalaparta, Txistua, Txirula), bai bestetan, hala nola Dantza Tradizionala eta Musikaren Lengoaia.

Ikasle bakoitzak zenbat irakasgaitarako ematen duen izena, hauek izango dira matrikularen prezioak eta kuota:

	<i><b>Irakasgai bat</b></i>	<i><b>Bi irakasgai</b></i>	<i><b>Hiru irakasgai</b></i>	<i><b>Lau irakasgai</b></i>
	<b>Ikasturtea</b>	<b>Ikasturtea</b>	<b>Ikasturtea</b>	<b>Ikasturtea</b>
<b>Matrikula</b>	56,49 euro	79,00 euro	101,61 euro	124,23 euro
<b>2 kuota</b>	56,49 euro	79,00 euro	101,61 euro	124,23 euro

- Katetoria orokorreko familia ugariek matrikula erdia doan izango dute.

- Katetoria bereziko familia ugariek matrikula osoa doan izango dute.

Adierazten den udalaren kontuan egin beharko da ordainketa, eta horrenbestez gauzatuko da matrikula.

Ekainean ordaindu beharko da matrikula, eskola-ordua erreserbatzean; kuotak, berriz, une horretan bertan nahiz ikasturtearen lehen hiruhilekoan erabakitzen den epean.

## 2. IKASTARO OSAGARRIAK

Honako hauek hartzen ditu zerbitzuak:

a) Ikasturtetik kanpo noizbehinka programatzen diren ikastaroak, akademiak berak antolatuak.

b) Taldeko irakasgaietako ikastaroak —instrumentua, dantza eta kantua—, zein taldeetarako matrikulatzen diren, horri dagokion inongo irakasgaitan matrikulatuta ez dauden ikasleei zuzenduak.

Ikastaro bakoitzaren ordu kopuruaren arabera ezartzen dira prezioak, modu honetan: siguiente manera:

	<b>Ikasturtea</b>
<b>4 ordura arteko ikastaroak</b>	23,82 euro
<b>5 ordutik gorako ikastaroak</b>	56,49 euro

A ataleko ikastaroetan, ikasturtean matrikulatutako ikasleek ehuneko 50 ordaindu beharko dute.

Lekua dagoela baieztatu eta onartua izan ondoren ordaindu beharko da prezioa.

Adierazten den Udalaren kontuan egin beharko da ordainketa, eta horrek matrikula gauzatzeko balioko du.

## 3. MUSIKA UDALEKUAK

Udan eskaintzen diren haurrentzako musika-udalekuak dira zerbitzuaren objektua.

Prezio Orokorra . ..... 166,95.

Udalekuetan seme edo alaba bat baino gehiago matrikulatzen duten familiek ehuneko 20ko hoberia izango dute bigarren matrikularen prezioan, eta ehuneko 30ekoa hirugarrenean.

Lekua dagoela baieztatu eta onartua izan ondoren ordaindu beharko da prezioa.

Adierazten den udalaren kontuan egin beharko da ordainketa, eta horrek matrikula gauzatzeko balioko du.

Zerbitzu hau emateagatik ordaindu beharreko prezioetan ez zaie hobaririk edo deskonturik egingo 70.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsona edo familiei.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## 8.6 "JOSÉ URUÑUELA" UDAL DANTZA KONTSERBATORIOAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA

### KONTZEPTUA

#### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 2. artikulua

José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioak antolatzen dituen ikastaroetan matrikulatzen direnak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

#### 3. artikulua

1. Hurrengo atalean adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoa.

2. Hauek izango dira prezio publiko honen tarifak, ikastaro eta irakasgaiko:

Balet klasikoaren alorreko irakaskuntzari dagozkio prezio publikoak.

Irailean hasi eta ekainean bukatzen den ikasturtea hartuko du zerbitzuak.

Hauek izango dira prezioak:

<b>DANTZA AURREKOA</b>		
	Dantza aurrekoa musikarekin	Dantza aurrekoa musikarik gabe
Matrikula	74,16 euro	49,43 euro
Hileko kuota	74,16 euro	49,43 euro

<b>OINARRIZKO IKASKETAK</b> (1., 2., 3. eta 4. ikasturteak)		
		<b>Ikasturtea</b>
Sarrera-proba	1. ikasturtea	Doan
	2., 3. eta 4.a	13,11 euro
Dosierra zabaltzea		12,24 euro
Nahitaezko zerbitzuak		7,65 euro
Matrikula		121,63 euro
Hileko kuota		121,63 euro
Irakasgai atzeratua		82,40 euro

<b>IKASKETA PROFESIONALAK</b> (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. ikasturtea)	
	<b>Ikasturtea</b>
Sarrera-proba	29,29 euro
Dosierra zabaltzea	12,24 euro
Nahitaezko zerbitzuak	7,65 euro
Matrikula	140,32 euro
Hileko kuota	140,32 euro
Irakasgai atzeratua	82,40 euro

<b>HASTAPEN IKASTAROA</b>	
	<b>Ikasturtea</b>
Kuota	18,69 euro
Hileko kuota	18,69 euro

Matrikula arrunta: prezio osoa (ehuneko 100) ordaindu beharko da.

Kategoria orokorreko familia ugariko kideen matrikula: erdia (ehuneko 50) ordaindu beharko da.

Kategoria bereziko familia ugariko kideen matrikula: doan.

Guraso bakarreko familiek ehuneko 50eko hobaria izango dute matrikularen prezioan.

Sarrera-proba egiteko kopuru orokor jakin bat ordaindu beharko da, inolako murrizketarik gabe.

Batera ordaindu ahal izango dira matrikula eta ikasturteko hamar hilabeteetako kuotak ikasturte hasieran, edo matrikula iraileko lehen hamabostaldian ordaindu eta hamar kuotak hilero-hilero

—hileko kuota horietako bakoitza irailetik ekainera bitarteko hilabeteetako bati dagokio (bi horiek barne), eta ezingo da ez murriztu, ezta hainbatu ere—.

“José Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioaren kontuan egin beharko da ordainketa:

Kutxabank, 2095-0611-01-1090954974.

Matrikula egiteko behar diren agiriak:

- Matrikula-orria, behar bezala beteta.
- Matrikula-ordainagiria.
- Ikasketen ziurtagiria.
- Agiri tamainako argazki bat.

Zerbitzu hau emateagatik ordaindu beharreko prezioetan ez zaie hobaririk edo deskonturik egingo 70.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten pertsona edo familiei.

### **“José Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatoriori atxikitako ikastegiak:**

Oinarrizko dantza irakaskuntzagatik ordaindu beharko dira prezio publikoak.

	<b>Ikasturtea</b>
Dosierra zabaltzea	13,44 euro
Nahitaezko zerbitzuak	4,04 euro
Ikasturte osoko matrikula	13,44 euro
Irakasgai atzeratuen matrikula	2,84 euro

Ikasturtean matrikulatutako ikasleen zerrenda bidali beharko dute ikastegiak kontserbatorioko idazkaritzara, haien datu pertsonalak, ikasturteak, ikasgaiak eta guztira bakoitzak ordaindu beharreko kopuruak adieraziz.

Diru kopuru osoa “José Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioaren kontuan sartu beharko da: Kutxabank 2095-0611-01-1090954974.

Zerbitzu horiei dagozkien prezio publikoak orokorrak dira, eta ez da inongo murrizketarik egingo.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko abenduaren 20ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**8.7 GOBERNU IREKIAREN ETA GIZARTE-ETXEEN SAILARI ATXIKITAKO  
HERRITARREN PARTAIDETZAREN ZERBITZUAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU  
BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK**

**KONTZEPTUA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen da "Gobernu Irekiaren eta Gizarte-Etxeen Sailari atxikitako Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoa" (3. artikuluaaren bigarren apartatuan jasotako tarifetan zehazten da), zein ordenantza honetan arautuko baita.

**ORDAINTZERA BEHARTUAK**

**2. artikulua**

Aurreko artikuluan aipatzen diren Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Sailari atxikitako Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren zerbitzuak baliatzen dituztenak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

**ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

**3. artikulua**

1. Hurrengo atalean adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoa.

2. Hauek izango dira prezio publiko honen tarifak:

Vitoria-Gasteizen egoitza duten eta indarrean dauden Elkartearen Erregistro Orokorrean izena emanda dauden elkarteei ikus-entzunezko eta argiztapen materiala eta material osagarria mailegatzeko zerbitzua.

Gobernu Irekiaren eta Gizarte-Etxeen Sailari atxikitako Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua.

**Prezio publikoak**

Materiala uzteko Mailegu Zerbitzuaren prezio publikoak, 2025. urtean, ondoren adierazten direnak izango dira.

Gobernu Irekiaren eta Gizarte-etxeen Sailari atxikitako Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren prezio publikoak.

<b>Audioa</b>		
<b>Izena</b>	<b>Alokairua, egunekoa</b>	<b>Bermea</b>
Esku megafonoa	1,16 euro	12,10 euro
Kondentsagailu-mikrofonoa	1,16 euro	12,10 euro
Mikrofonoa (dinamikoa)	1,16 euro	12,10 euro
Haririk gabeko mikrofonoa (eskukoa, diadema, gorbatakoa)	3,60 euro	30,50 euro
Mahaiko mikrofonoa	3,60 euro	30,50 euro
Mikro-oina	1,16 euro	12,10 euro
Mahaiko mikro-oina	1,16 euro	12,10 euro
Bozgorailu oina	1,16 euro	12,10 euro
Soinua nahasteko mahaia	12,10 euro	151,50 euro
CD irakurgailua	3,60 euro	30,50 euro
Audio-ekipoa, 300W edo gutxiago	12,10 euro	60,70 euro
Audio ekipoa, 500 W	36,40 euro	151,50 euro
Audio ekipoa, 700 W	60,70 euro	151,50 euro

<b>Bideoa</b>		
<b>Izena</b>	<b>Alokairua, egunekoa</b>	<b>Bermea</b>
Bideokamera digitala	12,10 euro	151,50 euro
DVD irakurgailu / grabagailua, HDDduna	6,10 euro	60,70 euro
DVD irakurgailua	6,10 euro	60,70 euro
DVD karaoke irakurgailua	6,10 euro	60,70 euro
DVD karaoke diskoak	3,60 euro	30,50 euro
Bideo-proiektagailua, 3000 lm edo gutxiago	12,10 euro	60,70 euro
Bideo-proiektagailua, 3000 lm edo gehiago	36,40 euro	151,50 euro
Telebista (20")	6,10 euro	60,70 euro
Telebista (43")	12,10 euro	151,50 euro
Argazki kamera digitala (reflex)	12,10 euro	151,50 euro
Proiektzio pantaila, 1,5 x 1,5 m	3,60 euro	30,50 euro
Proiektzio pantaila, 1,57 x 2,05 m	12,10 euro	60,70 euro
Proiektzio pantaila, 3,6 x 2 m	12,10 euro	60,70 euro

<b>Elektrizitatea</b>		
<b>Izena</b>	<b>Alokairua, egunekoa</b>	<b>Bermea</b>
Fokua (bakoitza)	6,10 euro	30,50 euro
Argiztapen tresneria (6 foku + argi mahaia + tripodeak + kableak)	60,70 euro	182,10 euro
Argindar sorgailua	12,10 euro	60,70 euro
Potentzia egonkorgailua	12,10 euro	60,70 euro

<b>Informatika</b>		
<b>Izena</b>	<b>Alokairua, egunekoa</b>	<b>Bermea</b>
Ordenagailu eramangarria	12,10 euro	151,50 euro

<b>Altzariak</b>		
<b>Izena</b>	<b>Alokairua, egunekoa</b>	<b>Bermea</b>
Roll up (211 x 78)	6,10 euro	12,10 eur
Roll up argiztapen-sistema	6,10 euro	12,10 eur
Karpa (2m x 2 m)	6,10 euro	12,10 eur
Karpa 3m x 3m	6,10 euro	12,10 eur
Karpa 3m x 4m	6,10 euro	12,10 eur
Karpa 6m x 3 m	12,10 euro	60,70 eur
Aulkiak (hamar)	1,16 euro	6,10 euro
Mahai tolesgarria (1,82 m x 0,87m)	1,16 euro	6,10 euro
Oholtza (200 x 100 cm)	3,68 euro	12,10 euro
Banku tolesgarria	1,16 euro	6,10 euro

Jarduera jakin baterako hainbat elementu alokatzen direlarik, berme bakarria jarri beharko da, tasarik handiena duenari dagokiona, hain zuzen ere.

## **EZARTZE ARAUAK ELKARTEEI MATERIALAK MAILEGATZEKO ZERBITZUAREN APLIKAZIO-ARAUAK**

### **Zeini mailegatzeko zaio?**

Indarrean dauden Elkarte Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteek bakarrik erabiltzeko da materialak mailegatzeko zerbitzua. Elkarteak konpromisoa hartu beharko du materialari bere xedeekin edo jarduerarekin bat datorren erabilera emateko —berariaz debekatuta egongo da helburu partikular edo merkataritza-helburuetarako erabiltzea—.

### **Eskabideak**

Mailegu Zerbitzuan —Rogelia de Álvaro Elkartearen Etxea, Panama kalea z/g— tramitatuko dira eskabideak, aurrez aurre edo posta elektronikoz edo telefonoz. Horretarako mailegu-eskabidean formalizatu beharko dira eskabideak, eta maileguaren arduradunaren nortasun-agiriaren kopia erantsi.

### **Erreserbak**

Materiala noiz jaso nahi den, gutxienez bi egun lehenago egin behar da erreserba. Erreserba deuseztatze erabakia gutxienez 2 egun lehenago jakinarazi beharko zaio Mailegu Zerbitzuari. Hala egin ezean, bi eguneko alokairuari dagokion kopurua atxikiko da gordailu utzitako bermetik.

### **Ordainketa**

Materiala mailegatzeko eskabidean zehazten den zenbatekoa aldi bakarrean ordaindu beharko da, Kutxabankeko 2095-3178-33-1090241000 kontuan, materiala jaso aurretik, eskabide-zenbakia eta elkartearen izena adieraziz sarrera-kontzeptu gisa. Materialen gutxienerako alokairua egun bati dagokiona izango da. Jarduera jakin baterako hainbat elementu alokatzen direlarik, berme bakarria jarri beharko da, tasarik handiena duenari dagokiona, hain zuzen ere.

### **Materiala jaso eta entregatzea**

Eskabidea egiten denean adierazten dena izango dira materiala jasotzeko eta itzultzeko ordutegia. Rogelia de Álvaro Elkartearen Etxean —Panama kalea, z/g— jaso nahiz itzuli beharko da materiala. Materiala jasotzeko, ezinbestekoa izango da ordainketa-egiaztagiria eta materiala mailegatzeko eskabidea aurkeztea. Era berean, materiala jaso izanaren orria sinatu beharko da —jasotzen den materialaren funtzionamendu egokia jasota geratuko da bertan—. Materiala berandu itzuliz gero, hau izango da atzerapen-egun bakoitzeko zigorra: egun bateko alokairua halako bi.

### **Kalteak**

Materiala egoera onean itzuli beharko da. Behar ez bezala erabiliz gero, elkarreak bere gain hartu beharko ditu ekipoak konpondu, garbitu eta garraiatzearen gastuak.

Galdu, lapurtu edo hautsiz gero —eta konpontzeko aukerarik ez badago—, materiala lehengoratzearen kostu osoa hartu beharko du bere gain elkarreak. Gainera, lapurtuz gero, eskumena duen agintaritzaren aurrean egindako salaketaren kopia aurkeztu beharko du Materiala Mailegatzeko Zerbitzuan.

### **Bermea**

Eskabidean adierazitako kontu-zenbakira banku-transferentzia eginez itzuliko zaio gordailututako bermea elkarteari, mailegatutako materiala itzuli eta berrikusi ondoren — behar izanez gero, aurreko ataletan adierazitakoaren ondorio den kostua deskontatuko zaio lehenik—.

Bermea ez bada aski Mailegu Zerbitzuarekiko zorra ordaintzeko, 10 eguneko epea izango du elkarreak zor hori kitatzeko, bankuaren bidezko ordainketa dela medio.

### **Erantzukizuna**

Edozein isun edo zigor jarriz gero ordaintzera behartuta egongo da elkarrea, baita erantzukizun zibil edo materialaren ondorio direnak ere. Era berean, mailegu-zerbitzuaren erabilera mugatu ahal izango zaie materiala behar bezala zaintzen ez duten elkarreei eta adierazitako arau eta mekanismoak urratzen edo datu faltsuak ematen dituztenei.

Eskatutako maileguaren materiala osorik edo zati batean mailegatzea.

Mailegu-zerbitzuak eskubidea izango du eskatutako materiala osorik edo zati batean emateko, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak une bakoitzean izan ditzakeen beharrei erantzunez.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



**8.8 EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILAREN LANAREN BIDEZKO LANBIDE-PRESTAKUNTZARAKO NAHIZ ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.**

**KONTZEPTUA**

**1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Ekonomia Sustapenerako Sailaren lanaren bidezko lanbide prestakuntzarako nahiz etengabeko prestakuntzarako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoa" eta "Prestakuntza-zentroetako areto eta lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioa", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

**ORDAINTZERA BEHARTUAK**

**2. artikulua**

**1. LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK**

Horietan matrikulatzen direnak egongo dira behartuta Gasteizko Udalak antolatzen dituen lanaren bidezko lanbide prestakuntzarako ikastaroen prezio publikoa ordaintzera.

Ez da prezio publikorik sortuko beste erakunde batzuekin batera finantzatzen diren ikastaro eta prestakuntza programengatik, finantziazio hori jasotzen duen arauan hala galdatzen delarik.

Ez da prezio publikorik sortuko laneratzeko programen baitako diren lanaren bidezko prestakuntzarako ikastaroek, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei zuzenduek.

LANBIDEn enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten langabeei matrikularen prezioaren ehuneko 50 itzuliko zaie ikastaroa amaitu eta gainditu ondoren.

Gizarte errentak jasotzen dituzten pertsonen ikastaroaren ehuneko 50 ordaindu beharko dute, eta arrakastaz gainditzen badute itzuli egingo zaie kopuru hori.

**2. EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILAREN ARETO ETA LOKALAK ERABILTZEA**

Sailaren lokalak erabiltzea nahiz horien ustiapen berezi edo pribatiboa eskatzen dutenak egongo dira behartuta prezio publiko hau ordaintzera.

Beste administrazio publikoren batek egiten duelarik horiek erabiltzeko eskabidea, enplegu politika aktiboak aplikatu eta garatzearen inguruko jarduerak bideratzeko, ez dira prezio publikoak aplikatuko.

Era berean, ez dira aplikatuko prezioak Udalaren partaidetza berekin dakarten lankidetzahitzarmenen kasuan, hitzarmen horietan parte hartzen duten beste erakunde batzuek instalazioak behar dituztelarik eta hitzarmen-akordioetan hala adierazten delarik.

## **ZENBATEKOA**

### **3. artikulua**

#### **1. LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK**

Lanbide-prestakuntzako zerbitzu eta ikastaroengatik ordaindu beharreko prezio publikoak dagozkien matrikulak izango dira, ikasleen prestakuntza-profila eta ikastaro edo programen iraupena aintzat hartzen duten ondoko tarifen arabera.

#### **MATRIKULAK:**

##### **A) Lanaren bidezko lanbide prestakuntzarako ikastaro orokorrak.**

- 1.- GOI-MAILAKO LANBIDE HEZKUNTZA, ERDI-MAILAKO NAHIZ GOI-MAILAKO UNIBERTSITATE IKASKETAK EDO HORIEN PAREKOAK EGIN DITUZTENEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK.

<b>Tarifa</b>	<b>Ikastaroaren iraupena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
1.a	700 ordutik gora	435,70 euro
2.a	500-699 ordu	348,58 euro
3.a	300-499 ordu	174,30 euro
4.a	100-299 ordu	87,15 euro

- 2.- GOI-MAILAKO LANBIDE HEZKUNTZA, UBI EDO HORIEN PAREKOAK EGIN DITUZTENEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK.

<b>Tarifa</b>	<b>Ikastaroaren iraupena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
1.a	700 ordutik gora	261,44 euro
2.a	500-699 ordu	174,30 euro
3.a	300-499 ordu	87,15 euro
4.a	100-299 ordu	43,58 euro

- 3.- ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZKUNTZA, BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA EDO BEHERAGOKO MAILAK EGIN DITUZTENEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK.

<b>Tarifa</b>	<b>Ikastaroaren iraupena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
1.a	700 ordutik gora	174,30 euro

Tarifa	Ikastaroaren iraupena	Zenbatekoa
2.a	500-699 ordu	87,15 euro
3.a	300-499 ordu	65,36 euro
4.a	100-299 ordu	43,59 euro

**B) Lanaren bidezko edo etengabeko prestakuntzako ikastaro monografikoak.**

Tarifa	Ikastaroaren iraupena	Zenbatekoa
1.a	51-99 ordu	47,98 euro
2.a	50 baino gutxiago	43,59 euro

**C) Zabalkunde eta sentsibilizazio jardunaldiak**

4 ordu arteko jardunaldia: .....0,00 euro  
5-8 orduko jardunaldia: ..... 11,75 euro

**D) Aurrez aurrekoa ez den prestakuntza eta e-learning.**

20 ordu baino gutxiagoko ikastaroa: .....26,14 euro  
21 eta 75 ordu bitarteko ikastaroa: .....43,58 euro  
76 eta 200 ordu bitarteko ikastaroa: .....61,02 euro  
200 ordutik gorako ikastaroa: .....87,15 euro

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN  
SAILAREN ARETO ETA LOKALAK ERABILTZEA

**PREZIOAK:**

**TARIFEN TAULA**

**Bulegoa alokatzea**

Banako orduak ..... 8,35 euro  
Lanaldi erdia (6 ordu).....30,10 euro  
Lanaldi osoa.....50,15 euro

**Teoria gela alokatzea**

Banako orduak .....16,70 euro  
Lanaldi erdia (6 ordu).....70,16 euro  
Lanaldi osoa.....120,26 euro  
Hilabete osoa .....1.625,56 euro

**Informatika gela alokatzea**

Banako orduak .....25,05 euro  
Lanaldi erdia (6 ordu).....105,20 euro  
Lanaldi osoa.....180,35 euro  
Hilabete osoa .....3.005,70 euro

### **Ekitaldi aretoa alokatzea**

Banako orduak.....	41,75 euro
Lanaldi erdia (6 ordu).....	150,31 euro
Lanaldi osoa.....	250,50 euro

### **Kanpoko espazioak alokatzea (fatxadak eta bideak).**

Banako orduak.....	8,34 euro
Lanaldi erdia (6 ordu).....	35,08 euro
Lanaldi osoa.....	60,13 euro
Hilabete osoa.....	812,78 euro

### **Lursailak alokatzea, logistika-lanetarako**

Banako orduak.....	16,70 euro
Lanaldi erdia (6 ordu).....	70,16 euro
Lanaldi osoa.....	120,27 euro
Hilabete osoa.....	1.625,56 euro

### **Logistikako simulazio-gela alokatzea**

Banako orduak.....	41,75 euro
Lanaldi erdia (6 ordu).....	150,31 euro
Lanaldi osoa.....	250,50 euro

## **ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

### **4. artikulua**

#### **1. LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO IKASTAROAK ETA JARDUNALDIAK**

Prezio publikoak aldeztatik ordain ditzatela galdatu ahal izango zaie ikasle izan nahi dutenei, matrikula egitean.

Nolanahi ere, 171,55 euroko edo gehiagoko tarifei dagozkien prezio publikoak bitan zatitu ahal izango dira. Lehena matrikula egitean ordaindu beharko da; bigarrena, ikastaroaren erdian.

#### **2. EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILAREN ARETO ETA LOKALAK ERABILTZEA**

1. Erabilera edo ustiapena baimentzen zaien pertsona natural edo juridikoak egongo dira ordaintzera behartuta.
2. Instalazioak erabili ahal izateko, Ekonomia sustapenaren, enpleguaren, merkataritzaren eta turismoaren Sailak emandako baimena beharko da aldeztatik.
3. Zirkunstantziak aintzat harturik, zenbatekoaren ehuneko 20 aurreratzea galdatu ahal izango da erreserba egitean —prezioa ordaintzean itzuliko da kopuru hori—. Bermea jarri ondoren, zazpi egun baino gutxiago falta direla, erreserba bertan behera uzten bada, hura atxikitzea erabaki ahal izango da —gertaera eta zirkunstantzia justifikatuak aintzat hartuko dira—.
4. Ordaintzeko obligazioa erabilera edo ustiapena baimentzen denean sortuko da, eta aldeztatik ordain dadila galdatu ahal izango da. Ordainketa honela banatu ahal izango da: ehuneko 50 erreserba egitean, eta gainerakoa erabilera amaitzean.

5. Prezioaren ordainketa adierazten den bankuko kontuan egin beharko da.
6. Ustiapenaren emakidadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hura gauzaten ez badago, itzuli egingo zaio prezioaren zenbatekoa.
7. Inolaz ere ez da onartuko eskabidea egiten duen enpresa edo erakundearen ohiko jarduera garatzeko den eskabiderik.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **8.10. UDALAREN Wi-Fi BIDEZKO KOMUNIKAZIO SAREAK BALIATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.**

### **KONTZEPTUA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Wifi teknologia bidezko udal komunikazio sareetara sarbidea izateari dagozkion prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

#### **2. artikulua**

Lan, aisialdi, prestakuntza nahiz komunikazio kontuak direla eta zerbitzua erabili nahi duen normahik udalaren haririk gabeko sareen bidez —Wi-Fi estandarra— internetera sarbidea izatea da prezio honen objektua.

Sisteman kautotutako erabiltzaileentzako interneterako sarbide gardena izango da zerbitzua, Wi-Fi konektagarritasuna duen tresneria egokia (PC, PDA) duten gasteiztarrei nahiz kanpotik etorritakoei zuzendua.

#### **3. artikulua**

Udalaren webgunean eskuragarri dagoen "Zerbitzua baliatzeko baldintza orokorrak" izeneko orria bete eta Vital Kutxak emandako TPV birtualaren bitartez finkatutako sarbide modalitateetako bat ordainduz —ordenantza honetan jasotzen den prezio taularen arabera— lortzen da zerbitzuaren erabiltzaile izaera.

### **ZENBATEKOA**

#### **4. artikulua**

Hauek dira galdatuko diren prezioak:

- 4 orduko konexioa, hilabeteko iraungipen epearekin ..... 2,35 euro
- egun 1 ..... 4,67 euro
- hilabete 1 .....14,50 euro
- 3 hilabete .....30,00 euro

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

#### **5. artikulua**

Wi-Fi teknologiaren bidezko udalaren komunikazio sareetara sartzen direnak egongo dira behartutako prezio publikoa ordaintzera.

## ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA

### 6. artikulua

1. artikuluan adierazitako ustiapenerako baimena jakinarazten denean sortuko da ordaintzeko obligazioa.

### Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **KONTZEPTUA**

### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Argitalpenak saltzeagatiko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

## **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

### **2. artikulua**

Gasteizko Udalaren argitalpenak erosten dituztenak egongo dira behartuta prezio publikoa ordaintzera.

## **ZENBATEKOA**

### **3. artikulua**

Gobernu Batzarrak onetsiko ditu argitalpenen salmenta-prezioak, dena delako saileko zinegotziak hala proposatu eta Ogasun Sailak txostena egin ondoren, beti ere argitalpen horiek izan dituzten kostuak aintzat hartzen direlarik.

## **ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

### **4. artikulua**

Dena delako argitalpena erosten den unean sortuko da ordaintzeko obligazioa.

#### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**"Udalbatzaren 2022ko urriaren 19ko bilkuran onetsitako testua —2022ko abenduaren 30eko ALHAO, 150. zk."**



## 8.12 UDALAREN ENPRESA ZENTROETAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA

### KONTZEPTUA

#### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Udalaren Jundizko, enpresa-zentro irekiko eta Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroetako aretoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 2. artikulua

Aurreko artikuluan aipatu diren prestazio edo ustiapenak jasotzea baimentzen zaien pertsona edo entitateak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

Hauek izango dira Udalaren enpresa-zentroetako espazioak erabiltzeko eskabidea egiten dutelarik prezio publikoaren % 100eko diru-laguntza jaso ahal izango duten kolektiboak:

- Udalaren enpresa-zentroetan kokatutako enpresak.
- Udalarekin hala jasotzen duen hitzarmena sinatua duten erakundeen menpeko enpresa-zentroetan kokatutako enpresak.
- Ekonomia-sustapenarekin zerikusia duten jarduerak —Gasteizko Udalak interes sozialekotzat jotzen dituenak— bideratzen dituzten gizarte-eragile eta eragile ekonomikoak.

### ZENBATEKOA

#### 3. artikulua

Bulego eta pabilioiek osatzen dituzte Udalaren Jundizko, enpresa-zentro irekiko eta Erdi Aroko hiriguneko enpresa-zentroak —pabilioiak, Jundizko Udal Enpresa Zentroaren kasuan bakarrik—, eta enpresa berriei kokalekua eskaintzeko baliatzen dira. Era berean, enpresa-zentrotik kanpoko enpresa nahiz erakundeek ere erabil ditzaketen hainbat areto dituzte.

Hurrengo atalean prestazio edo ustiapenetako bakoitzeko adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez argitaratzen den prezioaren zenbatekoa.

ENPRESA-ZENTROA	ARETOA	ORDUKO EDO ORDU-ZATIKO PREZIOA	EGUN ERDIKO PREZIOA	EGUNEKO PREZIOA
Jundiz	Erabilera askotarako aretoa	18,60 euro	61,98 euro	103,31 euro
Erdi Aroko hirigunea	Agora	18,60 euro	61,98 euro	103,31 euro

## **ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

### **4. artikulua**

1. artikuluan adierazitako ustiapenerako baimena jakinarazten denean sortuko da ordaintzeko obligazioa.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## **8.13 UDAL ZENTROETAKO JARDUERA ETA IKASTAROENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA.**

### **KONTZEPTUA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen da "Udal zentroetako jarduera eta ikastaroengatik ordaindu beharreko prezio publikoa" (3. artikuluaaren bigarren apartatua jasotako tarifetan zehazten da), zein ordenantza honetan arautuko baita.

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

#### **2. artikulua**

Aurreko artikuluan aipatzen diren udal zentroetako jarduera eta ikastaroetan matrikulatzen direnak egongo dira behartuta ordenantza honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzera.

### **ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

#### **3. artikulua**

1. Hurrengo atalean —jardueren eta horien iraupenaren arabera— adierazten diren tarifetan finkatzen dena izango da ordenantza honen bitartez arautzen den prezio publikoaren zenbatekoa.
2. Langabezian daudela egiaztatzen dutenek ehuneko 15eko murrizketa izango dute ordenantza honetan arautzen den prezio publikoaren zenbatekoan, hots, bertan jasotako tarifetan.

### **GIZARTE ETXE ETA KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUERA ETA IKASTAROEN ARAU ETA TARIFAK**

- 1.1 Jarduera eta ikastaroak uztailean eskaintzen dira, hurrengo denboraldirako.
- 1.2 Udalaren gizarte-etxeetan, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, kirol-instalazioetan eta adinekoentzako zentro soziokulturaletan eman beharko da izena jarduera horietan parte hartzeko, edo Udalaren webgunearen bitartez, kasu bakoitzeko arau partikularrak aintzat harturik.
- 1.3 Izena ematen duenak, hala prezio arrunta ordainduko badu nola prezio murriztua ordainduko badu, aldeztu behar dituzte beharrezko baldintzak oro.
- 1.4 Jardueretan parte hartzeko bi modu izango dira: dela zozketaren bidez, dela zuzenean izena emanda (iritsi ahala). Sistema bat nahiz bestea ezartzen delarik ere, garaiz jakinaraziko da, denboraldiko jardueren eskaintza argitara ematen denean.
- 1.5 Zentroan bertan —txartela erabilia—, udalaren web-orriaren bitartez nahiz bankuko kontuan ordaindu ahal izango da jarduera. Nolanahi ere, bi egun balioduneko epea izango da ordaintzeko, eta epe hori igaroz gero galdu egingo da dena delako jardueran lekua izateko eskubidea.

1.6 Langabezian daudenentzako prezio murriztua baliatzekotan, Lanbideren inskripzioaldien ziurtagiria edo inskripzio-aldien txostena aurkeztuz justifikatu beharko da egoera hori. Ordainketa egin aurreko zazpi egunetan jaulkia izan beharko du agiri horrek. Izena ematean aurkeztu beharko da agiri hori, dela bertatik bertara, dela horretarako prestatutako web-inprimakiaren bitartez. Azken kasu horretan, hobaririk gabe ordaindu beharko da tarifa eta, gerora, aurkeztutako agiria egiaztatu ondoren, aldea itzuliko du Udalak.

1.7 Eskabidea jarduera hasten den eguna baino lehenago egiten bada itzuliko da ordaindutako diru-kopurua. Nolanahi ere, ordaindutakoaren ehuneko 15 atxikiko da halakoetan, kudeaketa-gastuak direla eta. Euskara sustatzeko jardueri dagokienez, itzulketa zazpi egun naturaleko aurrerapenarekin eskatu beharko da, izena emateko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita

1.8 Erantsitako taulan zehaztutakoak izango dira prezio publikoak, eta udalbatzak horiek onartzeko hartutako erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aplikatuko dira.

1.9 Prezio murriztuak ezartzen dira, talde hauentzat:

- Udalaren kirol instalazioetako abonatuentzat, gizarte etxeetako jardueri dagokienez, euskara sustatzeko jarduerak salbu.
- Arazo bereziak dituzten pertsonak ordaintzetik salbuetsita geratuko dira, oinarrizko gizarte zerbitzuek hala proposatuz gero, eta era berean hiriko kolektibo sozialek eskatzen dituzten jarduerak, beren interes eta beharren parte bati erantzutera zuzenduak, Gasteizko Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskola proiektuaren barruan egiten direlarik.
- Osasun Publikoko Zerbitzuaren helburuen arabera lehentasuna duten kolektiboek zuzendutako Osasuna Sustatzeko jarduerak ordaintzetik salbuetsita geratuko dira, Zerbitzuburuak emandako txostenaren haritik, non salbuetsi nahi diren jarduerak eta horiek Osasun Publikoko Zerbitzuaren helburuekin duten zuzeneko eta berehalako harremana zehaztu beharko baitira. Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiak gainbegiratu beharko du txosten hori.

Hauetaz izango dira prezio publiko honen tarifak:

## **I. GIZARTE ETXE ETA KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUERA ETA IKASTAROEN PREZIO PUBLIKOA**

### **GIZARTE ETXE ETA KIROL INSTALAZIOETAKO JARDUEREN PREZIOAK (2022-2023 IKASTURTEA)**

#### **KIROL- ETA KULTURA-JARDUERAK**

<b>JARDUERAK</b>	<b>NORENTZAT</b>	<b>ORDU KOPURUA</b>	<b>ABONATUA EZ DENA</b>	<b>ABONATUA</b>
KIROL JARDUERAK, IRAKASKUNTZA	HAU. AD.	8,00	25,20 euro 14,40 euro	15,15 euro 8,65 euro
KIROL ETA MANTENTZE JARDUERAK	HAU., AD.	8,00	8,40 euro	5,05 euro
KIROL HASTAPENERAKO JARDUERAK	HAU., AD.	8,00	14,40 euro	8,65 euro
JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROA	HAU., GAZ., AD.	12,00	18,00 euro	10,75 euro
LUDOTEKAK	HAU.	6,00	11,85 euro	7,20 euro
KIROL JARDUERAK, IRAKASKUNTZA	NAG.	8,00	27,55 euro	16,55 euro

JARDUERAK	NORENTZAT	ORDU KOPURUA	ABONATUA EZ DENA	ABONATUA
KIROL ETA MANTENTZE JARDUERAK	NAG., NOR.	8,00	14,40 euro	8,65 euro
KIROL HASTAPENERAKO JARDUERAK	NAG., NOR.	8,00	16,15 euro	9,70 euro
KIROL HASTAPENERAKO JARDUERAK, OSAGARRIAK	NAG., NOR.	8,00	33,50 euro	20,10 euro
JARDUERA ARTISTIKORAKO HASTAPEN IKASTAROAK	NAG.	12,00	25,20 euro	15,15 euro
KULTUR IKASTAROAK	NAG. GAZ., AD.	10,00	28,80 euro 20,50 euro	17,25 euro 12,25 euro
GELA IREKIETAKO TXARTELA	NAG.	ikasturtea	16,45 euro	9,85 euro
NOIZBEHINKAKO JARDUERAK	AB	1,00	1,75 euro	1,05 euro

(\*) HAU.: haurrak; GAZ.: gazteak; NAG.: nagusiak; NOR.: nornahi; AD.: adinekoak.

**Kirol jarduerak, irakaskuntza:** haurrentzako, nagusientzako nahiz zaharrentzako igeriketa ikastaroak, eta antzeko kirol helburuak dituzten beste zenbait.

**Kirol eta mantentze-jarduerak:**

TONIFIKAZIORAKO JARDUERA AEROBIKOA ETA MUSIKALA, JARDUERA MUSIKALA EGUNGO ERRITMOEKIN, ABDOMINALAK ETA LUZATZE ARIKETAK, GIHARRAK SENDOTZEA, AQUAEROBICA, AQUAGIMA, AQUAPLUSA, SASOIA, BABES PERTSONALA, BALOI ERRALDOIAK, URETAKO ZIRKUITUAK, LUZATZE-ARIKETAK, GORPUTZ ADIERAZPENA, I.A.Z. (IPURMASAILAK, ABDOMINALAK, ZANGOAK), MANTENTZE GIMNASIA, G-COMBATA, G-PUMPA, JARRERA GIMNASIA, JARRERA GIMNASIA ETA LUZATZE ARIKETAK, MANTENTZE GIMNASIA ARINA, MANTENTZE IGERIKETA, SOFT TENISA, TAI JIA, YOGA eta antzeko helburuak dituzten kirol-jarduerak.

**Kirol hastapenerako jarduerak:**

OINARRI MUSIKALERA EGOKITZEA, BORROKA ARTEAK (HAURRAK), ESKALATZEA ETA ABENTURA FAMILIAN, BADMINTONA, BALOI ERRALDOIAK (HAURRAK), BILLARRA, KIROL ESKALADA, ESGRIMA (HELDUAK), ESGRIMA HISTORIKOA, CURLINGA, ZESTA-PUNTA (HELDUAK), FRONTENISA (HELDUAK), ARGENTINAR PALETA (HELDUAK), GOMAZKO PALETA (HELDUAK), ESKU PILOTA (HELDUAK), UR INGURUNERA OHITZEA (LAGUNTZAILEAREKIN), TXIKIENTZAKO MOTRIZITATEA (LAGUNTZAILEAREKIN), KENDOA, MUSIKA-MOTRIZITATEA, IGERIKETA (HAURTXOAK), IGERIKETA ESTILOAK (HELDUAK), IGERIKETA ESTILOAK (GAZTEAK), IGERIKETA ESTILOAK (HAURRAK), IZOTZ GAINENKO IRRISTAKETA (NAGUSIAK), IZOTZ GAINENKO IRRISTAKETA (HAURRAK), GURPIL GAINENKO IRRISTAKETA, PSIKOMOTRIZITATEA, SOFT TENISA, MAHAI TENISA, MAHAI-TENISA (HELDUAK), UZTAI-TIROA, TIRO PNEUMATIKOA, RUNNINGAREN HASTAPENAK eta hastapenak ematea helburu duten antzeko kirol-jarduerak.

**Kirol hastapenerako jarduerak, osagarriak:**

URPEKO BATAIOA, URPEKARITZA, ARNAS HODIAREKIN, PADELA (NAGUSIAK), PADELA (HAURRAK), PADELA (GAZTEAK), SQUASHA (NAGUSIAK), TENISA (NAGUSIAK), TENISA (HAURRAK), TENISA (GAZTEAK) eta hastapenak ematea helburu duten antzeko kirol-jarduerak.

**Jarduera artistikorako hastapen ikastaroak:** ABESBATZAK, AFRIKAKO DANTZAK, AFRIKAKO PERKUSIOA, ANTZERKIA, APAINGARRIAK ETA ALTZARIAK ZAHARBERRITZEA, ARETO-DANTZAK, ARGAZKIGINTZA DIGITALA, ARGAZKIGINTZA SORTZAILEAREN LABORATEGIA, ARGAZKIGINTZA: ERRETRATUA, ARGAZKIGINTZA: GAUA, ARGAZKIGINTZA: NATURA, ARGI-PANTAILAK ETXERAKO, AZPILEN DEKORAZIOA, BERTSOAREN SALTSAN, BITXIGINTZA, BITXIGINTZA SORTZAILEA, BREAK DANCEA, BUZTINEZKO ESKULTURA:

BRONZE IMITAZIOA, CLOWNA, COUNTRY DANTZA, DANTZA GARAIKIDEA, DANTZA SORTZAILEA, DANTZAK FAMILIENTZAT, EHO-ZIRIAK, ESKULANAK, ESKULTURA HASTAPENAK, EUSKAL DANTZAK, EVA GOMAZKO PANPINAK, FELTROA, FILM LABURRAK MUGIKORRAZ, FLAMENKOA, FUNKYA ETA HIP-HOPA, GITARRA, GITARRA AKUSTIKOA, GREZIAKO DANTZAK: SIRTAKIA, HARA OLERKIAK, HAREAZKO KOADROAK, HIRI BARATZEA, HIRU DIMENSIOKO TEILAK, IDAZKETA AUTOBIOGRAFIKOA, IDAZKETA SORTZAILEA, IKAS ETA JOLAS MUSIKAREKIN, IKUS-ENTZUNEZKOEN HASTAPENAK: BIDEO KAMERA, INDIA ETA BOLLYWOODEKO DANTZAK, IRUDIGINTZA DIGITALA SOFTWARE LIBREA BALIATUZ, JOSTEA ERRAZA DA, KAMERA DIGITAL KONPAKTUAREN ERABILERA, KAMERA DIGITAL REFLEXAREN ERABILERA, KARIBEKO DANTZAK, KARTOIZKO ALTZARIAK, KONTAKTU ARGAZKIGINTZA, LABORATEGIKO TEKNIKA BEREZIAK, LARRUGINTZA, LORE ARTEA, MAGIA, MAKROARGAZKIGINTZA, MARKETERIA, MARKOEN DEKORAZIOA, MARRAZKETA ETA OLIOA, MARRAZKETA ETA PINTURA, MARRAZKETA ETA UR MARGOAK, MATROARTEA, MOSAIKOAK, MUSIKA ADIERAZPENA ETA ANTZEZPENA, MUSIKA ETA MUGIMENDUA, NARRATIBAREN HASTAPENAK, PATCHWORKA, PHOTOSHOP ELEMENTS: HASTAPENA ETA ARGAZKIGINTZA, PINTURA AKRILIKOA, PINTURA MODERNOA ETA HIRU DIMENSIOKOA, PINTURA: OIHALA ETA ZETA, PUNTADAK ETA JOSTURAK: JOSKETA-ESKULANGINTZA, SABEL-DANTZA, SALSA ETA MERENGEA, SEVILLANAK, TANGOA, TRAPUA: POLTSAK ETA OSAGARRIAK, TRIKOTATZEA ETA GAKORRATZA, TXALAPARTA, ZERAMIKA, ZURA LANTZEA, ZURI BELTZEKO NEGATIBOAK ERREBELATZEA ETA POSITIBATZEA, eta jarduera artistikorako hastapenetako antzekoak.

**Kultur ikastaroak:** hainbat gairi buruzko ikastaroak, oro har teorikoak, irizpidetzat ezagupenak zabaltzea eta prestakuntza eskaintzea harturik, herritarrei kulturaren alor ezberdinak modu didaktiko eta atseginean hurbildu nahian.

## OSASUN ETA KONTSUMO JARDUERAK

Jarduera	Norentzat	Ordu kop.	ABONATUA EZ DENA	ABONATUA
Osasun sustapenerako ikastaroak	NAG., NOR.	8:00	25,20 euro	15,10 euro

NAG.: nagusiak; NOR.: nornahi

## EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK

Ageri diren tarifak hilekoak dira. Ezarritakoa baino ordu gutxiago edo gehiago egiten den hilabeteetan, hilabete horri dagokion prezioa hainbanatu egingo da.

55 URTETIK GORAKOENTZAKO EUSKARA- IKASTAROAK	6,80 euro*
MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO LANGILEENTZAKO EUSKARA-IKASTAROAK	50,10 euro. Ikastaroak 60 ordu irauten du.
ATZERRITARRENTZAKO EUSKARA- IKASTAROAK	10,10 euro. Ikastaroak 60 ordu irauten du (HABEren dirulaguntzaz)
GURASOENTZAKO EUSKARA-IKASTAROAK  (166 ordu)	17,40 euro [*]. Matrikula arrunta (ez da beharrezko gutxienez % 80ko asistentzia egiaztatzea).  13,80 euro*. Matrikula murriztua ikasle berrientzat edo aurreko ikastaroan asistentzia ona (% 80) izan zutenentzat.
Euskara Biziberritzeko Ekintza Planean	Aurreko prezioa (gurasoentzako euskara

lehentasunez kotzat jotako taldeentzako beste ikastaro batzuk	ikastaroak) hartuko da erreferentziatzen, eta hainbanatu egingo da ordu kopuruaren arabera.
---	---

\* batez markatutako ikastaroetan, hileko prezioa da tarifa. Ezarritakoa baino ordu gutxiago edo gehiago egiten den hilabeteetan, hilabete horri dagokion prezioa hainbanatu egingo da.

## PROGRAMAZIO SOZIO-KOMUNITARIOKO JARDUERAK

Ageri diren tarifak hilekoak dira. Taulan ezarritakoa baino ordu gutxiago edo gehiago egiten den hilabeteetan, hilabete horri dagokion prezioa hainbanatu egingo da.

### PROGRAMAZIO SOZIO-KOMUNITARIOKO JARDUERAK

JARDUERAK	ORDU KOPURUA	ABONATU A EZ DENA	ABONATU A
KOLEKTIBO JAKINEI —HAURRAK, GAZTEAK, FAMILIAK, ADINEKOAK— ZUZENDUTAKO JARDUERAK	10,00	7,90 euro	4,75 euro
GAINERAKO JARDUERAK	10,00	10,80 euro	6,55 euro

**Sustapen sozio-komunitarioak:** "ADINEKOAK KONPAINIA ONEAN" TALDE EGONKORRA; "EGUNEAN EGON" TALDE EGONKORRA; 0-3 URTEKO HAURREN GURASOENTZAKO LANTEGIAK; ADINEKOEN SOLASALDIAK, IKASTEKO TXOKOA ; ADINEKOENTZAKO MUSIKOTERAPIA; ARAUAK ETA MUGAK: "SEME-ALABEN AURREAN ZEURE BURUA BALIARAZI"; AUTOZAINKETA ETA OSASUN NATURALA; BARRETERAPIA; BIODANTZA; EKOJOKUA; ELKARRIZKETA, ARAZOAK KONPONTZEKO TRESNA; EMAKUME, ZEURE ONERAKO, IKAS EZAZU GAZTELERA; EMAKUMEAK ELKARTZEKO GUNEA; ERLAXAZIOA; ERORKETEN PREBENTZIOA; ERRITMOTERAPIA; ESTIMULU BIDEZKO ANIMAZIOA; ETXEKO EKONOMIA ANTOLATZEA; FAMILIA BARRUAN AKORDIOAK HITZARTZEKO ARTEA; FUTBOLAREN BITARTEKO HEZIKETA PROIEKTUA; GAZTEAK DANTZAN; GAZTELERA, ETA ZERBAIT GEHIAGO, EMAKUME MAGREBTARRENTZAT; GAZTERIA ETA EMOZIO-ARTEA; GAZTERIA, EMOZIOA ETA MUGIMENDUA; GOGORATZEN IKASI ETA EZ DUZU AHAZTUKO ADINEKOENTZAKO AUTOZAINKETA ETA JARDUERA ANITZAK; GURASO BAKARREKO FAMILIAK; GURASO-TREBETASUNAK; GURASO-TREBETASUNAK (PRÓLOGO PROGRAMA); HAUR JOLASAK; HAURTZAIN BIRTUALAK: BABESTU SEME-ALABAK SARETIK; HEZIKETA GURPIL GAINEAN; HILAREN AMAIERARA ZENBAKI GORRIRIK GABE HELTZEA; HIRIAN BARRENA ZIUR IBILI ETA GIDATU; IKASKETARAKO MOTIBAZIOA; IKASKETA-TXOKO IREKIA; JARDUERA ANITZAK/ HAURRENTZAKO SUKALDARITZA; JOLASAK NAHASIAN; KAFE-SOLASALDIAK; KIROLA BAINO GEHIAGO; LANBIDEETAKO GAZTELANIA TEKNIKOA; LAPURRETA ETA IRUZURREN PREBENTZIOA; MAGREBEKO EMAKUMEAK; MAGREBEKO EMAKUMEAK (JARRAIPENA); NERABEENTZAKO EMOZIO LANTEGIA; NERABEZAROTERAPIA; NIRE SEME/ALABA NERABEA; ONGI SENTITZEA 60 URTEETATIK AURRERA; OROIMENA ETA NORBERE BURUAREN ZAINKETA; OROIMENA NOLA HOBETU; SENDABIDE NATURALAK; SENIDEGUNE "FAMILIENTZAKO GUNEA"; SUKALDARITZA; ZAHARTZAROAN ERE OSASUNTU, eta antzekoak.

## BERDINTASUNERAKO JARDUERAK

Jarduera	Norentzat	Ordu kop.	ABONATUA EZ DENA	ABONATUA
Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako ikastaroak	NOR.	5:00	8,40 euro	5,05 euro

- NOR.: nornahi

## II. 'BIZAN' SAREKO JARDUERA ETA IKASTAROEN PREZIO PUBLIKOA – 2022 IKASTURTEA

Herria	Gaia	Asteko ordu-kopurua	Tarifa arrunta	Abonatuen tarifa,	Tarifa berezia,	
<b>Jarduera</b>						
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	04:00	44,90 euro	26,90 euro	22,45 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	3:00	33,70 euro	20,20 euro	16,85 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	2:30	28,30 euro	17,00 euro	14,15 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	2:00	22,50 euro	13,50 euro	11,25 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	1:00	11,30 euro	6,80 euro	5,65 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	1:15	14,10 euro	8,50 euro	7,05 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	1:30	17,00 euro	10,20 euro	8,50 euro

<b>Herria</b>	<b>Gaia</b>	<b>Asteko ordu-kopurua</b>	<b>Tarifa arrunta</b>	<b>Abonatuena tarifa,</b>	<b>Tarifa berezia,</b>
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	A	0:45	8,50 euro	5,10 euro	4,25 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	4H	1:30	8,50 euro	5,10 euro	4,25 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	4M	2:00	11,30 euro	6,80 euro	5,65 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	4M	2:30	14,10 euro	8,50 euro	7,05 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	4H	3:00	17,00 euro	10,20 euro	8,50 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	3M	1:00	4,30 euro	2,60 euro	2,15 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	3M	1:30	6,30 euro	3,80 euro	3,15 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	3M	2:00	8,50 euro	5,10 euro	4,25 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	3M	3:00	12,70 euro	7,65 euro	6,35 euro
Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	2M	1:15	3,50 euro	2,10 euro	1,75 euro
Jarduera artistikorako	2M	1:30	4,30 euro	2,60 euro	2,15 euro

<b>Herria</b>	<b>Gaia</b>	<b>Asteko ordu-kopurua</b>	<b>Tarifa arrunta</b>	<b>Abonatuen tarifa,</b>	<b>Tarifa berezia,</b>	
	eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.					
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	2M	2:00	5,70 euro	3,45 euro	2,85 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	2M	3:00	8,40 euro	5,05 euro	4,20 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	1M	1:00	1,50 euro	0,90 euro	0,75 euro
	Jarduera artistikorako eta lehen edo bigarren mailako prebentziorako lantegi, ikastaro eta taldeak.	1M	1:30	2,10 euro	1,30 euro	1,05 euro
	Erorketen prebentziorako lantegiak	4M	2:30	8,90 euro	5,30 euro	4,45 euro
	Gela irekiak			7,00 euro	4,20 euro	3,50 euro
	Jarduera puntuala		2:00	2,10 euro	1,30 euro	1,05 euro
	Saio puntuala		1:30	1,60 euro	1,00 euro	0,80 euro

### **III. SUHILTZAILEEN ETXEKO IKASTAROEN PREZIO PUBLIKOAK**

Suak itzaltzearen inguruko prestakuntza ikastaroak 20,80 euroko prezioa izango du ikasturte eta pertsonako.

Prezio honetatik salbuetsita daude suhiltzaileen etxean emandako ikastaroetan parte hartzen duten ikastetxe publiko edo hitzartuetako unibertsitateaz kanpoko ikasleak.

### **IV. INGURUMEN SUSTAPENA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

Adierazten diren tarifak orduko dira.

<b>JARDUERAK</b>	<b>NORENTZAT</b>	<b>ORDUAK</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
<b>FAMILIENTZAKO</b>	HAU., NOR.	Iraupen aldakorra	1,20 euro (ORDUKO)

<b>JARDUERAK</b>			
<b>LANTEGI ETA IKASTAROAK</b>	NAG., NOR.	Iraupen aldakorra	2,10 euro (ORDUKO)
	AD.		1,40 euro (ORDUKO)
<b>NATURAKO JARDUERA ETA IBILBIDEAK</b>	NAG., NOR.	Iraupen aldakorra	2,10 euro (ORDUKO)
	AD.		1,40 euro (ORDUKO)

HAU.: haurrak; NAG.: nagusiak; NOR.: nornahi; AD.: 60 urtetik gorakoak.

Familienezako jarduerak: ANTZERKIA, HAUR ETA FAMILIENZAKO LANTEGIAK, IPUIN KONTALARIAK, TXOTXONGILOAK eta antzekoak.

Lantegi eta ikastaroak: ARBOLAZAINTZA LANTEGIAK, ARTILEA, BARATZEZAINZTA EKOLOGIKORAKO IKASTAROA, BARATZEZAINZTA LANTEGIAK, BIOESTADISTIKA, EZTIA, FAUNA ETA FLORA IDENTIFIKATZEA, FAUNAREN DATAZIOA, GAZTA ETA ABAR), INGURUMEN HEZKUNTZA, INGURUMENARI ETA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO IKASTARO ETA LANTEGI TEKNIKOAK (FAUNA ETA FLORAREN KUDEAKETA, LANDARE BALIAGARRIAK, LOREZAINZTA LANTEGIAK, NATURAKO PRODUKTUEN LANTEGIAK (KONTSERBAK, NATURAREN ARGAZKIAK ETA BIDEOAK, OGIA, PINTURA LANTEGIAK, TELEDETEKZIOA ETA GPS) eta antzekoak.

**Naturako jarduera eta ibilbideak:** ANFIBIOEN UGALKETA ETA GORTEIATZEA), ERAZTUN BERDEKO PARKEETAN BARRENA, FAUNA ETA FLORAREN ARGAZKIAK EGITEKO IBILBIDEAK, FAUNA ETA FLORAREN BEHAKETA (HEGAZTIAK BEHATZEA, FOSILAK BILATZEKO GEOLOGI IBILBIDEAK , HEGAZTI ETA SAGUZARREN HABIEN JARRAIPENA), HEGAZTIEN SASOIKO GERTAKARIAK, IBILBIDE GIDATUAK, INGURUNE NATURALETAKO IBILBIDEAK, NATURAKO GERTAKARIEN BEHAKETA (OREINEN MARRUAK, ORNOGABEAK BEHATZEA, SAGUZARRAK BEHATZEA eta antzekoak.

Ingurumenaren arloko solasaldiak, hitzaldiak eta zenbait zabalkunde-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera doan izango dira.

Prezio murriztuak ezartzen dira, talde hauentzat:

- Udal instalazioetako abonatuentzat: ehuneko 40eko deskontua.
- Arazo bereziak dituzten pertsonak ordaintzetik salbuetsita geratuko dira, oinarrizko gizarte zerbitzuek hala proposatuz gero.

### **Xedapen gehigarria**

Arrazoi sistematikoak zirela medio indarrean dauden legeetatik nahiz horiek garatzen dituzten bestelako arauetatik ordenantza fiskal honetara aldatu diren aginduak besterik gabe joko dira aldatutzat edo ordeztutzat jatorrizko lege-arau eta araudi horiek aldatzen direlarik.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**



## **8.14 EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

### **KONTZEPTUA**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Ezkontza zibilak egiteko zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoak", zein ordenantza honetan arautuko baitira.

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

#### **2. artikulua**

Udaletxean ezkontza zibilak egiten direnean eskaintzen diren administrazio zerbitzuak hartzen ditu bere baitan epigrafe honek.

Ezkontzea eskatzen duten pertsonak egongo dira behartuta prezio publikoa ordaintzera, eskatzen zaizkien agiriak aurkeztu ondoren ezkontza udaletxean egiteko eguna eta ordua erreserbatzen zaizkielarik.

### **ZENBATEKOA**

Ezkontza zibilak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoa hauxe izango da:  
Eskabide bakoitzeko..... 167,72 euro

Udal zerbitzu hori eskatu dutenek izapideekin jarraitzeari uko egiten badiote, ezkontza zibila egiteko erreserbatutako eguna baino gutxienez 30 egun natural lehenago egin ere, eskubidea izango dute tasaren zenbatekoaren % 50 itzul dakien, eta okerreko diru-sarrerak itzultzeko lege-arauei jarraiki izapidetuko da itzulketa hori.

### **ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA**

Ezkontza egiteko eguna eta ordua erreserbatuta geratzen den unean ordainduko da prezio publikoa.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**"Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk."**



**8.15 INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU ETA JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK**

**1.- Xedea.** Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak eskaintzen dituen zerbitzu eta jardueren prezio publikoak".

**2.- Zenbatekoa.** Hauek izango dira zerbitzuengatik eta adierazten diren elementuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

<b>URARTEKO HIRI-BARATZEETAKO LURSAILAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO URTEKO TARIFA</b>		
	<b>ABONATU GABEAK *</b>	<b>ABONATUAK *</b>
18 eta 60 urte bitartekoak	77,26 euro	55,19 euro
60 urtetik gorakoak eta langabeak	66,23 euro	44,15 euro

<b>Ataria, Salburuko hezeguneak interpretatzeko zentroko bizikleta-mailegua</b>				
<b>JARDUERA</b>	<b>NORENTZAT</b>	<b>ORDUAK</b>	<b>ABONATU GABEAK *</b>	<b>ABONATUAK *</b>
<b>Bizikleta-mailegua, Atariako bisitariarentzat</b>	Haurrak, gazteak, nagusiak	Iraupen aldakorra	1,10 euro (bakoitzeko)	0,66 euro (bakoitzeko)
<b>Bizikleta-mailegua, Atariako bisitariarentzat</b>	Adinekoak	Iraupen aldakorra	0,66 euro (bakoitzeko)	0,39 euro (bakoitzeko)
<b>Bizikleta-mailegua, Atariako bisitariarentzat</b>	Unibertsitario-pasea dutenak	Iraupen aldakorra	0,66 euro (bakoitzeko)	

**\* ABONATUAK: kirol-instalazioetara abonatuak.**

**3.- Ordaintzera behartuak.** Ezarritako zerbitzuak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta finkatutako prezio publikoak ordaintzera.

Udalaren hiri-baratzeetan lursailak erabiltzearen prezioa.

Lursaila erabiltzeko baimena urtarrilaren 1ean dutenei eskatuko zaie prezioa.

Lursailak erabili ahal izatekotan, Aisialdiko Baratzezaintza Ekologikoa ikastaroa egina eduki beharko da.

Baratze-sailak erabiltzeko baimena doan izango da lehenengo urtean.

Urtarrilaren 31 baino lehenago lursaila erabiltzeari uko egiten bazaio, ez da ezarritako prezioa ordaindu beharko

**4.- Ordaintzeko obligazioa.** Ordenantza fiskal honetan arautzen diren zerbitzuak erabiltzen hastean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

**5.-** Honako hauek aplikatuko zaizkie finkatutako prezio publikoei: Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 46. artikulutik 52.era artekoak; Diru-bilketa Araudi Orokorra, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bitartez onetsia, eta Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorra.

#### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## 8.16 GASTEIZKO AUTOBUS-GELTOKIKO LURRAZPIKO PARKINGA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK

**1.- Xedea.** Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Gasteizko autobus-geltokiko lurrazpiko parkinga erabiltzeagatik ordaindu beharko diren prezio publikoak".

**2.- Zenbatekoa.** Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

### IBILGAILUEN ABONAMENDU-TARIFAK

<b>Hilekoa</b>	42,07 euro
<b>Egunez, astelehenetik larunbatera, 7:00etatik 20:30era</b>	31,56 euro

Oharra: hurbiltasun-txartelaren kostua horren barruan sartzen da.

### TXANDAKAKOEN TARIFAK:

22:00etatik 7:59ra minutu bakoitzeko: 0,00 euro

8:00etatik 21:59ra:

### TXANDAKAKOEN TARIFAK

<b>1. minutua</b>	0,530 euro
<b>2. minututik 30.era</b>	0,021 euro
<b>31. minututik 60.era</b>	0,031 euro
<b>61. minututik 120.era</b>	0,026 euro
<b>121. minututik 600.era</b>	0,026 euro
<b>Egunean, gehienez</b>	16,442 euro

Bidaiariei geltokira laguntzea errazte aldera, tarifaren ehuneko 100eko hobaria aplikatuko da aparkaldia 15 minutukoa edo hortik beherakoa bada.

Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa kalkulatzeko, minutu-kopurua eta minutu bakoitzeko zenbatekoa biderkatzearen emaitza gehituko zaio zati finkoari.

Sortzen den zenbatekoa bost zentimoren multiplo txikiagora biribilduko da.

### DESKONTU-BONUAK

60 minutura bonoa —deskonturik gabeko tarifaren % 50—: 1,04 euro.

**3.- Ordaintzera behartuak.** Autobus-geltokiko lurrazpiko parkingeko aparkalekuak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta finkatutako prezio publikoa ordaintzera.

**4.- Ordaintzeko obligazioa.** Autobus-geltokiko lurrazpiko parkingeko aparkalekuak erabiltzen hastean sortzen da ordaintzeko obligazioa, edozein delarik ere erabilera-modalitatea.

Gasteizko autobus geltokia ustiatzeko barne araudian xedatutakoak arautuko ditu aparkalekuen erabilera eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

**5.- BEZ.** Tarifen zenbatekoei Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatuko zaie, indarrean dagoen legediaren arabera.

**6.-** Honako hauek aplikatuko zaizkie finkatutako prezio publikoei: Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 46. artikulutik 52.era artekoak; Diru-bilketa Araudi Orokorra, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bitartez onetsia, eta Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorra.

### **Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

**8.17 BIZIKLETA-APARKALEKU SEGURUA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK**

**1.- Xedea.** Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Bizikleta-aparkaleku segurua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak".

**2.- Zenbatekoa.** Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

ABONAMENDUA	MODALITATEA	ZENBATEKOA
<b>MAX6</b>	Bizikleta hilabete natural batez aparkatzeko aukera ematen du, aparkalekutik hartu gabe —jarraian— gehienez <b>6 egunez</b> utziz.	6,37 euro hilean
<b>MAX3</b>	Bizikleta hilabete natural batez aparkatzeko aukera ematen du, aparkalekutik hartu gabe —jarraian— gehienez <b>3 egunez</b> utziz.	3,18 euro hilean
<b>(Egunak gainditzea</b>	Aparkatutako bizikletak —MAX6 eta MAX3 tarifek aukera ematen duten gehieneko aldia gaindituz gero— bertatik mugitu gabe egiten duen egun bakoitzeko.	0,53 euro egunean
<b>MAX1</b>	Bizikleta egun batez aparkatzeko aukera ematen du (24 orduz). Bizikleta bertatik mugitu gabe egiten <b>hortik gorako egun bakoitzeko</b> 1,06 euro egunean ordaindu beharko da.	1,06 euro egunean
<b>APARKALEKUA JATORRIAN</b>	Esleitutako denboran, bizikleta aparkaleku jakin batean (egoiliarren modalitaterako prestatu direnen artean) esleitutako leku jakinean aparkatzeko aukera ematen du	15,60 euro hilean

**3.- Ordaintzera behartuak.** Bizikleta-aparkaleku seguruak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta finkatutako prezio publikoa ordaintzera, edozein modalitate baliatzen dutelarik ere.

**4.- Ordaintzeko obligazioa.** Bizikleta-aparkaleku seguruak erabiltzen hastean sortzen da ordaintzeko obligazioa, edozein modalitate baliatzen delarik ere; orobat, eskatzaileari aparkalekua esleitu zaiotenean sortuko da, betiere adierazitako egonaldiaren arabera.

**5.- Kudeaketa-arauak.** Ordainketa sistema erabiltzeko aplikazio informatikoaren bidez egingo da. Espazio Publikoaren eta Auzoen Sailari dagokio espazioak eta horien erabilera esleitzeko arauak ematea, alor hori arautzen duen araudi propioaren arabera.

**Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**“Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.”**

## 8.18 BISITA TURISTIKO GIDATUEN PREZIO PUBLIKOAK

**1.- Xedea.** Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Erdi Aroko hiriguneko eta Santa Maria katedralako bisita turistiko gidatuen prezio publikoak".

**2.- Zenbatekoa.** Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

BISITA MOTA	ZENBATEKOA
Erdi Aroko hirigunearen eta harresiaren bisita *	5,30 euro
Erdi Aroko hirigunearen, katedralaren eta harresiaren bisita *	7,00 euro
Bisita gidatua tren turistikoan	
Banakakoa	5,30 euro
0 a 4 urte eserlekurik gabe	0,00 euro
0 a 4 urte eserlekuan	4,20 euro
10 pertsona edo gehiagoko taldeak pertsona bakoitzeko	4,20 euro
Talde antolatuaentzako tren osoa	166,40 euro

\* 12 urtetik beherakoak: doan.

**3.- Ordaintzera behartuak.** Zerbitzu horiek erabiltzen dituztenak egongo dira ezarritako prezio publikoa ordaintzera behartuta.

**4.- Ordaintzeko obligazioa.** Bisita turistiko gidatua eskatzen den unean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

### Azken xedapena

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**"Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua –2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk."**



**8.19 AUTOKARABANENTZAKO EREMUA ETA BERTAKO ZERBITZUAK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK**

**1.- Xedea.** Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.e) artikuluan eta, horren haritik, 46.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Autokarabanentzako eremua eta bertako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak".

**2.- Zenbatekoa.** Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

BISITA-MOTA	MODALITATEA	ZENBATEKOA
Gaua ematea (karga elektrikoa barne)	Autokarabana aparkatzeko baimena, barne hartuta ur-hornidura, deposituen hustuketa eta hornidura elektrikoa. Gehieneko egonaldia: 72 ordu	15,00 euro
Gaua ematea (karga elektrikorik gabe)	Autokarabana aparkatzeko baimena, barne hartuta ur-hornidura eta deposituen hustuketa. Gehieneko egonaldia: 72 ordu	10,00 euro
Urak hustea	Geldiadia egiteko baimena, gehienez ere ordubetekoa, ura husteko eta edateko ura hartzeko	5,00 euro

**3.- Ordaintzera behartuak.** Ezarritako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude Gasteizko Udalaren autokarabanen arloko zerbitzuak modalitate desberdinetan erabiltzen dituzten pertsonak.

**4.- Ordaintzeko obligazioa.** Autokarabanentzako eremuko zerbitzuak erabiltzen hasteko unean sortzen da ordaintzeko obligazioa, edozein modalitate baliatzen delarik ere.

Ordaindu beharreko tarifa aplikazio informatiko baten bidez zerbitzua eskatu eta, aukerarik bada, eskatzaileari aparkalekua esleitu zaiotenean sortuko da, betiere adierazitako egonaldiaren arabera.

Ordainketa sistema erabiltzeko aplikazio informatikoaren bidez egingo da.

**5.- Kudeaketa-arauak.** Espazio Publikoaren eta Auzoen Sailari dagokio espazioak eta horien erabilera esleitzeko arauak ematea, alor hori arautzen duen araudi propioaren arabera.

**Azken xedapena**

Behin betiko onespeneraren erabakia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.

**"Udalbatzaren 2024ko urriaren 18ko bilkuran onetsitako testua —2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk."**



## **9. KONTRIBUZIO BEREZIEEN ORDENANTZA FISKAL OROKORRA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako foru dekretuaren 2.1.b) eta 31 artikuluetan xedatutakoaren haritik, Gasteizko Udalak onespina eman dio subjektu pasiboetara onura edo ondasunen balioaren gehikuntza eragiten dieten obrak egiteko zein udal-zerbitzuak ezarri edo handitzeko kontribuzio berezien ordenantza orokorrari.

#### **2. artikulua**

Udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau.

### **II. EGITATE ZERGAGARRIA**

#### **3. artikulua**

Kontribuzio berezien egitate zergagarria subjektu pasiboak onura edo bere ondasunaren balio-gehikuntza lortzea da, Udalak herri lanak egitearen edo udal zerbitzu publikoak ezartze edo handitzearen ondorioengatik.

#### **4. artikulua**

1. Honako hauek joko dira udal lan eta zerbitzuetan:
  - a) Gasteizko Udalak bere kompetentzien eremuaren barnean egiten dituenak, eman zaizkion helburuak betetzeko, bere ondare-ondasunetan, jabe bezala, egiten dituenak izan ezik.
  - b) Gasteizko Udalak egiten dituenak beste Erakunde Publikoek eman edo eskuordetu egin dizkiotelako, eta baita legeriaren arabera beraien titularitatea hartu dituenak ere.
  - c) Beste erakunde publiko batzuek edo horien emakidadunek egiten dituztenak, udalak hartarako diru ekarpena egin badu.
2. Ez dute udal zerbitzu edo lan kontsiderazioa galduko aurreko zenbakiaren a) letran daudenek, nahiz eta Erakunde Autonomoek edo Merkataritza Elkarrekin bere kapital soziala oso osorik Gasteiz udalarena denean burutu. Era berean udal laguntza emakidadunek edo zergapeko administrazioeko elkarteek eginak izan.

#### **5. artikulua**

Zerga bereziengatik bildutako diru kopuruak bakarrik eskatuak izan ziren lanaren edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko erabili ahal izango dira.

### **III. SUBJETU PASIBOA**

#### **6. artikulua**

1. Zerga berezien subjektu pasiboak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. idatz-zatian aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta Erakundeak, ordaintzeko beharra sortzen duten lanak egiteagatik edo udal zerbitzuak ezartzeagatik edo handitzeagatik bereziki oneginak direnak.
2. Honako hauek joko dira pertsona bereziki onegintzat:
  - a) Ondasun higiezinak eragiten dioten lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik zerga berezietan, beroien jabeak.
  - b) Zerga berezietan Enpresetako ustiaketen ondorioko lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik enpresetako titularrak diren pertsonak edo erakundeak.
  - c) Zerga berezietan, su-itzalketa zerbitzuen hobekuntzagatik edo zabaltzeagatik, eragindako ondasunen jabeek gain arlo horretan udal murgatean bere eginkizuna garatzen duten Aseguru Konpainiak.
  - d) Zerga berezietan lurrazpiko barne-bideak eraikitzeagatik erabili behar dituzten eraikitze-enpresak.
3. Jabetza horizontal erregimenaren kasuetan, jabe-elkargoaren ordezkariak Udal Administrazioari jabe guztien izenak eta elkargoan duten partizipazio koefizientea eman behar dizkio, banakako kuoten bidalketa egiteko. Horrela egiten ez bada, kuota bakar horren bidalketa onartuko dela ulertzeko da kuota horren banaketa komunitate beraren eskuetan geratzen delarik.

### **IV. OINARRI ZERGAGARRIA**

#### **7. artikulua**

1. Zerga berezien oinarri zergagarria, gehienez, lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik Udalak eusten duen %90eko kostuak osatuko du. Udalak, ordenaketa akordioa hartzen duenean, kasu bakoitzean portzentu ezargarria finkatuko du.
2. Aipatutako kostua hurrengo kontzeptuez osaturik egongo da:
  - a) Perituzko lan, proiektuen idazketa eta lan, plan eta programa teknikoaren zuzendaritzaren kostu erreala.
  - b) Egin behar diren lan edo ezarri edo handitu behar diren zerbitzuen zenbatekoa.
  - c) Lanek edo zerbitzuek iraunkorrean hartu behar luketen lursailen balioa, erabilpen publikorako ondasunak badira salbu. Udalari dohain eta beharrez utzitako lursailak, edo legerian ezarritako mugetan utzitako eraikinak baldin badira.
  - d) Gertaera hauengatik etorritako indemnitazioak: eraikinak botatzea, landaretzak, obrak eta instalazioak suntsitzea, baita okupatu edo suntsituak izan behar diren ondasunen errentariei dagozkienak ere.
  - e) Lanetan edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, Udalak kreditua erabili behar izango balu zerga bereziek estaltzen ez duten zatikoa finantzatzeko edo zerga hauek estaltzen dutena hauen orokorreko zatiketa ematen denean.
3. Lanen edo zerbitzuen aurrekontuetako kostu osoak, bakarrik aurreikuspen izaera edukiko du. Egiazko kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izango balitz, hura hartuko da dagozkion kuoten kalkuluaren ondorioetarako.

4. 4.1.c) artikulua aipatzen dituen lanak edo zerbitzuak direnean, edo artikulua beraren 2.zenbakiak aipatzen dituen udal laguntzaz hartzaileek egindako lanak direnean, zerga berezien oinarri zergagarria diru emate hauen zenbatekoaren arabera zehaztuko da, beste Administrazio Publikoek ezarri ditzaketenak kaltetu gabe. Beti, artikulua honen lehen zenbakiak aipatzen duen %90aren muga errespetatuko da.
5. Oinarri zergagarria zehazteko, Udal Administrazioak jasandako kostutzat kenketa honen emaitza joko da: kostu osoaren zenbatekoari Udal Administrazioak eskuratzen dituen subentzio edo laguntzetako zenbatekoa kenduz.
6. Aipatutako subentzioa edo laguntza zerga bereziaren subjektu pasibo batek ematen bada, bere zenbatekoa lehendabizi dagokion pertsona edo entitatearen kuota konpentsatzera destinatuko du. Subentzioaren edo laguntzaren balioa kuota hori baino handiago izango balitz, gainontzekoak beste subjektu pasiboen kuotak hainbananduz gutxiagotuko lirateke.

## **V. KUOTA**

### **8. artikulua**

Zerga berezien oinarri zergagarria subjektu pasiboen artean banatuko da, lan eta zerbitzuen izaeraren mota kontutan hartuz, eta ondorengo arauak atxikirik:

- a) Oro har, eraikuntzen fatxadaren lerroko metroak, bere lurrazala, hauen bolumen eraikigarria eta balio katastrala denak batera edo bananduz ezarriko dira, banatzeko moduluek, ondasun Higiezinaren Zergaren ondorioetarako.
- b) Su-itxalketa zerbitzuaren ezarpena, zabalpena edo hobekuntza baldin bada, banaketa udal mugartean dauden ondasunak ziurpetzen dituzten elkargo edo erakundearen artean, aurreneko urtean bildutako primen zenbatekoaren lainean egin ahal izango da. Subjektu pasibo bakoitzari eska dakiokeen kuota bera bildutako primen zenbatekoaren %5a baino handiago izango balitz, gainontzekoa hurrengo ekonomialdietara pasatuko litzateke guztia amortizatu arte.
- c) Ordenantza honen 6.artikuluaren bigarren zenbakiaren d) apartaduak aipatzen dituen lanen kasuetan, zerga bereziaren zenbateko guzti hori erabili behar dituzten elkargo edo enpresetan banatuko da, bakoitzarentzat gordetako lekuaren lainean edo beraien sekzio osoaren heinean, berehala erabili ez arren.

### **9. artikulua**

Ezargarria den araudiak edo Nazioarteko trataduek hobari fiskalak ematen badituzte onuradunei egoki ahal zaizkien kuotak ez dira beste zergapekoen artean banatuak izango.

### **10. artikulua**

Ordaindu behar den kuota zehaztuta dagoenean, bere zatiki edo gerorapena gehienez bost urteko epealdi baterako eman ahal izango du Udal Batzarrak, subjektu pasiboak hala eskatuko balu.

## **VI. ZERGAREN ZORPIDEA**

### **11. artikulua**

1. Zerga bereziak lanak egin direnean edo zerbitzua ematen hasi denean zorpidetzen dira. Lanak zatikagarriak izango balira, zorpidetza subjektu pasibo bakoitzarentzat lanaren zatiki edo tramu bakoitzari dagozkion lanak egin direnetik gauzatuko da.
2. Aurreko zenbakian xedatutakoa kaltetu gabe, zergapen eta ordenazioaren akordio zehatza onartua ondoren Gasteizko Udalak alde zuzenetik eskatu ahal izango du zerga berezien

ordainketa, hurrengo urterako aurrez-ikusitako kostuaren zenbatekoaren arabera. Urteko aurrerakina lanak burutuak izan ez badira ezingo da eskatu.

3. Zerga berezien zorpidearen unea 6. artikuluan xedatutakoaren arabera norik ordaindu behar duen zehazteko kontutan hartuko da, nahiz eta ordenazioaren akordio zehatzean agertzen den subjektu pasiboa eta bere onespeneren datakoa subjektu bera izan, eta subjektu pasibo berak kuotak aurreratu izan balitu, artikuluko honen bigarren zenbakiaren xedatutakoaren arabera. Ordenaketaren akordio zehatzean subjektu pasibotzat dagoen pertsonak gai horretaz adierazpena eskuratu duenean, eta zergapena sortarazten duten ondasunen edo ustiapenen eskubideak akordio horren onspena eta sortzapenaren sorreraren arteko dagoen aldian, egindako transmisioaren berria Udal Administrazioari jakinaraziko dio, egin denetik hilabete baten epealdiaren barruan, eta hala egingo ez balu, aipatutako Administrazioak espedientearen subjektu pasibotzat zegoenaren kontra egin ahal izango du kobratze-ekintza.
4. Lan osoa edo honen zatia bukatua izan denean, edo zerbitzuaren prestazioa hasi denean, subjektu pasiboak, behin-betiko bakoiztutako oinarri eta kuotak adieraziko dira, bidezkoak diren kitapenak igorritik, eta egindako aurre-ordainketatik kontura egindako emanaldia konpentsatuz. Aipatutako behin-betiko seinalamendua, dena delako lan edo zerbitzuarentzat, Udal Administrazioak egingo du tributuen ordenazio akordio zehatzaren indarrean dauden arauetara egokituz.
5. Aurreraturako ordainketak zergaren zorpidearen datan subjektu pasibo izaera ez dutenek egin izan balituzte, edo dagokien behin-betiko banakako kuotatik gaintutako balira, Udal Administrazioak bere kabuz bidezko itzulketa egingo luke.

## **VII. EZARPENA ETA AGINTZA**

### **12. artikulua**

1. Zerga berezien ordainerazpenak kasu bakoitzean zerga-ezarpenaren akordioaren aurretiazko hartzea beharko du.
2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu behar den lan baten egite edo zerbitzu baten ezarrera edo handitzeari buruzko akordioa, zerga berezien agintza onartzen ez den arte ezingo da egin.
3. Ordenazio akordioa hartu beharrekoa da lan eta zerbitzuen aurreikusitako kostua, onuradunen artean banatzeko den kopurua eta banatzeko erizpideen zehaztapena edukiko dituelarik. Ordenazio akordio zehatza Ordenantza honetan itzalpetuko da.
4. Kontribuzio berezien ordenazio akordio zehatza behin hartuz gero, eta ordaindu beharreko kuotak zehaztuz gero, aipatutako kuotak, indibidualki, subjektu pasibo bakoitzari jakinaraziko zaizkio, bera edo bere helbidea ezagunak izango balira, eta kontrako kasuan, ediktuz. Interesatuek Gasteizko Udalaren aurrean birjarpeneko errekurtsioa aurkezterik izango dute. Aipatutako errekurtsioak edo murtziloa kontribuzio berezien etorkia, pertsona bereziki onuradunek ordainduko behar duten kostuaren portzentaia, edo egokitutako kuotei buruz ihardungo dira.

### **13. artikulua**

1. Gasteizko Udalak beste Erakunde lokal baten laguntza ekonomikoaz Udal eskuduntzako lanak eta zerbitzuak burutzen edo egiten dituenean, eta Foru Araudian xedatutakoaren arabera zerga bereziak ezarriko diren guztietan, beraien gestioa eta bilketa zerbitzuaren ezartzeaz edo lanen egiteaz arduratzen den Erakundeak egingo ditu; horrek ez du oztopatzen Erakunde bakoitzak dagokion kompetentzia mantentzea, ezartze edo ordenaketaren akordioaren arabera.
2. Aipatutako erakunderen batek ordenaketaren akordio zehatza onartuko ez balu suposaketan, ekintzaren batasuna indarrik gabe geldituko litzateke, eta erakunde bakoitzak bidezkoak diren erabakiak hartuko litzuke.

## VIII. HIRI-LANKIDETZA

### 14. artikulua

- 1.- Lanengatik eragindako jabeek edo titularrek zergadunen Elkargo Administrazioa egin ahal izango dute lanen egite edo ezarrera edo Udal zerbitzuen zabalketa eragintzeko. Aipatutako jabeak edo titularrak lanaren edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokienaz gain, Gasteizko Udalari ordaintzea dagokion diru kopurua, honen finantz egoerak permituko ez balu, ordaintzera konprometituko dira.
- 2.- Era berean, Gasteizko Udalak eragindako lanak egitea edo zerbitzuak ezartzea edo zabaltzeagatik eragindako jabeek edo titulareek, zergapekoen Elkargo administrazioak egin ahal izango dituzte zerga berezien ordenaketaren akordioaren jendearentzat erakusteko aldian.

### 15. artikulua

Aurreko artikulua adierazten duenaren arabera zergapekoen Elkargo administrazioak eratzeko, akordioa afektatuen gehiengo absolutoz hartu beharko da, baldin eta ordaindu behar den kuoten bi herenen ordezkariak gutxienez badira.

## Ordenantzaren eranskina

### **"Kontribuzio Bereziei buruzko Ordenantza Fiskal Orokorra, Suteak Itzaltzeko Zerbitzuak ezarri eta zabaltzeari buruz"**

#### **Lehena:**

Gasteizko Udalak suteak itzaltzeko eta salbamendurako udal zerbitzua ezarri eta zabaltzeagatik kontribuzio berezia finkatu eta galdatzen du, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesteko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik.

#### **Bigarrena:**

Kontribuzio honen egitate zergagarria hauxe da: suteak itzaltzeko eta salbamendurako udal zerbitzua ezarri eta zabaltzearen ondorioz subjektu pasiboek jasotzen duten onura, eta hori zerbitzu hori ezartzeko udalak duen kompetentziari dagokionez erregimen lokaleko oinarriak arautzen dituen legearen 21.1.c) artikuluan xedatutakoaren babespean.

#### **Hirugarrena:**

Eragindako ondasunen jabeek gain, bereziki onuraduntzat joko dira Gasteizko udalerrian, beren arlo horretan, diharduten aseguru konpainiak.

#### **Laugarrena:**

- 1.- Kontribuzio berezi honen oinarri zergagarria, gehienez ere, suteak itzaltzeko eta salbamendurako zerbitzua ezarri eta zabaltzearen ondorioz udalak bere gain hartzen duen kostuaren %90a izango da gehienez ere.
- 2.- Kostu hori honako hauek osatuko dute: areto, ondasun higigarri eta higiezinen kostua, ekipo tekniko-profesionalarena, pertsonalarena, prestakuntza gastuak, ibilgailuak eta zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezko diren gainerakoak.
- 3.- Oinarri zergagarria zehazteko erakundeak bere gain hartutako kostuari udalak lortzen dituen dirulaguntza edo bestelako laguntzak kenduko zaizkio.

**Bosgarrena:**

Oinarri zergagarria Gasteizen kokatutako ondasunen arriskua estaltzen duten aseguru-konpainia edo erakundeen artean banatuko da, aurreko urtean bildutako sarien zenbatekoaren arabera proportzioan, gehienezko muga bildutako sarien %5a izanik.

**Seigarrena:**

Dena delako kuotaren ordainketa ezingo da zatitu eta atzeratu-ezina izango da.

**Zazpigarrena:**

Ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren lehenean zorpidetuko da kontribuzio berezia.

**Zortzigarrena:**

Aipatutako kontribuzio bereziaren bilketa subjektu pasiboen behar bezala onetsitako elkarteekiko hitzarmen-prozeduraren bitartez burutu ahal izango da.

**“Udalbatzaren 2022ko urriaren 19ko bilkuran onetsitako testua –2022ko  
abenduaren 30eko ALHAO, 150. zk.”**